

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

2729

77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) 14. artikuluan ezartzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko ahalmena–, gizartean bete-betean parte hartzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen du haur eta nerabe guztiek dutela hezkuntza eta irakaskuntza jasotzeko eskubidea. Bestalde, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Legeak adierazten du funtsezkoa dela haien giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespetatu daitezkeen sustatzea, indarkeria mota ororen prebentzioaren bidez. Familia eta eskola erabakigarriak dira, eskubide horiek bermatu behar dituzten heinean.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari buruzko aldaketak sartu ditu, eta horrek ekarri du martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua eta martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretua argitaratzea (hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzako gutxieneko ikasketak eta antolamendua ezartzen dituen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko ikasketak eta antolamendua ezartzen dituen). Gainera, eskumenak banatu dira berriz Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumen propioa esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen horretaz baliatuta, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskararen Erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea da euskal ikasle guztiak euskaraz zein gaztelaniaz behar adinako komunikazio-kompetentziarekin moldatzeko ahaldunduko dituen kompetentzia eleaniztunean aurrera egiteko tresna. Baita Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea ere, zeinaren helburua baita derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izatea bermatzea, baldintza-berdintasunean bermatu ere, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskaraz hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Curriculumari buruzko dekretu honen zehaztasuna helburu honi zor zaio: euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzun dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea. Hori guztia, bat etorritik UNESCOren 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (zehazki, 4. helburuarekin: «Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea»), Euskadi Basque Country 2030 Agendaren testuinguruan, eta bat etorritik etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruz 2018ko maiatzaren 22an Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendioarekin.

Dekretu hau idazteko, funtsezkoak izan da besteak beste alderdi hauek kontuan hartzea: Euskal Autonomia Erkidegoan egin den hezkuntza-ibilbidea, azken urteetan garatu diren proiektu inklusiboen inplementazioa, euskara sistemaren ardatz nagusi gisa duen esparru eleaniztun baten aldeko apustua eta hezkuntza-komunitateak partekatu eta bultzatu duen kultura pedagogikoa. Era berean, kontuan hartu dira gure inguruneko gizarte- eta hezkuntza-erronkak eta hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntza.

Horretarako, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasleek hezkuntza-xedeak erdietsita izan behar dituzte eta bizitzako esparru eta egoeretan moldatzen jakin behar dute. Horrekin bat, dekretu berriak berriz formulatzen du ikasleen irteera-profilaren kontzeptua, Heziberri 2020aren esparruan jasotzen zena, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar dituzten pertsona-eredua eta funtsezko kompetentziak azaltzen dira hor. Irteera-profila deskriptore operatiboen bidez definituta dago; lorpen-estandarrak dira, eta eraginkorrak dira ikasleek etapa amaitzean profil hori iritsi duten ebaluatzeko.

XXI. mendeko «ezagutzaren gizarteak» aldaketa sakonak dakartza berekin, eta, ondorioz, beste ezagutza batzuk eta beste gaitasun batzuk behar dira, ikasleek eskuratu beharrekoak. Hori dela eta, irakasteko eta elkarri eragiteko beste modu batzuk behar dira eskolan. Ikasleen aniztasuna dela eta, paradigmaz aldatu behar da, eta egitura malguagoak eta irakaskuntzan kolaboratzeko prozedurak sortu, baita irakasleen eta ikastetxeen arteko sareak sortu ere. Egin beharreko aldaketek eta hobekuntzek Oinarrizko Hezkuntza lehenetsi behar dute. Izan ere, hezkuntza-etapa horretan prestatu behar dira belaunaldi berriak helduarorako. Bertan ezartzen dira hezkuntzarako bizi guztirako oinarri sendoak, ikasleak beren bizitza zentzuz zuzentzeko gai izan daitezen, beren patua hauta dezaten, beren erabakien ardura har dezaten, oraingo eta etorkizuneko premiak beren gain har ditzaten, pertsonen zaintza susta dezaten eta gizartean integra daitezen, betiere modu aktiboan eta kritikoa eta arduraz parte hartuz.

Ingurumen-krisiak eta krisi humanitarioak, balioenak eta sanitarioak (emozional eta fisikoak eta COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoerak) inoiz baino gehiago eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek enpatia, autonomia, erresilientzia, espiritu kooperatibo eta kritikoa, konpromiso soziala eta ingurumenarekiko konpromisoa garatzea. Gainera, funtsezko kompetentziak garatzera bultzatu beharko da, gero eta globalizatuagoa, interdependenteagoa eta zalantzazkoagoa den eta laugarren iraultza industrialean (Industry 4.0) murgilduta dagoen mundu honetan bizitzeko eta gaur egungo gizartea ezaugarritzen duten erronka sozial handietan ondo moldatzeko.

Bestalde, garrantzizkoa da kultura bakoitzak behar horiei eskaintzen dizkien erantzunak ezauguetza, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta beste kultura batzuen ekarpenak baloratzeko edo aintzat hartzeko, kulturen arteko errespetua eta elkarrizketa bultzatuko duten kulturarteko hezkuntza-planteamenduen bidez. Era berean, garrantzizkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala onartzea, alde batera utzita sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberrako estereotipo eta rol guztiak.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru berria aurrerapauso bat da Heziberri 2020ren aurreko ereduaren aldean: Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako kompetentziek bat egiten dute, eta kompetentzia-eredu integratu bat sortzen, funtsezko kompetentzien eta kompetentzia espezifikoaren bidez definitzen dena eta Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioak (2018) dioenarekin bat datorrena.

Gure hezkuntza-eredua hobetzen jarraitzeko, dekretu hau ildo estrategiko hauen barruan errenditzen da, eta berauek izango dira dekretuan jasotako elementuak garatzeko oinarritzko erreferentziak:

- Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria; horregatik, funtsezkoak dira haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakastaren bermea, inklusibitatea, curriculumaren unibertsaltasuna eta irteera-profila, XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki aurre egiteari begira. Hori guztia, ongizate emozionalako inguru inklusibo eta seguru batean.
- Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, erakunde ahaldundua, lidergoa banatzea sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.
- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan, eta, hain zuzen, beren irakaskuntza-eremu, arlo edo ikasgaietan eta trebetasun didaktiko eta metodologikoetan duten aditu mailako ezagutza da haien lidergoaren oinarri. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo ikasleak guztiz garatzeko benetan balio duen beste edozein irakaskuntza edo ikaskuntza modalitatetan ere. Tutorearen rola etapa guztietan indartzen da, tutorea ikasleen bideratzaile eta gidari gisa hartuta, ikasle guztien elkarbizitza ona eta arrakasta lortzeari begira.
- Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen da: ikasten dena era bateko eta besteko egoeretan erabil daiteke, denboran zehar irauten du eta aukera ematen du egoera errealetan problemak konpontzeko.
- Hezkuntza linguistiko eta eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da: beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusteko eta ulertzeko eta besteekin hartu-emanak izateko era jakin bat transmititzeko. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, hizkuntza- eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeak gainerako funtsezko konpetentziak garatzera bultzatzen du, eta, beraz, beste arlo batzuen zerbitzura dago konpetentzia hori.
- Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Hezkuntza jasotzeko aukera guztiek izatea ekarriko du eta benetako integraziorako, aukera-berdintasunerako, erabateko parte-hartzerako eta eskola-arrakastarako bidea markatuko du. Ikaskuntzarako garapen unibertsala hartuko da aintzat irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.
- Hezkidetzat funtsezkoa da pertsonen sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberrako estereotipoetatik eta roletatik kanpo garatzen laguntzeko, eta bera izango da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa eta ikastetxeen antolaketa pedagogikoarentzako irizpide orientatzailea, maila eta modalitate guztietan.
- Arreta berezia jarri behar zaie ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzeari. Ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa sartzen da hor, eta norberaren gogobetetasuna ere bai, zailtasunei aurre egiteko eta haiek ondo gainditzeko segurtasuna ematen duena. Ongizate emozionala funtsezkoa da inguruneke eskaerei eta

egoerei aurre egiteko edo horietara egokitzeko, eta eskaera eta egoera horien artean dago ikaskuntza ere. Curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.

Hori guztia aintzat hartuta, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Eskola Kontseiluari entzunda, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorruta, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen xedea da Oinarrizko Hezkuntzako etapako curriculum propioa ezartzea eta hura nola ezarri, ebaluatu eta garatu arautzea. Oinarrizko Hezkuntzako etapan, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Heziketa Zikloak sartzen dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan da aplikatzekoa.

2. artikulua.– Definizioak.

Honela ulertu behar dira:

a) Helburuak: funtsezko kompetentziak eskuratuz ikasleek etaparen amaierarako iritsi beharko lituzketen lorpenak.

b) Irteera-profila: oinarrizko hezkuntza amaitzerako ikasle guztiek kompetentzietan iritsi behar duten maila, aukera emango diona bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko kompetentziak garatzen jarraitzeko.

c) Funtsezko kompetentziak: ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapenerako behar dituztenak dira, bai eta herritar-tasun aktiboa, gizarte-inklusioa eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.

d) Kompetentzia espezifikokoak: arlo eta ikasgai bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin behar duten neurriak. Kompetentzia espezifikokoak alde batetik funtsezko kompetentziak eta bestetik ikasgaietako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira.

e) Ebaluazio-irizpideak: arlo edo ikasgai bakoitzaren kompetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleek ikaskuntza-prozesuaren une jakin batean iritsi beharko lituzketen jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.

f) Oinarrizko jakintza: arlo, ikasgai edo eremuetako berezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak, edozein pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituenak kompetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunekin batera, problemak konpontzeko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko. Curriculum-proposamen honetan, kompetentzia espezifikokoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenarengatik hautatzen dira oinarrizko jakintza horiek, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen.

g) Ebaluazio hezitzailea: irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera erregulatzaila duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitze.

h) Eremua: curriculumaren antolaketa globalizatua eta diziplinartekoa, zenbait diziplina elkarren artean erlazionatzen dituena, eta ikasgaien edo arloen atalen batura baino gehiago dena. Eremuak bertan sartutako arloei edo ikasgaiari dagozkien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintza biltzen ditu.

i) Ikas-egoerak: ikasleei funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak garatzea eskatzen dieten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak aukera ematen du konpetentzien arabera ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarrian dauden jakintza eta gaitasunak uztartzen dituzten egoeratan oinarrituta egituratzeko ikasturte-programazioa edozein maila, arlo, ikasgai edo eremutan.

j) Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU): curriculumak garatzeko printzipioak dira, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen dietenak, eta haien helburua benetako inklusio eta parte-hartzea lortzea da, ikasle guztientzat ikaskuntzarako oztupoak minimizatuz eta ikasteko aukerak maximizatuz.

3. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren antolaketa.

1.– Oinarrizko Hezkuntza berezko identitatea duen hezkuntza-aldia da; erregimen arruntean, ikasleak 6 urte betetzen dituen urte naturalean hasten da, eta, oro har, 16 urterekin amaitzen da. Honela osatuta dago: Lehen Hezkuntza (sei maila ditu), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (lau maila) eta Oinarrizko Heziketa Zikloak (bi maila). Ikasleak 18 urtera arte egon daitezke Oinarrizko Hezkuntzan; zehazki, ikasturtea amaitzen den urtean 18 urte betetzen dituzten arte. Nolanahi ere, muga hori salbuespenez luzatu daiteke, 23. eta 26. artikuluetan aipatzen diren kasuetan.

2.– Lehen Hezkuntzako etapa bi mailako hiru ziklotan antolatuta dago. Etapa horretan, hezkuntza-ekintzaren bidez ahalegina egin behar da ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak ikuspegi globaletik bateratzen, eta hezkuntza-ekintza hori ikasleen lan-eritmoetara egokitu behar da.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailetan antolatuta dago. Etapa horretan, hezkuntza-ekintzaren bidez ahalegina egin behar da ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak bateratzen. Horretarako, ikasgaiak eremutan antolatu behar dira, ahal den heinean. Etapa horretan, arreta berezia jarri behar zaio ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioari. Laugarren mailak izaera propeutikoa eta orientatzailea izan behar du, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketetarako zein laneko bizitzarako.

4.– Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Zikloetako ikasketak ematen dituzten ikastetxeek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakasle-jarduna, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak ezartzen dituen alderdietan ikastetxe bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

5.– Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuaren arabera antolatu behar ditu etapako zikloak, banatu behar ditu arloak, ikasgaiak edo eremuak –hala badagokio– eta banatu behar ditu jakintzak eta haien ordutegiak ziklo bakoitzeko mailen artean, bere autonomia pedagogikoaz baliatuz eta ikasleen hezkuntza-premien arabera.

4. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak.

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da, haren bi etapen bidez, ahoz eta idatziz adierazteko eta ulertzeko trebetasunak eta trebetasun logikoak eta matematikoak garatzea eta finkatzea, eta ikasleei kulturaren oinarrizko elementuak ematea, haren eremu humanistikoan, zientifiko-teknologikoan, artistikoan eta motorrean. Ikasle guztiek bizi-ohitura osasungarriak, elkarbizitzarako ohiturak eta ikasteko eta lan egiteko ohiturak hartu eta sendotu beharko dituzte, nortasuna erabat garatzen lagunduko dien prestakuntza integrala berma dadin eta, hartara, herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak erabat balia ditzaten eta ondorengo ikasketetan hasteko eta etorkizunean laneratzeko presta daitezten.

5. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio orokorrak.

Oinarrizko Hezkuntza Euskadiko hezkuntza-sistemaren printzipioen arabera antolatuta dago.

1.– Oinarrizko Hezkuntzak unibertsa eta derrigorrezkoa izan behar du ezagutza-maila eta -azpiero guztietako hezkuntza-jarduketei eta -jardueri dagokienez, eta inklusioa eta ekitate bermatu behar ditu ikasleen artean.

2.– Oinarrizko Hezkuntzan, garrantzi berezia eman behar zaie ikasleen arretari eta hezkuntza-orientazioari, nor bere burua ezagutzera, gaitasunak ahal den gehiena garatzera eta prestatzen jarraitzera bultzatzeko. Ikasleen autonomia bultzatu behar da eta lan-ohiturak indartu. Ikastetxeek gurasoekin eta legezko tutoreekin batera lan egin behar dute hezkuntza-prozesua babesteko.

3.– Oinarrizko Hezkuntza hezigarria eta orientagarria da garapen pertsonalaren, familiarren, soziokulturalaren, akademikoaren eta profesionalaren eremuekin lotutako alderdietan. Irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta modu bateratu eta koordinatuan lan egiten dute, dagokien hezkuntza-etapatik eta curriculum-arlotik abiatuta, hezkuntzaren ardura partekatzen dutenekin –nagusiki, gurasoekin edo legezko tutoreekin– lankidetzan jardunez, baita instantzia eta eragile sozializatzaileekin eta hezkuntzakoekin ere.

4.– Oinarrizko Hezkuntzako curriculum honako hauei begira zehaztu eta garatu behar da: ikasle guztien gizarte-inklusioko lortzea, garapen pertsonal orekatua izatea, herritartasun kritiko, berdinzalea, aktiboa eta konstruktiboa eraikitzea eta geroko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztea. Helburu horiek hertsiki erlazionatuta daude I. eranskinean zehazten den irteera-profilarekin.

5.– Oinarrizko Hezkuntzak bermatu behar du koherentzia dagoela bera osatzen duten bi etapen artean. Era berean, ziurtatu behar da ikasleak behar bezala igarotzen direla Haur Hezkuntzatik Oinarrizko Hezkuntzara eta Oinarrizko Hezkuntzatik Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokora.

6.– Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskaini behar ditu, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrilotik eta androzentrilotik, eta ikuspegi hori modu pertsonalizatuan egokitu behar da ikasleen bilakaerara eta ikasteko erritmora.

7.– Hezkuntza-praktika prestakuntza-eredu kolaboratibo batean oinarritu behar da, dinamika globalizatuak eta kooperatiboak bultzatzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietarantz joko da. Era berean, ikaslea bere ikaskuntzaren motorra izango den kultura bat sustatu behar da.

8.– Oinarrizko Hezkuntzak ikuspegi humanista batetik prestatuko ditu ikasleak, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa eraikitzeke moduko jakintza eta balioak berenganatu ditzaten. Horretarako, alderdi kognitiboak, emozionalak eta etikoak uztartu beharko dira.

9.– Ikastetxeek, ikasleak onartzeko araudiaren arabera, aukera-berdintasuna sustatu behar dute eskolaratzean eta eskolako ibilbidean. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko neurri inklusiboak hartu behar dituzte desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen alde, hezkuntza-prozesuan laguntzeko eta eskola-porrotari aurrea hartzeko.

10.– Oinarrizko Hezkuntzako arloek eta ikasgaiek curriculumean euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoak txertatu behar dute, eta funtsezko kompetentziak alderdi guztietatik garatzen lagundu.

6. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.

1.– Ikastetxeek, inklusioaren eta ekitatearen printzipioa aplikatzen dela bermatzeko, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta prestatu behar dituzte etapa honetako ikasle guztientzako proposamen pedagogikoak. Era berean, ikasleen ikasteko askotariko erritmoak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarri behar dituzte.

2.– Hezkuntza-arloak lan egin behar du modu progresiboan garatzeko eta finkatzeko ikasle bakoitzari Oinarrizko Hezkuntza amaitzeko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko kompetentziak behar bezala eskuratzeko bidea emango dioten oinarriak, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta. Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasleek gai izan beharko lukete garapen jasangarrirako helburuei begira aldaketak eragiteko eta erronkei aurre egiteko.

3.– Honako hauek bermatu behar dira: hezkuntza- eta hizkuntza-inklusioa; arreta pertsonalizatua; ikasleek ikastetxeko egituretan eta elkarbizitzan parte hartzea; ikasteko zailtasun espezifikoak eta gaitasun handiko ikasleak goiz hautematea, eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beharrezkoak diren beste neurri batzuk abian jartzea. Hezkuntza-inklusioa bermatzeko hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraitu behar diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten.

4.– Konpetentzia-curriculumak ikaskuntza sakon eta funtzional batera bideratuta dago, ikasitakoak hartara askotariko inguruneetan balio izateko eta erabiltzeko, denboran irauteko eta orotariko egoeretan baliatu eta problemak konpontzeko.

5.– Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia eman behar zaio Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleek bete behar duten irteera-profilean ezarritako konpetentziak lortzeari eta garatzeari, eta ahozko eta idatzizko adierazpide zuzena sustatuko da, baita matematikaren erabilera ere. Irakurtzeko ohitura sustatze aldera, ikasgai guztien irakaskuntzan denbora hartu behar da era bateko eta besteko testu motak irakurtzea dakarten jardueretarako.

6.– Ikasitakoa barneratzen laguntzeko, beharrezkoa da eskola-ordutegian tarte bat hartzea zeharkako proiektu adierazgarriak eta garrantzitsuak egiteko eta arazoak elkarlanean konpontzeko, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu daitezen.

7.– Arlo, ikasgai edo eremu guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibiltate estetikoa eta sorkuntza artistikoa,

jasangarritasunerako eta kontsumo arduraturako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko kooperazioa.

8.– Lehentasunezko zat jotzen da haurren eta gazteen ongizate emozionalari arreta berezia jartzea. Ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egin eta ondo gainditu ahal izateko gogobetetasun-esperientzia sartzen dira hor. Bereziki, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat –indarkeria matxista, LGBTIfobikoa edo arrazista edo dibertsitate-gaiei lotua– jasaten denean sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari.

9.– Hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako atea izanik, ikasteko prozesuaren erdigunean dago. Hizkuntzen ikaskuntzari konpetentzia-ikuspegi globalizatu batetik heltzen zaio, arreta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan jartzen duten ikuspegi metodologikoen bidez.

10.– Hizkuntza ofizialak laguntza gisa bakarrik erabiliko dira atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, ulermena, adierazmena eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira.

11.– Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegiaren aukera metodologikoen barruan, garrantzitsua da aintzat hartzea konpetentziak osorik garatzea, egoera errealetan oinarritutako benetako jardueren bidez lan egitea, eta abar.

12.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarriko du zer baldintza bete beharko diren kualifikazio egokia duten irakasleek ikasle talde berari derrigorrezko bigarren etapako lehen mailan ikasgai bat baino gehiago emateko.

13.– Ebaluazioa globala, jarraitua eta hezigarria da Lehen Hezkuntzan, eta jarraitua, hezigarria eta integratzailea Bigarren Hezkuntzan. Halaber, ebaluazioa kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, ikastetxeek eta irakasle-talde ebaluatzaileek bitarteko eta estrategia egokiak jarri behar dituzte ikasleak eta ikasle adingabeen gurasoak edo legezko tutoreak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezen eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte har dezaten.

14.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu ikasleen tutoretza pertsonala eta hezkuntza-orientazioa eta orientazio psikopedagogikoa eta profesionala funtsezko elementuak izan daitezen Oinarrizko Hezkuntzaren etaparen antolamenduan.

7. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak.

Oinarrizko Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar die ikasleei:

- a) Beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeta, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzea.
- b) Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa.
- c) Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu-, genero-, etnia-, arraza-aniztasuna edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko edonolako diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzea. Sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta pertsona oro errespetatuz eta norbera zainduz baliatzea.

d) Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria –bereziki, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTIfobikoa–, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak baztertea.

e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak zentzu kritikoz lortze aldera. Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.

f) Ezagutza zientifikoa zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.

g) Beren buruaren gaineko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea garatzea, baita ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak beren gain hartzen ikasteko gaitasuna ere.

h) Euskaraz eta gaztelaniaz zuzentasunez ulertzea eta adieraztea, ahoz eta idatziz, eta testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izatea.

i) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan egoki ulertzea eta adieraztea.

j) Norberaren kulturaren eta historiaren eta euskal kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.

k) Norberaren eta gainerakoen gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza- eta osasun-ohiturak finkatzea eta ikasleen ohituretan heziketa fisikoa eta kirol-praktika txertatzea, norberaren eta gizartearen garapena errazte aldera. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutzea eta baloratzea, eta haren aniztasuna.

l) Modu kritikoa baloratzea osasunarekin, kontsumoarekin, zaintzarekin, enpatiarekin eta izaki bizidunenganako (animaliak barne) eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotzen diren gizarte-ohiturak, eta horiek kontserbatzen eta hobetzen laguntzea.

m) Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.

n) Gizateriak dituen eta garapen jasangarrirako helburuetan zehazten diren arazo nagusiez jabetzea.

8. artikulua.– Hizkuntza-esparrua.

1.– Hezkuntza-sistemaren lehen helburuetako bat da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik, euskararen erabileran sakonduta. Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ikasle guztiek euskaraz eta gaztelaniaz zuzentasunez ulertzeko eta adierazteko gai izan behar dute ahoz zein idatziz, baita testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izan ere. Gainera, ulermen eta adierazpide egokia izango dute atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan.

2.– Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta horiek tratatzeko eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta haien ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak Hezkuntza Proiektuaren barne dagoen hizkuntza-proiektuan zehaztu behar dira; hala, hizkuntza-proiektu

horretan planifikatu behar dira ikasleek hizkuntzak ikasteko, erabiltzeko eta hizkuntzekiko jarrera positiboa garatzeko bideak, bat etorrita I. eranskinean zehazten den irteera-profilarekin. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hizkuntza-proiektuon jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

3.– Ikastetxean bertan garatzen diren jardueretan eta kanpo-proiektuoko jardueretan adierazpideak euskara izatea sustatu eta ziurtatuko da.

4.– Komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia garatzeko, hizkuntzen ikaskuntza curriculum-arloen barruan modu transbertsalean integratzen duten ikuspegi metodologikoak baliatuko dira.

5.– Euskal Hezkuntza Sistemaren berandu sartzen diren ikasle atzerritarrak hartzeko eta haiei hizkuntza-arreta emateko, ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza-programa integralak beharko dira.

6.– Irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egin behar da, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeko.

9. artikulua.– Ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako izan behar duten irteera-profila eta funtsezko kompetentziak.

1.– Oinarrizko Hezkuntzak irteera-profila lortzeko behar dituzten kompetentziak garatzen lagunduko die ikasleei; irteera-profila I. eranskinean jasota dago.

2.– Ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako izan behar duten irteera-profila bizitzako esparru eta egoeretan moldatzeko gai den pertsonaren ereduari dagokiona da. Era berean, ikasleek, oinarrizko jakintzen bidez, oinarrizko hezkuntza amaitzerako eskuratu eta garatu behar izan dituzten funtsezko kompetentziak finkatzen ditu. Ikasleek kompetentzia horiek etengabeko ikaskuntzaren bidez garatzen jarraitu ahal izango dute, eta kompetentzia horiei esker helduen bizitzan sartu ahal izango dira.

3.– Irteera-profila curriculum-arkitekturaren ardatza da, kohesioa ematen duen matrizea, eta hori egiten dute bat euskal hezkuntza-sistemako oinarrizko prestakuntzako etapek eta modalitateek. Horrenbestez, hartan oinarritu behar dira eskola-praktikan hartzen diren gainerako curriculum-erabakiak, estrategiak eta orientabide metodologikoak, eta bera da erreferentzia-elementua ikasleek ikaskuntzen barne- eta kanpo-ebaluazioari begira. Irteera-profila etapako helburuekin eta arlo bakoitzeko kompetentzia espezifikoekin erlazionatuta dago.

4.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak, irteera-profila erreferentziazat harturik –bat da Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztientzat–, behar diren aholkuak emango dizkie ikastetxeei, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan irteera-profil hori beren ikasleentzat egokitu dezaten.

5.– Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek funtsezko kompetentzia hauek garatuko dituzte:

- a) Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia,
- b) Kompetentzia eleaniztuna,
- c) Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako kompetentzia,
- d) Kompetentzia digitala,
- e) Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
- f) Herritartasunerako kompetentzia,
- g) Ekintzaitza-kompetentzia,
- h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia.

6.– Dekretu honek ezartzen dituen gutxieneko ikasketen xedea da irteera-profilean aurreikusitako funtsezko kompetentziak garatzen direla bermatzea. Gure autonomia-erkidegoan ezarritako curriculumetan eta ikastetxeetako hezkuntza-proiektuek curriculumok zehazteko eran, irteera-profil hori hartuko da erreferentetzat, eta bereziki kontuan hartuko dira dekretu honetako I. eranskinen jasotako funtsezko kompetentzietako deskriptore operatiboak.

II. KAPITULUA

CURRICULUMA

10. artikulua.– Curriculumaren alderdi orokorrak.

1.– Dekretu honek Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezartzen du, eta honako alderdi hauek zehazten ditu: helburuak, arloen edo ikasgaien kompetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintza gisa enuntziatutako edukiak, ikas-egoerak eta metodo pedagogikoak.

2.– Dekretu honek curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak osatzen dituztenak.

3.– Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma garatu eta, hala badagokio, osatu egingo dute, beren hezkuntza-proiektuaren barruan.

4.– Eremuen araberako taldekatzeek eremua osatzen duten arlo edo ikasgaien kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak errespetatu behar dituzte.

5.– Dekretu honen II. eta III. eranskinetan, arlo eta ikasgai bakoitzerako kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintza finkatzen dira.

6.– Funtsezko kompetentziak eta kompetentzia espezifikoak eskuratze eta garatze aldera, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak agintzen duen eran planifikatu ahal izango ditu irakasle-taldeak ikas-egoerak. Irakasleei beren praktika errazte aldera, IV. eranskinen, hura diseinatuzko orientabideak enuntziatzen dira.

11. artikulua.– Lehen Hezkuntzako arloak.

1.– Ikuspegi globaletik, etapa honetako maila guztietan arlo hauek landu behar dira:

	ARLOAK
Ikasle guztiek ikasi beharreko arloak	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza. f) Arte Hezkuntza. g) Gorputz Hezkuntza. h) Balio zibiko eta etikoak (seigarren maila).

2.– Balio Zibikoak eta Etikoak arloa Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ematekoa da.

3.– Arte Hezkuntza bitan banatu daiteke: Musika eta Plastika.

4.– Gorputz Hezkuntzaren arloa etapa osoan zehar indartu behar da. Lehen zikloko bi mailetan, Gorputz Hezkuntzako hiru saio egingo dira astean. Hurrengo zikloetan, arlo horri denbora gehiago eskaintzea lehenetsiko da.

5.– Ikastetxeek atzerriko bigarren hizkuntza bat ere eskain dezakete ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren barruan. Era berean, ikastetxeek proiektu transbertsal bat edo komunitateari zerbitzuak emateko proiektu bat egin dezakete beren autonomia baliatzeko astean duten denboran.

6.– Oro har, arlo guztiak Lehen Hezkuntzako arlo guztietan konpetentzia duen maisu edo maistra bakar batek eman behar ditu, taldeko tutoreak. Musika, Gorputz Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntza irakasteko, horiei dagokien espezializazioa edo kualifikazioa behar da. Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza arloa taldeko tutoreak eman behar du, ahal dela.

12. artikulua.– Tutoretza.

Lehen Hezkuntzako maila guztietan, ikastetxeek astean ordubete utzi behar dute ikasleekin hezkuntzarako tutoretza egiteko.

13. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa ikasgaitan eta eremutan banatuta dago, eta lau maila ditu.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikasgaiak eremutan multzokatuta antolatzea sustatuko du, gutxienez lehenengo bi mailetan, eta dekretu honetan ikasgai bakoitzerako ezarritako konpetentzia espezifikoa, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintza garatzen direla bermatuko du. Eremuan lortutako kalifikazioak konputatuko du modu berezian eremua osatzen duen ikasgai bakoitzean; hala, kalifikazioa bera izango dute ikasgai horietan guztietan. Hezkuntza-proiektuan islatuko da eremuen araberrako antolaketa, eta proiektu horretan zehaztu behar dira proiektuan osatzen duten ikasgaien zerrenda eta curriculum-elementuak.

3.– Maila bakoitzeko ikasgaien tipologia eta antolaketa honako taula honetan ageri da:

IKASGAIEN TIPOLOGIA	MAILAK		
	1.a	2.a	3.a
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko ikasgaiak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Natura Zientziak. f) Geografia eta Historia. g) Gorputz Hezkuntza. h) Balio Zibiko eta Etikoak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Natura Zientziak. f) Teknologia eta Digitalizazioa. g) Geografia eta Historia. h) Gorputz Hezkuntza.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Biologia, Geologia. f) Fisika eta Kimika. g) Teknologia eta Digitalizazioa. h) Geografia eta Historia. i) Gorputz Hezkuntza.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

IKASGAIEN TIPOLOGIA	MAILAK		
	1.a	2.a	3.a
Ikasleek hautatzeko ikasgai bat gutxienez.	a) Ongizate Fisikoa eta Emozionala. * b) Teknologiaren eta Digitalizazioaren Hastapenak. * c) Atzerriko Bigarren Hizkuntza.* d) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.	a) Ongizate fisikoa eta emozionala.* b) Pentsamendu kritiko eta autonomoaren hastapenak.* c) Atzerriko bigarren hizkuntza.* d) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.	a) Ongizate fisikoa eta emozionala.* b) Pentsamendu kritiko eta autonomoaren hastapenak. c) Kultura klasikoa. * d) Kultura zientifikoa. e) Adierazpide artistikoa. f) Atzerriko bigarren hizkuntza.* d) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.
1. mailatik 3. mailara ikasturte guztietan nahitaez eman beharrekoa ikasgaia	Musika eta/edo Hezkuntza Plastikoa eta Ikus-entzunezkoa. (horietako bakoitzerako ezarritako gutxienezko ordutegia errespetatuta)		

4.– Biologia eta Geologia eta Fisika eta Kimikako ikasgaiak batera jorratuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan, Natur Zientzien ikasgaiaren barruan.

5.– Laugarren mailan, ikasleek honako ikasgai hauen curriculum-edukia ikasiko dute:

IKASGAIK	4.a
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko ikasgaiak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Geografia eta Historia. e) Matematika. f) Gorputz Hezkuntza.
Ikasleek hautatzeko hiru ikasgai.	a) Biologia eta Geologia. b) Fisika eta Kimika. c) Latina. d) Digitalizazioa. e) Adierazpide Artistikoa. f) Teknologia. g) Prestakuntza eta Orientazio Pertsonala eta Profesionala. h) Musika. i) Atzerriko Bigarren Hizkuntza. j) Ekonomia eta Ekintzaitza.
Ikasleek hautatzeko ikasgai bat gutxienez. Gutxienez hiru eskaini beharko ditu ikastetxeak.	a) Arte Eszenikoak. b) Kultura Zientifikoa. c) Lanbide Jarduerari Aplikaturako Zientziak. d) Matematika Lantegia. e) Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikaturako Filosofia. f) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak.

6.– Aukerako ikasgai guztiak, ikastetxeak hala erabakitzen badu, lan monografikoak izan daitezke, edo komunitatearentzako zerbitzu batekin lankidetzan aritzeko proiektuak.

7.– Ikaskuntza-egoeretatik abiatutako irakaskuntzari esker, edozein maila, arlo, ikasgai edo eremutako ikasturtea programatu daiteke.

8.– Laugarren mailak izaera orientatzailea du, prestakuntza akademikorako zein profesionalerako. Ikastetxeek laugarren apartatuan aipatzen diren ikasgaiak taldekatu ditzakete, ikasleak etorkizuneko derrigorrezko hezkuntzaren ondoko aukeretara bideratzeko asmoz, hau da, batxilergoko modalitateetara edo Lanbide Heziketako askotariko eremuetara. Ziurtatu beharra dago ikasleek aukera dutela, ezartzen diren aukeretako edozeinen bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irteera-profilean konpetentzietan eskuratu behar den maila eskuratzeko. Gainera, ikasketa-adar guztietan bi sexuen presentzia orekatua izatea sustatu behar da.

14. artikulua.– Tutoretza.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan, ikastetxeek astean ordubete utzi behar dute ikasleekin hezkuntzarako tutoretza egiteko.

III. KAPITULUA

PEDAGOGIA- ETA KUDEAKETA-AUTONOMIA

15. artikulua.– Ikastetxeen autonomia.

1.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen pedagogia- eta kudeaketa-autonomia sustatuko du. Gainera, irakasleen talde-lana eta ikerketa-jarduera sustatuko du, heziketa-praktikatik abiatuta.

2.– Ikastetxeek autonomia izango dute curriculumak zehazteko, eta, horiek garatzeko, beren hezkuntza-proiektuan ezarritakoa hartuko dute erreferentziazat. Autonomia hau, era berean, islatuta geratzen da ikastetxe bakoitzak garatzen dituen proiektuetan, zeinek Hezkuntza-proiektua ere hartuko baitute erreferentziazat. Proiektu guztietan, beharrezkoa da curriculumaren gaineko erabakiak eta antolakuntzaren gainekoak bat etortzea.

3.– Ikastetxe bakoitzak, bere curriculumak garatzeko, dekretu honen VI. eranskinean ezarritako asteko ordutegiaren ehuneko bat erabil dezake modu autonomoan kudeatzeko. Taldeak eta ikasgaiak malgutasunez antola ditzakete; ikasleen ezaugarrien arabera antolaketa-neurri egokienak eta ezaugarri haien arabera aniztasunari arreta emateko neurri egokienak har ditzakete, eta eremu bereko ikasgaiak batera ematea dakarten antolaketa didaktikoak ezar ditzakete.

4.– Sail eskudunak ezarritako curriculumak zehaztu edo egokituko dituzte ikastetxeek, eta beren hezkuntza-proiektuan txertatuko dituzte, lehentasuna emanaz herritartasun aktibora bideratutako ikaskuntza konpetentzialaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia sustatzeari eta garatzeari.

5.– Zuzendaritza-taldeek, beren autonomia eremuaren barruan, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritako konpromisoak betetzeko zeregina bultzatze aldera.

6.– Oinarrizko Hezkuntzako helburuak erdiesteko, zuzendaritza-taldeek lankidetzan- eta kooperazio-harremanak hasiko dituzte hurbileko beste erakunde batzuekin; bereziki, udalekin.

7.– Ikastetxeek laguntza emango diete beren inguruneko erakundeei hizkuntza-normalizazioko planak sustatzeko.

8.– Ikasleek Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren prestaketan parte har dezaten sustatuko da.

9.– Ikastetxeek familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko dute. Horretarako, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ditzakete guraso eta legezko tutoreentzat, eta, horietan, curriculumean ezarritako inklusio- eta hezkidetzaren printzipioak hartuko dituzte kontuan.

10.– Ikastetxea hezkuntza-sistema baten barruan txertatuta dago eta haren arabera dihardu; ikastetxearen autonomia, bada, behar bezala egokitu behar du testuinguru horretara. Hezkuntza-esparru hau gai da egokiro bateratzeko helburu eta arau komunak eta ikastetxeek hain beharrezkoa duten pedagogia- eta kudeaketa-autonomia; hori horrela izan dadin, baina, nahi-taezkoa da ebaluazioa egiteko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzea. Hezkuntza-sistemak erronka handiak ditu aurrez aurre, eta egoera horrek ezinbestean eskatzen du ikastetxeen esku uzten diren bitarteko eta baliabideen erabilerari buruzko informazioa publikoa eta gardena izatea, eta, horrekin batera, lortzen diren emaitzen gaineko balorazioa egitea.

16. artikulua.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.

1.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, ikastetxeak bere autonomia baliatuz egindako hezkuntza-aukera eta jarraibide nagusiak biltzen dituen proposamen integrala jaso behar da; jarraibide nagusiok erreferentzia gisa balio dute hezkuntza-komunitateak ikastetxean esku hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko.

2.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak berariaz jasoko ditu balioak, helburuak eta jarduketak-lehentasanak, eta eskumeneko sailean ezarritako curriculumak ikastetxean nola zehaztuko diren adieraziko du –Klaustroak finkatu eta onartuko du curriculumak zehazteko modua–; orobat, herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu. Horiez gain, modu transbertsean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, eta bake-kultura eta giza eskubideak. Ikastetxearen estrategia digitala ere jasoko du. Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektua eratzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruko osagaia izanik, hezkuntza-proiektu osoa eratzeko orduan bezala, arretaz hausnartu eta aztertuko da ikastetxearen ingurunea.

3.– Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari edo itunpeko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokio ikastetxearen hezkuntza-proiektua onartzea. Batean zein bestean, argitara eman behar da.

17. artikulua.– Ordutegia.

1.– VI. eranskinean zehazten da ikastetxeek arloetan eta ikasgai bakoitzean zenbat ordu eman behar dituen gutxienez, baita Oinarrizko Hezkuntzako etapa bakoitzean zenbat ordu kudeatu ditzaketen ere beren autonomia baliatuz.

2.– Ikastetxe bakoitzak arloen eta ikasgaien artean banatuko ditu etapa bakoitzeko orduak, betiere VI. eranskinean gutxienezkotzat jotzen den ordu kopurua betez. Aukera hori baliatzen ez duten ikastetxeek eranskin berean adierazten den erreferentziazko ordutegi bat beteko dute.

3.– Lehen Hezkuntzako maila bakoitzak gutxienez 875 ordu ditu urtean. Ikasleen eskola-jarduerak asteleheneetik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldez. Maila bakoitzean, astean 25

ordu izango dira gutxienez, egunero 30 minutuko jolasgaraia barnean dela (lehen zikloan eguneko 45 minutukoa izan ahalko da). Arlo bakoitzari emandako ordutegia arlo horietako bakoitzean lan egiteko behar den denbora izango da, alde batera utzi gabe etaparen izaera orokorra eta integratzailea.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza gutxienez 1.050 ordukoa da urtean. Oro har, ikasleen eskola-jarduerak astelehenetik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldez, eta maila bakoitzean astean 30 ordu gutxienez izango dira, egunero 30 minutuko jolasgaraia barnean dela.

5.– Goizeko eta arratsaldeko jardunaldien arteko tartea ez da ordu eta erditik beherakoa izango Lehen Hezkuntzan, ezta ordubetik beherakoa ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

6.– Ikastetxeek irakastorduetan tarte bat hartuko dute ikasleentzat adierazgarriak diren proiektuak egiteko, zeharkako ikuspegi globalizatzaile batetik besteak beste garapen jasangarrirako hezkuntza eta tokiko eta munduko herritartasuna bultzatuko dituztenak, eta hori formulatu diren arloetan, ikasgaietan eta eremuetan egingo dute, edo modu autonomoan kudeatzen duten ordutegiko tartean.

7.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, indarrean dagoen araudiaren arabera, ordutegia malgutzeko aukera aurreikusi behar dute, ikasleek dituzten egoera bereziei erantzuteko. Besteak beste, osasuna, eskolatze partekatua edo ikasketen aldibereotasuna direla-eta sortzen diren egoerak sartzen dira hor.

18. artikulua.– Adingabeko ikasleen guraso eta legezko tutoreak ikaslearen hezkuntza prozesuan parte hartzea eta inplikatzeari.

1.– Gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea dute ikasle adingabeen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta haien eskola-hezkuntzan parte hartzeko.

2.– Ikasle adingabeen gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan babesa eman eta parte hartu beharko dute, laguntza emanez ikastetxeek ikasleen aurrerabidea errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri indargarrietan.

3.– Era berean, ikastetxeek eta ikasle adingabeen guraso edo legezko tutoreek, banaka, hasieran hartutako konpromisoak berrikusi ditzakete eta haien aldatzeko akordioak egin, ikaslearen hezkuntza- edo elkarbizitza-prozesua hobetzeko edo banaka atzemandako arazoak konpontzeko.

19. artikulua.– Irakasle-taldea.

1.– Ikasle-talde berean esku hartzen duten irakasleak dira talde horren irakasle-taldea.

2.– Antolaketa-neurrien bidez, ikastetxeek Oinarrizko Hezkuntza osoan talde bakoitzean parte hartzen duten irakasleen kopurua murrizteko baldintzak ezarriko dituzte, batik bat Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetan eta curriculumak dibertsifikatzeko eta ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan. Helburu horrekin, kualifikazio egokia duten irakasleek ikasgai bat baino gehiago emango dituzte.

3.– Zuzendaritza-taldeak talde-lana, gogoeta eta hezkuntza-ikerketak sustatuko ditu irakasleentzat, koordinazio-bileren bidez. Esparru horretan, ordutegi espezifikoak aurreikusi behar dira irakasle-taldeentzat koordinazio-bilerak irakasleek ikastetxean egon behar duten aldian egiteko.

4.– Behar bezala justifikatzen ez bada behintzat, Lehen Hezkuntzako tutore bakoitzak gutxienez bi ikasturte eman behar ditu ikasle talde berarekin.

5.– Eremuen arabera lan egiten denean, eta ahal den guztietan, tutorea arduratuko da eremue-tako batez.

6.– Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari dagokio ikasle-taldeei, zikloei, arloei, ikasgaiei edo ere-muei irakasleak esleitzea. Ikastetxean gerora sortutako beharrei erantzute aldera, ikastetxeko zuzendariak aldi baterako eta behar bezala justifikatuta alda dezake esleipen hori, baita irakastor-duen banaketa ere.

20. artikulua.– Irakasleen kompetentzia-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa.

1.– Irakasleek kompetentzia-profil egokia izan behar dute egoera ezin hobean beren gain har-zeko beren funtzioen berezko erantzukizunak eta, bereziki, ikasleen irteera-profilari lotutako kompetentziak lortzen laguntzarekin lotuta dauden erantzukizunak.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak arauzko xedapenen bidez zehaztuko du irakas-leen kompetentzia-profila.

3.– Irakasleen prestakuntzaren helburua da ikasleei garapen pertsonal eta afektiboan eta konpe-tentzien garapenean laguntzeko behar den kompetentzia-profila lortzea. Prestakuntza-prozesuetan arreta berezia jarri behar zaie hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntzan laguntza berezia eta berariazkoa behar duten kolektiboentzako arreta egokiari. Era berean, ikastetxeen testuinguruan berdintasunaren, jazarpenaren eta tratu txarren arloak lantzeko prestakuntza espezifikoak ere jasoko da, bai, orobat, haurren aurkako indarkeriari aurre hartzeko, antzemateko eta aurre egiteko prestakuntza ere. Hezkuntza arloko eskumena duen sailak irakas-leak prestatzeko jarduerak planifikatuko ditu; jarduera horien eskaintza dibertsifikatua eta doakoa bermatuko du, eta behar diren neurriak ezarriko ditu irakasleek jarduerotan parte har dezaten. Ikastetxe bakoitzaren premien arabera hautatuko da prestakuntza espezifikoak, hausnarketa-pro-zesuetatik ateratako ondorioak aintzat hartuta.

4.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak sustatutako prestakuntza-ekintzen planteamenduak ezaugarri hauek ditu:

a) Ikastetxea prestakuntzarako plangintzaren ardatz gisa ikus dadin sustatzen du.

b) Hezkuntza-ekintzan jartzen du arreta, eta berrikuntza sustatzen du, irakasteko jardunari buruzko azterketaren eta hausnarketaren bidez.

c) Irakasteko eta ikasteko prozesuak ikertzeko, berritzeko, garatzeko eta ebaluatzeko proze-suak sartzen ditu, praktikari buruzko hausnarketatik abiatzen direnak, eta prestakuntza-sareetan parte hartzeko zeregina ere hor txertatzen du.

5.– Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatu behar da ikas-tetxeko hezkuntza- eta antolaketa-esparru guztietan. Era berean, inguruneko beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin koordinatzeko eta kooperatzeko ekintzak sustatuko dira. Irakasleek prozesu horretan lagundu eta parte hartu behar dute.

6.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ebaluatuko ditu irakasleen kompetentziak. Ebaluazio horretan, irakasleek ere parte hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratoritzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

21. artikulua.– Hezkuntzarako tutoretza eta orientazioa.

1.– Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesua da, sistematikoa, irakasteko jardue-ran sartzen dena, eta haren helburua ikasleei funtsezko kompetentziak garatzen eta eskuratzen

laguntzea da, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen eta herritartasuna gauzatu dezaten.

2.– Hezkuntza-komunitate osoaren ardura da; berariaz, irakasle-taldeari dagokio, eta, bereziki, tutoreari; izan ere, tutorea da bere taldeko ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren arduradun nagusia, eta hark du ikasle horiei eskolak ematen dizkieten irakasleak koordinatzeko eta ikasleen gurasoekin edo legezko arduradunekin komunikazio arina ezartzeko ardura nagusia. Hori guztia irakasle orientatzaileen edo aholkularien laguntzarekin egingo da.

3.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak hezkuntza-orientazioa arautzen duten printzipioak ezarriko ditu, eta tutoretzaren eredu zehaztuko, printzipio horien arabera.

4.– Ikastetxeko zuzendaritzak adi egon behar du hezkuntzarako tutoretzako eta hezkuntza-orientazioko ekintzak ikastetxeko profesional guztien eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen artean banatuta eta koordinatuta gauzatu daitezen, hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarrietara egokituta.

5.– Eskubideen eta aukeren berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-zentroek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria garatzeko neurriak txertatuko dituzte tutoretzako planetan eta elkarbizitza planetan.

6.– Hezkuntza-orientazioak, ikastetxearen Urteko Planean eta Hezkuntzarako Tutoretzan txertatuta, ikasleen garapen integrala bermatzen duten jarduera programatuak, sistematizatuak eta ebaluagarriak jaso behar ditu, baita eskolaldiko laguntza pertsonalizatua ere, eta nork bere burua ezagutzera eta autonomia garatzera bultzatu, erabakiak hartzeko orduan gida ditzan irakasleak. Irakasle-taldeen, gainera, ikasleen ikaskuntzaren eta autonomiaren aldeko estrategia didaktikoak eta pedagogikoak sartu behar dituzte.

7.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, orientazio-prozesuak barnean hartuko ditu irasleei beren burua ezagutzen laguntzen dieten eta prestakuntza-ibilbidea eta bizitza-proiektua egiteko orduan erabakiak hartzen laguntzen dieten orientazio pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaleko jarduerak, eta lan-orientazio guztien berri jakitea bultzatuko da, estereotipo sexistarik gabeko interes eta bokazioak pizten laguntzeko.

8.– Behar bezala garatutako hezkuntzarako tutoretzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza banaka eta bere berezitasunekin hartzen dela aintzat. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko eta inklusioa eta aniztasuna indartzeko aukera gehien duen pertsona hezkuntza-komunitatean.

9.– Tutoretza hezkuntza-ekintzen multzo bat da, zeinek funtsezko kompetentziak lortzen laguntzen baitute eta,aldi berean, beharrezkoak baitira ikasleen ibilbide pertsonala, akademikoa eta profesionala –bilakaera-unearen eta hezkuntza-etaparen arabera– modu progresiboan garatzeko.

10.– Hezkuntzarako tutoretzak jarraipen indibiduala eta irakasle guztien jarraipen pertsonalizatua eta taldeko jarraipena konbinatzen ditu, ikasleen gizarte-kohesioan laguntzen duten proposamen pedagogikoak aplikatuz. Halaber, irasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatzen du.

11.– Hezkuntzarako taldeko tutoretza-saioen edukiak lau gai multzoren inguruan antolatu behar dira: garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasteko prozesuak eta ikasketa-orientazio profesionala. Multzo bakoitzeko edukia aldatu egingo da Oinarrizko Hezkuntzako etapetan zehar, ikasleen beharretara eta interesetara egokitu dadin.

12.– Ikastetxearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudiak, eskura dauden baliabideen bidez, tutoretzaren koherentzia eta jarraitutasuna bermatu behar ditu ikasleak eskolatzen diren bitartean.

13.– Ikasleen tutoretza irakaskuntza-funtzioaren parte da. Ikasle guztiek izan behar dute tutore bat, eta tutore hori arduratuko da dagozkion ikasleen hezkuntza-prozesua orientatzeaz, banaka zein taldean. Tutoreak ikasleen garapen pertsonalaz, haien ongizateaz eta funtsezko kompetentzien lorpen progresiboaz arduratu behar du bereziki.

14.– Tutoreari dagokio ikasleen eskola-jarduerei buruzko guztiaren berri ematea ikasleei eta haien guraso edo legezko tutoreei –ikasleak adingabeak izanez gero–; haiek, nolahi ere, haiek eskubidea dute irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko. Adin nagusiko ikasleen kasuan, guraso eta legezko tutoreek eskubide hori baliatu ahal izango dute, interes legitimoa justifikatuz gero.

15.– Tutoreari dagokio beharrezkoa den dokumentazio akademikoa formalizatu eta betetzea eta irakasle-taldea koordinatzea ikasleen kudeaketa pedagogikoari dagokionez.

16.– Ikasleen tutorearen ardura da irakasle-taldeak jarduketa-plan pertsonalizatua beharrezkoa denean prestatzeko lana koordinatzea, ikastetxeko aholkulariekin edo orientatzaileekin eta, hala badagokio, kanpoko hezkuntza-zerbitzuen aholkularitzarekin lankidetzan arituz. Gainera, plan horren jarraipena egin behar du, eta gurasoen, legezko tutoreen eta ikaslearen solaskide nagusia izango da.

17.– Oinarrizko Hezkuntza osoan zehar, irakasle-taldeen beharrezkoak diren hezkuntza-sistemako informazioak jaso behar dituzte ikasle bakoitzari buruz, eta hurrengo mailara eta hurrengo etapara bidali. Ikastetxeak behar diren hezkuntza-sistemako informazioak jasotzeko eta bidaltzeko erregistro bat izan behar du. Tutoreak du erregistro horretako informazioa eguneratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna. Erregistro horretan, besteak beste, kompetentzietan erdietsi den mailari buruzko datuak eta jaso diren errefortzu-neurriak eta laguntzak sartu behar dira.

18.– Ikasleek eta haien gurasoek edo tutoreek –ikasleak adingabeak izanez gero– ebaluazio-txosten bat jaso behar dute ikasturte bakoitza amaitutakoan. Txosten hori tutoreak eratzten du, irakasle-taldearen laguntzarekin, eta ikaslearen ikaskuntzei buruzko informazioa eta funtsezko kompetentzietan eskuratutako mailari buruzkoa biltzen du hor, eta, hala badagokio, hurrengo ikasturterako gomendioak eta hezkuntza-arloko errefortzu-neurrien proposamenak. Txosten hori ikasleen espedientearekin batera gorde behar da, eta ezarritako koordinazio-mekanismoen bidez eman behar da ikaslea ikastetxez aldatzen denean.

19.– Ikastetxeko irakasle aholkulariek edo orientatzaileek laguntza eman behar diete tutoreari eta irakasle-taldeei orientazio- eta tutoretza-ekintzen plangintzan eta jarraipenean, eta ikasteko zailtasun espezifikoak hautematen eta aztertzen, eta aholkuak eman behar dituzte ikasle guztiek eskola-arrakasta izateko erantzun inklusiboen gainean. Halaber, ikastetxez kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragile eta babesleekiko elkarlana koordinatuko dute, eta ikasleei eta, ikasle adingabeen kasuan, guraso eta legezko tutoreei lagunduko diete eskola-ibiltzean zehar, eta orientabidea emango diete erabakiak hartzeko orduan, beren gaitasunak eta interesak ahalik eta hobekien gara ditzaten.

20.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak orientabideak emango dizkie ikastetxeei Oinarrizko Hezkuntzako Tutoretza Plana egiteko eta garatzeko.

22. artikulua.– Trantsizioa.

1.– Mailaz igarotzen denerako, etapa bat bukatu eta beste bat hasten denerako eta ikastetxez aldatzen denerako, ikastetxeek koordinazio-mekanismoak eta beharrezkoak diren hezkuntza-sis-

temako informazioak eskualdatzeko mekanismoak izan behar dituzte, hezkuntza-koherentzia eta prestakuntzaren jarraitutasuna errazteko eta ziurtatzeko.

2.– Ikastetxeek koordinatzeko eta informazioa eskualdatzeko mekanismoak izan behar dituzte etapa batetik bestera igarotzean ikasleen hezkuntza-prozesuan etenik egon ez dadin, ikaslea ikastetxez aldatu zein ez. Mekanismo horiek ezinbestekoak dira berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleentzat, eta jatorrizko eta helmugako ikastetxeetako profesionalen arteko kolaborazioak ezartzea ekar dezakete.

3.– Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxean matrikula egindakoan, ikastetxe horrek ikaslearen Lehen Hezkuntzako historia akademikoa eta etaparen amaierako banakako txostena izan behar ditu eskura. Banakako txostenean, funtsezko kompetentzietan lortutako garapen-mailari buruzko informazioa egongo da. Atxikitako ikastetxeek, gainera, ikasleen Lehen Hezkuntzako azken mailako tutorearen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako tutorearen edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko ordezkari baten arteko elkarrizketak jaso behar dituzte, ikasleen ikaskuntza-ibilbideari buruzko informazioa osa dadin. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, aholkularitzako eta orientazio psikopedagogikoko taldeek ere parte hartu behar dute.

4.– Beren funtzioak betetzeko ikasleen edo haien familien ohorea eta intimitatea ukitzen dituzten datu pertsonaletara eta familiarretara irispidea duten irakasleek eta gainerako langileek isilpean gorde beharko dituzte datuok.

23. artikulua.– Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

1.– Eskola inklusiboaren esparruan, ikasle guztiei dagokie hezkuntza-arreta, eta, egoera arruntean, hezkuntzan ekitatez eta aukera berberekin sartzeko eta hezkuntza-arrakasta izateko behar diren neurri eta laguntzen onuradun izan behar dute.

2.– Aniztasunari erantzuteko neurriek ikasleen hezkuntza-premiei erantzun behar diete ingurune normalizatu eta inklusibo batean. Horretarako, ikasleen interesak, motibazioak eta ikasteko gaitasunak kontuan hartuko dira, eta neurriok, betiere, Oinarrizko Hezkuntzako helburuak eta dagokion titulazioa lortzeko bidea eman behar diete.

3.– Ikasteko eta parte hartzeko oztopoak gainditzeko hezkuntza-jarduketa guztiak dira aniztasunari erantzuteko neurriak. Eskolak ikasleen aniztasunari erantzun diezaion profesionalak erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu jotzen da laguntzat (elementu pertsonala, antolaketakoa, materiala edo metodologikoa).

4.– Hezkuntza-premiak goiz atzematea oinarrizko jarduketa-printzipio bat da, eskolaldiaren hasieratik eta Oinarrizko Hezkuntzan zehar. Irakasle eta hezkuntza-langile guztiek aktiboki parte hartu behar dute inklusiorako oztopoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin babes-tutako ikastetxe guztietan aplikatu behar dira.

5.– Ikastetxeei dagokie ikaskuntzarako diseinu unibertsalaren ikuspegian oinarritutako elkarbizitza- eta ikaskuntza-ingurune segurua sortzea eta eraginkortasunez ziurtatzea etapa batetik besterako urratsak eta prestakuntzako ibilbidea.

24. artikulua.– Jarduera Plan Pertsonalizatua.

1.– Jarduera Plan Pertsonalizatua dokumentu bat da, ikasle jakin batek hezkuntza-proiektua garatzen den edozein testuingurutan dituen premiei erantzuteko aurreikusitako jarduketak biltzen dituena. Plana ikasgelako programaziotik abiatuta gauzatuko da, edo curriculum-proiektutik

abiatuta, laguntza-premia orokortuak dituzten ikasleentzako Laguntza Intentsiboko Programaren kasuan.

2.– Ikasleek eta guraso edo legezko tutoreek –ikasleak adingabeak izanez gero– Jarduera Plan Pertsonalizatuaren prestaketaren berri izan behar dute, haren edukiaren berri, ikaslearen ebaluazioan eta kalifikazioan eragina duten erabakien berri eta, hala badagokio, planaren amaieraren berri.

3.– Jarduera Plan Pertsonalizatua prestatzeko eta planifikatzeko prozesuan, tartean diren pertsona guztien arteko kolaborazioa sustatuko da: ikaslea, irakasleak, familia eta, hala badagokio, beste eragile batzuk.

4.– Irakasle aholkulariek edo orientatzaileek, irakasle tutoreekin batera, ziurtatuko dute irakasle-taldearekiko eta irakasle tutorekiko koordinazioa badagoela Jarduera Plan Pertsonalizatua duten ikasleak zikloz aldatzean edo hezkuntza-etapaz aldatzean.

5.– Ikastetxeko zuzendaritzak zainduko du Jarduera Plan Pertsonalizatua aurreikusitako moduan garatzen dela, eta tartean diren eragileen koordinazioa ziurtatuko du.

6.– Jarduera Plan Pertsonalizatuak Hezkuntza Ikuskaritzaren esku izango dira.

25. artikulua.– Curriculumuma dibertsifikatzeko programak.

1.– Curriculumuma dibertsifikatzeko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailetan eskolatuta egonik ikasteko zailtasun bereziak dituzten, ikasteko beste erritmo bat duten edo eskola-ingurunera egokitzen ez diren ikasleentzat dira (hor ez dira sartzen ikasteko ahalegin faltaren ondoriozko arazoak dituztenak). Programak ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntzeko dira.

2.– Ikasleei berei eta gurasoei edo legezko tutoreei entzun ondoren, ikasleak programa hauetan sartu ahal izango dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hirugarren mailatik aurrera, irakasle-taldeak hala proposatuta. Proposamen horretan jaso beharko dira batetik, ikaslearen ebaluazio akademikoa eta ebaluazio psikopedagogikoa, eta, bestetik, Orientazio Departamentuak ikaslea programan sartzeko proposamena egiteko ikasturte-bukaeran egin beharreko txostena ere. Txosten horretan, gainera, helburuak eta ezarritako konpetentziak zenbateraino lortu diren adierazi behar da.

3.– Curriculumuma dibertsifikatzeko programak, oro har, bi ikasturte dira, hirugarren mailatik aurrera eta etapa amaitu arte. Salbuespen gisa, laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak proposatu ahal izango dira programan sartzeko, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horri esker titulu hori lortuko dutela etaparako aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe.

4.– Programa horiek curriculum-antolaketa jakin bat behar dute, oro har ezarritakoaz bestelakoa. Diziplinarteko eremu edo proiektuen bidez garatuko dira. Bi kasuetan, programan parte hartzen duten ikasleen taldeko eta banakako tutoretza indartuko da, eta programari dagokion Tutoretza Planean jasoko da.

5.– Diziplinarteko proiektuen bidez antolatuz gero, programako ikasleek talde arruntetan izango dituzte hirugarren eta laugarren mailetakoko ikasgai guztiak.

6.– Eremuen arabera antolatutako programa bat aukeratuz gero, ikasleek bi eremu espezifikoko eta etaparako ezartzen diren eta eremuetan jasotzen ez diren gutxienez hiru ikasgai izango dituzte

(azken horiek talde arruntean egingo dituzte oro har). Gainera, izaera praktikoko eremu bat jarri ahal izango da. Bi eremu espezifiko horiek honela osatuko dira:

a) Hizkuntza- eta gizarte-eremua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

b) Eremu zientifiko-teknologikoa: Matematika; Biologia eta Geologia; Fisika eta Kimika, eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

7.– Curriculum dibertsifikatzeko programa bat egiten duen ikasle orok Jarduera Plan Pertsonalizatu bat izan behar du.

8.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarriko ditu, berariazko deialdien bidez, programa horiek aurrera eramateko baldintzak.

26. artikulua.– Eskolatze osagarriko programak.

1.– Eskolatze osagarriko programak aniztasunari erantzuteko neurri eta laguntza osagarriak dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatuta dauden eta gehienez 15 urte dituzten ikasleentzat dira (programa hasten den urteko abenduaren 31rako beteta eduki behar dituzte 15 urteak).

2.– Programa horiek egiturazkoak izango dira, eta egoera pertsonalen edo eskola-historiaren ondorioz ikasteko eta parte hartzeko oztopoak dituzten ikasleak bilduko dituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko aurreikusitako neurri guztiak hartu ondoren betiere.

3.– Ikasleek hezkuntza-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko jarrera positiboak izatea da helburua, hasteko arlo pertsonalean eta sozialean aurrera egin dezaten, eta gero, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

4.– Eskolatze osagarriko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten eta funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeetan egingo dira, edo hezkuntzaren arloko eskumena duen sailarekin arlo horretako hitzarmenak edo akordioak dituzten gizarte- eta hezkuntza-arloko erakunde eta entitateetan, sailak egiten dituen deialdien arabera.

27. artikulua.– Laguntza-premia orokortuak dituzten ikasleentzako Laguntza Intentsiboko Programa.

1.– Programa hau egiturazkoa da, eta ezohiko baliabide espezifikoak da hezkuntza-premia berezi iraunkorrak, larritasun handia eta muga funtzional nabarmenak dituzten eta eskolatzeko erantzun espezializatua, intentsiboa eta pertsonalizatua behar duten ikasleentzat.

2.– Laguntza Intentsiboko Programa 16 urtera arteko ikasleentzat da. Ikasle bakoitzak Jarduera Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horren erreferentzia garapen pertsonalerako eta ikaskuntza funtzionalak eskuratzeko beharrezkoak diren kompetentzia eta trebetasun moldakorrak izango dira. Ikasle bakoitzaren planean definitzen diren neurriek hezkuntza-espazio komunitatean ahalik eta parte-hartze handiena izatea erraztuko dute, eta haietan ikastetxearen eta komunitatearen baliabideak kontuan hartuko dira, ikasleen aurrerapen pertsonalerako eta ikaskuntzetarako laguntza nagusia diren aldetik.

28. artikulua.– Helduarora Igarotzeko Programak.

1.– Helduarora Igarotzeko Programak desgaitasun larri bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat dira, derrigorrezko eskolaldia amaitu ondoren Oinarrizko Lanbide Hezike-

tan sartzan ez direnentzat. Gehienez ere lau ikasturtetarako hartuko dira ikasleak orokorrean, 20 urte bete arte. Salbuespen gisa, eskolatzea 21 urtera arte luzatzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta irakasle-taldeak uste badu Helduarora Igarotzeko Plan Pertsonalizatuan ezarritako oinarrizko konpetentziak lortu ditzaketela.

2.– Programa horiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan emango dira; berariazko programazioa izango dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan integratua, eta ikasle bakoitzak Jarduera Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horretan bilduko dira bizitzan hobeto moldatzeko, ingurune komunitarioan modu aktiboan sartzeko, laneratzeko eta ongizate pertsonalerako beharrezkoak diren konpetentzia espezifikokoak eta zeharkakoak bermatuko dituzten helburuak. Programak ikasgela ireki gisa garatuko dira, hezkuntza-komunitatean adin bereko ikasleekin sartzeko.

3.– Helduarora Igarotzeko Programek, hezkuntza-erantzuna diseinatu eta gauzatzeko, kontuan hartuko dituzte ingurunean dauden eta helduen bizitzarako garrantzitsuak izango diren gizarte- eta osasun-arloko zerbitzuak.

4.– Helduarora Igarotzeko Programak bi motatakoak izango dira:

a) Zereginen Ikaskuntzarako Programak. Desgaitasun intelektual larria edo moderatua duten eta konpetentzia espezifikokoak eta zeharkakoak lortu ditzaketen ikasleentzako programa espezifikokoak dira, eta, horiei esker, ikasle horiek enplegu babestu batean edo, laguntzarekin, ohiko lanpostu batean lan egin dezakete eta, neurrizko laguntza-mailarekin, bizimodu independentea izan dezakete komunitatean.

b) Autonomia Pertsonal eta Sozialerako Programak. Desgaitasun larria duten eta laguntza orokorrek behar dituzten ikasleentzako berariazko programak dira. Laguntza orokor horien artean hauek daude: lanerako zerbitzuak, bizitegi-unitateak, eguneko zentroak eta helduarroan autonomia eta ongizatea garatzeko laguntza pertsonalak.

29. artikulua.– Oinarrizko Heziketa Zikloak.

1.– Oinarrizko Heziketa Zikloak Oinarrizko Hezkuntzaren parte dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera. Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza osatzen dute, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloekin batera.

2.– Ziklo horiek, lehentasunez, lanbide-ikaskuntzekin bereziki motibatuta daudenentzat dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak ikasteko eta lortzeko aukera gehien lanbide-munduarekin lotutako ingurune batean duten ikasle horientzat.

3.– Oinarrizko Heziketa Ziklora sartzeko, honako baldintza hauek bete behar dira batera:

a) 15 urte beteta eduki behar dira, edo ziklora sartzan den urte naturalean bete behar dira.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egina izan behar da. Salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin ondoren ere sartu ahal izango da.

c) Orientazio Kontseiluan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen gomendioa jaso izana.

4.– Oinarrizko Heziketa Ziklo bateko modulu guztiak gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lor daiteke, bai eta espezialitateko oinarrizko teknikariaren titulua ere, eskuratutako lanbide-konpetentziak egiaztatzen dituena.

5.– Oinarrizko Heziketa Zikloek honako eremu hauetako ikasketak antolatuz erraztuko dute irteerako konpetentzia-profilean ezarritako konpetentziak eskuratzea:

- a) Komunikazioaren eta Gizarte Zientzien eremua. Barnean hartzen ditu Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Gizarte Zientziak eta Lanbide Hastapeneko Atzerriko Hizkuntza ikasgaien oinarrizko alderdiak.
- b) Zientzia Aplikatuaren eremua. Barnean hartzen ditu Matematika Aplikatuak eta Zientzia Aplikatuak ikasgaien oinarrizko alderdiak.
- c) Lanbide-eremua. Barnean hartu behar du, gutxienez, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko 1. mailako kalifikazio bat lortzeko beharrezkoa den prestakuntza (katalogo hori Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organiakoaren 7. artikuluan ageri da).

6.– IV. eranskinean zehazten dira ikasleek Komunikazioaren eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Aplikatuaren eremuetan lortu behar dituzten ikaskuntzak.

30. artikulua.– Baliabide eta material didaktikoak.

1.– Erabilitako material eta baliabide didaktikoek bat etorri behar dute dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-eredu pedagogikoarekin. Ekitatearen, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioei erantzun behar diete, eskola inklusiborako oinarria baitira.

2.– Diseinatutako eta sortutako baliabide eta material pedagogiko eta didaktikoek aurrera egiten utzi behar diete ikasle guzti-guztiei, eta proposamen dibertsifikatuak eskaini behar dizkiete irudikapenean, adierazpidean eta konpromisoan. Irizpide hauei jarraitu behar diete:

- a) genero-ikuspegia,
- b) aniztasun guztiekiko errespetua: genero-aniztasuna, afektibo-sexuala, kulturala, etnikoa...
- c) materialen eskuragarritasuna hobetzea eta areagotzea eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako oztopoak minimizatzea eta ezabatzea,
- d) zorroztasun zientifikoa,
- e) hizkuntza-egokitasuna,
- f) ikaskuntzen pertsonalizazioa,
- g) euskarrien aniztasuna.

3.– Ikastetxeek autonomia izango dute Oinarrizko Hezkuntzan erabili beharreko material eta baliabide didaktikoak sortzeko eta aukeratzeko, indarrean dagoen araudian eta aurretik zehaztutako irizpideetan ezarritakoaren arabera.

4.– Hezkuntza Saileko Ikuskaritzak ikastetxeen hezkuntza-prozesuak aztertuko ditu eta ikastetxeek erabiltzen dituzten material eta baliabide didaktikoak dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-ereduarekin bat datozen ebaluatuko, irakatsi eta ikasteko prozesua osatzen duten elementu guztiak gainbegiratzeko ohiko prozesuaren barruan.

IV. KAPITULUA

EBALUAZIOA, MAILAZ IGAROTZEA ETA TITULAZIOA

31. artikulua.– Ikaskuntzen ebaluazioa.

1.– Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzea funtsezko osagaia da Oinarrizko Hezkuntzan, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.

2.– Ikasleen ebaluazioak globala, jarraitua eta hezigarria izan behar du.

3.– Derrigorrezko Hezkuntzak hartzen duen denboraldiko ebaluazioa egiteko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako irteera-profila hartuko da erreferentziatzat. Horretarako, funtsezko konpetentzien garapen-maila hartuko da kontuan. Arlo, ikasgai, eremu edo proiektu globalizatuen ebaluazioa egiteko, berriz, konpetentzia espezifikoak hartuko dira erreferentziatzat, zeinak funtsezko konpetentzien zehaztapenak baitira. Bada, haien ebaluazio-irizpideek ikasleak lortu beharreko jardun-maila adierazten dute. Arlo, ikasgai, eremu edo proiektu globalizatueta ikasleen ikaskuntza-prozesuak ebaluatzeko, ikaskuntza-prozesuetako konpetentzia espezifikoek ebaluazio-irizpideak hartu behar dira erreferentziatzat.

4.– Beren autonomiaren esparruan eta indarrean dagoen araudiaren arabera, ikastetxeek ebaluazio-irizpideak eta ezinbesteko ikaskuntzak garatu eta zehaztu behar dituzte beren curriculum-garapenean, eta ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren neurriak ezarri.

5.– Askotariko ebaluazio-tresnak erabili behar dira, ikasle guztien ikaskuntzen bilakaera behar bezala baloratzeko aukera ematen dutenak. Ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara eta espezifikoetara egokitu behar dira, baita ikas-egoeretara ere.

6.– Ikastetxeek hezkuntza-prozesua hasten denetik jakinarazi behar diete ikasleei eta, ikasleak adingabeak badira, haien guraso edo legezko tutoreei zer ebaluazio-irizpide, ezinbesteko ikaskuntza, ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedura eta kalifikazio-irizpide hartuko diren aintzat ikasleak mailaz igarotzeari edo haien titulazioari buruzko erabakietan. Adin nagusiko ikasleen kasuan, guraso eta legezko tutoreek eskubide hori baliatu ahal izango dute, interes legitimoa justifikatuz gero.

7.– Ebaluazioak, nagusiki, ikasleen aurrerapenak identifikatu behar ditu, baita hezkuntza-prozesuan ikasleek dituzten zailtasunak ere, zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezzen irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan.

8.– Ikaslearen aurrerapena espero bezalakoa ez denean, hezkuntza-arretako neurriak eta laguntzak ezarri behar dira. Horiek ikasturteko edozein unetan hartuko dira, eta ikasleak hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoak diren ikasketak eskuratzeko izango dira. Ikasleak orduan ere zailtasunak baditu, intentsitate bateko eta besteko neurriak eta laguntzak planifikatu behar dira, Lehen Hezkuntzako hezkuntza bereziko irakasleen edo Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-orientatzailearen laguntza eta aholkularitzarekin, laguntzarako hezkuntza-zerbitzuen laguntza eta aholkularitzarekin edo hezkuntza-arretako beste profesional batzuenarekin.

9.– Irakasle-taldeak koordinazio-espazioak eta prozedura sistematikoak ezarriko ditu ikasleen ikasteko prozesuari buruzko eta funtsezko konpetentzien garapenean duten bilakaerari buruzko informazioa biltzeko, ikasle bakoitzaren ikasteko prozesua ondoen orientatuko duten erabakiak har daitezzen.

10.– Irakasle-taldeak, taldeko tutoreak koordinatuta, etengabeko ebaluazioa egingo du ikasturtean zehar, eta, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du, eta taldeko kide guztien artean, ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren, kalifikazioari, mailaz igarotzeari edo, hala badagokio, titulazioari buruzko erabakiak hartuko dituzte. Era berean, behar diren erabakiak hartuko dira laguntza-neurriak planteatu beharri buruz edo lehendik daudenak berrikusteari buruz.

11.– Irakasleek, ikasleen ikaskuntzak ez ezik, irakasteko prozesuak eta irakasle-jarduna bera ere ebaluatuko dituzte, horiek guztiak hobetzen laguntzeko. Ikasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, neurriak ezarri behar dituzte curriculumaren, antolamenduaren eta, bereziki, irakasle-jardunaren esparruan. Neurri horiek plangintza-dokumentuetan jasotako hobekuntza-helburuetan islatuko dira.

32. artikulua.– Ikaskuntzen ikasturte-bukaerako kalifikazioa.

1.– Arlo, ikasgai, eremu edo proiektu globalizatuetako ikaskuntzak kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideen arabera kalifikatu behar dira.

2.– Ebaluazioaren emaitzak honela adierazi behar dira: «Gutxiegi (GU)», kalifikazio negatiboetarako; «Nahikoa (NA)», «Ongi (O)», «Oso Ongi (OO)» eta «Bikaina (BI)», kalifikazio positiboetarako.

3.– Laguntza-plan indibidualizatua duten ikasleen kalifikazioaren erreferentziak plan horretan ezarritako ebaluazio-irizpideak dira.

4.– Zenbait arlo edo ikasgai biltzen dituzten eremuen bidez antolatu badira curriculum-elementuak, kalifikazioa modu integratuan egingo da eta bakarra izango da. Kalifikazio hori eremua osatzen duten arloetara edo ikasgaietara eramango da, alde batera utzi gabe ikasleari eta haren gurasoei edo legezko tutoreei bilakaeraren berri emateko ezartzen diren prozedurak.

5.– Aurreko bi puntuetan adierazitako kasuetan, eremu edo proiektu horietan biltzen diren konpetentzia espezifikokoak eta ebaluazio-irizpideak definitu behar dira, eta horiek izango dira ebaluazio eta kalifikaziorako erreferentzia. Ikasleei edo haien guraso edo legezko tutoreei –ikasleak adingabeak badira– ebaluazioaren emaitzari buruz helarazten zaien informazioan, zeharkako eremu edo proiektu globalizatzaileetan lortutako emaitzekin batera, erreferentzia hau jaso behar da: haien parte diren arlo eta ikasgaien erreferentzia edo curriculum-elementuak hartu zaizkien horien parte diren arlo eta ikasgaien erreferentzia.

6.– Irakasle-taldeak, taldeko tutoreak koordinatuta, eta ikasturteko ebaluazio partzialen bidez ikaskuntza-prozesuan ikusitako bilakaera kontuan hartuta, azken ebaluazioa egingo du. Ebaluazio horretan, ikasleek zenbat ikasi duten eta haien konpetentziak zenbat garatu diren ikusiko da, eta haien kalifikazioak ezarriko ditu irakasle-taldeak, kide guztien artean eta ikasturtearen amaierako ebaluazioaren ondorioen arabera. Kalifikazio horiek dagokion ikasturteko ebaluazio-aktetan jasoko dira.

7.– Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailak amaitzean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitza amaitzean, irakasle-taldeak ikasleen kalifikazioak zehaztuko ditu, kide guztien artean, eta ikasturte-bukaerako ebaluazioaren ondorioekin bat. Horretarako, azken ebaluazioko saioa egin behar da, eta saio hori ebaluazio partzialeko azken saioarekin bat etor daiteke.

33. artikulua.– Jarduera Plan Pertsonalizatua duten ikasleen ebaluazioa eta kalifikazioa.

1.– Irakasle-taldearen ardura da dekretu honen 24. artikuluan aipatzen den Jarduera Plan Pertsonalizatua prestatzea, aplikatzea, haren jarraipena egitea eta ebaluatzea, irakasle tutoreak gidatuta eta ikastetxeko irakasle aholkularien edo orientatzaileen aholkularitzarekin.

2.– Jarduera Plan Pertsonalizatua duten ikasleak plan horretan formulatzen diren ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatu eta kalifikatu behar dira.

3.– Salbuespen gisa, Jarduera Plan Pertsonalizatuak arlo edo ikasgai batzuk aldi baterako ez kalifikatzea ekar dezake, baldin eta hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak onartutako programa baten barnean ikasleak ez badu izan arlo edo ikasgai horren ikasketarik. Hala bada, plan horretan neurri berezi horren iraupena zehaztu beharko da, eta erabaki hori behar bezala justifikatu.

4.– Ikaslearen espediente pertsonalean jasoarazi beharko da Jarduera Plan Pertsonalizatua.

34. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzako ikasleak mailaz igarotzea.

1.– Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzaren amaieran eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, irakasle-taldeak, kide guztien artean eta tutoreak emandako informazioa eta irizpidea kontuan hartuta, ikasleak mailaz igarotzeari buruzko erabakia hartuko du.

2.– Mailaz igarotzeari buruzko erabakiak hartzerakoan, kontuan hartu behar da dena delako maila, ziklo edo etapako helburuak bete diren, ikasleak funtsezko kompetentziak zenbateraino garatu dituen, ikasleak aurrera egiteko neurriak nola baloratzen diren eta dena delako mailarako edo ziklorako hezkuntza-proiektuan ezarritako ezinbesteko ikaskuntzak zer neurritan eskuratu dituen.

3.– Ikasleak mailaz igaroko dira irakasle-taldearen iritziz funtsezko kompetentzietan behar besteko maila lortu dutenean edo, behar besteko maila horretara iritsi ez arren, horrek hurrengo ikasturtean probetxuz aritzea eragozten ez dionean, errekuiperatzea espero denean eta promozio hori maila akademikorako nahiz pertsonalerako onuragarria izango zaiola uste denean.

4.– Nolanahi ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleak, mailaz igarotzeko, eremu edo ikasgai guztiak gainditu behar ditu, edo ikasgai batean edo bitan izan behar du ebaluazio negatiboa, edo, curriculuma eremu edo proiektu globaletan antolatzea aukeratuz gero, bi ikasgairi dagozkien curriculum-elementuetan izan dezake ebaluazio negatiboa. Era berean, mailaz igaroko da, baldin eta irakasle-taldeak uste badu gainditu gabeko ikasgaiek edo eremuek ez dutela eragozten hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea, eta uste bada errekuiperatuko dutela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetuko duela.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila batean eta beste batean izen bera duten ikasgaiak ikasgai desberdintzat joko dira.

6.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jarduera-planak curriculuma egokitzen badu arlo edo ikasgai jakin batzuetarako, plan horietarako onartutakoak izango dira ikasle horiek mailaz igarotzeko irizpideak.

7.– Errepikatzea salbuespenezko neurritzat joko da, eta neurri hori hartuko da, baldin eta, ikasteko berariazko zailtasunei aurre egiteko ohikoak diren errefortzu- eta laguntza-neurriak erabili diren arren, ikasleak ez badu barneratu behar den bezala ikasten jarraitzeko ezinbestekoa eta beharrezkoa den edukia.

8.– Maila berean beste urtebete emateko neurria behin soilik aplikatu daiteke maila bakoitzean, eta bi aldiz gehienez Oinarrizko Hezkuntza osoan. Lehen Hezkuntzan beste urtebete emateko neurria behin bakarrik erabili daiteke. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bitan erabili ahalko da, baldin eta Lehen Hezkuntzan aplikatu ez bada.

9.– Salbuespen gisa, ikasleak beste urtebete eman dezake Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan, nahiz eta Oinarrizko Hezkuntzan egoteko gehieneko aldia bete den, baldin eta irakasle-taldeak uste badu etaparako ezarritako helburuak eta kompetentzien garapen-maila eskuratzen lagunduko duela neurri horrek. Kasu horretan, urtebetez luza daiteke dekretu honen 3.1. puntuan adierazten den adin-muga.

10.– Beste urtebete emateko erabakian, ikasteko prozesuari eta heldutasun-mailari buruzko alderdiak baloratu behar dira, baita berdinaren taldearekiko loturari buruzko alderdiak ere, haien ongizate emozionala zaintze aldera. Horrez gain, gurasoen edo legezko tutoreen iritzia kontuan hartu behar da. Maila berean beste urtebete emateko neurria, nolana ere, hauteman diren zailtasunak gainditu daitezten hartu behar da, eta plan espezifiko pertsonalizatu bat izan behar du berekin, aldiaren behin berrikusi beharko dena neurria eraginkorra dela ziurta dadin. Plan espezifiko horretan, gurasoen edo legezko tutoreen kolaborazioa sustatuko da, beharrezkoak diren hezkuntza-laguntzako baliabideak erabiliko dira eta ikasleen motibazioa eta ahalegina sustatuko dira hautemandako zailtasunak gainditzeko.

11.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, ikasgai edo eremu guztiak gainditu gabe mailaz igarotzen diren ikasleek gainditu gabeko ikasgaietan edo eremuetan matrikulatu beharko dute, irakasle-taldeak ezartzen dituen errefortzu-programak beteko dituzte eta dagozkien ebaluazioak gainditu beharko dituzte.

12.– Errepikatu ondoren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak hurrengo mailara igarotzeko baldintzak betetzen ez baditu, irakasle-taldeak –orientazio-taldearen aholkua jaso, eta ikasleari eta, ikaslea adingabea izanez gero, haren guraso edo legezko tutoreei informazioa eman ondoren–, orientazio-aholku bat emango du ikasleek ikasten jarraitzeko dauden aukerei buruz, betiere ikasleen beharren eta interesen arabera.

35. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

1.– Etapa amaitzean, honako ikasle hauek lortuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua: irakasle-taldearen irizpidearen arabera kompetentzia espezifikoak behar beste garatzea lortu duten eta Oinarrizko Hezkuntzako irteera-profilaren deskriptore operatiboetan adierazitakoa lortu duten ikasleek. Dekretu honetan ezarritako ebaluazio-irizpideek ezarritakoa betez egiaztatzen da lorpen hori.

2.– Laguntza-plan indibidualizatua duten ikasleen kasuan, haien planean ezarritako kompetentziak eta ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziazat.

3.– Etapa amaitzean dekretuko kompetentzietako batzuk behar beste garatzea lortu ez duten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lor dezakete, baldin eta irakasle-taldeak kide guztien artean eta kideen bi herenen adostasunarekin uste badu egoera horrek ez diela eragotziko ikasleei prestatzen jarraitzea. Egoera hori ikaslearen dokumentazio akademikoan islatu behar da.

4.– Salbuespenez, irakasle-taldearen irizpidearen arabera, 4. maila amaitzean titulua lortzeko moduan ez dagoen ikasleak beste urtebete eman dezake maila horretan. Kasu horretan, irakasle-talde osoaren kolaborazioarekin laguntza-plan indibidualizatu bat prestatuko da ikasle horrentzat, barnean hartuko dituena orientazio pertsonalizatuak eta, beharrezkoa bada, neurrien edo laguntzen proposamena.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek ziurtagiri ofizial bat jasoko dute, egindako urte kopurua eta kompetentzietan lortu duten garapen-maila adieraziko dituen.

6.– Horrez gain, Oinarrizko Heziketa Ziklo bat egin ondoren ziklo horretako modulu guztiak gainditzen dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratuko dute.

36. artikulua.– Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ez duten ikasleentzako probak.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen ez duten ikasleek prestakuntza akademikoan edo profesionalean jarraitzeko proposamenak jaso behar dituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo oinarrizko titulu profesionala lortzeari begira.

2.– Ikastetxeek, urtero, probak antolatuko dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila amaitu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ez duten ikasleentzat, gainditu gabeko ikasgaietan, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako prozeduraren arabera. Eskaintza hori ikasketak amaitu eta hurrengo bi ikasturteetan egingo da.

37. artikulua.– Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

1.– Lehen Hezkuntzako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte-bukaerako ebaluazio-aktak, ikasketa-espeditentea, historia akademikoa, etapa-amaierako banakako txostena eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala (ikaslea etapa amaitu gabe lekualdatzen denean egitekoa). Azken horrek datu hauek jasoko ditu: egindako ebaluazioen emaitzak, laguntza-neurrien edo egokitzapenen aplikazioa –halakorik egin bada– eta ikaslearen garapen orokorrari buruz egoki irizten diren ohar guztiak.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte-bukaerako ebaluazio-aktak, ikasketa-espeditentea, historia akademikoa eta lekualdaketei buruzko txosten pertsonala. Ebaluazio-dokumentu ofizial horiekin batera, beste hauek ere eratu dituzte: ikasturte-bukaerako banakako txostena eta etapa-bukaerako banakako txostena –orientazio-aholkua jasoko du bigarren eta laugarren mailetan–, eta funtsezko konpetentzien eskuratzeko-maila adieraziko da horietan.

3.– Historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala oinarrizko dokumentutzat hartzen dira Estatuko lurralde osoan ikasleen mugikortasuna berma dadin.

4.– Ikasleen mugikortasuna bermatze aldera, arlo bat baino gehiagoren ikasketak eremu batean integratuta egin direnean, horietako bakoitzean lortutako kalifikazioa jaso behar da historia akademikoan. Kalifikazio hori dagokion eremurako espeditentean agertzen den kalifikazio bera izango da.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoan, ebaluazio-dokumentu ofizialak modu digitalizatuan bete eta jasoko dira, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez, bat etorrira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin eta administrazio elektronikoari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako araudiarekin.

6.– Halakorik dagoen bitartean, paper-formatuan betetzen eta jasotzen diren ebaluazio-dokumentu ofizialak ikastetxeetan gorde behar dira. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek emango dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

7.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-prozesuak eta ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

38. artikulua.– Ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, Curriculuma Dibertsifikatzeko Programetan.

1.– Eremuen arabera Curriculuma Dibertsifikatzeko Programa batean dabilzan ikasleen ebaluazioan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako oro har ezarritako kompetentziak espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak dira funtsezko erreferentzia, eta, zehazki, eremu bakoitzeko ikasgaiei dagozkien kompetentzia espezifikoak, bai eta programa horren programazioan ezarritako programaren ebaluazio-irizpide espezifikoak ere.

2.– Oro har, ikasleak automatikoki igaroko dira curriculuma dibertsifikatzeko lehen mailatik bigarrenera.

3.– Curriculuma Dibertsifikatzeko Programa bateko ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortuko du, baldin eta programa horretarako ezarritako ebaluazio-irizpideak betetzen baditu.

39. artikulua.– Irakasteko eta ikasteko prozesua eta ebaluazio-prozesuak Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratzea.

1.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio, bere zereginen barruan, irakatsi eta ikasteko prozesuarekin zerikusia duten elementuak gainbegiratzea; horretarako, planifikazioa, aplikazioa eta ebaluazioa ondo egiten direla gainbegiratu behar du, hala ikasleei dagokienez nola irakatsi eta ikasteko prozesuari dagokienez.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritza, gainbegiratze-prozesuen barruan, aldian-aldian bilduko da ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldearekin eta koordinazio pedagogikoko taldeekin. Biler horietan, barneko eta kanpoko ikasleen emaitzak aztertu eta baloratuko dira, emaitzei buruzko gogoeta eta analisisa sustatu eta bultzatuko da eta irakasteko eta ikasteko prozesuetan ikastetxeak jarritako helburuak hobetzeko prozesuak bultzatuko dira, eta Hezkuntzako Ikuskaritza prozesu horien jarraipena egingo du.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ikastetxe publikoetan irakasle-lana nola egiten den ebaluatzea, betiere oinarrizko hezkuntza-arauan eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena). Ebaluazio horren helburu nagusia da irakasle-jardunaren kalitatea bermatzea eta aholku ematea jardun profesional hori hobetzen eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzen laguntzen duten neurriak hartzeko orduan.

40. artikulua.– Ikasle adingabeen guraso edo tutore legalentzako informazioa, eta ebaluazio objektiborako eskubidea.

1.– Ikasle adingabeen guraso edo legezko tutoreek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte hartu eta lagundu behar dute, eta haien ebaluazioari, mailaz igarotzeari eta titulazioari buruzko erabakiak ezagutu behar dituzte; gainera, kolaboratu behar dute seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-aurrerapena errazteko ikastetxeek hartzen dituzten laguntza- edo indartze-neurriekin.

2.– Ikasle adingabeen gurasoei eta legezko tutoreei beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko duten eskubidea eta betebeharra betetzen laguntzeko, ikastetxeak informazioa bidaliko die aldian-aldian beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuari buruz, baita orientazioa eman ere prozesu horretan lagun ahal izan dezaten. Ikastetxeak, horretarako, eraginkortzat jotzen dituen bitartekoak baliatuko ditu, hala nola txosten kualitatiboak, banakako elkarrizketak, talde-bilerak eta

abar. Gutxienez, banakako bilera bat egin behar da ikasturtearen hasieran, eta beste bat bukarean, eta, beharrezkotzat joz gero, talde-bilerak.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxeko aholkularitza- eta orientazio-taldeak tutorea-ekin kolaboratuko du, ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreei –ikasle adingabeen kasuan– eta ikasleari berari behar den informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza emateko eta ikaslearen hezkuntza-prozesuari buruz eta eskolatzeko aukerarik egokienei buruz orientatzeko.

4.– Arlo, ikasgai edo eremuen kalifikazioari dagokionez, eta ikasleei dagokien ebaluazio objektiborako eskubidea bermatze aldera, irakasleek emandako kalifikazioaren justifikazioaren eta arrazoien berri eman behar diete ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei (ikasleak adingabeak direnean), ebaluazio-irizpideetan ezarritakoa aipatuz eta ikasleak irizpide horietan adierazten dena lortu duen ala ez argudiatuz.

5.– Adin nagusiko ikasleen kasuan, guraso eta legezko tutoreek aurreko artikuluan adierazitako eskubideak baliatu ahal izango dituzte, interes legitimoa justifikatuta.

41. artikulua.– Diagnostiko-ebaluazioa.

1.– Diagnostiko-ebaluazioak hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren eta ikastetxeen ardura da, biena, eta ikastetxeentzat eta euskal hezkuntza-sistema osoarentzat hobetzeko aukera gisa eta erronka gisa hartu behar dira.

2.– Diagnostiko-ebaluazioko prozesuen helburua da ikasleek funtsezko konpetentzietan eta konpetentzia espezifikoen lortutako maila egiaztatzea, eta irakasle-taldeei, ikasleei, guraso edo legezko tutoreei eta hezkuntza-komunitate osoari laguntzea irakasle-jarduna aztertzen, baloratzen eta, beharrezkoa bada, birbideratzen, ikasleek curriculumeko konpetentziak eta ikaskuntzak lor ditzaten.

3.– Diagnostiko-ebaluazioko probak etapen erdian egin behar dira (LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan), zentsu-izaerarekin, eta etapen amaieran (LHko 6. mailan eta DBHko 4. mailan), lagin-izaerarekin.

4.– Diagnostiko-ebaluazioetan lortutako informazioa erabiltzean, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa hartuko da kontuan. Lortzen den informazioa talde, arlo eta ikastetxeen tratamendu estatistikorako erabiliko da. Ebaluazio horiek ezin dira erabili ikastetxeen sailkapenak egiteko.

5.– Bakarkako, taldeko eta ikastetxeko txosten batean zehaztuko dira proba diagnostikoen emaitzak, beste adierazle batzuetatik lortuta informazioarekin batera. Txostena egiteko, gainera, faktore indibidualak eta testuinguruak hartuko dira kontuan (sozioekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak). Proba diagnostikoen emaitzak ez dira sartuko ikasleen ikasketa-espeditentean.

6.– Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari (ISEI–IVEI) dagokio probak prestatzea eta aplikazio-, zuzenketa- eta aplikazio-irizpideak definitzea, institutu horrek formulatutako konzeptu-esparruetatik abiatuta. Gainera, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak behar diren ereduak eta laguntzak emango dizkie ikastetxeei, ikastetxe guztiek behar bezala egin ahal izan ditzaten ebaluazio horiek.

7.– Neurririk egokienak ezarriko dira ebaluazio horiek berriazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleen beharretara egokitu daitezen.

42. artikulua.– Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

1.– Ikasleen datu pertsonalak lortzeari, ikastetxe batzuek datu horiek beste batzuei lagatzeari eta datu horien segurtasunari eta konfidentzialtasunari dagokienez, indarrean dagoen datu per-

tsonalak babesteari buruzko legedian xedatutakoari jarraituko zaio, eta, betiere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari.

2.– Ikaslearen espediente elektronikoak, gutxienez, ebaluazio-dokumentu ofizialetan jasotako datuak bildu behar ditu, eta urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa bete (4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren arloko Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala arautzen duena).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Irakaskuntza-espezialitateak.

Ikastetxeak ikasgaiak eremutan taldekatzea erabakitzen duenean, eremu horien irakaskuntzaz eremu horietako edozein ikasgai emateko irakaskuntza-atribuzioa duten espezialitateetako katedradunen kidegoetako funtzionarioak eta bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoetako funtzionarioak arduratuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak eta beste irakaskuntza batzuk bateragarri egitea.

1.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak aukera emango du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak eta musikako eta dantzako arte-ikasketa profesionalak aldi berean egiteko.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak salbuespenezko eskolatzeneurriak baimendu ditzake errendimendu handiko kirol-jarduerak eta antzekoak egiten dituztenentzat.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erlijioaren irakaskuntza.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, adin nagusiko ikasleek eta adingabeen gurasoek edo legezko tutoreek erlijio eskolak jaso nahi dituzten ala ez adierazi behar dute.

2.– Ikastetxeak etapa bakoitzeko maila guztietan eskainiko du Erlijioa. Astean gehienez ordubete emango da. Gurasoek edo legezko tutoreek aukeratuta egingo da ikasketa hori. Ikasturte bakoitzaren hasieran egin behar da aukeraketa hori. Ikastetxeek antolaketa-neurriak hartu behar dituzte erlijio-ikasketak egiten ez dituzten ikasleek behar den hezkuntza-arreta jaso dezaten. Hor, funtsezko konpetentziak garatu beharko dira, komunitatearen zerbitzurako proiektuen bidez, eta autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu, baita balio zibiko eta etikoak ere. Erlijioa ikasten ez duten ikasleen hezkuntza-arreta taldeko tutorearen esku egongo da, ahal izanez gero.

3.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotu behar zaio. Horretarako, erlijio katolikoa arlo gisa sartuko da Lehen Hezkuntzan, eta ikasgaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxeek nahitaez eskaini beharrekoa, eta ikasleentzat hautazkoa izango da.

4.– Beste erlijio batzuen irakaskuntzak bat etorri behar du Espainiako Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioaren, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren artean sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoarekin, eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakoarekin.

5.– Erlijioa ikasgaiaren curriculum zehaztea kasuan kasuko erlijio-agintaritzen eskumena da. Eskola-liburuak eta material didaktikoak erabiltzeari buruzko erabakiak eta, hala badagokio, horiek gainbegiratu eta onartzeari buruzkoak kasuan kasuko erlijio-agintaritzei dagozkie, Espainiako Estatuarekin sinatutako akordioetan ezarritakoaren arabera.

6.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza etapako beste ikasgaien baldintza eta ondorio berekin ebaluatu behar da. Estatuarekin kooperazio-akordioak sinatu dituzten erlijioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakoari lotu behar zaio.

7.– Berdintasun-printzipioa eta lehia askea bermatzeko, erlijio ikasketen ebaluazioan jasotako kalifikazioak ez dira kontuan hartuko ikasketa-espedituen arteko lehia dakarten deialdietan, ez eta ikasleak onartzeko prozesuetan lehiara jo behar denean eskatzaileen arteko hautaketa egiteko.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan irakastea.

Curriculumeko ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzetan irakasteko baimena eska diezaiokete ikas-tetxeek hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari. Baimena izanez gero, irakaskuntza horrek bere hartan eutsi behar die dekretu honetan araututako curriculumaren oinarritzko alderdiei, eta ahaleginak egin behar dira ikasleek bi mailetan ikasgaien berezko terminologia atzerriko hizkuntzan eta erkidegoko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan jakin dezaten.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Helduen Hezkuntza.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak eta jakintzak eskuratu nahi dituzten helduek beren baldintzetara eta beharretara egokitutako eskaintza izango dute. Irakaskuntza hori presentziala, erdi-presentziala eta urrutiko hezkuntzaren bidezkoa izan daiteke.

2.– Ikasleek jakintzaren ikuspegi integratua eskuratze aldera eta horren bidez konpetentziak garatu eta XXI. mendeko erronka eta desafio global nagusiei arrakastaz aurre egite aldera, etapa honetako irakaskuntzak modu modularrean antolatuko dira, hiru eremutan, eta, horietako bakoitzean, bi mailatan:

a) Komunikazio-eremua. Dekretu honen III. eranskinean Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntza ikasgaiei buruz jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

b) Eremu soziala. Dekretu honen III. eranskinean Gizarte Zientzietako ikasgaiei buruz (Geografia eta Historia eta Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza) jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

c) Eremu zientifiko-teknologikoa. Dekretu honen III. eranskinean Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Matematika, eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaiei buruz jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

3.– Ikasketa horiek bi ikasturtetan egiteko moduan antolatu behar dira.

4.– Bigarren paragrafoan aipatutako hiru eremuetako bakoitzari dagozkion mailetako bat gainditzeak Estatu osorako balio izango du.

5.– Eremu guztiak gainditzeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eskubidea dakar berekin. Era berean, irakasle-taldeak proposa dezake Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ematea eremuren bat gainditu ez duten baina beren ustez helduen oinarritzko prestakuntzaren helburu orokorrak modu globalean lortu dituzten pertsonen. Erabaki horretan kontuan hartu behar dira ikasle bakoitzaren prestakuntza-aukerak eta jarduera akademiko eta laborean integratzeko aukerak.

6.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak, aldian-aldian, 18 urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua zuzenean lortu ahal izateko probak antolatuko ditu, baldin eta funtsezko konpetentziak eta etapako helburuak lortu badituzte. Proba horiek

irigarritasun unibertsaleko neurriak bete behar dituzte, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztientzat egokitu behar dira eta hiru ezagutza-eremuetan oinarriturik antolatuko dira.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Atzerriko ikastetxeetako ikasketak.

Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak erabakiko ditu, bere eskumenen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako atzerriko ikastetxeek eman beharreko Espainiako hizkuntza eta kulturaren eta Euskal Herriko hizkuntza eta kulturaren irakaskuntzaren ingurukoak, eta ikastetxe horiek, betiere, dekretu honetan arlo eta ikasgai horietarako ezarritako gutxieneko orduak bete behar dituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Era berean, indargabetuta geratzen dira dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuaren artikulua (86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko Dekretua).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ezarpen-egutegia.

2023-2024ko ikasturtean amaituko dira ezartzen dekretu honetako ikasketa arautuen curriculumak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Eremuen arabera irakaskuntza.

1.– Eremuen arabera antolatutako irakaskuntza modu progresiboan ezarriko da, ikastetxeek irakaskuntza planifikatu ahal izan dezaten eta irakasle-taldea prestatu ahal izan dezaten; 2022-2023ko ikasturtean ezartzen hasi, eta 2025-2026ko ikasturtean iritsiko da ikastetxe guztietara.

2.– Halaber, ikastetxeek modu progresiboan eguneratu behar dituzte programazio didaktikoak, eta bi ikasturtean erabat berritu.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

IKASLEEN IRTEERA-PROFILA EAE-KO OINARRIZKO IRAKASKUNTZAREN AMAIERAN

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako *Ikasleen irteera-profila* da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, XXI. mendeko erronkekin lotuta, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko kompetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Euskadi Autonomia Erkidegoko irteera-profila oinarrizko irakaskuntzaren curriculum osatzen duten elementuak eta antolamendua kohesionatzen eta justifikatzen dituen helburu estrategikoa da. Horrenbestez, curriculum-erabakiak eta irakaskuntza-praktikaren estrategia eta orientabide metodologikoak oinarritzen dituen tresnatzat hartzen da, eta funtsezko erreferentea da bai ikasleen ikaskuntzen barneko eta kanpoko ebaluazioan, bai mailen arteko eta etapen arteko sustapenari buruzko erabakiak hartzean, bai Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzean.

Irteera-profilaren abiapuntua da kompetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, aurrera eramateko aurre egin beharko dien erronkei, eta erronkei arrakastaz aurre egin ahal izango die.

Irteera-profila, beraz, ikaskuntzen elementu artikulatzailea da, ikasleek bizitzan zehar izango dituzten erronkei eta erronkei arrakastaz aurre egiteko aukera izan dezaten.

Irteera-profil honetan jasotako kompetentziak definitzeko abiapuntuko erreferentea *Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioa da*, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruzkoa. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak bere konpromisoa sendotzen du, erreferentzia komunak hartuz, Europa mailako hezkuntza-koherentsia indartzeko eta, hala irizten badiote, herritarrek beren herrialdean bertan nahiz inguruko beste herrialde batzuetan beren bizitzan zehar ikasi eta lan egin ahal izatea errazteko.

Europako Gomendioaren funtsezko kompetentziak XXI. mendeko erronka eta erronka global nagusiei lotuta daude. Erronka eta erronka horiei aurre egin beharko diete ikasleek, eta ahalik eta heldutasun handienarekin hedatu beharko dituzte.

Era berean, UNESCOren Nazioarteko Hezkuntza Bulegoaren *Key Drivers of Curricula Change in the 21st Century* dokumentuan jasotako erronkak gehitu dira, baita Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartutako 2030 Agendaren Garapen jasangarrirako Helburuak eta Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agentziaren bidez hartutako konpromisoak ere.

Funtsezko kompetentzien eta XXI. mendeko erronken arteko loturak emango die zentzua ikaskuntzei, eskola eguneroko bizitzako egoera, gai eta arazo errealekara hurbiltzean; horrek, aldi berean, beharrezko laguntza-puntua emango du ikaskuntza-egoera esanguratsuak eta garrantzitsuak bultzatzeko, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.

- Euskara erabilera eta euskal kulturarekiko jakin-mina garatzea guztion ondasunean duten eragina baloratzea.
- Kontsumo arduratsuekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibilitatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.
- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiek jarrera etiko zorrotza hartzea eskatzen dute, ongizate pertsonalaren bilaketa legitimoa denon ongia errespetatuz artikulatzea baitakarte. Gainera, tokiko begirada gainditu behar dute, arazo globalak aztertu eta horiekin konprometitzeko. Horrek guztiak eskatzen du, alde batetik, buru konplexu bat, termino sistemikoetan, irekietan eta ziurgabetasun-maila handiarekin pentsatzeko gai dena, eta, bestetik, alderdi garrantzitsuekin enpatizatze gaitasuna, zuzenean eragiten ez badigute ere; horrek berekin dakar zaintzaren eta errespetuaren balioak onartzea eta bidegabekeria-, ekitaterik ezarekin eta bazterkeriarekin lotutako egoerekiko sentsibilitate handia garatzea.

Gainera, erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko – horien artean erabateko interdependentzia dago –, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta ikasgai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak

Irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak honako hauek dira: *Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioan*, martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretuan eta martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretuan (Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko

irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen) ezarritako funtsezko konpetentziak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemara egokitzea. Egokitzapen hori konpetentzia horiek XXI. mendeko erronka eta desafioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipio eta helburuei lotzeko beharri dagokio.

Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa bizitza osoan zehar egin behar den ikaskuntzari buruzkoa bada ere, irteera-profilak ikasleen garapen pertsonalaren, sozialaren eta prestakuntzakoaren une zehatz bat adierazten du: oinarrizko irakaskuntzaren etapa.

Oro har, ulertu behar da oinarrizko irakaskuntzako hezkuntza-etapetarako curriculuma garatzeko dekretu honetan aurreikusitako konpetentzia espezifikoak eta helburuak lortzea irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentziak eskuratzearekin eta garatzearekin lotuta dagoela. Hauek dira konpetentzia horiek:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Konpetentzia eleaniztuna
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM, ingeleseko siglen arabera)
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- Herritartasunerako konpetentzia
- Ekintzailtza-konpetentzia
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

Ez dago hierarkiarik funtsezko eskumen horien artean, eta ezin da elkarrekotasun eksklusiborik ezarri arlo, eremu edo gai bakar batekin. Horietako bakoitza eskuratzeak beste guztiak eskuratzen laguntzen du, eta arlo, eremu edo ikasgai desberdinen bidez eskuratzen diren ikaskuntzek konpetentzia desberdinak garatzen dituzte. Zeharkakotasuna irteera-profilaren berezko baldintza da, ikaskuntza guztiek hori lortzen laguntzen baitute.

Oinarrizko irakaskuntzako funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboak:

Funtsezko konpetentzien dimentsio aplikatuari dagokionez, horietako bakoitzerako deskribatzaile operatibo multzo bat definitu da.

Funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboak esparru erreferentziala dira, eta esparru horretatik zehazten dira arlo, eremu edo gai bakoitzaren konpetentzia espezifikoak. Deskribatzaile operatiboan eta konpetentzia espezifikoen arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako funtsezko konpetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako konpetentziak eta helburuak lortzea ahalbidetzen du.

Konpetentziak nahitaez modu sekuentzialean eta progresiboan eskuratzen direnez, oinarrizko eskolatzearen amaierari dagozkion deskribatzaile operatiboak ez ezik (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierarekin bat dator), Lehen Hezkuntza osatzean espero den betetze-mailari buruz orientatzen duten deskribatzaile operatiboak ere sartzen dira, eta, horrela, derrigorrezko irakaskuntza osatzen duten bi etapen arteko jarraitutasuna, koherentzia eta kohesioa errazten eta zehazten dira.

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza,

trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeke oinarria da. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso-genero espezifikoetan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozkotetasunaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko. Azkenik, hizkuntzaren dimentsio estetikoa aintzat hartzea eta literatura-kulturaz gozatzea ahalbidetzen du.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
HKK1. Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez adierazten ditu, argi eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai lotura pertsonalak eraikitzeke.	HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglez bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeke ere.
HKK2. Pertsona-, gizarte- eta hezkuntza-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testu errazak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeke.	HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeke.
HKK3. Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazio erraza aurkitu, aukeratu eta kontrastatzen du, eta fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, eta ezagutza bihurtzen du komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.	HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.
HKK4. Bere garapenera egokitutako euskarazko eta gaztelaniazko askotariko lanak irakurtzen ditu, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa norbanakoaren eta taldearen gozamenerako eta ikaskuntzarako iturritzat hartzen du; eta bere esperientzia pertsonala eta irakurlea mobilizatzen ditu, obren interpretazioa eraiki eta partekatzeko eta eredu errazetatik abiatuta asmo literarioko testuak sortzeko.	HKK 4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeke eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko.
HKK 5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazken kudeaketa elkarriketatuaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemanez, bai eta hizkuntzaren bidez gertatzen diren botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerearekiko jarrera asertiboa izateko.	HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkek elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerearekiko jarrera asertiboa izateko.

KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE)

Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla, eta norberaren esperientziak baliatu behar direla bitartekaritza-estrategiak garatzeko eta hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, hizkuntza klasikoak barne, eta, hala badagokio, trebetasunak mantendu eta eskuratzeko hizkuntzan, familia-hizkuntzan edo

hizkuntza ofizialetan. Era berean, gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, balioestera eta errespetatzera bideratutako dimentsio historikoak eta kulturartekoak biltzen ditu, bizikidetzaren demokratikoa sustatzeko helburuarekin.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...
KE1. Gutxienez, hizkuntza bat erabiltzen du, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez gain, komunikazio-premia erraz eta aurreikusteko modukoei erantzuteko, bai haren garapenari eta interesari erantzuteko, bai eremu pertsonaleko, sozialeko eta hezkuntzako eguneroko egoera eta testuinguruei erantzuteko.	KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesari dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.
KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, hizkuntza-eskakizunen aniztasuna ezagutzen du eta norberaren ikaskuntza-prozesuei buruzko gogoeta egiten du, eta hizkuntzen arteko transferentzia-estrategia errazak modu gidatuan esperimendatzen ditu, eta konfiantzazko jarrera adierazten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko konpetentzian.	KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian.
KE3. Lagunduta, ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna identifikatzen du, errespetuzko eta enpatiazko jarrera hartuta, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat eta bizikidetzaren hobetzeko tresnatzat hartuta.	KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura-ondareztat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniariarako konpetentziak (STEM konpetentzia, ingelesezko sigletan) mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniariarako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.

Matematikarako konpetentziak ikuspegi eta arrazoibide matematikoak garatzea eta aplikatzea ahalbidetzen du, hainbat testuingurutan hainbat problema ebazteko.

Zientziarako konpetentziak ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea dakar berekin, ezagutza eta metodologia multzo bat erabiliz, behaketa eta esperimendazioa barne, galderak planteatzeko eta probetan oinarritutako ondorioak ateratzeko, mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko.

Teknologia eta ingeniariarako konpetentziak zientziei dagozkien ezagutzak eta metodologiak aplikatzea barne hartzen du, gure gizartearen pertsonen behar edo nahien arabera segurtasun, erantzukizun eta iraunkortasuneko esparru batean eraldatzeko.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
STEM1. Gidatuta, arrazoiketa matematikoaren berezko metodo inductibo, deductibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, bai eta metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deductiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko estrategia batzuk hautatu eta erabiltzen ditu, lortutako soluzioei eta jarraitutako prozesuari buruz hausnartuz.	STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo inductibo, deductibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deductiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.
STEM2. Pentsamendu zientifikoaren erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema naturalei eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenerako motor gisa, galderak eginez, esperimendu errazak gidatuz, jardura zientifikoaren berezko oinarritutako trebetasunak modu egokian erabiliz eta, laguntzarekin, horien gauzatzea eta emaitzen interpretazioa baloratuz.	STEM2. Pentsamendu zientifikoaren erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapeneraren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimendazioaren eta ikerketaren bidez, tresna eta tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
	esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugel buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.
STEM3. Proiektuak modu gidatuan egiten ditu, prototipo edo eredu desberdinak diseinatu, fabrikatu eta ebaluatu, ziurgabetasunaren aurrean egokitu, kooperatiboki helburu jakin bat duen produktu sortzaile bat sortzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatur eta sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz.	STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatur, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokitu eta iraunkortasunaren garrantzia baloratu.
STEM4. Metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologiko batzuen oinarriko informazioa eta elementu garrantzitsuenak modu argi eta egiazkoan interpretatzen eta transmititzen ditu, matematikako, zientzietako eta teknologiko hizkuntza egokia erabiliz (terminologia espezifikoa, grafikoak, notazioa, sinboloak eta kodeak) eta kultura digitala modu kritiko, etiko eta arduratsuan baliatur ezagutza berriak partekatze eta erakitzeko.	STEM4. Prozesu, arazoak, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologiko elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatze eta erakitzeko.
STEM5. Osasuna eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez eta kontsumo arduratsuen praktikan etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatuz.	STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratu eta kontsumo arduratsua praktikatuz.
STEM6. Gizadiaren historian matematikak, zientziak eta teknologiak duten garrantzia balioesten du, zientziak pertsonen ongizateari dakartzion onurak edo onurak adieraziz eta aparatu, aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologiko batzuekin lotuz.	STEM6. Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.

KONPETENTZIA DIGITALA (KD)

Konpetentzia digitalak ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua eskatzen du, bai eta teknologia horien bidez pertsonekin edo gailuekin elkarreragitea ere.

Konpetentzia digitalaren barruan sartzen dira informazioaren eta datuen alfabetatzea, komunikazio eraginkorra eta hainbat kanal eta inguruneren bidezko lankidetzak, hainbat hizkuntzaren erabilerari buruzko alfabetatze mediatikoa, askotariko eduki digitalen sorrera (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala barne) eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoaren ebazpenarekin, pentsamendu konputazionalarekin eta kritikoarekin lotutako gaitasunak.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KD1. Bilaketa gidatuko estrategia errazak erabiltzen ditu informazioa eskuratzeko (hitz gakoak, informazio garrantzitsuenaren analisia, datuen antolamendua), jarrera kritikorekin, informazio-beharrak identifikatuta, eta fitxategiak eta edukiak gordeta eta berreskuratuta.	KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotatzearen eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotatze- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratuta eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektualaren errespetatuz.
KD2. Norberak edo beste batzuek sortutako edukia sortzen eta editatzen du, integratzen eta berregiten du, hainbat formatutan (testua, taula, irudia, audioa, bideoa, programa informatikoa...), ideiak, sentimenduak eta ezagutzak adierazteko tresna digitalak erabiliz, jabetza intelektualaren eta egile-eskubideak errespetatuz eta modu antolatuan gorde eta berreskuratuz.	KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilita, bai dauden edukiak berrerabilita, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza aplikatuta.
KD3. Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartzen du, tresna edo plataforma birtualak erabiliz, ezagutza berria	KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen, laguntzen eta

eraikitzeko, hainbat bitartekoren bidez komunikatzeko (txata, mezularitza, bideodeiak), gai bati buruz eztabaidatuz edo produktuak sortuz elkarlanean lan egiteko, datuak eta edukiak ingurune digital mugatueta eta modu seguruan gainbegiratuta partekatzeke, bere nortasun digitalaren jarrera ireki eta arduratsuekin.	elkarreragiten du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeke; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetsua gauzatzen du.
KD4. Normalean, irakaskuntza-orientazioarekin, prebentzio-neurriak aplikatzen ditu teknologia digitala erabiltzean gailuak babesteko (antibirusa erabiltzea, pasahitzak kudeatzea), datu pertsonalak (pribatutasuna), osasuna eta ingurumena, badaki nola hartu prebentzio-neurriak ziberjazarpenetik babesteko, eta jabetzen da identitate digitalarekin lotutako onurez eta arriskuez.	KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun-estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarriko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, adikzioak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa.
KD5. Konponbide digital erraz eta jasangarriak garatzen hasten da (material teknologikoak berrerabiltzea, blokekako programazio informatikoa, hezkuntza-robotika, etab.), sormenez proposatutako arazo zehatzak edo erronkak ebazteko, behar izanez gero laguntza eskatuz eta softwarearen eta aplikazioen funtzio simple batzuk aldatuz (oinarriko konfigurazio-aukerak).	KD5. Ea identifikatzen dituen arazo teknikoak eta gabeziak baliabideen erabilerari, tresnei eta bere kompetentzia digitalaren garapenari dagokienez, eta soluzioak ematen dizkien; ea garatzen dituen informatika-aplikazio errazak eta arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko irtenbide teknologiko sortzaile eta iraunkorrak; ea interesik agertzen duen eta ulertzen dituen teknologia digitalen bilakaeraren, haien garapen sozial iraunkorraren eta erabilera etikoaren azpiko printzipio orokorrak eta logika.

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)

Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzunkidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bizitza bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KPSII1. Bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiltzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldaketetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko.	KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.
KPSII2. Osasunerako arrisku garrantzitsuenak ezagutzen ditu eta bere ongizate fisiko eta mentalerako ohitura osasungarriak hartzen hasten da.	KPSII 2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneokak identifikatzen ditu.
KPSII3. Besteen emozioak eta esperientziak ezagutu eta errespetatzen ditu, talde-lanean parte hartzen du, esleitutako banakako erantzukizunak bere gain hartzen ditu eta partekatutako helburuak lortzera bideratutako lankidetz-estrategia errazak erabiltzen ditu.	KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.
KPSII4. Bere ikaskuntza hobetzeko ahalegin eta dedikazio pertsonalaren balioa ezagutzen du, eta jarrera kritikoak hartzen ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean.	KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KPSII 5. Epe laburreko helburuak planifikatzen ditu, ikaskuntza autorregulatuko estrategiak erabiltzen ditu eta autoebaluzioa eta koebaluzioa prozesuetan parte hartzen du, bere mugak ezagutzuz eta ezagutza eraikitzeke prozesuan laguntza bilatzen jakinez.	KPSII 5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelkadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeke prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...
HK1. Bere nortasunari eta kulturari buruzko gertaera historiko eta sozial garrantzitsuenak ulertzen ditu, bizikidetzara-rauei buruzko gogoeta egiten du, eta modu eraikitzailean, elkarriketan eta inklusiboan aplikatzen ditu edozein testuingurutan.	HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteekiko elkarreaginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionalean.
HK2. Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, erabakiak hartzen ditu eta gatazkak konpontzen ditu, Europar Batasunaren eta Euskadiko Autonomia Estatutua esparruko prozedura demokratikoak, giza eta haur eskubideak, aniztasunaren balioa eta genero-berdintasuna, gizarte-kohesioa eta Garapen jasangarrirako Helburuak errespetatuz.	HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskadiko Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen jasangariarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.
HK3. Gaurkotasuneko balio eta arazo etikoei buruz hausnartu eta hitz egiten du, eta kultura eta ideologia desberdinak errespetatzeko, ingurunea zaintzeko, aurreiritziak eta estereotipoak baztertzeko eta diskriminazio eta indarkeria mota ororen aurka egiteko beharra ulertzen du.	HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritziak garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarriketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.
HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistemikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.	HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.

EKINTZAILTZA-KONPETENTZIA (EK)

Ekintzailtzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoko erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzeko pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta negoziatio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantziarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
EK1. Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutzen ditu, eta ideia originalak lantzen ditu, sormen-trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez eta ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzungo dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.	EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.
EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzen ditu, nork bere burua ezagutzeko estrategiak erabiliz; oinarrizko elementu ekonomiko eta finantzarioak ezagutzen hasten da, eta horiek eguneroko bizitzako egoera eta arazoei aplikatzen dizkie, jatorrizko ideia baliotsuak ekintzara eraman ditzaketen baliabideak hautemateko.	EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzeko eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jardura eta egoera zehatzei, eta lankidetzak- eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzen.
EK3. Ideia eta konponbide originalak sortzen ditu, zereginak planifikatzen ditu, beste batzuekin eta taldean lan egiten du, egindako prozesua eta lortutako emaitza baloratuta, ekimen ekintzaile bat aurrera eramateko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.	EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)

Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako konpetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, bai eta hainbat arteren eta beste kultura-adierazpenen bidez ere. Norberaren ideiak ulertzen, garatzen eta adierazten ahalegintzea eskatzen du, bai eta gizarteko kide izatearen zentzua izatea edo gizarteko funtzio bat hainbat modutan eta testuingurutan betetzea ere, eta nortasuna aberastea kulturen arteko elkarrizketaren bidez.

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KAKK1. Edozein garaitako kultura- eta arte-ondarearen funtsezko alderdiak ezagutzen eta errespetatzen ditu, kulturarteko ingurune batean kultura-desberdintasunak eta horiek errespetatzeko beharra ulertuta.	KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeko kultura- eta arte-aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.
KAKK2. Ea ezagutzen eta interesatzen dituen ondarearen adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, lengoaien eta elementu teknikoaren bidez, hainbat bitarteko eta euskarritan, etengabe aldatzen ari den testuinguru batean.	KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.
KAKK3. Bere nortasuna aberasten eta eraikitzen du, ingurunearekin eta gizartearekin elkarrekin, adierazpen kultural eta artistiko sortzailearen bidez, bere gorputza integratuz eta konpetentzia afektiboak garatuz, besteekiko jarrera ireki eta inklusiboarekin.	KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.
KAKK4. Sormenez erabiltzen ditu hainbat arte-adierazpen eta -adierazpen, teknika plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorpuz adierazpenezkoak erabiliz, proposamen artistikoak eta kulturalak elkarlanean sortzeko.	KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalararen bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarrizko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorpuzekoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkioten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LEHEN HEZKUNTZAKO ARLOAK

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

XXI. mendeko erronkek eskatzen dute gure hezkuntza-sistemak tresnak ematea ikasleek beren bizi-proiektua garatu ahal izan dezaten. Ikuspegi horretatik, ikasleei oinarri zientifiko eta humanistiko sendoa eta ondo egituratua emateak, bai fenomeno fisiko eta naturalez arduratzen diren zientzia esperimentalen arloan, bai giza jardueran zentratutako gizarte-zientzien arloan, lagundu egingo die bizi direngizartea eta mundua ulertzen, trantsizio ekosozial bidezko eta berdintasunezkoa lortzeko bidea errazteko behar den konpromiso soziala hartuta.

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloa ulertzen da haurrak pertsona guztiekiko eta bizi diren munduarekiko konprometituak, arduratsuak eta errespetuzkoak izatera iristea helburu duen esparru gisa, natura-zientzien, gizarte-zientzien, geografiaren, historiaren eta kulturaren funtsezko alderdiak ezagutzea oinarri hartuta. Horrela, beren ezagutzatik abiatuta, balio demokratikoetan oinarritutako printzipio etiko eta jasangarrien arabera eraldatu ahal izango dute mundua. Horretarako, oinarrizkoak dira askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna. Gainera, ikasleek informazio-iturrien erabilera seguru eta fidagarriarekin lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak bereganatu behar dituzte.

Diziplina anitzeko lanak eta jakintza eta trebetasunen arteko loturak kultura zientifikoa eta humanistikoa garatzea errazten dute ikasleengan, ikerketan, esperimendazioan, sormenean eta pentsamendu kritikoa oinarrituta, horiek beharrekoak baitira garapen jasangarria eta herritar global konprometitu, arduratsu eta aktiboa sustatzeak eskatzen duen inplikazio-maila ezagutzeko.

Gero eta askotarikoagoa eta aldakorragoa den gizarte honetan, ezinbestekoa da egokitzea eta malgutasunez jokatzeko, sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko modu berriak sustatzea. Denboran zehar izandako eboluzioa ezagutzeak eta, aldaketaren erantzule gisa, giza ekintza interpretatzeak berekin dakarte ikasleek beren burua eta ingurunea ikuspegi zabalago batetik ezagutu beharra, mundu bidezkoagoa, solidarioagoa, berdinzaleagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke. Aniztasuna aberastasun gisa bizitzea, gatazkak modu baketsuan konpontzeko prestatzea, herritarrek parte hartzearen garrantziaz kontzientziatzea eta balio demokratikoak jarrera kritiko batetik bere egiteko gai izatea ezinbesteko helburuak dira mundu hobea eta, hortaz, bizitzarako funtsezkoak diren konpetentziak lortzeko.

Bizitza- eta ikaskuntza-inguruneen digitalizazioak eskatzen du ikasleak teknologia modu seguruan, eraginkorrean eta arduratsuan erabiltzeko konpetentzia digitala arian-arian bereganatzea. Konpetentzia horrek, gizarte-interakzioko estrategiekin, espiritu ekintzailearen sustapenarekin eta prozesu teknologikorako oinarrizko trebetasunen eta tekniken garapenarekin batera, erraztu egingo du problema bat ebazteko edo hurbileko ingurunearen beharrian bati erantzuteko aukera ematen duten diziplinarteko proiektu kooperatiboak egitea. Horrela, ikasleak gai izango dira balio ekosoziala izango duten konponbide analogiko eta digital sormenezkoak eta berritzaileak ekartzeko.

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloak hainbat diziplina biltzen ditu, eta curriculumaren arlo guztiekin lotzen da, baina oso modu estuan hizkuntza-arloarekin (gainerako ezagutzak eraikitzeke erabiliko dugun zutabe nagusiarekin) eta STEM biltzen duten arloekin. Horrek ikaskuntza holistikoa eta konpetentziala errazten du.

Gainerako arloetan bezala, curriculumaren ardatza diren konpetentzia espezifikokoak eraikitzeke, erreferentziatza hartu dira etaparen helburu orokorrak eta oinarrizko hezkuntza amaitzean ikasleek duten irteerako profila. Konpetentzia espezifikokoak ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatzen dira. Ebaluazio horretanemaitzak eta prozesuak ere neurtzen dira, modu ireki eta malguan eta curriculumaren barruan konektatuta, oinarrizko jakintzak eskuratuz, horiek konpetentziak garatzeko bitarteko gisa ulertuta.

Arlo honetan, oinarrizko jakintzak hiru multzotan egituratzen dira, eta horiek eguneroko bizitzako hainbat testuinguru errealean aplikatu beharko dira, eremu publikoan zein pertsonalean, arloko konpetentzia espezifikokoak lortzeko.

- a) Kultura zientifikoa. Multzok honek esparru zientifikoarekin lotutako gai ugari biltzen ditu. Ikerketen bidez, ikasleek pentsamendu zientifikoaren berezko trebetasunak eta estrategiak garatuko dituzte. Horrela, haiek inguratzen dituen mundua ikertzea eta aurkitzea ahalbidetzen duen metodo zientifikoaren oinarriko printzipioetan hastapenak egiten dituzte. Horretarako, zientziak gure gizartean genero-ikuspegitik duen eragina baliarazten da, kultura zientifikoa sustatzen da, eta oinarri zientifikoa duten objektu, printzipio eta ideien eguneroko erabilera aztertzen da. Era berean, gai hauei buruzko ikuspegia ematen du: giza gorputzaren funtzionamendua eta ohitura osasungarri eta jasangarriak hartzea, izaki bizidunen eta horiek bizi diren ingurunearen artean sortzen diren harremanak, eta indarrek eta energiak duten eragina materiaren eta inguruneko objektuetan gainean.
- b) Teknologia eta digitalizazioa. Multzok hau, alde batetik, diseinu-pentsamenduaren eta pentsamendu konputazionalaren berezko estrategiak garatzera bideratzen da, problemak elkarlanean ebazteko, premia jakin bati irtenbidea ematea helburu dela. Bestalde, kompetentzia honek helburu du, orobat, ikasleak tresna eta baliabide digitalen oinarriko erabilera gaitzea, xede hauek gauzatzeko bitarteko gisa: ikaskuntza-beharrak asetzea, informazioa bilatu eta ulertzea, edukia sortzea, erabiltzaile trebe, kritiko eta aktibo bihurtzea eta giro digitalean modu arduratsu eta seguruan eta genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabe moldatzea.
- c) Gizarteak eta lurraldeak. Multzok honek egungo eta ingurune lokal eta globaleko erronka eta egoeretan jartzen du arreta, eta bizi garen munduan modu zibikoagoan, demokratikoagoan, solidarioagoan, inklusiboagoan, jasangarriagoan eta konprometituagoan sartzeko, ekomendekoak eta elkarren mendekoak garelako aitortuta. Ikasleei mundua interpretatzen lagunduko dioten estrategiak garatzeko aukera ematen du, gertakari historiko, artistiko eta kulturalen eta horien testuinguruaren ezagutzatik abiatuta; kausalitateko, aldiberekotasuneko eta segidako erlazioak erabilita, gizarteek denboran eta espazioan zehar izan duten bilakaera ulertzeko bitarteko gisa eta, genero-azterketatik abiatuta, gizakiek historiako protagonista indibidual eta kolektibo gisa izan duten zeregina ulertzeko bitarteko gisa. Azkenik, ikasleek giza jardueren eta natura- eta gizarte-ingurunearen (birtuala barne) arteko interakzioak ezagutzen laguntzen du, baita horiek sortzen duten ingurumen-inpaktua ezagutzen ere, ikasleak inplika daitezkeen bizi-ohitura jasangarriak hartzen, eta zainketak baliaraztea eta garapen jasangarriko helburuetarantz modu kontzientean eta testuinguru baten barruan aurrera egitea ahalbidetzen duten jardueretan parte hartzen.

Eranskin gisa jasotzen diren ikaskuntza-egoerek proposamenak zehazteko zenbait modu eskaintzen dituzte helburu argigarri hutsarekin. Baina espazio irekia da, ikasleen jakin-mina eta behaketa kritikoa sustatzen dituen, errealitatearen aurrean beren jarrera pertsonala erakitzeko.

Aurretik aipatutako guztiaz gain, arlo honek bereziki azpimarratzen du garapen jasangarriko eta herritartasun globalerako hezkuntza, 2030eko agendaren garapen jasangarriko helburuekin bat etorritik, besteak beste: garapen jasangarriko helburuak lortzearen alde lan egiteko ezagutza eta bultzada, dibertsitate etniko-kulturalarekiko errespetua, gizarte-kohesioa, espiritu ekintzailea, ondarearen balorazioa eta kontserbazioa, gizarte- eta ingurumen-arloko ekintzailetza, eta berdintasunaren defentsa eraginkorra.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka bai taldean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.

Azken hamarkadetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gure bizitzetan barneratzen eta integratzen joan dira, eta gure gizarteko esparru guztietara hedatu dira, eguneroko bizitzako zeregin askotan laguntzen duten ezagutzak eta tresna ugari ematen baitituzte.

Gaur egun dauden gailu eta aplikazioen aniztasuna dela-eta, beharrezkoa da ikaskuntza-ingurune pertsonala (IIP) digitalizatzearen kontzeptua sartzea, hau da, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-premien arabera bere ingurune analogiko zein digitalean erabiltzen dituen informazio-iturri, tresna, konexio eta jardueren multzoa. Izan ere, horiek aukera ematen diote zereginak modu sortzailean, kritikoa, efizientean eta seguruan egiteko. Beraz, konpetentzia honen helburua da ikasleak giro digitalean moldatzeko prestatzea, gailuen erabilera hutsetik eta sarean informazioa bilatzen haratago. Konpetentzia digitala garatzea aukera emango du teknologiarik genero-estereotipoak alde batera utzita ematen zaion erabilera ulertzeko eta baloratzeko; norberaren lanean produktibitatea eta eraginkortasuna handitzeko; informazioa interpretatzeko, antolatze eta aztertze trebetasunak garatzeko; edukia sortzeko; bitarteko informatikoen bidez komunikatzeko eta modu kooperatiboan lan egiteko. Halaber, konpetentzia honek ingurune digitalaren erabilera kritikoa eta segurua egiteko estrategiak ezagutzea eskatzen du, arriskuez jabetuta, arrisku horiek nola saihestu edo minimizatu ikasita, behar denean laguntza eskatuta eta egon daitezkeen problema teknologikoak ahalik eta modu autonomoenean konpontuta.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, KE3, KPSII5.

2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilia, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.

Zientziak irakasteko ikuspegi didaktikoei abiatu behar dute ikasleek beren inguruko mundua ulertzeko duten jakin-minetik, pentsamendu zientifikoaren berezko ikerketa- eta esplorazio-prozesuetan parte-hartze aktiboa bultzatuta. Beraz, ikasleek gai izan behar dute problema txikiak identifikatu eta planteatzeko, informazioa lortu, aztertu eta sailkatzeko, hipotesiak sortzeko, eta iragarpenak eta egiaztapenak egiteko. Gainera, gai izan behar dute emaitzak interpretatuta eta jakinarazteko.

Lan egiteko modu horrek benetako ikaskuntzak sor ditzan, irakasleak bere gain hartu behar du bideratzailearen eta gidariaren rola, eta ikasleei trebetasun horiek erraztuko dituzten baldintzak, jarraibideak, estrategiak eta material didaktikoak eman behar dizkie, egon daitezkeen genero-desberdintasunak kontuan hartuta. Gainera, jarduerak ingurune hurbilenean kokatu behar dira, ikasleak ikasitakoa hainbat testuinguru eta egoeratan aplikatzeko gai izan daitezen, esparru publikoan zein pertsonalean. Horrela, gainera, ikaskuntza berriak eskuratzeko eta eguneroko bizitzan planteatu daitezkeen problemei irtenbidesortzaileak bilatzeko interesa pizten da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1, EK3.

3. Arazo-egoerak diziplinarteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzuneko dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko.

Elkarlaneko jardueretan oinarritutako diziplinarteko proiektuak lantzeak eskatzen du hainbat arlotako funtsezko jakintzak modu koordinatuan eta taldean garatzea, ingurune fisiko, natural, sozial, kultural edo teknologikoko erronka edo problema bati erantzuteko, diseinu-pentsamenduaren edo pentsamendu konputazionalaren berezko teknikak erabilia. Premiak hautematea, prototipoak diseinatzea, sortzea eta probatzea eta emaitzak ebaluatzea funtsezkoa da balio ekosozialeko azken produktu bat lortzeko, diseinu-pentsamenduaren zati gisa. Bestalde, pentsamendu konputazionalak baliabide hauek erabiltzen ditu: problema bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, patrioiak ezagutzea, ereduak egitea, informazio garrantzitsua hautatzea eta eguneroko bizitzako prozesuak automatizatzeko algoritmoak sortzea.

Esparru zientifiko-teknologikoko pentsamenduen estrategiak ez dira baztertzailak, eta batera erabili daitezke proiektuaren beharren arabera. Horrelako proiektuak egiteak, gainera, pentsamendu sortzailea eta berrikuntza sustatzen ditu, ikaskuntza-egoerak sortzen baititu, egoera horietan ez baitago irtenbide zuzen bakarra. Aitzitik, erabaki oker edo egoki oro baliozko informazioa lortzeko aukera ekinokzialeko gisa agertzen da, soluzio hobea bat lantzen lagunduko duena. Egoera horiek, gainera, ingurune bikaina bultzatzen dute lankidetzarako. Ingurune horretan, hainbat trebetasun garatzen dira, hala nola

argudiaketa, ideia konplexuen komunikazio eraginkorra, erabaki partekatuak hartzea eta gatazkak modu baketsuan eta elkarrizketa bidez kudeatzea, ingurune analogikoetan zein digitaletan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK4.

4. Norberaren gorputza, norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, eta ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatzea, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.

Adin goiztiarretatik beren gorputzaren kontzientzia hartzeak aukera ematen die ikasleei hura ezagutzeko eta kontrolatzeko, mugimenduak hobeto egiteko eta ingurunearekin duten harremana hobetzeko; izanere, gorputza baitute beren sentimendu eta emozioen adierazpidea. Gorputzaren erregulazio eta adierazpen ez-estereotipatuak baikortasuna, erresilientzia, enpatia, asertibitatea eta helburuen bilaketa indartzen ditu, eta ingurune analogiko eta digitaletan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu eraikitzailean kudeatzea ahalbidetzen du.

Ikasleek giza gorputzaren dibertsitatea eta potentzialtasuna balioetsita lortzen duten ezagutza zientifikoak eskatzen du, halaber, eskolatzeko-aldian zehar osasunerako dauden arriskuak ezagutzea. Ezagutza hori lotu behar da zaintza- eta prebentzio-ekintzekin —bizitza-ohitura, -estilo eta -portaera osasungarriak garatuta—, eta beren heldutasun-mailara egokitutako hezkuntza afektibo-sexualarekin. Hezkuntza horrek genero-ikuspegia izan behar du eta hiru dimentsio hauetatik landu behar da: norberaren gorputzaren ezagutza eta gorputzaren balorazioa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.

5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.

Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunea osatzen duten elementuak eta sistemak ezagutzea da haren aberastasuna eta aniztasuna ulertzeko eta baloratzeko lehen urratsa. Horregatik, konpetentzia honen helburua da, ikasleek beren ingurune elementuak zorrotz eta sistemikoki ezagutzeko lehen hurbilketa bat izateaz gain, horien arteko erlazioak ezartzea. Horrela, xedea da ikasleek natura-, gizarte- eta kultura-ingurunea ezagutzea, ulertzea, errespetatzea, baloratzeko eta babestea, espazioaren eta denboraren ikuspegitik. Adibidez, izaki bizidunak, gizakiak barne, bizi diren ingurunera nola egokitzen diren eta elementu biotiko edo abiotikoekin harremanak nola ezartzen dituzten edo materiak indarren presentziaren aurrean nola jokatzen duen ulertzeak ikasleei aukera ematen die ezagutza zientifiko konektatua eskuratzeko, egiten dituzten ikerketetan edo proiektuetan mobilizatuko dutena. Orobat, aukera ematen du espazioaren erabilerarekin eta haren eraldaketekin lotutako arazoak ikusarazteko, baita gizakiek denboran zehar beren beharrak asetzeko egindako eta batzuetan bereizitako aldaketak eta egokitzapenak ere. Ikusaraziko ditu, era berean, gizakiak garatzen joan diren gizarte-erakundeak, eta sistema patriarkalak horretan guztian eduki ahal izan duen eragin erabakigarria.

Lurraldeko baliabideen etengabeko erabileraz eta ustiapenez jabetzeak ikasleak bultzatu behar ditu natura- eta kultura-ondarea erabili, kontserbatu eta hobetzeko ekintzak garatzera, hura guztien ondasuntzat hartuta. Gainera, naturaren, gizartearen eta kulturaren arloko erronkei erantzungo dieten jarduketak original eta etikoekiko konpromisoa hartzea eta proposatzea sustatu behar du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, CP1, CP2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2

6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.

Funtsezkoa da jakitea zein eboluzio izan duen gizakiaren interakzioak inguruan duen munduarekiko, ondasun komunen erabilerari eta aprobetxamenduari dagokionez, gero eta aurreratuagoak diren prozesu teknologikoen bidez; ikasleek gogoeta egin dezaten eta jabetu daitezten biosferaren mugez, ondasunen kontsumo azkarrari lotutako arazoez eta erregai fosiletan oinarritutako energia-eredu bat ezartzeaz. Horrela, gizarte garaikidearen erronka eta aupadei jasangarritasunaren ikuspegitik aurre egin ahal izango diete.

Gaur egungo gizarte-ereduak planteatzen dituen arazoak eta horiek tokian-tokian eta globalki duten inpaktua identifikatu eta sakondu ahal izateko abiapuntua da interdependentzia- eta ekomendetasun-harremanak ulertzea, baita pertsonentzat, mendeko izaki sozial diren aldetik, duten garrantzia eta komunitateak ematen dizkigun zainketak ulertzea ere. Hortaz, beharrezkoa da ikasleei tresnak ematea ekintzailetzaren ikuspegitik eta jarrera kritiko eta kooperatibo batetik haiek aldaketa ekosozialaren eragile gisa ahalduntzea errazteko. Horrek eskatzen du garapen jasangarriko helburuetarantz modu kontzientean eta testuinguru baten barruan aurrera egitea ahalbidetuko duten jarduerak diseina ditzaten eta horietan parte hartu eta inplika daitezten. Horrela, enpatian, lankidetzan eta pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuan oinarritutako harremanetako eta bizikidetzan analogiko eta digitaleko ereduak eraikitzen parte hartuko dute.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1.

7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.

Gizarteek denboran zehar izan dituzten bereizgarriak eta gizarte horietan gizonak eta emakumeak izan duten zeregina ezagutzeak, historiako protagonista indibidual eta kolektibo gisa, ikasleei balio behar die garaiak elkarrekin erlazionatzeko eta horietako bakoitzean ekintza eta gertaera nabarmenenak identifikatzeko. Gizarte bakoitzaren kultura-elementuak eta -adierazpenak harreman ekonomiko, sozial eta politiko konplexuen isla dira, baita horien oinarri diren balio, sinesmen eta ideiena ere, baina, halaber, gizarte bakoitzaren identitate anizkunena, kideen talentuarena eta beste kultura batzuekiko harremanena ere. Ulertzea interakzioen sare dinamikoko hori dela iraganeko eta egungo gertaera historikoen azterketa, interpretazio eta balio kritiko guztien funtsa.

Bestalde, ikuspuntu historiko kritiko batetik garrantzitsuak diren gertaerak ezagutzea eta testuinguruan kokatzea funtsezkoa da ikasleek uler dezaten iraganak nola laguntzen duen oraina eratzen. Gertaera horiek ikertzeak, beren artean kausalitateko, aldiberekotasuneko eta segidako erlazioak ezarritik, eta alderdi dinamikokoak eta egonkorrenak identifikatuz, gizabanakoari aukera ematen dio bere burua eta besteekin eta ingurunearekin dituen harremanak zabalago eta hobeto ulertzeko, eta egoerarik onenean jartzen du, gaurkotasunarekiko jarrera objektiboa eta analitikoa hartzeko eta jasangarritasunaren ikuspegitik konpromiso arduratsua bere gain hartzeko, baita ingurune analogiko eta digitaletan etorkizunak dakartzan erronkekiko konpromiso kontzientea ere.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD4, KD5, KPSII4, HK1, HK3, HK2, KAKK1.

8. Aniztasuna eta genero-berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsita, gai etikoei buruz modu kritikoa hausnartuta, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta Europar bizikidetzaren baketsua eta errespetuzkoa lortzeko.

Aniztasuna gaur egungo gizartearen ezaugarri bereizgarria da, eta demokrazian bizitzeko erronkak planteatzen ditu. Munduko gizartearen eta lurraldeen arteko analisi konparatiboak erakusten duenez, hainbat faktore geografiko, ekonomiko eta kulturalen ondorioz, gizartearen eta politika antolatzearen modu desberdinak daude batera. Ingurunearen errealitate multikulturalak ondare-aniztasunaz eta -aberastasunaz jabetzea errazten du, eta pertsona eta kultura desberdinekiko errespetuzko eta elkarrizketarako jarrera sustatzen du. Mundu-mailako interkonexioa, integrazio-prozesuak (Europar Batasuneko kasu) eta migrazio-mugimenduak lotuta daude errealitate anitz eta askotariko horrekin, eta beharrezkoa da berdintasunaren, giza eskubideekiko eta haurren eskubideekiko errespetuaren printzipioetatik eta europeismoaren balioetatik abiatzea, aurreiritziak eta jarrera diskriminatzaileak prebenitzeko eta inklusioa eta gizarte-kohesioa bultzatzeko.

Gainera, dibertsitate mota desberdinak topatzen ditugu, pertsonen generoari, adinari, sinesmenei, identitateari, sexu-orientazioari edo egoera funtzionalari lotuak, justizian eta zaintzan oinarritutako jarrerak behar dituztenak, hala nola errespetua, tolerantzia, onarpena eta balorazioa. Garrantzi berezia hartzen dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko portaerek. Horiek ekintza konprometituak eskatzen dituzte jarrera diskriminatzaile oro saihesteko. Portaera eta balio horiek guztiak ikasleen familia eta gizarte-ingurunean garatu behar dira, herritartasun aktibo eta arduratsuen bidez, ingurune analogikoan zein digitalean.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK 1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

9. Gizarte-ingurunearen eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Adierazpen Unibertsalek eta Europako, Estatuak eta Autonomia Erkidegoko legeriak bultzatutako printzipio demokratikoez aritzen dituzten balioak errespetatuz, erakunde demokratikoei bakea eta segurtasuna mantentzeko duten funtzioa baloratuz, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarrizketa bidezkoa sustatzeko.

Gizartearen bere lurraldean nola antolatzen den ulertzea funtsezkoa da herritarren hezkuntzarako. Gizarte demokratikoa herritartasun konprometitua eta kritikoa eskatzen du, eta aldi berean sortzailea, eskola-esparruan eta komunitatearen ongizatean eragina duten beste jarduerak batzuetan bete-betean parte hartuko duena. Bizikidetzaren esparru horretan, ikasleek jabetu behar dute gizarte-jokabideko arauen, mugikortasun jasangarriaren eta eskubideak eta erantzukizunak pertsonen artean berdintasunez eta elkarrizketaren bidez banatzearen garrantziaz, komunikatzeko, entzute aktiboko, pentsamendu kritikoa eta sortzaileko eta gatazkek modu baketsuan kudeatzeko trebetasunak garatuta.

Giza eskubideei eta haurrei buruzko adierazpen unibertsaleko printzipio eta balioek, Espainiako Konstituzioak eta Europar Batasunak bultzatutakoekin batera, Estatuarenekin eta erakunde demokratikoenekin batera, berekin dakarte justizia soziala, giza duintasuna, askatasuna, berdintasuna, zuzenbidezko estatua eta giza eskubide indibidual eta kolektiboekiko eta gutxiengo etniko eta kulturekiko errespetua bultzatuko dituen herritartasun aktiboa gauzatzea. Errespetua, justizia, elkartasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bezalako balioak kontzienteki hartzeak XXI. mendeko erronka analogiko eta digitalei aurre egiteko prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, KE1, KE2, KE3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. kompetentzia espezifikoa		
0.1. Lagunduta, informazioa bilatzeko eta hautatzeko oinarriko estrategiak erabiltzea, eredu jakin bati jarraituz.	1.1 Jarraian ezarritako moduan, informazioa bilatzeko eta hautatzeko oinarriko estrategiak erabiltzea, eredu jakinbati jarraituz.	1.1. Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta bereizteko estrategiak planteatutako helburura egokituta erabiltzea.
1.2 Hainbat iturri seguru eta fidagarrietan informazio erraza bilatzea, modu gidatuan, informazio egokia hautatuta eta ingurune natural, sozial eta kulturalarekin lotutako ikerketetan erabilia, ingurune analogikoan zein digitala.	1.2. Informazioa banaka eta taldeka bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri seguru eta fidagarri kritikoki erabilia, oinarriko lexiko zientifikoa bereganatuta eta ingurune natural, sozial eta kulturalarekin lotutako ikerketetan aplikatuta.	1.2. Bi iturritatik baino gehiagotatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta antolatzea, banaka eta taldean, modu planifikatuan eta pixkanaka autonomoan, fidagarritasuna ebaluatuz, oinarriko hiztegi zientifikoa eskuratuz eta eraginkortasunez komunikatuz, zereginaren helburuen arabera.
1.3 Gailu eta baliabide analogikoak eta digitalak hezkuntza-testuinguruaren beharren arabera erabiltzea, eta erabilera seguruko ohiturak hartzea.	1.3. Gailu eta baliabide digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzea, zereginaren premien eta helburuen eta hezkuntza-testuinguruaren arabera, eta eduki digital errazak sortzea.	1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren beharren eta hezkuntza-testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modueraginkor eta kritikoa, eta erabilera seguru eta iraunkorreko ohiturak hartzea.
2. kompetentzia espezifikoa		
2.1. Gogoeta egitea eta galdera egokiak egiten ikastea, modu gidatu eta gidatuan.	2.1 Azterketa egiten ikastea, modu gidatuan eta galderen bidez, ezagutzak modu kooperatiboan partekatuz eta pentsamenduak historian zehar izan duen bilakaera ulertuz, zientziak horretarako ematen dituen ebidentziak adibide gisa erabiliz.	2.1 Pentsamenduak historian zehar izan duen bilakaerari buruzko hausnarketa kooperatiboak egitea, galdera egokiak eginez, prozesu horren gakoak ulertuz, egungo ebidentzia zientifikoak dagokion garaiko pentsamendu zientifikoarekin kontrastatuz eta egungo unera transferituz.
2.2. Gertuko objektu, gertakari eta fenomenoak buruzko jakin-mina erakustea, hipotesiak formulatuz eta informazioa eta emaitzak egindako iragarpenekin alderatuz.	2.2. Ikerketak eskatzen duenean, esperimenduak gidatuta egitea, hainbat ikerketa-teknika erabilia, tresnak eta gailuak modu seguruan erabilia, behaketa eta neurketa zehatzak eginda eta behar bezala erregistratuta.	2.2. Natura-, gizarte- do kultura- ingurunearekin zerikusia duten gaiei buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak aztertu eta interpretatuz, izan daitezkeen irtenbideen koherentzia baloratu eta egindako iragarpenekin alderatuz.
2.3. Ikerketak hala eskatzen duenean, agindutako edo gidatutako esperimenduetan parte hartzea, hainbat ikerketa-teknika erraz erabiliz, tresnak	2.3. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneari buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak interpretatuz eta egindako iragarpenekin alderatuz.	2.3. Ikerketak eskatzen duenean, esperimenduak diseinatzea eta egitea, ikerketa-teknika desberdinak erabiliz, tresna etagailu egokiak modu seguruan erabiliz, behaketa eta neurketa zehatzak eginez, behar bezala erregistratuz eta emaitzak jakinaraziz.
2.4. Eskolako eredu zientifikoak behatzea eta eraikitzea, esperimenduetan bidez lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuta.	2.4. Eskolako eredu zientifikoak modu arautu eta gidatuan eraikitzea, esperimenduetatik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta egindako prozesuari buruz hausnartuz.	2.4. Ereduak modu autonomoan diseinatzea eta eraikitzea, esperimenduetatik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta azken prozesuari eta produktuari buruz hausnartuz.
2.5. Ikerketa txikien emaitza ahoz edo grafikoki komunikatzea, lexiko zientifiko egokia erabilia, egindako urratsak laguntzaz azalduta eta ezagutza modu kooperatiboan partekatuta.	2.5. Ikerketen emaitzak banaka eta taldean aurkeztea, hainbat formatutan (ahozkoa, grafikoa, idatzizkoa eta digitala), oinarriko hizkuntza zientifikoa erabilia eta egindako urratsak azalduta.	2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua zuzentzen den entzuleei egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, egindako urratsak azalduz eta genero-ikuspegia hartuz.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
3. kompetentzia espezifikoa		
3.1 Ingurune hurbileko beharrak identifikatzea edo arazoak antzematea, diziplinarteko proiektu kooperatibo errazetan parte hartuz, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz eta prototipoak sortuz.	3.1. Prototipo edo konponbide digital baten diseinuarekin konpontzen diren problemak identifikatzea, ingurune hurbileko beharrak aztertuta eta helburu errazak ezarrita.	3.1. Prototipo edo konponbide digital baten diseinu sortzailearekin konpontzen diren problemak planteatzea, ingurunearen beharrak ebaluatuz eta helburu zehatzak ezarrit.
3.2 Diseinu-arazo bat konpon dezaketen ideia sortzaileak proposatzea, eskuratutako ezagutzak aplikatuz eta ahozko deskribapenen, marrazkien edo ereduaren bidez partekatuz.	3.2. Planteatutako arazoetarako konponbide iraunkorrak proposatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika errazen bidez, beharrezko baliabideak identifikatuz, kooperatiba-proiektuak kudeatzeko oinarrizko estrategiak erabiliz eta proiektua ebaluatzeko irizpide pertsonalak ezarrit.	3.2. Planteatutako arazoetarako konponbideak diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika errazen arabera diseinatzea, kooperatiba-proiektuak kudeatzeko oinarrizko estrategien bidez, beharrezko baliabideak kontuan hartuta eta proiektua ebaluatzeko irizpide objektibo zehatzak ezarrit.
3.3. Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion amaierako produktu erraz bat taldean eta modu gidatuan diseinatzea, hainbat prototipo probatuz eta erremintaeta material egokiak modu seguruan erabiliz.	3.3. Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion amaierako produktu erraz bat taldean eraikitzea, prototipo edo soluzio digital desberdinak probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz.	3.3. Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion azken produktu bat garatzea, taldean, prototipo desberdinetan edo irtenbide digitaletan probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz.
3.4. Ahoz edo grafikoki diseinu-proiektuen azken produktua erakustea, etalaguntzarekin (gidoi bat, eskema bat, grafikoa...), eman dituen urratsak zeintzuk diren azaltzea.	3.4. Diseinu-proiektuen emaitza aurkeztea, egindako urratsak azaltzea eta prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatzea.	3.4. Diseinu-proiektuen emaitzak jakinaraztea, mezua eta formatua entzuleei egokituz, egindako urratsak azalduz, prototipo edo irtenbide digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatuz eta etorkizuneko proiektuetarako erroka posibleak proposatuz.
4. kompetentzia espezifikoa		
4.1 Bizi-ohitura osasungarriak baloratzea, higiearen, elikadura askotariko eta orekatuaren, ariketa fisikoaren eta atsedenearen garrantzia ezagutuz (edo aitortuz).	4.1 Elikadura askotarikoan eta orekatuan, ariketa fisikoan eta atsedenean oinarritutako bizi-ohitura osasungarriak hartzeko beharra baloratzea eta ezagutzea.	4.1. Bizi-ohitura osasungarriak hartzea, eta elikadura askotarikoaren eta orekatuaren, ariketa fisikoaren, atsedenearen, higiearen eta gaixotasunen prebentzioaren garrantzia baloratzea.
4.2. Ea bereizten dituen ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten ekintzak, eta ea ezagutzen dituen norberaren eta besteen emozioak, eta ea identifikatzen dituen elkarreragiten duen familia- eta eskola-harremant.	4.2. Ongizate emozionala eta soziala sustatzen duten jarrerak erakustea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuta, enpatia erakutsita eta harreman afektibo osasungarriak ezarrit.	4.2. Ongizate emozionala eta soziala sustatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, balioan jarrit, harreman afektibo osasungarriak sustatuz eta teknologiaren eta aisialdiaren kudeaketaren erabilerei buruz hausnartuz.
4.3. Norberaren gorputza ezagutzea eta onartzea, aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratuz eta errespetatuz.	4.3. Norberaren gorputza ezagutzea eta onartzea, eta aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratzea eta errespetatzea, desberdina denarekiko tolerantzia-jarrera erakutsita.	4.3. Norberaren gorputza ezagutzea, onartzea eta errespetatzea, aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratuz, enpatia erakutsiz eta desberdina denarekiko tolerantzia izanez.
5. kompetentzia espezifikoa		
5.1. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak ezagutzea, ikerketa-metodologiaren bidez, eta tresna eta prozesu egokiak modu antolatuan erabiltzea.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak komunikatuz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
5.2 Ingurune natural, sozial eta kultural hurbileko elementuen arteko konexio erraz eta zuzenak ezagutzea, modu gidatuan.	5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea.	5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea.
5.3 Irudi eta adibide zehatzen bidez, ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela aitortuz.	5.3. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin, kulturekin eta sozialekin lotzea eta balioestea, eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dutela onartzea.	5.3. Ea modu kritikoa aztertzen eta balioesten dituen aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekiko ideia zientifikoak, eta ea aitortzen duen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dutela.
5.4 Ondare naturala eta kulturala errespetatzeko eta gozatzeko jarrerak erakustea, eta zaintzea eta kontserbatzea beharrezkoa den ondasun komun gisa aitortzea.	5.4. Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea.	5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez.
6. kompetentzia espezifikoak		
6.1. Bizi-ohitura jasangarriak erakustea, planetako bizitza mota guztiak errespetatzeko, zaintzeko eta babesteko beharraz jabetuta.	6.1. Pertsonen bizitzaren eta ingurune elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboek eta negatiboek jabetuta eta bizitza bere formadesberdinetan errespetatuta.	6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuta, eta problemak identifikatuta. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendarean jakinarazteko.
6.2. Eremu hurbileko elementu eta baliabideekin lotuta, esplizituki eta adibideen bidez identifikatzea pertsonen bizitzak beren ekintzekin duen erlazioa.	6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura jasangarri egokiak praktikan jartzea.	6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzea, banaka eta taldean soluzio arazoituak emanda.
6.3. Ingurune hurbileko arazoak banaka eta taldean antzematea eta soluzio posible batzuk proposatzea.	6.3. Ingurune arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuta.	
7. kompetentzia espezifikoak		
7.1. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune hurbileko gertaerak kronologikoki antolatzea, neurtzeko eta denboran kokatzeko oinarritzko nozioak erabiliz, historiako pertsona garrantzitsuekiko, iraganeko bizimoduak eta horien bilakaeraren garrantziarekiko jakin-mina erakutsita.	7.1. Historiaren etapak identifikatzea, gizakiok, Antzinarora arte, bizi izandako aldaketak deskribatuz, gizarte bizimoduak alderatuz eta kausalitatea, aldibereotasun eta jarraitutasun nozioak identifikatuz.	7.1. Erdi Arotik gaur egunera bitarteko natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen arteko kausalitate-, aldibereotasun eta jarraitutasun-erlazioak aztertzea, gertakari eta pertsona garrantzitsuak ardatz kronologikoetan kokatuta eta historiaren hainbat garaitako gizarte-ezaugarri esanguratsuak identifikatuta.
8. kompetentzia espezifikoak		
8.1. Norberaren inguruko adierazpen artistiko eta kulturalak ezagutzea, ikerketa txikiak eginez, horien aniztasuna eta aberastasuna baloratuz eta norbere burua eta besteena errespetatuz.	8.1. Migrazioek gaur egun duten garrantzi demografikoa, kulturala eta ekonomikoa aztertzea, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate kolektiboari egiten dioten ekarpena baloratuta eta kultura-aniztasun guztiarekiko enpatia eta errespetua erakutsita.	8.1. Norberaren eta taldearen ongizatea eta Europaren integrazioaren balioak lortzen laguntzea, egungo gizarte itxuratu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak ezagututa, kultura-aniztasuna baloratuta, eta pertsona guztiarekiko eta genero-berdintasunarekiko enpatia eta errespetua erakutsita.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
8.2. Genero-berdintasuna, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatuko dituzten jarrerak erakustea, eta ingurune hurbilean eredu positiboak antzematea.	8.2. Genero-berdintasuna, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatuko dituzten ekintzak positiboki baloratzea, eta historian zehar izandako eredu positiboak antzematea.	8.2. Genero-berdintasuneko jarrerak, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatzea, gure gizartean dauden eredu desberdinak aztertuta eta alderatuta.
	8.3. Kultura anitzeko errealitateari buruzko ikerketa txikiak egitea, aniztasunaz eta ondare-aberastasunaz jabetuz, elkarrizketa eta pertsonetikiko eta kulturadesberdinekiko errespetuzko jarrerak sustatuz.	
9. kompetentzia espezifikoa		
9.1. Erantzukizunak identifikatzea eta akordioak elkarrizketaren bidez eta demokratikoki ezartzea, hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabilita, bereingurunetik hurbil dauden taldeetako kide gisa.	9.1. Eskola-komunitatean parte hartzea, jarduerak eginez, ardurak bere gain hartuta eta elkarrizketa akordio demokratikoak ezarriz, eta hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabilita.	9.1. Interakzio errespetuzkoa eta ekitatiboa sustatzea, eta gatazka modu baketsuan eta elkarrizketaren bidez ebaztea, hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabiliz, eta Espainiako konstituzioko eta Europar Batasuneko arau, eskubide, betebeharrak eta askatasun nagusiak azalduz eta erabiliz.
9.2. Hurbileko erakundeak identifikatzea, bizikidetza egokia sustatzen duten funtzioak adierazi eta baloratuta.	9.2. Hainbat administrazioen (tokiko, eskualdeko eta lurraldekoen) gobernu-organoen funtzio nagusiak ezagutzea, horiek kudeatzeak heritarrentzat eta parte-hartze demokratikoarentzat duen garrantzia baloratuta.	9.2. Udalerriko, foru-aldundietako, autonomia-erkidegoetako, Espainiako estatuko eta Europar Batasuneko gobernu-organoen funtzionamendu orokorra azaltzea, baita haien parte-hartze demokratikorako arauak ere, haien funtzioak eta zerbitzu publikoen kudeaketabalaratuz.
9.3. Oinezko eta lokomozio-bideen erabiltzaile gisa oinarrizko arauak ezagutzea eta barneratzea, pertsonen mugikortasun jasangarriren garrantziaz jabetuta.	9.3. Oinezko eta lokomozio-bideen erabiltzaile gisa arauak ezagutzea eta barneratzea, trafiko-seinaleak ezagututa eta pertsonen mugikortasun jasangarriengarrantziaz jabetuta.	9.3. Zirkulazio-arauak gaizki erabiltzearen ondorioak kritikoki baloratzea eta barneratzea, eta mugikortasun jasangarriagoa eta arduratsua lortzeko alternatibak proposatzea.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa	
A: Kultura zientifikoa	
1. Jarduera zientifikorako hastapenak	<p>Mundua ulertzeko lehen galderak eta erantzunak: Humanitateen eta Zientziaren arteko lotura beren jatorritik.*</p> <p>Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan iturri seguru eta fidagarrietatik informazioa modu kooperatiboan eta gidatuan bilatzeko estrategiak, baliabide digital eta analogikoen bidez ikerketa zientifikoei eta/edo sozialei erantzuna emateko eta horien zabalkundea egiteko.*</p> <p>Ikerketaren beharretara egokitutako miaketa-prozedurak, esperimentalak edo dokumentalak (denboran behatzea, identifikatzea eta sailkatzea, patrioiak eta ereduak bilatzea).*</p> <p>Ikerlanaren berezko estrategiak, jakin-minarekin eta norberaren lanerako ekimenarekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak, bai bakarka, bai taldean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.*</p> <p>Oinarrizko hiztegi zientifikoa, behaketak eta neurketak egiteko tresna eta gailu egokiak, ikerketen beharren arabera.*</p> <p>Zientzia eta teknologia giza jarduera gisa; jarduera zientifiko eta teknologikoan diharduten pertsonen ikuspegi ez-estereotipatua.*</p> <p>Ezagutza zientifikoa eta horrek eguneroko bizitzan duen presentzia identifikatzeko jarraibideak.*</p>

Lehen zikloa	
2. Bizitza gure planetan	Izaki bizidunen oinarriko beharrak eta objektu bizigabeekiko desberdintasuna. Bizitzaren zikloa, eta heriotza zikloaren zati gisa.*
	Izaki bizidunak beha daitezkeen ezaugarrien arabera sailkatzeko eta identifikatzeko jarraibideak. Izaki bizidunaren eredu baten eraikuntzara hurbiltzea.*
	Izaki bizidunen egokitzapenak beren habitatera, beren beharrak asetzen dituzten leku gisa ulertuta.*
	Izaki bizidunak eta haiek bizi diren ingurunea zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak.*
	Gizakiaren ongizate fisikoarekin lotutako ohitura osasungarriak: higiena, elikadura askotarikoak eta orekatua, ariketa fisikoa, atsedena eta gorputzaren zaintza, gaixotasunei aurrea hartzeko bitarteko gisa.*
	Ongizate emozionalarekin eta sozialarekin lotutako ohitura osasungarriak: norberaren emozioak identifikatzeko eta komunikatzeko estrategiak eta besteen emozioekiko errespetua. Ikasgelan eta gizartearen dagoen aniztasunarekiko sentsibilitatea eta onarpena.*
3. Materia, indarrak eta energia	Argia eta soina, senti daitezkeen hurbileko energia-forma gisa; iturriak, horien portaera eta eguneroko bizitzan duten erabilera ezagutzea.*
	Materialen propietate behagarriak, haien jatorria eta eguneroko bizitzako objektuetan duten erabilera. Hainbat objektu eta material konparatzeko, sailkatzeko eta antolatzeko irizpideak, propietate fisiko behagarrietatik abiatuta, hala nola: pisua, egoera fisikoa, bolumena, kolorea, testura, usaina, plastikotasuna, forma, erakarpen magnetikoa eta erabilera-aukerak.*
	Substantzia puruak eta nahasketak: nahaste homogeenak eta heterogeenak identifikatzeko jarraibideak. Nahasketa heterogeenak bereiztea hainbat metodoren bidez.
	Egitura erresistenteak, egonkorak eta erabilgarriak, ikasgelan erabiltzen diren materialez eraikiak sekzio eta geometria desberdinekin.*
B. Teknologia eta digitalizazioa	
1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea	Ikaskuntza-ingurune digitaleko gailuak eta baliabideak.
	Ingurune ezagun eta seguruetan pertsona ezagunekin komunikatzeko baliabide digitalak.*
2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak	Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, problema zehaztea, diseinua sormenezko ikuspegitik asmatzea, prototipoak eta probak egitea, ebaluatzea eta komunikatzea.*
	Proiektua gauzatzeko material, erreminta eta objektu egokiak.
	Programaziorako hastapenak: ikasleen irakurketa-mailara egokitutako baliabide analogikoak eta digitalak (programatzen hasteko plataforma digitalak, hezkuntza-robotika...).
	Talde-lanerako oinarriko estrategiak.*
C. Gizarteak eta lurraldeak	
1. Egungo munduaren erronkak	Lurra unibertsoan. Barne- eta kanpo-elementuak, Lurrarekin eta unibertsoarekin lotutako mugimenduak eta dinamikak, eta horrek eguneroko bizitzan eta ingurunean dituen ondorioak. Denbora-sekuentziak eta urtaro-aldaketak.*
	Bizitza Lurrean. Ura bizitzaren elementu komun eta oinarriko gisa. Fenomeno atmosferikoak eta horiek ziklo biologikoetan eta eguneroko bizitzan duten eragina. Datu atmosferikoak behatzea eta erregistratzea.*
	Egoeren inguruko erronkak. Espazio-eta denbora-pentsamenduaren oinarriko funtzioak, ingurunearekin interakzioan jarduteko eta eguneroko bizitzako egoerak ebazteko. Ibilbideak eta bideak, joan-etorriak eta bidaia.*
2. Gizarteak denboran zehar	Denboraren pertzepzioa. Denboraren neurketa eguneroko bizitzan. Bizi-zikloa eta belaunaldien arteko harremanak, Historiaren existentziarako lehen hurbilketa gisa.*
	Baliabide analogikoak eta digitalak. Ahozko iturriak eta gizataldeko memoria. Tokiko historia eta familiaren biografia; gizonak eta emakumeak Historiaren parte gisa.
	Adierazpen eta ekoizpen artistiko eta kulturalak, emakumeek denboran zehar arteari eta kulturari egindako ekarpena baloratuta. Tokiko ondare materiala eta ez-materiala.*
3. Alfabetatze zibikoa	Gizataldeko bizitza. Familia eta familien aniztasuna. Familia-, auzo- eta eskola-ingurune konpromisoak, parte-hartzea eta arauak. Gatazken prebentzioa, kudeaketa eta elkarrizketan jarduteko ebazpena.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	
	Bizitza gizartean. Inguruneke espazioak, baliabideak eta zerbitzuak. Gizarte-elkarrekintzarako moduak espazio publikoetan, genero-ikuspegitik.*
	Identitate- eta kultura-aniztasuna: errealtate desberdinak eta inguruneke etnia-kulturei hurbilketa. Inklusioa eta jarrera diskriminatzaileak gaitzestea. Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura.*
	Zeregina eta lana. Inguruneke gizon eta emakumeen jarduera profesional eta laboral nagusiak identifikatzea. Lan produktiboa eta erreproduktiboa.*
	Genero-berdintasuna eta jokabide ez-sexista.*
	Bide-segurtasuna. Oinezko eta garraibideen erabiltzaileetarako oinarrizko arauak.*
4. Kontzientzia ekosoziala	Gure ingurunea ezagutzea. Paisaia naturalak eta paisaia gizatiartuak, eta horien elementuak. Ingurunearen gaineko giza ekintza eta horren ondorioak.*
	Erantzukizun ekosoziala. Ondasun komunak kontserbatzeko, hobetzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko ekintzak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa.*
	Bizi-ohitura jasangarriak. Uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.

Bigarren zikloa	
A: Kultura zientifikoa	
1. Jarduera zientifikorako hastapenak	Mundua ulertzeko lehen galderak eta erantzunak: mitoak, filosofia eta zientzia.*
	Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan informazioa bilatzeko, hautatzeko eta zabaltzeko estrategiak, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez. Erabilitako iturrien egiletza.*
	Ikerketa esperimetal edo dokumental baterako miaketa-prozedura egokiak, metodo zientifikoa erabilia.*
	Ikerlanaren berezko estrategiak, jakin-minarekin, ekimenarekin, iraunkortasunarekin eta norberaren lanerako ahaleginarekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak, baibakarka, bai taldean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.*
	Oinarrizko hiztegi zientifikoa. Behaketa eta neurketa zehatzak egiteko tresna eta gailu egokiak.*
	Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak, eta horiek bizi-baldintzen hobekuntzarekin eta ondorio ekosozialekin duten lotura.
2. Bizitza gure planetan	Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisia oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak.
	Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.*
	Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpitaldeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.*
	Landareen berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzeko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.*
	Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitata suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...).
	Bizi-prozesua eta identitatearen eraikuntza: haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, heldutasuna eta zahartzarora. Bizitza eta heriotza. Elkarren mendekotasuna: gure bizitza garatzeko beste pertsona batzuekiko dugun beharra.*
	Ongizate fisikoa, emozionala eta soziala gure ingurune hurbilenean: tresnak, autokontzientzia eta ohitura osasungarriak.*

Bigarren zikloa	
3. Materia, indarrak eta energia	Beroa. Produkzio-iturriak. Temperatura. Egoera-aldaketak, material eroaleak eta isolatzaileak, neurgailuak eta aplikazioak eguneroko bizitzan.*
	Materiak dituen aldaketak; eguneroko bizitzako egoeretan materialen gertatzen diren prozesuak eta eraldaketak.
	Kontaktu-indarrak eta urrutiko indarrak. Ikerketa esperimentalak mota desberdinetako indarrekin.
	Makina sinpleen propietateak eta horiek indarren gainean duten eragina. Aplikazioak eta erabilerak eguneroko bizitzan.
B. Teknologia eta digitalizazioa	
1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea	Gailu eta baliabide digitalak hezkuntza-testuinguruaren beharren arabera.*
	Interneten informazio bilatzeko estrategia gidatu seguruak eta eraginkorrak (balorazioa, diskriminazioa, hautaketa eta antolaketa).* Interneten nabigatzeko eta ikaskuntzako ingurune digital-pertsonala babesteko oinarrizko segurtasun- eta pribatutasun-arauak.*
	Beste pertsona batzuekin komunikatzeko baliabide eta plataforma digital mugatuak eta seguruak.
	Etiketa digitala, kortesiazko eta errespetuzko oinarrizko arauak eta komunikazio digitalean problemak ebazteko estrategiak.
	Komunikazio digitala modu ez-sexistan erabiltzeko jarraibideak.
	Ongizate digitala sustatzeko estrategiak. Teknologia digitalen erabilera desegokiarekin eta ez-seguruekin lotutako arriskuak antzematea (intimitatearen gehiegizko esposizioa, ziberjazarpena, eduki desegokietan sartzea, nahi ez diren posta-mezuak eta publizitatea, gizarte-bakartzea, adikzioak, etab.), eta jarduteko estrategiak.*
2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak	Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak eta probak egitea, ebaluatzea eta komunikatzea.*
	Proiektua gauzatzeko material, erreminta eta objektu egokiak.
	Talde-lanerako teknika kooperatibo errazak, eta gatazkak elkarriketaren bidez kudeatzeko eta jokabide enpatiko eta inklusiboak sustatzeko estrategiak.*
	Programaziorako hastapenak. Baliabide digitalak: programatzen hasteko plataforma digitalak, blokekako programazio-aplikazioak, hezkuntza-robotika...).
	Genero-analisia ikerketa-jardueretan.
C. Gizarteak eta lurraldeak	
1. Egungo munduaren erronkak	Lurra eta hondamendi naturalak. Unibertsoan gertatzen diren dinamikak, mugimenduak, elementuak, eta horien lotura Lurrean eta eguneroko bizitzan eta ingurunean eragina duten fenomeno fisiko jakin batzuekin.*
	Espazioaren ezagutza. Espazioaren irudikapena. Lurraren irudikapena lur-globoaren, mapen eta baliabide digital desberdinen bitartez. Mapak eta planoak eskala desberdinetan. Orientazio-teknikak, ingurune fisikoaren elementuak eta lokalizazio espazialerako beste bitarteko batzuk behatuta.*
	Klima, paisaia eta erliebea. Arroken oinarrizko sailkapena. Fenomeno atmosferikoak. Datu meteorologikoak hartzea eta erregistratzea, eta horien irudikapen grafikoa egitea. Informazio Geografikoaren Teknologia (IGT). Klima-desberdintasunen eta paisaia-aniztasunaren arteko lotura.*
	Erronka demografikoak. Espazioaren betetzea, populazioaren banaketa eta arazo eta erronka demografiko nagusien analisia. Biztanleriaren irudikapen grafikoa eta kartografikoa. Lurraldearen antolaketa Euskal Herrian, Espainian eta European.*
	Jarduera ekonomikoen irudikapen grafikoa eta horren interpretazioa.*
	Berdintasun soziala eta baliabideak eskuragarri izatea. Espazioaren giza erabilerak eta produkzio-jardueren bilakaera. Diruaren balioa eta kontrola eta ordainbideak. Biziraupen gizartetik, gainproduktzioa.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Bigarren zikloa	
2. Gizarteak denboran zehar	Denbora historikoa. Denbora-nozioak eta kronologia. Etapa historiko handien denbora-kokapena ardatz kronologikoetan.*
	Iturri historikoak: iturrien (ahozko, idatzizko eta ondarezkoen) sailkapena eta erabilera, historian zehar inguruan izan diren aldaketak eta jarraitutasunak aztertzeke baliabide gisa. Historiaren aztarnak inguruko leku, eraikin, elementu, , lanbide eta usadioetan.*
	Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako Historiaurrea eta Antzinaroa aztertzea, garai hartako auzi esanguratsuenak, subjektu historikoek (banakakoek eta kolektiboek) betetako zeregina, gertaerak eta prozesuak testuinguruan kokatzeko abiapuntu gisa. Ardatz kronologikoak.*
	Ikerketarako eta lan-metodoetarako hastapenak, gaur egun esanguratsuak diren gertaerei eta auziei buruzko proiektuak egiteko, ikuspegi historikoak eta genero-ikuspegiak kontuan izanda eta Historiaurrean eta Antzinaroan testuinguratuta. Gai horien artean daude, adibidez, biziraupena eta elikadura, etxebizitza, merkataritza-trukeak diruaren jatorria, ordaindu gabeko lanak, ondasun komunak ustiapena, aurrerapen teknikoak edota sortutako arazo sozialak eta ekologikoak.
	Gizakiaren ekintza historian, subjektu gisa.. Gizabanakoek eta gizarte-taldeek garai historiko bakoitzean dituzten zereginak, harremanak, gatazkak, sinesmenak eta baldintzatzaileak interpretatzea.
Natura- eta kultura-ondarea. Natura-gune eta kultura-gune babestuak eta horien kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Herrian. Horien erabilera, zaintza eta kontserbazioa.*	
3. Alfabetatze zibikoa	Gizartean bizitzeko konpromisoak eta arauak.*
	Inguruko ohitura, tradizio eta adierazpen etniko-kulturalekiko begirada kritikoa. Inguruneke kultura-aniztasuna eta gizarte-koherentsia errespetatzea. Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura.*
	Espainiaren antolaketa politikoa eta lurraldekoa.
	Gizartearen antolaketa. Tokiko, eskualdeko eta nazioko erakunde eta entitate nagusiak, eta horiek ematen dituzten zerbitzuak. Zergak: horien zeregin soziala. Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio-egitura eta Espainiako Estatuaren testuinguruan duen kokapena.*
	Lan produktiboa eta erreproduktiboa.
	Zeregina eta lana: sektore ekonomikoak identifikatzea eta hurbileko testuinguruan kokatzea. Langileen eskubideak eta betebeharrak.
Bide-segurtasuna. Zirkulazio-arauak, eta bide-seinaleak eta -marrak. Mugikortasun segurua oinezkoentzat eta garraiobideen erabiltzaileentzat.*	
4. Kontzientzia ekosoziala	Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek inguruneke paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesa.*
	Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa.
	Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak. Animaliekiko tratua txarra eta horren prebentzioa.
	Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.*

Hirugarren zikloa	
A: Kultura zientifikoa	
1. Jarduera zientifikorako hastapenak	Gizarte-zientzien, giza zientzien eta natura-zientzien arteko bereizketa, eta bereizketa hori eragin duen garapen historikoa.
	Ahazko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan informazioa bilatzeko, hautatzeko, antolatzeke eta zabaltzeke estrategiak, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, modu kooperatiboan, banaka eta/edo taldean, informazio horren egokitasuna eta fidagarritasuna baloratuta eta erabilitako iturrien egiletza aipatuta.*

Hirugarren zikloa	
	<p>Metodologia zientifikoa aplikatzeko irizpideak, jarraibideak eta faseak (behaketa, galderak eta iragarpenak egitea, esperimenduak planifikatzea eta egitea, informazioa eta datuak biltzea eta aztertzea, emaitzak jakinaraztea...), eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalen eta egoeraerrealen problemak behatzean, identifikatzean eta ebaztean.*</p> <p>Ikerlanaren berezko estrategiak, honako hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak: jakin-mina, interesa, zorrotasuna eta zehaztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia lan pertsonalean, eta jarrera arduratsu eta aktiboa zereginetan, banakakoetan zein taldekoetan; genero-ikuspegia kontuan hartuta.*</p> <p>Oinarriko hiztegi zientifikoa; ikerketaren beharren arabera behaketa eta neurketa zehatzak egiteko tresna eta gailu egokiak erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.</p> <p>Zientzia, teknologia eta ingeniari giza jardueraren gisa, STEM lanbideak gaur egun genero-ikuspegitik.*</p> <p>Matematikan, zientzian, ingeniarietan eta teknologian egindako aurrerapenen arteko lotura, gizarteak esparru zientifiko-teknologikoan, eremu publikoan zein pertsonalean, izan duen bilakaera ulertzeko.</p>
2. Bizitza gure planetan	<p>Gizakiaren bizi-funtzioen oinarriko alderdiak ikuspegi integratu batetik: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziea betikotzea.*</p> <p>Izaki bizidunen oinarriko egiturak: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak; eta izaki bizidunaren funtzionamendurako elkarrekiko duten erlazioa.</p> <p>Pubertaroak eta nerabezaroak berekin dakartzaten aldaketa fisikoak, emozionalak eta sozialak; horiek norberarengan zein besteengan modu positiboan onartzea hezkidetzaren testuinguru batean. Hezkuntza afektibo-sexuala.*</p> <p>Elikadura osasungarri eta jasangarrirako jarraibideak, eta horiek ez betetzeak dakartzan arriskuak eta gaixotasunak: menu osasungarri eta orekatuak, erosketa-saskiaren garrantzia eta elikagaiak etiketatzearen garrantzia horien mantenua eta energia-ekarpenera ezagutzeko.</p> <p>Jokabide osasungarri eta jasangarriak, osasun fisiko, emozional eta sozial egokia sustatzen dutenak, eta halakorik ezaren ondoriozko arriskuak eta gaixotasunak: estresaren eta ziurgabetasun-egoeren kudeaketa. Kontsumo arduratsua eta jasangarria, loaren higiea, aisialdiaren kudeaketa, gailu digitalen erabilera egokia eta gizarte-harreman osasungarriak sustatzeko estrategiak, adikzioen ondorio kaltegarriak pertsonen garapenean eta kontsumoaren prebentzioa: tabakoa, alkohola eta beste substantzia batzuk. Lehen laguntzak.*</p> <p>Erliebea eratzeko eta modelatzeko oinarriko prozesu geologikoak. Arroken eta mineralen oinarriko sailkapena. Baliabide geologikoen erabilera eta ustiapen jasangarria.</p>
3. Materia, indarrak eta energia	<p>Masa eta bolumena. Masa eta bolumena kalkulatzeko tresnak.*</p> <p>Dentsitatearen kontzeptua eta horrek duen erlazioa objektu batek fluido batean (likidoa eta gasa) duen flotagarritasunarekin.*</p> <p>Energia elektrikoa. Iturriak, eraldaketak, transferentzia eta erabilera eguneroko bizitzan. Zirkuitu elektrikoak eta egitura robotizatuak.</p> <p>Energia-formak, iturriak eta transformazioak. Energia berriztagarrien eta berriztaezinen iturriak, eta horien eragina gizartearen garapen jasangarrirako ekarpenean.*</p> <p>Airearen propietateak, aireak objektuekin duen interakzioaren azterketa esperimentalak, objektuen formaren eta hegadan inplikaturako indarren arabera.</p>
B. Teknologia eta digitalizazioa	
1. Ikaskuntza-ingurune pertsonala digitalizatzea	<p>Gailu eta baliabide digitalak hezkuntza-testuinguruaren beharren arabera.*</p> <p>Interneten informazio bilatzeko estrategia seguru eta eraginkorrak (balorazioa, diskriminazioa, hautaketa, antolaketa eta jabetza intelektuala).*</p> <p>Datuak biltzeko, biltegiratzeko eta irudikatzen diren estrategia, haiek errazago ulertzeko eta aztertzeko.*</p> <p>Interneten nabigatzeko eta ikaskuntzako ingurune digital pertsonala babesteko oinarriko segurtasun- eta pribatutasun-arauak.*</p>

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Hirugarren zikloa	
	Beste pertsona batzuekin komunikatzeko baliabide eta plataforma digital mugatuak eta seguruak.*
	Komunikazio digitala modu ez-sexistan erabiltzeko jarraibideak.
	Etiketa digitala, kortesiazko eta errespetuzko oinarritzko arauak eta komunikazio digitalean problemak ebazteko estrategiak.
	Ongizate digitala sustatzeko estrategiak. Teknologia digitalen erabilera desegokiarekin eta ez-seguruarekin lotutako arriskuak antzematea (intimitatearen gehiegizko esposizioa, ziberjazarpena, mendekotasun teknologikoa, eduki desegokietan sartzea, etab.), eta jarduteko estrategiak.*
2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak	Pentsamendu konputazionalaren faseak (ataza bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, patrioiak antzematea eta problema ebazteko urrats errazak sortzea...)*
	Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak egitea, probatzea, ebaluatzea eta komunikatzea.*
	Materialak, erremintak, objektuak, gailuak eta baliabide digitalak (blokekako programazioa, sentsoreak, motorrak, simulagailuak, 3D inprimagailuak...), seguruak eta proiektua lortzeko egokiak.
	Genero-analisia ikerketa-jardueretan.
	Ziurgabetasun-egoeretako estrategiak: estrategia egokitzea eta aldatzea beharrezkoa denean, norberaren eta besteen errorea ikasteko aukera gisa baloratzea.*
C. Gizarteak eta lurraldeak	
1. Egungo munduaren erronkak	Lurraren eta unibertsoaren etorkizuna. Lurrarekin eta unibertsoarekin lotutako fenomeno fisikoak, eta horiek eguneroko bizitzan eta ingurunean duten eragina. Esplorazio espaziala eta zeruaren behaketa; argi-kutsadura.*
	Klima eta planeta. Atmosferaren dinamikarako eta munduko klima-eremu handietarako sarrera. Lurraren ardatza, hemisferioak eta poloak. Koordinatu geografikoak. Ekosistema nagusiak eta haien paisaiak.*
	Ingurune naturala. Euskal Autonomia Erkidegoaren, Euskal Herriaren, Espainiako estatuaren eta Europaren aniztasun geografikoa. Irudikapen grafikoa, bisuala eta kartografikoa bitarteko eta baliabide analogiko eta digitalen bidez, Informazio Geografikoaren Teknologia (IGT) erabilia.
	Migrazioak eta kultura-aniztasuna. Parametro demografiko nagusiak eta horien irudikapen grafikoa. Biztanleriaren mugimendua eta haren bilakaera. Migrazio-mugimenduak eta kultura-aniztasunaren aintzatespena. Hiri- eta landa-eremuen arteko kontrastea. Gainpopulazioa eta despopulazioa.*
	Herritar aktiboak ingurune analogikoan zein digitalean. Gizartearen eta herritarren partaidetzarako oinarriak eta printzipioak: inguruneke ikasleen antolaketa-batzordeak, eskola-kontseilua, elkarteak, boluntariora eta sindikatuak.
	Genero-berdintasuna eta jokabide ez-sexistak. Estereotipoak eta rola kritikatzea hainbat esparrutan: akademikoa, profesionala, soziala eta kulturala. Pertsona guztien arteko egiazko berdintasunerako ekintzak.
2. Gizarteak denboran zehar	Iturri historikoak: iturriak (ahozkoak, idatzizkoak, ondarezkoak) sailkatzea eta erabiltzea, gertakari historikoak ikertzeko, ulertzeko eta egiaztatzeko elementu gisa.*
	Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako (Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea) aztertzea, garai hartako auzi esanguratsuenak, subjektu historikoek (banakakoek eta kolektiboek) betetako zeregina, gertaerak eta prozesuak testuinguruan kokatzeko abiapuntu gisa.
	Emakumeen zeregina historian eta haien eskubideen aldeko mugimendu nagusiak. Egungo egoera eta aukera-berdintasunaren aldeko etorkizuneko erronkak.*
	Demokraziarako trantsizio-prozesua Espainiako estatuan: 1978ko Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.*
	Erdi Aroko eta Aro Garaikideko adierazpen artistiko eta kulturalak, eta haien testuinguru historikoa, genero-ikuspegitik. Arteak eta kulturak gaur egun duten eginkizuna.
	Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.*

Hirugarren zikloa	
3. Alfabetatze zibikoa	Espainiako identitate etniko-kulturalen eta hizkuntzen aniztasuna: Euskal Autonomia Erkidegoa, euskararen lurraldeak (Euskal Herria).
	Giza eskubideen eta haurren eskubideen printzipioak eta balioak. Eskubideen eta betebeharren arteko lotura.
	Konstituzioak: kontzeptua eta funtzioa. Espainiako Konstituzioa, herritarren eskubideak eta betebeharrak.*
	Herritarrek bizitza publikoan parte hartzeko formulak.
	Estatuaren zeregina gizarte-arloan.
	Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura. Pentsamendu kritikoa, interes-gatazkak aztertzeko tresna gisa.*
	Antolaketa politikoa. Tokiko, autonomia-erkidegoetako eta Estatuko erakunde politiko eta administratibo nagusiak (Euskal Autonomia Erkidegoan eta, Espainian), Europar Batasunaren testuinguruan: udalak, foru-aldundiak, autonomia- eta estatu-gobernuak, parlamentuak.*
	Ordezkaritza eta parte-hartze politikorako sistemak (alderdi politikoak, sindikatuak, gobernu kanpoko erakundeak, gizarte-mugimenduak...)*
	Erakundeen erabakien eta balioen arteko lotura.
	Hirugarren sektorea: zerbitzu publikoak eta pribatuak.*
	Oinarrizko finantza-hezkuntza: dirua eta bankuak.*
Norberaren eta enpresen erantzukizuna zergen ordainketan, gure ongizate-estatuari eusteko.*	
4. Kontzientzia ekosoziala	Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak.*
	Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. Enpresen erantzukizun sozial eta ekologikoa.*
	Garapen jasangarria. Giza jarduera espazioen gainean eta baliabideen ustiapena. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-desberdintasuna munduan eta Espainian. Garapen Jasangarrirako Helburuak.*
	Eredu ekonomiko berria bat: ekonomia berdea/zirkularra. Garapen jasangarrirantz. Ondasunetako, finantzetako eta laneko merkatuen eragina herritarren bizitzan eta ekosistemetan (estraktibismoa). Eragile ekonomikoak eta lan-eskubideak genero-ikuspegitik (ekofeminismoa). Zergen balio soziala. Enpresen gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna. Publizitatea, kontsumo arduratsua (beharrak eta nahiak) eta kontsumitzailearen eskubideak.*
	Bizitza jasangarria: planetaren gehienezko mugak eta baliabideen agortzea. Aztarna eta zor ekologikoa.*

ARTE HEZKUNTZA

Nazio Batuen Garapen jasangarrirako 2030 Agendak kultura-alderdien integrazioa sustatzen du "Nahi dugun etorkizunak kultura ere hartzen du barne" lemapean. Era berean, eta Nazio Batuen Garapen jasangarrirako 2030 Agendaren 4.7 xedean jasotzen denez, Arte Hezkuntzak laguntzen du ikasle guztiek beharrezko ezagutza teoriko eta praktikoa lor ditzaten, zehazki beharrezkoak direnak garapen jasangarria, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bake eta indarkeriarik gabeko kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura-aniztasunaren balorazioa sustatzeko.

XXI. mendean, ikusmen-arten eta musikaren ekarpena guztiz funtsezkoa izan da pentsamendu-prozesuetarako. Arte Hezkuntzaren arloak irudiaren, soinuaren eta gorputz-adierazpenaren dimentsio guztiak hartzen ditu barnean. Baliabide teknologiko berriak iristearekin, eskuragarriago daude askotariko kultura-adierazpenak eta demokratizatu egin da kulturaren irisgarritasuna eta arte-jarduna bera; alabaina, handiagoa da kultura-adierazpenak manipulatzeko arriskua ere. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek kultura-adierazpenak modu kritikoa aztertzen ikastea, eta, horretarako, produkzio- eta tratamendu-baliabideak ezagutzea eta autoretza digitala errespetatzea.

Arte Hezkuntzak curriculumeko funtsezko gaitasunak garatzen eta ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du. Lehen Hezkuntzako etapan, Arte Hezkuntzak garrantzi handia du garapen pertsonalean, zenbait dimentsio barnean hartzen dituen heinean, hala nola zentzumenak, adimena, arlo soziala, emozioak, afektibitatea, estetika eta sormena. Horregatik, funtsezko gaitasun guztiak garatzen laguntzen duten mekanismoak sortzen ditu eta, beraz, zuzenean du eragina ikasleen prestakuntza integralean. Era berean, arreta sustatzen du, ekintzailtza, pertzepzioa, adimena eta epe labur eta luzeko oroimena piztenditu, eta irudimena, hunkiberatasuna eta pentsamendu dibergentearen garapena bultzatzen ditu —azken hori funtsezkoa da sormena pizteko—.

Arlo honetan jorratzen diren askotariko alderdiak direla eta, arloak lotura argia du gainerako arloekin. Pertzepzio eta sorkuntza artistikoak, askotan, matematika-ezagutzak mobilizatzea eskatzen du, hala nola espazioa, puntua, lerroa, forma geometrikoak. Esate baterako, musika-hizkuntza matematikaren eta musikaren arteko loturaren adibide argia da. Arte-hizkuntzari esker —komunikabide gisa—, ikasleek bizi diren kultura ulertuko dute eta harekin mintza daitezke.

Gainera, komunikabide den heinean, zenbait ulermen- eta adierazpen-prozesu partekatzen ditu askotariko hizkuntzekin. Gizarte-ezagutzaren eta balio zibiko eta etikoetan oinarritutako hezkuntzaren arloetan laguntzen du; izatez, herritarren kompetentzia garatzen du kultura-aniztasunarekiko errespetuaren bidez eta genero-ikuspegitik. Artea eta diseinua funtsezkoak dira gaur egun orotariko testuinguru teknologikoetan, eta, aldi berean, teknologia berriak ageri dira arte-adierazpen garaikideetan. Esperimentazioa funtsezko prozesua da arte-sorkuntzan planteatzen diren arazoak ebazteko, eta horrek berekin dakar ikerketa faseak abian jartzea, hala nola hipotesiak formulatzea, esperimendatzea, datuak biltzea, ondorioak ateratzea eta erabakiak hartzea. Azkenik, kultura- eta arte-adierazpen garaikideek askotan gorputz-adierazpena eta dantza erabiltzen dituzte, eta horrek gorputzaren aukerak ezagutzea eskatzen du.

Egiturari dagokionez, lau kompetentzia espezifiko ezarri dira, hain zuzen ere arlo horrek laguntzen dituen kompetentzia-ikaskuntzak. Lehena irudiak, artelanak, soinuak, musika-konposizioak, antzerki- eta dantza-emanaldiak eta ikus-entzunezko produkzioak ezagutu, ulertu eta aztertzeari buruzkoa da. Bigarrena ikerketan oinarritzen da, betiere arte-adierazpenei buruzko informazioetik abiatuta eta kulturaren gaineko interes orokorra sustatzeko. Hirugarrena esperimendatzeari buruzkoa da, sormen-prozesuaren parte gisa. Laugarrenak taldeko produkzioaren garrantzia eta proiektu baten planifikazio, diseinu eta ebaluazio faseak biltzen ditu.

Bestalde, oinarritzko jakintzak funtsezko lau multzotan antolatzen dira: Musika Hezkuntza, Plastika eta Ikus Hezkuntza, Ikus-entzunezko Hezkuntza eta Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza. Jakintza multzo horietako bakoitza kultura- eta arte-esparru espezifikoekin lotzen da, eta esparru horiek ikaskuntza-egoeretan bat egin dezaketen berezko jakintzak eskatzen dituzte. Multzoak bi ardatzetan artikulatzen dira: batetik, pertzepzioa eta analisia; eta, bestetik, sorkuntza eta interpretazioa. Lehenengoan, barnean hartzen dira zentzumenak, ikusmena, entzumena eta gorputza ezagutu, hartu eta behatzearekin zerikusia duten edukien, trebetasunen eta jarreraren garapenarekin lotutako alderdi guztiak. Aukera ematen dute ingurunera modu kritikoa hurbiltzeko eta hura aztertu eta ulertzeko, kultura- eta arte-adierazpenekin batera. Bigarren ardatza ideia, emozio, sentimendu eta sententzioen sormen-adierazpenari dagokio, betiere kulturaren eta artearen kode, elementu, tresna, material, baliabide, programa, aplikazio eta tekniken esplorazio, ezagutza, gauzatze eta erabileraren bidez. Oinarritzko jakintzek graduazioa dute idazketan, edo hurrengo zikloan alderdi konplexuagoak gehitzen dira.

Azkenik, ikasleek beren ikaskuntzaren protagonista izan behar dute, azterketarako, sormenerako, irudimenerako eta sentsibilitaterako gaitasuna garatzen duten egoeren bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibilitatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Zenbait kulturatetik datozen askotariko arte-proposamenak ezagutu, eskuratu, aztertu, deskribatu, hartu eta ulertzea —kultura horietako asko bilatu, entzun, behatu eta ikustearen bidez— funtsezko prozesuak dira adierazpen analogiko zein digitalen aurrean interesa eta balorazioa erakusten duten gizaki kritikoak, enpatikoak, jakin-mina dutenak, begirunetsuak eta sentikorrek eratzeko.

Batetik, iraganeko produkzioen aurkikuntzak oraina interpretatzeko funtsezko giltzarriak ematen ditu. Era berean, ondarearen kontserbaziorako erabaki garrantzitsuak hartzea errazten du. Bestetik, tokiko, eskualdeko, nazioko eta gure garaiko beste leku batzuetako produkzio bereizgarrien aitormenak eta horiekiko interesak oinarri sendoa dira beste edozein lekutatik datozen adierazpenak aurkitu eta baloratzeko. Gainera, komeni da ikasleek kultura-desberdintasunak ulertzea eta desberdintasun horiek errespetatzea, ondareko kultura- eta arte-adierazpen nabarmenenen berezitasunak eta asmoak ezagutzea, haien arteko harremanak ezartzea —harrera aktiboaren bidez— eta aniztasuna aintzat hartzea, beren errealitatea aberastu eta eraiki dezaten. Aztertutako adibideetan genero-ikuspegia txertatuko da, eta balioa emango zaio emakumeek sortu eta egindako produkzioen azterketari.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.

2. Askotariko inguruneetako ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenei buruz ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasiz eta hainbat bide eta baliabide erabiliz, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna zenbait testuingurutan garatzeko.

Proposamen kultural eta artistiko berrietara hurbiltzeko irekiera, jakin-mina eta interesa ezinbesteko lehen urratsa dira adierazpen desberdinen aurrean. Baliabide tradizionalen bidez askotariko kultura-eskaintza lortzeko aukeraz gain, zenbait bidetatik eta baliabidetatik informazioa bilatzeko estrategien garapenak ere aukera handiak eskaintzen ditu kultura-eskaintzaz gozatzeko eta ikasteko. Norberaren pentsamendua lantzea, nork bere buruan konfiantza izatea eta bere kideekin kolaborazioan aritzeko gaitasuna izatea funtsezko hiru zutabe dira ikasleen garapen pertsonalerako. Era berean, pertenezaren eta nortasunaren zentzua pixkanaka sortzen eta finkatzen laguntzen dute. Era berean, arte-egitatea, egile-eskubideak eta kontserbazioan, sormenean eta zabalkundean ardura duten profesionalen lana errespetatu beharko dira.

Azken batean, ikerketaren bidez, ikasleek kultura- eta arte-ondarearen funtsezko alderdiak ezagutu eta baloratu behar dituzte, eta, horretarako, horien elementu nagusiak aztertu behar dituzte, genero-ikuspegia duten beren balorazio-irizpideak garatu behar dituzte eta elkarrizketarako jarrera irekia eta errespetuzkoa erakutsi behar dute. Era berean, komeni da desberdintasunak ulertzea eta horiek errespetatzeko beharra aintzat hartzea, eta ondarearen adierazpenik nabarmenenen berezitasunak eta asmoak gozaten eta ezagutzen hastea, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez —hainbat baliabide eta euskarritan, analogikoetan zein digitaletan—.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE3, STEM2, KD1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimintatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko.

Arte-adierazpenen oinarriko adierazpen-elementuen aukerak esperimintatzea, arakatzea, antzematea eta ezagutzea ezinbestekoa da gaur egun kultura- eta arte-produkzioa bereganatu eta gozatzeko. Gainera, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan eta proposamen artistikoen sorreran eta harreran gauegun erabil daitezkeen askotariko baliabide teknologikoei esker, ikasleek adierazpen-aukera zabala eskura dute edozein ideia edo sentimendu komunikatzeko eta transmititzeko, garrantzi handikoa baita hezkuntza emozional eta afektiboarekin dagoen lotura azpimarratzea.

Sormen artistikorako askotariko material eta tresna ugari dago, eta, lehendik zeudenekin batera, ikasleek beren adierazpenerako eta komunikaziorako erabil ditzaketen materialen eta tresnen katalogo zabala osatzen da. Ikus-entzunezkoen esparruan eta esparru plastikoan, eszenikoan, performatiboan eta musikalean bestelako baliabideak, tresnak eta aplikazioak sortu dira, eta horietako asko —gizarte-joera berriekin bat— guztiz digitalak dira eta hezkuntzaren arloan erabil daitezke. Era berean, tresna horiek eskura izateak, ezagutzeak eta maneiatzeak ikasleen eta egungo kultura eta artearen arteko erlazioa

errazten du. Aurreko ekarpenekin bat eginik, horrek askotariko unibertso zabala eta interesgarria eskaintzen die ikasleei.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KD2, KPSII5, HK2, EK1, KAKK3, KAKK4.

4. Kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezkiaren zentzua garatzeko.

Kultura- eta arte-produkzioen sorkuntzan, diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea funtsezkoa da pertsonaren garapen osorako. Era berean, hezkidetzaren ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-produkzioetan esku hartzea; izan ere, kolaborazio-lanak berarekin dakar ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak onartzea eta ulertzea. Zalantzarik gabe, talde-lanak nortasuna aberasten eta eraikitzen laguntzen du, bai sormenezko arte-adierazpenaren bidez, bai teknika plastikoak, ikusizkoak, multimodalak, soinu bidezkoak, dramatikoak eta gorputzekoak erabilia egindako errepresentazioen eta adierazpenen bidez.

Azken batean, ikasleek beren proposamenak planifikatu behar dituzte, prozesuaren hasieran aurrez ezarritako helburuak taldean beteko badira eta, hartara, horien arabera azken emaitza lortuko bada. Horregatik, beharrezkoa da sorkuntza-prozesuan parte hartzea eta diziplina, adierazpen eta hizkuntza artistiko desberdinetako elementuak erabiltzea, proiektuarekiko konpromisoa azaltzea, fase guztietan modu aktiboan parte hartzea, norberaren eta lankideen lana errespetatzea, ekintzailea izatea eta klima-aldaketaren, iraunkortasunaren eta XXI. mendeko erronken arloko eztabaidarekiko sentsibiltatea azaltzea. Halaber, garrantzizkoa da sormen-esperientzia zenbait eremu eta bidetan partekatzea, hala nola taldean, ikastetxean, komunitatean edo Interneten. Gainerakoan iritzia eta atzeraelikaduraren bidetik jasotako ideiak baloratu, beregain hartu eta errespetatu beharko dira.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE3, STEM3, HK2, EK1, EK3, KAKK3, KAKK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. konpetentzia espezifikoa		
1.1 Bere inguruetik hurbil dauden zenbait korrante, estilo eta generotako askotariko kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia txertatuz.	1.1 Zenbait korrante, estilo eta generotako kultura- eta arte-adierazpenen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, ingurune analogikoetan digitaletan, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia zentzu kritikoarekin txertatuz.	1.1 Kultura- eta arte-adierazpenen bereizgarri diren zenbait korrante, estilo eta genero bereiztea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia txertatuz.
1.2 Hautatutako hurbileko kultura- eta arte-adierazpenak ahoz deskribatzea, horien ezaugarriak modu gidatuan miatuz, jarrera irekia eta interesa erakutsita.	1.2 Hautatutako kultura- eta arte-adierazpenak ahoz eta idatziz deskribatzea, laguntzarekin, haien arteko oinarrizko harremanak jarrera irekiarekin ezarriz.	1.2 Kultura- eta arte-adierazpen nabarmenenak deskribatzea, digitalak barne, haien ezaugarriak irekitasunez miatuz eta haien artean harremanak ezarriz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
		1.3 Kultura- eta arte-adierazpen analogikoen eta digitalen aberastasuna miatzea, haiek sortzen dituen aniztasuna ezagutuz, errespetatuz eta baloratuz, eta haien elementuren bat bereganatuz.
2. kompetentzia espezifiko		
2.1 Oinarrizko estrategiak erabiltzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzeko, sarbide errazeko kanal eta baliabide analogiko eta digitalen bitartez, bakarka eta kolaborazio-lanean.	2.1 Oinarrizko estrategiak erabiltzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa bilatzeko eta hautatzeko, sarbide errazeko kanal eta baliabide analogiko eta digitalen bitartez, kolaborazio-lanean.	2.1 Estrategiak garatzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeo, zenbait kanal eta sarbide analogiko eta digitalen bitartez, kolaborazio-lanean.
2.2 Zenbait kultura- eta arte-adierazpeni buruz jasotako informazioa antolatzea eta ulertzea, modu gidatuan, sentsazioak errespetuz eta interesez partekatuz eta horien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aurkituz.	2.2 Zenbait kultura- eta arte-adierazpeni buruz jasotako informazioa antolatzea eta ulertzea, haien bereizgarri diren oinarrizko elementuak modu gidatuan analizatuz, eta sortutako sentsazioak partekatuz eta horiei buruz gogoeta eginez, elkarrizketarako jarrera irekia, interesa eta errespetua erakutsita.	2.2 Hainbat inguruetako ondarea osatzen duten zenbait kultura- eta arte-adierazpenen esanahia konparatzea, horien bereizgarri diren elementu nagusiak analizatuz eta norberaren balorazio-irizpideak garatuz, elkarrizketarako jarrera irekia eta errespetua erakutsita.
		2.3 Zenbait kultura- eta arte-adierazpenek eragindako sentsazio eta emozioak baloratzea, haien testuingurua kontuan harturik eta norberaren kultura-nortasunarekin modu inklusiboan erlazionatuz.
3. kompetentzia espezifiko		
3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio-aukera batzuk oinarrizko moduan erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsita.	3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko zenbait tresnaren adierazpen- eta komunikazio-aukera batzuk erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, jakin-mina, interesa eta hobetzeko grina erakutsita.	3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko askotariko tresnen adierazpen- eta komunikazio-aukera batzuk erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, jakin-mina, interesa eta hobetzeko grina erakutsita.
3.2 Oinarrizko zenbait adierazpen-proposamen sortzea, esperimendazio librearen bitartez, norberaren sorkuntza gozatuz eta baloratuz.	3.2 Oinarrizko zenbait adierazpen-proposamen sortzea, esperimendazio sistematikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz eta besteen gaitasunak baloratuz eta onartuz.	3.2 Helburu espezifiko batera egokitutako zenbait adierazpen-proposamen pertsonal sortzea eta partekatzea, ideien, sentimenduen eta emozioen adierazpenaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz, enpatia agerian jarritz, besteen gaitasunak baloratuz eta egikaritzeko modua hobetuz.
3.3 Arte-proposamen pertsonalak modu gidatuan partekatzea, ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko, besteen proposamenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.	3.3 Arte-proposamen pertsonalak partekatzea, erreferentzia-eredu analogikoak eta digitalak abiapuntu hartuta, ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko, besteen proposamenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.	
4. kompetentzia espezifiko		
4.1 Oinarrizko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan parte hartzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik kolaborazio-lanean jardunez.	4.1 Kultura- eta arte-produkzioen diseinuan modu gidatuan laguntzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik hitzartutako helburuak beteko dituen emaitza lortzeko lan eginez.	4.1 Kultura- eta arte-produkzio analogikoak eta digitalak planifikatzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik hitzartutako helburuak beteko dituen emaitza lortzeko kolaborazio-lanean jardunez.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzatako oinarrizko elementuak erabiliz eta errespetu-jarrera erakutsiz.	4.2 Sorkuntza-prozesuan aktiboki parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzatako oinarrizko elementuak erabiliz eta interesaeta errespetua erakutsiz.	4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzatako elementuak erabiliz eta konpromisoa, parte-hartze aktiboa eta errespetua erakutsiz, baita ingurune digitaletan ere.
4.3 Sormen-esperientziak partekatzea, prozesuaz zein lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen emozioak baloratuz.	4.3 Sormen-esperientzia partekatzea, oinarrizko zenbait komunikazio-estrategia erabiliz, prozesuaz zein lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.	4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio-estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa	
Lau multzoetako jakintza komunak	
Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak.	
Arte-esparruko oinarrizko hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.	
Zenbait espaziotan arte-proposamenak hartzeko oinarrizko portaera-arauak.	
Arte-esperientziaren bitartez oinarrizko emozioez jabetzea.	
Baliabide digitalak: grabatzeko aplikazio informatikoak.	
A. Musika Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak.
	Entzumen-hezkuntza: soinu-ingurunearen aurkikuntza. Soinua eta bere oinarrizko nolakotasunak: entzumen-diskriminazioa. Entzumena eta barne-memoria.
	Soinu-aniztasuna zenbait grafia ez-konbentzionalen bitartez adierazteko estrategiak.
	Ahotsa eta musika-instrumentuak. Familia nagusiak. Soinu-objektuak. Kotidiafonoak. Euskal Herriko instrumentu tradizionalak.
	Izaera eta tempoaren ulermena abestiaren bitartez.
	Isilunea: entzunaldian eta musika-praktikan zehar arretea irauarazteko elementu eta baldintza ezinbestekoa.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: miatu eta soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta interpretatzeko estrategiak.
	Oinarrizko instrumentu-, ahots- eta gorputz-proposamenen imitazioa.
B. Plastika eta Ikus Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa gidatua eta gogoeta.
	Plastika- eta ikus-proposamenak. Kultura- eta arte-espazioak.
	Ikus-hizkuntzaren konfigurazio-elementuak: oinarrizko esperimendazioa.
	Plastika- eta ikus-adierazpenean erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta oinarrizko teknikak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak: esperimendazioa. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarrizko teknikak marrazki eta modelaketa errazetan.
	Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza gidatua eta esperimendazioa. Kolaborazio-egikaritzea. Prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa eta interesa.

Lehen zikloa	
C. Ikus-entzunezko Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Iraupen laburreko ikus-entzunezko proposamenak, ikasleen hurbilekoak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Bilatze eta iragazteko oinarritzko estrategiak. Asmo komunikatiboa duten istorio errazak konposatzea, berregiteko eta kontatzeko.
D. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Gorputz-adierazpenari eta arte eszenikoei lotutako oinarritzko adierazpenak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Gorputza eta bere aukera motorrak, komunikatzeko eta dibertitzeko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia. Oinarritzko drama- eta dantza-teknikak. Adierazpen-hizkuntzaren oinarritzko nozioak.
Bigarren zikloa	
Lau multzoetako jakintza komunak	
Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak. Ezagutza.	
Arte-esparruko oinarritzko hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.	
Zenbait espaziotan arte-proposamenak hartzeko oinarritzko portaera-arauak. Horiei buruzko balorazioa eta iritzia.	
Arte-esperientziaren bitartez sortutako oinarritzko emozioak identifikatzeko jarraibideak.	
Baliabide digitalak. Arte-kreazioak transformatzeko grabazioko eta edizioko aplikazio informatikoak.	
A. Musika Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak. Entzumen-hezkuntza: soinua eta bere nolakotasunak: ikus- eta entzumen-identifikazioa. Entzumena eta barne-memoria. Zarata-, soinu- eta isiltasun-egoerak identifikatzeko estrategiak. Soinu-aniztasuna eta egitura erritmiko-melodikoen antzezpena zenbait grafiaren bitartez. Ahotsa eta musika-instrumentuak. Taldeak eta familiak. Kotidiafonoak. Euskal Herriko instrumentu tradizionalak. Izaera, konpasa eta tempoaren ulermena abestiaren bitartez. Isilunea: entzunaldian eta musika-praktikan zehar arreta iraunarazteko elementu eta baldintza ezinbestekoa.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: esperientziazko, miaketa, interpretazioa eta inprobisazio librea soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta. Euskal Herriaren eta beste kultura batzuen berezko musika-proposamen bokal eta instrumentalak interpretatzeko jarraibideak.
B. Plastika eta Ikus Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa gidatua, irakurketa eta interpretazioa. Plastika- eta ikus-proposamen garaikideak eta beste garai batzuetakoak. Kultura- eta arte-espazioak. Puntua, lerroa, planoak, ehundura, kolorea. Adierazpen-aukerak. Plastika- eta ikus-adierazpenean erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta oinarritzko teknikak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperientziazko eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarritzko teknikak marrazki eta modelaketa errazetan.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Bigarren zikloa	
	Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa eta esperimantazioa. Kolaborazio-egikaritzea. Norberaren eta besteren prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa, ebaluazioa eta interesa.
C. Ikus-entzunezko Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Bere ingurunean ohikoak diren ikus-entzunezko proposamenak: animazioa, publizitatea, eduki digitalak. Proposamen zinematografiko eta ikus-entzunezkoen ikustaldi eta analisia, modu gidatuan.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Ikus-entzunezko elementuen erregistroa eta oinarriko edizioa: kontzeptuak, teknologiak, teknikak eta baliabideak, oinarrikoak eta erraz maneiatzeko modukoak. Bilatzeko eta iragazteko estrategiak. Istori errazak: konposizioa, bakarka eta taldean, komunikazio- eta adierazpen-asmoarekin, berregiteko eta kontatzeko. Ikus-entzunezko produkzioak. Kolaborazio-lana, eta prozesuak dauden genero eta formatuetan duen garrantzia. Produktio multimodalak: errealizazioko hastapenak. Ikus-entzunezko hizkuntza multimodalaren oinarriko ezaugarriak ezagutzea. Oinarriko animazio-tekniketarako hurbilketa. Oinarriko ikus-entzunezko mezuak: esperimantazioa eta zabalkundea.
C. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Zenbait leku, garai eta estilotako gorputz-adierazpenari eta arte eszenikoei lotutako oinarriko adierazpenak. Adierazpen eszenikoaren oinarriko elementuak. Rolak, materialak eta espazioak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Gorputza eta bere aukera motorrak eta sortzaileak, komunikatzeko, dibertitzeko eta sentimenduak adierazteko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia. Oinarriko drama- eta dantza-teknikak. Oinarriko adierazpen-hizkuntzak. Oinarriko ekintza performatiboak. Inprobisazio gidatua.

Hirugarren zikloa	
Lau multzoetako jakintza komunak	
Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak. Ezagutza eta balorazioa.	
Arte-esparruko hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.	
Zenbait espaziotan arte-proposamenak hartzeko portaera-arauak. Haien balorazioa, espiritu kritikorekin.	
Arte-esperientziaren bitartez sortutako oinarriko emozioak ezagutu eta komunikatzeko estrategiak.	
Baliabide digitalak. Arte-produkzioak transformatzeko, sortzeko eta ezagutarazteko grabazioko eta edizioko aplikazio informatikoak. Beste batzuek sortutako edukiak erabiltzeko eta banatzeko lizentziekiko errespetua.	
A. Musika Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak. Entzumen-hezkuntza: soinua eta bere nolakotasunak. Entzumena aktiboa eta barne-memoria. Deskribapena, ezagutza eta analisia. Zarata-egoeren eta kutsadura akustikoaren aurreko jarrera kritikoa. Soinu-aniztasuna eta egitura erritmiko-melodikoaren adierazpen eta sailkapenak, zenbait grafiaren bitartez. Ahotsa eta musika-instrumentuak. Sailkapena. Instrumentu digitalak eta ez-konbentzionalak. Euskal Herriko instrumentu tradizionalak. Izaera, konpasa, tempoa, melodia, forma eta musika-generoak abestiaren bitartez. Isilunea: entzunaldian eta musika-praktikan zehar arretea iraunarazteko elementu eta baldintza ezinbestekoa.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Hirugarren zikloa	
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Instrumentu-, ahots- eta gorputz-praktika: esperimentazioa, miaketa sortzailea, interpretazioa eta inprobisazioa soinu- eta adierazpen-aukeretatik abiatuta.
	Euskal Herriaren eta beste kultura batzuen berezko musika-proposamen bokal eta instrumentalak interpretatzeko estrategiak.
	Musika-sorkuntza eta -produktzioa: proiektuaren plangintza. Materialak hautatzeko jarraibideak.
B. Plastika eta Ikus Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa, irakurketa, analisia, interpretazioa eta ebaluazioa.
	Plastika- eta ikus-proposamen garaikideak eta beste garai batzuetakoak. Kultura- eta arte-espazioak. Ondare arkitektonikoa, artistikoa eta bisuala.
	Puntua, lerroa, plano, ehundura, kolorea eta espazioko antolaketa. Adierazpen- eta komunikazio-aukerak.
	Plastika- eta ikus-adierazpenean gehien erabiltzen diren materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperimentazioa eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko teknikak. Adierazpen-asmoa hitzez adierazteko jarraibideak.
	Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa, esperimentazioa eta ebaluazioa. Prozesuaren eta produktuaren arteko oreka. Kolaborazio-egikaritzea. Norberaren eta besteren prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa.
C. Ikus-entzunezko Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Ikus-entzunezko proposamenak: zinema, publizitatea, dokumentalak, telesailak, eduki digitalak. Kultura- eta arte-espazio unibertsalak.
	Hizkuntza zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoaren oinarriko nozioak. Proposamen ikoniko, zinematografiko eta ikus-entzunezkoen ikustaldi eta analisia, modu kritikoan.
	Ikus-entzunezko estilo, genero eta formatuei buruzko oinarriko nozioak: irudi finkoa eta mugikorra. Fikzioa eta ez-fikzioa. Animazioa.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Ikus-entzunezko elementuen erregistroa eta edizioa (irudia, audioa eta partiturak): kontzeptuak, teknologiak, teknikak eta oinarriko baliabideak. Bilatzeko, iragazteko eta baloratzeko estrategiak.
	Istorioren errazten konposizioa, bakarka eta taldean, komunikazio- eta adierazpen-asmoarekin, berregiteko, kontatzeko eta grabatzeko.
	Ikus-entzunezko produktzioak: sorkuntza-prozesuaren faseak eta rolak. Kolaborazio-lana, eta prozesuak dauden genero eta formatuetan duen garrantzia.
	Produktzio multimodalak: errealizazioa. Ikus-entzunezko hizkuntza multimodalaren ezaugarriak. Oinarriko animazio-teknikak.
	Ikus-entzunezko mezuen esperimentazioa eta zabalkundea: prozesu teknikoak.
C. Arte Eszeniko eta Performatiboetako Hezkuntza	
1. Pertzepzioa eta analisia	Zenbait leku, garai eta estilotako gorputz-adierazpenari eta arte eszenikoei lotutako adierazpenak, garaikideak barne.
	Genero eszenikoak. Horietarako hurbilketa eta interpretazio dramatikoaren garrantziaren balorazioa.
	Adierazpen eszenikoaren funtsezko elementuak. Rolak, materialak eta espazioak. Antzerki-izaera. Oinarriko egitura dramatikoak. Praktikaren balorazioa eta interesa.
2. Sorkuntza eta interpretazioa	Gorputza eta bere aukera motorrak, dramatikoak eta sortzaileak, komunikatzeko, dibertitzeko eta ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia.
	Oinarriko drama- eta dantza-teknikak. Adierazpen-hizkuntzak. Ekintza performatiboekin esperimentatzeko jarraibideak. Inprobisazio gidatua eta sortzailea.
	Gorputz-sorkuntza eszenikoaren eta dramatikoaren faseak: proiektuaren plangintza, behaketa eta adierazpen-asmoa hitzez adieraztea: sarrera. Materialak hautatzeko jarraibideak.

BALIO ZIBIKO ETA ETIKOETAKO HEZIKETA

Balioetan heztearen ezinbesteko eskakizuna da herritartasuna modu kritikoa eta arduratsua gauzatzeko eta pertsonen hezkuntza integratuz lortzeko. Lehenengo kasuan, beharrezko tresnak ematen dituen ikasleek konpromiso aktiboa eta autonomia har dezaten bizikidetzaren demokratikoa artikulatzen duten balio, printzipio eta arauak. Bigarrenetan, lagundu egiten du haurrak beren bizi-proiektua eraikitzen hasteko eta XXI. mendeko erronkei buruzko gogoeta propioa egiteko behar den prestakuntza intelektuala, morala eta emozionala lortzen. Oro har, eta ikasleentzako hezkuntza-helburuekin eta oinarriko hezkuntza-amaitzean haiek behar duten irteera-profilarekin bat etorritik, balio zibiko eta etikoei buruzko prestakuntzak berekin dakar ikasleei beren identitate pertsonalaz eta kulturalaz, bizikidetzari buruzko zenbait gai etikoetara sozialerantz, eta beren bizitzak ingurunearekiko duen loturaz eta ekomendekotasunaz jabetzeko aukera ematen dieten ezagutza, trebetasun, jarrera eta balioen multzoa mobilizatzea. Horren guztiaren helburua da gizarte askotariko eta demokratiko batean bizikidetzaren zuzentzen duten arau eta balioak autonomiazantzerantz eta aplikatu ahal izatea.

Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa irakasgaiak funtsezko konpetentzia guztiak garatzen laguntzen du eta horiek konpetentzia espezifiko zehatz baten edo batzuen bidez lantzen dira. Gure kasuan, herritartasunerako konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoan eskatzen den irteera-profila dela-eta, funtsezko bi konpetentzia horiek garrantzi berezia hartzen dute eta konpetentzia-esparru guztietan lotzen dira.

Arlo honek etapako gainerako arloekin duen loturari dagokionez, Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa lotura garrantzitsua da jorratzen diren jakintzen artean. Pentsamendu konplexuaren lanak ikaskuntza-prozesu esanguratsuak eta diziplinarteko ikuskerak errazten dituen ikuspegia ematen du. Gainera, horietako bakoitzean balio erantsia ematen du: arlo bakoitzean lantzen diren oinarriko jakintzei buruzko gogoeta kritikoa.

Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa arloak funtsezko bost konpetentzia-esparru garatzen ditu. Lehenengoa autoezagutzari eta autonomia pertsonalaren garapenerari dagokio (KPSII eta EK). Bigarrena, bizikidetzako gizarte-esparrua ulertzeari eta esparru hori arautzen duten printzipio, balio eta arauak konpromisoari dagokio (HK, KAKK, KE). Hirugarrena ingurunearen iraunkortasunarekin bateragarriak diren jarrerak hartzeari buruzkoa da, eta ingurunearekiko arren mendekotasuna eta ekomendekotasuna ulertzei abiatzen da (STEAM, HK). Eta, azkenik, laugarrena eta bosgarrena zeharkakoagoak dira. Laugarrenak lotura estuak zabaldu eta elkarriketa kooperatiboan oinarritutako lanekin, pentsamendu konplexua oinarritzen duten trebetasunak garatzearekin batera (HKK, HK eta KPSII). Bosgarrena, aldiz, emozioak heztearekin lotuta dago, gure garaiak planteatzen dizkigun balio eta arazo etiko, zibiko eta ekosozialei dagokienez sentsibilitate eta jarrera afektibo egokia garatzeko helburuarekin (KPSII, HK, KD). Dena den, gure ustez, funtsezko konpetentzietako batzuk, multzo jakin batekin lotuta aurkeztu arren, horietan guztietan lantzen dira (HKK, KD, HK...). Era berean, konpetentzia-esparru horietako bakoitza bi maila integratuta hedatzen da: bata teorikoagoa, kontzeptu eta gai garrantzitsuak modu esanguratsuan ulertzerako bideratua, eta bestea praktikoagoa edo instrumentalagoa, gogoetatik eta elkarriketatik abiatuta, balio etiko eta zibiko jakin batzuekin bat datozen jokabideak eta jarrerak sustatzeko bideratua.

Arloko funtsezko jakintzak bost multzo hauetan banatzen dira:

- Pentsamendu konplexua oinarritzen duten trebetasunak: helburua da pentsamendu egituratuagoa eta efizienteagoa garatzen laguntzen diguten pentsamendu-trebetasunak lantzea.
- Autoezagutza eta identitatea: helburua da ikaslea bultzatzea, bere nortasunaren hainbat alderdiaren kontzientzia hartuta eta adierazita, pertsona gisa berori eratzeko eta bereizten duen horri buruz ikertzerako, emozioen eta desioen kudeaketa sustatuta, eta norberaren helburuen eta motibazioen inguruko deliberazio arrazionala bultzatuta. Multzo honen barruan, eta hurrengoarekin lotuta, komeni da ikasleek beren iritzia eta irizpide-gaitasuna frogatzea, beren bizitza pertsonalean eragin zuzenekoagoa duten gaiei aurre eginda, hala nola autoestimari, abusuen eta jazarpenaren prebentzioari, jokabideadizio-sortzaileei eta komunikabideen eta komunikazio-sareen eraginari.
- Pentsamendu kritikoa eta autonomia morala: autodeterminazio-ariketa bat egiten da, eta horrek, jakina, garrantzizko zenbait gai etikori aurre egitea eskatzen du, hala nola autonomia eta heteronomia moralari, izatearen eta izan behararen arteko bereizketari, bertute eta sentimendu

moraleen praktikaeta identifikazioari eta, oro har, pertsona eta herritar gisa gure bizitzak bideratu behar dituzten balio, printzipio eta arauen inguruko gogoetari.

- Gizartea, justizia eta demokrazia: helburua da ikasleek pertsona gisa duten nortasunaren erro soziala eta kulturala ulertzea bilatzea, beren ingurune soziala osatzen duten egiturak eta harremanak antzemandak eta haien dimentsio arauemaile, etiko eta afektiboari buruz gogoeta eginda. Horretarako, komeni da ikasleek oinarrizko nozio politiko eta interpersonal batzuk ulertzea, gure elkarbizitza-esparru demokratikoaren ezaugarri nagusiak identifikatu eta azaldu ahal izateko, eta beren ezagutzak eta iritziak besteekin erkatzeko, gai etiko garrantzitsuei buruzko ikerketaren eta elkarrizketaren bidez (giza eskubideen egoera munduan, pobrezia, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra, aniztasunarekiko errespetuaren balioa, gutxiengoekiko tratua, migrazioaren fenomenoak, klima-krisia, etab.), gai horiei aurre egiteko moduak kritikoki ebaluatuta eta horren inguruko beraien iritziak justifikatuta.
- Garapen jasangarria eta ingurumen-etika: helburua da diziplinarteko eta kooperazioko lanaren bidez ikasleek gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko harreman konplexua ulertzea, munduko agendak ezartzen dituen arazo ekosozial handiak identifikatuta eta horiei aurre egiteko moduari buruz eztabaidatuta, naturarekin batera bizitzeko ohitura iraunkorrekin konpromiso etikoa eta afektiboa har dezaten.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, diagnostikorako eta hobekuntzarako tresnatzat hartu behar dira, eduki mota desberdinekin lan eginez kompetentziak lortu eta garatzeari dagokionez. Ildo horretatik, ebaluazio-irizpide bakoitzean tresna eta jarduera generikoak zehazten dira, eta, ondoren, zeregin dibertsifikatu, testuinguruan kokatu, esanguratsu eta integratu gisa gauzatu behar dira ikaskuntza-egoeretan edo beste jardun-esparru zehatzago batzuetan. Bai ebaluazio-irizpideen aplikazioak, bai gainerako ikaskuntza-jarduerak metodologikoki orientatuta egon behar dute, arloak helarazi nahi dituen balioekin koherenteak izango diren printzipioen arabera.

Horrela, ikasleei dei egiten zaie parte-hartze aktiboa eta arrazoitua izan dezaten, elkarrizketa errespetuzkoa eta kooperatiboa izan dezaten (gauzak zalantzan jartzetik abiatuta beti), ideiak askatasunez adieraz ditzaten, pentsamendu kritiko eta autonomia izan dezaten, bizikidetzarako beharrezkoak diren arauak eta balioak errespetatu ditzaten, gatazkak era baketsuan eta bitartekaritzaren bidez ebatz ditzaten, bizi-ohitura osasungarri eta iraunkorrak gara ditzaten, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek segurtasunez erabil ditzaten, eta besteekiko eta ingurunearekiko dituzten emozioak eta harreman afektiboak modu asertiboan kudeatu ditzaten.

Horrekin guztiarekin, bereziki eta oro har, dei egiten zaie teoriaren eta praktikaren arteko lotura antzeman dezaten. Horretarako, saiatu behar da ikasgelako jarduerak ikastetxeko eta inguruko bizitzan txertatutako ikaskuntza-testuinguru zabalagoetan, diziplinartekoagoetan eta beren ikastetxeko eta ingurunekeo bizitan txertatuagoetan sartzen. Hala, horren guztiaren bidez sustatu behar da egungo erronkekin konprometitutako herritartasun kontziente, aske eta parte-hartzailea gara dezaten.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-praktikan txertatuta egon daitezkeen, eta beharrezkoak denean eredu artistiko, kultural, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexual-afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta pentsamendu erreflexiboa garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeko garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.

Hurrek pixkanaka ikasi behar dute beren jokabidea irizpide propioen arabera zuzentzen, beren bulkadak orekatzen eta beren emozioak kudeatzen. Horrela, subjektu eta herritar aske eta arduratsuak izango dira, eta beren ekintzak eta bizitza menderatuko dituzte. Ikasleak autonomiaz eta zuhurtziaz erabakitzeko gaitzeak berekin dakar haiei hastapenak irakastea beren existentziari eta eguneroko inguruneari eragiten dieten eta jokabide, jarrera, sentimendu, balio eta ideiekin lotuta dauden arazoengatik inguruko eztabaida

arrazionalaren jardunean. Eskola-esparruan bertan ohikoak diren arazo horiei buruzko lana ariketa egokiada ikasleek beren iritziak garatzeko, beren nahi eta afektuen inguruan gogoeta egiteko eta, horien inguruan, beraien identitatea eta proiektu pertsonala eraikitzeko. Ariketa horrek akatsik edo jarrera dogmatiko edo aurreiritzidunik sor ez dezan, ezinbestekoa, da jorratu beharreko arazoei buruzko informazioa zorrotz eta kritikoki erabiltzea ez ezik, elkarrizketa kooperatiboa eta besteekiko errespetuzkoa praktikan jartzea ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD4, KPSII4, HK1, HK2, HK3, CP1, KPSII 1, KPSII2, KAKK3.

2. Arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorren eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.

Bizikidetzak ematen duen aberastasuna, eta indarkeria eta diskriminazio mota oro baztertzen duten, pertsonen intimitatea errespetatzen duten eta jokabide inklusiboa, solidarioa eta ez-sexista sustatzen duten arau zibiko eta etikoak ezarri eta errespetatzeko beharra aitortzeak berekin dakar behar bezala garatzea interakzioan aritzeko, elkar aintzatesteko eta balioetan hezteko praktikak (hala nola zeregin eta jolas kooperatiboak, elkarrizketak, erabakiak hartzeko prozesuak, gatazketan bitartekaritza-lana egiteko ariketak edo gizartearentzako zerbitzu-jarduerak). Horiek modu esanguratsuan ulertarazi behar dute heziketa etikoak eta zibikoak duen garrantzia giza harremanetan, geure izaera soziala onartzetik abiatuta. Era berean, funtsezkoa da argudiatzeko trebetasunak garatzea eta oinarrizko kontzeptu etiko eta zibiko batzuk aztertzea («ongia», «balioa», «bertutea», «araua», «betebeharra», «askatasuna», «erantzukizuna», «herritartasuna»).

Azken helburua da ikasleek onar dezatela, bizipenaren eta gogoetaren bidez, elkarbizitza baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa bermatuko duten balio eta jarreraren beharra. Onarpen horretatik abiatuta, modu kontzientean eta autonomoan barneratu eta aplikatu ahal izango ditu balio horiek, hurbileko gatazken analisi arrazionalaren laguntzarekin (bai ingurune presentzialetan, bai birtualetan), eta modu erreflexiboan neurtuta bizikidetzak ahalbidetzen eta aberasten duten ideal eta portaerak, batez ere ikaslearengandik etortzen direnak.

Horretarako, kontuan hartuko ditugu Giza Eskubideen eta Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala, gure ordenamendu juridikoaren printzipioak, eta oinarrizko giza afektu batzuen ideia egokia eta sakona. Hori dela eta, ezinbestekoa da haurrek gogoeta kritikoa egitea balio, printzipio eta afektu horiek aintzat ez hartzearen edo behar bezala ez aplikatzearen ondoriozko arazo etikoei buruz, baita horiek eraginkortasunez ezartzeko abian jarri beharreko neurriei buruz ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, CP3, KD3, KPSII3, KPSII4, HK1, HK2, HK3, EK1, KAKK1.

3. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harreman sistemikoak aztertzea, arazo ekosozialei buruzko ezagutzaren eta gogoetaren bidez, pertsonen eta planetaren arteko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta praktikekin aktiboki konprometitzeko.

Gure bizitza testuinguru sozial eta kultural bati lotuta eraikitzen da, baina baita gainerako izaki bizidunetako eta naturaren arteko interdependentsia- eta ekomendekotasun-harreman konplexuen bidez ere. Horregatik, beharrezkoa da gure existentziaren dimentsio ekosoziala ulertzea, planetaren baldintza eta mugaekofisikoak ezagutzea, eta giza ekintzen aztarna ekologikoa kritikoki ebaluatzea. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek informazio fidagarria bilatzea eta aztertzea, funtsezko zenbait kontzeptu menderatzea (hala nola, «sistema», «prozesua», «globala-tokikoa»), eta gai izatea biodibertsitatearen kontserbazioa eta giza bizitzaren baldintzak arriskuan jartzen dituzten arazo eta mehatxu nagusiak deskribatzeko, batez ere krisi klimatikoa nabarmenduta.

Helburua da ulertzea ingurunearekin dugun harremanaren ikuspegi etikoa eta biozentrikoa hartu behar dela, eta, konbentzimendu horretatik abiatuta, ingurumenarekiko praktika eta ohitura arduratsuak, gainerako animaliekiko jarrera enpatiko eta errespetuzkoak eta bidegabekeriekiko sentsibilitatea sortzea.

Helburu hori lortzeko, planetaren ezagutza, zaintza eta afektua zehazki sustatuko dituzten jarduerak

egingo dira, planetan egiten ditugun ekintzei buruz gogoeta egingo da, eta bizimodu osasungarri eta iraunkorrak finkatuko dira, besteak beste, eguneroko bizitzan ura, energia eta hondakinak modu arduratsuan kudeatzera bideratutakoak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK5, CP1, CP2, STEM5, KD1, KD4, KD5, KPSII2, HK2, HK3, HK4, EK1.

4. Zalantzan jartzeko eta argudiatzeko trebetasuna garatzea, pentsamendu abstraktua oinarritzen duten pentsamendu-abileziak erabiliz, diziplinaren oinarritzko ezagutzekin lotutako elkarrizketa kooperatiboetan parte hartzeko.

Pentsamendu kritikoa non-nahi garatzea ezinbesteko baldintza da herritartasuna arduraz egikaritzeko eta pertsonen hezkuntza integrala lortzeko, gogoeta ororen abiapuntua baita hori. Beharrezkoa da konpetentziari esplizituki heltzea, ikasleei oinarritzko nozio jakin batzuk emateko eta horien garrantziaz kontzientzia harrarazteko. Gogoeta kooperatiboa ekarriko duten elkarrizketetan parte hartzeko gaitasuna zeharkako ardatz nagusietako bat da izaera nabarmen praktikoa duen irakasgai batean. Kontua ez da ikasleek balio jakin batzuk modu dogmatikoan onartzea, baizik eta elkarrizketa eta bizikidetzak baketsua bermatuko duten balioen beharra barneratzea, hortik abiatuta gizabanako gisa eta gizartean nola bizi nahi duten gogoeta egin ahal izan dezaten.

Elkarrizketa horietan parte hartzeko gaitasuna behar bezala garatzeko, ikasleak, bizikidetzarako eta elkarrizketarako beharrezkoak diren arau eta balioak onartzeaz gain, zenbait gaitasun barneratu behar ditu: pertzepzioa (entzutea, behatzea...), ikerketa (hipotesiak ezartzea, aukerak hautatzea...), kontzeptualizazioa (definitzea, alderatzea...), arrazoiketa (argudiatzea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea, kausak eta ondorioak, bitartekoak eta helburuak...), itzulpena (interpretatzea, inprobisatzea...). Izan ere, gaitasun horiek oinarritzen dute pentsamendu konplexua izenekoak.

Modu egituratu eta eraginkorren pentsatzen ikastea ezinezkoa da garapen kognitiboaren etapetarako aurrerabide egokirik gabe. Horregatik, pentsamendu konplexuaren oinarriari mailaka heldu behar zaie, helburuarekin bat etorriko diren proposamen eta material espezifikoak erabilia.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE3, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK1, EK3, KAKK4.

5. Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteenak ezagututa eta baloratuz, norberaren, besteen eta naturako gainerako zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko.

Hezkuntza emozionala ezinbestekoa da gizabanako orekatuak eta besteekin harreman oso eta egokiak izateko gai izango direnak prestatzeko. Horrela, besteak afektiboki tratatzen ditugun eta haiek tratatzen gaituzten modua funtsezko faktorea da gizarte-harreman egokiak, harmoniatsuak eta konstruktiboak ezartzeko, baita norberaren autoestimua garatzeko eta, horregatik, jarrera eta gaitasun hobea izateko gizalegezko jokabiderako eta jokabide etikorako. Horregatik, beharrezkoa da ikasleei behar diren tresna kognitiboak eta behaketa- eta analisi-ohiturak ematea, beren emozioak eta sentimenduak modu asertiboan identifikatu, kudeatu eta adierazteko, baita besteekiko eta natura-ingurunearekiko harreman afektibo eta enpatikoa sustatzea ere.

Emozioen eta sentimenduen bizipen eta adierazpen asertiboa eta partekatua hainbat testuingurutan eta egoeratan eman daiteke, baita kode eta hizkuntza ugariren bidez ere. Horien artean daude, modu nabarmenean, honako hauei dagozkienak: esperientzia estetikoa, arazo moral eta egunerokoen inguruko eztabaida partekatua edo mundua autonomiaz ulertzeko esperientzia bera.

Konpetentzia hau garatzeko jarduerak ezin hobeto integratu daitezke sormena, gogoeta, iritzia eta ezagutza autonomoak sustatuko dituen ia edozein dinamika eta prozesutan. Nolanahi ere, heziketa emozionalak gogoeta eskatzen du emozioek eta sentimenduek giza ekintza eta esperientzia nobleenetako batzuk ulertzeko eta justifikatzeko izan dezaketen eginkizunaren inguruan, baita balioekin, sinesmenekin eta ideiekin duten harremanaren inguruan ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KPSII1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, HK4, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. kompetentzia espezifikoa
1.1. Norberaren kontzeptu egoki bat eraikitzea gainerakoekin eta naturarekin lotuta, modu seguru eta kritikoan, identitateari buruzko ezaugarriekin lotutako informazio analogikoa eta digitala eta adierazpen artistikoak antolatuz eta sortuz.
1.2. Autoestimua eta autonomia garatzea, besteekin harmonian, emozioak adieraziz eta identifikatuta eta desioak eta helburuak argituz.
1.3. Identitatea garatzearekin lotutako oinarritzko kontzeptuen inguruan gogoeta egitea (emozioak eta sentimenduak, autoestimua, adiskidetasuna, maitasuna, familia, kultura...), banakako eta taldeko ikerketa-dinamiken bidez.
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Posizio moral autonomoa sortzea, deliberazio arrazionalaren bidez eta beste batzuekiko errespetuzko elkarrizketaren bidez, zenbait balio eta bizimoduren inguruan.
2.2. Bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzea, baita gatazkak konpontzeko konpromisoa ere, halakorik dagoenean, gizakiaren izaera sozial eta politikoari buruzko ikerketatik abiatuta.
2.3. Genero-berdintasuna, indarkeriaren gaitzespena eta gutxiengoekiko eta identitate desberdinekiko errespetua bezalako balioekin konpromiso aktiboa hartzea, balio horiekin lotutako arazo tokiko eta globalei buruzko argudio-elkarrizketatik abiatuta.
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Klima-aldaketa ulertzea, hura geldiarazteko hainbat aukera ebaluatzen eta garapen jasangarrirako helburuak lortzeko, ingurune hurbilean kausak eta arazo ekosozialak identifikatuz.
3.2. Pertsonetikiko, animaliekiko eta planetarekiko errespetuarekin, eta haien zaintzarekin eta babesarekin bat etorriko diren balio, jardun eta jarrera afektiboekin aktiboki konprometitzea, uraren eta energiaren kontsumo arduratsua eta mugikortasunaren eta hondakinen kudeaketa eta erabilera iraunkorra sustatuko dituzten jardueretan parte hartuz.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Galderaren izaera kontzeptu gisa ulertzea, zalantzan jartzeak giza jardueran duen garrantzia baliaraziz eta ingurune hurbilean esparru etiko-zibikoko galderak identifikatzeko eta lantzeko gaitasuna garatuz.
4.2. Elkarrizketa kooperatiboaren bidez besteekin interakzioan jardutea, jokabide gizalegezko eta demokratikoak eta balio komunek, errespetuak eta enpatiak bideratutakoak modu arrazoitu eta autonomoan hartuz.
4.3. Pentsamendu konplexua oinarritzen duten pentsamendu-trebetasun nagusiak garatzea: pertzepzio-trebetasunak (entzutea, behatzea...), ikerketa-trebetasunak (hipotesiak formulatzea, aukerak hautatzea...), kontzeptualizazio-trebetasunak (definitzea, alderatzea...), arrazoitze-trebetasunak (arrazoiak ematea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea...) eta itzulpen-trebetasunak (interpretatzea, inprobisatzea...) dinamika gidatu individual eta kolektiboen bidez.
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Norberaren eta besteekin emozioak eta zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak identifikatuz, aztertuz eta modu asertiboan adieraziz eta besteekin antzemanen eta baloratuz, sormen- eta hausnarketa-jardueren inguruan.
5.2. Adiskidetasunean, maitasunean eta besteekin eta ingurunearen zainketan oinarritutako jarrera hartzea, beste pertsona batzuekiko eta ingurunearekiko interakzio zibiko eta etikoaren esperientzia afektibotik eta horren inguruko gogoetatik abiatuta.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Hirugarren zikloa
A. Pentsamendu abstraktua garatzeko oinarrizko trebetasunak
Ideien eta kontzeptuen inguruko ikerketa: hipotesiak formulatzea, imajinatzea, alternatibak bilatzea, ondorioak aurreikustea, aukerak hautatzea.*
Lehen kontzeptualizazioak: kontzeptuak definitzea, adibideak eta kontraadibideak bilatzea, konparatzea eta kontrastatzea.*
Arrazoiaketaren oinarriak pentsatzean: argudiatzea, kausak eta ondorioak erlazionatzea, irizpideak zehaztea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea.*
Idea eta kontzeptuen formulazio eta birformulazioak: azaltzea eta deskribatzea, inprobisatzea, laburbiltzea.*
B. Autoezagutza eta identitatea
Giza izaera eta identitate pertsonala. Pertsonen arteko berdintasuna eta desberdintasuna.*
Emozioen eta sentimenduen heziketa. Autoestimu pertsonala. Adiskidetasuna eta maitasuna.*
Hezkuntza afektibo-sexuala.
Bizitzaren zikloa. Heriotza eta dolua.
C. Pentsamendu kritikoa eta autonomia morala
Pentsamendu kritikoa eta etikoa. Galdera, gogoetarako tresna gisa. Galdera filosofikoak.*
Etika, gure ekintzen gidari gisa. "Ona" eta "txarra" kontzeptuei buruz gogoeta egitea. Arauak, bertuteak eta sentimendu moralak.
Elkarriketaren praktika eta argudiatzeko arauak. Erabakiak hartzea. Besteekiko enpatia.*
C. Gizartea, justizia eta demokrazia
Gizarte-bizitzaren oinarriak. Kooperazioa eta lehia. Jokabide zibikoa. Legeak eta kontzientzia pertsonala. Printzipio eta balio demokratikoak. Justizia.*
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Emakumeen aurkako abusuen eta indarkeriaren prebentzioa. Jokabide ez-sexista. Gure ingurune hurbila aztertzea eta irtenbide tokikoak eta globalak bilatzea.*
Gutxiengoekiko, identitate etniko-kulturalekiko eta genero-identitateekiko errespetua. Multikulturalismoa eta migrazioak.*
Bizipenetik abiatuta gatazkak ebazteko estrategiak.*
Umorearen mugak. Onurak eta arriskuak.
E. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika
Planetaren mugak eta klima-aldaketa.*
Izaki bizidunekiko eta natura-ingurunearekiko enpatia, zainketa eta estimua.
Gure kontsumo-ohiturak aztertzeke jarraibideak. Kontsumo-ereduak (tokikoa, globala...). Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, eta hondakinen kudeaketa.*

HEZIKETA FISIKOA

Lehen Hezkuntzako etapan, Heziketa fisikoak ahalmen handia du mugitzen den gizakia bere osotasunean inplikatzeko —ekintza motorra du ardatz egituratzaile—. Egoera motorrei esker, ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekin sortzen den elkarreraginen mundu zoragarri batera eramaten ditugu ikasleak. Gainera, beren burua eta besteak ezagutzeko aukera ematen diegu, eta harremanen, emozioen, erabakien eta sorkuntzaren unibertso interesgarria eta aberasgarria askatzen dugu. Hortaz, jokabide motorren hezkuntzaren bidez, premia pertsonalei eta sozialei erantzungo dien benetako kompetentzia motorra eraikitzen eta finkatzen lagunduko dugu.

Egoera motor bati aurre egite aldera, baliabideak mobilizatzeko eta erantzun berritzaileak eta sortzaileak emateko gaitasuna oinarritzen da pertzepzioko, motibazioko, emozioko, autoestimuko, komunikazioko eta aurrea hartzeko fenomenoetan. Jokabide motorrak —nortasunaren adierazpen gisa ulertuta— gure

esku-hartzearen ardatz bihurtzen dira; izatez, egoera motor bati aurre egiten diogun bakoitzean, nortasunaren alderdi guztiak abian jartzen dira (biologikoa, kognitiboa, soziala, harremanetakoa, afektiboa, espresiboa eta erabakien arlokoa). Ez dugu ahaztu behar nortasun bakoitzaren adierazpen partikularrak esperientzia motorra baldintzatzen eta zehazten duela, jarduten duen pertsonak bere beldur, ilusio, motibazio, itxaropen, historia eta sormenarekin jarduten baitu. Pertsona bakoitzaren potentziala garatuko bada, pertsona bere gaitasunen eta inguruabarren arabera hezi behar dugu, hala lortuko baitugu pertsonaren garapen integrala.

Gure ikasleen garapen osoa lortzeko helburuari erreparatuta, oinarrizko erreferentzia izango dira Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran ikasleen irteera-profilean ezarritako funtsezko konpetentziak eta etaparen helburu orokorrak —Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenari begira—. Konpetentzia horien deskriptoreak dira, hain zuzen ere, arloko konpetentzia espezifikoak zehazteko erreferentziazko esparrua. Heziketa fisikoak funtsezko konpetentziak garatzen laguntzen badu ere, ekarpen garrantzitsuena gaitasun pertsonalari, sozialari eta ikasten ikasteari egiten die. Izan ere, ekintza motorren bidez, elkarlanean jarduten ikasten dugu, baita norberaren eta besteen mugak eta aukerak ezagutzen, erronkak taldean ebatzi behar diren egoerei aurre egiten, ohitura osasungarriak hartzen, norberaren esfortzua eta dedikazioa baloratzen eta hausnarketa-prozesu gidatuetan parte hartzen ere.

Mekanismo kognitibo guztiak motrizitatean oinarritzen dira, eta badakigu mugimenduak ezagutza berriak eskuratzen laguntzen duela, baita askotariko adimenak garatzen, ikaskuntza berrien aurrean motibatzen, kontzentratzen eta hezkuntza-laguntzako berariazko zailtasunak dituzten ikasleak gizarteratzen ere. Heziketa fisikoa agertoki ezin hobea da kulturetatik ikasteko, gure gizartearen azterketa politikoa proposatzeko, eztabaida etiko esanguratsuak eta sakonak pizteko, gure biologia hobeto ezagutzeko, hitzezkoeta ez-hitzezko adierazpen eta komunikazio eraginkorragoa lortzeko (arlotan oso egokia da, gainera, ama-hizkuntza euskara ez duten ikasleek hizkuntzaren erregistro informalagoak ikasi eta erabili dituzten), gure osasunari buruz hausnartzeko, ohitura osasungarriak eskuratzen laguntzeko, artea ezagutu eta sortzeko, harremanetan jartzen ikasteko eta gure historia ezagutzeko.... Garrantzitsua da loturak ezartzea eta beste irakasgai batzuekiko konbergentziak sortzea, betiere gure errealitate konplexu eta konektatuarekin bat etorriko den ikaskuntzaren ikuspegi holistikoa eskain dadin.

Egoera motorretan moldatzeko beharrezkoak diren konpetentzia motorrak aintzat hartzen dira etapa honetako Heziketa fisikoaren konpetentzia espezifikoen artean. Konpetentzia espezifiko horiek zenbait funtsezko alderdi biltzen dituzte, hala nola bizimodu aktibo eta osasungarria hartzea, norberaren gorputza ezagutzea, kultura-adierazpen motorretara hurbiltzea eta jarrera ekosozial arduratsuak integratzea. Gainera, hainbat testuingurutan egoera motorrak abian jartzeari esker, ikasleak aurre egin ahal izango dio zenbait helburutako jardun motorrari (jolas eta aisialdikoa, agonistikoa, funtzionala, soziala, adierazpen eta komunikaziokoa, sormenezkoa, katartikoa edo hiri-eta natura-ingurunearekiko elkarreaginekoa).

Konpetentzia espezifiko horiek lortze aldera, oinarrizko jakintzak zazpi multzotan antolatzen dira, eta multzo horiek zenbait testuingurutan garatu beharko dira, izaera inklusiboagatik nabarmenduko diren askotariko ikaskuntza-egoerak sor daitezen. Zazpi multzoetatik seik ekintza motorren eremuei dagozkie, eta gure arloko gaitasunekiko zeharkakoa den zazpigarren multzo bat eransten da. Irakasleek erabakiko dute nola uztartu jakintza horiek.

Ekintza motorren arloko eremuak konpetentzia mota desberdinekin lotzen dira, egoera bakoitzak erantzun motor espezifikoak abian jartzen dituzten ekintza-baliabideak eskatzen baititu. Ekintza-eremuen ezaugarri bereizgarriak ezagutzen baditugu, eragin ditzaketen hezkuntza-ondorioen arabera sailka ditzakeguesparru horiek; hain zuzen ere, horixe da arloko oinarrizko jakintzak antolatzekeko irizpiderik onena. Kontuan hartu behar dugu, halaber, unibertso ludomotorra kirol-jokoen lau arlo handitan hedatzen dela (arauak, lehiaketak eta instituzionalizazioak dituztenak eta ez dituztenak), eta horiek gure gizartearentzat eta ikasleentzat aberastasun eta balio aparta duen kultura-ondare motorra osatzen dutela. Hori dela eta, Heziketa fisikoak ez du izan behar erreproduzitu beharreko tekniken sorta hutsa, eta ez du kirolera mugatu behar. Gainera, garrantzi handikoa da konpetentzia motorra ez dadila murriztu aurrez definitutako erantzun batzuetara; izan daitezkeen berrikuntzetara ireki behar dugu.

Jarraian adierazten diren konpetentzia motorrak baliagarriak izango ditugu proiektu motorren eta jardun motorren eskaerei erantzuteko, hainbat helbururekin eta eguneroko bizitzako testuinguruetan.

1. Jarduera fisikoak osasun globalean dituen ondorioak ezagutzea, emozioen eta gatazken kudeaketa landuz, osasun fisikoa, emozionala eta soziala indartzeko.

Konpetentzia honek zenbait alderdi lantzeko aukera ematen digu, hala nola elikadura osasungarria, jarrera-hezkuntza, gorputzaren zaintza, autokontzeptua, autoestimua, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan hautemandako irudia —genero-ikuspegitik— edo eguneroko testuinguruetan eta/edo kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako egoeretan gertatzen diren jokabide antisozialen eta osasunerako ohitura txarren azterketa.

Bestalde, parte-hartzaileen emozioek protagonismo handia hartzen dute, eta aukera paregabea izango da emozioen kudeaketa lantzeko. Halaber, ikasleek gatazkei elkarrizketa bidez aurre egin beharko diete, eta, horretarako, inplikaturako beste pertsonen ikuspegia ere aintzat hartu beharko dute eta inplikaturako aldean gutxieneko premiak aseko dituzten konponbide zuzenak bilatu beharko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenean: HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.

2. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, nor bere burua ezagutzeko, autoerregulatzeko eta gaitasun fisikoak hobetzeko ekintza-eskemak barneratuz.

Egoera psikomotorrek sortzen dituzten esperientziek eskatzen dute: estereotipo motorrak automatizatzea, ekintza motorrak egiteko modu jakin bat behin eta berriz errepikatzea, energia-iturriak dosifikatzea —eskatzen den esfortzu fisikoan eraginkortasunez jarduteko—, nor bere buruaz jabetzea, norberaren gorputza barrutik aztertu eta ezagutzea (introiektzioa), eta oldarkortasuna, frustrazioarekiko tolerantzia eta zailtasunei aurre egiteko iraunkortasuna erregulatzea. Gainera, gorputzaren zaintza eta ongizatea bultzatu nahi dira arnasketa kontzienteko ariketen bidez, artikulazioen askapenaren bidez, gorputz-jarreraren bidez, luzamenduen bidez edo arreta osoaren bidez.

Ikaskuntza horiek gauzatzeko, zenbait formula eta testuinguru daude, esate baterako jardun aerobikoak edo eguneroko egoeren azterketa (ingurune hurbilekoak edo hedabideetakoak), hausnarketarako talde-dinamikak (eztabaida edo analisi kritikoak) edo diziplinarteko proiektuak, baita segurtasun-arauaketa higiene-ohiturak eguneroko jardun motorretan barne hartzea edo kirol-istripuetan esku hartzeko protokoloak simulatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenean: KPSII1, KPSII4 eta KPSII5.

3. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetan, oposizioko egoera soziomotorren eskakizunetara egokitzea, parte-hartzaileekiko errespetua eta arauak lehenetsiz —emaitzen gaintetik—, erronkarekin lotzen diren jokabideak arautzeko eta kultura motorra eskuratzen eta sortzen laguntzeko.

Konpetentzia honek eskatzen du erabakiak hartzea, aurea hartzea, mezu engainagarriak kodetzea (emititzea) eta besteen gorputz-zeinuak deskodetzea, betiere modu estrategikoan jardun eta aurkaria gaintzeko. Egoera multzo hori baliagarria izan daiteke erronkarekin, lehiakortasunarekin edo arazoan ebazpenarekin lotzen diren jokabide motorrak susta daitezen. Oposizio-jokoek eskaintzen dituzten egitura interaktibo mota guztiekin lan egitea komeni da (bat baten aurka, bat denek aurka edo denek denek aurka).

Egoera motor horiek beraiekin dakarte erabakiak hartzen hastea, helburuak zehaztea, plan errazak egitea, ekintzak sekuentziatzea, planifikaturakoa gauzatea, prozesuan zer gertatzen den aztertzea, beharrezkoa izanez gero estrategia aldatzea eta, azkenik, emaitza baloratzea.

Egoera horien karga emozionalak emozioen kontrolean sakontzea ahalbidetuko digu. Hartara, egoera motor horiek egokiak izango dira porrotari aurre egiten ikasteko, garaipena erlatibizatzen ikasteko eta jokoaren arauak errespetatzen ikasteko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenean: KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, KAKK1 eta KAKK3.

4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatiko eta inklusibo garatuz, gizarte-trebetasunak baliatuz eta kooperazioko eta errespetuzko jarrerak hartuz, parte hartzen den guneean gizarte-bizikidetzeta eta konpromiso etikoa lortzen laguntzeko.

Konpetentzia honek bizipen ugari eskaintzen ditu, eta horien ondorioz, komunikazio motorrekin lotzen diren jokabide motorrak sortzen dira, baita itunarekin, kolaborazioko sakrifizio eskuzabalarekin, ekimena hartzearekin, jatorrizko adierazpen-erantzunak sortzearekin eta besteen erabakiak errespetatzearekin lotzen direnak ere. Era berean, konpetentzia honetan, jardun motorrean bizi diren emozioak identifikatuko dira, eta, horiekin batera, emozio horien adierazpen positiboa eta emozio desatseginak kontrolatzen eta bideratzen jakiteko kudeaketa egokia ere bai. Horrez gain, jardun motorrean bat egiten duten pertsonetikiko elkarreraginari aurre egiteko gaitasun sozialak baliatzea ere badakar. Helburua da elkarrizketan aritzea, eztabaidatzea, ideiak alderatzea eta ados jartzea, betiere egoerak ebatzdaitezten, proposamenak, pentsamenduak eta emozioak adieraz daitezten, modu aktiboan entzun dadin eta asertibitatez jardun dadin. Ekintza horiek kanpoko ongizatea ere bilatzen dute, eta, aldi berean, jardun motorrekin lotutako errealitatea baloratzea eta erantzukizunez, zuzentasunez, inklusioz, errespetuz, elkartasunez, kooperazioz, justiziaz eta modu baketsuan baliatutako askatasun-parametroetatik jardutea.

Egoera horiek askotariko jardun-testuinguruetan garatu ahal izango dira. Horien artean, nabarmen daitezke kooperazio-ipuina motorrekin, sokekin, akrosport-ekin eta kooperazio-erronka fisikoekin lotutako proiektuak eta muntaketak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenean: HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3 eta KAKK1.

5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako oposizioko/kolaborazioko egoera soziomotorretan elkarrekintzan aritzea, horrelako jardueren berezko ekintza-arauez eta -printzipioez jabetuz, informazio-eskaera handiko egoeretako jokabide motorra egokitzen hasteko eta kultura motorra eskuratzeko lagungarria izateko.

Konpetentzia honek erabakiak etengabe hartzea eta gainerako parte-hartzaileen mezuak interpretatzea eskatzen du. Ikasleek ahaleginak egin beharko dituzte taldekideen eta aurkarien jarrerak deskodetzeko, logika kolektibo batean sartzten diren aukeraketa estrategikoak egin daitezten. Era berean, nortasun pertsonala eta soziala eraikitzea eskatzen du, jolasa eta kirola gisako kultura-adierazpenak barnean hartzen dituen jardun bizi batetik abiatuta —aintzat hartu behar da jolasa eta kirola kultura-ondarearen parte direla eta ezagutu, zaindu eta hobetu behar direla eta horiez gozatu behar dela—.Ingurunean sustraituta dauden edo beste kultura batzuetatik datozen jolas eta kirol tradizionalak ekiteaz gain, kirolean oraindik ere badauden genero-estereotipoei buruzko azterketak egin daitezke, eta horiek nola saihestu ere azter daiteke.

Azkenik, karga emozionala dela eta, konpetentzia honek emozioen kudeaketan eragiteko eta joko garbia eta kiroltasuna gisako balioak eskuratzeko aukera ematen digu.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitzapenean: STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.

6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta baliatzea, ikuspegi iraunkorretik ingurunea errespetatuko duen eta arriskuaren gainetik segurtasuna lehenetsiko duen jarduna eginez, zenbait natura- eta hiri-ingurune jardunaren testuinguru gisa baloratzeko eta ingurune horiek zaintzen eta hobetzen laguntzeko.

Konpetentzia honek eskatzen du protagonistek interpreta ditzatela jardun-eremuarekin dituzten erlazioetan sortutako zailtasunak eta ezustekoak. Horrelako egoerek moldagarritasuneko jokabide

motorrak errazten dituzte, batik bat erabakiak hartzearekin, eraginkortasunarekin, aurreratzearekin, ingurunearekiko errespetuarekin, arriskuarekin eta abenturarekin zerikusia dutenak. Horrelako jarduerak egitea prestakuntza-interes handiko beste alderdi batzuekin lotzen da, hala nola, natura ezagutu eta errespetatzearekin, bizikidetzarako hezkuntzarekin, norberaren babesarekin eta segurtasun pertsonalarekin nahiz kolektiboarekin. Ikasleek ingurune naturalarekin dituzten erlazioek inplikazio handia eta erabatekokonpromisoa ekartzen dute, eta horrek karga emozional handia eragin dezake; hartara, funtsezkoa izango da emozioen identifikazioa eta kudeaketa.

Askotariko aplikazio-testuinguruak aurki daitezke zentroaren kokapenaren arabera, testuinguru-aukeren arabera eta irisgarritasunaren arabera: mendi-ibilaldiak, eskalada, uretako jarduerak, orientazioa (baita hiriguneetan ere), materialak eraikitzea, oztopoak gainditzea, eta abar. Horiek guztiak ingurunearekiko elkarrekintzara zuzendutako proiektuen ikuspegitik egingo dira.

Konpetentzia espezifiko hau bat dator XXI. mendeko erronkekin eta Garapen jasangarriko Helburuekin. Etapa honetan bertan hasi beharko da ingurumenerako eta haren kontserbaziorako iraukorrak diren ohiturak hartzen, eta, batez ere, etapa honetan azpimarratu beharko da norberak zer keinu simple egin ditzakeen eta zer jokabide simple har ditzakeen guztion ongiari begira. Ikuspegi horrek oso testuinguru egokia du kirol-jardueretan, eta, hartara, inguruneak —naturalak zein hirikoak— horrelako jardunetarako eskaintzen duen potentziala erakutsi ahal izango da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitapenean: STEM1, STEM2, STEM5, KPSII1, HK4 eta EK1.

7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa baliatzea, haren eragina baloratzuz, baita kultura tradizionalari eta garaikideari egiten dizkion ekarpen estetikoak eta sorkuntzakoak ere, eguneroko bizitzan modu erregularrean erabiltzen diren jarduketa motorren artean integratzeko.

Konpetentzia honek egoera motorretan asmo artistiko edo espresiboekin moldatzeko gaitasuna hartzen du aintzat. Horrelako ekintzak biltzen dituzten jarduerak eskakizun bikoitz baten inguruan antolatzen dira: adierazpena eta komunikazioa —biak eskutik doaz sorkuntza-prozesuan—. Jokabide motorrak motrizitate adierazkorrean, sinbolizazioan eta komunikazioan oinarritzen dira. Sortzeko eta adierazteko garaian, subjektuak irudimena eta sormena mobilizatzen ditu, sentsibilitatea eta afektibitatea pizten ditu, zenbait adierazpen-erregistro erabiltzen ditu (gorputza, hitza, dantza, musika, eta abar), ekintzak kateatzen ditu eta adierazpen-baliabide ugari erabiltzen du (espazioak, erritmoak, desplazamenduak, formak, objektuak...).

Ekintza horien oinarriak dira espazioaren erabilera, ekintza motorraren kalitatea, osagai erritmikoak eta irudimena, baita sormena mobilizatzea, adierazpen-erregistro desberdinak erabiltzean (gorputza, hitza, dantza, musika). Ikasleek sortzailearen, interpretearen eta ikuslearen rola esperimentera ditzakete. Adierazpen-jardun motorrek emozioen identifikazioa eta kudeaketa dakarte, emozioak kontrolatzen eta adierazpen positiborantz bideratzen jakin dadin.

Konpetentzia honek berarekin dakar, halaber, nortasun pertsonala eta soziala eraikitzea, betiere kultura-ondarearen parte diren eta motrizitatearekin lotzen diren kultura-adierazpenak —hala nola jarduera artistiko espresiboak— barnean hartzen dituen jardun bizi batetik. Migrazio-mugimenduak oinarri dituen mundu globalizatu honetan, kultura desberdinen ekarpenekin aberasten da ondare komuna.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, Lehen Hezkuntzako etaparako egokitapenean: KE3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3 eta KAKK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. konpetentzia espezifikoa		

1.1 Jarduera fisikoaren onurak esperimintatzea, bizimodu aktiboaren oinarriak ezartzen hasiz.	1.1 Jarduera fisikoa aisialdirako alternatiba osasungarri gisa antzematea, bizimodu aktiboak maila fisikoan eta mentalean dituen ondorio onuragarriak antzemanaz eta jarduera fisikorako eta esfortzurako jarrera positiboa hartuz.	1.1 Jarduera fisikoak dituen ondorio onuragarriak antzematea, eguneroko bizitzan barne hartzeko aurretiko urrats gisa, prestasuna, esfortzua, iraunkortasuna eta hazteko pentsamoldea azalduz.
1.2 Norberaren osasuna zaintzeko oinarriko neurriak hartzea, gorputzaren higiearen, atsedeenaren, jarrera-hezkuntzaren eta elikaduraren bidez.	1.2 Jarrera-hezkuntzarako, elikadura osasungarriako, gorputz-higiearako eta jardun motorraren prestaketarako neurriak aplikatzea, erantzukizunak hartuz eta eguneroko egoeretan errutinak sortuz —istripuren bat gertatuz gero nola jokatu jakitea—.	1.2 Jarduera motorretan barnean hartzea gorputz-aktibazio, esfortzuaren dosifikazio, erlaxazio eta higieko prozesuak, jardun motor osasuntsu eta arduratsu baten errutinak barneratuz eta istripuen aurrean jarduteko oinarriko protokoloak antzemanaz.
1.3 Jardun motor partekatuak sustatzen dituen balio positiboak antzematea, askotariko testuinguru inklusiboetan jardun motorraren onurak antzemanaz, biziz eta gozatuz eta parte-hartzaile guztiak errespetatuz, norbanakoen artean dauden aldeak edozein izanik ere.	1.3 Norberaren eta besteen gorputzaren irudia ezagutzea, norbanakoen artean egon daitezkeen aldeak onartuz eta errespetatuz, jarrera diskriminatzaileak gaindituz eta baztertuz eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatuz.	1.3 Gorputzarekin, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten, osasunerako kaltegarriak diren edo bizikidetzari kalte egiten dioten jokabide desegokiak identifikatzea, diskriminazioa etagenero-estereotipoak baztertzeke jarrera hartuz, eta horrelakoak berriro gerta daitezen modu aktiboan saihestuz.
1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboaz jabetzea, norberaren emozioak identifikatuz.	1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboaren garrantzia baloratzea, norberaren emozioak kudeatzen hasiz eta besteenak identifikatuz.	1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboa kudeatzea, norberaren eta besteen emozioak legitimatu eta modu asertiboan adieraziz.
2. kompetentzia espezifikoa		
2.1 Motrizitatearen osagai kualitatibo eta kuantitatiboak modu ludikoan aurkitzea, antzematea eta erabiltzea, gorputzak horien gainean duen kontrola pixkanaka hobetuz eta horiek hobeto menderatuz.	2.1 Motrizitatearen osagai kualitatibo eta kuantitatiboak eraginkortasunez eta sormenez erabiltzea zenbait testuingurutan, gorputzak osagai horien gaineango eta kontrol eta menderatze handiagoa izan dezan lortuz eta oinarriko gaitasun fisikoak identifikatuz.	2.1 Gero eta gorputzaren gaineko kontrol eta menderatze handiagoa lortzea, ekintza-eskemak barneratuz, motrizitatearen osagai kualitatibo eta kuantitatiboak eraginkortasunez eta sormenez erabiltz eta gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz.
2.2 Nork bere burua ezagutzea eta erregulatzea, ekintza-eskemak barneratuz, jarduera eta jolas psikomotorren bidez.	2.2 Nork bere burua ezagutzea eta erregulatzea, ekintza-eskemak barneratuz, jarduera eta jolas psikomotorren bidez.	2.2 Nork bere burua ezagutzea eta erregulatzea, bere bizi-espaziora transferi daitezkeen egoera psikomotorretanarazoko konponduz.
3. kompetentzia espezifikoa		
3.1 Oposizioko ekintza motorrak egitea, jokoaren gertaeren zentzua ulertuz eta arauak eta parte-hartzaileak errespetatuz.	3.1 Oposizioko ekintza motorrak kateatzea, aukariaren jokabide motorrei aurre eginez eta arauak eta parte-hartzaileak errespetatuz.	3.1 Oposizioko egoeretako berezko oinarriko erronka taktikoak ebaztea, ekintzako printzipio eta arauak aplikatuz, eta arauak eta parte-hartzaileak errespetatuz.
3.2 Ingurune berezko izaera kulturalako joko motorretan eta kirolean modu aktiboan parte hartzea, horietan jarduteaz gozatuz eta sortzen diren emozioak kudeatzen hasiz.	3.2 Norberaren kulturen errotutako joko eta kirolean modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, oldarkortasuna eta emozioak kontrolatuz.	3.2 Norberaren kulturen errotutako joko eta kirolean modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, horiek jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala antzemanaz, eta emozioak kudeatuz eta modu asertiboan adieraziz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
4. konpetentzia espezifikoa		
4.1 Kooperazio-ekintza motorrak egitea, gorputzaren mugimenduak egoera horietan gertatzen diren aldaketetara egokituz.	4.1 Kooperazio-egoeren eskaerei erantzuteko ekintzak kateatzea, oinarritzko mugimendurako trebetasunak hautatuz eta taldearekiko konpromisoarekin eta elkartasunarekin konbinatuz.	4.1 Kooperazio-egoerak ebaztea, oinarritzko trebetasun motorrak hautatuz eta konbinatuz eta eraginkortasunez, enpatiaz, elkartasunez, errespetuz eta inplikazioz egokituz.
4.2 Eguneroko jardun motorretan parte hartzea, harrera, inklusio, laguntza eta kooperaziorako gizarte-trebetasunak garatzen hasiz, gatazka pertsonalak elkarrizketa bidez kudeatzen hasiz, eta diskriminazio- eta indarkeria-jarduketan aurrean konpromiso aktiboa erakutsiz.	4.2 Harrera, inklusio, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak garatzea, gatazka indibidualak eta kolektiboak elkarrizketa bidez kudeatuz eta estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean konpromiso aktiboa erakutsiz.	4.2 Bizikidetzan, gizarte-trebetasunak erakustea, gatazka elkarrizketa bidez konpontzea eta aniztasunarekiko errespetua erakustea — generokoa, afektibo-sexuala, jatorritzkoa, etnikoa, sozioekonomikoa edo konpetentzia motorrekoa—, jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa erakutsiz estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.
5. konpetentzia espezifikoa		
5.1 Oposizioko/kolaborazioko egoeretan ekintza motorrak gauzatzea, gorputz-mugimenduak gertatzen diren aldaketetara egokituz eta parte-hartzaileen ezaugarriak eta mailak onartuz.	5.1 Oposizioko/kolaborazioko egoerei erantzuteko ekintzak kateatzea, eskatutako ekintza-arauak barneratuz eta norberaren eta besteen emozioak ulertuz.	5.1 Oposizioko/kolaborazioko egoeretako funtsezko erroka taktikoak ebaztea, esparruaren berezko printzipio eta arauak doitasunez aplikatuz.
5.2 Adostutako arauak eta joko-arauak errespetatzea, eta kiroltasunaren eta joko garbiaren parametroen arabera jardutea.	5.2 Ikasgelan adostutako arauak eta joko-arauak errespetatzea, eta kiroltasunaren eta joko garbiaren parametroen arabera jardutea, parte-hartzaileen karpinak baloratuz.	5.2 Adostutako arauak eta joko-arauak errespetatzea, eta kiroltasunaren eta joko garbiaren parametroen arabera jardutea, taldekideen eta aurkariaren jarduketak antzemandak.
5.3 Ingurune berezko izaera kulturalera joko motorretan eta kirolean modu aktiboan parte hartzea, horietan jarduteaz gozatuz eta norberaren emozioez jabetuz.	5.3 Norberaren kultura errotutako joko eta kirolean, tradizioan edo gaur egungoetan, modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, horien jatorria, agerpena eta denboran izan duten transmisioa testuinguruan kokatuz.	5.3 Norberaren kultura errotutako joko motorretan eta kirolean, tradizioan edo gaur egungoetan, modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala ezagutuz eta transmitituz, haien kontserbazioa erraztearen.
5.4 Bi generotako kirolari erreferenteen lorpenak ezagutzea eta baloratzea, arrakasta horiek erdiesteko beharrezkoak diren esfortzua, dedikazioa eta sakrifizioak ezagutuz.	5.4 Kirolari buruzko ikuspegi irekia hartzea, hainbat liga eta txapelketa ezagutzea abiapuntu izanik (emakumezkoenak, gizonezkoenak edo mistoak), kirol federatura hurbilduz eta bizikidetzaren aurkako portaerak identifikatuz eta baztertuz, edozein testuingurutan gertatzen diren erreakzioak.	5.4 Kirola kultura-fenomeno gisa baloratzea, kirolaren testuinguruan batzuetan gertatzen diren genero-estereotipoak eta portaera sexistak modu kritikoa aztertuz, horiek baztertuz eta etorkizunean horrelakorik ez gertatzeko jarrera hartuz.
6. konpetentzia espezifikoa		
6.1 Ekintza motorrak egitea, ikasleen motrizitatea ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-ingurune jardueren ziurgabetasunera egokituz.	6.1 Ekintza motorrak egitea, informazioa deskodetuz eta ikasleen motrizitatea ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-ingurune jardueren ziurgabetasunera egokituz.	6.1 Ekintza motorrak natura- eta hiri-ingurune jardueren ziurgabetasunera efizientiaz egokitzea.
6.2 Natura- eta hiri-inguruneaz gozatzea, motrizitatearen ikuspegitik, beste erabilera batzuk ezagutuz eta horiekiko errespetu, zaintza eta kontserbazio jarrera hartuz, jolas eta aisialdiko jardunetan.	6.2 Jardun motor segurua garatzea natura- eta hiri-testuinguruetan, ekintzak egoera bakoitzaren azterketara egokituz eta ingurumena zaintzeko neurriak aplikatuz.	6.2 Ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-inguruneak jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituen aukerak baloratzea, ingurunearen ikuspegi ekojasangarri eta komunitariotik jardunez.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
6.3 Arrisku-testuinguruak antzematea, jarduera fisikoa egitean segurtasun-neurriak hartuz.	6.3 Jarduera fisikoa egitean segurtasun-neurriak hartzea, arrisku-testuinguruak ezagutzuz eta horien aurrean kontuzjokatuz.	6.3 Jarduera fisikoa egitean segurtasun-neurriak hartzea, izan daitezkeen arriskuei aurrea hartuz eta horien aurrean kontuz jokatuz.
7. kompetentzia espezifikoak		
7.1 Erritmo-egitura sinpleak erreproduzitzea eta sortzea, produkzioak eginez eta gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-erabilerak egokituz eta asmo artistikoarekin eta agerpen sexistaksaihestuz.	7.1 Sentimenduak, emozioak edo ideiak transmititzen dituzten komunikazio-jardunetako banakako eta taldeko mugimendu-konbinazioak edo koreografiak erreproduzitzea, gorputzaren adierazpen- eta erritmo-baliabideak erabiliz.	7.1 Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-baliabideak modu estetiko eta sortzailean erabiltzea, sentsazioak, emozioak eta ideiak komunikatuz eta arte- edo adierazpen-asmoa duten ekintzetan eta adierazpen sexistak saihestuz.
7.2 Banakako edo taldeko proiektu motorrak garatzen hastea, horien lortzea baloratuz.	7.2 Banakako edo taldeko proiektu motorrak egitea, lortutako emaitzak aztertzeko estrategiak erabiliz.	7.2 Banakako edo taldeko proiektu motorrak garatzea, helburuak zehaztuz, ekintzak sekuentziatuz eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza baloratuz.
7.3 Arte-adierazpen espresiboan erreproduzitzean modu aktiboan eta bidezkoan parte hartzea, haien jolas- eta jai-osagaia balioetsiz.	7.3 Ingurune berezko kulturaren arloko arte-adierazpen espresiboetan modu aktiboan eta bidezkoan parte hartzea, modu kritikoan baloratuz gizartearen dituzten garrantzia, ondorioak eta eragina.	7.3 Bertako kulturako eta beste kultura batzuetako arte-adierazpen espresiboetan modu aktiboan eta bidezkoan parte hartzea, haien kultura-balioa antzemanaz eta transmitituz, baita jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarrekintza eraikitzaileak sortzeko espaziotzisa duten potentziala ere.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa
A multzoa. Egoera psikomotorrak
Gorputz-eskema: gorputzaz jabetu eta gorputzaren kontrola. Lateralitatea eta proiektzioa espazioan.*
Gaitasun fisikoak jolasaren eta jokoaren arlotik.*
Oinarrizko gaitasun eta trebetasun motor orokorrak: lokomotorrak, ez-lokomotorrak eta manipulaziokoak.*
Sormen motorra: ekintza motorra barne-estimuluen arabera aldatu eta egokitu.*
Norberaren gaitasunak eta mugak.
B multzoa. Oposizioko egoera sozomotorrak
Aurkaria gainditzeko funtsezko nozioak eta ekintza-printzipioak: gorputz-jarrera eta distantzia egokia aukeratu, ekintza aurkariaren kokalekura egokitu, espazioak eta denborak murriztu/areagotu, aurrea hartu, oreka eta desoreka...*
“Urrezko” segurtasun-araua: minik ez hartu eta minik ez eman.*
C multzoa. Kooperazioko egoera sozomotorrak
Ekintza printzipioak eta arrakasta lortzeko gakoak kooperazio-egoeretan: ekintzak lankideekin koordinatu, sinkronizatu, gorputza kontrolatu, erabakiak adostasunez hartu.*
Erronken aurrean askotariko erantzunak.
Harrerako, inklusioko, laguntzako eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*
Gatazka pertsonalak elkarriketa bidez eta zuzen ebatzi.*
Diskriminazioko eta indarkeriako jokabideen aurreko jarduketak.*
D multzoa. Oposizioko/kolaborazioko egoera sozomotorrak
Erasoko ekintza motorrak: taldeko jokoetan mugikariaren eramaile eta ez-eramaile gisa (jaurti, pasatu, driblatu, mugitu, kolpatu...)*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa
Defentsako ekintza motorrak: moztu, urrundu, blokeatu...*
Oposizioko eta kolaborazioko jardunekin lotzen diren nozioak: ibilbidea, iskin egin, jaurtiketa eta paserako distantzia ...*
E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak
Landaeta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak.
Kokatzeko informazio eta erreferentzia egokiak.*
Ikastetxeaz kanpoko segurtasun-arauak.*
Ziurgabetasuna duten inguruneetako arrisku eta muga pertsonalak.*
Haurren jolas eta aisialdirako guneeetako aukera motorrak.
F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak
Gorputzaren komunikazio-erabilerak: keinuak, imintzioak, jarrerak eta abar.*
Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako erritmo- eta musika-jardun artistikoak eta adierazpenekoak.*
Norberaren espazioa, erritmoa eta denboraren antolaketa.
Hurbileko espazioaren esplorazioa: objektuekin eta objekturik gabe, zenbait norabide eta mailatan, zabalera handiagoa/txikiagoa.*
Espazioaren nozioak: tamaina (handia, txikia), norabideak (aurrera, atzera, albo batera), okupazioa ("in situ", desplazamenduan), irekia/itxia, gainean/azpian...*
Ekintza-contrasteak: txikia/handia, zabala/estua, igurtzi/jo, astuna/arina, azkarra/makala.
Talde-dantzetako oinarritzko pausuak.
G multzoa. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak
Osasun fisikoa: bizimodu aktiboaren ondorio fisiko onuragarriak. Elikadura osasungarria eta hidratazioa. Jardun motorra prestatu: kirol-jantziak eta gorputz-higienerako ohitura orokorrak.*
Gizarte-osasuna: jarduera fisikoa gizarte-jardun osasungarri gisa. Pertsona guztiak errespetatu, haien ezaugarri pertsonalak edozein direla ere. Joko- eta segurtasun-arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*
Osasun mentala: kudeaketa emozionala (arrikuaren kontrola; emozioak, pentsamenduak eta sentimenduak identifikatzeko, esperimintatzeko eta adierazteko estrategiak, esperientzia motorretatik abiatuta).*
Istripuen prebentzioa jardun motorretan: aktibazio-, beroketa- eta lasaitze-jokoak.
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Jolasak eta dantzak, norberaren kulturaren adierazpen gisa.
Kirola eta genero-ikuspegia: zenbait generotako kirolari erreferenteak.*
Haurren jolas eta aisialdirako guneeetako aukera motorrak.
Jardueraren parte diren rolak eta azpirrolak hartu: defendatzailea/erasotzailea, jazarlea/jazarria, presoak.*

Bigarren zikloa
A multzoa. Egoera psikomotorrak
Gorputzaren kontrola, automatismo eta estereotipo motorrak.*
Gorputz-eskema: kontrol tonikoa eta jarrerakoa eta independentzia segmentarioa, egoera motorretan. Lateralitatearen definizioa. Koordinazio dinamikoa orokorra eta segmentarioa.*
Oinarritzko gaitasun fisikoak jolas-jardueretan.*
Oinarritzko gaitasun eta trebetasun motor orokorrak: lokomotorrak, ez-lokomotorrak eta manipulaziokoak. Trebetasunen konbinazioa.*
Sormen motorra: ekintza motorra barne- eta kanpo-estimuluen arabera aldatu eta egokitu.
Norberaren gaitasunak eta mugak.

Bigarren zikloa
B multzoa. Oposizioko egoera soziomotorrak
Aurkaria gainditzeko oinarrizko nozioak eta ekintza-printzipioak: ekintza espazioan duen kokapenaren arabera egokitu, ekintza bakoitzaren ondoren birkokatu, aurkariaren indarra erabili, alternantzia, aurea hartu, oreka eta desoreka, espazioak eta denborak murriztu/areagotu, mugikariaren jarraitutasuna eta trukea...*
Estrategia sinpleak oposizioko egoeretan.*
"Urrezko" segurtasun-arauak: minik ez hartu, minik ez eman eta min ematen ez utzi.*
C Multzoa. Kooperazioko egoera soziomotorrak
Esparru honen berezko askotariko jardun motorrak.
Ekintza printzipioak eta arrakasta lortzeko gakoak kooperazio-egoeretan: taldeko ekintzak lankideekin koordinatu eta kateatu, sinkronizatu, algoritmo motorrak, gorputza kontrolatu, erabakiak adostasunez hartu...*
Jokoan bertan proposatzen den erronka bati edo sortzen den arazo bati konponbidea emateko erantzun originalak.
Harrerako, inklusioko, laguntzako eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*
Oinarrizko trebetasun motorren aukeraketa eta konbinazioa.*
Gatazka indibidualak eta kolektiboak elkarrizketa bidez ebazti.*
Diskriminazioko eta indarkeriako jokabideen aurreko jarduketak.*
Taldearekiko konpromisoa eta elkartasuna.*
D multzoa. Oposizioko/kolaborazioko egoera soziomotorrak
Joko tradizionalen dibertsitatea, esparru horretako berezko jarduera fisikoak.
Nork bere ekintza aztertzeke eta azaltzeke prozedura.
Jardun horiekin lotzen diren nozioak: norabidea, iskin egin, paserako eta jaurtiketarako distantzia ...*
Defentsako eta erasoko ekintza motorrak. Jokoaren taktikaren hastapenak.*
Jokoen arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*
Ekintza motorrak kateatu eta ekintzen sorta zabaldu.*
Babes-arauak (baloia daramanarekiko distantzia, hura ez ukitu).
Oposizio kolektiboko jardunen balioak (saiatzea, zintzotasuna, elkartasuna, segurtasuna, legezketasuna).
E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak
Landa-ingurunekeo jarduera fisikoak.
Energia kudeatu eta erregulatu, jarduera behar bezala garatzeko.
Emozioen kontrola ziurgabetasuna duen esparru batean.*
Oinarrizko orientazio-teknikak: norbera kokatzeko bidezko informazioak eta erreferentziak hartu.*
Arriskuak eta jarduera segurua norberarentzat (autobabesa) eta gainerakoentzat (arriskuak identifikatu gune ezezagun batean; segurtasun-baldintza onak dituzten oztopoak gainditu; arriskuak hartu norberaren gaitasunen arabera).*
Jarduera horietarako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasuneko barne.
Hiri-testuinguruko naturaguneak: erabili, gozatu eta mantendu.
F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak
Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentsazioak, sentimenduak, emozioak eta ideia sinpleak komunikatu.*
Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako erritmo- eta musika-jardun artistikoak eta adierazpenekoak.*
Norberaren espazioa eta hurbileko espazioa, erritmoa eta denboraren antolaketa.*
Mugimenduaren eta haren osagaien kalitateak: energia (indartsua-ahula), espazioa (tamaina handia edo txikia, aurrera, atzera, albora, desplazamenduan, irekia/itxia, gainean/azpian...) eta denbora (azkarra-makala, iraupenak, esaldiak, isiluneak, hasiera/amaiera).*
Ekintza-contrasteak (txikia/handia, zabala/estua, igurtzi/jo, astuna/arina, azkarra/makala).*
Norberaren eta besteen produkzioak. Gainerakoen begirada onartu.*

Bigarren zikloa
Genero-estereotipoak eta horien ondoriozko mugak.*
Ekoizpen artistikoak, espresiboak eta akrobatikoak behatzeko irizpideak: zailtasuna, aniztasuna, jarraipena.
Dantzetako oinarritzko pausuak.*
G multzoa. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak
Osasun fisikoa: bizimodu aktibo baten ondorio fisiko eta psikologiko onuragarriak. Gorputzaren zaintzan eragina duten oinarritzko faktoreak. Jarduera fisikoarekin zerikusia duten higiepe pertsonaleko jarraibideak. Istripuen prebentzioa jardun motorretan.*
Gizarte-osasuna: jarduera fisikoa, ohitura eta alternatiba osasungarri gisa, aisialdi modu kaltegarrien aurrean. Entzute aktiboa eta negoziazio-estrategiak testuinguru motorretako gatazkak ebazteko. Egoera motorretan bizikidetzaren kontrako jokabideak, diskriminatzaileak edo sexistak baztertu.*
Osasun mentala: norberaren gorputza errespetatu eta onartu. Nork bere burua ezagutu eta indarguneak eta ahulguneak identifikatu.*
Jardueraren parte diren rolak eta azpirrolak hartu: defendatzailea/erasotzailea, jazarlea/jazarria, preso, epailea, ebaluatzailea.*
Jokoaren arauak eta segurtasun-arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*
Materiala zaindu eta prestatu, garatu beharrekoko jokoaren arabera.
Proiektu motorren plangintza eta autoerregulazioa: planifikatutakoa gauzatzeko oinarritzko mekanismoak.
Bizikidetzaren aurkako jokabideak: identifikazio-estrategiak eta ondorio negatiboak.*
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Jolasak eta dantzak, kulturartekotasunaren adierazpen gisa.
Kirola eta genero-ikuspegia: zenbait generotako kirolari erreferenteak.*
Bide-hezkuntza. Mugikortasun iraunkorra.

Hirugarren zikloa
A multzoa. Egoera psikomotorrak
Joko tradizionalen dibertsitatea, esparru horretako berezko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak.
Gorputzaren kontrola eta energia-gastuaren erregulazioa.*
Oinarritzko eta emaitzazko gaitasun fisikoak (koordinazioa, oreka eta bizitasuna).*
Kirol-jarduera fisikoen teknikarekin lotzen diren trebetasun motorren hastapena: alderdi nagusiak.*
Sormen motorra: ekintza motorra bat-batean egokitzea eskatzen duten barne- eta kanpo-estimuluak identifikatu.
Sekuentziak planifikatu, eta jokabide motorrak aurreikusi.*
B multzoa. Oposizioko egoera sozomotorrak
Joko tradizionalen dibertsitatea, esparru horretako berezko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak.
Aurkaria gaitzetzeko oinarritzko nozioak eta ekintza-printzipioak: eremuan duen kokapena, aurkariaren indarra erabili, aurrea hartu, oreka eta desoreka, espazioak eta denborak txikitu/handitu, erasorako/defentsarako une egokia identifikatu.*
Mendean egotetik nagusi izatera pasatzeko estrategia sinpleak eta bitartekoak.*
Espazio librea eta aurkariaren kokalekua, mugikaria hutsik dagoen espaziora zuzentzeko.*
Oposizioko jardueretako oinarritzko teknikak.*
Norberaren erabakien ebaluazioa eta jarduketaren emaitzaren analisia, norberaren ekintzen arrakasten eta porroten azterketa. Norberaren ondorengo jarduerak hobetuko dituzten ekintza-printzipioak eta -arauak sortzeko moduak azaldu.
C Multzoa. Kooperazioko egoera sozomotorrak
Eremu honen berezko askotariko jardun motorrak.
Ekintza-printzipioak eta arrakasta lortzeko gakoak kooperazio-egoeretan: taldeko ekintzak lankideekin koordinatu eta kateatu, sinkronizatu, algoritmo motorrak, gorputza kontrolatu, erabakiak adostasunez hartu...*

Hirugarren zikloa
Oinarrizko trebetasun motorren aukeraketa eta konbinazioa.*
Jokoan bertan proposatzen den erronka bati edo sortzen den arazo bati konponbidea emateko erantzun originalak.
Trebetasun sozialak eta elkarriketa, gatazken ebazpenean.*
Jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa estereotipoen, diskriminazioen eta indarkeriaren aurrean.*
Enpatia, elkartasuna eta dibertsitatearekiko errespetua (generoa, afektibo-sexuala, jatorri nazionala, etnikoa, sozioekonomikoa edo konpetentzia motorrekoa).*
D multzoa. Oposizioko/kolaborazioko egoera sozomotorrak
Joko tradizionalen dibertsitatea, esparru horretako berezko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak.
Jardun horiekin lotzen diren nozioak: norabidea, iskin egin, pibotatu, zuzeneko pasabidea, paserako eta jaurtiketarako distantzia...*
Esparru honetako berezko ekintza-printzipioen hastapenak: defentsako eta erasoko algoritmoa abian jarri, kateatu, ekintzen jarraipena egin, rol-trukea (rolak ezagutu) ...*
Timing-a: erasoko edo defentsako jokoan jarduteko une egokia.*
Mugikariaren eramaile gisa edo ez-eramaile gisa egin beharreko ekintza motorrak.*
Aurkaria gainditzeko saiatzeko ekintza kolektiboko estrategia sinpleak.*
Norberaren eta taldekideen eta aurkarien ekintza aztertze eta azaltzeko prozedurak.*
Oposizio kolektiboko jardunen balioak (saiatzea, aurka egin, zintzotasuna, elkartasuna, segurtasuna, legezkontasuna).
E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak
Landaeta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak.
Natura-ingurunean egindako desplazamendu arrazoitua eta hausnartua, kokapenerako informazio eta erreferentzia egokiak hartuz (plano batean markatutako ibilbide bati jarraitu).*
Iraupen eta intentsitate desberdineko egoeretan esfortzua kudeatzearen printzipioak.*
Natura-ingurunean jardutean sor daitezkeen istripu-arriskuak: aldeztu aurreko balorazioa eta jarduketa (arriskuak identifikatu eremu ezezagun batean; segurtasun-baldintza onak dituzten oztopoak gainditu; arriskuak hartu norberaren gaitasunen arabera).*
Natura-ingurunean jarduteko printzipioak eta ekintza-arauak: arriskuaren/segurtasunaren kudeaketa, emozioen kontrola...*
Jarduera horietarako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasuneko barne. Ezagutza teknikoak eta oinarrizko mantentze-ezagutzak.
Puntu kardinalak, ipar magnetikoa eta orientazioak.
F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak
Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentimenduak, emozioak eta ideia sinpleak komunikatu.*
Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako erritmo- eta musika-jarduera artistikoak eta adierazpenekoak.*
Norberaren espazioa eta hurbilekoa, eta komuna edo koreografikoa, erritmoa eta denboraren antolaketa (tempoa, egitura erritmikoa, esaldia, errepika melodikoa, pultsazioak, isiluneak, intentsitateak, altuera).*
Espazioaren nozioak: planoak (aurretikoa, dortsala, sagitala), simetriak, gauzatze-norabideak eta -altuerak, prestakuntzak, orientazioak.*
Norberaren eta besteen produkzioak. Gainerakoen begirada onartu.*
Genero-estereotipoen ondoriozko asimilazioak.*
Behaketa-irizpideak: zailtasuna, originaltasuna, edertasuna, ekintzak kontrolatu eta menderatu, espazioaren erabilera, denboraren egituraketa, ekintzen jarraipena, zehaztasuna.*
Euskal dantzen eta beste kultura batzuetako dantzen oinarrizko pausu zehatzak.*
Askotariko rolak (aktorea, dantzaria, ikuslea, behatzailea, koreografoa).
G multzoa. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak
Euskal jolasen unibertsoa: "jolasa" eta "jokoa" kontzeptuak.

Hirugarren zikloa
Osasun fisikoa: bizimodu aktiboaren ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak. Elikagai ultraprozesatuen eta edari energetiko edo azukredunen inpaktua. Norberaren erantzukizuna gorputzaren zaintzan. Jardun motorretan istripuak prebenitu (beroketa orokorra eta lasaitasunera itzuli). Segurtasun-arauak errespetatzearen garrantzia. Gorputz-higienearen arloko ohitura autonomoak eguneroko ekintzetan.*
Osasun soziala: osasunarekin lotutako ohitura txarrak eta horiek jarduera fisikoan duten eragina. Trebetasun sozialak (talde-lanerako estrategiak, egoera motor kolektiboetan gatazkak konpontzeko). Egoera motorretan, bizikidetzaren kontrako jokabideak identifikatu eta baztertu (generoaren ondoriozko diskriminazioa, gaitasuna, konpetentzia motorra, jarrera xenofoboak, arrazakeriakoak edo sexistak). Irmotasuna, iraunkortasuna, tolerantzia, errespetua eta erantzukizuna gisako balioak.*
Osasun mentala: autokontzeptua modu errealistan sendotu eta egokitu, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Norberaren gorputza eta besteen gorputz-itxura errespetatu eta onartu. Kudeaketa emozionala (arriskuaren kontrola, antsietatea eta egoera motorrak. Aurre egiteko eta kudeatzeko estrategiak).*
Jokoaren oinarritzko arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*
Jardueraren parte diren rolak eta azpirrolak hartu: defendatzailea/erasotzailea, jazarlea/jazarria, preso, epailea, ebaluatzailea.*
Proiektu motorren plangintza eta autoerregulazioa: jarraipena eta balorazioa prozesuan eta emaitzan.*
Jarduera fisikoak egitean izan daitezkeen istripuetako oinarritzko jardunak. Segurtasuneko alboko posizioa. Babesteko, laguntzeko eta sorosteko teknikak.
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Jolasak, kirolak eta arte- eta adierazpen-jarduerak, kultura-nortasunaren ezaugarri gisa.
Kirola eta genero-ikuspegia: sexismoa kirol amateurren eta profesionalean.*
Bide-hezkuntza, jarduera fisikotik eta kiroletik. Garraio aktiboa eta iraunkorra.
Materialak eraiki eta berrerabili, jardun motorrerako.
Ingurunearen zaintza, komunitaterako zerbitzu gisa, naturagunean egiten den jarduera fisikoan.*

ATZERRIKO HIZKUNTZA

Egungo gizartearen bilakaera azkarrak eta haien arteko lotura anitzek eskatzen dute gizabanakoei herritartasun independentea, aktiboa eta gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den errealtate garaikidearekiko konprometitua praktikan jartzen lagunduko dieten konpetentziak garatzea. Kultura demokratikorako erreferentzia-esparruak adierazten duenez, kulturalki askotarikoak diren egungo gizarteetan, prozesu demokratikoen kulturen arteko elkarrizketa behar dute. Beraz, hizkuntza desberdinetako komunikazioa funtsezkoa da kultura demokratiko hori garatzeko. Hezkuntzaren Europako Esparru baten ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak eragotzi egiten du mugek hezkuntza eta prestakuntza oztopatzea, eta nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emateaz gain. Horrek ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu.

Konpetentzia eleaniztunak —oinarritzko irakaskuntza amaitzean ikasleek izango duten irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentzietako bat da— eskatzen du gutxienez atzerriko hizkuntza bat, familia-hizkuntzez gain, ikasteko eta komunikatzeko modu egokian erabiltzea. Komunikazio-dimentsioa —hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin ere lotutakoa— ez ezik, ikasleek beren ingurunean hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, ulertzea eta errespetatzera daramaten alderdi historikoak eta kulturartekoak ere biltzen ditu. Konpetentzia horrek, era berean, lagundu egiten du ikasleek herritartasun global independente, aktibo eta gizarte demokratiko batekin konprometitua baliatu ahal izan dezaten. Ikuspegi horrekin bat etorritik, Lehen Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntza arloaren helburu nagusia daikasleek atzerriko hizkuntzan oinarritzko komunikaziorako konpetentzia eskuratzea, baita haien kulturarteko kontzientzia garatzea eta aberastea ere.

Arloko konpetentzia espezifikoen, irteera-profilaren funtsezko konpetentzien deskriptoreekin eta XXI. mendeko erronkekin lotutakoek, ikasleei aukera ematen diete atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez

komunikatzeko, beren garapen psikoebolubora eta interesetara egokituta. Arlo honek lagundu egiten du ikasleek XXI. mendeko erronkei aurre egin ahal izan diezaieten, baita behar diren oinarrizko jakintzak eskuratzen ere, kulturarteko egoeren kudeaketan, bizikidetzaren demokratikoan, gatazkak elkarriketaren bidez ebazten, eta errespetuan eta eskubide-berdintasunean oinarritutako lotura pertsonal eta sozialak ezartzen hasteko. Horrela, Atzerriko Hizkuntza arloak enpatia bultzatu behar du, beste errealitate sozial eta kultural batzuk ezagutzeko jakin-mina garatu, eta kulturen arteko komunikaziorako konpetentzia erraztu, ikasleek beste hizkuntza batzuetako hitzuneekin duten harremanetik abiatuta, solaskidearekiko, haren ohiturekiko eta kulturarekiko errespetuzko jarrera oinarri hartuta. Arlo honek, gainera, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeto moldatzeko, eta atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturetara hurbiltzeko, bai ikaskuntzarako eragile gisa, bai informazio-iturri eta gozameneko elementu gisa. Ildo horretatik, tresna digitalek atzerriko hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartzeko erabat aprobezia daitekeen potentziala dute. Horregatik, pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzea, alfabetatze mediatikoa eta teknologiararen erabilera egokia, segurua eta arduratsua osoikaskuntza-elementu garrantzitsuak dira arlo honetan.

Atzerriko Hizkuntza arloak Lehen Hezkuntzan dituen konpetentzia espezifikoak, kasu askotan, hizkuntzen ikaskuntza formalaren abiapuntua dira. Lehen Hezkuntzan, oraindik ere oso oinarrizkoa den atzerriko hizkuntzaren fase batetik abiatzen da. Hortaz, etapa osoan, ezinbestekoa izango da ikaskuntza ikasleen erreperitorio eta esperientzietan oinarritzea, komunikazio-ekintza errazetan parte har dezaten erraztuz. Horren barruan sartzen da ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak eta -estrategiak praktikan jartzea. Etapa honetan, bitartekotza elkar ulertzea errazteko eta oinarrizko informazio sinplea prozesatzera eta transmititzera bideratutako jardura gisa ulertzen da. Era berean, hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta-prozesuari ekiten zaio, eta ikasleen banakako erreperitorioetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen hasten dira. Ikasleek ulertu behar dute hizkuntzek alderdi komunak partekatzen dituztela eta hizkuntza bakoitzean egindako ikaskuntza transferigarria eta baliagarria dela komunikaziorako konpetentzia komuna garatzeko. Beraz, ikaskuntza horiek transferitu ahal izateko oinarrizko estrategiak erabiltzeko gai izan behar dute. Atzerriko Hizkuntza arloko konpetentzia espezifikoek barne hartzen dute, halaber, ikasleen artean hizkuntza-, arte- eta kultura-aniztasunarekiko estimua sustatzea, kulturen arteko komunikazio-egoerakudeatzen ikas dezaten.

Bestalde, oinarrizko jakintzek batu egiten dituzte arloko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea), eta ebaluazioa erraztu egiten dute irizpideen bidez. Hiru multzotan egituratzen dira. Komunikazioa multzoan biltzen dira ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazioaren bilaketa gidatuarekin, lanaren antolamenduariarekin eta norberaren identitatearen garapenarekin lotutakoak barne—, estereotipoak alde batera utzita. Eleaniztasuna multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotutako jakintzak biltzen ditu, baita ikasleen hizkuntza-erreperitorioa osatzen duten jakintzak ere, atzerriko hizkuntza ikasten eta familia-hizkuntzak hobetzen laguntzeko. Azkenik, Kulturartekotasuna multzoan biltzen dira atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturei buruzko jakintzak, baita haiekiko estimua ere, beste hizkuntza, hizkuntza-aldaera eta kultura batzuk ezagutzeko eta ulertzeko interesa azaltzen duten jarrerak aberasteko eta garatzeko aukera gisa.

Curriculumeko elementuen ikuspegia, nibelazioa eta definizioa planteatu dira Europako Kontseiluak Europako Erreferentzia Marko Bateratuak (EEMB) ezartzen dituen hizkuntza-jardueretatik eta konpetentzietatik abiatuta. Tresna hori funtsezkoa da ikasleek jardueretan eskuratzen dituzten konpetentzia-mailak zehazteko, eta haien ikaskuntza-prozesuaren alde ere egiten du. Prozesu hori prozesu dinamiko eta jarraitutzat ulertzen da, malgu eta irekitzat, eta ikasleen egoera, premia eta interesetara egokitu behar da. EEMB planteatzen duen ekintzara bideratutako ikuspegiarekin bat etorritik, curriculum honen konpetentzia-izaerak irakasleak bultzatzen ditu diziplinarteko zereginak, testuinguruan kokatutakoak, esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzera. Era berean, ikas egoerak gara daitezkeen sustatu behar da, hizkuntzentratamendu integratu batetik abiatuta, non ikasleak arian-arian autonomotzat eta mailaka beren ikaskuntza-prozesuaren arduraduntzat hartuko diren.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitako oinarrizko testu genero labur eta errazak ulertzea, hainbat estrategia erabiliz eta, beharrezkoa denean, hainbat laguntza mota baliatuz, zentzu orokorra eta informazio espezifiko eta aurreikusteko modukoa ateratzeko eguneroko egoera komunikatiboetan.

Ulertzeak eskatzen du informazioa jasotzea eta prozesatzea, eta horrek dakar berekin hizkuntza-errepertorio indibiduala aberastea. Lehen Hezkuntzako etapan, ulermena komunikazio-trebetasun bat da, testu labur eta errazetatik abiatuta garatu behar dena (ahozko, idatzizko eta multimodaletatik). Testuakeguneroko gaiet buruzkoak izango dira, esparru publikokoak zein pribatukoak, eta ikasleentzat garrantzipertsonala izango dute. Garapen jasangarrirako helburuekin bat etorriko dira, eta argiro eta hizkuntza estandarra erabilita emanak izango dira. Ulermenak, maila honetan, zentzu orokorra eta aurreikusteko moduko informazio espezifiko barneratzea eskatzen du, ikasleen berehalako lehenetsunekin lotutakokomunikazio-beharrei erantzuteko. Horretarako, garapen psikoebolutiborako eta ikasleen beharretarakoestrategia egokienak abiarazi behar dira, ikasleek beren mugak ezagutu ditzaten eta laguntza bilatzeko gai izan daitezen, testuetan adierazitako informazioa errazago ulertzeko eta enuntziatu labur eta errazakaditzeko, hainbat laguntza mota baliatuta, behar izanez gero. Ikasleentzako ulermen-estrategia erabilgarrienen artean daude hitzik gabeko hizkuntza, irudiak, errepikapena edo berrirakurketa. Testuinguru-informazioa (hizkuntzaz kanpoko elementuak) eta informazio kotestuala (hizkuntza-elementuak) erabiliko dira, ikasleek testuaren esanahi globalari buruzko hasierako hipotesia egiaztatu eta, beharrezkoa izanez gero, hipotesi alternatiboak planteatu ahal izateko. Estrategia horiez gain, informazioa euskarri analogiko zein digitaletan bilatzea oso metodo erabilgarria da ulermenerako, informazioa kontrastatu, baliozkotu eta sostengatzeko aukera ematen baitu. Bilaketa modu gidatuan eta gainbegiratutako ingurune digital seguruetan egin behar da. Ulermen-prozesuek testuinguru dialogikoak behar dituzte, baterako jakintza eraikitzen lagunduko dutenak eta edozein motatako aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzea sustatuko dutenak, baita desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturalekiko benetakointeresa ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.

2. Oinarrizko testu generoetako testu original errazak modu ulergarri eta egituratuan sortzea, plangintza edo konpentsazioa bezalako estrategiak erabiliz, berehalako mezu laburrekin lotutako mezu laburrak adierazteko eta eguneroko komunikazio-helburuei erantzuteko.

Produkzioak bai ahozko adierazpena, baita idatzizkoa eta multimodala ere barne hartzen ditu. Etapa honetan, produkzioak testu labur eta errazak idaztea eta azaltzea ekarri behar du, planifikatuak, indibidualak eta kolaboraziokoak, esparru publikokoak/sozialekoak, pribatukoak/pertsonalekoak, eguneroko gaiet buruzkoak, ikasleentzat garrantzi pertsonala dutenak eta sormenez eta argitasunez adieraziak. Produkzioak, hainbat formatu eta euskarritan, honako hauek barne har ditzake etapa honetan: deskribapen txiki edo anekdota erraz bat azaltzea, aurkezpen formal labur bat egitea edo eguneroko gertaerak eta sentimenduak adieraziko dituzten eta bere inguruan gertatzen diren fenomeno batzuk azalduko dituzten testuen kontakizun erraz bat egitea. Horretarako, ikasleek pentsamendu zientifikoa eta tresna digital eta analogikoak erabiliko dituzte, baita Interneteko informazio-bilaketa gidatua ere, dokumentazio-iturri gisa. Bere formatu multimodalean, produkzioak hainbat baliabideren erabilera sormenezkoa eta baterakoa barne hartzen du esanahia sortzeko: idazketa, irudia, soinua, keinuak, etab., baita komunikazioa eta kolaborazio-lana ere, ingurune digital mugatu eta gainbegiratuetan.

Testugintzarekin lotutako jarduerak funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean eta hezitzailean, eta horiei lotutako balio sozial eta zibiko zehatza dago. Euskarri desberdinetako produkzio formalagoetan trebetasuna ez da modu naturalean eskuratzen; aitzitik, ikaskuntza-prozesuaren, ahaleginaren eta dedikazioaren emaitza da, eta horrek eskatzen du norberaren mugak ezagutzea eta ikasleenaldeetik laguntza bilatzen jakitea. Etapa honetan produkzio formaletara lehen hurbilketa bat egiten da, eta horrek berekin dakar modu gidatuan ikastea oinarrizko alderdi formalak (linguistikoagoak, soziolinguistikoagoak eta pragmatikoagoak), erabilitako generoarekin lotutako itxaropen eta konbentzio ohikoenak, produkzio-tresna errazak eta erabilitako euskarria. Lehen Hezkuntzan produkzioa, formala zein informala, hobetzea ahalbidetzen duten estrategiek barne hartzen dute, besteak beste, hitzezko eta hitzizgabeko hizkuntza inklusiboaren bidezko plangintza eta konpentsazioa, estereotiporik gabea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.

3. Beste pertsona batzuekin interakzioan jardutea, eguneroko esamoldeak erabiliz, kooperazio-estrategietara joz, baliabide analogiko eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, beren intereseko berehalako beharrei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko baten eraikuntza. Pertsonen arteko komunikazioa komunikazioaren jatorritzat hartzen da, eta pertsonen arteko funtzioak, baita kooperazioak eta transakzionalak ere biltzen ditu. Interakzioan sartuta daude hizkuntza-adeitasuna eta etiketa digitala, komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuak eta testuinguru analogiko eta birtualetan ohikoenak diren genero dialogiko bai ahozkoetarako, bai hitzezkoetarako, bai multimodaletarako egokitzapena. Hezkuntzaren etapa honetan, informazio-trukeak laburrak eta errazak izatea espero da, eta eguneroko eta aurreikusteko moduko gaiak jorratzea, ikasleen ingurunean (esparru sozialean, pertsonalean eta/edo etxekoan) gertatzen diren fenomenoetarako buruzkoak eta ikasleentzat garrantzi pertsonala dutenei buruzkoak.

Konpetentzia espezifiko hau funtsezkoa da ikaskuntzan, oinarrizko elkarrizketak hasteko, mantentzeko edo amaitzeko estrategiak barne hartzen baititu, baita mezua ulertu ez dela adierazteko eta errepika dadin eskatzeko oinarrizko estrategiak ere. Gainera, hizkuntza-adeitasuna, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta etiketa digitala zuzentzen dituzten arauak eta printzipioak eskuratzeak prestatu egiten du herritartasun demokratikoa, arduratsua, errespetuzkoa, segurua eta aktiboa gauzatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.

4. Aurreikusteko moduko egoeretan bitartekari izatea, informazio oinarrizkoa eta erraza prozesatzeko eta transmititzeko estrategiak eta ezagutzak erabiliz, komunikazioa errazteko.

Bitartekotza hizkuntzaren jardura bat da, eta honetan datza: mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzea eta errazago ulertaraztea zenbait strategiaren bidez, hala nola birformulazioaren bidez. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardura izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan edo azalpenen bidez eraikitzea, ez bakarrik hizkuntza desberdinen artean, baita hizkuntza beraren aldaera edo erregistroen artean ere. Lehen Hezkuntzan, erabiltzaileen artean edo testuetatik abiatuta eguneroko gaien inguruko informazio oinarrizkoa eta erraza prozesatzera eta transmititzera bideratuta dago bitartekotza. Gai horiek garrantzi pertsonala izan behar dute eta ikasleekaldez aurretik ezagutu behar dituzte. Edukiak interpretatzeko eta partekatze baliabide konbentzionalak nahiz aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoa eta sortzailea garatzen laguntzen du. Izan ere, ikasleek beren erreperitorioko trebetasunak eta estrategiak behar bezala aukeratu behar dituzte komunikazio eraginkorra lortzeko, baina baita norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazteko ere, informazioa trukatzeko kooperazio-inguruneetan. Era berean, eskura dauden baliabideak antzeman eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, solaskideen motibazioak, ideiak eta egoera pertsonalak ulertuz eta errespetatuz. Horregatik, enpatia eta errespetua funtsezko elementuak dira maila honetako bitartekotzan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.

5. Hizkuntza-erreperitorio pertsonalak antzeman eta erabiltzea, berau osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta eginez eta norberaren estrategiak eta ezagutzak identifikatuz, atzerriko hizkuntzaren ikasteko gaitasuna hobetzeko eta egoera ezagunetan komunikazio-behar zehatzei hobeto erantzuteko.

Hizkuntza-erreperitorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarri direla hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko, eta lagundu egiten dietela beren hizkuntza-erreperitorio eleaniztuna, eta jakin-min eta

sentsibilizazio kulturala garatzen eta aberasten. Lehen Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan lehen urratsak egiten dituzte eta beren erreperitorio indibidualetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen hasten dira, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuta, haiek osatzen dituzten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako kompetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, baina, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarguneak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du, norberaren ezagutzez eta estrategiez jabetuta. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, ziurgabetasunari aurre egiteko oinarritzko trebetasunak, ekimenaren zentzua eta helburuak lortzeko edo erabakiak hartzeko pertseberantzia abian jartzea. Testuinguru dialogikoek kompetentzia hau eskuratzea errazten dute, jakintza baterakoa eraikitzea sustatzen duten heinean, pertsona guztien jakintza aintzatetsita, inolako bereizkeriarik gabe.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna eguneroko alderdi positibotzat hartzeko eta estimatzeko. Norberaren hizkuntza-erreperitorioan eduki berriak eraikitzeko eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu egin dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna antzematea eta errespetatzea, hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatuz eta baloratuz, kulturarteko egoerak kudeatzen ikasteko.

Kulturartekotasunak ingurunekeo hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna esperimintatzea eskatzen du, aniztasun hori gizarte-aberastasunaren iturri gisa balioetsita eta baloratuta. Egungo gizartearen berezko testuinguru eleaniztun eta kulturazintun konplexuan, euskal gizarte aurrera doa elebitasun desberdin batetik testuinguru eleaniztun baterantz. Egoera horrek ingurune hurbileko egoera soziolinguistiko eta kulturei buruzko gogoeta sustatzera behartzen du, aniztasunarekiko jarrera positiboak garatzeko. Lehen Hezkuntzan, kulturartekotasunak, besteekiko ulermena bultzatzen duenez, arreta berezia merezi du. Izan ere, beste alderdi batzuetan ez bezala, litekeena da kulturartekotasuna ikasleen aurretiazko esperientzian ez egotea eta, horrenbestez, estereotipoek haren pertzepzioa desitxuratzea eta diskriminazio mota jakin batzuen jatorri izatea. Aniztasuna aintzatesteak, estimatzeak eta baloratzeak aukera eman behar die ikasleei eguneroko kulturarteko egoerak kudeatzen ikasteko.

Aniztasunaren kontzientziak kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kultural bat garatzeko oinarriak ezartzen ditu, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzeko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzatik Lehen Hezkuntzako etapan planteatzen daitezkeen kulturarteko egoerek aukera ematen diete ikasleei esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara zabaltzeko, desberdina denarekiko interesa eta errespetua erakutsita; norberaren ikuspegia erlatibizatzen; baita edozein diskriminazio motatan edo estereotipoak indartzean oinarritutako jarreretatik aldentzeko eta horiek baztertzeko ere; bizikidetzak baketsua, besteekiko errespetua, iraunkortasuna eta herritartasun demokratikoa sustatzen dituzten oinarritzko elementu kulturalak eta linguistikoak ulertzeko interesa erakusteko.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. kompetentzia espezifikoa		

1.1. Ohiko hitz eta esamolde labur eta errazak antzematea eta interpretatzea, modu ulergarri, argi, erraz eta zuzenean eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testuetan, idatzizkoetan eta multimodaletan.	1.1. Zentzu globala ezagutzea eta interpretatzea, baita aurrez adierazitako hitzak eta esaldiak ere, ikasleen garapen-mailari egokitutako ahozko testuetan, idatzizkoetan eta multimodaletan, labur eta errazetan, modu ulergarrian, argian eta hizkuntza estandarrean adieraziz, hainbat euskarriren bidez.	1.1. Zentzu globala antzematea, interpretatzea eta aztertzea, baita hitz eta esaldi espezifikoak ere, ikasleen garapen-mailari egokitutako ahozko testuetan, idatzizkoetan eta multimodaletan, labur eta errazetan, modu ulergarrian, argian eta hizkuntza estandarrean adieraziz, hainbat euskarriren bidez.
1.2. Modu gidatuan, ideia globala atzemateko eta elementu espezifikoak identifikatzeko oinarrizko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, testuinguruko elementu linguistikoaren eta ez-linguistikoaren laguntzarekin.	1.2. Modu gidatuan, zentzu globala ulertzeko eta familia-eta gizarte-testuinguruko gaiei buruzko testu labur eta errazetan informazio esplizituak prozesatzeko estrategia egokiak hautatzea eta aplikatzea.	1.2. Modu gidatuan, zentzu globala ulertzeko eta informazio esplizituak hainbat testutan prozesatzeko estrategia eta ezagutza egokiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea.
2. kompetentzia espezifikoa		
2.1. Oinarrizko informazioa duten esaldi labur eta errazak ahoz adieraztea, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak modu gidatuan erabiliz, aurrez aurkeztutako eredu eta egituretara joz eta erritmoari, azentuazioari eta intonazioari arreta jarritz.	2.1. Oinarrizko informazioa duten esaldi laburrak ahoz adieraztea, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak modu gidatuan erabiliz, eta erritmoari, azentuazioari eta intonazioari arreta jarritz.	2.1. Aurrez prestatutako testu labur eta errazak ahoz adieraztea, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak modu gidatuan erabiliz, eta atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko eta ohiko formak eta egiturak baliatuz.
2.2. Hitzak, esamolde ezagunak eta esaldiak idaztea, ereduetik abiatuta eta helburu espezifiko batekin, tresna analogiko eta digitalen edo kolaborazioko plataforma birtualen bidez, oinarrizko egiturak eta lexikoa erabiliz.	2.2. Oso testu labur eta errazak idaztea, proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ereduetik abiatuta eta tresna analogiko eta digitalen bidez, oinarrizko egiturak eta lexikoa erabiliz.	2.2. Aldez aurretik prestatutako testu labur eta errazak antolatzea eta idaztea, proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, tresna analogikoaren eta digitalen bidez, eta erabili ohi diren oinarrizko egiturak eta lexikoa baliatuz.
2.3. Modu gidatuan, komunikazio-asmoetara egokitutako mezu labur eta errazak sortzeko, oinarrizko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, unean uneko premien arabera, baliabide eta laguntza fisikoak edo digitalak erabiliz, laguntzarekin.	2.3. Komunikazio-asmoetara egokitutako mezu labur eta errazak sortzeko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, lagunduta, baliabide eta euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.	2.3. Modu gidatuan, komunikazio-asmoetara, testuinguru-ezaugarrietara etatestu-tipologiara egokitutako testuak prestatzeko eta sortzeko, ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, baliabide fisikoak edo digitalak laguntzarekin erabiliz, unean uneko zereginaren eta beharren arabera.
3. kompetentzia espezifikoa		
3.1. Modu gidatuan, eguneroko gaiei buruzko oinarrizko egoera interaktibo aurrez prestatuetan parte hartzea, zenbait euskarri analogiko eta digitalen bidez, errepikapena, erritmo pausatua edo hitzik gabeko hizkuntza bezalako baliabideetan oinarrituz, enpatia erakutsiz eta erabilera sexistak, arrazistak eta klasistak baztertuz.	3.1. Aurrez prestatutako egoera interaktibo labur eta errazetan parte hartzea, zenbait euskarri analogiko eta digitalen bidez, errepikapena, erritmo pausatua edo hitzik gabeko hizkuntza bezalako baliabideetan oinarrituz, eta enpatia eta errespetua erakutsiz hizkuntza-adeitasunarekiko eta etiketa digitalarekiko.	3.1. Egoera interaktibo labur eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, zenbait euskarriren bidez, errepikapena, erritmo pausatua edo hitzik gabeko hizkuntza bezalako baliabideetan oinarrituz, eta enpatia eta errespetua erakutsiz hizkuntza-adeitasunarekiko eta etiketa digitalarekiko, baita solaskideen behar, ideia eta motibazioekiko ere, erabilera sexistak, arrazistak eta klasistak baztertuz.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
3.2. Modu gidatuan eta ingurune hurbiletan, agurtzeko, despeditzeko eta aurkezteko; mezu errazak eta laburrak adierazteko; eta komunikaziorako oinarriko galderak egin eta erantzuteko oinarriko estrategiak hautatzea eta erabiltzea.	3.2. Modu gidatuan eta eguneroko egoeretan, agurtzeko, despeditzeko eta aurkezteko, mezu laburrak adierazteko eta galdera errazak egin eta erantzuteko oinarriko estrategiak hautatzea eta erabiltzea.	3.2. Modu gidatuan eta eguneroko egoeretan, agurtzeko, despeditzeko eta aurkezteko, galdera errazak egin eta erantzuteko, mezuak adierazteko eta komunikazioa hasteko eta amaitzeko oinarriko estrategiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.
4. kompetentzia espezifikoa		
4.1. Kontzeptuen, komunikazioen eta testu labur eta errazen oinarriko informazioa interpretatzea eta azaltzea, modu gidatuan, aniztasunari erantzun behar zaion egoeretan, solaskideekiko eta ingurune hurbileneko ulermen-arazoeikiko enpatia eta interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak interpretatzea eta azaltzea, modu gidatuan, aniztasunari erantzun behar zaion egoeretan, solaskideekiko eta ingurune hurbileneko ulermen-arazoeikiko enpatia eta interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak sortzea eta azaltzea, modu gidatuan, aniztasunari erantzun behar zaion egoeretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.
		4.2. Modu gidatuan, informazioa eta komunikazioa ulertzea eta sortzea erraztuko duten oinarriko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, komunikazio-asmoetara egokitzuz, eta, laguntzarekin, baliabide grafikoak eta laguntza fisikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.
5. kompetentzia espezifikoa		
5.1. Hizkuntzen arteko ageriko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatzea eta egiaztatzea, haien funtzionamenduaren oinarriko alderdiei buruz modu gidatuan gogoeta eginez.	5.1. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatzea eta egiaztatzea, haien funtzionamenduaren oinarriko alderdiei buruz modu gidatuan gogoeta eginez.	5.1. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatzea eta egiaztatzea, haien funtzionamenduaren oinarriko alderdiei buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.
5.2. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntzan komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak identifikatzea eta aplikatzea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.	5.2. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntzan komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko, ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.	5.2. Gero eta autonomia handiagoaz, atzerriko hizkuntzan komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.
5.3. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntza ikasteko oinarriko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta azaltzea.	5.3. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntza ikasteko oinarriko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta aplikatzea, hobetzen laguntzen duten alderdiak antzemanaz eta autoebaluazio- eta koebaluazio-jardueretan parte hartuz, hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarrean (HPE) proposatutakoetan.	5.3. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta erabiltzea, hobetzen laguntzen duten alderdiak antzemanaz eta autoebaluazio- eta koebaluazio-jarduerak eginez, hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarrean (HPE) edo ikaskuntza-egunkari batean proposatutakoetan.
6. kompetentzia espezifikoa		
6.1. Kulturarteko komunikazioarekiko interesa erakustea, eguneroko eta ohiko egoeretan sarrien izaten diren diskriminazioak, aurreiritziak eta estereotipoak modu gidatuan identifikatuz eta aztertuz.	6.1. Kulturarteko egoeretan errespetuz jokatzeko, hizkuntzen eta kulturen arteko oinarriko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta alderatuz, eta edozein motatako diskriminazioen, aurreiritzien eta estereotipoen aurrean gaitzespena erakutsiz.	6.1. Kulturarteko egoeretan estimuz eta errespetuz jokatzeko, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz, eta edozein motatako diskriminazioen, aurreiritzien eta estereotipoen aurrean gaitzespena erakutsiz.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
6.2. Atzerriko hizkuntzarekin lotutako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna antzematea eta estimatzea, haren oinarriko kultura- eta hizkuntza-elementuak ezagutzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna antzematea eta estimatzea, norbera aberasteko iturri gisa, bizikidetzak baketsua eta besteekiko errespetua sustatzen duten oinarriko eta ohiko kultura- eta hizkuntza-elementuak ulertzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna onartzea eta errespetatzea, norbera aberasteko iturri gisa, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten oinarriko kultura- eta hizkuntza-elementuak ulertzeko interesa erakutsiz.
	6.3. Modu gidatuan, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasunaren alderdi garrantzitsuenak ulertzeko eta estimatzeko oinarriko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, emakumeek aniztasun horretan egiten duten ekarpena aintzatetsiz eta baloratuz.	6.3. Modu gidatuan, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko oinarriko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, emakumeek aniztasun horretan egiten duten ekarpena aintzatetsiz eta baloratuz.

ONARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa
A. Komunikazioa
Autokonfiantza atzerriko hizkuntza erabiltzean.
Testu ahozko, idatziko eta multimodalak, errazak eta testuinguruan kokatuak ulertzeko eta sortzeko hasierako oinarriko estrategiak.*
Esparrura eta testuingurura egokitutako oinarriko komunikazio-funtzioak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonen, objektuen eta lekuen ezaugarriak identifikatzea; eguneroko gaiei buruzko galdera zehatzei erantzutea; denbora, kantitatea eta espazioa adieraztea.*
Oinarriko testuinguru-ereduak ahozko, idatziko eta testu multimodalak, laburrak eta errazak, ulertzeko eta sortzeko, hala nola zorion-agurrak, oharrak, zerrindak edo abisuak.*
Egitura horiei lotutako oinarriko hizkuntza-unitateak eta esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitateak eta bere propietateak, kantitatea eta kopurua, baieztapena, harridura, ukapena, galdera.*
Ikasleentzat interesgarria izango den funtsezko lexikoa, pertsonen arteko oinarriko harremanak, etxebizitzari, lekuei eta hurbileko inguruneen buruzkoa.*
Oinarriko soinu- eta azentu-patroietarako hastapenak.*
Oinarriko konbentzio ortografikoetarako hastapenak.
Oinarriko elkarrizketa-konbentzio eta -estategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, galdetzeko eta erantzuteko, etab.*
Oinarriko tresna analogiko eta digitalak (hiztegiak, piktogramak...) ahozko, idatziko eta testu multimodalak ulermen eta produktiorako.*
Ahozko zein idatziko testu analogiko eta digitalen aurkezpen zaindua.
Kooperazio-estrategia errazak eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak nor bere gain hartzeko jarraibideak.*
Hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera nabarmen diskriminatzaile eta sexisten identifikazioa eta baztertea.*
Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.
Literatura-testua eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri bezala.
B. Eleaniztasuna
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatzeko eta erabiltzeko oinarriko estrategietarako hastapenak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta.*
C. Kulturartekotasuna
Atzerriko hizkuntza, beste herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa.*

Lehen zikloa
Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako ohiturei eta eguneroko bizitzari buruzko alderdi soziokultural eta soziolinguistiko oinarritzkoak eta esanguratsuenak, genero-ikuspegia kontuan izanik.
Erabilera komuneko oinarritzko estrategietarako hastapenak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*

Bigarren zikloa
A. Komunikazioa
Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Lanaren antolamendua. Autoebaluazioa, koebaluazioa eta akatsa, prozesuaren parte gisa.*
Testu ahozkoak, idatzizkoak eta multimodalak, labur, erraz eta testuinguruan kokatuak, ulertzeko eta sortzeko erabili ohi diren oinarritzko estrategiak.*
Oinarritzko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, eguneroko egoera analogiko eta digitaletan bitartekaritza-jardueretan hastapenak egiteko aukera ematen dutenak.*
Erabili ohi diren oinarritzko komunikazio-funtzioak, esparrura eta testuingurura egokituak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; sentimendu eta emozioen adierazpen ez-estereotipatuak; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; eguneroko gai buruzko informazioa eskatzea eta trukitzea; errutinak deskribatzea; argibideak eta jarraibideak ematea; denbora, kantitatea eta espazioa adieraztea.*
Erabili ohi diren oinarritzko testuinguru-ereduak eta genero diskurtsiboak, ahozko, idatzizko eta testu multimodalak, labur eta errazak, literarioak eta ez-literarioak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, hala nola liburuxkak, jarraibideak, arauak, oharra edo elkarbizitza erregulatzen duten elkarriketak.*
Erabili ohi diren oinarritzko hizkuntza-unitateak eta egitura horiei lotutako esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitatea eta bere propietateak, kantitatea eta kopurua, espazioa eta erlazio espazialak, baieztapena, harridura, ukapena, galdera.*
Ikasleentzat interesgarria izango den funtsezko lexikoa, pertsonen arteko hurbileko harremanei, etxebizitzari, lekuei eta gertuko ingurune analogiko eta digitalei buruzkoa.*
Erabili ohi diren oinarritzko soinu-, azentu- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako komunikazio-funtzio orokorrak.*
Erabili ohi diren oinarritzko konbentzio ortografikoak eta formatu eta elementu grafikoak lotutako esanahiak.*
Erabili ohi diren oinarritzko elkarriketa-konbentzio eta -strategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eskatu eta emateko, etab.*
Bitarteko analogiko eta digital seguruetan informazioa modu gidatuan bilatzeko oinarritzko estrategiak eta ikasteko baliabideak.*
Erabili ohi diren oinarritzko tresna analogiko eta digitalak (hiztegiak, piktogramak...) ahozko, idatzizko eta testu multimodalaren ulermen, produkzio eta koproduziorako; hezkuntzaren arloko interakzio eta kolaboraziorako plataforma birtualak.*
Ahozko, idatzizko eta testu multimodalaren aurkezpen zaindua testuinguru analogiko eta digitaletan.
Kooperazio-estrategia errazak eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak nork bere gain hartzeko jarraibideak.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera nabarmen diskriminatzaileak identifikatu eta baztertzeko estrategiak.*
Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.
Literatura-testua eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri bezala, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.*
B. Eleaniztasuna
Oinarritzko behar bati erantzuteko komunikazio-gabeziak konpentsatzeko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan kompetentzia-mailaren ondoriozko mugak izan arren.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta erabiltzeko oinarritzko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta.*
Erabili ohi diren autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarritzko estrategia eta tresnetarako hastapenak, analogiko eta digitalak, indibidual eta kooperatiboak (ikaskuntza-egunkaria, portfolioa, errubrikak, ebaluazio-ituak...).
Komunikazioari, hizkuntzari eta ikaskuntzari (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko oinarritzko lexikoa eta esamoldeak.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Bigarren zikloa
C. Kulturartekotasuna
Atzerriko hizkuntza, beste herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko eta kultura eta bizimodu desberdinak ezagutzeko bitarteko gisa.*
Atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-eredu oinarrikoetarako hastapenak.*
Oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, ohiturei, eguneroko bizitzari eta pertsonen arteko oinarriko harremanei buruzkoak, atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan, genero-ikuspegia kontuan izanik.
Erabili ohi diren oinarriko estrategiak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Zenbait bitartekoren bidezko parte-hartzea planifikatutako komunikazio-trukeetan eta/edo proiektuetan atzerriko hizkuntzako ikasleekin.

Hirugarren zikloa
A. Komunikazioa
Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Lanaren antolamendua. Autoebaluazioa, koebaluazioa eta akatsa, hobetzeko tresna gisa.*
Testu ahozko, idatzizko eta multimodal labor, erraz eta testuinguruan kokatuak ulertzeko, planifikatzeko eta sortzeko oinarriko estrategiak.*
Eguneroko oinarriko egoeretan bitartekaritza-jardueretan hastapenak egiteko aukera ematen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Oinarriko komunikazio-funtzioak, esparrura eta testuingurura egokituak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; sentimendu, emozio eta ideien adierazpen ez-estereotipatuak; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaiei buruzko informazioa eskatzea eta trukitzea; errutinak deskribatzea; argibideak eta jarraibideak ematea; atxikipena eta kantitatea adieraztea.*
Oinarriko testuinguru-ereduak eta genero diskurtsiboak; ahozko, idatzizko eta testu multimodalak, labor eta errazak, literarioak eta ez-literarioak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko: ezaugarriak, eta barne-egituraren arabera testuingurua, antolamendua eta egituraketa.*
Unitate horiei lotutako oinarriko hizkuntza-unitateak eta esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitate eta bere propietateak, kantitatea eta kopurua, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, oinarriko erlazio logikoak.*
Ikasleentzat interesgarria izango den oinarriko lexikoa, honako hauei buruzkoa: identifikazio pertsonala, hurbileko pertsonen arteko harremanak, gertuko leku eta inguruneak, aisia eta denbora librea, eguneroko bizitza analogikoa eta digitala.
Oinarriko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patro horiei lotutako komunikazio-funtzio orokorrak.*
Oinarriko konbentzio ortografikoak eta formatu eta elementu grafikoei lotutako esanahiak.*
Oinarriko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, alderatzeko eta egiaztatzeko, kolaborazioan aritzeko, etab.*
Ikaskuntzarako baliabide, eta bitarteko analogiko eta digital seguruetan egindako bilaketa gidatuetan lortutako informazioaren fidagarritasuna eta egokitasuna bereizteko estrategiak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektuala.*
Erabili ohi diren oinarriko tresna analogiko eta digitalak (hiztegiak, piktogramak...) ahozko, idatzizko eta testu multimodalaren ulermen, produkzio eta koproduktzioarako; hezkuntzaren arloko interakzio eta kolaborazioarako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hiztunekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*
Ahozko eta idatzizko testu analogiko eta digitalen aurkezpen zaindua.
Kooperazio-estrategia errazak eta talde-lanean esleitutako erantzukizun individualak nork bere gain hartzeko estrategiak.*
Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak.*
Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalen erabilera.*
Literatura-testua eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri bezala, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.*

Hirugarren zikloa
B. Eleaniztasuna
Behar jakin bati eraginkortasunez erantzuteko komunikazio-gabeziak konpentsatzeko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan kompetentzia-mailaren ondoriozko mugak izan arren.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta erabiltzeko oinarritzko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarritzko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak (ikaskuntza-egunkaria, portfolioa, errubrikak, ebaluazio-ituak...).
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.*
Hizkuntzen arteko oinarritzko konparazioa, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
C. Kulturartekotasuna
Atzerriko hizkuntza, beste herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa, informazio berria eskuratzeko modu gisa eta kultura eta bizimodu desberdinak ezagutzeko bitarteko gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin harremanak ezartzeko eta komunikatzeko interesa eta balorazio positiboa.
Atzerriko hizkuntzak berezko dituen eta maiz erabiltzen diren oinarritzko kultura-ereduak.*
Oinarritzko eta ohiko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-ikuspegiaz, atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezko dituzten ohiturei, eguneroko bizitzari eta pertsonen arteko harremanei, erabili ohi diren oinarritzko gizarte-konbentzioei, hitzik gabeko hizkuntzari, hizkuntza-adeitasunari eta etiketa digitalari buruzkoak.
Erabili ohi diren oinarritzko estrategiak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Parte-hartze gero eta autonomo eta aktiboagoa, kooperatibo eta errespetuzkoagoa, planifikatutako komunikazio-trukeetan eta/edo proiektuetan, zenbait bitartekoren bidez, atzerriko hizkuntzako ikasleekin.

EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura arloaren bidez, ikasleei beharrezko tresna eta baliabide soziolinguistikoak eman nahi zaizkie, Lehen Hezkuntzako etapa amaitzean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak eraginkortasunez eta gaitasunez erabil ditzaten. Arlo hau osatzen duten bi hizkuntzen egoera sozial eta linguistiko desberdina dela eta, beharrezkoa da, batetik, bi hizkuntzen arteko ikuspegi integratua eta errespetuzkoa sustatzea, eta, bestetik, euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzen jarraitzea etapa honetako ikasleen testuinguru eta egoera guztietan. Gainera, euskara euskal kulturaren ezaugarri nagusia izanik, ezin da ez garatu ez ikasi dagokion kultura-testuinguruaz kanpo, kulturek gizarte-loturak ezartzeko gaitasuna baitute, eta kulturen adierazpideak komunitateen kohesioa errazten duten ezaugarriak baitira.

Etapako gainerako arloetan bezalaxe, curriculum honen giltzarria kompetentzia espezifikoak dira, hau da, ikasleek zer egitea nahi dugun, nola egitea nahi dugun eta zertarako egitea nahi dugun zehazten duten kompetentziak. Kompetentzia espezifiko horiek zuzenean lotzen dira irteera-profilean finkatutako deskriptore operatiboekin. Azken batean, arloko irakaskuntzen azken xedea jasotzen dute, ikaskuntzen mobilizaziogisa ulertuta beti. Arlo hau antolatzen da euskaraz eta gaztelaniaz hitz egitearekin, entzutearekin, irakurtzearekin eta idaztearekin lotzen diren estrategien inguruan. Xedea da ikasleei tresna egokiak ematea XXI. mendeko gizartearen erronkei erantzun ahal izateko; izatez, gizarteak pertsona kultuak, kritikoak eta ondo informatuak eskatzen ditu; desberdintasunak errespetatzen dituztenak; beren kabuz ikasteko, informatzeko, kolaboratzeko eta taldean aritzeko gaitasuna dutenak; sortzaileak eta ekintzaileak; eta garapen jasangarriarekin, giza eskubideen defentsarekin eta bizikidetzaren berdinezale, inklusibo, baketsu eta demokratikoarekin konprometituta daudenak. Hartara, arloek laguntzen dute Lehen Hezkuntzaren amaieran ikasleekizan behar duten irteera-profilean jasotako funtsezko kompetentzia guztiak garatzen.

Arlo honek etapako gainerako arloei egiten dien ekarpena eta ematen dien laguntza funtsezkoa eta ezinbestekoa da, komunikazio-izaera eta izaera instrumentala baitu. Hizkuntzen ikaskuntzaren xedea da etapa bakoitzeko berezko komunikazio-egoerei egokitzen zaizkien askotariko testuak modu koherentean,

kohesionatuan eta egokian sortzeko eta ulertzeko gaitasuna garatzea. Hortaz, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretatik, nahitaezkoa izango da gainerako ezagutza-arloekin lotzea, ikasleak arlo bakoitzeko diskurtso-generoez jabetu daitezen.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura arloetako lehen kompetentzia espezifikoa ingurunekeo hizkuntza- eta dialekto-dibertsitatea aitortzera bideratzen da. Euskal gizartea elebitasun desorekatu batetik testuinguru eleaniztun baterako bidean dago. Hori dela eta, ingurune hurbileko egoera soziolinguistikoei buruzko hausnarketa sustatu beharko da, gure komunitateko hizkuntza-dibertsitatearekiko eta -aberastasunarekiko eta, batik bat, euskararen normalizazio-prozesuarekiko jarrera positiboak gara daitezen. Bide horretatik landu beharko da komunitate elebidun eta integratzaile bateko kide izatearensentimendua, eta bide horretatik eraiki beharko da norberaren irudi kolektiboak, betiere dibertsitatea preziatzeko jarrerak bultzatzea, hizkuntza-aurreiritziei eta -estereotipoei aurre egin dakien eta hizkuntzen —zeinu-hizkuntzak barne— arteko gogoetari ekin dakion.

Etaparen horretan kode idatzia eskuratzea eta finkatzea espero da. Horrekin bat eginik, bigarren kompetentzia multzo bat ahozko eta idatzizko produkzioarekin, ulermenarekin eta elkarrekintzarekin lotzen da; kompetentzia horiek teknologiak bideratutako komunikazio moduak barne hartzen dituzte eta eremu pertsonala, hezkuntzako eta soziala kontuan hartzen dituzte. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoak behartuta, eskolak euskarazko ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera.

Irakurtzen jakiteak sarean nabigatzen eta bilaketak egiten jakitea dakar, baita askotariko helburuetarako informazio fidagarria aukeratzen jakitea ere. Hartara, seigarren kompetentziak informazio-alfabetatzearen oinarriak finkatzen ditu. Zazpigarren eta zortzigarren kompetentziak literatura-irakurketa lagunduan oinarritzen dira —autonomoan zein ikasgelan partekatuan—, orotariko testu motak zenbait irakurketa asmokarekin irakurtzea irakats dadin —komunikazio-ikuspegiak hala aldarrikatzen dute duela hamarkada batzuetatik—. Horrela, ikuspegi bikoitza du: batetik, irakurketa-ohitura autonomoa eskuratzen hastea, eta, bestetik, literatura-testuak interpretatzeko trebetasunak garatzen hastea. Testuinguru horretan, arreta berezia jarri beharko zaio emakume idazleak ezagutzeari.

Bederatzigarren kompetentziak hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketarako lehen hurbilketa garatu nahi du, eta, azkenik, komunikazioaren etikari buruzko kompetentzia espezifikoa, hamargarren kompetentzia, kompetentzia guztiekiko zeharkakoa da. Komunikazio-jardunbide ez-diskriminatzaileetan jartzen du arreta, hitzaren bidez botere-abusuak identifikatu eta baztertu daitezen eta genero-ikuspegitik eta jokabide ez-sexistetatik berdintasuna susta dadin, bakearen kulturaren aldeko apustua barne.

Kompetentzia espezifikoetan deskribatutako jarduketei ekingo bazaie, ezinbestekoa izango da arloko oinarriko jakintzak eskuratzea eta mobilizatzea. Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaiak ezin dira, inola ere, diziplina-dukien transmisio eta harrera soiltzat hartu; aitzitik, eraikitzen ari den eta hausnarketa eta analisi lagunduan oinarritzen den prozesutzat hartu behar dira, eta prozesu horren azken helburua da modu eraginkor eta etikoan komunikatzeko gai diren pertsonak prestatzea. Arloko oinarriko jakintzak honako multzo hauetan biltzen dira: hizkuntza eta bere hiztunak; eleaniztasuna; komunikazioa (ahozko elkarrekintza, komunikazioa eta ulermena, irakurmena, idatzizko produkzioa eta informazio-alfabetatzea); literatura-hezkuntza; eta hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta. Arloko ikaskuntzetan aurrera egiteak ikasleei aukera emango die komunikazio-egoera errealei erantzuteko esparru pertsonalean, sozialean eta hezkuntzakoan. Hori dela eta, garrantzi handikoa izango da ikasgelako programazioa testuinguruan jarritako ikaskuntza-egoera adierazgarrien eta esanguratsuen inguruan egituratzea, betiere horien gradazioari eta osagarritasunari erreparatuta. Hartara, eskola-urtearen amaieran, oinarriko jakintza guztiak neurrian landuko dira, eta ezinbestekotzat jotzen direnak bermatuko dira.

Azkenik, gure hezkuntza-sisteman ikasi beharreko bi hizkuntza koofizial daude eta eskola-testuinguru gehienetan beste familia-hizkuntza batzuk dituzten ikasleak ere badaude. Hartara, eskola-testuingurutan hizkuntza-dibertsitatea egoteak eta ikasle guztientzako hezkuntza eleaniztunerako behar ukazina egoteak, behartzen gaitu gogoeta egitera eta irakaskuntza moduak doitzera, ikasleek hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuen ikaskuntzan aplikatu dezaten. Ezinbestekoa da, beraz, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatzea, bide bikaina baita hizkuntzen arteko gogoetarako eta benetako gizarte-erabileretara hurbiltzeko —gizarte-erabilera horietan, sarritan, bi hizkuntza edo gehiago aldi berean erabili behar izaten dira—.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitateak elebitasun desorekatua du abiapuntu eta hezkuntza eleaniztuneko proposamen eta testuinguru baterantz zuzentzen da. Testuinguru horren ondorioz, ingurune hurbileko —barnean dela ingurune digitala— egoera soziolinguistikoei buruzko hausnarketa sustatu beharko da gure ikasleen artean, hizkuntza-aniztasun orokorrarekiko eta, batik bat, euskararen normalizazio-prozesuarekiko jarrera positiboak gara daitezen. Hizkuntzen arteko bitartekotzak hizkuntzentramendu integratua erraztuko du.

Kontuan izan behar dugu gure ikastetxeak direla ikasle gehien euskarazko hizkuntza-ekosistema nagusia, eta, batzuetan bakarra. Hortaz, ikastetxearen denborak eta espazioak zaindu behar ditugu, eta euskarak izan behar du hezkuntza-jarduera formalaren nahiz informalaren ardatz egituratzailea; horrez gain, eskola-komunitate osoan euskararen erabilera eta garapena sustatzeko estrategiak bultzatu behar ditugu, eta hizkuntzak kultura-ondare gisa baloratu beharko ditugu, euskararen ohiko erabileraren aldeko jarrera proaktiboa har dadin, baita ingurune digitalean ere.

Gure ikasgeletako askotan komunikazio-hizkuntzaz bestelako hizkuntzak edo dialektoak erabiltzen dira. Hizkuntza-dibertsitate horretan oinarrituta hurbildu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko eta mundu osoko errealitate eleaniztunaren ezagutzara. Lehenik eta behin, baliagarria izango da ikasleek eleaniztasunaren ondoriozko kultura-aberastasuna baloratzeko eta hizkuntza-aurreiritziak hautemateko eta saihesteko; bigarrenik, lagungarria izango da hizkuntzen funtzionamenduz jabetzeko, behaketatik eta hizkuntzen arteko konparaziotik abiatuta, barnean dela zeinu-hizkuntzak ezagutzeko lehen hurbilketa.

Gaztelania eta euskara dialekto dibertsitate handiko hizkuntzak dira, eta barietate geografiko bakoitzak arau kultua du. Ezin da, beraz, batzuk besteak baino «zuzenagoak» direnik esan. Beste edozein hizkuntzatan gertatzen den bezalaxe, bi hizkuntzek gizarte-aldaketen arabera bilakaera dute. Ikasgela, beraz, bitarteko paregabea da euskarak eta gaztelaniak munduan duten ikuspegi globalera hurbiltzeko, betiere kontuan izanik azken helburua dela hizkuntza-eskubide indibidualekin eta kolektiboekin sensibilizatuta, informatuta eta konprometituta dagoen munduko herritartasuna sustatzea, kulturartekotasunaren eta giza eskubideekiko errespetuaren esparruan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.

2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarritzko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-premiei erantzuteko.

Komunikazio-prozesuan jokoan jartzen dira, igorlearen eta hartzailearen artean partekatutako ezagutzaz gain, testuaren esanahitik haratago joan eta haren zentzua interpretatzea ahalbidetzen duten testuinguruko eta kontestuko beste elementu batzuk ere bai. Eskolak ikasleentzat esanguratsuak diren zenbait esparru eta erregistrotako diskurtso-praktikak txerta ditzake eta txertatu behar ditu, eta praktika horiek garrantzi ekosozialeko eta euskal kultura-ondareko gaiak jorratu beharko dituzte. Konpetentzia espezifikoa honek estrategia egokiak ikasten laguntzen du, gizabanakoak —komunikatzen diren eta ongi informatuta dauden eta gaitasun kritikoa duten gizabanako gisa— modu eraginkor eta etikoan molda daitezen informazio alboratuen eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileen aurrean, baita eremu digitaletan ere.

Bi hizkuntza koofizialetako (euskara eta gaztelania) ahozko mezuak ulertu eta interpretatuko badira, berriazko trebetasunak eskuratu beharko dira: etaparen hasieran trebetasun oinarritzkoenetatik hasi, eta azken zikloaren amaieran ikasleei hedabideetatik eta eskola-testuingurutik datozen informazioak

(bereziki, espazioaren, denboraren eta sekuentzia logikoaren arlokoak) lortzeko, hautatzeko, baloratzeko eta erlazionatzeko aukera ematen dieten trebetasunetaraino, baita modu aktiboan entzuteko, banaka eta/edo taldean inferentziak eta dedukzioak egiteko, informazioa eta iritziak bereizteko eta elementu sinple inplizitu batzuk interpretatzen hasteko, hala nola ironia edo zentzu bikoitza. Gizartearen esparruan, kontuan hartu behar dira ikus-entzunezko eta multimediako alfabetatze espezifikoak eskatzen duten askotariko testu multimodalak, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egin dakien, baita ingurunedigitaletan ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.

3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza eraikitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.

Ikasleen komunikazio-konpetentzia garatze aldera, ezinbestekoa izango da ahozko erabilerei arreta jartzea, adierazteko eta ikasteko bide gisa eta norberaren jokabidea kontrolatzeko bide gisa. Horretarako, testuinguru dibertsifikatu eta adierazgarriak eskaini behar dira, esparru publikokoak zein esparru pertsonalekoak eta pribatukoak, eta ikasleek testuinguru horietan hitza hartu eta berdinekin elkarriketapedagogiko orientatuetan hitz egin ahal izango dute. Horrela, ahozko erabilera formalei edo informalei, bat-batekoei edo planifikatuei buruzko hausnarketa sustatuko da.

Kontuan hartuta euskara dela komunikazio-hizkuntza —eta, aldi berean, Lehen Hezkuntzako ikasle askoren familiaz kanpoko hizkuntza—, hizkuntza horretan bultzatu behar da ahozko komunikazioa, euskararen gizarte-erabilera erraz dadin eta normalizazio-prozesua askotariko testuinguruetan bultzatu dadin.

Ahozko elkarrekintzak eskatzen du: hizkuntza inklusiboa erabiltzeko estrategiak eskuratzea; hitza hartu eta uztea; entzute aktiboko jarrerak zabaltzea; arintasunez, argitasunez, ebakera zuzenez eta tonu eta erregistro egokiez adieraztea; eta kortesiazko eta elkarriketa kooperatiboko estrategiak erabiltzen hastea.

Ahozko produkzio formalak oinarrizko plangintza-estragiei ekitera bultzatzen du, eta estrategia horiek etaparen barruan lagunduta bereganatuko dira. Zenbait komunikazio-egoeratarako eta esparrutarako egokitutako ereduak ere eman behar dira, eta eredu horiek ahozko testua antolatzeko jarraibideak eta hitzik gabeko portaera eta erregistroa (keinuak, mugimenduak, begirada, gorpuztasuna, eta abar) egokitzeko jarraibideak eskainiko dituzte. Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodalerako formatu berriak ekartzen dituztela, baita ikasleen ahozko produkzioen erregistroa ere, testuinguru errealean heda daitezkeen eta ondoren aztertutako berriak daitezkeen.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.

4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da mota guztietako testuetan irakurle gaituak, autonomoak eta, edukiari eta hizkuntzaren erabilerari dagokionez, kritikoak prestatzeko oinarriak finkatzea. Irakurle horiek gai izango dira testuen kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzeko, eta beren bizitzako arlo guztietan sor daitezkeen irakurketa-helburuei erantzuteko. Ezin dugu ahaztu XXI. mendeko erronkei erantzuteko beharrezkoa den alfabetatzeak nahitaez barne hartu behar duela hipertestuak irakurtzen ikastea.

Irakurmen-konpetentziaren garapena lehen ziklotik hasten da, irakurketa-praktiketarako motibazioekin. Horrela hurbiltzen da, batetik, informazio garrantzitsu eta esplizitua kokatzea, ulertzea eta integratzea

helburu duten estrategietara, eta, bestetik, azaleko esanahi batzuk ezagutzea helburu duten estrategietara. Zuzeneko inferentziak egingo dira, betiere lagunduta eta alderdi formalei eta ez-hitzezkoei jarraikiz (irudiei, testuaren banaketari, eta abar). Lehen fase horretan, arreta berezia jarriko zaio irakurketa isilarenedo ozenaren bidez egiten diren gogoeten ulermenari —irudiak lagunduta—.

Bigarren zikloan, ikasleek gero eta zuzeneko inferentzia gehiago egiteko aukera emango dioten estrategiak eskuratu behar dituzte (orokortzeak, testuaren helburua), betiere lagunduta eta estereotipo sexistarik gabeko gizarte-testuen inguruko ikaskuntza-egoeren testuinguruan. Horrekin batera, hertsiki testuzkoak ez diren elementu gehiago identifikatuko dira, hala nola tipografiak edo azpimarratzeak. Etaparenamaiera aldean, eta gero eta autonomia handiagoz, ikasleak gai izango dira irakurketa-helburu desberdineko askotariko testu idatzi jarraituetan eta etenetan dagoen informazioa ulertzeko eta baloratzeko, azaleko esanahi batzuk ezagutuz, zuzeneko inferentziak eginez eta zentzu bikoitza edo ironia atzemanez.

Konpetentzia espezifiko honek garrantzi berezia du Euskara eta Literatura arloan, ikaskuntzarako komunikazio-hizkuntza bat baita eta, beraz, eragina baitu beste arloetan landuko diren gaitasun guztiak eskuratzeko garaian.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5.

5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenarako eta ediziorako oinarritzko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteke.

Testuak ikasgelako pertsonen arteko erlazioen testuinguruan landuko dira, edo informazioa antolatzeke eta partekatzeke asmoarekin. Etapa honen barruan, estrategia jakin batzuk lortzera bideratuko den prozesu lagundu batean aurrera egingo da. Estrategia horiek koherentziaz adierazteke aukera emango dute, betiere esparru zabalagoetako banako nahiz taldeko idazkien bidez, hala nola beren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruzko idazkien bidez —gizarte-hedabideak, adibidez— edo beste ikasketar- arlo batzuekin lotutako gertaerei buruzko idazkien bidez.

Informazioa eta pentsamendua antolatzeke lagungarriak diren testuak (esate baterako laburpenak eta eskema errazak) laguntzarekin sortzen ikasteak lagunduko du ikasten ikasteko konpetentzia eskuratzen. Espero da akats ortografikorik gabeko hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako arauak eta irizpideak pixkanaka automatizatzea eta horri buruzko zalantzak ebatzea. Horretarako, testu analogikoak eta digitalak hobetzeko prozesuetan hausnarketa gidatua egingo da, behar diren laguntzak erabiliz.

Formarik espontaneoetan eta sortzaileenetan ere, testu bat idazteak berekin dakar planifikatzea —eredu edo jarraibideetatik abiatuta—, berrikustea —banaka edo taldean— eta editatzea. Hori guztia ikasgelan metakognizio-prozesuen bidez landu beharko da. Edonola ere, XXI. mendean idazten jakiteak zenbait euskarritan eta formatutan idazten jakitea esanahi du. Idatziak sarean modu digitalean editatu eta zabaldu ahal izateak, beraz, testuinguru erreala eskaintzen die idatzizko komunikazio-praktikei, eta, aldi berean, hipertestualitaterako eta multimodalitaterako bidean urrats bat egingo da. Jabetza intelektualaren oinarritzko alderdiei, pribatutasunarekiko errespetuari, gezurren transmisioaren ardurari eta sarean erabilera sexistari buruzko hausnarketa egiten hasteko unea da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.

6. Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak ezagutuz, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteke, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz.

Informazioa eskuratzeko ez du berez ezagutza bermatzen, eta ezagutza ulertu behar da XXI. mendeko errorekei aurre egiteke funtsezko tresna gisa. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleak informazioa eskuratzeko, kudeatzeko, ebaluatzeke eta jakinarazteke trebetasunak eta abileziak bereganatzen hastea —ikusuntu kritiko eta pertsonala hartuz—, jabetza intelektualarekiko jarrera etiko eta arduratsua

izatea, eta bere lanaren jatorrizko iturriak ezagutzea.

Horrela, ikasleak gidatuko dituen akonpainamendu-prozesua proposatzen da, ikasleek, bakarka edo modu kooperatiboan, aurrera egin dezaten nolabaiteko autonomiaz planifikatzeko bidean eta informazioa testuinguru pertsonalean, sozialean, digitalean edo hezkuntzakoan bilatzeko garaian. Helburua da informazioa eraldatzea, modu pertsonalean eta sortzailean komunikatzea eta zenbait helbururekin erabiltzea. Ikerketa-prozesu horiekin batera, hausnarketa gidatua egin behar da, fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluadadin, egitateak eta iritziak bereiz daitezten, eta hizkuntzaren erabilera egokia edo desegokia bereiz dadin.

Eskuratutako ezagutza zenbait formatutan eta euskarritan komunikatzeko ezarritako konbentzioei buruzko eredu orientatzaileak proposatu behar dira. Konpetentzia hau proiektu globalen eta diziplinartekoen bidez eskuratuko bada, ikastetxeak ingurune digital seguruen erabilera eta askotariko espazioen erabilera sustatu beharko du, hala nola liburutegiak, informatika-gelak, ekitaldi-aretoak, korridoreak edo jolaslekuak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3.

7. Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea, irakurketa-espereintziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna plazer-iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak berarekin dakar irakurle-nortasunak eraikitzeke aurrerabide planifikatuari hasiera ematea. Horretarako, aldi-an-aldian eta etengabe banakako irakurketan aritu beharko da, eta estrategia eta aldamio egokiak erabili beharko dira irakurtzeko autonomia eta nortasuna eraikitzen hasteko, nortasun hori bizitza osoan garatzen baita. Horretarako, testu-corpus egoki eta askotarikoa eratu beharko da, euskal kultura-ondarearekin lotzen diren obra ugari izango dituen, emakume eta gizon idazleen presentzia orekatua izango duena, nesken zein mutilen interes eta beharrei erantzungo diena, eta XXI. mendeko erronka handiei buruzko gogoetarako hurbilketa erraztuko duena. Eskola-liburutegiak funtsezko elkargune bihurtu behar du eskola-elkarte osoarentzat (familien presentzia sustatuz), eta bertan partekatu, hausnartu eta adieraziko dira irakurketaren inguruko norberaren gustuak.

Komeni da, halaber, erreferente partekatuak dituzten irakurketa-komunitateak eratzea; ikasleei interesatzen zaizkien testuak aukeratzeko, haietaz jabetzen eta beren irakurketa-espereintzia pertsonala modu pertsonalean eta sortzailean partekatzen lagunduko dieten strategiak garatzea; eta, ikerketa-erronketatik abiatuta, irakurtzeko arazoak sortuko dituzten eta irakurleak testuekin lotura afektiboa izateko moduak proposatuko dituzten testuinguru digitalak ere ezartzea. Konpetentzia hau lortu ahala, pixkanaka murriztu ahal izango da irakaslearen laguntza.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

8. Ikaslearen garapenerako egokiak diren literatura-obrak edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarri eta literatura-generoa eta haren oinarriko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer- eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio-iturri gisa ezagutzen hasteko.

Literatura-heziketa literaturarako hurbilketa modura sortu da, ahozko nahiz idatzizko haren adierazpen sinpleenetatik abiatuta. Ezinbestekoa da espereintzia atseginak bultzatzea, ikasleek askotariko idazleen literatura- eta kultura-erreferentzia partekatuak ezagut ditzaten —irudikapen eta interpretazio sinbolikora hurbilduko dituztenak—, irakurzaletasuna sendotu dezaten eta gero eta irakurmen-autonomia handiagoa finkatzeko oinarriak ezar ditzaten. Gainera, literatura abiapuntu bihurtu daiteke nork bere burua eta besteak ezagutzeko eta norberaren ongizate emozionalerako, baita genero-ikuspegitik indarkeriaren prebentzioarekin edo etnien eta kulturen arteko iraunkortasunarekin lotzen diren jarrerei buruzko

hausnarketa egiteko ere. Irakurketa-komunitateetan parte hartzeak balio erantsia gehituko du.

Ikasgelan haurren interesei eta beharrei egokitutako literatura-obra edo -testuen aukeraketan oinarrituta lan egitea proposatzen da. Obra edo testu horiek zenbait euskarritan aurkeztuko dira, betiere irakurketa-ibilbideen inguruan eta zenbait irizpideren arabera antolatuta (gaiaren arabera, literatura-generoaren arabera, eta abar), ikasleek horien arteko erlazioak ezar ditzaten, eta pixkanaka beren literatura-mapa eraiki dezaten. Testuak zenbait jardueratarako abiapuntua izateaz gain (testuak entzutea; irakurketa gidatua, lagundua eta autonomia, isiltasunean edo ozenki, intonazio eta erritmo egokiekin; irakurketa dramatizatua, errezitatua, joko erretorikoak, eta abar), baliagarriak izango dira helburu ludikoa, artistikoa eta sortzailea duten testuak sortzeko eta beste adierazpen artistiko eta kulturekin elkarriketak ezartzeko.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

9. Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarritzko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.

Ikasleek hizkuntza baten erabiltzaile gisa duten ezagutza intuitiboa da hizkuntzari buruzko lehen gogoetaren abiapuntua. Gogoeta horiek beti modu adierazgarrian egin behar dira, testuak sortzeko eta ulertzeko testuinguruetan, eta inoiz ez prozesu bakartu gisa. Behar den akonpainamenduari, gero eta autonomia handiagoa lortuko da, eta hitzak, enuntziatuak edo testuak manipulatzeko erraztuko da, ikasleek ikus dezaten egindako aldaketek zer neurritan eragina duten testuan, eta zer neurritan hobetzen edo kaltetzen duten testuaren ulermena. Horrela, hitzen edo hitz multzoen arteko formaren, funtzioaren eta esanahiaren arloko erlazioak ikusiko dira, eta, hortik abiatuta, hipotesiak formulatu ahal izango dira, adibideak eta kontraadibideak bilatu ahal izango dira, kontrasteak eta konparazioak ezarri ahal izango dira, eta abar. Hartara, txikitatik formulatuko dira hizkuntzaren erabilera eta ezagutza sistematikoaren arteko zubiak ezarriko dituzten orokortzeak; lehenik, eskolako errealitatekin hurbilago dagoen hizkuntza komuna erabiliko da, eta gero, arian-arian terminologia espezifiko sartuko da.

Beste gogoeta-bide bat ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko desberdintasunak behatzen sor daiteke; horretarako, testu-tipologiak eta diskurtso-generoak alderatuko dira, edo hizkuntza arteko kontrasteak ekingo zaio. Azken batean, adin horien abstrakzio-aukera mugatuetara egokitutako eta erabilera errealei lotutako hizkuntza-gogoeta bultzatu nahi da, hizkuntzaren gaineko ezagutzak eraikitzen hasikodena, ezagutza horiek ezinbestekoak izango baitira erabilera hobea eta komunikazio eraginkorragoa lortzeko.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEAM2, KD2, KPSII5.

10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko.

Kompetentzia hau eskuratzen hasteak berarekin dakar: ikaskuntza bat abiaraztea, zeinaren emaitza pertsonak hezteko izango den —komunikatzeko orduan eraginkorrak diren pertsonak ez ezik, hitzak agindu etiko batekin bat datozen helburuen zerbitzura jartzen dituzten pertsonak ere bai—; hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak eta manipulatzailak ezabatzea; hitzaren bidezko botere-abusuak ezabatzea; eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialen bizikidetzaren demokratikoa sustatzea eta gizartean hizkuntza kaltetuenaren erabilera eta normalizazioa bultzatzea.

Komunikazio pertsonalaren esparruan, hizkuntza-heziketak lagundu behar du enpatian eta errespetuan oinarritutako pertsonen arteko harremanak indartzen, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Horretarako, tresna egokiak eskaini behar dira hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako, entzute aktiborako, komunikazio asertiborako, deliberazio arrazoiturako, erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko, taldeko lanean modu aktiboan parte hartzeko eta gatazkak elkarriketaren bidez modu analogikoan zein digitalean kudeatzeko. Eskola- eta gizarte-esparruan, hizkuntza-heziketak ikasleak gaitu behar ditu gizarte zuzenagoen, demokratikoagoen eta arduratsuen erakuntzan, batik bat herritar aktiboak eta

2023ko ekainaren 9a, ostirala

konprometituak izateko planteatu ditugun erronka handien arloan (planetaren iraunkortasuna, indarkeria amaigabeak —bereziki, genero-indarkeria— edo desberdintasunaren aurkako borroka, besteak beste).

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. konpetentzia espezifikoa		
1.1 EAEko eta inguruneko hizkuntzekiko interesa eta errespetua erakustea, dibertsitatea gizarte- eta kultura-aberastasun gisa aitortuz eta baloratuz.	1.1 Inguruneko hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) ezagutzea eta haiekiko interesa eta errespetua erakustea, hizkuntzen eta kulturen arteko oinarritzko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta alderatuz.	1.1 Hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) baloratzea eta errespetatzea, haien ingurune geografikoaren ezaugarri nagusiak identifikatuz, baita ikasleen ama-hizkuntzen eta -dialektoen ezaugarri batzuk ere.
1.2 Ohikoak eta sarriak diren hizkuntza eta kulturako aurreiritziak, diskriminazioak eta estereotipoak ezagutzea, laguntzarekin eta hurbileko testuinguruetan, betiere ingurunearen eta eguneroko eta ohiko egoeren behaketa abiapuntu izanik.	1.2 Ohiko hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta saihestea —nolabaiteko autonomiaz eta hurbileko testuinguruetan—, edonolako diskriminazioak arbuatuz eta inguruneko hizkuntza-dibertsitatea kultura-aberastasunaren iturri gisa aitortuz.	1.2 Ohiko hizkuntza-aurreiritziak, -diskriminazioak eta -estereotipoak hautematea eta arbuatzea, gero eta autonomia handiagoz eta hurbileko testuinguruetan (digitala barne), munduko hizkuntza-dibertsitatea kultura-aberastasunaren iturri gisa baloratuz.
1.3 Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, eskola-bizitzan euskararen aldeko jarrera azalduz, eta euskararen normalizazioaren aldeko jardueretan parte hartzea.	1.3 Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, eskola- eta gizarte-inguruneko eta ingurune digitaleko komunikazioetan euskara erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa azalduz.	1.3 Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera analogikoaren eta digitalaren, euskararen normalizazioaren eta euskal kulturaren transmisioaren aldeko jarrera afektiboa eta proaktiboa azalduz.
		1.4 Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea —laguntzarekin eta hizkuntzak behatzetik eta alderatzetik abiatuta—, eta hizkuntzen ikaskuntzak haien hizkuntza-gaitasunaren garapenari egiten dion ekarpena baloratzea.
2. konpetentzia espezifikoa		
2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra ulertzea, ideia nagusiak eta mezu esplizituak ezagutzuz eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarritzkoenak laguntzarekin baloratzen hasiz.	2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu impliziturik errazena ezagutzuz eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarritzkoenen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez.	2.1 Zailtasun handiagoko ahozko testuen eta testu multimodalaren zentzua ulertzea, ideia nagusiak eta mezu esplizituak eta implizituak ezagutzuz, eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementuak modu kritikoan baloratuz, baita, laguntzarekin, oinarritzko elementu formal batzuk ere.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
2.2 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.	2.2 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.	2.2 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.
3. kompetentzia espezifikoak		
3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, hitzezkoak ez diren oinarrizko balia bideak erabiliz.	3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, diskurtsoaren erregistroa komunikazio-egoerara egokituz eta hitzezkoak ez diren oinarrizko balia bideak erabiliz.	3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak autonomiaz, koherentziaz eta nolabaiteko arintasunez sortzea, testuinguru formal sinpleetan eta hitzezko eta ez-hitzezko oinarrizko balia bideak erabiliz.
3.2 Bat-bateko ahazko elkarrekintzetan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren oinarrizko arauak errespetatuz, hizkuntzaren oinarrizko erabilera inklusiboa eginez eta jarrera kooperatiboa erakutsiz.	3.2 Bat-bateko edo araututako ahazko elkarrekintzetan modu kooperatiboan eta enpatikoan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren oinarrizko arauak errespetatuz eta entzute aktiboko estrategietan hasiz.	3.2 Bat-bateko edo araututako ahazko elkarrekintzetan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren arauak errespetatuz eta entzute aktiboko, kooperazioko eta elkarrizketa-enpatiako strategiak garatuz.
4. kompetentzia espezifikoak		
4.1 Testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta ulertzeko oinarrizko strategiak laguntzarekin erabiliz.	4.1 Zenbait arlotako eta askotariko xedeetarako testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta informazio esplizitua laguntzarekin ezagutuz.	4.1 Zenbait xederi eta interes erantzuten dioten testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz, zuzeneko inferentziak laguntzarekin eginez eta hitzez hitzeko interpretazioa gaintuz.
4.2 Testu idatzi eta multimodal errazen edukia eta oinarrizko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz.	4.2 Testu idatzi eta multimodalaren edukia eta oinarrizko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz eta testu horien fidagarritasunaren ebaluazioan hasiz.	4.2 Testu idatzi eta multimodalaren edukia eta oinarrizko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz eta testu horien kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-xedearen arabera.
5. kompetentzia espezifikoak		
5.1 Testu idatzi eta multimodal errazak eta koherenteak zenbait euskarritan sortzea, laguntzarekin eta emandako ereduarekin bat etorri eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak kontuan hartuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).	5.1 Edukien sekuentzian nolabaiteko koherentzia izango duten testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan eta zuzentasun gramatikal eta ortografikoz sortzea, komunikazio-egoera bakoitzari hobe erantzungo dion diskurtso-eredua aukeratuz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak errespetatuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).	5.1 Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzi eta multimodalak zenbait euskarritan sortzea, komunikazio-eskarietarako diskurtso-eredurik egokiena aukeratuz, edukiaren koherentziari eutsiz eta landutako zuzentasun gramatikal eta ortografikoko irizpideak errespetatuz, baita testu idatzi bat sortzeko faseak ere.
5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzen eta multimodalaren autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak eta oinarrizko irizpideak laguntzarekin erabiltzea, sortutako zailtasunak identifikatuz.	5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzen eta multimodalaren autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak eta irizpideak laguntzarekin erabiltzea, prozesu horretan modu aktiboan parte hartuz, sortutako zailtasunak identifikatuz eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa onartuz.	5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzen eta multimodalaren autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan modu aktiboan parte hartzea, zailtasunak eta norberaren mugak identifikatuz, horiek gaintzeko laguntza bilatuz, eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa baloratuz.
6. kompetentzia espezifikoak		

2023ko ekainaren 9a, ostirala

<p>6.1 Bi iturritako, gutxienez, informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak erabiltzea, eredu jakin baten arabera eta teknologia digitalen erabilera segururako ohiturak hartuz.</p>	<p>6.1 Bi iturritako edo gehiagoko informazioa bilatzeko, hautatzeko, egiaztatzeo eta antolatzeo oinarrizko estrategiak planifikatuta eta lagunduta erabiltzea, fidagarritasuna eta manipulatzeko arriskuak ebaluatuz.</p>	<p>6.1 Bi iturritako edo gehiagoko informazioa bilatzeko, hautatzeko, egiaztatzeo eta antolatzeo oinarrizko estrategiak modu planifikatuan eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak ezagutuz.</p>
--	--	--

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
6.2 Interes pertsonal edo akademikoko gairen bati buruzko informazioa, banaka nahiz taldean, bilatzeko, hautatzeko eta egiaztatze laguntzarekin egindako prozesuaren emaitzak jakinaraztea, tresna analogikoak eta digitalak erabiliz.	6.2 Interes pertsonal, akademiko edo ekosozialeko gairen bati buruz banaka edo taldean egindako ikerketa-prozesu erraz baten emaitzak partekatzea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz, erabilitako iturriak aipatuz eta jabetza intelektuala errespetatuz.	6.2 Lortutako informazioa norberaren eskemetan sormenez irudikatzea, iturriak aipatuz, baita ingurune digitaletatik datorrena ere.
	6.3 Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak laguntzarekin hartzea, informazioaren bilaketari eta komunikazioari dagokienez.	6.3 Interes pertsonal, akademiko edo ekosozialeko gairen bati buruz banaka edo taldean eta gero eta autonomia handiagoz egindako ikerketa-prozesu erraz baten emaitzak jakinaraztea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz, erabilitako iturriak aipatuz eta jabetza intelektuala errespetatuz.
		6.4 Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz hartzea, informazioaren bilaketari eta komunikazioari dagokienez.
7. kompetentzia espezifiko		
7.1 Beren gustuekin eta interesekin bat datozen zenbait autoreren testuak irakurtzea —irakurketaren prozesu ebolutiboko zenbait etapatatik laguntzarekin hautatutako testuak—, irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratuz.	7.1 Beren gustuei eta interesei egokitutako eta gero eta autonomia handiagoz hautatutako zenbait autoreren testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzea, irakurle-nortasuna eraikitze bidean aurrera eginez.	7.1 Beren gustuei eta interesei egokitutako eta beren irizpidearen arabera hautatutako zenbait autoreren testuak modu autonomoan irakurtzea, irakurle-nortasuna eraikitze bidean aurreraeginez.
	7.2 Askotariko euskarritako (digitala barne) irakurketaren esperientzia partekatzea, eskola-esparruko irakurketa-komunitateetan parte hartuz eta irakurketanorberaren ezagutza- eta garapen-iturrigisa baloratuz.	7.2 Askotariko euskarritako eta ingurune digitaletako irakurketaren esperientzia partekatzea, eskola- edo gizarte-esparruko irakurketa-komunitateetan parte hartuz.
		7.3 Irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratzea, irakurritakoa inguruko errealitatearekin —eremu publiko/soziala zein eremu pertsonala— gero eta autonomia handiagoz erlazionatuz.
8. kompetentzia espezifiko		
8.1 Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko ahozko eta idatzizko askotariko autoreren testuak entzutea eta irakurtzea, haien artean eta norberaren sentimenduekin eta bestelako adierazpen artistikoekin edo kulturekinoinarrizko erlazioak ezarri, betiere lagunduta.	8.1 Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreren orotariko testuak entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz eta interpretatuz, betiere lagunduta.	8.1 Beren adinerako egokiak diren literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreren testuak gero eta autonomia handiagoz entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz, baloratuz eta interpretatuz.
8.2 Idazketaren prozesu ebolutiboaren etapetara egokituko diren testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea, eredu jakin batzuetara egokituz, zenbait euskarritan sortuz eta beste arte-hizkuntzabatuzekin osatuz.	8.2 Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea, eredu jakin batzuk modu pertsonalean eta zenbait euskarritan birsortuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.	8.2 Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, gero eta autonomia handiagoz eta literatura-asmoz sortzea, eredujakin batzuk sormenez eta zenbait euskarritan birlاندuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
		8.3 Literatura asmoko testuen irakurketak eta produkzioak ongizate emozionalari egiten dion ekarpena baloratzea, irakurritakoa eta idatzitakoa norberaren eta besteen sentimenduen adierazpenarekin eta kudeaketarekin erlazionatuz.
9. kompetentzia espezifikoa		
9.1 Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko oinarriko ondorioak formulatzea, hitzen arteko komunztadurari eta esanahi-erlazioei arreta berezia eskainiz, betiere hitzak eta esakuneak behatu, alderatu eta manipulatzetik abiatuta.	9.1 Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko oinarriko ondorioak formulatzea, subjektuaren eta aditzaren artekoerlazioari arreta berezia eskainiz, betiere hitzak, esakuneak eta testuak behatu, alderatu eta manipulatzetik abiatuta.	9.1 Hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarriko alderdiei buruzko orokortasunak laguntzarekin formulatzea, hipotesiak eginez eta kontraadibideak bilatuz, betiere hitzak, esakuneak eta testuak behatu, konparatu eta manipulatzetik abiatuta.
9.2 Norberaren testuak berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko arazo batzuk laguntzarekin konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarriko hizkuntza-terminologia egokia erabiliz.	9.2 Norberaren eta besteen testuak laguntzarekin berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarriko terminologia egokia erabiliz.	9.2 Norberaren eta besteen testuak gero eta autonomia handiagoz berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarriko terminologia egokia erabiliz.
9.3 Transferentzia errazak laguntzarekin egitea, hizkuntza koofizialeatik eta ikasleen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta.	9.3 Transferentzia eta hizkuntza-bihurketa errazak laguntzarekin egitea, hizkuntzen arteko konparazioetan hasiz, hizkuntza koofizialeatik eta ikasleen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta.	9.3 Hizkuntza-bihurketa errazak laguntzarekin egitea, hizkuntzen arteko konparazioetan hasiz, hizkuntza koofizialeatik eta ikasleen beste hizkuntzabatzuetatik abiatuta.
10. kompetentzia espezifikoa		
10.1 Komunikazioaren hitzezko eta ez-hitzeko oinarriko alderdiei buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta, identifikatutako hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak baztertzea.	10.1 Hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak baztertzea eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak identifikatzea, komunikazioa zuzentzen duten hitzezko eta ez-hitzeko oinarriko alderdiei buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.	10.1 Hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak baztertzea, komunikazioa zuzentzen duten hitzezko eta ez-hitzeko zenbait alderdiri buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
10.2 Entzute aktiborako eta adostasunerako oinarriko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarriketa bidezko kudeaketan hasiz.	10.2 Komunikazio asertiborako eta adostasunerako oinarriko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarriketa bidezko kudeaketan aurrera eginez.	10.2 Talde-lanean modu aktiboan parte hartzeko oinarriko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin eta esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz, eta gatazkek elkarriketa bidez kudeatzea, argudiatuz eta sormenezko irtenbideak proposatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa
A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna
Norberaren hizkuntza-biografia eta ikasgelako hizkuntza-dibertsitatearena.
*Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.
*Hizkuntza-aurreiritziak eta –estereotipoak laguntzarekin identifikatzeko estrategiak.
*Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa.

Lehen zikloa	
*Eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.	
*Osagaiek (egoera, parte-hartzaileak edo asmoa) komunikazio-egintzan duten eragina.	
*Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziazko abestiak (sehaska-abestiak, hitz-parrastak...).	
*Ahozkoasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...).	
B. Komunikazioa	
1. Hizkuntzaren erabilera	<p>*Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.</p> <p>*Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa) eta formako (egitura, formatua, irudiak) oinarrizko elementuak.</p> <p>*Komunikazio-asmoa eta oinarrizko testu tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa.</p> <p>*Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.</p> <p>Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.</p> <p>*Hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren erabilera nabarmen diskriminatzaileak hautemateko paetak.</p>
2. Ahozko ulermena, komunikazioa eta elkarrekintza	<p>Ahoskera eta intonazio egokiaz adierazteko interesa.</p> <p>*Ikasgelako egoeretan ahozko-elkarrekintza egokia. Hizkuntza-kortesia-oinarrizko estrategiak eta norberaren hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioko estrategiak.</p> <p>*Entzute aktiboko estrategiak, gatazkak elkarrizketa bidez ebazteko prozesuan.</p> <p>*Ezagutzaren eraikuntza eta komunikazioa, ahozko testu eta testu multimodal errazak laguntzarekin planifikatzearen eta produzitzearen bidez.</p> <p>*Testuaren informazio orokorra eta zentzu globala ezagutzeko, hautatzeko eta interpretatzeko estrategiak.</p> <p>*Hitzezkoa ez den komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzeko estrategiak.</p>
3. Irakurmena	<p>*Idatzizko kodearen konbentzioak, gizarte-erabilerako testuak ulertzeko proposamenen esparruan.</p> <p>*Banakako irakurketa eta irakurketa partekatua eta adierazkorra, maila kognitiborako egokiak diren intonazioarekin eta erritmoarekin.</p> <p>*Oinarrizko elementu grafiko eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.</p> <p>*Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuak irakurtzeko oinarrizko estrategiak.</p> <p>*Oinarrizko testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, ordutegiak...).</p>
4. Idatzizko produkzioa	<p>*Idatziz argi eta egoki adierazteko interesa.</p> <p>*Idatzizko kodearen konbentzioak, gizarte-erabilerako testuak produzitzeko proposamenen esparruan.</p> <p>*Idatzizko produkzioen aurkezpen zaindua.</p> <p>*Testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak, banakakoak nahiz taldekakoak, norberaren esperientziatik hurbil eta zenbait helbururekin.</p> <p>*Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.</p> <p>*Testuaren koherentziarako oinarrizko estrategiak.</p> <p>*Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko tresnak, zenbait euskarritan (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).</p>

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	
5. Informazio-alfabetatzea	*Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazio errazaren bilaketa gidaturako oinarrizko estrategiak.
	Hiztegien erabilera gidatua.
	*Zenbait iturritako informazioa alderatzeko oinarrizko estrategiak.
	Informazioa berriro lantzeko eta komunikatzeko eredu esplizituak.
	*Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.

C. Literatura-hezkuntza

*Literatura-elkarrizketen bidez, obrak laguntzarekin eta partekatuta interpretatzeko estrategiak.

*Literatura-obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, pertsonaiak, trama, agertokia) eta literatura-generoak osatzen dituzten funtsezko elementuak, obraren zentzuaren eraikuntza lagunduan.

*Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.

Testuen eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko erlazioa.

*Irakurle-nortasuna eraikitzen hasi. Gustuak eta interesak adierazteko estrategiak.

Gelako edo ikastetxeko liburutegia literatura-jardura partekatuetarako espazio gisa erabiltzeko jarraibideak. Irakurketa-komunitateak.

D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan

*Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko funtsezko desberdintasunak.

*Hizkuntza-sistemari buruzko funtsezko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.

*Oinarrizko puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeke mekanismo diren heinean.

*Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Hitz batzuen eta beste batzuen arteko esanahi-erlazioei buruzko gogoeta, testuinguruaren barruan.

Hitzen arteko forma eta esanahiko erlazioen identifikazioa.

*Perpau modalitateen komunikazio-asmoa ezagutzeko oinarrizko estrategiak eta teknikak.

*Testu-kohesio oinarrizko mekanismoak, arreta berezia eskainiz denbora- eta azalpen-lokailuei.

Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, nor bere testuak berrikusi eta hobetzeko estrategiak.

Bigarren zikloa

A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna

Hizkuntza-biografia eta ikasgelako hizkuntza-dibertsitatea.

*Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.

Hizkuntza dibertsitatea eta dibertsitate etnokulturala, hizkuntza arteko gogoetarako tresna eta aberastasun gisa.

*Elebiduna eta eleaniztuna izatearen aberastasun pertsonalaren balorazioa.

*Hizkuntza-aurreiritzien eta -estereotipoen identifikatzeko estrategiak.

*Hizkuntza ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa erabiltzeko estrategiak.

*Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.

*Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziatzko abestiak (aho-korapiloak, abesti tradizionalak...).

*Ahozkotasanarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...).

B. Komunikazioa

1. Hizkuntzaren erabilerak

*Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.

Osagaiek (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa edo bidea) komunikazio-egintzan duten eragina.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Bigarren zikloa	
	<p>*Edukiko (gaiak, formula finakoak, lexikoa) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak.</p> <p>*Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.</p> <p>*Autoebaluzio eta koebaluzio oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluzio-xedeak...).</p> <p>*Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.</p>
2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza	<p>*Ahoskera eta intonazio egokiak.</p> <p>*Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta oinarritzko testuinguru formaletan—, hizkuntza-kortesiako oinarritzko estrategiak eta norberaren hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioaren autoerregulazio oinarritzko estrategiak mobilizatuz.</p> <p>Gatazkak elkarriketa bidez ebazteko prozesuan, entzute aktiboko eta asertibotasuneko estrategiak.</p> <p>*Hitzeko eta ez-hitzeko hizkuntzaren balizko erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.</p> <p>*Ezagutzaren eraikuntza, balorazioa eta komunikazioa, betiere ahozko testu eta testu multimodal errazak laguntzarekin planifikatzearen eta produzitzearen bidez.</p> <p>*Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, eta gizarte-testu errazen, ahozkoen eta multimodalen, oinarritzko informazio esplizitua eta implizitua integratzeko estrategiak.</p> <p>Hitzeko ez den komunikazioaren oinarritzko elementuak interpretatzeko estrategiak.</p>
3. Irakurmena	<p>*Banako irakurketa, garapen kognitiboaren egokiak diren intonazioarekin eta eritmoarekin.</p> <p>*Testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, denbora-lerroak, infografiak, ordutegiak...).</p> <p>*Komunikazio-asmoa eta oinarritzko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarriketa.</p> <p>*Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.</p> <p>Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuen zentzu orokorra ulertzeko eta informazio esplizitua laguntzarekin integratzeko oinarritzko estrategiak.</p> <p>*Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarritzko estrategiak, testuen ulermena hobetze aldera.</p> <p>Hitzeko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.</p>
4. Idatziko produkzioa	<p>*Aurkezpen zaindua eta oinarritzko ortografia-arauen aplikazioa.</p> <p>*Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.</p> <p>*Testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarritzko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak, zenbait komunikazio-helbururekin.</p> <p>*Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarritzko estrategiak, idatziko adierazpena hobetze aldera.</p> <p>Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.</p>
5. Informazio-alfabetatzea	<p>*Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazioaren bilaketa gidaturako oinarritzko estrategiak, fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta. Egitateak eta iritziak.</p> <p>Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko paetak.</p> <p>*Informazioa alderatzeko eta antolatzeko estrategiak eta teknikak.</p> <p>Informazioa berriro lantzeko eredu esplizituak.</p>

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Bigarren zikloa	
	Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz.
	*Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.
	*Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz.
C. Literatura-hezkuntza	
*Literatura-obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza) eta literatura-generoak osatzen dituzten funtsezko elementuak, obraren zentzuaren eraikuntzan.	
Literatura-elkarrizketen bidez obrak interpretatzeko estrategiak, lagunduta eta partekatuta.	
*Adierazpen-baliabideak eta testuaren harreran duten eragina.	
*Testuen eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko erlazioa.	
*Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.	
*Irakurle-nortasunaren eraikuntza. Gustuen eta interesen adierazpena. Obren balorazio argudiatutako hastapenak.	
Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.	
D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan	
*Hizkuntzara hurbildu, zenbait maila dituen sistema gisa: soinuak eta letrak, hitzak, perpausak eta testuak. Oinarrizko komunikazio-unitateak behatu eta alderatu.	
Hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.	
*Puntuazio-zeinuak idatzizko testua antolatzeko eta komunikazio-asmoa adierazteko mekanismo gisa.	
Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Arlo lexiko edo semantiko bereko hitzen arteko antzekotasunak eta forma- eta esanahi-desberdintasunak.	
*Hitzen arteko erlazio formalak, semantikoak eta sintaktikoak identifikatu.	
Komunikazio-asmoarekin lotutako perpaus modalitateak.	
*Oinarrizko koherentzia-eta kohesio-mekanismoak, arreta berezia jarriz errepikapenei eta sinonimoei, eta perpausen eta paragrafoen ordenari.	
*Kohesio-mekanismoak, arreta berezia eskainiz testu-lokailu esplikati boei eta ordezkapen pronominalari, barne-erreferentziako oinarrizko mekanismo gramatikal gisa.	
*Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, norberaren eta besteen testuak berrikusteko eta hobetzeko tresnak.	
Zenbait euskarritako hiztegien erabilera gidaturako oinarrizko estrategiak.	
*Sexismoaren analisia hizkuntzan eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak.	

Hirugarren zikloa	
A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna	
*Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.	
*Euskara batua. Ingurune euskalkiak.	
*Gaztelania eta hizkuntza-aldaerak.	
*Hizkuntza-dibertsitatea eta -transferigarritasuna, ikasteko eta norbera aberasteko tresna gisa.	
*Elebiduna eta eleaniztasuna izatearen aberastasun pertsonala baloratzeko estrategiak.	
*Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziak abestiak (bertsoak, abesti tradizionalak...).	
*Ahozko kotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...).	
*Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko estrategiak.	
*Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea eta desberdineko errespetuzkoa, baita ingurune digitaletan ere.	

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Hirugarren zikloa	
*Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.	
*Hizkuntza batean eskuratutako hizkuntza-ezagutzak transferitzeko estrategia errazak, beste hizkuntza batean ahozko eta idatzizko komunikazioa hobetze aldera.	
*Euskararen normalizazioaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak (Korrika, EIMA...).	
B. Komunikazioa	
1. Hizkuntzaren erabilerak	*Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.
	*Komunikazio-egintzako osagaien arteko elkarrekintzak (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa, kanala, erregistroa).
	*Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa, informazio-inferentziak) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak.
	*Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.
	*Autoebaluzioeko eta koebaluzioeko oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluzio-xedeak...).
	*Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.
2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza	*Komunikazio-egintzaren araberako ahoskera eta intonazio egokiak.
	*Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta araututako testuinguru formaletan—, hizkuntza kortesiari eta hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioari buruzko arauak errespetatuz eta genero-ikuspegia kontuan hartuz.
	*Gatazkak elkarriketa bidez kudeatzeko prozesuan, entzute aktiboko estrategiak, asertibitatea eta sormenezko irtenbide-proposamena.
	*Zentzu orokorra, informazio garrantzitsua, informazio esplizituaren integrazioa eta inferentziak identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, ahozko testu eta testu multimodal sozialen hitzez hitzeko esanahia gainditu dadin.
	Ezagutzaren eraikuntza, eta komunikazio eta balorazio kritikoa, betiere ahozko testuak eta testu multimodalak modu nolabait autonomoan planifikatzearen eta produzitzearen bidez.
	*Hitzezkoa ez den komunikazioaren oinarritzko elementuak interpretatzeko eta erabiltzeko estrategiak.
	Bertsolaritza, genero-analisia haren bilakaeran, eta euskal gizartean duen presentzia.
3. Irakurmena	*Banako eta partekatutako irakurketa espresiboa, intonazio eta erritmo arinarekin.
	*Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.
	*Komunikazio-asmoa eta oinarritzko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarriketa, azalpena eta argudioak.
	*Testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, denbora-lerroak, infografiak, ordutegiak...).
	*Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta baloratzeko estrategiak, informazio esplizitua integratzeko estrategiak eta inferentziak egiteko estrategiak, betiere testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuen barruan askotariko dokumentu-iturrietan dauden testuen hitzez hitzeko esanahia gainditzeko.
	Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko hizkuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko estrategiak, testuak hobeto ulertzeko.
	*Hitzezko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.
4. Idatzizko produkzioa	*Aurkezpen zaindua. Aurrerapena ortografia-arauen aplikazioan.
	*Idatzizko hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.
	*Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatziak eta multimodalak planifikatzeko, idatzeko, berrikusteko eta editatzeko oinarritzko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak eta zenbait komunikazio-helbururekin.

Hirugarren zikloa	
	<p>Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko estrategiak, idatzizko adierazpena hobetze aldera.</p> <p>*Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.</p> <p>*Testu tipologiaren eta diskurtso-generoaren eredia komunikazio-asmoaren arabera hautatzeko jarraibideak.</p> <p>Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko jarraibideak.</p>
5. Informazio-alfabetatzea	<p>*Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan informazioa bilatzeko estrategiak, betiere fidagarritasun- eta bidezketasun-irizpideak kontuan hartuta.</p> <p>*Egitateak eta iritzia. Informazio-manipulazioa hautemateko estrategiak.</p> <p>*Informazioa alderatzeko, sailkatzeko eta baloratzeko estrategiak.</p> <p>*Ezagutzen sintesia egin eta berriro lantzeko estrategiak, ereduaren laguntzarekin.</p> <p>Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz.</p> <p>Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.</p> <p>Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz.</p>
C. Literatura-hezkuntza	
	*Literatura-obra osatzen duten elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza), obraren zentzua gero eta autonomia handiagoz eraikitzean.
	*Literatura-generoaren oinarriko elementuen eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlazioa.
	*Literatura-testuak gero eta autonomia handiagoz interpretatzeko oinarriko teknikak.
	*Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.
	*Literatura-testuak modu librean eta emandako ereduetatik abiatuta sortzeko jarraibideak, genero-ikuspegia kontuan izanik.
	Irakurle-nortasunaren eraikuntzan aurrerapausoak. Gustuak eta interesak adierazteko eta obren funtsezko balorazio kritikoa egiteko estrategiak.
	Literaturaren eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko loturak.
	Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.
D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan	
	Hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.
	Azentuazioari buruzko orokortzeak behatu eta formulatzeko estrategiak.
	*Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Hitzak sortzeko oinarriko mekanismo lexikoak.
	*Hizkuntza batean eskuratutako ezagutza metalinguistikoen transferentziak, gainerakoetan hizkuntza-gogoeta bultzatzeko.
	Komunikazio-asmoarekin lotutako perpaus modalitateak.
	*Funtsezko koherentzia- eta kohesio-mekanismoak, arreta berezia jarriz ordezkapen pronominali —barne-erreferentziako mekanismo gramatikal gisa— eta aditz-denboren bidez ezarritako denbora-korrelazioari.
	*Zenbait euskarritako hiztegiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko funtsezko estrategiak.
	*Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, norberaren eta besteen testuak berrikusi eta hobetzeko estrategiak.
	Komunikazio eraginkorrean hizkuntza erabiltzeko arauak baloratzeko estrategiak.

MATEMATIKA

Matematikak ezinbesteko zeregina betetzen du gure gizartean, pertsona guztiek partekatzen duten hizkuntza baita eta edozein giza jardueratan baitago. Oinarrizkoa da ikasleek etorkizunean aurre egin beharko dieten gizarte- eta ingurumen-erronkak kontuan hartuta, eta funtsezko jakintza instrumentala da Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen garapenaren esparruan. Testuinguru horretan, Lehen Hezkuntzako matematika-arloko curriculum-proposamenak gutxienezko irakaskuntzak ezartzen ditu, zeinen helburua baita, alde batetik, ikasle guztien potentzialtasunak ikuspegi inklusibotik ahalik eta gehien garatzea; eta, bestetik, alfabetatze matematikoa bera erdiestea; hau da, problema-egoerak ebazteko behar diren matematikako trebetasunak, tresnak eta ezagutzak eskuratzea. Matematikaren ulermen horrek iritzi oinarrituak ematen eta erabakiak hartzen lagunduko die ikasleei. Trebetasun horiek ezinbestekoak izango dira XXI. mendeko desafioei aurre egiteko, gure ikasleak herritar konprometituek eta gogotatsuak izango badira.

Matematika-arloaren curriculum-diseinua etapako helburu orokorrak lortzera bideratzen da. Eginkizun horretan, arreta berezia emango zaio ikasleek Lehen Hezkuntzako etapa amaitzean lortu behar duten irteera-profilean kontzeptualizatutako funtsezko kompetentziak garatzeari eta eskuratzeari. Kompetentzia horien deskriptoreak izan dira arloaren kompetentzia espezifikoak definitzeko erreferentzia-esparrua.

Matematika ezagutza-arlo gehienei lotzen zaie: natura-zientziei, ingeniartzari, teknologiari, gizarte-zientziei eta arte arteari edo musikari ere. Era berean, balio propioa du, ideien eta jarduteko moduen multzoa osatzen baitu, errealitateari buruzko informazio berria ezagutu, egituratu, aztertu eta lortzeko eta hasiera batean esplizituak ez ziren ondorioak ezartzeko aukera ematen duena. Gainera, matematika hizkuntza bat da berez, eta halakotzat garatu behar da bere ikaskuntza. Horrexegatik da beharrezkoa, halaber, matematika lantzen denean ikasleen hizkuntza-trebakuntzari arreta berezia ematea. Alde batetik, ikasleen hizkuntza-adierazpenak errespetatu eta balioztatuko dira, eta, bestetik, norberaren zuzentasunari, zorrotasunari eta hiztegiari arreta berezia emango zaie, arlo honen eta gainerakoen ikaskuntza aberasteko. Gure hezkuntza-sistema elebitasunean oinarritzen denez —izan ere, euskara da komunikazio-hizkuntza, baina ez Lehen Hezkuntzako ikasle gehienen familia-hizkuntza—, are nabarmenagoa da matematikaren arloan ere matematika-arloak berezkoak dituen testuak eta hizkuntza-erabakiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz lantzeko beharra.

Arloaren kompetentzia espezifikoek elkarri lotutako osotasuna eratzen dute, elkarrekin erlazionatzen dira eta. Bost ardatzetan antolatzen dira: problemen ebazpena, arrazoibidea eta proba, konexioak, komunikazioa eta irudikapena, eta, azkenik, trebetasun sozioafektiboak. Kompetentzia espezifiko horiek matematikaren irakaskuntza eta ikaskuntza zuzendu behar dituzten prozesu eta printzipio metodologikoak bideratzen dituzte, eta diziplina anitzeko ikusmoldea eta berrikuntza errazten dituzte. Problemen ebazpena da, eguneroko bizitzan aurki daitekeen jarduera izanik, matematikaren irakaskuntzaren funtsezko ardatzetako bat. Helburu gisa ez ezik, ikasteko metodo gisa ere ulertu behar da. Metodo horren bidez, matematikarako kompetentziaren ardatz guztiak abian jartzen dira, hala nola arrazoibide eta pentsamendu konputazionala, objektu matematikoen irudikapena eta maneia eta komunikazioa, arloaren berezko hizkuntza erabilita.

Kompetentzien ikuspegitik begiratuta, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak, zikloen bidez graduatuak, kompetentzia espezifikoaren inguruan egituratzen dira. Progresio hori oso ingurune hurbil eta manipulatioetatik abiatzen da, Haur Hezkuntzako etaparekin lotzen da, ikaskuntza formalagoetarako trantsizioa errazten du, eta Bigarren Hezkuntzan pentsamendu abstrakturako gaitasuna garatzen laguntzen du.

Kompetentzia espezifikoak eskuratzea da ikasleen kompetentziak ebaluatzeko oinarria, eta ebaluazio-irizpideen bitartez baloratuko da. Ez dago lotura unibokorik eta zuzenik ebaluazio-irizpideen eta oinarrizko jakintzen artean. Kompetentzia espezifikoak zenbait jakintza abian jartzearen bitartez ebaluatuko dira, eta horien arteko loturak ezartzeko behar den malgutasuna emango da.

Oinarrizko jakintzak sei zentzutan egituratzen dira «zentzu matematikoa» kontzeptuaren inguruan, eta ikasleen garapen ebolutiboaren arabera diseinatutako ezagutza, trebetasun eta jarreraren multzoa osatzen dute.

Zentzu matematikoa da eduki matematikoa modu funtzionalean eta norberaren trebetasunetan

konfiantza izanik testuinguruan menderatzearekin lotutako gaitasunen multzoa. Hori dela eta, matematikaren irakaskuntza kompetentziala planteatzen da, testuinguruan problemak edo atazak ebazteko kontzeptuak nagusitu eta haiei zentzua emateko, bai esparru publikoan eta/edo sozialean, bai pertsonalean eta/edo etxean, testuingurutik kanpoko ikaskuntza-egoeretan trebetasunak edo algoritmoak ikasi beharrean. Hala, matematika-zentzua izan eta garatu behar da matematikoki kompetentea izatera iristeko.

- Zenbaki-zentzuaren ezaugarria da zenbakien eta eragiketen ulermenean, irudikapenean eta erabilera malguan oinarritutako trebetasunak eta pentsamoldeak garatzea, adibidez, erabakiak hartzera bideratzeko.
- Neurri-zentzuaren ezaugarria mundu naturaleko objektuen atributuak ulertzea eta konparatzea da. Zenbatesteko, neurtzeko eta konparatzeko unitate egokiak ulertzea eta hautatzea; neurketak egiteko tresna egokiak erabiltzea; eta magnitudeen arteko erlazioak ulertzea, esperimentazioa erabilita. Horiexek dira zentzu honen ardatz nagusiak.
- Espazio-zentzua funtsezkoa da munduaren alderdi geometrikoak ulertzeko eta antzemateko. Formak identifikatzea, irudikatzea eta sailkatzea, haien propietateak eta erlazioak aurkitzea, haien mugimenduak deskribatzea eta haiekin arrazoitzea dira funtsezko elementuak.
- Zentzu aljebraikoak eta pentsamendu konputazionalak matematika komunikatzeko hizkuntza eskaintzen dute. Aldagaien arteko patroiak eta erlazioak ezagutzea, erregularitasunak adieraztea edo egoerak adierazpen sinbolikoen bidez modelizatzea dira funtsezko ezaugarriak.
- Zentzu estokastikoa datuak arrazoitzera eta interpretatzera eta informazio estatistikotik abiatuta balorazio kritikoa egitera eta erabakiak hartzera bideratzen da, baita eguneroko bizitzako egoeretan ausazko fenomenoak ulertzera eta jakinaraztera ere.
- Zentzu sozioafektiboak emozioak ulertzeko funtsezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratzen ditu. Trebetasun horiek behar bezala maneiatzeak, estereotiporik gabe, matematikako ikasleen errendimendua hobetzen du, harekiko jarrera negatiboek kontra egiten die, generoarekin edo ezinbesteko sortzetiko talentuaren mitoarekin lotutako alde zuzeneko ideiak desagerrarazten laguntzen du, eta ikaskuntza aktiboa sustatzen du. Helburu hori indartzeko, funtsezkoa izango da ikasleei historian zehar emakumeek matematikan egindako ekarpenak ezagutaraztea eta ikaskuntza-egoera afektiboki hurbilekoak diseinatzea, bai neskenentzat, bai mutilentzat.

Matematika arloa esperientzia-moduan jorratu behar da, manipulazioari garrantzi handia emanez, baliabide digitalen etengabeko erabilera bultzatuz eta gogoeta, arrazoibidea, konexioen ezarpena, komunikazioa eta irudikapena bultzatuko duten ikaskuntza-egoerak eskainiz ikasleei.

Beraz, eguneroko bizitzarako matematika ikastea proposatzen da, ikasleen interesetatik abiatuta, betiere ikuspegi inklusiboarekin, zeregin aberatsak barne hartzen dituzten ikaskuntza-egoeren bitartez, matematikaren arloen artean nahiz matematikaren eta jakintzaren beste esparru batzuen artean konexio kognitiboak ezarri ahal izateko.

Era berean, zenbait metodologia didaktiko konbinatzea gomendatzen da, Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren ikuspegitik, ikasteko motibazioa bultzatzeko eta ikasleengan kompetentziak garatzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzeko jakin-mina eta beharra sortzeko. Metodologia aktiboak bereziki egokiak dira kompetentzien ikuspegitik, ideia-trukearen bidez ezagutza eraikitzeke eta ikasgelako jardura dinamizatzeko aukera ematen baitute. Problemen ebazpenak, proiektuen bidez ikasteko lanak, simulazioekin eta tresna digitalekin lan egiteak, eta ikasleen beharren arabera konbinatutako beste metodologia batzuek diziplinartekotasuna ahalbidetzen dute eta gogoeta, kritika, hipotesiak egitea eta ikerketa-lana errazten dituzte. Eztabaida matematikoak ikaskuntza dialogikoa bultzatu behar du, ezagutza partekatua eraikitzeke. Eztabaida horietan, ikasteko aukera gisa onartu eta aprobetxatu behar da errorea. Ikasleek aukerak izan beharko dituzte ideiak adierazteko askatasuna ematen dien giro batean beren ideiak probatzeko. Halaber, ez dira ahaztu behar arloaren garapenari lotutako ikasteko zailtasun espezifikoak —adibidez, diskalkulia—, esku-hartze espezifikoak beharko baitute ikasleen garapen kognitiboa hobetzeko eta bazterketa-egoerak saihesteko.

Azkenik, matematikaren irakaskuntzari eta ikaskuntzari pertsona guztien inklusiotik heldu behar zaio, eta, horretarako, garapen pertsonala eta gizarteratzea bultzatuko dituen ikaskuntza esanguratsua lortzeko behar diren aukerak eta laguntzak bermatuko dira. Ildo horretan, motibazio egokia,

testuinguruan jarritako zereginak, behar den denbora eta manipulazio-baliabideen eta baliabide digitalen erabilera matematika inklusiboa bultzatzen duten jardunbideak dira. Ekitatea ez da izango pertsona guztiei baliabide berberak eskaintzea, guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera izatea baizik.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eguneroko bizitzako egoerak interpretatzea, egoera horien irudikapen matematikoa eginez, kontzeptu, tresna eta estrategia desberdinen bidez informazio garrantzitsuenaz aztertzea.

Matematikaren esparrutik esku hartzen den egoera problematizatu bat ulertzea da beti hura ebazteko bidean egiten den lehen urratsa. Problema ondo irudikatu edo bistaratzeak hura interpretatzen laguntzen du, baita datu eta erlazio garrantzitsuenak identifikatzen ere. Egoera problematizatuen ulermenaz hitz egitean, arreta ez da jartzen hitzezko mezu idatziak ulertzean; aitzitik, aukera zabalago batera jo behar da, hala nola ahozko mezuetara, marrazkien, irudien edo argazkien bidezko ikusizko mezuetara, eguneroko egoeretara edo erronka bat dakarten manipulazio-material zehatzak (analogikoak eta digitalak) dituzten mezuetara. Horren bidez, ikasleek hurbileko ingurunea uler dezaten lortu nahi dugu, eta inguruanduten munduaren irudikapen egokia ezartzeko tresnak eman nahi dizkiegu, bai eskolan bai egunerokobizitzan izan ditzaketan egoera problematikoei aurre egin eta horiek ebazteko aukera izan dezaten.

Ikaskuntza-egoerek aukera sorta zabala eskaintzen dute ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak integratzeko, baita konpetentziak ikuspegi globalarekin integratzeko ere, eta elkarrekiko errespetua eta berdinenarteko kooperazioa sustatzen dituzte, betiere arreta berezia jarrita genero-berdintasunean, inklusioan eta aniztasun pertsonal eta kulturean. Horretarako, egoera horietako testuinguruek askotarikoak izan behar dute, alde batetik, esparru pertsonala, soziala, eskolakoa eta profesionala barne; eta, bestetik, aberatsak ikuspuntu matematikotik, arloaren esparruen artean ideiak eta loturak sor daitezkeen bultzatuz. Horrela, aukera ematen dute funtsezko zortzi konpetentziak integratzeko eta gure munduko ingurumen- eta gizarte-arazo handien planteamendua edo kontsumo arduratsuko arazoan planteamendua hurbileko errealitatean txertatzeko, ikasleak horien partaide egin daitezkeen eta etorkizunean aktiboki inplikatzeko behar den jarrera gara dezaten sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KPSII5, EK1, EK3, KAKK4.

2. Egoera problematizatuak ebaztea, hainbat teknika, estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, jarduteko zenbait modu aztertzea, soluzioak lortzeko eta ikuspuntu formalek eta planteatutako testuinguruari loturik baliozkoak direla ziurtatzeko.

Problema ebaztea matematikaren ikaskuntzaren funtsezko zati bat da: berezko helburu gisa eta ezagutza matematikoa eraikitzeke ardatz metodologiko gisa.

Berezko helburu gisa, hainbat estrategia sartzen dira jokoan soluzio posibleak lortzeko: analogia, saiakuntza eta errorea, alderantzizko ebazpena, haztapena, problema sinpleagoetan deskonposatzea... Hainbat estrategia ezagutzeak erronkei segurtasunez aurre egiteko aukera ematen du, eta loturak ezartzea errazten du. Estrategiek ez dute ebazpen aritmetikoan bakarrik oinarritu behar; aitzitik, laguntza digitalarekin —materialen manipulazioaren, irudikapen grafikoaren diseinuaren edo hitzezko argudioak ematearen bitartez— ebatz daitezkeen egoerak ere emango dira. Estrategia aukeratzeak eta problema ebazten den bitartean aldi behin berrikustea pentsamendu kritikoa eta sortzailea aktibatzea eskatzen du, erabakiak hartzeko, erantzuna aurreratzeko, ezarritako jarraibideak betetzeko, arriskuak hartzeko eta errorea ikasteko aukera bihurtzeko.

Ardatz metodologiko gisa, ikaskuntza-egoera baten testuinguruan problema ebazteak lotura berriak ematen ditu ikasleen ezagutzen artean, eta, horrela, esanahi eta jakintza matematiko berriak eraikitzen dira.

Soluzioen baliozkotasuna ziurtatzeko, jarraitutako prozesuari buruz arrazoitu behar da, eta haiek zuzentasun matematikoari dagokionez ebaluatu; horri esker, galderak berriz formulatu eta egoera

berriak ebatzi daitezke. Hala ere, soluzioak planteatutako testuingurura egokitzeari buruzko gogoeta kritikoa eresustatu behar da, baita zenbait ikuspuntutatik (kontsumo arduratsua, osasuna, ingurumena, genero-berdintasuna eta abar) izango lituzketen inplikazioak ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, STEM1, STEM2, KPSII5, EK2, EK3, KAKK4.

3. Eguneroko bizitzan oinarritutako egoeretan, aieru errazak aztertzea, formulatzea eta egiaztatzea edo problema matematikoak planteatzea, modu gidatuan, arrazoibidearen eta argudiatzearen balioa aintzat hartuz, haien baliozkotasuna kontrastatzeko, eta ezagutza berria eskuratzeko eta integratzeko.

Arrazoibideak eta pentsamendu analitikoak patroien, egituren eta erregulartasunen pertzepzioa areagotzen dute, baita objektuen ezaugarriak, erlazioak eta propietateak behatzea eta identifikatzea ere, eguneroko testuinguruetan zein egoera matematikoetan aieruak edo baieztapenak formulatu ahal izateko, ideiak garatuz, fenomenoak aztertuz, ondorioak argudiatuz eta ezagutza berriak sortuz. Analisi matematikoak, beraz, pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen du, egoera edo problema aztertu eta sakontzea, ikuspegi desberdinetatik aztertzea, galdera egokiak planteatzea eta ideiak zentzuz ordenatzea eskatzen baitu.

Ikasleek inguruko ingurune analogikoan eta digitalean edo eguneroko bizitzako egoeretan elementu matematikoak detekta ditzaten lortzen denean, galderak planteatuz edo aieruak formulatuz, jarrera aktiboa garatzen dute lanaren aurrean, eta jarrera proaktiboa ikaskuntzaren aurrean. Horrela, ikasleek identifikatu, antolatu, konektatu, irudikatu, eraiki, abstraitu, ebaluatu, ondorioztatu, justifikatu, azaldu, defendatu, interpretatu, kritikatu, ezeztatu eta kualifikatzen dutenean, arrazoibidea eta analisi kritikoa areagotzen laguntzen da.

Era berean, matematikoki arrazoitzea kontzeptuak behaketaren eta gogoetaren bidez behar bezala eraikitze beharrari lotuta dago, baita galderak egitean eta gauzatutako proba-prozesuan behatutakoa adieraztean komunikazio-trebetasunak garatzeari ere. Gogoan izan behar da frogantzak ez direla matematikarenak bakarrik, bizitzako beste alderdi askotakoak ere badirela. Argudioetan zorrotza izan behar da, eta ez da onartu behar kasuan kasuko frogek bermatzen ez duten informaziorik edo adierazpenik. Ikasleek matematikaz bestelako irakasgai batzuetan erabiliko dute argudiatzeko gaitasun hori, metodozientifikoa matematikan oinarritzen baita.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, KD3, KD5, KPSII5, KE1, KE2, KE3.

4. Pentsamendu konputazionala erabiltzea datuak antolatuz, zatika deskonposatuz, patriiak ezagutzuz, orokortuz eta interpretatuz, eta algoritmoak modu gidatuan aldatuz eta sortuz, eguneroko bizitzako egoerak modelizatze eta automatizatze.

Pentsamendu konputazionala ikasleen etorkizuneko funtsezko trebetasunetako bat da, zuzenean lotzen baita problemen ebazpenarekin eta prozeduren planteamenduekin. Behar den abstrakzioa eskatzen du alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patriiak ezagutzeko, zeregin sinpleagoetan deskonposatzeko eta algoritmoak definitzeko, eta, horrela, sistema informatiko batek, gizaki batek edo bien konbinaziotatek egikaritu ditzakeen soluzio posibleetara iristeko.

Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eramateak informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen beharrekin lotzea dakar. Horrela, ikasleak etorkizun gero eta teknologikoagorako prestatzen dira, haien pentsamendu kritiko eta sortzaileko gaitasunak hobetuz eta abstrakzioak erabiliz problema konplexuak ebazteko. Era berean, ikasgelan lan egiteko baliabide teknologikoak egoki aukeratzeak ezagutza matematikoa ikasteko eta sakontzeko aukera ematen die ikasleei. Pentsamendu hori berriaz entrenatu etagaratu beharko litzateke, metodologia eta estrategia gidatuen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD3, KD5, KPSII5, EK1, EK2, EK3, KAKK4.

5. Ideia matematikoen arteko loturak ezagutu eta erabiltzea, eta beste arlo batzuetan edo eguneroko bizitzan inplikaturako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoerak eta testuinguruak interpretatzeko.

Objektu matematikoen arteko loturak (kontzeptuak, prozedurak, irudikapen-sistemak...) eskuratutako jakintzen ulermen sakonagoa eta iraunkorragoa eskaintzen du, eta ezagutzari berari buruzko ikuspegi zabalagoa ematen du. Ezagutzen ikuspegi global eta erlazionatu horrek beste arlo batzuekin eta ikasleen eguneroko bizitzarekin loturak sortzen laguntzen du, adibidez, haien ekonomia pertsonala planifikatu eta kudeatzean edo zenbait hedabidetan informazio grafikoa interpretatzean. Ideia matematikoak ez dira elementu bakartuak, elkarren artean erlazionatu eta osotasun bat sortzen dutenak baizik. Hori ulertzeak ingurunea eta bertan jazotzen diren gertaerak ulertzeko gaitasuna garatzen du, eta oinarri sendoa sortzen du ezagutza berriak finkatzeko, erronka berriei aurre egiteko eta erabaki informatuak hartzeko.

Bestalde, matematikak beste arlo batzuekin, bizitza errealarekin edo norberaren esperientziarekin duen lotura ezagutzeak areagotu egiten du ikasleen ezagutza matematikoa. Garrantzi handikoa da ikasleek matematika zenbait testuingurutan (pertsonalak, eskolakoak, sozialak, zientifikoak eta humanistikoak), analogikoetan zein digitaletan, esperimendatzeko aukera izatea, alderdi matematikoak hainbat egoeratan identifikatzen ohitzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM6, KD3, KD5, KPSII5, HK4, KAKK1, KAKK2, KAKK4.

6. Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea eta irudikatzea, terminologia matematiko egokia eta ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia, grafikoa eta multimodala erabiliz, ideia matematikoei esanahia eta iraunkortasuna emateko.

Komunikazioa eta ideia-trukea hezkuntza zientifiko eta matematikoaren funtsezko zati bat da. Komunikazioaren bidez, ideiak, kontzeptuak eta prozedurak gogoetarako, hobetzeko, eztabaidatzeko, zuzentzeko eta baliozkotzeko objektu bihurtzen dira. Hitzez analizatzeko eta arrazoitutakoa adierazteko gaitasuna sozialki moldatzeko premia gisa ikusten da, eta horretarako ezinbestekoa da hiztegi matematiko egokirajotzea, transmititu nahi diren ideiak azaldu eta antolatzea, edo kontrako argudioak onartu eta ezeztatzea.

Pentsamendu matematikoa komunikazio-kanalari argi, koherentziaz eta modu egokian komunikatzeak ezagutza berriak sortzen, finkatzen eta kooperazioan jarduten laguntzen du, baita pentsamendu matematikoa eta norberaren nahiz besteen estrategiak analizatzen eta ebaluatzen ere.

Bestalde, irudikapen matematikoak, komunikazio-elementu gisa, hainbat hizkuntza erabiltzen ditu, hala nola hitzezkoa, grafikoa, sinbolikoa edo tabularra, besteak beste, bitarteko tradizionalen edo digitalen bidez, ideia matematikoak hainbat testuingurutan (pertsonalak, eskolakoak, sozialak eta profesionalak) zehaztasunez adierazteko aukera ematen baitute. Gainera, ikasleek hainbat formatu eta testuingurutan dagoen hizkuntza matematikoa ezagutu eta ulertu behar dute, hurbileko hizkuntzatik abiatuta eta matematikaren bereizgarri den terminologia zehatza eta zorrotasun zientifikoa pixkanaka eskuratuta; eta, era berean, informazio matematikoa transmititu behar dute, mezuaren formatua entzuleei eta komunikazio-xedeari egokituta.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD3, KD5, KAKK4.

7. Erronka matematikoei aurre egitean emozioak identifikatzen eta kudeatzen lagunduko duten trebetasun pertsonalak garatzea, norberaren trebetasunekiko konfiantza sustatuz, akatsa ikaskuntza-prozesuaren zati gisa onartuz eta ziurgabetasun-egoeren aurrean egokituz, pertseberantzia hobetzeko eta matematikaren ikaskuntzaz gozatzeko.

Problema matematikoak edo matematikak esku hartzen duen erronka globalagoak ebatzea lan atsegina izan behar da. Matematikaren ikaskuntzaren barruan trebetasun emozionalak eskuratzeak ikasleen ongizatea, diziplinarekiko interesa eta matematikarekiko motibazioa sustatzen ditu genero-ikuspegitik.

Halaber, erresilientzia eta jarrera proaktiboa garatzen ditu erronka matematiko berrien aurrean, errorea ikasteko aukera dela eta emozioen aniztasuna modu pertsonalean hazteko aukera dela ulertzen du-eta. Horretarako, ikasleek beren emozioak identifikatu eta kudeatu behar dituzte, estres-iturriak ezagutu, jarrera positiboa izan, jarraikiak izan eta modu kritiko eta sortzailean pentsatu. Konpetentzia hau lortzen laguntzen du, halaber, matematikak historian zehar kulturaren eta generoaren ikuspegitik egindako ekarpena aztertzeak.

Horrekin guztiarekin, ikaskuntzaren aurreko jarrera garatzen laguntzen da, eskuratutako trebetasunak bizitzako beste esparru batzuetara transferitzea sustatzeko, ikaskuntza eta ongizate pertsonala gizabanakoaren bizi-prozesuaren osagai integraltzat hartuta.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM5, STEM6, KPSII1, KPSII2, KPSII4, KPSII5, HK3, EK1, EK2, EK3, KAKK1, KAKK3.

8. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutzeko eta errespetatzeko, eta esleitutako rolak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeke, ongizate pertsonala sustatzeko eta harreman onuragarriak sortzeko.

Konpetentzia espezifikoa honen bidez errespetua, tolerantzia, berdintasuna eta gatazken konponbide baketsua landu nahi dira, ikasleek proposatutako erronka matematikoak ebazten dituztenaldi berean, komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuta, laneko harreman eta ingurune osasungarriak sortzeko. Horretarako, rolak esleituta dituzten lantalde heterogeneoetan parte hartzea sustatuko da, eta horrek aukera emango du harreman osasungarriak, solidarioak eta konprometituak eraikitzeke, autokonfiantza finkatzeko eta berdintasunezko bizikidetzako egoerak normalizatzeko, baita ingurune digitaletan ere.

Horrela, ikasleei komunikazio eraginkorrerako eta taldean lan egiteko tresnak eta estrategiak eman nahi zaizkie, etorkizunerako beharrezko baliabide gisa. Hala, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa lantzen dira. Gainera, ikasleek modu sortzaile, kritiko eta arduratsuan laguntzen dute, eta gatazka modu positiboan ebaztea jorratzen da, hizkuntza inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabilita.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, EK3, STEM3, STEM5, STEM6, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. konpetentzia espezifikoa		
1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki interpretatzea, modu arautuan planteatutako galderak ulertuz.	1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki interpretatzea, zenbaitestrategia edo tresnaren bitartez (teknologikoak barne) planteatutako galderak ulertuz.	1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki birformulatzea, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez planteatutako galderak ulertuz.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1.2 Eguneroko bizitzako problemetan bildutako oinarriko informazioa ezagutzea, horiek ebazten laguntzen dutenak hautatuz.	1.2 Eguneroko bizitzako problemetan bildutako informazioa ezagutzea, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez planteatutako galderak ulertuz.	1.2 Datu eta informazio garrantzitsuak identifikatzea, egoera problematizatu bat ebazteko harremanak eta loturak ezarriz.
1.3 Egoera problematizatu errazen irudikapenen adibideak ematea, egunerokobizitzako problema bat ebazten lagunduko duten baliabide manipulatioak eta grafikoak erabilia.	1.3 Egoera problematizatu bat ebazten lagunduko duten irudikapen matematikoak erakustea, eskema edo diagramen bitartez.	1.3 Egoera problematizatu bat ebazteko strategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea.
2. kompetentzia espezifikoa		
2.1 Problema bat modu gidatuan ebazteko strategiaren bat erabiltzea, etagauzatutako prozesua azaltzea.	2.1. Problema bat ebazteko hainbat estrategia erabiltzea, eta gauzatutako prozesua azaltzea.	2.1 Problema bat ebazteko zenbait strategiaren artean hautatzea, eta gauzatutako prozesua azaltzea.
2.2 Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz.	2.2. Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz.	2.2 Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz.
2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioak eta planteatutako galderekiko koherentzia egiaztatzea.	2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zulentasun matematikoa eta planteatutako galderekiko koherentzia egiaztatzea.	2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zulentasun matematikoa eta testuinguruarekiko eta planteatutako galderekiko koherentzia argudiatzea.
3. kompetentzia espezifikoa		
3.1 Zentzu matematikoein erlazionatutako aieru matematiko errazak egitea, patrioiak eta propietateak ikertuz eta dedukzioak modu gidatuan eginez.	3.1 Zentzu matematikoein erlazionatutako aieru matematiko errazak analizatzea, patrioiak eta propietateak ikertuz eta dedukzioak modu gidatuan eginez.	3.1 Zentzu matematikoein erlazionatutako aieru matematiko errazak formulatzea, patrioiak, propietateak eta erlazioak ikertuz, eta dedukzioak eginez eta egiaztatuz.
3.2 Eguneroko bizitzan aurki daitezkeen problemen eta egoera matematikoen adibide errazak proposatzea, eta nola ebatz daitezkeen azaltzea.	3.2 Eguneroko bizitzan aurki daitezkeen problemen eta egoera matematikoen adibideak proposatzea, eta nola ebatz daitezkeen arrazoitzea eta argudiatzea.	3.2 Problemen eta egoera matematikoen adibideak sortzea, eta ebatz daitezkeela justifikatzea, norberaren arrazoibideak eta argudioak eskainiz.
4. kompetentzia espezifikoa		
4.1 Urratsez urrats egiten diren eguneroko bizitzako errutinak eta jarduerak deskribatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak modugidatuan erabiliz.	4.1 Urratsez urrats egiten diren edo errutina bati jarraitzen dioten eguneroko bizitzako egoera errazak modu analogiko eta digitalean modelizatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak modu arautuan erabiliz.	4.1 Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak modu gidatuan erabiliz.
4.2 Urratsez urrats egiten diren eguneroko bizitzako errutina eta jarduera errazak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak modu gidatuan erabiliz.	4.2 Urratsez urrats egiten diren algoritmo errazak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak modu arautuan erabiliz.	4.2 Urratsez urrats egiten diren algoritmoak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarriko printzipioak erabiliz.
5. kompetentzia espezifikoa		
5.1 Elementu matematikoen arteko loturak ezagutzea, norberaren ezagutzaketa esperientziak aplikatuz.	5.1 Elementu matematikoen arteko loturak egitea, norberaren ezagutzak eta esperientziak aplikatuz.	5.1 Zenbait elementu matematikoren arteko loturak erabiltzea, norberaren ezagutzak eta esperientziak mobilizatuz.
5.2 Eguneroko bizitzan eta beste arlo batzuetan dagoen matematika ezagutzea, lotura errazak ezarriz.	5.2 Egoerak hainbat testuingurutan interpretatzea, matematikaren eta eguneroko bizitzaren arteko loturak ezagutuz.	5.2 Matematikaren, beste arlo batzuen eta eguneroko bizitzaren arteko loturak erabiltzea testuinguru ez-matematikoean problemak ebazteko.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
6. kompetentzia espezifikoa		
6.1 Eguneroko bizitzan dagoen hizkuntza matematiko erraza ezagutzea, oinarriko hiztegi espezifikoa eskuratuz.	6.1 Eguneroko bizitzan zenbait formatutan dagoen hizkuntza matematiko erraza ezagutzea, oinarriko hiztegiespezifikoa eskuratuz eta mezuaren ulermena erakutsiz.	6.1 Eguneroko bizitzan zenbait formatutan dagoen hizkuntza matematiko erraza interpretatzea, hiztegi egokia eskuratuz eta mezuaren ulermena erakutsiz.
6.2 Ideia eta prozesu matematiko errazak, problema bat ebazteko jarraitutako urratsak edo emaitza matematikoak hitzez edo grafikoki azaltzea.	6.2 Prozesu eta ideia matematikoak, problema bat ebazteko jarraitutako urratsak edo lortutako emaitzak azaltzea, hizkuntza matematiko erraza eta zenbait formatu erabiliz.	6.2 Aieru eta prozesu matematikoak zenbait formatutan komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz, bai analogikoa bai digitala.
7. kompetentzia espezifikoa		
7.1 Erronka matematiko berriei aurre egitean norberaren oinarriko emozioak ezagutzea, behar denean laguntza eskatuz eta eskainiz.	7.1 Erronka matematiko berriei aurre egitean norberaren emozioak identifikatzea, behar denean laguntza eskatuz eta eskainiz, eta, hala, autokonfiantza garatuz.	7.1 Norberaren emozioak autorregulatzea eta indar eta ahulezia batzuk ezagutzea, erronka matematiko berriei aurre egitean autokonfiantza garatuz.
7.2 Erronka eta ezagutza matematiko berrien aurrean jarrera positiboak adieraztea, aberaste pertsonalaren iturri gisa, errorea sormenerako eta ikaskuntzarako aukera gisa baloratuz.	7.2 Erronka matematiko berrien aurrean ahalegin eta malgutasunezko jarrera positiboak erakustea, gozamen pertsonalaren iturri gisa, errorea sormenerakoeta ikaskuntzarako aukera gisa baloratuz.	7.2 Erronka eta ezagutza matematiko berrien aurrean jarraitutasuna eta erantzukizuna bezalako jarrera positiboak aukeratzea, errorea ikasteko aukera gisa baloratuz.
8. kompetentzia espezifikoa		
8.1 Talde-lanean errespetuz parte hartzea, errespetuan, tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri.	8.1 Talde-lanean aktiboki eta errespetuz laguntzea, egoki komunikatuz, taldearen aniztasuna errespetatuz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri.	8.1 Talde-lanean aktiboki, errespetuz eta erantzukizunez laguntzea, ekimena erakutsiz, eraginkortasunez komunikatuz, aniztasuna baloratuz, enpatia erakutsiz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri.
8.2 Talde-lanean esleitutako zeregina eta rola onartzea, erantzukizun indibidualak betez eta taldearen helburuak lortzen lagunduz.	8.2 Zereginen banaketan parte hartzea, esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta errespetatuz, eta helburu partekatuak lortzera zuzendutako kooperazio-estrategia erazak erabiliz.	8.2 Zereginen banaketan laguntzea, esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta errespetatuz, eta helburupartekatuak lortzera zuzendutako kooperazio-estrategia errazak erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen zikloa	
A. Zenbaki-zentzua	
1. Zenbaketa	Zenbaketa eta kontaketa sistematikorako askotariko estrategiak eguneroko bizitzako egoeretan, hiru zifra arteko kantitateetan.*
2. Kantitatea	Kantitateen zenbatespen arrazoituak ikaskuntza-egoeretan testuinguruan jarritako problemetan.*
	Hiru zifra arteko zenbaki arrunten irakurketa, adierazpidea (zenbakizko zuzena eta material manipulatioak barne), konposizioa, deskonposizioa eta birkonposizioa.*
	Kantitate bera zenbait modutan adierazteko (manipulatioa, grafikoa edo zenbakizkoa eta digitala), eta egoera edo problema bakoitzerako adierazpide egokia hautatzeko estrategiak.*
Eguneroko bizitzako testuinguruetan erabili ohi diren zatiki propioak (erdia, herena, laurdena...).	

Lehen zikloa	
3. Eragiketa-zentzua	Kalkulu mentaleko estrategiak, hiru zifra arteko zenbaki arruntekin.* Malgutasunez eta zentzuz ebatzitako zenbaki arrunten batuketa eta kenketa: erabilgarritasuna testuinguruan kokatutako egoeretan, ebazteko estrategiak eta tresnak eta propietateak.*
4. Erlazioak	Hamar oinarriko zenbaki-sistema (hiru zifra artekoa): eragiketetan sortzen dituen erlazioen aplikazioa.* Zenbaki arruntak eguneroko bizitzako testuinguruetan: konparazioa eta ordenamendua.* Batuketaren eta kenketaren arteko erlazioa: aplikazioa eguneroko testuinguruetan. Batuketaren eta biderketaren arteko erlazioa eguneroko testuinguruetan.
5. Finantza-hezkuntza	Europako diru-sistema: txanponak (1, 2 euro) eta euro billeteak, balioa eta baliokidetasuna.*
B. Neurri-zentzua	
1. Magnitudea	Objektuen atributu neurgarriak (luzera, masa, edukiera), distantziak eta denborak.* Unitate konbentzionalak (metroa, kiloa eta litroa) eta ez-konbentzionalak eguneroko bizitzako egoeretan.* Denbora neurtzeko unitateak, analogikoki eta digitalki adieraziak (urtea, hilabetea, astea, eguna, eta ordua eta minutua) eguneroko bizitzako egoeretan.*
2. Neurketa	Unitate bat errepikatuz eta tresna ez-konbentzionalen bidez neurtzeko prozesuak.* Familia-testuinguruetan tresna konbentzionalekin (erregelak, zinta metrikoak, balantzak, egutegiak...) neurtzeko prozesuak.*
3. Zerbatespena eta erlazioak	Magnitude bereko neurriak zuzenean konparatzeko eta ordenatzeko estrategiak.* Ohiko erabilerako neurriak beste neurri batzuekin zuzenean konparatuz zenbatestea.
C. Espazio-zentzua	
1. Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoak	Bi dimentsioko irudi geometriko errazak eguneroko bizitzako objektuetan: identifikazioa eta sailkapena elementuen arabera.* Bi edo hiru dimentsioko irudi geometriko errazak modu manipulatioan eraikitzekeo estrategiak eta teknikak.* Oinarriko hiztegi geometrikoa: forma geometriko errazen elementuen eta propietateen hitzeko deskribapena.* Bi dimentsioko irudi geometrikoen propietateak miatzeko material manipulagarriak (mekanoak, tangram, irudi-jokoak eta abar) eta tresna digitalak.
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Objektuen espazioko posizio erlatiboa eta mugimenduak modu egokian deskribatzeko hiztegia: (goian, behean, aurrean, atzean, artean, baino hurbilago, ez bezain hurbil, baino urrutiago, ez bezain urruti...)*
3. Mugimenduak eta transformazioak	Eguneroko bizitzako egoeretan translazio eta simetrien bidez transformatutako irudi errazak: identifikazioa.* Hasierako patroien baten simetria eta translazioetatik abiatuta transformatutako irudi errazak sortzea eta material manipulagarriekin eta tresna digitalekin emaitza iragartzea.
4. Bistaratze, arrazoibide eta modelizazio geometrikoa.	Eredu geometrikoak beste zentzuekin erlacionatutako problemen ebazpenean.* Erlazio geometrikoak: ingurunean ezagutzea.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Zenbaki, figura edo irudien bilduma batean erregularitasunetatik abiatuta, elementu ezkutuak identifikatzeko, ahoz deskribatzeko, aurkitzeko eta sekuentziak hedatzeko estrategiak.*
2. Eredu matematikoa	Eguneroko bizitzako problemak ulertzean eta ebaztean modu gidatuan modelizatzekeo prozesuak, analogikoa eta digitala (marrazkiak, eskemak, diagramak, objektu manipulagarriak, dramatizazioak...)*
3. Erlazioak eta funtzioak	= eta \neq ikurrak, eragiketak dituzten adierazpenen artean berdintasun- eta desberdintasun-erlazioak adieraztekeo*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen zikloa	
	Berdintasuna irudikatzea bi elementuren arteko baliokidetasun-erlazio baten adierazpen gisa, eta bi elementuetako edozeinetan datu erraz ezezagunak lortzea (sinbolo baten bidez irudikatuak).*
4. Pentsamendu konputazionala	Algoritmo errazak (errutinak, urrats ordenatuak dituzten instrukzioak...) interpretatzeko estrategiak.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Eguneroko bizitzako grafiko estatistiko oso errazetatik (piktogramak, barra-grafikoak) informazio garrantzitsua ateratzeko eta elementu nagusiak ezagutzeko estrategiak.*
	Lagin txikietan datu kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzeko, sailkatzeko eta kontatzeko estrategia errazak.*
	Grafiko estatistiko errazen, baliabide manipulagarrien eta teknologikoen bidez egindako kontaketen bitartez lortutako datuen adierazpidea.
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Kudeaketa emozionala: matematikaren aurreko norberaren emozioak estereotiporik gabe identifikatzeko eta adierazteko estrategiak. Matematika ikasteko jakin-mina eta ekimena.*
2. Talde-lana, inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Ikasgelan dauden desberdintasun indibidualen aurreko diskriminazio-jarrerak: identifikazioa eta gaitzespena. Jarrera inklusiboak eta taldearen aniztasunaren onarpena.*
	Talde-lanean aktiboki parte hartzea: interakzio positiboa eta besteen lanarekiko errespetua.
	Oinarrizko ezagutza matematikoen giza jakintzen esparruei kulturaren eta generoaren ikuspegitik egiten dieten ekarpena.*

Bigarren zikloa	
A. Zenbaki-zentzua	
1. Zenbaketa	Zenbaketa eta kontaketa sistematikorako askotariko estrategiak eta zenbaketa zenbakien tamainara egokitzeak eguneroko bizitzako egoeretan, lau zifra arteko kantitateetan.*
2. Kantitatea	Zenbakien magnitude-ordena (hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak) interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak.*
	Kantitateen zenbatespen eta hurbilketa arazoituak problemak ebazteko testuinguruetan.*
	Lau zifra arteko zenbaki arrunten irakurketa, adierazpidea (zenbakizko zuzena eta material manipulatioak barne), konposizioa, deskonposizioa eta birkonposizioa.*
	Eguneroko bizitzako testuinguruetan 10 arteko izendatzailea duten zatiki propioak.*
3. Eragiketa-zentzua	Kalkulu mentaleko estrategiak, zenbaki arruntekin eta zatikiekin.*
	Testuinguruan jarritako egoerak ebazteko erabilgarriak diren eragiketa sinpleak (batuketa, kenketa, biderketa, eta zatiketa banaketa eta partiketa gisa) ezagutzeko estrategiak.*
	Biderkatzeko taulak eraikitzeak estrategiak, aldi kopuruan, batuketa errepikatuan edo lauki-sareetako antolaeran oinarrituta.*
	Malgutasunez eta zentzuz ebazitako zenbaki arrunten batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa: erabilgarritasuna testuinguruan kokatutako egoeretan, ebazteko estrategiak eta tresnak eta propietateak.*
4. Erlazioak	Hamar oinarriko zenbaki-sistema (lau zifra artekoa): eragiketetan sortzen dituen erlazioen aplikazioa.*
	Zenbaki arruntak eta zatikiak eguneroko bizitzako testuinguruetan: konparazioa eta ordenamendua.*
	Batuketaren eta kenketaren arteko erlazioa, eta biderketaren eta zatiketaren artekoa: eguneroko testuinguruetan aplikatzea.
5. Finantza-hezkuntza	Eguneroko bizitzako kantitateak eta itzuli beharreko kopuruak (euroak eta euro-zentimoak) kalkulatzeko eta zenbatesteko estrategiak: diru-sarrerak, gastuak eta aurrezkia. Erosketa arduratsuko erabakiak.*

Bigarren zikloa	
B. Neurri-zentzua	
1. Magnitudea	Objektuen atributu neurgarriak (luzera, masa, edukiera, azalera, bolumena eta angelu-anplitudea).*
	Unitate konbentzionalak (km, m, cm, mm; kg, g; l eta ml; angeluen neurriaren unitateak eta deskriptoreak) eta ez-konbentzionalak (oina, koilarakada...) eguneroko bizitzako egoeretan.*
	Denboraren neurketa (urtea, hilabetea, astea, eguna, ordua, eta minutua eta segundoa) eta denboraldien iraupenaren zehaztapena.*
2. Neurketa	Tresna eta unitate ez-konbentzionalekin (unitate bat errepikatzea, lauki-sareak eta material manipulatioak erabiltzea) eta konbentzionalekin neurketak egiteko estrategiak.*
	Tresna konbentzionalen bidez (erregela, zinta metrikoa, balantzak, erloju analogikoa eta digitala) neurtzeko prozesuak.*
3. Zenbatespena eta erlazioak	Magnitude bereko neurriak konparatzeko eta ordenatzeko estrategiak (km, m, cm, mm; kg, g; l eta ml): eguneroko bizitzako problemetan unitateen arteko baliokidetasunak aplikatzea.*
	Luzera-, masa- eta edukiera-neurrien estimazioa, konparazioz.
	Neurketen eta neurrien zenbatespen edo kalkuluen emaitzen ebaluazioa.*
C. Espazio-zentzua	
1. Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoak	Bi edo hiru dimentsioko irudi geometrikoak eguneroko bizitzako objektuetan: identifikatzea eta sailkatzea, horien elementuak eta horien arteko erlazioak kontuan harturik.*
	Bi dimentsioko irudi geometrikoak konposizioz eta deskonposizioz, material manipulagarrien, marrazketa-tresnen (erregela eta eskuaira) eta aplikazio informatikoen bidez eraikitzeak eta teknikak.*
	Hiztegi geometrikoa, irudi geometriko errazen elementuak eta propietateak hitzez deskribatu ahal izateko.*
	Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoen propietateak miatzeko material manipulagarriak (lauki-sareak, geoplanoak, polikuboak eta abar) eta tresna digitalak (geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua, hezkuntza-robotika eta abar).
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Objektuek espazioan duten posizio erlatiboa edo haien irudikapenak egoki deskribatzeko hiztegi geometrikoa (paraleloa, perpendikularra, zeharria, eskuina, ezkerria eta abar).*
	Norberari edo beste erreferentzia-puntu batzuei dagokienez mugimenduak hitzez deskribatu eta interpretatzeko hiztegi geometriko egokia.
	Planoetan ibilbideak interpretatzeko, euskarri fisikoak eta birtualak.*
3. Mugimenduak eta transformazioak	Eguneroko bizitzako egoeretan translazio eta simetriaren bidez transformatuak irudiak identifikatzeko estrategiak.*
	Hasierako patroia baten simetria eta translazioetatik abiatuta transformatuak irudiak sortzea eta material manipulatioekin eta tresna digitalekin emaitza iragartzea.
4. Bistaratzeko, arazoibide eta modelizazio geometrikoa	Irudi lauen perimetroak kalkulatzeko eta eguneroko bizitzako problemen ebazpenean erabiltzeko estrategiak.*
	Eredu geometrikoak beste zentzuekin erlazioatutako problemen ebazpenean.*
	Erlazio geometrikoen identifikazioa matematikako eskolatik kanpoko eremuetan, hala nola artean, zientzietan eta bizitzan.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Zenbaki, figura edo irudien bilduma batean erregularitasunetatik abiatuta, terminoak identifikatzeko, hitzez deskribatzeko, irudikatzeak eta arrazoiak iragartzeko estrategiak.*
2. Eredu matematikoa	Modu arautuan modelizatzeko prozesuak (analogikoak edo digitalak), adierazpide matematikoak erabilia (grafikoak, taulak...), eguneroko bizitzako problemen ulermena eta ebazpena errazteko.*
3. Erlazioak eta funtzioak	Berdintasun- eta desberdintasun-erlazioak eta = eta \neq ikurren erabilera eragiketarako eta horien propietateak dituzten adierazpenen artean.*

Bigarren zikloa	
	Berdinketa, bi elementuren arteko baliokidetasun-erlazio baten adierazpen gisa, berdinketaren bi elementuetako edozeinetan datu erraz ezezagunak (sinbolo baten bidez irudikatuak) lortzeko.* "Handiago..." eta "txikiago..." erlazioaren adierazpidea, eta < eta > ikurren erabilera.*
4. Pentsamendu konputazionala	Algoritmo errazak (jokoen arauak, instrukzio sekuentzialak, begiztak, patroiz errepikakorrak, bloke-programazioa, hezkuntza-robotika ...) interpretatzeko eta aldatzeko estrategiak.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Eguneroko bizitzako grafiko estatistikoak (piktogramak, barra-grafikoak, histogramak...): irakurketa eta interpretazioa.* Lagin txikietan datu kualitatibo edo kuantitatibo diskretuak kalkulagailuaren eta aplikazio informatiko errazen bidez biltzeko, sailkatzeko eta antolatzeko estrategia errazak. Maiztasun absolutua: interpretazioa.* Grafiko estatistiko errazak (barra-diagrama eta piktogramak), datuak irudikatzeko, egokiena hautatuta, baliabide tradizionalen eta aplikazio informatiko errazen bidez.* Moda: maiztasun handieneko datu gisa interpretatzea. Bi datu multzoren konparazio grafikoak, erlazioak ezartzeko eta ondorioak ateratzeko.
2. Ziurgabetasuna	Probabilitatea ziurgabetasunaren neurri subjektibo gisa, eguneroko bizitzako egoeretan eta esperimenduak eginez ziurgabetasuna ezagutzeko.* Gertaera segurua, gertaera posiblea eta ezinezko gertaera: identifikazioa.* Bi gertaeraren probabilitatea: intuizioz konparatzea.*
3. Inferentzia	Bildutako eta analizatutako datuetatik abiatuta aieruak formulatzeko eta azterketaren testuinguruan zentzua emateko estrategiak.
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Kudeaketa emozionala: matematikaren aurreko norberaren emozioak estereotiporik gabe identifikatzeko eta aditzera emateko estrategiak. Ekimena eta tolerantzia matematikaren ikaskuntzan frustrazioaren aurrean.* Problema ebazteko egoeretan erabakiak hartzeko autonomia eta estrategiak.*
2. Talde-lana, inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Ikasgelan dauden desberdintasun indibidualen aurreko sentsibilitatea eta errespetua. Diskriminazio-jarrerak ingurune analogikoetan zein digitaletan: identifikazioa eta gaitzespena.* Talde-lanean aktiboki parte hartzea: entzute aktiboa eta besteen lanarekiko errespetua. Besteek matematikaren aurrean dituzten emozioak eta esperientziak ezagutzea eta ulertzea.* Giza jakintzen esparru desberdinek kulturaren eta generoaren ikuspegitik egiten duten ekarpenaren onespina.

Hirugarren zikloa.	
A. Zenbaki-zentzua	
1. Zenbaketa	Zenbaketa eta kontaketa sistematikorako askotariko estrategiak eta zenbaketa zenbakien tamainara egokitzeak eguneroko bizitzako egoeretan.*
2. Kantitatea	Zenbakien magnitude-ordena interpretatzeko eta manipulatzeko estrategiak eta teknikak.* Kantitateen zenbatespen eta hurbilketa arrazoiak problema ebazteko testuinguruetan.* Zenbaki positiboak eta negatiboak, testuinguru errealean erabiltzeko. Zenbaki arruntan eta milarenak arteko zenbaki dezimalen irakurketa, adierazpidea (zenbakizko zuzena eta material manipulatuak barne), konposizioa, deskonposizioa eta birkonposizioa.* Eguneroko bizitzako testuinguruetan kantitateak adierazteko zatikiak eta dezimalak, eta egoera edo problema bakoitzerako adierazpiderik onena hautatzeko estrategiak.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Hirugarren zikloa.	
3. Eragiketa-zentzua	Kalkulu mentaleko estrategiak, zenbaki arruntekin, zatikiekin eta dezimalekin.*
	Testuinguruan jarritako egoerak ebazteko erabilgarriak diren eragiketa sinpleak edo konbinatuak (batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa) ezagutzeko estrategiak.*
	Berretura faktore berdinen biderkadura gisa. Karratuak eta kuboak.
	Eragiketa aritmetikoak (zenbaki arruntekin, dezimalekin eta zatikiekin) malgutasunez eta zentzuz ebazteko estrategiak: buruz, idatziz edo kalkulagailuarekin; erabilgarritasuna testuinguruan kokatutako egoeretan, eta propietateak.*
4. Erlazioak	Hamar oinarriko zenbaki-sistema (zenbaki arruntak eta milarenak arteko zenbaki dezimalak): eragiketetan sortzen dituen erlazioen aplikazioa.*
	Zenbaki arruntak, zatikiak eta milarenak arteko zenbaki dezimalak eguneroko bizitzako testuinguruetan: konparazioa eta ordenamendua.*
	Eragiketa aritmetikoen arteko erlazioak: aplikazioa eguneroko testuinguruetan.
	Zatigarritasun-erlazioa: multiploak eta zatitzaileak.
	Zenbaki lehenak eta konposatuak.
	Zatiki sinpleen, dezimalen eta ehunekoen arteko erlazioa.*
5. Arrazobide proportzionala	Biderketaren eta berreturen arteko erlazioa (karratuak eta kuboak) eguneroko testuinguruetan.
	Egoera proportzionalak eta ez-proportzionalak eguneroko bizitzako problemetan: magnitudeen arteko biderketa-konparazio gisa identifikatzea.*
6. Finantza-hezkuntza	Eguneroko bizitzako proportzionaltasunaren, ehunekoen eta eskalen problemak ebazteko estrategiak: arrazoiaren arteko berdinketa, unitatera laburtzea, proportzionaltasun-koefizienteak...
	Kontsumo arduratsuekin (balioa/prezioa, kalitatea/prezioa eta preziorik onena) eta diruarekin (prezioak, interesak eta beherapenak) lotutako buruketak.*
B. Neurri-zentzua	
1. Magnitudea	Sistema metriko hamartarreko unitate konbentzionalak (luzera, masa, edukiera, bolumena eta azalera), denbora eta gradua (angeluak) eguneroko bizitzako testuinguruetan: unitate egokiak hautatzea eta erabiltzea.*
2. Neurketa	Luzerak, objektuak, angeluak eta denborak neurtzeko tresna (analogikoa edo digitala) eta unitate egokiak hautatzea eta erabiltzea.*
3. Zenbatespena eta erlazioak	Magnitude bereko neurriak konparatzeko eta ordenatzeko estrategiak, eguneroko bizitzako problemetan unitateen arteko baliokidetasunak aplikatuta (sistema metriko hamartarra).*
	Sistema metriko hamartarraren eta zenbaki-sistema hamartarraren arteko erlazioa.*
	Sistema hirurogeitarra, angeluak eta denbora zenbatesteko eta neurtzeko.
	Angeluen eta azalaren neurriak konparazioz zenbatestea.
	Neurketen eta neurrien zenbatespen edo kalkuluen emaitzen ebaluazioa, posibleak diren ala ez arrazoituta.*
C. Espazio-zentzua	
1. Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoak	Irudi geometrikoak eguneroko bizitzako objektuetan: elementuak eta horien arteko erlazioak kontuan harturik identifikatzea eta sailkatzea.*
	Irudi geometrikoak konposizioz eta deskonposizioz, material manipulagarrien, marrazketa-tresnen eta aplikazio informatikoen bidez eraikitze teknika.*
	Hiztegi geometrikoa, irudi geometrikoen elementuen eta propietateak hitzez egokiro deskribatzeko.*
	Irudi geometrikoen propietateak miatzeko material manipulagarriak (lauki-sareak, geoplanoak, polikuboak eta abar) eta tresna digitalak (geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua, hezkuntza-robotika eta abar).

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Hirugarren zikloa.	
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Lokalizazioa eta desplazamenduak planoetan eta mapetan, erreferentzia-puntuak (puntu kardinalak barne), norabideak eta distantzien kalkulua (eskalak) abiapuntu hartuta: hiztegi egokiarekindeskribatzea eta interpretatzea euskarri fisikoetan eta birtualetan.* Posizioak eta mugimenduak koordenatu kartesiarren sistemako lehen koadrantean.*
3. Mugimenduak eta transformazioak	Biraketa, translazio eta simetrien bidezko transformazioak eguneroko bizitzako egoeretan: transformaturako irudiak identifikatzea, hasierako patroietatik abiatuta sortzea eta material manipulatioekin eta tresna digitalekin emaitza iragartzea.* Antzekotasuna eguneroko bizitzako egoeretan: antzeko irudiak identifikatzea, hasierako patroietatik abiatuta sortzea eta emaitza iragartzea.
4. Bistaratze, arrazoibide eta modelizazio geometrikoa	Egoeretan irudi lauen azalerak eta perimetroak kalkulatzeko estrategiak.* Eredu geometrikoak beste zentzuekin erlazionaturako problemen ebazpenean.* Marrazketa-tresnak (konpasa eta angelu-garraigailua) eta geometria dinamikoko programak, propietate geometrikoen buruzko aieruak egiteko. Ideia eta erlazio geometrikoak artean, zientzietan eta eguneroko bizitzan.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Zenbaki, figura edo irudien bilduma batean erregularitasunetik abiatuta, terminoak identifikatzeko, adierazteko (hitzezkoa, taulak, grafikoak eta notazio asmatuak) eta arrazoituta iragartzeko estrategiak.* Erregularitasunetik edo beste patroia batzuetatik abiatuta, patroia errepikariak sortzea, zenbakiak, figurak edo irudiak erabilia.*
2. Eredu matematikoa	Modelizazio-prozesu analogikoa eta digitala, eguneroko bizitzako problematik abiatuta eta adierazpide matematikoa erabilia.*
3. Erlazioak eta funtzioak	Berdintasun- eta desberdintasun-erlazioak eta $<$ eta $>$ ikurren erabilera. Datu ezezagunak ebaztea (letra baten edo sinbolo baten bidez adieraziak), $<$, $>$, $=$ eta \neq ikurren bidez erlazionaturako adierazpen errazetan.*
4. Pentsamendu konputazionala	Algoritmo errazak (urrats ordenatuen sekuentziak, eskemak, simulazioak, patroia errepikakorrak, begiztak, instrukzio habiaratuak eta baldintzapekoak, adierazpide konputazionalak, bloke-programazioa, hezkuntza-robotika ...) interpretatzeko, aldatzeko eta sortzeko estrategiak.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Eguneroko bizitzako datu multzoak eta grafiko estatistikoak: deskribapena, interpretazioa eta analisi kritikoa.* Azterketa estatistiko errazak egiteko estrategiak, galderak formulatzeko eta zenbait esperimenteratik (inkestak, neurketak, behaketak...) datozen datu kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzeko, erregistratzeko eta antolatzeko. Maiztasun absolutu eta erlatiboen taulak: interpretazioa.* Grafiko estatistiko errazak (barra-diagrama, sektore-diagrama, histograma eta abar), datuak baliabide tradizionalen eta teknologikoen bidez irudikatzen eta egokiena hautatzeko.* Zentralizazio-neurriak (batezbestekoa, mediana eta moda): interpretazioa, kalkulua eta aplikazioa. Sakabanatze-neurriak (heina): kalkulua eta interpretazioa. Kalkulagailua eta beste baliabide digital batzuk, hala nola kalkulu-orrria, informazio estatistikoa antolatzen eta datuak zenbait modutan bistaratzeko. Haien irudikapen grafikoa abiapuntu hartuta, bi datu multzoren erlazioa eta konparazioa, aieruak formulatzeko, sakabanatzea analizatzeko eta ondorioak lortzeko.
2. Ziurgabetasuna	Ziurgabetasuna eguneroko bizitzako egoeretan: kuantifikazio eta zenbatespen subjektiboa, eta ausazko esperimentera errepikakorrean maiztasun erlatiboaren egonkortzea egiaztatzearen bidez.* Probabilitate-kalkulua Laplace-ren erregela aplikatu daitekeen esperimentera, konparazio edo ikerketetan: zenbaketa oinarriko teknikak.*
3. Inferentzia	Datu multzo bat multzo handiago baten lagin gisa: identifikazioa. Ikerketa estatistiko errazen ondorioak aplikatu dakizkiokeen populazioari buruzko gogoeta.*

Hirugarren zikloa.	
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Norberaren sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Autorregulazio emozionala: autokontzeptua eta matematikaren ikaskuntza genero-ikuspegitik. Matematikaren ikaskuntzarekiko jarraitutasuna eta erantzukizun-zentzua hobetzeko estrategiak.*
	Malgutasun kognitiboa, egokitzapena eta, behar izanez gero, estrategia-aldaketa. Errorea ikasteko aukera gisa baloratzea.*
2. Talde-lana, inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Besteek matematikaren aurrean dituzten emozioekiko eta esperientziekiko errespetua.
	Matematikan talde-lanerako kooperazio-teknika sinpleak, eta gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko, jokabide enpatiko eta inklusiboak sustatzeko eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasuna onartzeko estrategiak.
	Ezagutza matematikoei giza jakintzen esparruei kulturaren eta generoaren ikuspegitik egiten dieten ekarpena.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO JAKINTZAGAIAK

ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA

Egungo gizartearen bilakaera azkarra eta gizartearen arteko lotura anitzak direla eta, garatu beharko diren konpetentziak lagungarriak izango dira gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den errealitate garaikidearekiko konprometituta dagoen herritartasun independentea eta aktiboa praktikan jartzeko. Kultura demokratikorako konpetentzien erreferentzia-esparruak adierazten duenez, kultura askotarikoak diren egungo gizarteetan, prozesu demokratikoei kulturen arteko elkarrizketa behar dute. Beraz, hizkuntza desberdinetako komunikazioa funtsezkoa da kultura demokratiko hori garatzeko. Hezkuntzaren Europako Esparru baten ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeari esker, mugek ez dute hezkuntza eta prestakuntza oztopatzen, eta, aldi berean, nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen dira, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emateaz gain. Horrek ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu. Horrenbestez, gure hezkuntza-sistemak elebitasuna ziurtatzeko erronkari, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, komunikatzeko gai izango diren pertsona eleaniztunak lortzearen helburua gehitu behar diogu.

Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiak oinarritzko hezkuntza bukatzean ikasleen Irteera Profila osatu behar duten funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzen du; gainera, zuzenean parte hartzen du konpetentzia eleaniztunaren lorpenean, hau da, zenbait hizkuntza modu egokian eta eraginkorrean erabiltzeko konpetentzian, ikaskuntzarako zein komunikaziorako. Konpetentzia eleaniztunak, komunikazio-dimentsioa barnean hartzeaz gain, barne hartzen ditu ikasleek hizkuntza, belaunaldi, arte eta kulturaren arloko aniztasuna ezagutu, baloratu eta errespetatzera daramaten alderdi historikoak eta kulturartekoak, eta, horretarako, kulturarteko eta belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzen du, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzeko bitarteko gisa. Era berean, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeto moldatzeko eta atzerriko hizkuntzaren bidez bideratutako kulturetara iristeko, bai prestakuntza eta ikaskuntza-motor gisa, bai informazio- eta gozamen-iturri gisa. Jakintzagai honetan, ikaskuntza elementu garrantzitsuak dira, halaber, pentsamendu kritikoaren eta sormenezkoaren garapena, informazio-alfabetatzea eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua. Horrenbestez, jakintzagai hau hizkuntza-konpetentziarako eta konpetentzia eleaniztunerako lagungarria izateaz gain, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran funtsezkoak diren konpetentziak gara eta lor ditzaten laguntzen du.

Jakintzagai honek aukera ematen die ikasleei atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez eta modu egokian komunikatzeko eta beren hizkuntza-errepertorio individuala zabaltzeko. Hartara, haien esperientziak aprobetxatu ahal izango dituzte hobeto komunikatzeko haien familia-hizkuntzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan. Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izapena instrumentala kontuan izanik, agerikoa da hizkuntza-jakintzagaien gainerako jakintzagaien egiten dieten ekarpena. Izatez, hizkuntzen ikaskuntzaren oinarritzko xedea da etapa bakoitzeko berezko komunikazio-egoerarako egokiak diren askotariko testuak modu koherentean, kohesionatuan eta egokian ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, bizitzan zehar ikasteko oinarriak testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan finka daitezen. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak aztertzen eta ebazten ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea eta komunikazio-egoera bakoitzean egokiak diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Ikasleek, edukiakin batera, jakintzagai bakoitzaren adierazpen moduak ikasi behar dituztenez gero, behar-beharrezkoa izango da edukia eta hizkuntza integratzea. Ildo horretan, diziplinarteko lana —ikas-egoeren bidez planteatua— ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren diskurtso-generoak bereganatu ditzaten. Era berean, jakintzagai guztiek laguntzen dute ahozko eta idatzizko produkzio- eta hartze-prozesuen hobekuntzan, baita produkzio- eta hartze-prozesu multimodalaren hobekuntzan ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen bidez, aurrera egiten da Lehen Hezkuntzan eskuratutako konpetentzietan. Lehen Hezkuntzako konpetentzia

horiek izango dira etapa berri honetarako abiapuntua, eta ikasleen errepertorioetatik eta esperientzietatik abiatuta garatuko dira. Hori dela eta, ulermen, produkzio, interakzioa eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak eta -estrategiak zabaldu eta sakonduko dira. Etapa honetan, bitartekotza ulertzen da kontzeptuak azaltzera eta mezuak sinplifikatzera bideratutako jarduera gisa, betiere elkar ulertzea errazteko eta informazio transmititzeko xedez. Progresioak berarekin dakar, halaber, eginkizun handiagoa ematea honako alderdi hauei buruzko gogoetari: hizkuntzen funtzionamendua, erabilera egokiak eta desegokiak eta ikasleen errepertorio indibidualetako hizkuntzen arteko erlazioak. Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoaren barruan sartzen dira hizkuntza-, arte- eta kulturaaniztasuna baloratzea eta egokitzea, betiere ikasleek kulturarteko komunikazio-egoeretan modu enpatikoan eta asertiboan eta errespetuz jokatzeko ikas dezaten.

Jakintzagaiaren ebaluazio-irizpideek zehazten dute ikasleek erdietsitako konpetentzia espezifikoaren lorpen-maila; beraz, horiekin lotuta aurkezten dira. Konpetentzien formulazioan, ebaluazio-irizpideak planteatzen dira ikasleek lortu beharreko prozesua edo gaitasuna adieraziz eta prozesu edo gaitasun hori aplikatzeko eta erabiltzeko testuingurua edo modua adieraziz. Ebaluazio-irizpideen nibelazioa Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) oinarritzen da, baina Bigarren Hezkuntzako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora egokituta.

Oinarritzko jakintzek jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) batzen dituzte, eta irizpideen bidez ikaskuntzak ebaluatzea errazten dute. Hiru multzotan egituratzen dira. *Komunikazioa* multzoan biltzen dira ulermen, produkzio, interakzioa eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazio-iturrien bilaketarekin eta kontsultatutako iturrien kudeaketarekin lotutakoak barne—. *Eleaniztasuna* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotzen diren jakintzak biltzen ditu, atzerriko hizkuntza ikasten eta ikaslearen hizkuntza-errepertorioa hobetzen laguntzeko. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoan atzerriko hizkuntzaren bidez bideratzen diren kulturei buruzko jakintzak biltzen dira, eta aberasteko eta gainerakoekin harremanetan jartzeko aukera gisa baloratzen da. Multzo horretan sartzen dira, halaber, beste hizkuntza, hizkuntza-barrietate eta kultura batzuk ulertzeko eta balioesteko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak.

Europako Kontseiluak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezartzen dituen jardueretatik eta konpetenzietatik abiatuta planteatu dira curriculumeko elementuen ikuspegia, nibelazioa eta definizioa.

Jakintzagaiak ikaskuntza dinamiko eta jarraitua, malgua eta irekia bultzatzen du, ikaslearen inguruabarrerara, errepertorioetara, beharretara, emozioetara eta interesetara egokitu behar dena, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Espero da zenbait esparrutako berezko komunikazio-egoeretan oinarritzko jakintza guztiak aktibatuzko gai izatea, haren esperientzietatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzko testuetan edo garrantzi pertsonaleko gaiei edo interes publikoko gaiei buruzko testuetan oinarrituta —testu horiek Garapen Iraunkorreko Helburuekin eta XXI. mendeko erronkekin zerikusia duten alderdiak jasotzen dituzte—. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak planteatzen duen ekintzara bideratutako ikuspegiaren ildotik —metodologia eklektikoak erabiltzea sustatzen du—, curriculum honen konpetentziak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartuko dituzten tresna digitalak erabiltzera eta hizkuntzen tratamendu integratua aintzat hartuko duten eta testuinguruan kokatuko diren diziplinarteko zeregin adierazgarriak eta garrantzitsuak sortzera irakasleak gonbidatzen ditu. Ikasleak gero eta autonomoagoa izango den eta beren ikaskuntza-prozesuan gero eta ardura handiagoa duen eragile sozialtzat hartuko dira. Etaparen amaieran, komenigarria litzateke Europako programen esparruan nazioz haraindiko kolaborazio-proiektuak barne hartzea, parte-hartze aktibo eta erreala eta aurreiritzirik gabekoa izango duen europar herritartasun demokratikoaren erakuntza errazte aldera.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean eta garbi adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, hala nola esanahien inferentzia, betiere zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan horien edukia baloratzeko.

Ulermenak informazioa jasotzea eta prozesatzea esan nahi du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapan, ulermena komunikazio-trebetasun bat da, eta argi eta hizkuntza estandarra erabiliz adierazitako ahozko eta idatzizko testuetatik eta testu multimodaletatik abiatuta garatu behar da. Garrantzi pertsonaleko edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaiak jorratuko dira, baita Garapen Iraunkorreko Helburuekin zerikusia duten gaiak ere.

Maila honetan, ulermenak berarekin dakar testuak ulertu eta interpretatzea, eta haien zentzu orokorra eta xehetasunik garrantzitsuenak ateratzea, testuen komunikazio-beharrak asetze aldera. Horretarako, garapen psikoebolutiborako eta ikasleen premietarako egokienak diren estrategiak aktibatu behar dira, testuaren esanahiaren eta zentzuaren errepresentazioa berreraikitzeke eta testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko. Ikasleentzat erabilgarrienak diren ulermen-estrategien artean daude esanahiak inferitzea eta komunikazio-testuinguru berrietara estrapolatzea eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integratzea. Formatu multimodalean, ulermenak errepresentazio-forma desberdinen interpretazioa barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, eta abar), baita testuinguru-informazioarena (hizkuntzaz kanpoko elementuak) eta informazio kotestualarena (hizkuntza-elementuak) ere. Horiek guztiak testuaren asmoari eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzeke aukera ematen dute eta, beharrezkoa izanez gero, hipotesi alternatiboak planteatzeko aukera ematen dute.

Estrategia horiez gain, ulermenerako oso metodo erabilgarria da iturri fidagarrien bilaketa, analisi kritikoa eta aukeraketa —euskarri analogikoetan zein digitaletan—, aukera ematen baitu informazioa kontrastatzeko, baliozkotzeko eta sostengatzeko, eta testuetatik abiatuta ondorio garrantzitsuak lortzeko. Ulermeneta interpretazio-prozesuek komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, zehazki kolaborazioa, orotariko aurreiritzien eta estereotipoen identifikazio kritikoa eta desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturalekiko benetako interesa sustatuko duten testuinguruak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, KAKK2.

2. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testu originalak sortzea, hedapen ertainekoak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Produkzioak barnean hartzen ditu ahozko adierazpena zein idatzizkoa eta multimodala. Etapa honetan, produkzioak berarekin ekarri behar du garrantzi pertsonaleko edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaiei buruzko testuak sormenez, koherentziaz, egokitasunez eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerik gabe idaztea eta azaltzea, baita Eskola Agenda 2030ek sustatzen dituen Garapen Iraunkorreko Helburuei lotutako gaiak ere. Etapa honek zenbait formatu eta euskarritako produkzioak barne har ditzake: deskribapen edo pasadizo txiki baten azalpena, hedapen handiagoko aurkezpen formala, argudio simple bat, edo egitateak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak tresna digital eta analogikoen bidez adierazten dituzten testuak idaztea. Produkzioak berarekin dakar, halaber, Interneten informazio aurreratua bilatzea, dokumentazio-iturri gisa. Formatu multimodalean, berriz, produkzioak barne hartzen du esanahia sortzeko zenbait baliabide batera erabiltzea (idazketa, irudia, grafikoak, taulak eta diagramak, soinua, keinuak, eta abar) eta zereginaren eta beharren arabera egokiena hautatu eta aplikatzea.

Testugintzarekin lotutako jarduerak funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean, sozialean, hezkuntzakoan eta profesionalean, eta balio sozial eta zibiko zehatza lotzen da horiekin. Euskarri horietako produktiorik formalenen arloko trebetasuna ez da berez eskuratzen, izan ere, ikaskuntzaren emaitza da. Etapa honetan, produkzioak oinarriko alderdi formalen ikaskuntzan (alderdi linguistikoagoak, soziolinguistikoagoak eta pragmatikoagoak), erabilitako generoarekin lotutako ohiko itxaropen eta konbentzioen ikaskuntzan, produkzio-tresnen ikaskuntzan eta erabilitako euskarriaren ikaskuntzan oinarritzen dira. Produkzioa (formala nahiz informala) hobetzeko estrategien artean daude plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura, monitorizazioa, baliozkotzea eta konpentsazioa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD2, KPSII5, EK1, EK3, KAKK3.

3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko baten eraikuntza. Pertsonen arteko interakzioa jotzen da hizkuntzaren sorburutzat, eta funtzio interpersonalak, kooperatiboak eta transakzionalak barne hartzen ditu. Interakzioan sartuta daude hizkuntza-adeitasuna, etiketa digitala eta komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuak, baita ingurune sinkronoetako eta asinkronoetako —plataforma digitalek ematen dituztenen modukoak— erregistro eta genero dialogikoetarako egokitzapena ere —ahozkoetarako, idatzizkoetarako edo multimodaletarako—. Hezkuntzaren etapa honetan, ikasleek beren ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzea espero da, eta interakzioek eguneroko gaiak modu kritikoan eta sormenez jorratzea —garrantzi pertsonaleko gaiak izan edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikoko gaiak izan—, eta, horretarako, eduki sexistaren erabilera identifikatzea eta baztertzea.

Konpetentzia espezifiko hau funtsezkoa da ikaskuntzan, honako estrategia hauek barne hartzen baititu: hizkuntzen arteko transferentziak; kooperazio-estrategiak; elkarrizketa hasi, eutsi edo amaitzekoak; hitz egiteko txandak lagatzekoak eta hartzekoak; eta argitzea edo errepikatzea eskatzekoak. Gainera, hizkuntza-kortesia eta etiketa digitala gidatzen dituzten arauak eta printzipioak ikasi eta aplikatzearekin, ikaslea prestatuko da herritartasun demokratikoa, arduratsua, errespetuzkoa, segurua eta aktiboa burutzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KD3, KPSII3, HK3, KAKK3.

4. Hizkuntza desberdinen arteko edo hizkuntza beraren modalitate eta erregistroen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.

Bitartekotza hizkuntzaren jardura bat da eta honetan datza: mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzea eta errazago ulertaraztea zenbait strategiaren bidez, hala nola, birformulazioaren bidez. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardura izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan eraikitzea, hizkuntza desberdinen artean ezezik, hizkuntza beraren modalitate edo erregistroen artean ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bitartekotza hiru alderditan, oinarritzen da batik bat,. Batetik, hizkuntzak komunikazio-testuingurutik sortzen diren erronkak ebazteko tresna gisa duen rolean, komunikaziorako eta ikaskuntzarako espazio eta baldintza egokiak sortzen dituen heinean. Bestetik, bitartekotzak berekin dakar kooperazioa eta gainerakoek parte har dezaten sustatzea, esanahi berriak eraikitzeko eta ulertzeko. Azkenik, bitartekotzan aritzeak informazio berria behar bezala, arduraz eta modu eraikitzailean transmititzea dakar, betiere hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea saihestuz. Horretarako, baliabide konbentzionalak eta aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke edukiak

itzuli, aztertu, interpretatu eta partekatzeko. Etapa honetan, mezuak edo testuak eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak edo ikasleen esperientziatik hurbil dauden interes publikokoak.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoa garatzen laguntzen du; izatez, komunikazio eraginkorra lortze aldera, ikasleek beren erreperiario trebetasun eta estrategiarik egokienak aukeratzea dakar. Gainera, informazioa trukatzeko den ingurune kooperatiboetan norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazten du. Era berean, eskura dauden baliabideak aitortzea eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, eta, horrekin, solaskideen motibazioak, ideiak eta egoera pertsonalak ulertzea eta errespetatzea eta norberarekin harmonizatzea. Horregatik, espero da ikasleek enpatia, errespetua, espiritu kritikoa, sormenezko pentsamendua eta zentzu etikoa azaltzea, maila horretako bitartekotza zuzenerako funtsezko elementua den heinean.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, KAKK1.

5. Norberaren hizkuntza-erreperiarioa mobilizatzea eta erabiltzea, erreperiario hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzeaz jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-erreperiarioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarri baliagarriak direla hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko, eta esperientzia horiek lagungarriak zaizkiela beren hizkuntza-erreperiario eleanitza garatzeko eta aberasteko, baita jakin-min eta sentsibilizazio kulturala zabaltzeko ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan sakontzen dute eta beren erreperiario indibidualetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen dituzte; hizkuntza horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzen dituzte, erreperiarioa osatzen duten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabal dituzten. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako kompetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, eta, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarguneak eta gabeziak identifikatzen laguntzea, norberaren ezagutzeaz eta estrategiez jabetuta eta horiek esplizitu eginda. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, ziurgabetasunari aurre egiteko trebetasunak eta ekimenaren zentzua eta pertseberantzia garatzeko trebetasunak abian jartzea, helburuak lortu edo erabakiak hartze aldera.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna aberastan alderdi positibotzat hartzeko. Norberaren hizkuntza-erreperiarioan eduki berriak eraikitze-ko eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KPSII1, KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna modu kritikoan baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko.

Kulturartekotasunak gizartearen hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna esperimentatzea eskatzen du eta, horretarako, aniztasun hori aztertzea eta baliatzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, arreta berezia merezi du kulturartekotasunak, gainerakoekiko ulermena bultzatzen duen heinean. Izan ere, kulturartekotasunak ikasleen esperientziaren parte izan behar du, eta aniztasun horri buruzko pertzepzioak ez du estereotipoek desitxuratuta egon behar eta ez du diskriminazio mota jakin batzuen jatorri izan behar. Balorazio kritikoak eta aniztasunarekiko egokitasunak ikasleei aukera eman behar diete enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan.

Aniztasunaren kontzientziak kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kulturalaren garapena errazten du, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzeko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere. Etapa honetan atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan —adibidez, Europako programen esparruan— planteatu daitezkeen kulturarteko egoerei esker, ikasleak esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara ireki daitezke, eta desberdinekiko interesa erakuts dezakete; era berean, norberaren ikuspegia eta kultura-balioen sistema bera erlatibiza dezakete eta edonolako diskriminazioetan edo estereotipoen errefortzuan oinarritutako jarreretatik urrundu daitezke eta jarrera horiek saihestu ditzakete. Hori guztia bideratzen da iraunkortasunaren aldeko kultura partekatua eta herritartasun konprometitua garatzeko helburura, tokiko mailan nahiz maila globalean, baita balio demokratikoak garatzeko helburura ere.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
Etapa honetako lehen bi mailetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuek garrantzi pertsonaleko gaiei eta esperientziatik hurbil dauden ohiko eta eguneroko gaiei buruzkoak izan behar dute, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, hedabideen eta fikzioaren arloetakoak.	Etapa honetako hirugarren eta laugarren mailetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuek garrantzi pertsonaleko gaiei eta esperientziatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzkoak izan behar dute, pertsonen arteko harremanen, hedabide sozialen eta ikaskuntzaren arloetakoak, baita ikasleen heldutasun-mailaren arabera literatura-testu egokien arloetakoak.
1. kompetentzia espezifikoa	
1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodalak labur eta errazten zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako luzera ertaineko ahozko testuen eta testu idatzi eta multimodalak zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzea eta informazio egokia aukeratzea, berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.
1.2. Komunikazio-egoerarako egokienak diren estrategiak eta ezagutzak gidatuta hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko.	1.2. Gero eta konplexuagoak diren testuen edukia eta diskurtso-ezaugarriak interpretatzea eta baloratzea.
1.3. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzeko eta modu egokian eta seguruan gordetzeko eta berreskuratzeko oinarritzko estrategiak erabiltzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasan eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz.	1.3. Komunikazio-egoerarako egokienak diren estrategiak eta ezagutzak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, esanahiak inferitzeko eta hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzeko.
	1.4. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzeko eta informazio hori jabetza intelektuala arautzen duten egiletza-lizentzien arabera kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak erabiltzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasan eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz .
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu laburrak, errazak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, arintasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.	2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu errazak, egituratuak, ulergarriak eta koherenteak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, jariakortasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko, argudiatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
2.2. Testu labur eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta erabili ohi den lexikoa dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideei modu indibidualean edo kolektiboan jarraituz, tresna analogiko eta digitalen bidez.	2.2. Luzera ertaineko eta lexiko eta egitura aberatseko testuak antolatzea, idaztea eta hedatzea, argitasun, koherentzia, kohesio, zuzentasun eta sormen onargarriez eta proposatutako komunikazio-egoerara, testu tipologiara eta erabili ohi diren tresna analogiko eta digitaletara egokituz.
2.3. Testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko oinarrizko ezagutzak eta estrategiak modu gidatuan hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren arabera eta testuaren hartzaile izan daitezkeen solaskideen premien araberrako baliabide analogiko edo digital egokienak laguntzarekin erabiliz.	2.3. Testuak planifikatzeko, produzitzeko, berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko erabili ohi diren ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera egokienak diren baliabide analogikoak edo digitalak erabiliz, herritartasun digital zibiko eta gogoetsua burutuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkrono laburrak eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, errepikapena, erritmo lasaia edo hitzik gabeko hizkuntza gisako baliabideetan oinarrituta, eta hizkuntza-kortesiaren eta netiketaren aldeko enpatia eta errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.	3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak planifikatzea eta horietan parte hartzea eta kolaboratzea zenbait euskarriren bidez, ekimena, jarrera kritikoa, sormena, enpatia eta hizkuntza-kortesiaren eta netiketaren aldeko errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.
3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko eta argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko oinarrizko estrategia egokiak gidatuta eta ingurune hurbiletan hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.	3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, birformulatu, alderatu, kontrastatu, laburtu, kolaboratu, eztabaidatu, arazoak ebatsi, eta egoera konprometituak kudeatzeko erabili ohi diren estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea, ingurune analogiko eta digitalean.
3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.	3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta ingurune analogikoetan eta digitaletan sortzen diren gatazkak kudeatuz.
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, aniztasunari erantzun behar zaion eguneroko egoeraerazetan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoan konponketan parte hartzeko interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio gero eta luze eta konplexuagoak inferitzea eta azaltzea, aniztasunari erantzun behar zaion eguneroko egoeretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoan konponketan parte hartuz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.
4.2. Lagunduta, zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.	4.2. Zubiak sortzen laguntzen duten, komunikazioa errazten duten eta testuak, kontzeptuak eta mezuak azaltzeko eta sinplifikatzeko balioko duten estrategiak aplikatzea, komunikazio-asmoetara, testuinguruarenezaugarrietara eta testu tipologiara egokituak, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gidatuta gogoeta eginez.	5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak argudiatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.
5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogikoen eta digitalen laguntzaz.	5.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta gero eta hitz-jario, egokitzapen eta zuzentasun maila handiagoz komunikatzeko gaitasuna hobetuko duten estrategiak eta ezagutzak sormenez erabiltzea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogikoen eta digitalen laguntzaz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak gidatuta hautatuz eta autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarriko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (PEL) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapenak zehaztuz eta partekatuz.	5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta aztertzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak hautatuz eta ikaskuntzaren planifikaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (PEL) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen horiek zehaztuz eta partekatuz.
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1. Enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kultura arteko egoeretan —hala nola eTwinning plataformak emandakoetan—, hizkuntza eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan edonolako diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipoak baztertuz.	6.1. Egoki, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kultura arteko egoeretan —hala nola eTwinning plataformak edo Erasmus+ programak emandakoetan—, hizkuntza eta kulturen arteko loturak eraikiz, eguneroko komunikazio-testuinguruetan edonolako diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipoak baztertuz, eta komunikazioa eragozten duten faktore soziokulturaletarako irtenbideak proposatuz.
6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko hizkuntza-, gizarte-, kultura- eta arte-aniztasuna onartzea eta aniztasun horretara egokitzea, norbera aberasteko eta gozatzeko iturri gisa aitortuz eta iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten kultura- eta hizkuntza-elementuak partekatzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa kritikoki baloratzea eta horretara egokitzea, kultura partekatua eta iraunkortasunarekin, giza eskubideekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzen lagunduz.
6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna azaltzeko eta aintzat hartzeko oinarriko estrategiak gidatuta aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.	6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna defendatzeko eta aintzat hartzeko erabili ohi diren estrategiak aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarriko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
A. Komunikazioa
Ahozko testu laburren eta testu idatzi eta multimodal laburren edo luzera ertainekoen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko oinarriko estrategiak.*
Eguneroko egoera errazetan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarriko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako oinarriko komunikazio-funtzioak: agurtzea, agur esatea, aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaien buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak eta aginduak eman eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta errefusatzeko; gustua edo interesa eta oinarriko emozioak modu partzialan adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea, unean uneko egoerak deskribatzea, etorkizuneko egoerak adieraztea; iritzia, aukera, ahalmena, obligazioa eta debekua adieraztea.*
Garrantzi pertsonala duten eta esperientziatik hurbil dauden eguneroko ohiko gaien buruzko ahozko testu, testu idatzi eta testu multimodal labur eta errazak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko oinarriko testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, hedabideen eta fikzioaren esparruei dagozkienak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren araberrako antolaketa eta egituraketa.*
Oinarriko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, existentzia, kopurua eta kalitatea, espazioa eta espazio-erlazioak, modua, denbora eta denbora-erlazioak, aspektua eta modalitatea, konparazioa, baldintza (lehen hurbilketa), baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, oinarriko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak, sinonimoak...*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; hurbileko toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jarduera fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Oinarrizko konbentzio ortografikoak eta formatu, patroiei eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.*
Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.*
Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko oinarrizko estrategiak*
Egilea identifikatzeko estrategiak eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliagarritasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koproduktzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala— oinarrizko tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin modu seguruagoan ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza. Akatsa, hobetzeko tresna eta konpontzeko proposamen gisa.*
Oinarrizko komunikazio-behar jakin bati modu ulergarrian eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta barietateak alderatze-tik abiatuta.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta barietateak alderatze-tik abiatuta.*
Autoebaluazio eta koebaluazioko oinarrizko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, baita atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzekoak ere. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.*
Hizkuntzen arteko konparaziorako oinarrizko estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak norbereganzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza, pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bide, informazio-iturri eta norberaren aberastasunerako tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiez, oinarrizko ortografia-konbentzioak errespetatu eta testuen aurkezpena zainduz.
Atzerriko hizkuntzaren berezko oinarrizko kultura-patroiak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, generoaren analisitik; oinarrizko gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta etiketa digitala; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko oinarrizko estrategiak, balio ekosozialak eta demokrati-koak kontuan hartuta.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko oinarrizko estrategiak.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
Literatura-testuaren eta irakurketa balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatzeke, birsortzeke eta errezeitzeke estrategia errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta honek euskararen duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, nagusiak eta mendearen daudenak. Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Karta.
Euskal diasporak atzerriko hizkuntzaren eta euskararen arteko kontaktuan sortutako hizkuntza-erregistro berriak.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
A. Komunikazioa
Gero eta luzeagoak diren eta lexiko eta egitura aberatsagoak dituzten ahozko testuak, testu idatziak eta testu multimodalak planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko erabili ohi diren estrategiak.*
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako erabili ohi diren komunikazio-funtzioak: agurtzea eta agur esatea, aurkeztea eta nor bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak, lekuak, fenomenoak eta gertaerak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaien buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak, aholkuak eta aginduak ematea eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta ukatzea; gustua edo interesa eta emozioak modu partzialan adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea, gaur egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak enuntziatzea; iritzia, aukera, gaitasuna, obligazioa eta debekua adieraztea; argudio errazak adieraztea; hipotesiak eta suposizioak egitea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea; birformulaztea eta laburtzea.*
Garrantzi pertsonala duten eta esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaien buruzko ahozko testu eta testu idatzi eta multimodalak laburrak eta errazak ulertu, produzitu eta koproduzitzeko erabili ohi diren testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, gero eta luzeagoak eta lexikoan eta egituretan aberatsagoak izango direnak eta pertsonen arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren esparruei dagozkienak, baita ikasleen heldutasun-mailarako egokiak diren literatura-testuak ere: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera); testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren araberrako antolaketa eta egituraketa.*
Hizkuntza-unitateak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, kopurua, gradazioa eta kalitatea, existentzia, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak, modua, konparazioa, emaitza, baldintza, zeharkako estiloa, aspektu puntuala; iraupeneko; ohikoa; hasiera ematekoa; amaiera ematekoa eta modalitatea: faktikotasuna, ahalmena, aukera/probabilitatea, beharra, obligazioa, baimena, asmoa eta modalitatea, baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak eta sinonimoak.*
Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jardueraren fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola-sistema eta prestakuntza.*
Erabili ohi diren soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroien horien lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Erabili ohi diren konbentzio ortografikoak eta formatu, patroien eta elementu grafikoen lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.*
Erabili ohi diren konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.*
Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak.
Jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua eta kontsultatutako iturrien eta erabilutako edukien baliagarritasuna, kalitatea, gaurkotetasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koproduktzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala— erabili ohi diren tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioaren plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, kolaborazioaren tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza eta ekimena. Errorea, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.*
Komunikazio-behar jakin bati gero eta arintasun, egokitzapen eta zuzentasun handiagoz eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako kompetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabili ohi diren estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabili ohi diren estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluazio, koebaluazio eta autokonponketarako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, baita atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzekoak ere. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko ideiak trukatzeko erabili ohi diren lexiko eta esamolde espezifikoak.*
Hizkuntzen arteko konparaziorako estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak, ingurune analogiko eta digitaletan. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza, pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bide, informazio-iturri eta parte-hartze sozialerako eta norberaren aberastasunerako tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiez, erabili ohi diren ortografia-konbentzioak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.
Atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-patroiak, erabili ohi direnak.*
Erabili ohi diren eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, generoaren analisitik; erabili ohi diren gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko lurralde-banaketa, kultura, arauak, jarrerak, ohiturak eta balioak.*
Erabili ohi diren estrategiak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko erabili ohi diren estrategiak.*
Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatzeke, birsortzeke eta errezeitatzeko estrategia errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta honek euskararen duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, nagusiak eta mendean daudenak. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta.
Euskal diasporak atzerriko hizkuntzaren eta euskararen arteko kontaktuan sortutako hizkuntza-erregistro berriak.

BALIO ZIBIKO ETA ETIKOETAKO HEZIKETA

Balio zibiko eta etikoetako heziketa ezinbesteko baldintza da herritartasuna ingurune analogiko eta digitaletan aktiboki eta arduraz bizitzeko, baita ikasleen identitate pertsonala eta autonomia morala gara-

tzeko ere. Ez dago zalantzarik bi asmo horiek elkarrekin lotuta daudela, ezinezkoa baita herritartasun demokratikoa modu aktibo eta arduratsuan gauzatzea konpromiso etiko pertsonal, aske eta sendorik —printzipio eta balio jakin batzuekin— gabe. Horregatik, beharrezkoa da balio zibiko edo etikoen heziketan etika filosofikoak bultzatzen duen moral indibidual eta kolektiboari buruzko ariketa gogoetatsu eta kritiko hori egitea.

Oro har, eta oinarrizko irakaskuntzaren amaieran ikasleen hezkuntza-helburuekin eta irteeraprofilarekin bat etorritik, balio zibiko eta etikoetan hezteak berekin dakar ikasleei beren identitate pertsonalaz eta kulturalaz jabetzeko aukera ematen dieten ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak mugiaraztea, funtsezko gai etikoei aurre egitea, eta jarrera sortzailea bultzatzea, eta aldi berean, beraien bizitzak inguruneari dagokionez duen izaera interkonektatu eta ekomendekoarekin bat etortzea. Hori guztia, bere nortasunaren eraikuntzari buruz eta gizarte aske, plural, justu eta baketsu batean bizikidetzara arautzen duten arau eta balioei buruz hausnartu ahal izateko.

Bigarren Hezkuntzako lehen mailan derrigorrez ematen den jakintzagai honek Lehen Hezkuntzako Balio Etikoak eta Zibikoak jakintzagaiari jarraipena ematen dio. Horregatik, Lehen Hezkuntzan bezala, Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa jakintzagaiak funtsezko konpetentzia guztiak garatzen laguntzen du. Sarrera honetan aurrerago ikus daitekeenez, funtsezko konpetentzia guztiak, deskriptore operatiboan bidez, jakintzagai horri dagozkion konpetentzia espezifiko batekin edo batzuekin lotzen dira. Gure kasuan, lotura global hori gorabehera, jakintzagai honekin lotura berezia duten funtsezko bi konpetentzia daude: herritartasunerako konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa; horrek funtsezko bi konpetentzia horiek garrantzi berezia hartzea eragiten du, konpetentzia espezifiko guztiekin erlazionatuz.

Arlo honek etapako gainerako arloekin duen loturari dagokionez, Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa lotura garrantzitsua da jorratzen diren ezagutzen artean. Gai etiko-filosofiko nagusietara hurbiltze gogoetatsu eta dialogikoak ikaskuntza-prozesu esanguratsuei eta diziplinarteko ikusmoldeari mesede egiten dien ikuspegia ematen du. Bestalde, herritartasun aktiboa eta Garapen Iraunkorreko Helburuen garapena sustatzen ditu; bertan, beste hainbat balorearen artean, etengabeko ikaskuntza barne hartzen da. Gainera, balio erantsia ematen dio horietako bakoitzari: arlo bakoitzean lantzen diren oinarrizko jakintzei buruzko hausnarketa kritikoa.

Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa jakintzagaia lau konpetentzia espezifikoren bidez garatzen da. Konpetentzia horiek jarraitutasuna dakarte, baina baita Lehen Hezkuntzan landutakoaren sakontze- eta garapen-maila handiagoa ere. Lehenengo konpetentzia espezifikoa autoezagutzan eta autonomia moralaren garapenean zentratzen da (KPSII eta EK). Bigarrena bizikidetzako gizarte-esparrua ulertzeari eta esparru hori arautzen duten printzipio, balio eta arauetako konpromiso etikoari lotua dago (HK, KAK, KE). Hirugarrena ingurunearen iraunkortasunarekin bateragarriak diren jarrerak hartzeari buruzkoa da, eta ingurunearekiko gure elkarren mendekotasuna eta ekomendetasuna ulertzetik abiatzen da (STEAM, HK). Eta laugarrena, zeharkakoagoa eta emozioen hezkuntzara bideratua, sentsibilitatea eta afektuen kontzientzia eta kudeaketa garatzeaz arduratzen da, balio eta arazo etiko, zibiko eta ekosozialei buruzko hausnarketaren esparruan (KPSII, HK, KD). Lehen hezkuntzan bosgarren konpetentzia espezifiko bat gehitzen zen. Konpetentzia hori bigarren hezkuntzan desagertu egiten da, pentsamendu konplexuaren zimendatzea berariaz lantzen baitu. Alderdi hori etapa honetan ez da modu espezifikoan lantzen, baina ikasleen hausnarketa-prozesuetan egon behar du.

Era berean, konpetentzia espezifiko horietako bakoitza bi maila integratutan hedatzen da: bata teorikoa-goia, modu labur eta sinplean jakintzagaiaren kontzeptu eta gai garrantzitsuenak modu esanguratsuan ulertzeraz zuzenduko dena; eta bestea, bere zentraltasunagatik, ikasgelako errealitatean denbora gehiago hartzen duena, praktikoa edo instrumentala, hausnarketa kritikoa eta argudiozko elkarriketaren bidez bizikidetzara arautzen duten balio etiko, zibiko eta ekosozialekin bat datozen jokabideak eta jarrerak sustatzera bideratua.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, hauek lau konpetentzia espezifikoetako bakoitzari zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostikorako eta hobekuntzarako tresnatzat hartu behar dira horiek eskuratzetik espero den jardun-mailari dagokionez. Ebaluazio-irizpideek konpetentzia-ikuspegi argia dute, eta ikas-

kuntza-prozesuei eta -produktuei erreparatu behar diete. Horretarako, hainbat ikastetestuingurutara eta -egoeratarara egokitu daitezkeen askotariko ebaluazio-tresnak erabili behar dira.

Jakintzagaiaren oinarrizko jakintzak hiru multzotan banatzen dira.

- Autoezagutza eta autonomia morala: helburua da ikasleak gonbidatzea pertsona gisa eratzten eta bereizten duen horri buruzko ikerketara, haien emozioen eta desioen kudeaketa sustatuz, baita norberaren helburuei eta motibazioei buruzko deliberazio arrazionala ere. Autodeterminazio-ariketa honek, garrantziko gai etiko batzuei aurre egiten die, pertsona eta herritar gisa gure ekintzak bideratzen dituzten balioen, printzipioen eta arauen inguruko hausnarketaren bidez.
- Gizartea, justizia eta demokrazia: ikasleek pertsona gisa duten identitatearen erro soziala eta kulturala ulertzea da helburua, horrela, kide diren gizarte-egituren eragina aitortuz. Horretarako, ikasleek gogoeta eta elkarrizketa bidez egin behar diote aurre arau eta balio komunengatik inguruko eztabaida ideologikoari. Asimilazio hori guztia egungo zibilizazio-krisiaren gaurko arazo etikoei buruzko elkarrizketan egiaztatzea behar da, baita eskolan eta eguneroko ingurunean prozedura eta balio demokratikoak txertatuz ere.
- Garapen iraunkorra eta ingurumen-etika: diziplinarteko lanaren bidez eta pentsamendu sistemikoa landuz, gure bizimoduaren eta ingurune sozial eta naturalaren arteko elkarrekintza zehazten duten elkarren mendekotasun, interkonexio eta ekomendetasuneko erlazioen oinarrizko ulermena lortu nahi da.

Bai ebaluazio-irizpideen aplikazioak, bai gainerako ikaskuntza-jarduerak metodologikoki orientatuta egon behar dute, jakintzagaiak helarazi nahi dituen balioekin koherenteak izango diren printzipioen arabera. Horrela, ikasleei gonbidapena egingo zaie parte-hartze aktibo eta arrazoitua izan dezaten, beti zalan-tzatik abiatzen den errespetuzko eta lankidetzako elkarrizketa izan dezaten, ideiak askatasunez adieraz ditzaten, pentsamendu kritiko eta autonomoa izan dezaten, bizikidetzarako beharrezkoak diren arauak eta balioak errespetatu ditzaten, gatazkak modu baketsuan aztertu eta ebatz ditzaten, bizi-ohitura osasun-garriak eta jasangarriak gara ditzaten, ikastetxean eta ingurune hurbilean ekintza sortzaileak eta eraldatzaileak proposa eta gauzatu ditzaten, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua egin dezaten, eta emozioen eta besteekiko eta ingurunearekiko harreman afektiboak kudeaketa asertiboa izan dezaten. Hau ezinbestekoa da ikasgelako jarduerak ikasleentzat esanguratsuak diren eta ikastetxearen eta bere ingurunearen bizitzan integratuta dauden ikastetestuinguru eta -egoeretan integratzen saiatuz, horien guztien bitartez XXI. mendeko erronkekin konprometituta dagoen herritartasun kontziente, aske, arduratsu eta parte-hartzailearen garapena sustatu ahal izateko ingurune analogiko eta digitaletan.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-praktikan txertatuta egon daitezkeen, eta beharrezkoa denean eredu artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexual-afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste dimentsio kultural batzuekin alderaketan, beharrezkoa izanez gero. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta pentsamendu erreflexiboa, eta sormen-ekintza eraldatzailea garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

1. Norberaren nortasunari eta norberaren bizi-proiektuari buruzko gai etikoei dagokien guztia miaztea eta ikertzea, horri buruz hausnartzeko jarrera sortuz, autoezagutza sustatzeko eta planteamendu eta iritzi moralak modu autonomoan eta arrazoituan eraikitzeke.

Autoezagutzaren ariketa pentsamendu etikora bideratzen gaituen lehen eskakizunetako bat da. Eginkizun horren helburu nagusia da ikasleek, beren bizipenetik, gizakia arrazionaltasun, nahi-izate eta afektuz hornitua izatea bezala ezaugarritzen duten nolakotasun eta dimentsioez jabetzea, bere izaeraren eta berau ahalbidetzen eta baldintzatzen duten inguruabar sozial, historiko eta kulturalen arabera. Hau da,

kontzientzia hartzea niaz, beren gizarteaz eta beste izaki bizidun batzuekin partekatzen duten planetaz. Gizakiaren esentziaren inguruko ikerketa horren ondorioz, sortzen da ikasleak bere buruari buruz egiten duen galdera —galdera hori erabakigarria da, zalantzarik gabe, nerabe baten garapen psikologiko, emozional eta moralerako—; eta, amaitzeko, gizabanako gisa duen rol sozialari buruz galdetzen du, betiere problematika den bizitza komunitarioaren eta ingurunearekiko harremanen esparruan.

Azken helburua da ikasleek askatasunez eta kritikoki, jakintza etikoaren oinarritzko kontzeptu eta prozeduren ezagutza eta erabilera egokitik abiatuta, beren bizi-proiektuaren mende dauden baliojudizioak eta beren helburu pertsonal eta profesionalak lortzen ikastea. Konpetentzia espezifikoko horren ezaugarriak direla-eta, konpetentzia hori garatzeko ikasleen hizkuntza-gaitasunean arreta berezia jarri beharko da. Horretarako, arloaren komunikazio-hizkuntzaren berezko hizkuntzaegiturak, testu-egiturak eta terminologia landu beharko dira, eta, era berean, ikasleen hizkuntzaadierazpenak errespetatu, hartu, ikusarazi eta balioetsi beharko dira, hauek gaitasuna garatzen eta lortzen laguntzeko erabiliz.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KD1, KPSII1, HK1, HK2, HK3.

2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorritz, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometitua sustatzeko duten garrantziaren aitortpen oinarritutik abiatuz, arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza komunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuan aplikatzeko.

Arau eta balio zibiko eta etikoak kontuan hartzeak, lehenik eta behin, gure izaera historiko eta soziala aitortzea dakar, baita etikaren eta politikaren izaerari buruzko gogoeta egitea ere. Bigarrenik, aintzat hartu behar da ikasleak errespetuzko bizikidetzarako beharrezkoak diren printzipio eta balioekin konprometitutako herritarrak direla. Testuinguru sozial eta politikoaren ezagutza kritiko horrek, tokitik globalera, ikasleengan kontzientzia egokiagoa sustatu behar du, modu aktiboan eta arduratsuan, eta kontzeptuzko eta prozedurazko tresna egokien bidez, egungo arazo etiko larrienei aurre egitera behartuta dauden herritar gisa duten eginkizunaren garrantziaz.

Herritartasun aktiboaren praktika, neurri handi batean, eskola-bizitzaren inguruan hasten da; horregatik da hain garrantzitsua arazo etikoak identifikatzea eta konpontzea, baita arau, balio eta prozedura demokratikoak ezartzea ere, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo dauden hezkuntza-jarduera fisiko edo birtual guztietan. Elkarrizketa kooperatiboak bizikidetzak egokia eraikitzeko orduan dituen onurak azpimarratu behar dira hemen, gure erreferentziazko esparru zibiko eta etikoa osatzen duten printzipio eta balioei buruzko hausnarketaren bidez. Aldi berean, funtsezkoa da sistema sozio-ekonomikoak bultzatzen dituen balioak (indibidualismoa, kontsumismoa, lehiakortasuna...) eta etika ekosozial berri baten balioak (kooperazioa, erantzukizuna, berdintasuna, zaintza, jasangarritasuna...) kritikoki eta genero-ikuspegiarekin aztertzea, gure erreferentziazko esparru zibiko eta etikoa osatu behar duten printzipio eta balioei zor zaien errespetua aitortzeko eta pizteko.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KD3, KD5, HK1, HK2, HK3, HK4, KAKK1.

Planeta finitu baten mugak eta gure bizimoduek elkarren artean eta ingurunearekiko dituzten elkarren mendekotasun, ekomendetasun eta interkonexioko harreman-sistemikoak ezagutzea planetaren jasangarritasunarekiko eta zaintzarekiko konpromiso etikoaren aurreko urratsa da. Ondorioz, bizitza eta bizitzari buruzko hausnarketa giza jarduera eta eskola-jarduera ororen erdigunean jartzera behartzen du horrek.

Hurbilketa hori, alde batetik, ikasleen inguruneko errealitate ekosozialaren azterketa kritikoaren bidez egin daiteke, bukaeran, egungo erronka eta arazo ekosozialak aztertzeko. Bestetik, ingurunea errespetatzeko eta zaintzeko jarrera konprometitua izateak esan nahi du ikasleek ohiturak garatu behar dituztela, eta eguneroko ekintzak edo eraldaketa ekosozialeko ekintzak proposatu eta gauzatu behar dituztela, NBEk definitutako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzeko. Ekintza horien artean honako

hauek daude: oinarrizko ondasun komunen hondakinen eta mugikortasunaren kudeaketa jasangarria, ingurumen-legeekiko konpromiso etiko eta zibikoa, kontsumo arduratsuen sustapena, natura-ondarearen zaintza, aniztasun etniko-kulturalaren errespetua, komunitateari zerbitzua ematea eta animalien babesa, baita tokiko errealitateak ikuspegi ekosozialetik eraldatuko dituzten ekintza berritzaileen proposamena eta gauzatzea ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.

Norberarekiko, besteekiko eta naturarekiko jarrera afektibo egokiak aitortzea eta adieraztea da hezkuntza emozionalaren helburu nagusia, eta hori ezinbestekoa da pertsona orekatuak eta besteekin eta haien ingurunearekin harreman asebetekak eta egokiak izateko gai diren pertsonak prestatzeko. Horretarako, ikasleek emozioen eta sentimenduen esparru konplexua behar bezala ezagutzen, interpretatzen, baloratzen eta kudeatzen hasi behar dute, genero-rolen eraginaz jabetuz, oinarrizkoenetatik konplexuenera, bai izaera positiboa dutenetatik ez dutenetara. Aintzatespen horretan, naturarekiko kontaktua eta konexioa berreskuratzea ezinbestekoak dira.

Helburua da ikasleek beren emozioak ezagutzen, ebaluatzen eta kudeatzen ikastea, baita besteenak ulertzea eta errespetatzea ere, emozioen esanahiei buruz hausnartuz, beren sorreran dauden balioak, sinismenak eta ideiak kontuan hartuz, eta giza ekintza eta esperientzia zintzoenetako batzuei dagokienez duten eginkizuna haztatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK1, HK3, KAKK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Balio zibiko eta etikoetako heziketa	
1. konpetentzia espezifikoa	<p>1.1 Norberaren eta bere dimentsio zibikoaren eta moralaren kontzeptu egokia eraikitzea, bere izaeraren eta nortasunaren dimentsio anitzak aitortuz, giza izaeraren eta gizon edo emakume izateko moduen inguruko zalantza filosofikoen, ikerketaren eta elkarrizketaren bidez.</p> <p>1.2 Autonomia moralaren maila nahikoa lortzea eta adieraztea, deliberamendu arrazionala, oinarrizko kontzeptu etikoen erabilera eta besteekiko errespetuzko elkarrizketa erabiliz, balio eta bizimodu desberdinen inguruan, baita ingurune analogiko eta digitaletan eskubide indibidual eta kolektiboekin, sareen erabilera arduratsu eta seguruarekin, mendekotasun-jokabideekin, erasoekin eta eskola-jazarpenarekin zerikusia duten arazoengatik inguruan ere.</p>
2. konpetentzia espezifikoa	<p>2.1 Ingurune analogiko eta digitaletan herritartasun aktiboa eta demokratikoa sustatzea, sormenezko prozedurak eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuz erabaki kolektiboak hartzean, ekintza koordinatuak planifikatzea eta arazoak konpontzea eskatzen duten talde-jardueretan errespetuz, elkarrizketa bidez eta modu eraikitzailean parte hartuta.</p> <p>2.2 Guztien ongirako konpromiso aktiboa sortzen laguntzea, ikasleengandik hurbil dauden eta gaurkotasuna duten gai etikoen inguruko jarrera aztertuz eta arazoituz eta elkarrizketaren bidez jorratuz.</p> <p>2.3 Genero-berdintasun eraginkorraren aldeko borroka eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren arazoak jabetzea, desparekotasuna, indarkeria eta genero-arrazoiengatik diskriminazioa eta sexu-orientazioa aztertuz, eta LGTBQ+ eskubideak ezagutuz eta horiek errespetatzeko beharra aitortuz.</p> <p>2.4 Gizarte-ongizateari aktiboki laguntzea, jarrera propioa, esplizitua, informatua eta etikoki oinarritua hartuz eskubideen eta betebeharren balioari eta egokitasunari buruz, aniztasun etnokulturalarekiko errespetuari buruz eta tokiko eta munduko ondasun publikoak aintzat hartzeari buruz.</p>
3. konpetentzia espezifikoa	<p>3.1 Planetaren mugak eta gure bizitzaren eta ingurunearen arteko interkonexio, elkarren mendekotasun eta ekomendetasuneko harremanak ulertzea, Lurreko bizitzari eragiten dioten arazo ekosozial larrienen kausak eta ondorioak aztertuz.</p>

Ebaluazio-irizpideak. Balio zibiko eta etikoetako heziketa	
	3.2 Garapen iraunkorra lortzeko etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea, bere kabuz eta bere ingurunean baliabideen, hondakinen eta mugikortasunaren kudeaketa jasangarrian, bidezko merkataritzan, kontsumo arduratsuan, naturaondarearen zaintzan, aniztasun etniko-kulturalarekiko errespetuan eta animalien zaintza eta babesean engaiatuz.
	3.3 Klima-larrialdiari eta ingurumen-krisiari aurre egiteko hainbat planteamendu zientifiko, politiko eta etiko baloratzea, horiei buruzko azalpenaren eta argudio-eztabaidaren bidez.
4. konpetentzia espezifikoa	4.1 Emozioak, estimua eta norberaren eta besteen zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak modu asertiboan identifikatuz, aztertuz eta adieraziz, eta inguruko emozioak hainbat testuingurutan aitortuz eta baloratuz, sormenezko jardueren eta gai etiko eta zibikoei buruz banaka edo elkarrizketa bidez hausnartzeko jardueren inguruan.
	4.2 Autoestimua beste pertsona batzuekin harmonian garatzea, emozioak, afektuak eta desioak identifikatuz, kudeatuz eta komunikatuz, besteei errespetuz eta enpatiaz, harreman afektibo eta afektibo-sexualek izan behar dutenaren kontzeptu egokia sortuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Balio zibiko eta etikoetako heziketa
A. Autoezagutza eta autonomia morala
Identitate pertsonala eta giza izaera. Identitatearen eraikuntzan parte hartzen duten faktoreak* Generoestereotipoak identitatearen eraikuntzan. Autonomia eta heteronomia.
Zalantzan jartzea norbere burua ezagutzeko eta ezagutzeko modu gisa*. Galdera motak: galdera filosofikoa.*
Autoestimu pertsonala. Emozioen identifikazioa eta kudeaketa, eta horiek ingurune analogiko eta digitaletako portaera indibidual eta kolektiboetan duten eragina.* Harreman afektibo eta sexualak.
Erresilientzia eta emozioen egokitzapena hainbat errealitatetara. Suizidioa prebenitzeko plana.
Ikerketa etikoa eta arazo konplexuen ebazpena. Planteamendu kritikoa eta filosofikoa.
Etika eta moralak. Etika gure ekintzen gidari gisa*. Etika aplikatuak. Ikerketa zientifikoaren helburuak eta muga etikoak.
Balioen inguruko hausnarketa: unibertsalismoa eta erlatibismo morala. Zoriontasunaren etikak, betebeharren etikak eta bertutearen etikak.
Arauek eta horien jatorria*. Ohitura eta konbentzio kulturalak. Arau moralak, legalak eta sozialak.
Desioak eta eskubideak. Borondatea eta judizio morala. Autonomia eta erantzukizuna. Askatasuna eta moralitasuna.
B. Gizartea, justizia eta demokrazia
Emakumeen eta gizonen berdintasuna*. Jokabide sexistak eta ez-sexistak. Emakumeak gizartean diskriminatzen dituzten egoerak. Erantzunkidetasuna etxeko lanetan eta zaintza-lanetan.
Genero-rolak eta horien agerpena gizartearen eta kulturaren esparru guztietan*. Genero-identitatea eta LGTBIQ+ eskubideak.
Kultura eta kulturak. Multikulturalismoa*. Gizarteratzea eta aniztasunarekiko eta identitate etniko-kulturalarekiko errespetua.
Gizartearen izaera eta jatorria: lehia eta kooperazioa, berekoikeria eta altruismoa. Gizarte-egiturak eta kide diren taldeak.
Justizia. Desparekotasuna eta injustizia toki-testuinguruan eta testuinguru globalean: arrazoiak eta hobetzeko proposamenak. Bidezko merkataritza. Zergen balio soziala.
Legezketasuna eta legitimitatea*. Moralitasunaren eta legezketasunaren arteko gatazka. Kontzientziaobjektzioa.
Indarkeria eremu pertsonalean eta sozialean. Indarkeriaren ondorioak eta erreparazioa. Autodefentsa.
Eskubide eta betebeharrak indibidual eta kolektiboak eta adierazpen-askatasunaren inguruko eztabaida*. Umorea eta bere mugak.
Elkarrizketaren bertuteak eta argudiatze-arauek*. Gatazken konponketa elkarrizketaren bidez ingurune analogiko eta digitaletan.

Oinarrizko jakintzak. Balio zibiko eta etikoetako heziketa
Konpromiso zibikoa eta herritarren partaidetza. Elkartegintza eta boluntarioritza. Testuinguru hurbilean antolatze eta erabakiak hartzekomoduak*. Espazio publikoa.
C. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika
Planetaren mugak eta giza ekintzen aztarna ekologikoa*. Klima-larrialdia. Arazo ekosozialen inguruko hainbat planteamendu etiko, zientifiko eta politiko.
Bizi-ohitura iraunkorrak: baliabideen eta mugikortasunaren kudeaketa*. Kontsumo arduratsua*. Elikadura eta kontsumoa. Energia-eredufosila eta energia berriztagarri eta garbiak.
Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunak eta planeta errespetatzea, babestea eta zaintzea.
Ardura ekosozial indibiduala eta kolektiboa. Lokala eta globala. Arazo ekosozial lokal eta globalei irtenbideak.
Gaur egungo erronka eta arazo ekosozialak tokiko ingurunean eta ingurune globalean.
Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetaren errespetua, babesa eta zaintza.
Erantzukizun ekosozial indibiduala eta kolektiboa. Tokiko arazo ekosozialei eta arazo ekosozial globalei alternatibak.

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

Biologia eta Geologia herritarren prestakuntza kulturalari laguntzen dioten oinarrizko diziplina zientifikoak dira. Gure ikasleak gai biologiko edo geologiko askorekin lotuta bizi dira eta biziko dira, hala nola klima-aldaketa, giza genoma, minbizia, gaixotasun infekziosoak, biodibertsitatea, flora eta faunaren babesa, Marten ura, meatze-, energia-, basogintza- eta arrantza-baliabideak, garapen iraunkorra, arrisku naturalak (sumendi-erupzioak, uholdeak, etab.), isuri kutsatzaileak, izurriteak... Biologia eta Geologia jakintzagaia da biderik egokiena ikasleek izaera biologiko eta geologikoko gaitan prestakuntza hobea izan dezaten lortzeko, bizi diren mundua hobeto ulertzen laguntzeko eta, beraz, euren garapenerako eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko beharrezkoa duten alfabetatze zientifikoa eskuratzeko.

Biologia eta Geologia jakintzagaia Fisika eta Kimika jakintzagaiarekin batera landuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan. Igarobide gisa ezartzen da Natura Zientzien jakintzagaiaren tratamendu globalizatzailearen eta Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika jakintzagaien diziplina-tratamenduen artean, hirugarren eta laugarren mailetan.

Biologia eta Geologia jakintzagaiaren curriculum-garapenak ikasleei irteera-profila lortzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako zehaztutako funtsezko kompetentziak eta etapa-helburuak garatzen laguntzen du. Hau da, jakintzagaiak ematen dituen ikaskuntzetatik abiatuta, komunikazioa, sormena eta espiritu ekintzailea, teknologia digitalaren erabilera sortzailea eta kritikoa, kooperazioko eta kolaborazioko lan-ohiturak eta ezagutza zientifikoaren diziplinarteko lanean erabilera partekatua eskuratzen eta garatzen dituzte ikasleek.

Biologia eta Geologia jakintzagaiko funtsezko ikaskuntzak kompetentzia espezifikoz, horien ebaluazio-irizpidez eta oinarrizko eta ezinbesteko jakintza gisa formulatutako edukiez osatzen dira (*).

Jakintzagai honetako kompetentzia espezifikoek irteera-profilean definitutako funtsezko kompetentzien deskriptore operatiboak lotuta dituzte. Kompetentzia espezifikorik honela laburbildu daitezke: informazio zientifikoa aurkitzea eta kritikoki ebaluatzea; informazio zientifikoa interpretatzea eta transmititzea, eta informazio horri buruz argudiatzea; proiektuak planifikatzea eta garatzea; problemak ebaztea; osasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ekimenak sustatzea; eta paisaiaren elementuak aztertzea.

Ebaluazio-irizpideek kompetentzien garapen-maila neurtzeko aukera ematen dute, eta irakasleak horiek modu malguan konekta ditzake irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan jakintzagaiaren jakintzekin, ikasleen jardunaren ikuspegi objektiboa lortuz.

Biologia eta Geologia jakintzagaiak ezagutza zientifikoari dagozkion ezagutzak, trebetasunak eta jarre-erakusten ditu, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jakintzagai guztiak garatzen laguntzen du:

hipotesiak eta argudioak sortzea, datu eta emaitza esperimentalak interpretatzea, kontsumo arduratsuko jarrerak sustatzea, bizi-kalitatea hobetzea, eta jarduera zientifiko eta teknologikoak ingurumenean duen eragina jakitea eta kritikoki aztertzea.

Oinarrizko jakintzak modu konpetentzian landu behar dira, jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoaren garapenarekin lotuta eskura daitezkeen beti. Bestela esanda, oinarrizko jakintzak konpetentzia espezifikoak lantzeko bitartekoak dira, baina baita ikasleek eskuratu behar dituzten zientzia biologiko eta geologikoei buruzko gutxienezko ezagutzak ere.

Etapako azken bi ikasturteetan, oinarrizko jakintza horiek zazpi multzotan antolatzen dira:

- “Proiektu zientifikoak: ikasleei pentsamenduaren eta metodo zientifikoaren inguruko sarrera egiten die. Multzo hau zeharkakoa da etapako azken bi ikasturte hauetan.
- “*Zelula*”: bertan, mikroskopiaren eta luparen bidez hainbat lagin behatzeko tekniken azterketa barne hartzen da.
- “*Geologia*”: bertan, besteak beste, prozesu geologikoen azterketa, arroken eta mineralen identifikazioa, Lurraren historia geologikoa eta paisaiaren aldaketak lantzen dira.
- “*Giza gorputza eta ohitura osasungarriak*”: giza anatomia eta fisiologia, eta ohitura osasungarrien garrantzia aztertzen ditu.
- “*Osasuna eta gaixotasuna*”: izaki bizidunen osasunarekin lotutako alderdi onuragarri eta kaltegarri batzuk jorratzen ditu, baita haien ikerketak planetaren bizi-kalitateko duen garrantzia ere.
- “*Genetika eta eboluzioa*”: ezagutza horiek aplikatzen direneko legeak, mekanismoak, teoriak eta problemen ebazpena aztertzen ditu.
- “*Lurra unibertsoan*”: unibertsoaren jatorriari buruzko teoriak, hipotesiak eta ikerketa nagusiak biltzen dituzte.

Laburbilduz, derrigorrezko hezkuntzaren azken bi ikasturteetan Biologia eta Geologiaren ikuspegiak tratamendu esperimental eta praktikoa bat barne hartu behar du, ikasleen esperientzia arlo akademikoetik haratago zabaltzeko eta eguneroko egoerekin loturak egiteko aukera emateko. Horrek nabarmen lagunduko du ikasle guztiek zientziaren berezko trebetasunak gara ditzaten, beharrezkoak baitira ondorengo hezkuntza-etapetan ibilbide zientifikoetan jarraitzeko edo ibilbide ez-zientifikoak egin nahi dituzten ikasleei oinarri zientifiko osatua emateko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, bere egiazkotasuna egiaztatuz, jarrera kritikoz antolatuz eta baloratuz, zientzia biologiko eta geologikoekin lotutako galderak ebazteko.

Ikerketa zientifikoak jakintza berriak eskuratzea dakar berekin, eta jakintza horiek hainbat iturritako informazio garrantzitsua bilatuz, hautatuz eta bilduz hasten dira, ikaskuntza horren oinarri kognitiboak ezartzeko.

Oinarri zientifikoak duten datuak eta informazioak, batzuetan, gezurrekin, funtsik gabeko gertaerekin eta uste sasizientifikoekin nahasita egoten dira (komunikabideak, sare sozialak, etab.). Beraz, ezinbestekoa da alfabetatze zientifikoak, zentzu kritikoa eta informazioa ebaluatze eta sailkatze beharrezko trebetasunak garatzea, eta fidagarritasun zalantzarikoko iturriak ezagutzea eta bereiztea, bai testuinguru analogikoetan, bai digitaletan.

Horregatik, konpetentzia espezifiko horrek ikasleak prestatzen ditu etorkizunean eurek autonomia profesionala eta pertsonala izateko, baita gure gizartea mundu bidezkoago eta jasangarriago baterantz eralda dezaketen jarrerak sustatzeko ere.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD5 eta KPSII4.

2. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruz argudiatzea, hainbat formatu erabiliz eta hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala aitortuz, zientzia biologiko eta geologikoen kontzeptuak eta prozesuak aztertzeke.

Ikerketa zientifiko oso gutxitan erdiesten da subjektu isolatuen lanaren ondorioz; aitzitik, gizabanakoen eta erakundeen arteko informazio-trukea eta kooperazioa eskatzen ditu, baita herrialdeen artekoa ere batzuetan.

Ikerketa zientifikoko prozesu orok azterketa-arloko argitalpenen bilketa eta analisi kritikoarekin hasi behar du, eta ezagutza berriak lehendik daudenen gainean eraiki behar dira.

Horrela, ikasleek gizartean aktiboki parte hartzeko, gero eta hobeto ulertu behar dira azken aurkikuntzak eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak, horien arabera jarrera kritikoz interpretatzeko eta baloratze-ko komunikabideetan aurkitzen duten informazioa; hartara, ondorio propioak atera, erabaki koherenteak hartu eta komunikazio-elkarrekintza konstruktiboak ezarri ahal izango dira. Horretarako, arrazoibide oinarritua eta errespetuzkoa malgutasunez erabiliko da norberaren ikusmoldeak aldatzeko, beste solaskide batzuek emandako datuak eta jarrerak kontuan hartuta.

Konpetentzia espezifikoa hori garatzeko arreta berezia jarri beharko da ikasleen hizkuntza-gaitasunean, hizkuntza zientifikoaren berezko terminologia erabiliz.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4

3. Ikerketa-proiektuak planifikatzea eta garatzea, zientziaren berezko metodologiaren urratsei jarraituz eta, beharrezkoa denean, kooperatuz, zientzia geologiko eta biologikoekin zerikusia duten alderdiak ikertzeke.

Metodologia zientifikoak naturarekin eta gizartearekin zerikusia duten galderei eta arazoei erantzuteko erabiltzen den lan-sistema dira. Lan zientifiko osatzen duten prozesuek zentzua hartzen dute ikasleen edo haien ingurunearen errealitatearekin lotutako proiektu batean integratzen direnean.

Proiektu bat garatzeko, besteak beste, ekimena, jarrera kritikoa, ikuspegi orokorra, planifikatzeko gaitasuna, baliabide materialen eta pertsonalen mobilizazioa, argudiatzea eta sormena behar dira, eta ikasleei aukera ematen die arazoak konpontzeko autoezagutza eta konfiantza lantzeko, eskura dituzten baliabideetara eta dituzten mugetara, ziurgabetasunetara eta erronketara egokituz.

Era berean, proiektu zientifikoak sortzeko eta horietan parte hartzeak aukera ematen die ikasleei oso baliagarriak izan daitezkeen trebetasunak lantzeko, ez bakarrik esparru zientifikoan, baita ikasleen garapen pertsonalean, profesionalean eta euren parte-hartze sozialean ere. Konpetentzia espezifikoa horretan STEM konpetentziaren eta funtsezko beste konpetentzia batzuen elementu guztiak nahasten dira. Hori dela-eta, ezinbestekoa da ikasleei lan-modalitate horrek ematen duen sormen- eta hazkunde-aukera eskaintzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2, KD3, KPSII3 eta EK3.

4. Arrazoibidea eta/edo pentsamendu konputazionala erabiltzea, erantzunak eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa balitz, biologiarekin eta geologiarekin loturako problemak ebazteko edo biologiarekin eta geologiarekin lotutako eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.

Zientzia biologikoak eta geologikoak diziplina enpirikoak dira, eta askotan arrazoibide logiko-matematikora jotzen dute ereduak sortzeko, gaiak eta problemak ebazteko eta lortutako emaitzak edo soluzioak

baliozkotzeko. Hipotesien planteamenduak, datuen eta emaitzen interpretazioak edo diseinu esperimentalak pentsamendu logiko-formala eta sortzailea aplikatzea eskatzen dute.

Era berean, ohikoa da zenbait zientzia enpirikotan, hala nola biologia molekularrean, eboluzioan edo tektonikoan, errealitatearen zeharkako ebidentziak lortzea, eta horiek logikaren arabera interpretatu behar dira prozesu biologiko edo geologiko baten ereduak ezartzeko.

Konpetentzia espezifikorik horren bidez, ikasleek problemak eta prozesuak ebazteko trebetasunak izango dituzte, eta lortutako emaitzak modu arrazoituan eta kritikoa aztertuko dituzte, bizitzako egoeretan aplikatzeko.

Konpetentzia espezifikorik hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD5, KPSII5 eta EK1.

5. Ekintza jakin batzuek ingurumenaren eta osasunaren ondorioak aztertzea, biologiararen eta Lurraren zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.

Zorionez, ekintza jakin batzuek ingurumenaren eta gure osasunaren egoera hobetzen lagundu dezakete epe laburrean eta luzean. Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da ikasleek beren gorputzaren funtzionamendua ezagutzeko eta, ebidentzia zientifikoen arabera, garapen iraunkorra premiazko helburua eta gizartearen ongizate, osasun eta aurrerapen ekonomikoaren sinonimoa dela ulertzea eta argudiatzea — 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko 17 Helburuetan jasotakoak—.

Baliabide naturalak ez dira beti berriztagarriak, eta hala direnen kasuan, askotan, erabiltzeko moduaren ondorioz, haien kontsumo-tasak nabarmen gainditzen du haien berritze-tasa. Gizakiaren jarduerak habitata suntsitzea, klima globala aldatzea eta biodibertsitatea murrizten ari diren substantzia xenobiotikoak erabiltzea dakar maiz, eta, horrela, azken 50 urteotan, fauna basatiaren eta planetako landarediaren zati handi bat desagertu da. Aldaketa horiek guztiek arriskuan jar lezakete gizakien gizartearen eta planetaren egonkortasuna, gaur egun ezagutzen dugun moduan.

Azken helburua zera da, hezkuntza-sistemaren bitartez, babestu ahal izateko eta gure planeta XXI. mendeko herrialde garatuetan ohikoak diren joera kaltegarrietatik babesteko behar den zentzu kritikoa duten herritarrak lortzea, eta horrela planetaren osasuna eta bizi-kalitatea indartzea.

Konpetentzia espezifikorik hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1.

6. Paisaia jakin bateko elementuak aztertzea, natura ondare gisa baloratuz, eta geologiari eta Lurraren zientziei buruzko ezagutzak erabiliz haien historia geologikoa azaltzeko, haiek babesteko ekintzak proposatzeko eta balizko arrisku naturalak identifikatzeko.

Fenomeno natural jakin batzuk askoz sarriago gertatzen dira planetako eremu zehatzetan, erliebe-forma jakin batzuekin lotuta daude edo aldizkakotasun jakin batekin gertatzen dira, eta, beraz, aurreikus daitezke, errore-tarte handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Konpetentzia espezifikorik honek esan nahi du ikasleek beharrezkoak diren ezagutzak eta espiritu kritikoa garatuko dituztela arlo jakin bati lotutako arrisku geologikoa aitortzeko eta giza bizitzak, azpiegiturak edo natura- eta kultura-ondarea arriskuan jartzen dituzten hirigintzaedo baso-praktika jakin batzuk gaitzes-teko jarrera hartzeko. Ikasleek egoera problematikoei edo irakaskuntza-ikaskuntza testuinguruan planteatutako gaiei egin beharko diete aurre, eta horietan arrisku natural posibleak eta horien aurrean jarduteko moduak aztertu beharko dituzte. Konpetentzia espezifikorik horren helburua da ideal horiek, hezkuntza-sistemaren bidez eskuratuak, gizartean txertatzea, eta, horrela, herritartasun kritikoa, ingurumenarekin konprometitua eta arrisku natural saihesgarrien eraginpean ez egoteko irizpide nahikoa duena eraikitzea, gizadi osoari mesede eginez.

Konpetentzia espezifikorik hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1,STEM2, STEM4, STEM5, KD1, HK4, EK1 eta KAKK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Hirugarren maila	Laugarren maila
1. kompetentzia espezifikoa	
1.1. Biologia eta Geologia jakintzagaiaren jakintzekin lotutako gaiak ebaztea, informazioa lokalizatuz, hautatuz eta antolatuz, hainbat iturri analogiko eta digital zuzen erabiliz eta aipatuz.	1.1. Gaiak ebaztea eta Biologia eta Geologia jakintzagaiaren jakintzekin lotutako alderdietan sakontzea, hainbat iturri analogiko eta digitaletako informazioa lokalizatuz, hautatuz, antolatuz eta kritikoki aztertuz, eta jabetza intelektuala errespetuz aipatuz.
1.2. Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, konspirazio-teorietatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta mezu horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz.	1.2. Biologia eta Geologia jakintzagako jakintzekin lotutako gaiak buruzko informazioaren egiazkotasuna egiaztatzea, iturri fidagarriak erabiliz, oinarri zientifikorik gabeko informazioekiko —hala nola sasizientziak, konspirazio-teoriak, funtsik gabeko sinesmenak, gezurrak, etab.— jarrera kritiko eta eszeptikoa hartuz.
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1 Biologia eta Geologia jakintzekin lotutako kontzeptuak definitzea, eta, fenomenoak eta prozesuak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (eredu grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.	2.1 Biologia eta Geologia jakintzekin lotutako kontzeptuak definitzea, etaprosesuak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (eredu grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz, ondorioak eskuratuz eta oinarritutako iritzi propioak osatuz.
2.2 Biologia eta Geologia jakintzagaiaren jakintzekin lotutako informazioa argi eta garbi komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).	2.2 Norberaren iritzi oinarrituak eta Biologia eta Geologia jakintzagaiaren jakintzekin lotutako informazioa ulertzea eta horiei buruz hausnartzea, eta informazio hori argi eta zorrotz transmititzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...).
2.3 Fenomeno biologikoak eta geologikoak aztertzea eta azaltzea, eta ereduak eta diagramak bidez adieraztea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz.	2.3 Fenomeno biologikoak eta geologikoak aztertzea eta azaltzea, ereduak eta diagramak diseinatuz eta eginez, eta, beharrezkoa denean, ingeniartzako diseinuaren urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, arakatzea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.
3. kompetentzia espezifikoa	
3.1 Erantzun edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz, fenomeno biologikoak eta/edo geologikoak azaltzen saiatuz eta horiei buruzko iragarpenak eginez.	3.1 Erantzun edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz, fenomeno biologikoak eta/edo geologikoak azaltzen saiatzeko eta horiei buruzko iragarpenak egiteko.
3.2 Esperimentazioa, datu-bilketa eta fenomeno biologiko eta geologikoen analisia diseinatzea, galdera zehatzei erantzutea eta planteatutako hipotesi bat kontrastatzea ahalbidetuz.	3.2 Esperimentazioa, datu-bilketa eta fenomeno biologiko eta/edo geologikoen analisia diseinatzea, galdera zehatzei erantzutea eta planteatutako hipotesi bat kontrastatzea ahalbidetuz.
3.3 Fenomeno biologiko eta geologikoei buruzko esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen erabiliz.	3.3 Fenomeno biologiko eta geologikoei buruzko esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna edo teknika egokiak zuzen eta zehatz erabiliz.
3.4 Ikerketa-proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.	3.4 Ikerketa-proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea eta aztertzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz, ondorio arrazoituak eta oinarrituak lortzeko edo hori egitea ezinezkoa dela balioesteko.
3.5 Proiektu zientifiko baten barruan kooperatzea, eginkizun zehatz bat arduraz hartuz, beharrezkoa denean espazio birtualak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.	3.5 Beharrezkoa denean, proiektu zientifikoaren faseetan kolaboratzea, efizientzia handiagorik lan egiteko, ikerketako kooperazioaren garrantzia baloratuz, aniztasuna errespetatuz eta ingurune analogiko eta digitaletan sartzen lagunduz.

Hirugarren maila	Laugarren maila
3.6 Esperimentazioaren eta eremuaren behaketaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).	3.6 Esperimentazioaren eta eremuaren behaketaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak argi eta zorrotz aurkeztea, formatu egokia (taulak, grafikoak, txostenak, etab.) eta tresna digitalak erabiliz.
3.7 Zientziak gizarteari egiten dion ekarpena eta zientzian diharduten pertsonen lana baloratzea, emakumeen zeregina nabarmenduz eta ikerketa etengabe eboluzionatzen ari den lan kolektibo eta diziplinarteko gisa ulertuz.	3.7 Zientziak gizarteari egiten dion ekarpena eta zientzian diharduten pertsonen lana baloratzea, emakumeen zeregina nabarmenduz eta ikerketa etengabe eboluzionatzen ari den lan kolektibo eta diziplinarteko gisa ulertuz, testuinguru politikoak eta baliabide ekonomikoek eraginda.
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1 Problema ebaztea eta prozesu biologiko edo geologikoak azaltzea, ezagutzak, datuak eta informazioa, arazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo baliabide digitalak erabiliz.	4.1 Problema ebaztea edo prozesu biologiko edo geologikoak azaltzea, eskainitako ezagutzak, datuak eta informazioa, arazoibide logikoa edo baliabide digitalak erabiliz.
4.2 Fenomeno biologiko eta geologikoei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, ezagutza eta irizpide zientifikoak erabiliz eta, beharrezkoa denean, berriz formulatuz.	4.2 Fenomeno biologiko eta geologikoei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, eta erabilitako prozedurak edo ondorioak aldatzea, baldin eta soluzio hori bideragarria ez bada, edo geroago emandako datu berriak agertzen bada.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Zenbait ekintzak ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzia biologiko eta geologikoen oinarriak aplikatuz.	5.1 Eremu geografiko batean gerta daitezkeen arrisku naturalak eta giza ekintza jakin batzuek bultzatutakoak identifikatzea, haien ezaugarri litologikoak, erliebea eta landaredia kontuan hartuz.
5.2. Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, ingurune izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea, oinarri eta irizpide zientifikoak erabiliz.	
5.3. Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak modu kritikoa aztertuz eta norberaren arazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.	
5.4. Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higieena, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), jarrera kritikoa erakutsiz eta fisiologiaren funtsetan oinarrituz.	
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1. Paisaiak natura-ondare gisa duen garrantzia baloratzea, paisaia osatzen duten elementuen hauskortasuna aztertuz.	6.1. Erliebe baten historia geologikoa ondorioztatzea eta azaltzea, haren elementu garrantzitsuenak identifikatuz eta arazoiketa eta oinarritzko printzipio geologikoak erabiliz (horizontaltasuna, gainjartzea, aktualismoa, neokatastrofismoa, ebaketa...).
6.2. Paisaia diferentetan arrisku naturalak eta giza ekintza jakin batzuetatik eratorritakoak identifikatzea, norberaren arazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.	6.2. Arrisku naturalak identifikatzeko erabiltzen diren teknika eta tresna berritzaileak ezagutzea, ikerketak eguneroko eta etorkizuneko bizitzan duen garrantziaz hausnartuz eta argudiatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

DBHko 3. mailako oinarrizko jakintzak	
A. Proiektu zientifikoa	
Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak:*	Galdera, hipotesi eta aieru zientifikoak. Informazioa bilatzeko, kolaboraziorako eta hainbat formatutan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...) prozesuak, emaitzak edo ideiak komunikatzeko tresna digitalak. Informazio zientifikoko egiazko iturriak. Lan-ekipoak, tresnak eta espazioak (laborategia, ikasgelak, ingurunea...), esperimentazio zientifiko baterako egokiak/beharrezkoak. Fenomeno naturalak behatzeko eta horiei buruzko datuak hartzeko metodoak. Naturako prozesu edo elementuak sormenez irudikatzeko eta ulertzeko ereduak Emaitzen analisi-metodoak pentsamendu logiko eta/edo konputazionalaren bidez. Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko aldea. Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...).
Zientzialari handien ekarpena zientzia biologiko eta geologikoen garapenean.*	
B. Giza gorputza eta ohitura osasungarriak	
Zelula giza gorputzaren egitura-unitate eta unitate funtzional gisa*. Giza histologia.*	
Nutrizio-funtzioaren garrantzia, funtzio horretan parte hartzen duten aparatuak eta hauen oinarrizko fisiologia.* Dieta osasungarri eta ekoarduratsu baten berezko elementuen eta ezaugarrien identifikazioa.*	
Ugalketa-funtzioa.* Ugaltze-aparatuaren oinarrizko anatomia eta fisiologia.* Sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei buruzko gogoeta, eta preserbatiboaren eta praktika sexual arduratsuen bidez prebenitzearen garrantzia.*	
Erlazio-funtzioa: zentzumen-hartzaileak, koordinazio-zentroak eta organo efektoreak.*	
Galdera eta problema praktikoen ebazpena, nutrizioko, erlazioko eta ugalketako funtzioetan inplikaturik dauden organismo-ko sistema eta aparatu nagusien fisiologiako eta anatomiako ezagutzak aplikatuta.*	
Osasun fisikoa, mentala eta soziala kontserbatzera bideratutako ohiturak (loaren higieena, jarrera-ohiturak, teknologia berrien erabilera arduratsua, ariketa fisikoa, estresaren kontrola...).	
Ehunak bereizteko mikroskopioa eta lupa erabiltzeko eta tindatzeko teknikak.*	
C. Osasuna eta gaixotasuna	
Gaixotasun infekziosoak eta ez-infekziosoak, etiologiaren arabera.*	
Gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta tratatzeko neurriak, eragile kausalaren arabera, eta antibiotikoen erabilera egokiari buruzko hausnarketa.*	
Patogenoak organismoan sartzea zailtzen duten hainbat oztopo mota (mekanikoak, egiturazkoak, biokimikoak eta biologikoak).*	
Organismoa agente patogenoen aurrean defendatzeko mekanismoak (kanpoko oztopoak eta immunitate-sistema) eta gaixotasun infekziosoen prebentzioan eta haiek sendatzen betetzen duen zeregina.*	
Txertaketak gaixotasunen prebentzioan eta gizakien bizi-kalitatearen hobekuntzan duen garrantzia.*	
Transplanteen eta organo-emateen garrantzia.*	
Drogek osasunean dituzten eragin kaltegarriak (legezko eragina dutenak barne).	
Osasunaren eta gaixotasunaren inguruko ikerketarekin lotutako teknika zientifiko berritzaileak.	
D. Geologia	
Geosferaren oinarrizko egitura. Planeten / Eguzki Sistemako osagaien egitura orokorra.*	
Atmosferaren, hidrosferaren, geosferaren eta biosferaren arteko elkarrekintzak edafogenesian eta erliebearen modelatzea eta horrek bizitzarako duen garrantzia. Bizitza beste planeta batzuetan.*	
Geodibertsitatea eta horrek planetaren jasangarritasunean duen garrantzia.*	
Euskadiko interes geologikoko lekuak.*	

DBHko 4. mailako oinarrizko jakintzak	
A. Proiektu zientifikoa	
Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak.*	Galdera, hipotesi eta aieru zientifikoak.
	Informazioa bilatzeko, kolaboraziorako eta hainbat formatutan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...) prozesuak, emaitzak edo ideiak komunikatzeko tresna digitalak.
	Informazio zientifikoko egiazko iturriak.
	Lan-ekipoak, tresnak eta espazioak (laborategia, ikasgelak, ingurunea...), esperimendazio zientifiko baterako egokiak/beharrezkoak.
	Fenomeno naturalak behatzeko eta horiei buruzko datuak hartzeko metodoak.
	Naturako prozesu edo elementuak sormenez irudikatze edo ulertzeko ereduak
	Emaitzen analisi-metodoak pentsamendu logiko eta/edo konputazionalaren bidez. Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko aldea.
	Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...).
Zientzialari handien ekarpena zientzia biologiko eta geologikoen garapenean.*	
B. Zelula	
Ziklo zelularren faseak: identifikazioa eta analisia.*	
Mitosiaren, meiosiaren eta bere faseen funtzio biologikoa.*	
Mikroskopioa erabiliz, mitosiaren fase diferentek behatzeko trebetasunak eta tindaketa teknikak.	
C. Genetika eta eboluzioa	
DNAren eta RNAren egituraren eredu sinplifikatua eta haren funtzio eta sintesiarekiko lotura.*	
Adierazpen genikoaren eta kode genetikoaren ezaugarrien etapak eta horiekin lotutako problemen ebazpena.*	
Mutazioen, DNAren erreplikazioaren, eboluzioaren eta biodibertsitatearen arteko erlazioa.*	
Teoria eta prozesu ebolutiboak: teoria neodarwinista eta garrantzi historikoa duten beste teoria batzuk (Lamarck, Darwin eta Margulis).*	
Fenotipo eta genotipo kontzeptuak.*	
Karaktere genetikoaren herentziaren inguruko problema sinpleak ebazteko estrategiak, gene batekin edo birekin dominantzia- eta azpirakortasun-erlazioarekin.*	
Sexuaren eta karaktere genetikoaren herentzia problema sinpleak, kodominantziarekin, dominantzia osatugabearekin, alelismo anizkoitzarekin, eta sexuari lotuta, gene batekin edo birekin*	
D. Geologia	
Geosferaren egitura eta dinamika eta horiek aztertze metodoak.*	
Geosferaren dinamikaren efektu globalak plaken tektonikaren bidez.*	
Kanpoko eta barruko prozesu geologikoak, eta natura-arriskuekin duten loturaren argudiaketa, giza ekintzek bultzatutakoak barne.*	
Lurraren historiaren azterketaren printzipioak aplikatuz islatzen diren ebaketa geologikoen eta historia geologikoaren trazaduraren interpretazioa (horizontaltasuna, gainjartzea, elkargunea, fauna-segida...)*	
Geologiaren arloko teknika eta tresna berritzaileak.	
E. Lurra unibertsoan	
Unibertsoaren eta eguzki-sistemaren osagaien jatorria.*	
Lurreko bizitzaren jatorriari buruzko hipotesiak.*	
Astrobiologiaren arloko ikerketa nagusiak.	

EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-erakundearen helburu nagusietako bat da bi hizkuntza koofiziale-tan elebidunak diren ikasleak lortzea. Hori dela eta, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaietako curriculum integratua diseinatzean, ikasle guztiek, derrigorrezko eskolatzea amaitzean, euskara eta gaztelania behar bezala eta eraginkortasunez menderatzen eta erabiltzen dutela bermatu nahi da, ahaztu gabe konpetentziak eskuratzeko prozesua desberdina izango dela familia-hizkuntza gisa ikasi edo bigarren hizkuntza gisa ikasi. Helburu hori lortze aldera, eskolak euskararen erabilera sustatu behar du, eta haren normalizazioa bultzatu behar du, gizartean eta hizkuntzaren aldetik presentzia orekatua izan dezan. Gainera, euskara euskal kulturaren ezaugarri nagusia izanik, ezin da ez garatu ez ikasi dagokion kultura-testuinguruaz kanpo, kulturek gizarte-loturak ezartzeko gaitasuna baitute, eta kulturen adierazpenek komunitateen kohesioa errazten baitute.

Bi jakintzagaiak curriculum bakar batean integratzearen helburu nagusia hizkuntza-ikaskuntzak erren-tagarri egitea da. Curriculum integratu horrekin, irakasleek metodologia aktiboetan oinarritutako progra-mazio adostua prestatu behar dute, ikasleei beren hizkuntza-ikaskuntzak transferitzen laguntzeko eta beren komunikazio-konpetentzia eleaniztuna ahalik eta gehien garatzen laguntzeko. Horretarako, kon-petentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpide partekatuak erabiliko dira, baita hizkuntzen artean banatu-tako (eta/edo errepikatutako, beharrezkoa izanez gero) oinarritzko jakintzak ere. Ezinbestekoa izango da irakasleak koordinatzea, hizkuntzen irakaskuntzari elementu komunetatik ekin diezaioten, eta, zeregin horretan, bi hizkuntzak desberdintzen dituzten alderdiak kontuan hartzea eta bi hizkuntzen arteko errespetuari eta begiruneari eustea.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaiak bideratzen dira komunikazioaren eraginkortasunera, gogoeta eta ezagutza berriaren eraikuntzara eta hizkuntzaren erabilera etikora, non hitzak jarriko diren bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura, gatazken elkarriketa bidezko kudeaketaren zerbitzura eta pertsona guztien eskubide-berdintasunean eta errespetuan oinarritutako lotura pertsonal eta sozialen zerbitzura, genero-ikuspegiari eta erabilera ez-sexistari arreta berezia eskainiz. Hartara, jakintzagaiak lagunduko dute ikasleek, oinarritzko hezkuntzaren amaieran, izan behar duten irteera-pro-filean jasotako konpetentzia guztiak garatzen.

Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izaera instrumentala kontuan izanik, agerikoa da gainerako jakin-tzagaiei egiten dieten ekarpena. Izatez, hizkuntzen ikaskuntzaren oinarritzko xedea da etapa bakoitzeko berezko komunikazio-egoerarako egokiak diren askotariko testuak modu koherentean, kohesionatuan eta egokian ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, bizitzan zehar ikasteko oinarriak testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan finka daitezten. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak aztertzen eta ebazten ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea baita komu-nikazio-egoera bakoitzean egokiak diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Ikasleek, edukiekin batera, jakintzagai bakoitzaren adierazpen moduak ere ikasi behar dituzte; hartara, hizkuntza-jakintzagaien garapenak gainerako jakintzagaien garapena dakar. Horrenbestez, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretan, diziplinarteko lana, ikas-egoeren bidez planteatua, ezinbestekoa izango da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak beregana ditzaten. Era berean, jakin-tzagai guztiek laguntzen dute ahozko eta idatzizko produkzio- eta hartze-prozesuen hobekuntzan, baita produkzio- eta hartze-prozesu multimodalaren hobekuntzan ere. Horri dagokionez, eskolako liburutegia funtsezko pieza da, bai kultura-gune gisa, bai ikerketa- eta ikaskuntza-gune gisa, bai baliabide-, presta-kuntza- eta koordinazio-gune nagusi gisa.

Hamar konpetentzia espezifikoak osatzen dute Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura curri-culumaren ardatza. Lehen konpetentzia bideratzen da Euskal Herriko, inguruneko eta munduko hizkun-tza- eta dialekto-aniztasuna onartzera, betiere aniztasun hori estimatzeko jarrerak bultzatu daitezten, hiz-kuntza-aurreiritziei eta -estereotipoei aurre egin dakien eta hausnarketa interlinguistikoa piztu dadin. Euskal gizarteak urratsak egiten ditu elebitasun asimetriko batetik testuinguru eleaniztun baterantz. Hori dela eta, egoera soziolinguistikoei buruzko gogoeta sustatu beharko da, jarrera positiboak gara daitezten hizkuntza-aniztasunarekiko, oro har, eta euskararen normalizazio-prozesuarekiko, zehazki.

Bigarren eta hirugarren konpetentziak ahozko komunikazioarekin lotzen dira. Horixe izan da, historikoki, gutxien landu dena eskola-sisteman. Ahozko komunikazioaren garrantzia nabarmendu beharko da, komunikazio-konpetentzia osoa garatzeko zein ikasgelako elkarreragina errazteko. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoak behartuta, eskolak euskarazko ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera.

Laugarren eta bosgarren konpetentziak irakurriaren ulermenarekin eta idatzizko adierazpidearekin lotzen dira. Irakurketaren ikaskuntza ia modu eksklusiboan lotu da literatura-irakurketarekin, baina, duela hamar-kada batzuetatik, komunikazio-ikuspegiak irakurketa-helburu desberdinak dituzten orotariko testuak irakurtzen irakasteko beharra nabarmentzen dute. Gaur egun, irakurtzen jakiteak berarekin dakar nabigatzea eta sarean bilatzea, informazio fidagarria hautatu eta modu kritikoan aztertzea, informazioa prestatu eta norberaren eskemetan sartzea, eta abar. Hori dela eta, seigarren konpetentziak informazio-alfabetatzean jartzen du arreta, zazpigarrenak irakurzaletasunaren garapenean eta zortzigarrenak literatura-irakurketan. Bederatzigarren konpetentziak hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa jorratzen du. Hamargarrena, berriz, komunikazioaren etikari buruzkoa da, eta aurreko konpetentzia guztiekiko zeharkakoa.

Konpetentzia horiekin beste urrats bat egiten da aurrera Lehen Hezkuntzan eskuratutako konpetentziei dagokienez; izatez, Lehen Hezkuntzako konpetentziak abiapuntu izanik, eboluzionatu beharko da gidatutako akonpainamendutik gero eta maila autonomoago batera. Graduazio horrek berarekin ekarriko du, gainera, diskurtso-praktikek gero eta aniztasun eta konplexutasun handiagoa izatea, hizkuntzak hezkuntza- eta gizarte-esparruetan duen erabilerari arreta ematea, literatura-konbentzioek eta testuinguru historikoak literatura-testuak ulertzeko duten zeregina azpimarratzea eta garrantzi handiagoa ematea hizkuntzen funtzionamenduari eta erabilerei buruzko gogoetari.

Oinarrizko jakintzak lau multzo handitan antolatzen dira. Hizkuntzen eta horien hiztunen multzoa zuzenean lotzen da lehen bi konpetentziekin. Komunikazioaren multzoak barnean hartzen ditu ahozko eta idatzizko komunikazioan eta informazio-alfabetatzean eta alfabetatze mediatikoan inplikaturik dauden jakintzak, betiere testuen produkzio, hartze eta analisi kritikoaren inguruan egituratuta. Literatura-hezkuntzak irakurzaletasuna sendotzeko, norberaren irakurle-nortasuna osatzeko eta literatura-testuen interpretaziorako trebetasunak garatzeko beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak biltzen ditu, baita euskal literaturako, Espainiako literaturako eta literatura unibertsaleko obra garrantzitsu batzuk ezagutzeko beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak ere; hortaz, literatura-asmoko sorkuntza-idazketa sustatzen du. Hizkuntzari buruzko gogoetaren multzoak hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidatua proposatzen du, hipotesien formulaziotik, kontraadibideen bilaketatik eta hizkuntzen arteko orokortzeen eta kontrasteen ezarpenetik abiatuta eta metahizkuntza espezifikoaren erabilera. Hizkuntza sistema gisa aintzat hartzea, beraz, ez da ezagutza jakin bat izango, baizik eta eraikitzen den jakintza bat.

Jakintzagaien konpetentzia-ikuspegi globala kontuan hartuta, honako alderdi hauen arabera ezartzen da mailen arteko graduazioa: testuen konplexutasuna; haien esperientziekin hurbiltasuna eta testuinguruaren ezagutza; beharrezkoak diren produkzioedo interpretazio-trebetasunak; hizkuntza-gogoetarako behar den metahizkuntza; edo ikasleei emandako autonomia-maila. Hori dela eta, oinarrizko jakintzek eta ebaluazio-irizpideek korrelazioa dute maila batetik bestera.

Eskola-testuinguruetakoko hizkuntza-aniztasunak, ikasle elebidunak lortzeko helburuak eta hezkuntza eleaniztunaren beharrak eraginda, ezinbestekoa da proposatutako tratamendu integratua garatzea gogoeta interlinguistikoa susta dadin eta benetako gizarte-erabileretara hurbil dadin; izan ere, askotan bi hizkuntza edo gehiago erabili behar izaten da aldi berean.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Euskal Herriko eta inguruneko errealitate elebiduna eta eleaniztuna ezagutzea, interpretatzea eta baloratzea, bertako hizkuntzen eta barietate dialektalen ezaugarriak eta garapena aztertuz eta horiek guztiekiko portaera enpatikoa eta errespetuzkoa erakutsiz, gogoeta interlinguistikoa errazteko, hizkuntza-aurreiritziei aurre egiteko, aniztasuna aberastasun-iturri gisa onartzeko eta euskararen erabileraren aldeko portaera asertiboak sustatzeko.

Hizkuntza-aniztasuna gaur egungo munduaren funtsezko ezaugarria da. Gure ikasgeletan, ikaskuntza-hizkuntzaz, edo ikaskuntza-hizkuntzez gainera, bestelako hizkuntzak edo barietate dialektalak erabiltzen dituzten pertsonak daude, zeinu-hizkuntzak barne. Euskal eskolak, elebitasuna bermatzeko erronkaz gain, pertsona eleaniztunak lortzeko helburua ere badu. Euskara da sistema eleaniztun horren ardatza, bi hizkuntza ofizialen artean gaur egun dagoen desoreka gaindi dadin eta bi hizkuntzen arteko gizarte-berdintasuna eta ikasleentzako aukera-berdintasuna susta dadin (gaur egun euskara egoera kaskarra-goan dago). Horregatik, eta eskola euskararentzat eta hizkuntza horrek ordezkatzeko duen kulturarentzat ezinbesteko gotorleku izango bada, koherentziaz funtzionatu behar dute hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek, eta euskara esparru formalean eta informalean normaltasunez erabili ohi dela ziurtatu beharko da, barneko nahiz kanpoko jardueretan eta, oro har, eskolako jardueretan.

Hizkuntza-klaseek ikasleen hizkuntza-aniztasuna aintzat hartu behar dute, hizkuntza-aurreiritziak saihesten daitezkeen eta hitzezko kodeen aberastasun horren ondoriozko kultura-esanahiak atxiki daitezkeen, baita hizkuntzen eta haien barietateen funtzionamenduaren ezagutzan sakon dadin ere. Hartara, gogoeta interlinguistikoa eta beste hizkuntza batzuetako hiztunekiko komunikazioa bultzatu beharko da eta ingurune birtualen bidezko kolaborazio-lana sustatu.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako hizkuntzen jatorria eta garapen historikoa eta soziolinguistikoa ezagut dadin bultzatu behar da. Euskarari dagokionez, ikasleek alderdi hauek ezagutu eta baloratu behar dituzte: euskara duela milaka urte sortutako (Europako hizkuntzarik zaharrena hizkuntzalari askoren esanetan) eta jatorri ezezaguneko hizkuntza izatea; euskarak kultura-ondareari egindako ekarpena; euskararen aniztasuna; erakundeek eta kolektiboek euskararen alde egindako ahalegina, euskararen batasuna sustatzeko, euskalkietako hiztunen arteko komunikazioa errazteko eta euskara batua sortzearekin euskararen existentziari eusteko; eta hizkuntzaren egungo egoera soziolinguistikoa. Gainera, ikasleek euskararen erabileraren aldeko jarrera proaktiboak erakutsi behar dute, gure erkidegoko ondare artistikoa eta kulturala babesten laguntze aldera. Espainiera edo gaztelania, bestalde, mundu osoan hedatutako hizkuntza unibertsala da, polizentrikoa eta aniztasun oso handikoa. Beraz, heterogeneotasuna da bi hizkuntzen ezaugarria. Edonola ere, barietate geografikoetako bakar bat ere ezin da bestea baino zuzenagotzat jo, barietate bakoitzak bere arau kultua baitu. Eta, gainera, ikasleak Espainiako hizkuntzen —zeinu-hizkuntzak barne— oinarrizko zenbait noziorekin ohitu daitezkeen lortu nahi da, eta haiekiko portaera enpatikoa eta errespetuzkoa izan dezaten sustatu nahi da.

Horrenbestez, ikasleek ikasi behar dute bereizten, batetik, hizkuntzen aniztasun geografikoaren ondoriozko ezaugarriak eta, bestetik, soziolektorekin edo hiztunek komunikazio-egoera desberdinetara moldatzeko erabiltzen dituzten erregistroekin zerikusia duten bestelako ezaugarriak. Gainera, ikasleek segurtasunez eta zalantzarik gabe erabili beharko dute beren barietate dialektala. Horren guztiaren azken helburua izango da hizkuntza-eskubide indibidualekin eta kolektiboekin sentsibilizatuta, informatuta eta konprometituta dauden herritarrak sustatzea eta ingurune digitaletan ere hizkuntza gutxituen defentsa bultzatzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, KE3, KD1, KD2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena bilduz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeke, iritzia osatzeko eta gozameneko eta aisiarako aukerak zabaltzeko.

Ahozko ulermenaren estrategien garapenak berarekin dakar komunikazioa asmoen interpretazio-prozesu etengabea dela ulertzea, baita prozesu horretan igorlearen eta hartzailearen arteko ezagutza partekatuek eta testuinguruko elementuek eta elementu kotestuak parte hartzen dutela ere, testuaren esanahiaz harantzago joateko eta testuaren zentzua interpretatzeko aukera ematen duten heinean. Orain dela gutxi arte ahazko komunikazioa beti sinkronoa bazen ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek komunikazio asinkronoaren aukerak zabaldu dituzte eta komunikazio-ingurune digital publikoetarako sarbidea ireki dute eskolatik. Eskolak hainbat esparrutako berezkoak diren eta ikasleentzat adierazgarriak diren praktika diskurtsibo ugari planteatu ditzake eta planteatu behar ditu, gizartean garrantzia duten gaiak eta euskal kultura-ondareko gaiak lantzen dituztenak, hala nola baladak edo abesti herrikoiak.

Ahozko mezuak behar bezala ulertu eta interpretatzeko badira, trebetasun espezifikoak eduki beharko dira, eta horiek ere irakatsi eta ikasi beharko dira: oinarrizkoenetatik —edukia aurreratzea; informazio garrantzitsua gordetzea, helburuaren beraren arabera; egitateak eta iritziak bereiztea; edo diskurtsoaren zatien arteko lotura eta esanahi orokorra atzematea— aurreratuenera —igorlearen asmoa identifikatzea; prozedura erretorikoak aztertzea; argudioetako gezurrak antzematea; edo testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea—. Gizarte-arloari dagokionez, ahazko mezuen interpretaziorako trebetasunak eskolan garatzerakoan, kontuan hartu beharko dira ikus-entzunezko alfabetatze mediatiko espezifikoak eskatzen duten askotariko testu multimodalak, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egin dakien. Trebetasun eta trebezia horien garapenean, atzeraelikadurako prozesu metakognitiboak sustatuko dira.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE2, KD2, KD3, STEM4, KPSII4, KPSII5, HK3

3. Ahozko testuak eta testu multimodalak jariatortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahazko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitzeke eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko.

Ikasleen komunikazio-kompetentzia garatze aldera, ezinbestekoa izango da ahazko erabilerei arreta jartzea, ikasteko bide zein ezagutza-gai izan behar baitute. Hizkuntzako eta literaturako klaseek testuinguru dibertsifikatu eta adierazgarriak eskaini behar dituzte, esparru publikokoak zein pertsonalak eta/edo etxeakoak. Ikasleek hitza hartu ahal izango dute eta beren parekoekin zein pareko ez direnekin hitz egiteko aukera izan behar dute elkarrizketa pedagogikoki bideratuetan eta hizkuntza sexistarik gabe. Bestalde, ezagutzen eraikuntza bultzatu behar dute, hizkuntzaren erabilera formalei eta informalei, bat-batekoei edo planifikatutakoei buruz gogoeta egin dezaten.

Euskara eskola-hizkuntza denez gero, kompetentzia honek garrantzi berezia du Euskara eta Literatura jakintzagaian. Jakintzagai horrek hainbat egoera sortu eta bultzatu beharko ditu ikasgelaren barruan eta kanpoan, ikasleek elkarreragin ahal izan dezaten, euskarak gizartean duen presentzia sozial txikiagoa konpentsatze aldera. Ez dugu ahaztu behar ikasle batzuentzat ikastetxea dela euskararekin harremana duten gune urrietako bat, bakarra ez bada. Horrenbestez, hizkuntza horren ahazko erabilera formala eta informala bermatzeko eta indartzeko ahaleginak areagotu beharko dira, erabilera hori bizitza sozialera zabal dadin.

Ahozko elkarreraginak honako alderdi hauek eskatzen ditu: hitza hartu eta emateko estrategiak ezagutzea; modu aktiboan eta errespetuz entzuteko jarrerak zabaltzea, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz; arin, argi eta tonu eta erregistro egokiz adieraztea; eta kortesiako eta elkarrizketa-kooperazio-ko estrategiak erabiltzea. Ahozko produkzio formalak —monologoan edo elkarrizketan— plangintzarako aukera ematen du, eta, hartara, estrategiak partekatzen ditu idazketa-prozesuarekin. Komunikazio-egoerari —egoeraren formaltasun handiagoa edo txikiagoa kontuan izanik—, solaskideen arteko erlazioari, komunikazio-asmoari eta komunikazio-kanalei erreparatuta, diskurtso-generoek (zenbait esparrutako berezko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten moldeak) diskurtsoa egituratzeko jarraibideak eskaintzen dituzte, baita erregistroa eta hitzik gabeko portaera egokitzeko jarraibideak ere. Informazioaren eta ko-

munikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodalerako (sinkronoa zein asinkronoa) formatu berriak ekartzen dituzte, eta, era berean, ikasleen ahozko ekarpenak erregistratu ahal izatea errazten dute, testuinguru errealean heda daitezten eta ondoren aztertu, berrikusi eta ebalua daitezten (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.

4. Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu kritikoan eta irakurtzeko zenbait xedez, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzuz, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-premiei eta -interesei erantzuteke.

Irakurtzeko kompetentzia garatzeak berarekin dakar motibazioan, konpromisoan eta irakurketa-praktiketan eragitea, baita irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren estrategien ezagutzan eta erabileran ere, neska-mutilak orotariko testuen aurrean irakurle gaitu, autonomo eta kritikoak izan daitezten, testuen kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzen jakin dezaten eta testu horietan beren bizitzako esparru guztietako irakurketa-xedeei erantzun dakien.

Testu bat ulertzeak esanahi du testuaren zentzu orokorra eta irakurketaren helburuaren arabera informaziorik garrantzitsuen jasotzea, informazio esplizitua integratzea eta behar diren inferentziak egitea, betiere testuaren zatien arteko lotura berreraikitzeke, testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko, eta testu horien formari eta edukiari buruzko gogoeta egiteke. Ildo horretan, komeni da ikasleen irakurketa-prozesuei arreta handia jartzea ikasgelan. Horretarako, kontuan hartu behar da, batetik, irakurleak testuan jasotako gaiarekin izan dezakeen lotura emozionala, eta, bestetik, XXI. mendeko alfabetatzeak nahitaez barne hartu behar duela Interneteko hipertestuak irakurtzen irakastea. Hizkuntzako klaseetan erabiltzen diren testu idatzien esparruak dibertsifikatu behar dira, eta testu horiekin ikasgelan lan egiteke testuinguru adierazgarriak sortu behar dira, testuen eta proposatutako zereginen konplexutasuna mailakatuz eta osagarritasuna bilatuz (testuen luzera, egitura, hizkuntza, gaia, eta abar hartuko da aintzat). Ezinbestekoa da, beraz, curriculumeko beste jakintzagai batzuekin koordinatuta lan egitea, jakintza-arlo bakoitzari lotzen zaizkion diskurtso-generoen berezitasuna kontuan izanik. Horrez gain, beste curriculum-hizkuntzekin koordinatuta ere lan egin beharko da.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5, HK3.

5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteke.

Idazten jakiteak, gaur egun, zenbait euskarritan eta formatutan egiten jakitea eta bizitzan zehar ikastea esan nahi du. Izatez, formatu eta euskarri horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira, eta zenbait erabilera-esparrutako berezko idatzizko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten «moldeak» ezagutu eta menderatu behar dira: diskurtso-generoak. Hori dela eta, idazmenaren irakaskuntzak/ikaskuntzak ikasgelan arretaz eta etengabe esku hartzea eskatzen du. Idatzizko testu bat egitea lau une, gutxienez, dituen prozesu baten emaitza da, bat-batekotasun handieneko formetan ere bai: plangintza (komunikazio-asmoa eta komunikazio-egoeraren hartzaila eta azterketa zehaztea eta ereduak irakurtzea eta aztertzea), testualizazioa, berrikuspina (autonomia izan daiteke edo beste ikasle batzuekin batera egindakoa edo irakasleek gidatutakoa) eta azken testuaren edizioa. Prozesu horretan, ez dugu ahaztu behar zer garrantzi duen landutako testu horiek hedatzeak; izan ere, testuen hedapenak ikasleen inplikazioa sustatzen du, esaterako, testua beste irakurle batzuen ekarpenekin berrikustea eta hobetzea sustatzen du.

Hezkuntzaren esparruan, enfasia jarriko zaie idazketaren erabilere —apunteak hartzeko eta eskemak, mapa kontzeptualak edo laburpenak egiteko—, sormenezko idazketaren praktikei eta testu akademiko,

analogiko eta digitalen idazketari. Testu idatziaren konposizioak hurrengoak hartu behar ditu kontuan: informazioaren aukeraketa eta antolaketa (koherentzia); testuaren zatien eta haien hizkuntza-marken arteko lotura (kohesioa); erregistroaren aukeraketa (egokitasuna); zuzentasun gramatikala eta ortografiakoa; eta egokitasun lexikoa. Halaber, erabakiak hartu behar dira idatziaren tonuari buruz, pertsonak (igorlea eta hartzaileak) diskurtsoan inskribatzeari buruz, eta estilo eta hizkuntza ez-sexistari buruz; hortaz, ezin da bereizi hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta esplizituaren eta erabileretan duen proiektzioaren arteko lotura.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD3, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.

6. Hainbat iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio-eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazio hori ezagutza bihurtzea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa eta pertsonala hartuz eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuz.

Informazioa eskuratzeak ez du berez ezagutza bermatzen; izatez, ezagutza ulertu behar da gizarte modernoaren printzipio egituratzaile gisa eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea, eta, horretarako, jakitea informazio hori noiz behar den, non bila daitekeen, nola kudea daitekeen eta nola ebaluatu eta komunikatu daitekeen, betiere ikuspuntu kritikoa eta pertsonaletik eta jarrera etikoa, arduratsu eta errespetuzkoa erakutsiz jabetza intelektualeko lizentzia motekiko eta nortasun digitalarekiko.

Ahalegindu behar da ikasleek —bakarka edo modu kooperatiboan— askotariko informazio-iturri fidagarriak eta seguruak kontsultatzea testuinguru sozial edo akademikoetan, betiere curriculumeko gaiei buruzko edo gaurkotasun sozial, zientifiko eta kulturalerako alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-lanak edo -proiektuak egin daitezkeen. Ikerketa-prozesu horiek gero eta autonomia handiagoz planifikatzera eraman behar dute, baita lortutako ezagutzaren dibulgazioaren berezko produkzioen aurkezpenean ezarritako konbentzioak gero eta autonomia handiagoz errespetatzera ere: epigrafe bidezko antolaketa; aipuak, oharak, bibliografia eta webgrafia jasotzeko prozedurak; eta mezu multimodaletako komunikazio-kodeen konbinazio egokia. Ikaskuntza berriaren hedapenean ezinbestekoa da, halaber, sormena garatzea eta testuingurura egokitzea. Eskolako liburutegia izango da konpetentzia hori eskuratzeko inguruneetako bat —kultura irakurri eta zabaltzeko tokia eta, gainera, ikaskuntzarako sormenezko gunea—.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK2, EK3.

7. Gero eta modu autonomoagoan aukeratzea eta irakurtzea hainbat obra —plazer- eta ezagutza-iturri gisa—, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokienez eboluzionatzen duen irakurle-ibilbidea eratuz; eta irakurketa-esperientziak partekatzea, nork bere irakurle-nortasuna eraikitzeko eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak berarekin dakar aurrerabide planifikatuan urratsak egitea. Horretarako, aldi-aldian eta etengabe irakurketa indibidualari denbora eskaini beharko zaio, eta estrategia eta aldamioko egokiak erabili beharko dira irakurtzeko autonomia konfiguratzeko eta bizitza osoan garatuko den irakurle-nortasuna osatzeko.

Funtsezkoa da testu-corpus egokia eratzea eta, corpus horretan, euskal kultura-ondarearekin zerikusia duten obra ugari egotea eta emakumezko idazleen presentzia adierazgarria izatea. Corpus hori irakurketa autonomoa aberastea zein irakurketaren esperientzia pertsonala aberastea ahalbidetuko duten kalitatezko obrek osatu beharko dute, eta egungo literatura-formak, zientzia-liburuak, saiakerak, monografiak eta abar barnean hartuko ditu —inprimatuak eta digitalak—, baita azaleratzen ari diren kultura-praktikak ere. Horrekin batera, honako jarraibide hauek gomendagarriak dira: erreferente berak dituen irakurle-komunitatea eratzeke lan egitea —zenbait kasutan belaunaldi arteko komunitatea—; pertsona

bakoitzari bere intereseko testuak aukeratzen lagunduko dioten estrategiak ezartzea, testuez jabetzea eta irakurketa-esperientzia pertsonala partekatzea; eta askotariko testuinguruak ezartzea, non irakurtzeko arrazoiak agertuko diren, obrei buruzko ikerketa-erronketatik abiatuta eta irakurleak testuekin modu afektiboan lotzeko moduak proposatuta. Konpetentzia finkatzen den heinean, arian-arian murriztu ahal izango da irakasleen laguntza, eta ezarri ahal izango dira irakurketa konplexuen eta ez hain konplexuen arteko erlazioak, baita modalitate autonomoko eta modalitate gidatuko irakurketa-moduen arteko erlazioak ere.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

8. Euskal Herriko, Espainiako eta mundu osoko ondarearen parte diren literatura-obrak edo obra horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta esperientzia pertsonala eta literatura- eta kultura-ezagutzak mobilizatuz, askotariko testuen arteko loturak eta bestelako arte- eta kultura-adierazpenekiko loturak ezartzeko, norberaren kultura-nortasuna eraikitze-ko, literaturaren gozamenerako aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko.

Konpetentzia honek erraztu beharko du obren identifikazio-irakurketatik edo argudio-irakurketatik gozamen kontzienteagoko eta landuagoko beste irakurketa batera igarotzea, eta ateak zabaltzea behar dizkie hasiera batean ikasleen berehalako esperientziatik urrun dauden bestelako testuei. Ildo horretan, interpretazio-trebetasunak garatu beharko dira, ikasleak gero eta obra konplexuagoetara irits daitezten, gero eta argumentatuago dauden balio-iritziak hitzez adieraz ditzaten eta Euskal Herriko eta Espainiako horizonteak Europako horizontearekin eta horizonte unibertsalarekin uztartuko dituen eta obra literarioak bestelako arte- eta kultura-adierazpideekin uztartuko dituen kultura-nortasuna eraiki dezaten. Kultura-garaiak eta -testuinguruak zeharkatzen dituzten unibertsal tematikoen eta formalen iraupena egiaztatzeak testuarterko ikuspegia lehenestea dakar. Literatura-asmoko testuen sorrera bultzatzeak generoen konbentzio formalak menderatzen laguntzen du.

Konpetentzia hau garatzeko bi ardatz proposatu dira. Lehenik, ikasleentzat nolabaiteko erresistentzia edo zailtasun kognitiboa eta/edo emozionala duten obren irakurketa gidatua eta partekatua, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo —ikasleek obra horiez gozatzeko aukera izango dute, irakasleen edo beste pertsona heldu batzuen bitartekotzarekin, eta obra horien elementu garrantzitsuak menderatu ahal izango dituzte—. Bigarrenik, obra horiek hainbat garai, mugimendu eta testuingurutako testu literarioek eta ez-literarioek osatutako gaikako edo generoko ibilbideetan inskribatzea —testu horien irakurketa konparatuak gai, topiko eta forma estetikoaren bilakaerari erreparatzen dio eta produkzio-horizontearen eta egungo harrera-horizontearen arteko loturak ezartzen laguntzen du—. Ibilbideak diseinatzean —emakumezko eta gizonezko idazleak egongo dira—, plangintza adostu beharko da etapan zehar, interpretazio-konpetentziak mailaz maila eskuratzeko beharrezkoak diren progresioa eta osagarritasuna ziurta dadin.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

9. Hizkuntzaren egiturari eta haren erabilerei buruzko ezagutza mobilizatzea eta hizkuntza- eta diskurtso aukeraketei buruz gero eta autonomia handiagoz eta terminologia egokiarekin gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko produkzio-trebetasunak nahiz ulermen eta interpretazio kritikoko trebetasunak hobetzeko.

Hizkuntzaren ikasketa sistematikoa erabilgarria izango bada, batetik, ikasleen konpetentzia metalinguistikoa sustatu beharko du, hau da, ikasleak arrazoitzeko, argudiatzeko, behatzeko eta aztertzeko duen gaitasuna sustatu beharko du, eta, bestetik, hiztunen berezko erabilera errealekin lotuta egon beharko du, testuinguruan kokatutako arlo publiko eta sozialeko zein arlo pertsonal eta/edo etxeko arloko ahozko eta idatzizko testuen bidez. Gogoeta metalinguistikoa ikaslearen intuiziozko ezagutzatik abiatu behar du —hizkuntzaren erabilizaile den heinean—, eta zubiak eraiki behar ditu, txiki-txikitatik, ezagutza sis-

tematikoarekin, lehenik eskolako errealitatek hurbilago dagoen hizkuntza komunarekin eta, gero, terminologia espezifiko pixkanaka sartuz. Gainera, maila morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa integratu behar ditu hizkuntza-formen ikasketan.

Hortaz, gramatikaren ikaskuntzari ekingo zaio ezagutza gramatikal esplizitua eta hizkuntzaren erabilera lotzearen bidetik, betiere gogoetatik abiatuta. Horretarako, hizkuntza-formek diskurtsoan hartzen duten esanahia eta funtzioa behatu behar da, orokortzera eta sistematizaziora iristeko enuntziatuen manipulaziotik abiatuta, edo perpausen arteko kontrastetik, hipotesien eta arauen formulaziotik, kontraadibideen erabileratik edo beste hizkuntza-fenomeno batzuekiko loturatik abiatuta. Azken batean, bizitza osoan zehar garatuko den gogoeta metalinguistikoa eta interlinguistikoa suspertu nahi da, ikasleek hizkuntzari buruz pentsatu eta hitz egin dezaten, betiere ezagutza horrek norberaren produkzioa hobetzeko eta besteen produkzioak hobeto ulertzeko eta modu kritikoan interpretatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII4, KPSII5.

10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazken elkarriketa bidezko kudeaketaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra, etikoa eta demokratikoa bultzatzeko.

Konpetentzia hori eskuratzeak ez dakar soilik ikasleak komunikatzeko garaian eraginkorrak izatea, hitzak komunikazioaren ezinbesteko dimentsio etikotik aldentzen ez diren helburuen zerbitzura jartzea ere badakar.

Komunikazio pertsonalaren arloan, hizkuntza-hezkuntzak enpatian eta errespetuan oinarritutako pertsonen arteko harremanak sortzen lagundu behar du, eta entzute aktiborako, komunikazio asertiborako, deliberazio argudiatuak eta gatazka elkarriketaren bidez kudeatzeko tresnak eskaini behar ditu. Hizkuntzaren erabilera sexistak, diskriminatzaileak eta manipulatzailak ezabatzea eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak ezabatzea agindu etikoa da. Hezkuntza-, gizarte- eta lanbide-arloetan eta testuinguru analogiko eta digitaletan, hizkuntza-hezkuntzak bizitza osoan hitza hartzeko gaitu behar du, betiere gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak eta arduratsuagoak eraikitzeke herritar aktibo eta konprometituaren jardunean, batik bat gizateria gisa planteatuta ditugun erronka handien aurrean: planetaren jasagarritasuna; krisi ekosoziala; indarkeria amaigabeak errotik desagertzea; eta gero eta desberdintasun handiagoak ezabatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
1. konpetentzia espezifiko	
1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak eta beren barietateak ezagutzea eta baloratzea, arreta berezia eskainiz lurraldeko bertako hizkuntzei eta Espainiako beste hizkuntzei —ikasleen familia-hizkuntzak barne—, hizkuntzen oinarritzko berezitasun batzuk identifikatuz eta haien ezaugarrietako batzuk kontrastatuz ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan.	1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak eta beren barietateak eta Espainiako beste hizkuntzak ezagutzea eta baloratzea, haien jatorriaren azalpenetik eta haien garpunen historiko eta soziolinguistikotik abiatuta, hizkuntza horien alderdiak kontrastatuz, euskararen eta gaztelaniaren dialektoen ezaugarriak kontrastatuz, eta ezaugarri soziolinguistikotik eta erregistro-ezaugarrietatik bereiziz, ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta baztertzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasu-na errespetatuz eta baloratuz, inguruneke hizkuntza-aniztasunaren behaketatik abiatuta (digitala barne).	1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta baztertzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasu-na errespetatuz eta baloratuz, inguruneke hizkuntza-aniztasunaren analisitik abiatuta (digitala barne) eta hizkuntzen arteko kontaktuaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik eta hizkuntza-eskubide indibidualen eta kolektiboen ikerketaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik abiatuta.
1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen oinarriko ezaugarriak ezagutzea oinarriko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertihoak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera analogikoaren eta digitalaren, euskararen normalizazioaren eta euskal kulturaren transmisioaren aldeko jarra-afektiboa eta proaktiboa azalduz.	1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak identifikatzea oinarriko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertihoak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera analogikoaren eta digitalaren aldeko jarrera proaktiboa eta afektiboa erakutsiz eskola- eta gizarte-bizitzaren zenbait esparrutan, baita ikastetxean eta ingurunean garatzen diren euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sormenarekin lotzen diren ekimene-tan ere.
1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea, eta gogoeta interlinguistikoak hizkuntzak ikasteko eta beren komunikazio-kompetentzia garatzeko egiten duen ekarpena baloratzea, hizkuntzen zenbait ezaugarri alderatuz.	1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz eta erabileraz jabetzea, eta gogoeta interlinguistikoak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, hizkuntzak ikasteko eta beren komunikazio-kompetentzia garatzeko, hizkuntzen zenbait ezaugarri alderatuz.
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1. Zenbait esparrutako ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra eta egitura ulertzea, baita komunikazio-premien araberrako eta igorlearen asmoaren araberrako informaziorik garrantzitsuena ere, ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz.	2.1. Zenbait esparrutakoak diren eta nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu orokorra eta egitura interpretatzea, baita komunikazio-premien araberrako eta igorlearen asmoaren araberrako informaziorik garrantzitsuena ere, elementu ez-esplizituak ondorioztatzen lagunduko dioten ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz.
2.2. Ahozko testu eta testu multimodal errazen forma eta edukia baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	2.2. Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia baloratzea, erregistroaren eta erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.
2.3 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.	2.3 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea eta baloratzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.
3. kompetentzia espezifikoa	
3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte- eta hezkuntza-intereseko gaiei buruzko ahozko narrazio eta azalpen errazak sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariatortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz.	3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-intereseko gaiei buruzko nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten ahozko azalpenak eta argudioak diseinatzea eta egitea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariatortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz.
3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarre-ragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexis-tak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.	3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarre-ragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexis-tak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
4. kompetentzia espezifikoa	
4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten hainbat esparrutako testu idatzi eta multimodal errazen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoakebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak gidatuta erabiliz eta behar diren inferentziak eginez.	4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten eta nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzi eta multimodal zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoakebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak erabiliz eta behar diren inferentziak eginez.
4.2. Esparru publiko edo sozialeko zein esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	4.2. Esparru akademikoko, publiko edo sozialeko, eta esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.
5. kompetentzia espezifikoa	
5.1. Testu idatzi eta multimodal errazen idazketa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarriketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko erregistro egokiz.	5.1. Nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testu idatzi eta multimodal idazketa formala eta sormenezkoa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarriketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko erregistro egokiz.
5.2. Testuak aberasteko oinarriko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zulentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.	5.2. Testuak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zulentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.
6. kompetentzia espezifikoa	
6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.	6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
6.2. Interes akademiko, pertsonal, sozial edo ekosozialeko askotariko gaiet buruzko ikerketa-lanak gero eta autonomia handiagoz eta zenbait euskarritan egitea, hautatutako informaziotik abiatuz.	6.2. Interes akademiko, pertsonal, sozial edo ekosozialeko askotariko gaiet buruzko nolabaiteko hedaturako ikerketa-lanak gero eta autonomia handiagoz eta zenbait euskarritan egitea, hautatutako informaziotik abiatuz.
6.3. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz erakustea, informazioaren bilaketari, egile-eskubideen errespetuari eta komunikazioari dagokienez.	6.3. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz hartzea, informazioaren bilaketari, egile-eskubideen errespetuari eta komunikazioari dagokienez, harreman pertsonalen eta bizikidetzaren positiboaren eraikuntzan kolaboratuz, baita tesuinguru digitaletan ere.
7. kompetentzia espezifikoa	
7.1. Aurrez egindako hautaketatik abiatuta, testuak aukeratzea eta irakurtzea, norberaren gustuei, interesei eta premiei jarraituz, eta irakurle-ibilbidea eta irakurketaren esperientzia jasota utziz.	7.1. Norberaren gustuen, interesen eta premien arabera hautatutako testuak modu autonomoan irakurtzea, eta norberaren irakurketa- eta kultura-ibilbidearen aurrerapena jasota uztea, irakurketak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturara iristeko moduak eta irakurketa-esperientzia azalduz.
7.2. Askotariko euskarrirako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonalarekin eta irakurlearekin erlazionatuz.	7.2. Askotariko euskarrirako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonal, irakurle eta soziokulturalarekin erlazionatuz.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
8. kompetentzia espezifikoa	
8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, jarraibide eta ereduen laguntzaz eta obra osatzen duten elementuen barne-erlazioek obraren zentzuarekin duten loturaren azterketatik abiatuta, literatura-generoen eta -azpi-generoen konfigurazioari erreparatuz.	8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, obra osatzen duten elementuen barne-erlazioek obraren zentzuarekin duten loturaren azterketatik eta testuak testuinguru soziohistorikoarekin dituen kanpo-erlazioetatik abiatuta, literatura-generoen eta -azpigeneroen konfigurazioari eta bilakaerari erreparatuz.
8.2. Irakurritako testuen eta bestelako idatzizko edo ahozko testuen edo testu multimodalen eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalen artean lotura arrazoituak ezartzea —gidatuta—, gai, tradizio, topiko, egitura, hizkuntza eta balio etiko eta estetikoaren arabera, irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala erakutsiz.	8.2. Irakurritako testuen eta bestelako idatzizko edo ahozko testuen edo testu multimodalen eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalen artean lotura arrazoituak gero eta modu autonomoagoan ezartzea, mugimendu, gai, tradizio, topiko, egitura, hizkuntza eta balio etiko eta estetikoaren arabera, irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala erakutsiz.
8.3. Testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzaz, askotariko literatura-generoen eta -estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo horien zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz.	8.3. Testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzaz, askotariko literatura-generoen eta -estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo horien zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz.
9. kompetentzia espezifikoa	
9.1. Norberaren testuak modu gidatuan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak metahizkuntza espezifikoa batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz.	9.1. Norberaren eta besteen testuak gero eta modu autonomoagoan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak metahizkuntza espezifikoa batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz.
9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.	9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.
9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarritzko alderdiei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontraadibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu gidatuan kontsultatuz.	9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi batzuei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontraadibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu autonomoan kontsultatuz.
10. kompetentzia espezifikoa	
10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzailerak identifikatzea eta baztertzea, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta pertsonen arteko komunikazioa arautzen duten hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan.	10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzailerak identifikatzea, gaitzestea eta baztertzea, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan.
10.2. Gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan.	10.2. Gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, solaskideen iritzia eta sentimenduekiko errespetuzko jarrera enpatikoa eta asertiboak erakutsiz, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK.	
*Oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoak.	
Norberaren hizkuntza-biografia eta ikastetxeko hizkuntza-aniztasuna behatzeko jarraibideak.	
Ikastetxeko hizkuntzei buruzko oinarrizko nozioak: agurtzeko, eskerrak emateko eta barkamena eskatzeko formulak.	
Hizkuntza familiak eta munduko hizkuntzak, ikastetxeko hizkuntzei dagokienez.	
*Gogoeta interlinguistikoaren hastapenatarako oinarrizko estrategiak.	
Eleaniztasunaren eta aniztasun dialektalaren arteko desberdintasunak.	
*Euskararen barietate dialektalak. Hurbileko inguruneke euskalkiaren oinarrizko ezaugarriak.	
*Euskararen historia, jatorria eta lehen lekukotzak.	
*Euskara batua: historia eta bilakaera. Oinarrizko arauak.	
*Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.	
*Espainiako hizkuntzak: jatorria, banaketa geografikoa eta oinarrizko nozioak.	
Zeinu-hizkuntzen oinarrizko nozioak.	
Espainieraren barietate dialektal nagusiak eta horien ezaugarriak adierazgarrienak, bertakoari arreta berezia jarritz.	
*Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko oinarrizko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak.	
Euskararen normalizazioaren aldeko eta euskal kulturaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak: Euskal Kantagintza Berria, Korrika, Euskal Kultur Erakundea (EKE), EIMA...	
B. KOMUNIKAZIOA.	
Zenbait esparrutako ahozko eta idatzizko testuak eta testu multimodalak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak, alderdi hauei arreta eskainiz:	
1. Testua eta testuingurua.	*Komunikazio-egitatearen osagaien nozioak.
	*Gaia. Testuaren asmoa.
	*Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz narrazioari, deskripzioari, elkarrizketari eta azalpenari.
	*Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Oinarrizko nozioak.
	*Diskurtso-generoak, esparru pertsonalekoak (solasaldia, email...), hezkuntza-esparrukoak (dekalogoak, ahozko azalpena...) eta esparru sozialekoak, barnean direla erakundeenak, sare-sozialenak eta hedabideenak (informazio-liburuxka, bandoa...).
	Ahokotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak, hala nola Santa Ageda, Olentzero edo inauteriak.
	Euskal zinema eta antzerkia.
	Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak.
	Testu ikoniko eta hitzezkoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeke jarraibideak.
	*Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak.
2. Ulermena.	*Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu globala eta zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsuen aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta.
	*Testuetan hitzezko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzailleak hautemateko estrategiak.
	*Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
	<p>*Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertze eta baloratze jarraibideak.</p> <p>Euskal tradizioko atsoitzak eta esaerak ezagutzeko eta ulertzeko jarraibideak.</p>
3. Produkzioa.	<p>*Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako eta sormenezko produkziarako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberrako egokitzapena. Hitzekoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak.</p> <p>*Testuen idatzizko produkziarako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak.</p> <p>Generoen ereduak erreproduzitzeko patroiak.</p> <p>*Pentsamendua antolatze eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzailer grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.</p> <p>*Zuzentasun lexikoa.</p>
4. Elkarreragina	<p>*Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan: hitza hartze eta hitza uzteko estrategiak.</p> <p>*Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik.</p>
5. Informazio-alfabetatzea.	<p>*Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena.</p> <p>*Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzailer eta sexista identifikatuz.</p> <p>*Etiketa digitala eta desinformazio-arriskuak. Pentsamendu kritikoko estrategiak, manipulazioa eta pribatutasunaren urraketa saihesteko.</p>
6. Hizkuntzaelementuen onarpena eta diskurtso-erabilera.	<p>Hizkuntza-baliabideak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetsua egiteko estrategiak, igorleak ahozko eta idatzizko testuetan eta testu multimodaletan duen inplikazioa erakusteko: deixi-formak (pertsonala, denborazkoa eta espaziala) eta oinarrizko modalizazio-prozedurak.</p> <p>*Perpauaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (aditz-komunztadura eta deklinabidea).</p> <p>Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak.</p> <p>*Hizkuntzen erabilera ez-diskriminatzaileko hizkuntza-baliabideak.</p> <p>*Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetsua egiteko estrategiak. Denbora, azalpen, ordena, kontraste eta abarrerako testu-lokailuak. Barne-erreferentziako mekanismo gramatikak (ordezkatzeko pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak).</p> <p>*Testuetan aditz-formak ezagutzeko eta koherentziaz erabiltzeko jarraibideak. Narrazioko iraganaldiko denborak. Kontakizun-diskurtsoko denbora-korrelazioa.</p> <p>*Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaletako hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.</p> <p>*Oinarrizko puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatze mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura.</p>
7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.	<p>Banakako eta taldeko lana testuinguru analogiko eta digitaletan antolatzeko estrategiak, genero-ikuspegiarekin.</p> <p>Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa.</p> <p>Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzekeko estrategiak.</p>

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
	*Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak.
C. LITERATURA-HEZKUNTZA.	
1. Irakurketa autonomoa.	<p>*Irakurketan gero eta inplikazio autonomoagoa, emakumezko eta gizonezko autoreen obrak barne hartzen dituzten askotariko testuen aurreaukeraketatik abiatuta, eta erduetan oinarritutako irakurketa-praktikari buruz eta testuei buruz gogoeta egiteko estrategiak.</p> <p>Askotariko obrak orientatuta eta genero-ikuspegiarekin hautatzeko jarraibideak, eskolako liburutegiaren eta eskura dagoen liburutegi publikoaren miaketa gidatuan oinarrituta.</p> <p>Euskal literatura- eta musika-ondarearekin lotura emozionalak eta kulturalak ezartzeko estrategiak.</p> <p>*Irakurketa-esperientzia erduen bidez adierazteko tresnak, baita irakurritako testuak modu kritikoa eta sormenez birsortzeko eta menderatzeko modu desberdinak adierazteko tresnak.</p> <p>*Esperientzia pertsonala eta irakurketa-esperientzia mobilizatzeko estrategia kognitiboak eta emozionalak, irakurritako obraren eta gaurkotasuneko alderdien artean loturak ezartzeko, baita beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuekin ere.</p> <p>Berdinen artean irakurketak gomendatzeko estrategiak, idatziz zein ahoz, eta askotariko euskarritan.</p> <p>Literatura- eta irakurle-zirkuluarekin lotzen diren kultura-egintzetan modu aktiboan eta orekatuan parte hartzeko interesa.</p>
2. Irakurketa gidatua	<p>*Gazte-literatura garaikideko eta literatura-ondare unibertsaleko obra garrantzitsuen eta horien zatien irakurketa, gaikaedo genero-ibilbideetan inskribatuta, emakumezko eta gizonezko idazleenak.</p> <p>*Euskal kultura-ondareko obren eta horien zatien irakurketa, hala nola mitologia, elezaharrak, herri-ipuak...</p> <p>*Estrategia kognitibo eta emozionalak eta genero-analisiko eta analisi kritikoko ereduak, erabiltako obren interpretazioaren eraikuntza partekaturako, irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren. Literatura-solasaldiak.</p> <p>*Literatura-kontaketa. Oinarrizko ezaugarriak. Egitura: hasierako formak, garapen kronologikoa eta amaiera.</p> <p>*Poesia, bertsolaritza eta koplak zaharrak. Oinarrizko ezaugarriak. Baliabide erretorikoak eta eritmitikoak, bertsogintza eta gaiak.</p> <p>Antzerkia. Oinarrizko ezaugarriak. Antzez-testuaren alderdi formalak.</p> <p>*Literatura-generoaren oinarrizko elementuen eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlaziorako jarraibideak. Baliabide espresiboen balioaren oinarrizko analisi; hartze-prozesuan dituen efektuak.</p> <p>*Irakurritako testuak beste testu batzuekin, beste arte- eta kultura-adierazpen batzuekin eta fikziozko forma berriekin lotzeko eta alderatzeko jarraibideak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera.</p> <p>*Literatura-obren eta horien zatien interpretazio eta balorazio pertsonala prozesu eta euskarri dibertsifikatuen bidez adierazteko estrategiak, ereduak eta jarraibideak.</p> <p>*Genero-ikuspegia duen irakurketa.</p> <p>Testuen irakurketa espresiboa, dramatizazioa eta errezitazioa, inplikaturak dauden ulermen-, menderatze- eta oralizazio-prozesuekin lotuta.</p> <p>*Testuak sortzeko jarraibideak, hizkuntzaren erabilera sexista eta diskriminatzailea saihestuz, literatura-hizkuntzaren konbentzioak menderatuz eta emandako ereduak erreferentzia eginez (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, eta abar).</p>
D. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA	
	*Hizkuntza-sistemari buruzko nork bere ondorioak gidatuta eraikitzeko eta komunikazio-unitateak behatu, alderatu eta sailkatzeko estrategiak, metahizkuntza espezifikoak erabiliz.

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
*Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko alde nabarmenak eta elkarguneak behatzeko jarraibideak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuta.
*Hizkuntzaren —sistema gisa— eta haren oinarrizko unitateen oinarrizko nozioak, maila desberdinak kontuan hartuta: soinua eta idazketa-sistema, hitzak (forma eta esanahia), diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura).
*Kategoria gramatikalak eta funtzio sintaktikoak. Prozedura lexikoak (afixuak) eta sintaktikoak, kategoria aldaketarako.
*Perpauis bakunaren eskema semantikoaren eta sintaktikoaren arteko erlazioa. Eskema horien arabera enuntziatuak behatzeko eta eraldatzeko jarraibideak eta beharrezko terminologia sintaktikoaren erabilera. Hitzen ordena eta komunztadura.
*Hitzak eskuratzeko eta osatzeko prozedurak, eta sexismoaren eragina hitzetan. Esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta, hitzen eta haien balio denotatiboaren eta konnotatiboaren arteko erlazio semantikoak, testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera.
*Hizkuntzen arteko kalkoak eta transferentzia negatiboak identifikatzeko eta zuzentzeko oinarrizko estrategiak.

Hirugarren eta laugarren mailak	
A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK.	
*Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak.	
Norberaren hizkuntza-biografia eta ikastetxeko eta herriko hizkuntza-aniztasuna aztertzeke jarraibideak. Hizkuntzen Portfolio Europarra.	
*Euskararen historia: jatorria eta teoria nagusiak; lehen lekukotzak. Lehen emakumezko eta gizonezko idazleak.	
*Espainiako hizkuntzen garapen soziohistorikoa.	
*Euskara batuaren arauak.	
*Euskararen eta espainieraren barietate dialektalen ezaugarriak adierazgarriak.	
*Euskararen eta euskara batuaren barietate nagusien ezaugarriak alderatzeko patrioiak, baita espainieraren ere, norberaren lurraldeei arreta berezia eskainiz.	
Barietate dialektalen berezko ezaugarriak (fonikoak, gramatikalak, lexikoak eta semantikoak) eta soziolektoen eta erregistroen arteko aldeak.	
*Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabilerearen aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.	
*Gogoeta interlinguistikoa garatzeko estrategiak.	
Hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak.	
*Hizkuntza-diglosia eta dialekto-diglosia. Hizkuntzen estatusa: gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak.	
*Hizkuntza-eskubideak eta legeetan eta adierazpen instituzionaletan duten isla (UNESCO, Europako Kontseilua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea...).	
*Hizkuntzen eta kulturen defentsarako eta garapenerako erakundeak: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskariana, Euskal Kultur Erakundea (EKE), RAE, ASALE, Cervantes Institutua...	
Hizkuntza-normalizazioaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak: euskal hezkuntza-sistema, euskarazko hedabideak, euskaltegiak, Euskaltzaleen Topagunea...	
*Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak miatzeko eta eztabaidatzeko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak.	
B. KOMUNIKAZIOA	
Zenbait esparrutako ahozko eta idatzizko testuak eta testu multimodalak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak, alderdi hauei baterako arreta eskainiz:	
1. Testua eta testuingurua.	*Komunikazio-egitatearen osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera publiko edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-asmoak eta xedeen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioan hitzezkoak ez diren elementuak.
	*Gaiaren eta tesiaren formulazioa.

Hirugarren eta laugarren mailak	
	<p>*Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz sekuentzia narratiboei, azalpenekoei eta argumentatiboei.</p> <p>*Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.</p> <p>Esparru pertsonaleko diskurtso-generoak (desadostasuna, kexa, ordena...), hezkuntza-esparrukoak (zientzia-dibulgazioko artikulua, laburpena...), gizarte-arlokoak, barnean direla erakundeak, gizarte-sareenak eta hedabideenak (kexa-gutuna, inkesta, publizitate-iragarkia, editoriala, iritzi-artikulua...), eta lan-arlokoak (curriculum vitae, lan-elkarrizketa...). Europass tresnak.</p> <p>Ahokotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak, hala nola Santa Ageda, Olentzero edo inauteriak.</p> <p>Euskal zinema eta antzerkia.</p> <p>Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak.</p> <p>Testu ikoniko eta hitzezkoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeke jarraibideak.</p> <p>*Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak.</p>
2. Ulermena.	<p>*Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu orokorra. Ideia nagusiak eta sekundarioak eta zatien arteko erlazioa; garrantziko informazioaren aukeraketa eta atxikipena. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuetako lexikoa.</p> <p>*Testuetan hitzeko hizkuntzaren, hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.</p> <p>*Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak.</p> <p>*Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertzeke eta baloratzeko jarraibideak.</p> <p>Euskal tradizioko atsoitzak eta esaerak ezagutzeko eta ulertzeke eta erabiltzeko jarraibideak.</p>
3. Produkzioa.	<p>*Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahazko produkzio formalerako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren arabera egokitzapena. Hitezkoak ez diren elementuak. Ahokotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Ahozko deliberazio argudiatua.</p> <p>*Idatzizko produkzioko estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak.</p> <p>Testu-egituretako patroien erabilera.</p> <p>*Pentsamendua antolatzeke eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.</p> <p>*Zuzentasun lexikoa.</p>
4. Elkarreragina	<p>*Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan.</p> <p>*Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia. Hitza hartzeko txandak. Elkarreraginen hasiera, mantentzea eta amaiera. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko baliabideak, genero-ikuspegitik: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak formulatzeko jarraibideak.</p>
5. Informazio-alfabetatzea.	<p>*Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena.</p> <p>*Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzalea eta sexista identifikatuz eta baztertuz.</p> <p>*Etiketa digitala eta desinformazio-arriskuak. Pentsamendu kritikoko estrategiak, manipulazioa eta pribatutasunaren urraketa saihesteko.</p>

Hirugarren eta laugarren mailak	
6. Hizkuntzaelementuen onarpena etadiskurtso-erabilera.	<p>Hizkuntza-baliabideak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak, igorleak ahozko eta idatzizko testuetan eta testu multimodaletan duen inplikazioa erakusteko; deixi-formak, komunikazio-egoerei dagokienez, eta oinarrizko modalizazio-prozedurak.</p> <p>*Perpauaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (komuntadura eta deklinabidea).</p> <p>*Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak. Oinarrizko azalpen-prozedurak: aposizioa eta erlatibozko perpauak.</p> <p>Hizkuntzen erabilera ez-diskriminatzaileko hizkuntza-baliabideak.</p> <p>*Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Testu-lokailuak (banatzaileak, ordenakoak, kontrastekoak, azalpenekoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesikoak) eta barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko nominalizazioak eta hiperonimoak...).</p> <p>*Testuetako aditz-formen erabilera koherentea. Denborazko korrelazioa perpauen koordinazioan eta menderakuntzan, eta kontakizun-diskurtsoan.</p> <p>*Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.</p> <p>*Puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura.</p>
7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa.	<p>Banakako eta taldeko lana testuinguru presentzialetan eta digitaletan antolatzeke estrategiak, genero-ikuspegiarekin.</p> <p>Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa.</p> <p>Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeke estrategiak.</p> <p>*Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak.</p>
C. LITERATURA-HEZKUNTZA	
1. Irakurketa autonomoa.	<p>*Irakurketan modu autonomoan inplikatzeko estrategiak, eta irakurritako testuei buruz eta irakurketari berari buruz gogoeta egiteke estrategiak.</p> <p>Emakumezko eta gizonezko idazleak barne hartzen dituzten askotariko obrak modu autonomoan eta genero-ikuspegiarekin hautatzeko jarraibideak, eskolako liburutegia eta eskura dagoen liburutegi publikoa modu autonomoan erabiliz.</p> <p>Literaturaren eta irakurleen zirkuluarekin lotzen diren kultura-egintzetan modu aktiboan eta ekitatiboan parte hartzeke interesa.</p> <p>Euskal literatura-, musika- eta eszena-ondarearekin lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimantazioa), sinbolikoak (pertsonek gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak.</p> <p>Nork bere gustuak eta irakurle-nortasunaz jabetzeko eta hitzez adierazteke estrategiak.</p> <p>*Irakurketa-esperientzia adierazteke tresnak, baita irakurritako testuak modu kritikoan eta sormenez birsortzeko eta menderatzeko modu desberdinak adierazteke tresnak.</p> <p>*Esperientzia pertsonala eta irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzeko estrategia kognitiboak eta emozionalak, irakurritako obraren eta gaurkotasuneko alderdien artean loturak argudiatuta ezartzeko, baita beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuekin ere.</p> <p>Irakurketak berdinen artean gomendatzeko estrategiak, askotariko euskarrietan edo ahoz, betiere obrak literatura-generoetan eta -azpigereneroetan eta sortu ziren errealitate soziohistorikoan kokatuz.</p>
2. Irakurketa gidatua	<p>*Euskal Herriko, Espainiako eta mundu osoko ondareko eta gaur egungo literaturako obra garrantzitsuen eta horien zatien irakurketa, mugimenduetan edo gaikako edo generoko ibilbideetan inskribatuta daudenak eta emakumezko eta gizonezko egileenak.</p>

Hirugarren eta laugarren mailak	
	*Obren interpretazioaren eraikuntza partekaturako estrategia kognitiboak eta emozionalak. Literatura-eztabaidak edo -solasaldiak.
	*Literatura-kontaketa: egitura; egilea, narratzailea, narrazioaren perspektiba eta polifonia; pertsonaiak; espazioa eta denbora.
	*Poesia, bertsolaritza, koplak zaharrak eta herri-baladak: baliabide erretorikoak eta erritmikoak, bertsogintza, gaiak, topikoak, sinboloak.
	*Antzerkia. Antzez-testuaren alderdi formalak. Antzerkia, arte eszeniko gisa.
	*Literatura-generoaren oinarriko elementuen eta obrak duen zentzua eraikitzearen arteko erlaziorako jarraibideak. Adierazpide-baliabideek hartze-prozesuan dituzten efektuak.
	*Etapak, emakumezko eta gizonezko egileak eta euskal literaturako eta Espainiako literaturako obrarik adierazgarrienak.
	*Oinarriko informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa genero-ikuspegitik erabiltzeko estrategiak, literatura-obren interpretazioa eraikitzeko.
	*Irakurritako testuak beste ahozko edo idatzizko testuekin, testu multimodalekin, beste arte- eta kultura-adierazpen batzuekin eta fikziozko forma berriekin lotzeko eta alderatzeko jarraibideak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak.
	*Literatura-obrak eta horien zatiak interpretatzeko estrategiak, aztertutako alderdien integrazioetik abiatuta eta testuetako balio kultural, etiko eta estetikoak kontuan hartuta. Genero-ikuspegia duen irakurketa.
	Irakurritako obren inguruan ikertzeko tresnak eta estrategiak, obren interpretazioa eraikitzeko eta irakurritako testuen artean loturak ezartzeko interesa sustatzen dutenak.
	Testuen irakurketa espresiboa, dramatizazioa eta errezitazioa, inplikaturak dauden ulermen-, jabetze- eta oralizazio-prozesuekin lotuta.
	*Testuak sortzeko jarraibideak, literatura-hizkuntzaren konbentzioak menderatzetik abiatuta eta emandako ereduak erreferentzia eginez (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, eta abar) eta hizkuntzaren erabilera sexista eta diskriminatzailea saihestuz.
D. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA	
	*Hizkuntza-sistemari buruzko norik bere ondorioak gero eta modu autonomoagoan eraikitzeko eta komunikazio-unitateak behatu, alderatu eta sailkatzeko estrategia.
	Egiturak manipulatzeko eta hipotesiak, kontraadibideak, orokortzeak eta hizkuntzen arteko kontrastea formulatzeko jarraibideak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz.
	*Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko eta lagunarteko erabileraren eta erabilera formalaren arteko alde nabarmenak eta elkarguneak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuta.
	*Hizkuntzaren, sistema gisa, eta haren oinarriko unitateen oinarriko nozioak, maila desberdinak kontuan hartuta: soinua eta idazketa-sistema, hitzak (forma eta esanahia; hitza vs. lexiak), diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura).
	*Hitzen forma (kategoria gramatikala) eta funtzioa (perpaus bakanaren funtzio sintaktikoak) bereizteko estrategia, eta prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak finkatzeko estrategia, kategoria aldatze aldera.
	*Perpaus bakanaren eskema semantikoaren eta sintaktikoaren arteko erlazioa. Eskema horien arabera enuntziatuak behatzeko eta eraldatzeko jarraibideak eta beharrezko terminologia sintaktikoaren erabilera.
	*Historian zehar beste hizkuntza batzuetatik datorren lexikoa eskuratzeko prozedurak. Erderakadak. Kultismoak eta ondare-hitzak.
	*Hitzak osatzeko prozedurak, eta sexismoaren eragina hitzetan. Esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta, hitzen eta haien balio denotatiboen eta konnotatiboen arteko erlazio semantikoak, testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera.
	*Hizkuntzen arteko kalkoak eta transferentzia negatiboak identifikatzeko eta zuzentzeko estrategiak.

FISIKA ETA KIMIKA

Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetan, Fisika eta Kimika jakintzagaiak alfabetatze zientifikoa sustatzen du, ikasleen prestakuntza integralari erantzuteko, eta Lehen Hezkuntzako Ingurune Naturalaren Ezagutzaren eta Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako Natura Zientzien ikaskuntzei jarraipena emateko, baina diziplina horietan gehiago sakonduz. Fisika eta Kimika funtsezkoa da alfabetatze zientifiko horretan berau gobernatzen duten legeak eta unibertsoa ulertzeko. Ikasleei zientzia, teknologia, ekonomia eta gizartea etengabe garatzen ari den mundu horretan irizpide zientifikoarekin jarduteko oinarrizko jakintzak ematen dizkie, mundu iraunkorragoa eta berdinzaleago baterako ekintzak eta jokabideak sustatuz, non emakumeek zientziaren garapenari egiten dizkioten ekarpenak balioetsiko diren.

Bigarren Hezkuntzako etapan, Fisika eta Kimikako curriculumak kompetentzia espezifikoak definitzen ditu, etapako helburuetatik eta oinarrizko irakaskuntza amaitzean ikasleen irteera-profila zehazten duten funtsezko kompetentzietatik abiatuta. Bestalde, curriculumaren ardatz diren kompetentzia espezifiko horiek jakintzagai honetako bi curriculum-elementu justifikatzen dituzte, ikasleen curriculum-beharrei erantzuteko beharrezkoak direnak: ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak. Curriculum-elementu horiek guztiak edukien memorizaziotik haratago funtsezko kompetentzien garapena ziurtatzeko definituta daude, ikasleak gauza izan daitezzen eta, beraz, pentsamendu zientifikoa garatzeko gai izan daitezzen, inguratzen duten gizartearen balizko arazoei aurre egiteko eta munduaren ezagutza sakonagoaz gozatzeko.

Hori dela-eta, Fisikak eta Kimikak, etapa honetan, funtsezko kompetentzien garapenari laguntzen dio eta, bereziki, STEM kompetentziaren garapenari. Horretarako, zientziaren berezko metodologiak —diziplinarteko kooperazio-lanaren bidez jorratuak— erabiltzea proposatzen da, gaur egungo munduaren erronkekin eta garapen iraunkorraren helburuekin konprometita dauden ikasleak prestatzera bideratuta daudenak, eta jakintzagaiari ikuspegi eraikitzailea, berdintasunezkoa, kritikoa eta ekintzailea emango diotenak, izaera holistiko eta kompetentziala emateaz gain.

Jakintzagai honetan, sei kompetentzia espezifiko garatzen dira, irteera-profilean definitutako funtsezko kompetentziei dagozkien deskriptore operatiboekin. Kompetentzia horiek berdinak dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetarako, eta honako helburu hauek dituzte: inguruko fenomeno fisiko-kimikoak ulertzea, metodologia zientifikoak aplikatzea, zientzien erregelak eta arauak erabiltzea, zientzia-lanean baliabide analogikoak eta digitalak modu kritikoan erabiltzea, lankidetzalari-nerako estrategiak erabiltzea eta zientzia etengabeko aldaketan eta eboluzioan dagoen eraikuntza kolektibotzat hartzea.

Kompetentzia espezifikoan —funtsezko kompetentzien deskriptore operatiboei lotutakoak— ebaluazioa ebaluazio-irizpideen bidez egiten da, eta emaitzak eta prozesuak neurtzen dituzte modu ireki, malgu eta interkonektatuancurriculumaren barruan, oinarrizko jakintzen bidez. Horrela, Fisika eta Kimikako curriculumaren helburua da ikasleen ebaluazioa kompetentzien pentsamendu zientifikoari lotutako prozesu kognitiboan jardunera gehiago bideratzea.

Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzek diziplina hauetako oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarduerak hartzen dituzte barne, eta horiek egituratuta daude Fisika eta Kimikan tradizioz erabili izan diren lau ezagutza-multzo handietan: materia, energia, elkarrekintza eta aldaketa. Gainera, curriculum honek jakintza komunaren multzo bat proposatzen du, zientziaren berezko trebetasunei erreferentzia egiten diena eta jakintzagai hau garatzeko oinarrizkoak direnak.

– *Oinarrizko trebetasun zientifikoak*: multzo komuna, zientziaren metodologiei eta jakintza-arlo horiek garatzeko duen garrantziari buruzkoa. Multzo honetan, gainera, zientziak bere tresna indartsuenetako batekin, matematikarekin, duen lotura ezartzen da. Horiek komunikazio formaleko hizkuntza eskaintzen dute, eta ikasleek hezkuntza-etapa honetan eskuratzen dituzten aurretiazko eta ondorengo ezagutzak biltzen dituzte. Gainera, zientziaren historian zehar emakumeek izan duten paper nabarmena azpimarratzen da, horren balioa nabarmentzeko eta zientzia esperimentalen eta teknologiaren alorrerako bokazio berriak sustatzeko modu gisa.

- *Materia*: ikasleek substantzien barne-osaerari buruzko ezagutzak landuko dituzte, elementu eta konposatu kimikoen egitura eta materiaren propietate makroskopikoak eta mikroskopikoak nolakoak diren deskribatuz, eta aurrerago egingo dituzten ikaskuntzetan eduki horietan sakontzeko prestatuzten dira.
- *Energia*: ikasleek aurretik eskuratutako oinarrizko jakintzetan sakonduko dute. Gainera, mundu errearen garapen sozial eta ekonomikoarekin eta horrek ingurumenean dituen ondorioekin lotutako trebetasunak eta jarrerak bereganatuzten dituzte.
- *Elkarrekintza*: naturaren funtsezko elkarrekintzen ondorio nagusiak eta mundu naturalaren indar nagusien oinarrizko azterketa deskribatzen dira, baita horiek zinematikan, astronomian, kirolean, ingeniari-tzan, arkitekturan, artean edo diseinuan dituzten aplikazio praktikoak ere.
- *Aldaketak*: sistema material eta naturalen eraldaketa fisiko eta kimiko nagusiak, inguruneko egoera ohikoenak eta horien aplikazioak, eta mundu jasangarriago baterako ekarpenak jorratzen dira.

Curriculum-elementu horiek guztiak —konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak— elkarren artean lotuta daude, eta osotasun bat osatzen dute, jakintzagai honen curriculumari zentzu orokor eta integratua ematen diona. Lotura hori ikasgelako programazioetan islatu beharko litzateke.

Bigarren Hezkuntzan, Fisika eta Kimika jakintzagaiak tratamendu esperimental eta praktikoa barne hartu eta bertan arreta berezia jarri behar du. Ikasleek beren eguneroko egoerekin loturak egin ahal izan ditzaten eta hauei trebetasun zientifikoak garatzen lagunduko die, pentsamendu zientifikoak garatzeko eta zientzia eraikitzeke oinarriak sortzeko, horrek dakarren guztiarekin: behaketa, gai zientifikoak planteatzea, ebidentziak bilatzea, ikertzea eta eguneroko informazioa behar bezala tratatzea. Horrela, ikasleen artean hezkuntza zientifikoak bultzatu nahi da —ondorengo hezkuntza-etapetan ibilbide zientifikoak jarraitzeko beharrezkoa—, edo zientzia-oinarri sendoa ezarri nahi da ibilbide ez-zientifikoak egin nahi dituzten ikasleentzat.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Inguruneko fenomeno fisiko-kimiko nagusiak zergatik gertatzen diren ulertzea eta erlazionatzea, arazoak konpontzeko lege eta teoria zientifiko egokien arabera azalduz, hurbileko errealitatea eta gizakien bizi-kalitatea hobetzeko aplikatu ahal izateko.

Pentsamendu zientifikoaren funtsa ingurune naturalean gertatzen diren fenomenoaren zergatiak ulertzea da, horiek lege fisiko eta kimiko egokien bidez azaltzen saiatzeko. Horiek ulertzeak esan nahi du horien sorburu diren kausak eta izaera ulertzea, eta ikasleei zentzu kritiko eta sortzailearekin jokatzeko gaitasuna ematen die, zientziaren bidez hurbileko errealitate soziala ahal den neurrian hobetzeko.

Konpetentzia espezifiko hori garatzeak galderak egitea dakar, ingurunearen izaera nolakoa den, sistema materialen artean sortzen diren elkarrekintzak zein diren, eta horien kausak eta ondorioak zein diren ulertzeko. Ulermen horrek oinarri kritikoak ematen ditu erabakiak hartzeko, arazoak ebazteko prozesuak aktibatzen ditu, eta, aldi berean, ezagutza zientifiko berria sortzeko aukera ematen du, fenomenoak interpretatuz, prozedura zientifikoak erabiliz eta lortzen diren emaitzak aztertuz. Prozesu horiek guztiak gainerako konpetentzia espezifikoekin lotuta daude, eta pentsamendu zientifikoaren garapenean sartuta daude; azken gai hori bereziki garrantzitsua da ikasle gaituen prestakuntza integralean. Beraz, konpetentzia hori garatzeko, ikasleek ikerketa zientifikoan erabiltzen diren forma eta prozedura estandarrak eta horiek mundu naturalarekin duten harremana ezagutu behar dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII4,

2. Ikasleek egindako behaketak galdera moduan adieraztea, horiek azaltzeko eta frogatzeko hipotesiak formulatuz, esperimentazio zientifikoaren, ikerketaren eta ebidentzien bilaketaren bidez, pentsamendu zientifikoaren arrazoibide propioak garatzeko eta metodologia zientifikoaren erabilera trebetasunak hobetzeko.

Nerabezaroan zientziak eta pentsamendu zientifikoaren garapenak berezko duten ezaugarri bat fenomeno naturalak ezagutzeko eta deskribatzeko jakin-mina da. Ikasleei tresna zientifikoak emateak berekin dakar zientziaren berezko metodologiekin lan egitea eta horiek gizartean duten garrantzia aitortzea. Konpetentzia hori garatzen duten ikasleek behatu, hipotesiak formulatu eta esperimentazioa, ikerketa eta ebidentzien bilaketa aplikatu behar dituzte, horiek egiaztatzeko, aldaketak proposatzeko eta ondorio posibleak aurreikusteko.

Konpetentzia hori garatzeko, asko laguntzen dute ikasleek bereganatzen dituzten ezagutza zientifikoek, eta, gainera, baliabide zientifikoaren bilduma oso bat edukitzeak, hala nola laborategiko teknikak edo informazioaren tratamendua eta aukeraketa. Konpetentzia hori garatzen duten ikasleek pentsamendu zientifikoaren mekanismoak erabiltzen dituzte eguneroko errealitatearekin interakzionatzeko, eta beren ingurunearen behaketetatik datorren edo beste edozein bidetatik jasotzen duten informazioa modu arrazoituan eta kritikoan aztertzeko eta termino zientifikoetan adierazteko eta argudiatzeko gaitasuna dute.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KPSII4, EK1, KAKK3.

3. Fisikaren eta kimikaren oinarrizko erregelak eta arauak erraztasunez erabiltzea IUPACen hizkuntzari, matematika-hizkuntzari, neurketa-unitate zuzenak erabiltzeari, laborategiaren erabilera seguruari, eta datuak eta informazioa hainbat formatutan eta iturritan interpretatu eta sortzeari dagokienez, hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala eta zeharkakoa, eta ikerkuntzan eta zientzian herrialde eta kultura desberdinen arteko komunikazio fidagarriaren beharraz ohartzeko.

Informazioa zuzen interpretatzea eta transmititzea oso garrantzitsua da pentsamendu zientifikoaren eraikuntzan, ikasleei zientziaren hizkuntza unibertsalean komunikatzeko gaitasuna ematen baitiete, munduko muga geografiko eta kulturaletatik haratago. Konpetentzia hori garatuz, ikasleak diziplina zientifikoetako norabide anitzeko informazio-fluxu bereizgarrieekin eta komunitate zientifiko osoak komunikazio eraginkorrak ezartzeko unibertsaltzat jotzen dituen arauekin ohitzea lortu nahi da. Gainera, ikasleek datuen kalitatea ebaluatzea eta haien zehaztasunik eza baloratzea eskatzen du, baita azterketa zientifiko bat egin aurretik egindako ikerketaren garrantzia onartzea ere.

Konpetentzia horretan garrantzi handia du formatu eta iturri desberdinak erabiltzeak, analogikoak zein digitalak (testuak, enuntziatuak, taulak, grafikoak, txostenak, eskuliburuak, diagramak, formulak, eskemak, ereduak, sinboloak, etab.), datuak eta informazioa interpretatu eta sortzeko.

Konpetentzia espezifiko horren bidez, zientziaren diziplina anitzeko izaerarekin, arauen aplikazioarekin, aldagaien arteko erlazioarekin, argudiatzeko gaitasunarekin, hizkuntza unibertsala erabiltzearen garrantziaren balorazioarekin, norberarekiko, besteekiko eta ingurumenarekiko ezarritako arau eta akordioekiko errespetuarekin eta abarrekin lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak sustatu nahi dira, horiek funtsezkoak baitira esparru zientifikoetan, ingurune sozial eta komunitario zabalago baten parte direlako.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, KD3, KPSII4 eta HK1.

4. Plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak modu kritiko eta efizientean erabiltzea, bai banakako lanerako, bai talde-lanerako, informazioa kontsultatuz, materialak sortuz eta ikaskuntza-inguruneetan komunikazio eraginkorra eginez, sormena, garapen pertsonala eta ikaskuntza indibidual eta soziala sustatzeko.

Baliabide tradizionalak zein digitalet berebiziko garrantzia dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan, oro har, eta konpetentziak eskuratzean, bereziki; izan ere, ondo hautatutako baliabide batek goi-mailako prozesu kognitiboak garatzea errazten du, eta ikasleei ulermenean, sormenean eta garapen pertsonal eta taldekoan laguntzen die. Baliabideak oso garrantzitsuak dira, ez bakarrik informazioa kontsultatzeako, baita beste helburu batzuetarako ere, hala nola material didaktikoak sortzeko edo ikaskuntza-inguruneke beste kide batzuekin eraginkortasunez komunikatzeko, eta horrek ikasleei tresnak ematen dizkie gaur egun pertsona integratuak, aktiboak eta beren ingurunearekin konprometituak eskatzen dituen gizartera egokitzeko.

Horregatik, konpetentzia espezifikoko horren helburua da, halaber, ikasleek kolaboraziorako eta kooperaziorako askotariko baliabideak eta teknikak erraztasunez erabiltzea, beren ingurunea aztertzeako, eta norberarentzat eta besteentzat balioa eskainiko duten produktuak asmatu, diseinatu eta fabrikatzea ahalbidetuko dieten behar jakin batzuk aurkitzeko.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KD2, KPSII3, EK3, KAKK4.

5. Lankidetzaren dagozkion estrategiak erabiltzea, berdinen arteko hazkundea sustatuz, komunitate zientifiko kritiko, etiko, eraginkor eta ekintzaile baten oinarri gisa, zientziak gizartearen hobekuntzan duen garrantzia, aurrerapen zientifikoaren aplikazioak eta ondorioak, osasunaren babesa eta ingurumenearen kontserbazioa jasangarria ulertzeko.

Diziplina zientifikoaren ezaugarria da elkarren artean lotutako eta integratutako jakintzak osatzen dituztela. Era berean, zientzian diharduten pertsonen talde-lanerako gaitasunak garatzen dituzte, kolaborazioa eta kooperazioa baitira gizarte guztietan ezagutza zientifikoa eraikitzeke oinarria. Ikasle konpetenteak ohituta egongo dira diziplina zientifiko guztietako lan egiteko moduetara eta teknika ohikoenetara, hori baita, ekintzailetzaren eta sormenaren bidez, eboluzionatzen duen gizarte batean integratzea lortzeko modua. Talde-lanak ikuspuntu desberdinak batzeko eta zientziaren aurrerapenaren parte diren ikerketa-eredu bateratuak sortzeko balio du.

Konpetentzia espezifikoko hori garatzeak konpromiso-lotura bat sortzen du ikasleen eta euren taldearen artean, baita euren ingurunearekin ere, eta horrek gaitzen ditu ulertzeko zein diren egungo gizartearen egoera eta arazo garrantzitsuenak, nola hobetu, nola jokatu norberaren eta komunitatearen osasuna hobetzeko, eta zer bizi-ohiturek ahalbidetzen dieten ingurumena kontserbatzeko modu jasangarrian jardutea ikuspuntu zientifiko eta teknologiko batetik.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM3, STEM5, KD3, KPSII3, HK3 eta EK2.

6. Zientzia etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den eraikuntza kolektibo gisa ulertzea eta baliostea, non zientzian diharduten pertsonen parte hartzeaz gain, gizarteko gainerako pertsonen elkarrekintza ere eskatzen duen, aurrerapen teknologikoan, ekonomikoan, ingurumenekoan eta sozialean eragina duten emaitzak lortzeko.

Fisika eta Kimika jakintzagaiaren konpetentzia-garapena osatzeko, ikasleek onartu behar dute zientzia ez dela prozesu amaitu bat, baizik eta, teknologiarekin eta gizartearekin elkarrekin jardunez, etengabe eraikitzen ari dela. Azalpen berriak bilatzea, prozedurak hobetzea, aurkikuntza zientifiko berriak eta abar sormenezko pentsamendutik sortzen dira eta planetako eta gizarteko bizitzan eragiten dute, eta zientziak horietan eragiten dituen inpaktuak modu globalean ezagutzea funtsezkoa da garapen iraunkorrerako bide zuzena aukeratzeko. Ildo horretan, ikasle gaituek hainbat balio hartu behar dituzte kontuan, hala nola gizarte eskatzaile batek sortutako eta harentzat egindako aurrerapen zientifikoaren garrantzia, zientziaren mugak, gai etikoak eta zientzialarien jardueran duten konfiantza.

Hori guztia kontzientzia sozial eta ekologiko baten parte da, non komunitate zientifikoak parte hartzeaz gain, gizarte osoaren parte-hartzea ere eskatzen du, aurrerapen indibidual eta sozial bateratua behar baitu, eta horretan emakumeen ekarpena funtsezkoa da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII4, HK4 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hirugarren maila	Laugarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Printzipio, teoria eta lege zientifiko egokietatik abiatuta, eguneroko fenomeno fisiko-kimiko garrantzitsuenak identifikatzea, ulertzea eta azaltzea, modu argudiatuan adierazita, euskarri eta komunikabide anitzak erabiliz.	1.1. Eguneroko fenomeno fisiko-kimikoak ulertzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera zorrotz azaltzea eta argudiatuz adieraztea, euskarri eta komunikabide anitzak erabiliz.
1.2. Planteatutako problema fisiko-kimikoak ebaztea, lege eta teoria zientifiko egokiak erabiliz, soluzioak aurkitzeko erabiltako prozedurak arrazoituz eta emaitzak behar bezala adieraziz.	1.2. Planteatutako problema fisiko-kimikoak ebaztea, lege eta teoria zientifiko egokiak erabiliz, soluzioak aurkitzeko erabiltako prozedurak arrazoituz, eta emaitzak zuzen eta zehatz adieraziz.
1.3. Zientzia-arloko benetako egoera problematikoak hurbilko ingurunean ezagutzea eta deskribatzea, eta zientziak eta, bereziki, fisikak eta kimikak horiek ebazten lagundu dezaketen ekimenei ekitea, gizartean duten inpaktua kritikoki aztertuz.	1.3. Zientzia-arloko benetako egoera problematikoak ezagutzea eta deskribatzea, eta zientziak eta, bereziki, fisikak eta kimikak horiek ebazten lagundu dezaketen elkarlaneko ekimenei ekitea, gizartean eta ingurumenean duten inpaktua kritikoki aztertuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Fenomenoak identifikatzean eta deskribatzean zientziaren berezko metodologiak erabiltze, ikerketaren, dedukzioaren, esperimentazioaren eta arrazoiketa logiko matematikoa- ren bidez, erantzuna eman dakiekeen gaiak abiapuntu hartuz, eta egiaztapen esperimentalik ez duten sasizientifikoak desberdinduz.	2.1. Fenomeno zientifikoak identifikatzean eta deskribatzean zientziaren berezko metodologiak erabiltzea, mundu naturalean ikusitako egoeretatik nahiz informazio testuala, grafikoa edo zenbakizkoa duten enuntziatuen bidez behatutako egoeretatik abiatuz.
2.2. Lantzen diren gaien izaeraren arabera, egindako hipotesiak egiaztatze edo ezeztatze modurik onena hautatzea, ikerketa-estrategiak diseinatuz eta egindako galderaren izaerarekin bat datozen ondorioak eta erantzunak lortzea ahalbidetuko duten ebidentziak bilatuz.	2.2. Planteatutako galderetarako, eskuratutako tresnekin eta ezagutzekin —bai modu esperimentalean bai modu deduktiboan— egiazta daitezkeen erantzunak aurreikustea, baliozkotze-prozesuan arrazoibide logiko-matematikoa aplikatuz.
2.3. Gaiak eta hipotesiak formulatzean ezagutzen diren lege eta teoria zientifikoak aplikatzea, dagoen ezagutza zientifikoarekin koherentea izanez eta horiek ebazteko edo egiaztatze beharrezkoak diren prozedura esperimentalak edo deduktiboak diseinatuz.	2.3. Dagoen ezagutza zientifikoarekiko modu informatu eta koherentean hipotesiak baliozkotzeko lege eta teoria zientifiko garrantzitsuenak aplikatzea, haiek ebazteko beharrezkoak diren prozedura esperimentalak edo deduktiboak diseinatuz eta emaitzak kritikoki aztertuz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Prozesu fisiko-kimiko jakin bati buruzko informazioa interpretatzean eta komunikatzean datuak hainbat formatutan erabiltzea, bakoitzak duena elkarren artean erlazionatuz, eta kasu bakoitzean problema bat ebazteko garrantzitsua dena kontuan hartuz.	3.1. Prozesu fisiko-kimiko bati buruzko informazioa hautatze-ko, interpretatzeko, antolatze edo jakinarazteko askotariko iturri fidagarriak eta seguruak erabiltzea, iturri horietako bakoitzak duena elkarren artean erlazionatuz, kasu bakoitzean arazo baten ebazpenean garrantzitsua dena kontuan hartuz, eta garrantzirik ez duen guztia baztertuz.
3.2. Behar bezala erabiltzea fisikaren eta kimikaren oinarriko arauak, neurketa-unitateen erabilera, tresna matematikoa eta nomenklatura-arauak barne, komunitate zientifiko osoarekin komunikazio eraginkorra lortuz.	3.2. Behar bezala erabiltzea fisikaren eta kimikaren oinarriko arauak, zenbait unitate-sistemaren erabilera zuzena, beharrezko tresna matematikoa eta nomenklatura-arau aurreratuak barne, komunitate zientifikoarekin komunikazio eraginkorra lortuz.
3.3. Zientziaren berariazko espazioak —hala nola fisika eta kimikako laborategia— erabiltzeko arauak praktikan jartzea, norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta instalazioen zaintza ziurtatuz.	3.3. Zientziaren berariazko espazioak —hala nola fisika eta kimikako laborategia— erabiltzeko arauak zorrotz aplikatzea, norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta instalazioen zaintza ziurtatuz.

Hirugarren maila	Laugarren maila
4. kompetentzia espezifikoa	
4.1. Askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, erabiltzea, ikaskuntza autonomoa eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekiko elkarrekintza hobetuz, irakasleekiko eta ikasleekiko errespetuz, eta parte-hartzaile bakoitzaren ekarpenak kritikoki aztertuz.	4.1. Askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, erabiltzea, ikaskuntza autonomoa eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekiko elkarrekintza hobetuz, zorrotz eta errespetuz, eta parte-hartzaile bakoitzaren ekarpenak kritikoki aztertuz.
4.2. Informazioa kontsultatzeko eta edukiak sortzeko askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, modu egokian eta moldakorrean erabiltzea, iturririk fidagarrienak irizpidez hautatuz, egokienak ez direnak baztertuz eta norberaren ikaskuntza eta ikaskuntza kolektiboa hobetuz.	4.2. Informazioa kontsultatzeko eta edukiak sortzeko askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, modu moldakorrean lantzea, iturririk eta tresnarik fidagarrienak irizpidez hautatuz eta erabiliz, egokienak ez direnak baztertuz eta norberaren ikaskuntza eta ikaskuntza kolektiboa hobetuz.
5. kompetentzia espezifikoa	
5.1. Elkarrekintza eraikitzaileak eta hezkidetzailak ezartzea, kooperazio-jarduerak abiaraziz, zientzian lanerako bitarteko efizientea eraikitzeko modu gisa.	5.1. Elkarrekintza eraikitzaileak eta hezkidetzailak ezartzea, kooperazio-jarduerak abiaraziz eta kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiltzen hasiz, zientzian lanerako bitarteko efizientea eraikitzeko modu gisa.
5.2. Modu gidatuan, eta metodologia egokiaren arabera, proiektu zientifikoak abiaraztea, ikasleak gizartearen hobekuntzan inplikaturik eta norbanakoarentzat eta komunitatearentzat balioa sortuz.	5.2. Era autonomoan eta metodologia egokiaren arabera, proiektu zientifikoak abiaraztea, ikasleak gizartearen hobekuntzan inplikaturik eta norbanakoarentzat eta komunitatearentzat balioa sortuz.
6. kompetentzia espezifikoa	
6.1. Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta zientziak teknologian, gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak onartzea eta balioestea, zientziako gizon-emakumeen analisi historikoaren eta aurrerapen zientifikoaren bidez.	6.1. Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta horrek egungo gizartean eragin eta ondorio garrantzitsuak dituela onartzea eta balioestea, emakumeek eta gizonek lortutako aurrerapen zientifikoaren analisi historikoaren bidez, baita egungo egoera eta testuinguruaren bidez ere (ikerketatutakoak, erakunde zientifikoak, etab.).
6.2. Ingurunean hautematea gizarteak eskatzen dituen teknologia-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-premia garrantzitsuenak, herritar guztien inplikazioaren bidez zientziak soluzio jasangarria emateko duen gaitasuna baloraturik.	6.2. Gizarteak eskatzen dituen teknologia-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-premia garrantzitsuenak hautematea, herritarren inplikazioaren bidez zientziak sormenezko soluzioak eta soluzio jasangarria emateko duen gaitasuna baloraturik.

ONARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila
A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak
Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaiak identifikatu eta formulatu, hipotesiak egin eta horiek esperimenduak eginez egiaztatuz.*
Lan esperimentalak eta ikerketa-proiektuak: problemak ebazteko eta ikerketak garatzeko estrategiak, ikerketa, dedukzio, ebidentzien bilaketa eta arrazoiketa logiko-matematikoaren bidez, behaketetatik baliozko inferentziak eginez eta ondorioak lortuz.*
Ikaskuntza zientifikorako hainbat ingurune eta baliabide, hala nola laborategia edo ingurune birtualak: materialak, substantziak eta tresna teknologikoak.*
Espazio bakoitza erabiltzeko arauak, norberaren eta komunitatearen osasuna, sareetako segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz eta babestuz.*
Hizkuntza zientifikoa: Nazioarteko Sistemaren unitateak eta hauen sinboloak. Oinarrizko tresna matematikoak hainbat zientzia- eta ikas-egoeratan.*
Informazio zientifikoa interpretatzeko eta ekoizteko estrategiak, hainbat formatu eta bitarteko erabiliz: norberaren irizpidearen garapena, pentsamendu zientifikoak gizartearen hobekuntzari egiten dion ekarpenean oinarrituta, gizartea bidezkoagoa, zuzenagoa eta berdinzaleagoa izateko.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila
Fisikak eta kimikak gizartearen aurrerapenean eta hobekuntzan dituzten mugari historiko eta gaur egungo garrantzitsuetan zientzialariek duten zereginaren eta kultura zientifikoaren balorazioa.*
B. Materia
Egitura atomikoa: eredu atomikoen garapen historikoa, isotopoen existentzia, eraketa eta propietateak, eta elementuen antolamendua taula periodikoan.*
Konposatu kimiko nagusiak: euren eraketa, propietate fisikoak eta kimikoak, euren aplikazioen balorazioa. Masa atomikoa eta masa molekularra.*
Nomenklatura: hizkuntza zientifiko komun eta unibertsal baten erabilera, substantzia sinpleak, ioi monoatomikoak eta konposatu bitarrak formulatuz eta izendatuz, IUPACen nomenklatura-arauen bidez.*
C. Energia
Energia: energiari, propietateei eta aldaketa-prozesu guztien kausa gisa deskribatuko duten adierazpenei buruzko galderen eta hipotesien formulazioa.
Materiaren izaera elektrikoa: gorputzen elektrizazioa, zirkuitu elektrikoak eta energia elektrikoa lortzeko bideak. Energia aurrezteko behararen eta ingurumenaren kontserbazio jasangarriaren inguruko kontzientziazioa.*
Elektrizitatearen ekoizpenaren eta erregai fosilen erabileraren ingurumen-arazoak. Erregai fosilen agortzea. Nazioarteko itunen betetzea.
D. Interakzioa
Fenomeno grabitatorioak, elektrikoak eta magnetikoak: naturaren indarrekiko lotura agerian uzten duten esperimendu errazak.*
E. Aldaketa
Erreakzio kimikoen interpretazio makroskopikoa eta mikroskopikoa: kimikak ingurumenarekin, teknologiarekin eta gizartearekin dituen harremanak.*
Masa kontserbatzeko legea eta zehaztutako proportzioen legea: lege horien aplikazioa, materiaren eredu atomiko-molekularra baliozkotzea ahalbidetzen duten ebidentzia esperimental gisa.*
Erreakzio kimikoei eragiten dieten faktoreak: erreakzio kimikoen eboluzioaren aurreikuspen kualitatiboa, zientziak gaur egun dituen arazoak konpontzeko duen garrantzia ulertuta.*

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila
A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak
Lan esperimental eta ikerketa-proiektuak: problemak ebazteko eta ikerketaren, dedukzioaren, ebidentzien bilaketaren eta arrazoiketa logiko-matematikoaren bidez errorea tratatzeko estrategiak, behaketen inferentzia baliodunak eginez eta baldintza esperimentaletatik haratago doazen ondorioak lortuz, egoera berrietan aplikatzeko.*
Ikaskuntza zientifikoko hainbat ingurune eta baliabide, hala nola laborategia edo ingurune birtualak: materialak, substantziak eta tresna teknologikoak.*
Espazio bakoitza erabiltzeko arauak, norberaren eta komunitatearen osasuna, sareetako segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz eta babestuz.*
Hizkuntza zientifikoa: unitateen sistemen eta horien sinboloen erabilera egokia. Hainbat zientzia- eta ikas-egoeratarako egokiak direntresna matematikoak.*
Informazio zientifikoa interpretatzeko eta ekoizteko estrategiak, hainbat formatutan eta hainbat bitartekotatik abiatuta: norberaren irizpidearen garapena, pentsamendu zientifikoak gizartearen hobekuntzari egiten dion ekarpenean oinarrituta, gizartea bidezkoagoa, zuzenagoa eta berdinzaleagoa izateko.*
Fisikak eta kimikak gizartearen aurrerapenerako eta hobekuntzarako dituzten mugari historiko eta gaur egungo garrantzitsuetan zientzialariek duten zereginaren eta kultura zientifikoaren balorazioa.*
B. Materia
Sistema materialak: disoluzioei eta gasen buruzko hainbat ikas-problemaren eta -egoeraren ebazpena, beste sistema material esanguratsu batzuen artean.*
Eredu atomikoak: eredu atomiko klasiko eta kuantiko nagusien garapen historikoa eta partikula subatomikoen deskribapena, fisikaren eta kimikaren aurrerapenekin duten erlazioa ezarriz.*

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila
Atomoen egitura elektronikoa: atomo baten konfigurazio elektronikoa eta horrek taula periodikoan duen posizioarekin eta bere propietate fisiko-kimikoekin duen erlazioa.*
Konposatu kimikoak: euren prestakuntza, propietate fisiko eta kimikoak, eta ingeniari-tza edo kirola bezalako beste arlo batzuetan duen erabilgarritasunaren eta garrantziaren balorazioa.*
Materia kantitatearen kuantifikazioa: izaera desberdineko sistema materialen mol kopuruaren kalkulua, ingurune zientifikoan hura neurtzeko eta adierazteko moduak erraztasunez erabiliz.*
Nomenklatura inorganikoa: substantzia sinpleen, ioien eta konposatu kimiko bitarren eta hirutarren izendapena, IUPACen arauen arabera.*
Nomenklatura organikoari buruzko sarrera: konposatu organiko mono-funtzionalen izendapena, IUPACen arauetatik abiatuta, karbonoan oinarritutako ingurune-ko konposatu ugari ulertzeko oinarri gisa.*
C. Energia
Energia: energiaren formei eta aplikazioei buruzko hipotesien formulazioa eta egiaztaketa, energiaren propietateetatik eta kontserbazio-printzipiotik abiatuta, eguneroko egoeretan energia mekanikoarekin lotutako problemak esperimentatzeko eta ebazteko oinarri gisa.*
Energia-transferentziak: lana eta beroa, indarrekin edo tenperatura-diferentziarekin lotutako sistemen arteko energia-transferentziarako modu gisa. Argia eta soina, energia transferitzen duten uhin gisa.*
Energia gure munduan: eguneroko bizitzan kontsumitutako energiaren balioespena, informazio egiaztatua bilatuz, esperimentatuz eta arrazoiketa zientifikoa eginez, energiak gizartean duen garrantzia, ekoizpena eta bere erabilera arduratsua ulertuz.*
D. Interakzioa
Gorputz baten mugimendua deskribatzen duten magnitude, ekuazio eta grafiko nagusien aurreikuspena eta egiaztapena, esperimentazioa eta arrazoiketa matematikoa erabiliz, eta eguneroko egoerekin eta bizi-kalitatearen hobekuntzarekin lotuz.*
Indarra gorputzen aldaketen eragile gisa: beste eremu batzuetan —adibidez, diseinuan, kirolean edo ingeniari-tzan— aplikatzen den Fisikaren oinarrizko printzipioa.*
Indarren izaera bektoriala: oinarrizko aljebra bektorialaren erabilera indarrekin eragiketarako grafikoki eta zenbakitan egiteko, eta indar multzoen mende dauden sistemekin lotutako problemak ebazten aplikatzeko, eguneroko egoeretan duen garrantzia baloratuz.*
Eguneroko ingurune-ko indar nagusiak: pisua, normala, marruskadura, tentsioa edo bultzada, eta haien erabilera hainbat agertokitan fenomeno fisikoak azaltzeko.*
Grabitazio unibertsalaren legea: unibertsoa osatzen duten gorputzen arteko erakarpina. Pisua, kontzeptu fisiko gisa.*
Indarrak eta presioa fluidoetan: indarrek eta presioak likidoetan eta gasetan dituzten efektuak. Efektu horiek deskribatzen dituzten oinarrizko printzipioak.*
E. Aldaketa
Ekuazio kimikoak: erreakzio kimikoen doikuntza eta estekiometrian oinarritutako aurreikuspen kualitatiboan eta kuantitatiboan egikaritzea, industriaren, ingurumenaren eta gizartearen prozesu fisiko-kimikoekin lotuta.*
Erreakzio kimiko interesgarrien deskribapen kualitatiboak: errektuntza-erreakzioak, neutralizazioa eta prozesu elektrokimiko sinpleak, teknologian, gizartean edo ingurumenean dituzten inplikazioak baloratuz.*
Erreakzio kimikoen abiadura eragina duten faktoreak: atomoen berrantolaketa gertatzeko moduaren ulermena, talken teoria bezalako ereduak aplikatuz eta eguneroko prozesu kimiko garrantzitsuenetan aurreikusteak eginez.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea, herritar gogoetatsu eta sortzaileak prestatzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezeroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek prestatutako eta kognitiboki emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

Geografia eta Historia jakintzagaiak, Lehen Hezkuntzako *Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza* arloko kompetentziak garatzeko prozesuari jarraipena emateaz gain, iragana aztertzeak gaur

egungo gizarte-bizitza ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala ematen digu. Beraz, eztabaidaezina da *Geografia eta Historia* lantzeko beharra pentsamendu eta judizio analitiko askerako gaitasuna sustatzen laguntzen duen jakintzagaia dela. Geografiak gure habitata, honen indar eta ahuleziekin batera, deskribatzen duen bitartean, Historiak nortzuk garen eta horren zergatiak jakiten laguntzen digu, gertakariak ezagutza eta ondorengo gogoetetatik abiatuta. Eta horrek guztiak hausnarketa pertsonaletan oinarritutako baliabideak ematen ditu, informazioa baloratzeko eta alderatzeko eta pentsamendu kritikoa erabiltzeko.

Beraz, ondoriozta dezakegu jakintzagai honen oinarritzko jakintzak irakasteak, ez dituela bakarrik barne hartzen Lurrari eta iraganari buruzko ezagutzak, baizik eta gertaeretatik abiatutako gogoeta egitea, eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioak bilatzea ere. Hau da, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorak sortzeko tresnak. Eta hori guztia, jakina, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren parte den diziplina gisa, Euskal Herriko Geografia, Historia eta kultura, baita gizartea, balioak, erakundeak, ekonomia, zerbitzuak eta sistema politikoa eta gobernu-sistema ere kontuan harturik.

Oinarritzko jakintzak sekuentziatzeak, banatzeak eta mailakatzeak, diziplinaren ordena kronologikoa errespetatzen dute; baina, euren planteamenduen bidez, espirtu pedagogiko berritzailea ere proposatzen dute. Konbinazio horrek, irakaslearen lanarekion batera, ikasleak oinarri sendoak lortzera bideratuko ditu, lagunduko diena gizakien Historia eta Lurra, non aurrekoa garatzen den, panorama orokor batean egoki kokatzen, eta, pixkanaka eta nerabeen eboluzio psikokognitiboa kontuan hartuta, euren irteera-profila osatzen. Jakintzagai hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan zehar lantzeak lagundu egingo du aipatutako profila osatzen duten funtsezko konpetentziak pixkanaka garatzen.

Horrela, *Geografia eta Historia* ikasteak zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako Konpetentzia -kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen duelako-; eta Gaitasun Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa —gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketara egokitzeko eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharri erreparatzen irakasten du eta. Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibilitateabai Ondare Historiko-Artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako. Zeharka, diziplina honek Ekintzailtza Konpetentzia ere garatzen du; izan ere, ikasleei laguntzen die bizitzan zehar izango dituzten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Eta azken hori egiten du Lurra eta bere funtzionamendua ezagutzearen bidez eta gizakiak, iraganean eta gaur egun, dituen erronkak (ekologikoak, ekonomikoak edo sozialak izanik) identifikatuz. Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziari eta Konpetentzia Eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztabaidaezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko; eta Konpetentzia Digitala funtsezkoa da gaur egun edozein jakintzagaitan trebatzeko. Azkenik, Geografia eta Historia jakintzagaiak Matematika, Zientzia, Teknologia eta Ingeniaritzarako Konpetentziak (STEM) garatzen ere laguntzen du, metodo zientifikoak, arrazoiketa logikoa eta irudikapen matematikoa erabiltzea eskatzen baititu informazioa aztertzean eta problemak ebaztean.

Horri guztiari, Geografia eta Historiaren diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, gainerako jakintzagaiekin batera lan egiteko aukera ematen duena, gure planeta eta gure iragana ezagutzeko beharriaren ondorioa —egungo munduan kokatzeko eta hura ulertu, zaindu, aberastu eta dituen xehetasunez gozatzeko— saihestezina bihurtzen da. Historian zehar, jakintza-diziplina guztiak gizakiok etengabe planteatzen ditugun galderei eta beharrei erantzuteko garatu direla kontuan izanik, ukaezinak dira, besteak beste, Geografia Fisikoaren eta Biologiaren eta Geologiaren arteko harremana, Industrializazioen Historiaren eta Teknologiaren artekoa, eta Historiaurrearen eta Kimikaren artekoa. Azken hori lagungarria da, adibidez, datazioak egiteko, edo gaurkotasan handia duen zerbaitetan, hala nola Epidemiologia edo Medikuntza, eta horien historia.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan zehar, *oinarritzko jakintzen* bidez egindako lanaren bitartez eskuratu eta garatu diren trebetasunei *konpetentzia espezifikoak* deitzen zaie. Gure kasuan, lau kurtsoko pixkanakako lan eta ikaskuntza prozesua egin ondoren, trebetasunak honako hauek izango dira:

Geografiaren eta Historiaren inguruko gaiei buruzko ikerketa eta argudiaketa; paisaiaren elementuen identifikazioa eta azterlana; antolaketa politikoa, gertaeren bilakaera eta denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusien —bai sozialak, bai demografikoak, ekonomikoak eta kulturalak— ezagutza; joera demografikoen, bizi-zikloen eta bizimoduaren deskribapena; sistema ekonomikoak eta horien grapen prozesuen azalpena; identitate indibidual eta kolektiboen oinarrien identifikazioa; egungo kultura anitzeko errealitatea osatu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalen ezagutza eta ulermena eta zibilizazioek Historian zehar egindako ekarpen kultural, artistiko, zientifiko eta pentsamenduzkoen ezagutza.

Horrek guztiak gure ikasleei lagunduko die ezagutzak eskuratzen eta errespetuzko pentsamendu kritikoa garatzen; Lurraren kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzen; sistema demokratiko barruan, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzen; egungo errealitatea ulertzen eta, erronken aurrean, proposamen alternatiboak aintzat hartzen; gizarteak bilakaera historikoaren ondorio direla ulertzen eta oinarriak izateko alternatibak sustatzen eta gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa hartzen; egungo mundu ekonomikoa, baita gizarte-eskubideen garrantzia eta oinarritzko baliabideen eskuratze unibertsalaren munta ulertzen; gizatalde identitateen esanahia ulertzen, horiekin lotutako sentimenduak errespetatzen eta haien legatu historiko eta kulturala baloratzen eta mendebaldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzen baita egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzen ere.

Eta ikasleek egindako aurrerapenak baloratzeko, irizpide pedagogikoak kontuan hartuz eta nerabearen ikaskuntza-prozesuari lotuta, ebaluazio-irizpideak zikloka banakatuta eta sekuentziaz daude.

Hala ere, oinarritzko jakintzak izango dira ikasleak eramango dituztenak konpetentzia espezifikoak eskuratzera, irteera-profil fidagarri bat lortzeko helburua izanda. Horregatik, jakintza horiek ezinbestekoak dira gizakiok denboran zehar mundua ulertzeko izan ditugun modu desberdinen transmisio zuzena behar bezala egin ahal izateko. Era berean, errealitate aldakorrak, gure planetari berari gertatzen zaien aldaketek eta gizakiaren eraginak baldintzatzen dituztela, hau da, aldaketa horietako asko gure ekintzen ondorio direla, bereganatzeko. Horregatik, ezinezkoa litzateke errealitatea aztertzea, ezta etengabeko aldaketa hautematea ere, gutxieneko datu geografiko eta historiko batzuk ezagutu gabe; zehatzak eta pedagogikoki antolatuak direnak, eta bilakaera horiek guztiak zeintzuk izan diren erakusten dizkigutenak.

Jakintza horiek, beraz, banatu dira lehen eta bigarren mailetarako hiru multzotan, eta hirugarren eta laugarren mailetarako bi multzotan: *Egungo Munduaren Erronkak*, Geografia Fisikoaren, Giza Geografiaren eta Geografia Ekonomikoaren ezagutzarekin bat datorrena; *Gizarteak eta Lurraldeak*, hau da, Historiari dagozkion oinarritzko jakintzak; eta *Gizabidezko Konpromisoa*, aurrekoen eduki zehatzak egungo errealitatearekin lotzen dituen multzo transbertsal bat. Lehenengo bi multzoen barruan, jakintza batzuk era transbertsanean ere tratatu beharko dira eta, ondorioz, ikaste-egoera guztietan landu beharko dira. Gainerakoak jakintzagaiari dagozkion jakintza espezifikoak dira eta jorratu ahal izango dira adierazitako moduan (paisaiaren, klimaren, politikaren, gizartearen, erlijioaren, kulturaren eta abarren erlazioetatik abiatuta) edo ikaste-egoerak pedagogikoki antolatzeko helburuarekin konbinatuta, adibidez, etapa historikoen arabera edo irakasle-taldeak egokiagotzat joko duen moduan.

Geografia eta Historia jakintzagaiaren erronka nagusia da, baliabide horien bitartez, irakasleak, jakintzaren jabe izanik, gida gisa balio izatea ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen, eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu, horrela jakin-mina, pentsamendu kritikoa, autonomia eta, ondorioz, erresilientzia sustatuz. Lotura hori gabe, ez da motibaziorik egongo eta gauzak ezingo dira ikuspegi berrietatik landu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea, tokikotik globalera, informazioa bilatuz, aukuratuz, tratatuz eta antolatuz, eta iturri historikoak eta geografikoak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Informazioa bilatu, hautatu eta tratatzearekin lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ikaste-egoera guztietan, gure egungo ezagutzaren gizartearen testuinguruan. Konpetentzia horiek entrenatzea eta erabiltzea funtsezkoa da datuak, edukiak eta jakintzak, hau da, ezagutza, eskuratzeko eta barneratzeko. Horretarako, bilaketa-sistemak, datu-baseak eta baliabide-plataformak ikasleentzat eskuragarri dauden ingurune digitaletan erabiltzearekin lotutako estrategia konplexuak garatu behar dira, dokumentu eta iturri geografiko eta historikoak erabiltzeaz gain. Prozesuak, ulermenezko irakurketarako, iturrien kritikarako, datuen maneirako eta metaketarako oinarrizko prozesuak barne hartzen ditu, baita partekatutako informazioa modu eraginkorrean konektatzeko eta antolatzeko estrategia egokiak ere, bai banakako, bai talde lanetan.

Hainbat informazio-iturri egiaztatetik abiatuta, iritzi propioak sortzeko, eta oinarririk gabeko iritziak eta informazio faltsuak bereizteko gaitasuna funtsezkoa da gizarte honetan, non, aldi berean, gehiegizko informazioa eta nahita emandako desinformazioa ailegatzen zaigun. Gainera, gizateriari, bai ingurune hurbilenean, bai testuinguru globalean, eragiten dioten arazo eta erronka nagusiekiko interesa eta sentibilitatea izateak eta komunikabideetan eta sare sozialetan sortzen diren eztabaiden jarraipena egiteak, herritarren jarrera arrazionala garatzeko eta pentsamendu kritikoa gauzatzeko beharra dakartza. Ideia propioak sortzea eta ideia horiek pentsamendu-korrante eta mugimendu ideologiko desberdinekin aldeatzea edota lotzea, baita gaur egungo eta iraganeko gai nagusiei buruzko elkarriketa eta eztabaiden bidez argudiatuz azaltzea ere, funtsezkoa da ikuspuntuak elkarri trukatzeko eta identitate indibidualak eratzeko. Are gehiago, jarrera toleranteak finkatzeko, baita pentsatzeko beste modu batzueganako errespetua barne hartzen duen kontzientzia zibikoa sortzeko ere. Azkenik, konpetentzia honen garapenak ideiak eta pentsamenduak originaltasunez eta sormenez islatzeko gai diren produktuak egiteko beharra sortu behar du, produktu horien forma testuinguru desberdinetara egokitu.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK3.

2. Paisaiaren elementuak eta horiek sistema konplexu natural eta antropikoetan —landakoak eta hiri-koak— duten artikulazioa identifikatzea eta aztertzea, baita denboran izan duten eboluzioa ere, eraldaketen kausak interpretatuz eta ekosistemetan dagoen oreka-maila baloratuz, ekosistema horien kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzeko.

Paisaiako elementuak eta horien artikulazioa, sistema konplexutan, identifikatzeak eta aztertzeak, aukera ematen die ikasleei euren ingurunea eta horren eboluzioa ezagutzeko eta aztertzeko, paisaien oreka-maila eta arazoak ebaluatuz (biodibertsitatearen galera, lurzoruen higadura, *artifizializazioa*, etab.). Ingurune naturala kontserbatzea helburua izanda, kausa anitzeko ikuspegiak bai aipatutako guztiaren ulermena bai ikasleen jarrera arduratsua errazten ditu. Bestalde, bizi garen espazioen (natura-, landa- edo hiri-inguruneen) ingurumen-kalitateak guztion oraina eta etorkizuna hainbat zentzutan baldintzatzen ditu. Ondorioz, ikasleek, gure gizartean garapen pertsonalerako eskaintzen zaizkien aukerak baloratu beharko dituzte, baina mugak ere, espazio naturalen mantentzea, bisorkuntza eta zaintza bermatzeko eta hiri handietako kutsadura, landa-ingurunearen despopulazioa eta habitat naturalen jasangarritasuna bezalako arazoak ere aintzat hartzeko.

Konpetentzia honek berekin dakar, halaber, krisi klimatikoaren ondorioen larritasunaz eta izaki bizidun guztion duintasuna errespetatzen duten jokabideak hartzeko beharraz jabetzea, garapen jasangarria ziurtatzeko eta jarrera aktiboak eta partaidetzakoak sustatzeko asmoz. Eta horri gehitu behar zaio, ingurunea, oro har, hobetzea, bai toki-mailan, bai mundu-mailan, eta baliabideen banaketa justu, bidezko eta solidarioaren alde, zentzu globalean, egitea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.

3. Sistema demokratikoak eta horien oinarrizko legeak eraikitzea —konstituzioak— iritsi arte Historian zehar izan diren antolaketa politiko motak azaltzea, komunitatean bizitzeak berezkoak ditugun betebeharrak eta eskubideak onartuz, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

Konstituzioek estatuen elkarbizitza-eredua osatzen duten printzipioak eta oinarriak biltzen dituzte, gure askatasunak eta eskubideak bermatuz, eta, aldi berean, erantzukizun zibila, herritarren ekimena eta gizarte-kohesioa sustatuz. 1978ko Konstituzioa gure iragan hurbileko une jakin baten ondorioa da, demokraziarako Trantsizioarena, baina, zalantzarik gabe, ibilbide luzeago baten jarraipena da, hain zuzen ere, historian zehar gaur egungo sistema demokratikoen eraikuntzara iritsi arte eman diren antolaketa politiko mota desberdinekin lotzen den ibilbidearena. Ibilbide hori ezagutzeak berekin dakartza egungo demokraziarako bidea identifikatzea, memoria demokratikoa eta gure egungo Gizarte- eta Zuzenbide-estatuaren aurrerapen eta lorpen gehienak beren konpromisoaren bidez markatu dituzten pertsona guztien ekarpena ikusaraztea, emakumeek bizitza sozial eta politikoan eskubide osoko herritar gisa parte hartzearen alde egindako borroka kontuan hartuta eta nabarmenduta.

Konstituzioa egungo identitate zibikoaren sinbolo aktiboa da, eta indarrean egotea mehatxatzen duten lege-hausteen aurrean, ikasleen artean zaintza-jarrera sustatu behar du, batez ere askatasunak eta oinarriko eskubideak erasotzen dituztenen aurrean. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu bitartekaritza erabiltzea, edozein gatazkaren kudeaketa baketsua lortzeko, bizikidetzat demokratikoa lortzearen parte ere badela.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, HK1, HK2, KAKK1.

4. Denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusiak ezagutzea, gertatutako aldaketan kausak eta ondorioak eta gaur egun konpondu behar dituzten arazoak identifikatuz, ikerketa-proiektuak garatuz eta informazio-iturri fidagarriak erabiliz, errealitatea ulertzeko eta egungo erronken aurrean proposamen alternatiboak aintzat hartzeko.

Gizateriak, bizirauteko baliabideak eta horiek banatzeko modua antolatuzetik, gizartean organizatzeko eta parte hartzeko moduari lotutako auzietara, etengabe aurre egin behar die erronkei eta arazoei, bai inguruneari dagokionez, bai bere komunitatearen barruan. Ingurunearekiko elkarrekintzan, gizarte-harremanen antolaketan, boterearen erabileran, eta sinesmen eta adierazpen kulturalen bidez, gizakiak, aipatutako erronka eta arazoen aurrean eman dituen erantzunek, denboran zehar gertatu diren zibilizazioen oinarriak osatzen dituzte.

Guzti hori, proiektu, erronka edo arazoen bidez, banaka zein taldean, ikasteak, aukera ematen die ikasleei, aldezturik eskuratutako jakintzak mobilizatzeko, eta bizi diren munduan garrantzi edo interes berezia duten fenomeno, egoera edo gertaerak aztertzeko eta ulertzeko, baita askotariko estrategiak eta trebetasunak abian jartzeko ere. Ikasteko modu horrek, halaber, ikasleei protagonismoa ematen die beraien ezagutzaren eraikuntzan. Zeregin aktiboa abian jarriko dute produktuen sorrera prozesuan, bai azterketa eta ikerketako estrategien bidez, bai irudikapen grafiko, kartografiko eta bisualeko hainbat modu maneiatuz, eta bai komunikabideak zuzen, kritikoki eta eraginkortasunez erabiliz. Metodologiak, era berean, gauzatzen diren produktuei erabilgarritasun-zentzua ematea suposatzen du, alde batetik, komunitateari eragiten dioten egungo arazoekin haiek lotuz, eta, beste aldetik, aztertzea, ulertzea eta konpromisua eskatzen dituzten arazoak aipatuz. Horrela, iraganeko edo gaur egungo edozein gaik garrantzia hartzen du, errealitatea ulertzen eta egungo erronken aurrean proposamenak eta alternatibak baloratzen laguntzen baitu, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzea barne.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM3, STEM4, STEM5, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

5. Joera demografikoak, eta bizi-zikloek eta bizimoduek historian zehar izan duten eboluzioa deskribatzea, egungo gizarteak osatu arte gertatu diren aldaketak eta jarraitutasunak kontuan hartuz, gizarte horiek bilakaera historikoaren ondorio direla ulertzeko, eta oinarriak izateko alternatiba osasungarriak, jasangarriak, aberasgarriak eta giza duintasunarekiko errespetuzkoak sustatzeko, baita gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa bultzatzeko ere.

Garapen pertsonala erabakigarria da ikasleen prestakuntza integralean. Historian zehar izan diren bizi-zikloen eta bizimoduen eboluzioa eta portaera demografikoak ezagutzeak eta deskribatzeak nortasun indibidualak eta kolektiboak (kognitiboa, morala, emozionala...) osatzen dituzten elementuak identifikatzen lagunduko du. Bereziki aipagarria da bizimoduei erreparatzea, baita kultura desberdinetako desberdintasunei, horiek Historian izan duten eboluzioari eta belaunaldi hurbilen artean gertatzen diren aldaketei eta horien arteko harremanei ere.

Prozesu horrek berekin dakar, halaber, lanaren banaketa zergatik gertatu eta gertatzen den aztertzea eta ezagutzea, aurretiazko urrats gisa gizarte- eta familia-esparruko erantzunkidetasuna lantzeko, eta ezarritako rolak kritikoki aztertzeko, baita ingurune hurbilarekin konpromisoa hartu ahal izateko ere. Biztanleriaren osaera eta banaketa, bizi-itxaropena eta bizi-kalitatea lotuta daude, era berean, kultura- eta familia-ingurunean ikasten diren banakako eta taldeko bizimodu eta ohiturekin. Bestalde, baliabideak lortzea eta banatzea eta lana eta laneko betebeharrak izan dira gizakiak Historian zehar garatu dituen bizirauteko oinarriak. Horregatik, beharrezkoa da egungo ekonomiaren oinarri historikoak eta mekanismoak ulertzea, ikasleek erabaki ekonomiko kontzienteak eta arduratsuak hartu ahal izan ditzaten eta alternatiba osasungarriak, jasangarriak, aberasgarriak eta giza duintasunarekiko eta gizartearekiko eta ingurunearekiko konpromisoarekin errespetuzkoak sustatu ahal izan ditzaten.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD4, KPSII2, KPSII5, HK1, HK2, HK3.

6. Historian zehar izandako sistema ekonomikoak eta hauek izan dituzten garapen-prozesuak azaltzea, aurrerapenaren ideien esanahia baloratzuz, gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituzten ondorioekin batera, egungo mundu ekonomikoa eta bere nagusitasun-, mendetasun- eta mendekotasun-harremanak ulertzeko, baita gizarte-eskubideen eta oinarriko baliabideen eskuratze unibertsalaren munta ulertzeko ere.

Historian zehar mundu-mailan ekonomiak izan duen eboluzioa aztertzea lagungarria izango da ikasleentzat, gizartearen garapenarekin duten harremanetik, egungo egoerara arte ulertzeko. Globalizazioaren ekonomiaren funtzionamenduarekin ohitzeko, funtsezkoa da, lehenik eta behin, haren erro historikoak aztertzea, oinarriko kontzeptuak erabiltzeaz gain. Bestalde, bilakaera ekonomikoak Historiaren ikuspegi bat ematen du, egungo ereduaren zergatiarekin lotzen dena, eta gizarte-ongizateaz eta jasangarritasunaz arduratzeko beharrezko zergatiarekin ere. Azken honek, gainera, aurrerapenaren ideiei eta haren deribazio politiko, ekonomiko eta sozialei ikuspegi kritikoa ematea dakar.

Gogoan hartu behar ditugu gure hazkunde ekonomikoak eragindako ondorioak, bereziki hazkunde horrek, historikoki, aberastasunaren birbanaketan edo ingurumenean nola eragin duen kontuan izan ez duenean. Oraindik ere, arrisku-egoerak daude, non pertsonak ezin dituzten hainbat helburu beteta ikusi, hala nola gizarte-eskubideak edo oinarriko baliabideak eskuragarri izatea. Gizaki orok du pertsona gisa hazteko eta garatzeko eskubidea, eta, horretarako, bera bizi den gizarteak dituen baliabideak behar ditu. Ikasleek ulertu beharko dute gizarte-eskubideak errespetatzen dituen ingurune batek bere aberastasuna ondasun komunaren zerbitzura jartzen duela.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, STEM5, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4.

7. Talde-identitateen jatorri eta kausa historikoak, eta horiek munduaren konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa duten eginkizuna ezagutzea, euren eboluzioa kritikoki aztertuz, gaur egun duten esanahia ulertzeko, gizatalde baten kide izatearen sentimenduak errespetatzeko, eta sortu eta sortzen duten ondare-aberastasuna eta legatu historiko eta kulturala baloratzeko.

Talde-identitateak komunitateen barruan gertatzen diren lotura kultural eta afektiboetatik sortzen dira. Neurri handiagoan edo txikiagoan, ezaugarri berberak partekatzeak, eta horiei lotuta sentitzeak, kide izatearen sentimendu komun bat sortzen dute, eta sentimendu horrek identitate indibidualetan ere eragina du. Hori Historiako gairik konplexu eta problematikoenetako bat da eta, ondorioz, gizarte garaiki-

dearena ere bai. Beraz, prozesu horiei erreparatu behar diegu eta prozesu horiek eraikitzen, transmititzen eta eboluzionatzen lagundu duten elementuak ulertu behar ditugu, hala nola pentsamendua, erlijioak, lurraldea, artea, hizkuntza, adierazpen kulturalak eta abar. Bestalde, beharrezkoa da ulertzea, baita ere, zer mekanismo sozial eta emozionalek bultzatu zuten eta bultzatzen duten kide izatearen sentimendu desberdinak sortzera.

Auzi hori bere dimentsio ezberdinetatik baloratu behar dugu, baita kasu batzuetan eragin dituen gatazkez jabetuz. Bereziki garrantzitsua da gizarte-kohesioaren eta lurralde-elkartasunaren printzipioak integraztea, edozein indarkeria motaren biktimen sufrimendua aintzatestea, eta munduan dugun presentzia mugak gainditzen dituen anaitasunezko konpromiso unibertsal batetik ulertzea, Europaren ideia eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik datozen printzipioak aintzat hartuta. Ikasleek, haien adierazpenetan, talde-identitateak errespetatzen, eta beren kultura zein arte-adierazpenek ondare komunan duten garrantzia onartzea ikasteak, ondare materiala eta immaterialaren esanahi historikoa eta sinbolikoa ulertzea dakar, baita hura kontserbatzea, sustatzea eta balioestea bultzatzen duten ekintzak sustatzen lagundu ere.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, KPSII1, HK1 HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

8. Egungo kultura anitzeko errealitatea osatu duten prozesu geografikoak, historikoak eta kulturalak ezagutzea eta ulertzea, aniztasunaren aberastasuna aintzatsiz eta berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren aldeko mugimenduen ekarpena baloratzuz, diskriminazio mota oro saihesteko.

Historia aurrerapenen eta atzerakaden eboluzio ez-lineala da, eta eboluzio horrek ekarri gaitu gaur egungo mundu globalizatura. Kultura-aniztasuna prozesu historiko horien emaitza da, herri eta kultura desberdinen arteko kontaktu eta harremanen emaitza. Jakina da Aniztasuna aintzat hartzea eta gizartean dauden diferentziak errespetatzea -ikasleak herritar gogoetatsu eta balio demokratikoak defendatzeko kapazak bihurtzeko funtsezko elementuak egungo erronkak direla. Honen ondorio da diskriminazioa jasan duten kolektiboaren eskubideak eta egiazko berdintasuna aurrera egitearen aldeko jarrera sustatzea. Horregatik, beharrezkoak dira eskubideak eta askatasunak defendatzeko mugimenduak ezagutzea eta baloratzea, eta arreta berezia eskaini behar zaie bereziki baztertuta dauden kolektiboari.

Gizartean ugaritzen ari diren aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzea eta ezeztatzea, diskriminazio oro prebenitzeko funtsezko elementua da, eta, era berean, gizarteratzearen alde jarduteko abiapuntua da. Horregatik da garrantzitsua portaera segregatzaile guztiak desagerraraztea, generoarekin lotutakoak beti barne hartuta. Ikasleek ulertu behar dute komunitatea guztion batura dela, eta eskubide-, aukera- eta erantzukizun-berdintasunean bizi behar dugula elkarrekin, kontuan hartuz ongizate kolektiboa gure ekarpen indibidualen ondorio ere badela.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

9. Zibilizazioek Historian zehar egin dituzten ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta balioestea, Euskal Herriari eta Espainiari arreta berezia eskainiz, mende-baldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzeko eta egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzeko.

Herrialde baten eboluzio historikoa ulertzeko, hau pentsamenduaren, kulturaren, artearen, zientziaren eta teknikaren hedapen-fluxu handien testuinguruan kokatu behar dugu. Espainiak eta Euskal Herriak Europako eta munduko zibilizazioari egiten dieten ekarpena, aberatsa eta askotarikoa, perspektibarekin ikusi eta balioetsi behar dugu, balio unibertsalak kontuan hartuz, eta *presentismoan* erori gabe.

Bestalde, ekarpen horiek gaur egun oraindik duten eraginaren ondorioz, iraganeko adimen handikoetatik jasotako jakintzek mundua eta gizatasuna ulertzeko modu bat utzi digute. Horri guztiari gehitu behar

zaio, zein zaila den gizarte baten bizitza ulertzea, beste herri batzuekiko kontaktu eta elkarrekintzarik gabe, are gehiago gaurko mundu globalizatuan. Ikasleak aniztasunarenkiko errespetuaz eta tolerantziak kontzientziatzea funtsezkoa da gizartearen garapenerako, elkarrizketa, elkartasuna eta kulturen arteko elkar ulertzea baitira edozein mailatan bizikidetzak baketsua lortzeko bitartekoak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
1. konpetentzia espezifiko	
1.1 Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.	1.1. Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.
1.2 Historiaurretik Aro Modernora arteko gai geografiko eta historikoei buruz modu kritikoan argudiatzea, banaka zein taldean, askotariko iturri fidagarriak kontrastatuz eta baloratuz, eta jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak egokiro erabiliz.	1.2. 2 Aro Garaikideari lotutako gai geografiko eta historikoei buruz modu kritikoan argudiatzea, banaka zein taldean, askotariko iturri fidagarriak kontrastatuz eta baloratuz, jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak egokiro erabiliz.
2. konpetentzia espezifiko	
2.1 Lurreko zona klimatikoetako paisaia naturalak identifikatzea eta azaltzea, baita paisaia humanizatuak ere, bertako elementuen eta haien arteko erlazioen ikuspegi sistemiko eta integratzaile baten bidez.	2.1. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek lurraldean eta paisaian duten eragina ezagutzea, mundu mailan, natura-, landa- eta hiri-ingurunea kontserbatzen eta hobetzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz.
2.2 Historiaurretik aro modernora bitarteko baliabideen giza ustiapenaren ondorioz naturaguneen eraldaketa aztertzea, baita horrek populazioaren eboluzioarekin duen lotura ere, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratuz, eta jasagarritasunaren aldeko ekintzen beharra aintzat hartuz.	2.2. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek gizarteetan duten eragina aztertzea, baliabideak modu unibertsal, zuzen etabidezkoan eskuratzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz, gaur egungo erronka demografikoak kontuan hartuta.
Historiaurretik Aro Modernora arte, baliabideak ustiatzearen ondorioz, gizakiok naturaguneak nola eraldatu ditugun aztertzea, baita horrek populazioaren eboluzioarekin duen lotura ere, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratuz, eta jasagarritasunaren aldeko ekintzen beharra aintzat hartuz.	
3. konpetentzia espezifiko	
3.1 Historiaurretik Aro Modernora arte bizikidetzak eta elkarbizitza arautu dituzten mekanismoak identifikatzea, sortu diren antolaketa politikoko eredu nagusiak nabarmenduz, gaiaren ulermena islatuko duten produktuen bidez.	3.1. Gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez, aro garaikideko antolaketa politikoen eredu nagusiak mundu-mailan, estatu-mailan eta tokikoan adieraztea eta azaltzea; eskubide eta askatasun indibidual eta kolektiboak ezartzen lagundu zuten sistemei arreta berezia eskainiz, eta eskubide eta askatasun horiek erabiltzeko garaian atzerakadak izan zituzten aldiei edo egoerei kontrajarriz.
3.2 Antzinako Historiako, Erdi Aroko eta Aro Modernoko sistema politiko aipagarrienak adieraztea eta azaltzea, ondorengo demokrazien aurrekaritzat jotzen direnei arreta berezia eskainita, gure egungo gizarteko betebeharrak eta eskubiak bereiziz eta onartuz.	3.2. Aro Garaikidean kontzientzia solidarioa sortu, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatu eta desperekotasuna ezabatzeko lan egin zuten mugimenduak eta arrazoiak antzematea, parte hartzeko eta lan egiteko era guztietako estrategiak erabiliz.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
4. kompetentzia espezifikoa	
4.1 Historiaurretik Aro Modernora arteko aldaketa historiko garrantzitsuen prozesuak azaltzea, baita gizarte horiek izan zituzten erronka nagusiak ere, kausak eta ondorioak identifikatuz, hainbat lekutako gertaerak eta aldiak sekuentzia kronologikoen bidez erlazionatuz eta jakintzagaiaren berezko termino eta kontzeptu teknikoak erabiliz.	4.1. Historia Garaikidearen eta egungo antolaketa politiko eta ekonomikoaren ezagutza esanahitsua bereganatzea eta eraikitzea dedukzio-prozesuen eta proiektu edo erronken bidezko lanaren bitartez, landutako gaiak ulertzen direla islatzen duten produktuak prestatuz.
4.2 Geografia fisikoari, giza geografiari eta Historiari buruzko informazioa, historiaurretik aro modernora arte, egoki helaraztea, ahozko nahiz idatzizko hainbat komunikazio moten bidez, eta adierazpen grafiko, kartografiko eta bisualen bidez.	4.2. Aro Garaikideko aldaketa historiko esanguratsuen prozesuak aztertzea, baita gizarteek aurre egindako erronka nagusiak ere, kausak eta ondorioak identifikatuz, jakintzagaiaren berezko termino eta kontzeptu teknikoak erabiliz eta gertaerak sekuentzia kronologikoen bidez erlazionatuz.
5. kompetentzia espezifikoa	
5.1 Portaera demografikoak, horien eboluzioa, izan dituzten aldaketak eta euren zikloak ezagutzea eta interpretatzea, munduan, Euskal Herrian eta Espainian gaur egun ditugun arazo eta erronka nagusiekin lotuz.	5.1. Aro Garaikidean zehar portaera demografikoak, horien eboluzioa, izan dituzten aldaketak eta haien zikloak ezagutzea eta interpretatzea, kontzeptu tekniko zehatzak erabiliz eta gaur egun munduan ditugun arazo eta erronka nagusiekin lotuz.
5.2 Historiaurretik Aro Modernoa arte ezagutzen diren bizi-etapen eta bizimoduaren ezaugarriak identifikatzea, gaur egungoekin konparatuz, bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiziz, horien ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna baloratuz eta gure inguruan eta ingurune hartan osasungarria eta jasangarria denaren arteko distantzia hautemanez.	5.2. Aro Garaikidean ezagutzen diren bizi-etapen eta bizimoduaren ezaugarriak identifikatzea, gaur egungoekin konparatuz, bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiziz, horien ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna baloratuz eta gure inguruan eta ingurune hartan osasungarria eta jasangarria denaren arteko distantzia hautemanez.
6. kompetentzia espezifikoa	
6.1 Historiaurretik Aro Modernora arte ezagutzen diren sistema ekonomikoak azaltzea, gizartean, lurraldean eta ingurumenean dituzten ondorio askotarikoekin batera, hazkunde-erritmoak eta -zikloak daudela ulertuz.	6.1. Ekonomiaren garapenaren ideien eta horren gizarte-, lurralde- eta ingurumen-ondorioen esanahi historikoaren ezagutza aplikatzea, nazioartean, estatuan eta tokian, agiri ekonomikoaren bidez, hazkunde eta atzeraldi erritmoak eta zikloak daudela ulertuz, eta planetaren jasangarritasuna bermatuko duten portaera ekosozialak hartzeko beharra kontuan hartuz.
6.2 Historiaurretik Aro Modernora bitarteko sistema ekonomikoek sortutako zenbait gatazka eta nagusitasun-, menderotasun- eta dependentsia-harremanak identifikatzea, gizarte-eskubideen garrantziarekin eta gaur egun oinarritzako balibideetarako eskubide unibertsalaren behararekin lotuz.	6.2. aro garaikideko sistema ekonomikoak eta haien garapen-prozesuak aztertzea eta azaltzea, eta elkarren artean alderatzea, haien arteko erlazioak eta baita nazioartean sortu eta sortzen dituzten gatazkek identifikatuz, eta gizarte-eskubideen garrantziarekin eta oinarritzako balibideetarako eskubide unibertsalaren behararekin lotuz.
7. kompetentzia espezifikoa	
7.1 Antzinaroan, erdi aroan eta aro modernoan garatu ziren kulturen eta zibilizazioen elementuak gaur egun arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, horiek zeintzuk diren identifikatuz eta kultura unibertsalari egiten dizkieten ekarpenen buruz hausnartuz.	7.1. Historia Garaikidean zehar garatu diren kultura- eta politika-prozesuak gaur egunera arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, norberaren eta besteen identitatea osatzen joan diren ezaugarriak ezagutuz eta errespetatuz, eta bakoitzaren esanahi askotarikoak eta kultura unibertsalari egindako ekarpenak aztertuz.
7.2 Mundu klasikoak, Erdi Aroak eta Aro Modernoak Europari egindako ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historikoa, instituzionala, artistikoa eta kulturala europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta gizatalde baten kide izatearen sentimendu oro-erlijiosoa, nazionala...errespetatuz.	7.2. Aro Garaikideko ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historiko, instituzional, artistiko eta kulturala munduko herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta tokiko, autonomiako, nazioko, Europako eta mundu osoko talde-identitateen oinarritzat onartuz

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
7.3 Ondare artistiko, historiko eta kulturala babestu eta konserbatzeko beharra argudiatzea, tokiko, autonomiako, nazio-ko, europako eta mundu osoko talde-identitatearen oinarri gisa onartuz.	
8. kompetentzia espezifikoak	
8.1 Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioak osatu zituzten elementu sozial, historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak deskribatzea, haien sorrera eta garapena espazioan eta denboran kokatuz, eta kultura unibertsalari egindako ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz.	8.1. Gaur egungo estatu eta hegemonien sorrera eta garapena ezagutzea, espainiako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eraketa barne, eta horiek espazioan eta denboran kokatzea, haiek osatu dituzten elementu historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak integratuz, sortutako errealitate multikulturala azalduz eta haien ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz.
8.2 Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.	8.2. Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.
8.3 Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.	8.3. Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan aro garaikidean zehar emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.
9. kompetentzia espezifikoak	
9.1 Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioen ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta azaltzea, egungo kulturen erroak osatzen dituztenak adieraziz eta elkartasunaren, justiziaren, askatasunaren eta jasangarritasunaren gure kontzeptuarekin lotuz.	9.1. Aro Garaikidean zehar, zibilizazioek egindako kultura-, arte-, zientzia- eta pentsamendu-ekarpen aipagarrienak ezagutzea eta azaltzea, eta egungo euskal eta espainiar kultureak garaiko korrante kulturekin lotzea, egungo kulturen erroak nabarmenduz eta beste edozein adierazpen kultural errespetatuz.
9.2 Egungo euskal eta espainiar kulturen, eta historiaren prozesu handien arteko lotura identifikatzea eta testuinguruan kokatzea, historiaurretik aro modernora arte, elkarri egindako ekarpenak baloratuz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
A. Egungo munduaren erronkak
1- Geografia Fisikoaren eta Historiaren sistematikarako sarrera: prozedurak, terminoak eta kontzeptuak.*
2- Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak.*
3- Mapen, eskemen, irudien eta irudikapen grafikoaren azterketa eta iruzkina, toki-esparrutik esparru globalera. Geografia Informaziorako Teknologiak (GIT).*
4- Gailuen, informatika-aplikazioen eta plataforma digitalen erabilera, Geografia eta Historia aztertzeko. Komunikazio-sareen erabilera segurua.
5- Informazioaren bilaketa esparru digital eta analogikoetan, informazio horren irakurketa eta balorazio kritikoa eta hainbat formatutan produktu anitzen sorrera, ezagutza lantzeko bide gisa.
6- Lurrazala aldatzeko erak eta prozesuak: paisaia geografikoak. Erliebearen eraketa eta eraldaketa. Hidrosfera: zikloa, sailkapena eta giza jardueren gaineko eragina. Lurraren mugimenduak eta denborarekin eta klimarekin duten erlazioa. Datu meteorologikoak biltzeko eta grafikoak interpretatzeko metodoak.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
7- Tokiko, eskualdeko eta munduko paisaia naturalak: paisaia-motak eta ezaugarriak.*
8- Euskal Herriko ezaugarri naturalak (kokapen geografikoa, erliebe-formak, hidrografia, klima eta landaredia) penintsulako eta kontinenteko testuinguruan.*
9- Arrisku eta hondamendi klimatikoak: klima-aldaketak gaur egun, iraganean eta etorkizunean. Giza jardueren eragina. Hondamendi naturalen eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean prebentzioa.
10- Natura-ondarearen oparotasuna eta balioa. Giza eragina ekosistemen aldaketan, iraganean eta gaur egun. Tokiko ingurunearen eta ingurune globalaren kontserbazioa eta hobekuntza.
11- Demografiako oinarrizko kontzeptuak. Datuen bilketa, irudikapena eta interpretazioa. Iraganeko eta egungo migrazio-mugimenduak. Erronka demografikoak gaur egungo munduan.*
12- Paisaia gizatiartua. Hiri-aglomerazioak eta landatartasuna. Hiriko bizitzaren erronkak eta landa-ingurunearen iraunkortasuna. Landa-munduaren despopulazioaren eta hiri-gainpopulazioaren arazoak.*
13- Landa- eta hiri-paisaia Euskal Herrian. Egoera demografikoa eta ekonomikoa, eta etorkizuneko arazo eta erronka nagusiak.*
14- Antolakuntza ekonomikoa: baliabide, sektore, eskualde-merkatu eta merkataritza-politiken deskribapena. Potentzia politiko-ekonomikoen nazioarteko harremanak, kolaborazioa eta tentsioak.*
15- Aberastasunaren kontzentrazioa eta banaketa. Zergen funtzioa. Bizitzeko gutxienekoaren auzia.
16- Emakumeen eta nesken papera egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien kontrako diskriminazio-egoerak munduan zehar. Genero-rolak eta horien isla gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.*
17- Nazio Batuen Erakundea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak, egungo munduaren dilemak eta kontraesanak; eta maila pertsonalean, toki-, estatu- eta mundu-mailan horiei aurre egiteko aukerak. Pentsamendu kritikoa iritzi propioak garapatzeko abiapuntu gisa.
B. Gizarteak eta lurraldeak.
1- Historiaren ezagutza eraikitzeke, ikerketako lan-metodologiei eta -teknikei buruzko sarrera: idatzizko iturri historikoak eta kultura materiala. Artxibo, liburutegi eta museoen eta legatu historiko eta kulturalaren esanahia eta azken horren garrantzia ondare kolektibo gisa.*
2- Metodo zientifikoa eta historialarien ikerketak. Eskola historiografiko eta geografiko desberdinen existentziari buruzko sarrera, eta horrek dakartzan pentsamendu historikoaren metodologia anitzak.
3- Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, linealtasun-, kronologia-, aldiberekotasun- eta iraupen-ikuspuntuen bidez prozesu historikoak ulertzeko.*
4- Gizakiaren jatorria, lehen migrazio adierazgarriak eta Paleolitoko lehen gizarte eta kulturen sorrera.*
5- Paleolitotik Neolitara: elikagaien ekoizpena, sedentarizazioa eta konplexutasun sozialaren areagotzea. Metalen Aroa. Historiaurrearen aztarna Euskal Herrian.*
6- Zibilizazioen sorrera: estatu-hirietatik Mesopotamiako eta Egiptoko lehen erresuma eta inperioetara.*
7- Merkataritzaren garapena Antzinaroan. Merkataritza-bide nagusiak. Konkistaren eta kolonizazioaren arteko aldeak.
8- Gizarte-egituren eboluzioa Mesopotamian, Egipton, Grezian eta Erroman. Antzinaroko gizarteetako kide behartsuenak. Emakumeen eguneroko bizitza eta rol ezagunak.*
9- Antolaketa politiko mota desberdinak Antzinako Munduan: oligarkia, erresuma, inperioa, errepublika eta demokrazia, Mesopotamiatik Erroma arte.*
10- Sistema ekonomikoen eboluzioa: lurraldearen giza eraldaketan eta baliabideen eta lanaren banaketa desberdinetan eragina, Historiaurretik Aro Modernora arte. Ziklo demografikoak.*
11- Erlijioa Antzinaroko antolaketa politiko eta sozialean: politeismoa, monoteismoa eta erlijio nagusien sorrera. Boterearen legitimazioa Mesopotamiatik Erroma arte.*
12- Giza komunitateen eboluzioa: bizitza nomada eta Harpetarretik polis etahiriak arte*
13- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Antzinaroaren amaierara arte. Erromanizazioaren kasua Euskal Herrian.*
14- Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa zibilizazio desberdinetan: Arte paleolitotik Arte erromatarra arte. Ondare material eta immaterialarenganako errespetua eta horien babesa eta kontserbazioa.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
15- Mendebaldeko kulturaren erro klasikoak. pentsamenduaren bidez kultura-identitateak eraikitzeak hastapen ezagunak, Paleolitotik Erromanizazioa arte.
16- Gizarte-egituren eboluzioa Mendebaldean, feudalismotik estamentuzko gizartera arte. Botere politikoarekin, erlijiosoa-ekin, eta agintaritzaren eboluzioarekin izan zuen erlazioa, Erdi Arotik Aro Modernora arte. Bizimoduak eta eguneroko bi-zitza. Erdi Aroko eta Aro Modernoko gizarteetako kide behartsuenak. Emakumeen eta emakumezko pertsonaia esanguratsuen rol ezaguna.*
17- Antolaketa politikoa eta estatu-formulazioak Erdi Aroan eta Aro Modernoan. Antolaketa politiko mota desberdinak: erresumak, inperioak, errepublika komertzialak eta parlamentarismo britainiarra.*
18- Erlijioak antolaketa politiko eta sozialean, boterearen legitimazioan eta identitate erlijiosoaren eraketan izan duen zeregi-na: monoteismoaren eta erlijio nagusien garaipena. Kristautasunaren hedapena eta Islamaren sorrera eta hedapena. He-resiak, jazarpenak, erreforma protestanteak, kontrarreforma eta erlijio-gerrak.*
19- Hiria eta landa-mundua Erdi Aroko eta Aro Modernoko Historian zehar: landa-mundutik —hiribilduak eta herrixkak— hirietara itzultzea.*
20- Erdi Aroko eta Aro Modernoko merkataritza-bide nagusiak, eta pertsonak eta baliabideak kontrolatzeko estrategiak: ingurumen-, politika-, ekonomia- eta geografia-faktoreak. Aurkikuntza nabarmenak, bidaiak, kolonizazioa eta merkataritza. Hegemonia eta geopolitika Aro Modernoan zehar. Jatorrizko zibilizazioak.*
21- Iberiar Penintsula Erdi Aroan eta Aro Modernoan.*
22- Euskal Herria Erdi Aroan eta Aro Modernoan: Iruñeko erresumaren eraketatik Nafarroako erresumaren konkistara arte. Lurralde historikoak Gaztelako koroan sartzea. Foru-sistemaren sorrera eta sendotzea. Eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalak. Euskaraz idatzitako lehen testuak. Gutxiengoaren eta emakumeen egoera: agotak, juduak, sorgin-ehiza, etab.*
23- Erdi Aroko erroak mendebaldeko kulturaren. Humanismoa eta Kristautasuna. Zibilizazio islamikoaren eragina Europako kulturaren: Al-Andalusetik otomandarrek arte. Pentsamendua Erdi Aroko kulturetan eta kultura modernoetan. Arte prerroma-nikotik Barrokora arte.*
24- Zientzia, medikuntza eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak Erdi Aroan eta Aro Modernoan: erantzun berriak munduari buruzko galdera nagusiei. Arrazionalismoa eta enpirismoa.*
C. Konpromiso zibikoa
1- Giza duintasuna eta eskubide unibertsalak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.
2- Genero berdintasuna. Adierazpen eta jokabide ez-sexistak eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista.
3- Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazoaren aurrean interesa.
4- Bizikidetzaren zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibileraren kide izatea eta inplikatzeko. Komunitate-proiektuetan parte-hartzea.
5- Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarenganako errespetua eta horien babeseta eta zaintza.
6- Natura-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen zaintza eta babeseta. Euskal Herrian eta Espainian natura- eta kultura-on-darea babesteko legeak.*
7- Bizi-zikloak, aisialdiaren erabilera eta kontsumo-ohiturak: egungo eta iraganeko gizarteetako bizimoduetan dauden desberdintasunak eta aldaketak.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
A. Egungo munduaren erronkak
1- Testu historiografikoak, datu estatistikoak eta abarrek emandako informazioaren bilaketa eta tratamendua, esparru digi-tal eta analogikoetan. Informazioaren irakurketa eta balorazio kritikoa, iturrien fidagarritasuna egiaztatuz eta sareetako desinformazioaren arazoa kontuan hartuz. Produktu desberdinak sortzea hainbat formatutan, ezagutza lantzeko bide gisa.*
2- Herritartasun etiko digitala: pribatutasunaren, datuen babesaren, <i>netiketaren</i> eta jabetza intelektualaren auziak, jakintza-gaiaren lanari aplikatzea.
3- Historia-, Arte- eta Geografiaren berriazko lexikoa erabiltzea.*
4- Geografia aztertzekeko teknikak eta metodoak: testuen azterketa, edozein euskarritan adierazitako mapak, eskemak, sintesiak, grafikoak eta irudiak interpretatzea eta prestatzea. Informazio Geografikoaren Teknologiak eta kontzeptu espazia-len analisi eta interpretaziorako sarrera -hala nola kokapena, eskala, konexio eta hurbiltasun espaziala, etab.-.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
5- Gaur egungo munduaren antolaketa politikoa: estatu motak eta gobernu ereduak. Zuzenbide-estatura eta konstituzioren balioak. Demokrazia: printzipioak, prozedurak eta erakundeak.*
6- Gaur egungo gatazka nagusiak. Nazioarteko aliantzak eta erakundeak (NBE, NATO, ELGA, EB, AEE, APEC, etab.), bi-tartekaritza eta bake-misioak. Esku-hartze humanitarioa eta Justizia Unibertsala. Genozidioak eta gizateriaren aurkako krimenak. Gerrak, terrorismoa eta beste indarkeria politiko mota batzuk.
7- Egitura ekonomikoak gaur egungo munduan: ekonomia globalizatua. Eragile ekonomikoak, aldaketak ekoizpen-sektoreetan eta merkatuen funtzionamenduan. Publikoa eta pribatuaren auzia. Baliabideak, despaketotasuna eta injustizia toki- eta mundu-testuinguruetan. Migrazioak, kultura-aniztasuna eta mestizajea gaur egungo gizarteetan.*
8- Emakumeen papera gaur egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien aurkako diskriminazio edo indarkeria egoerak munduan zehar. Mugimendu feminista. Jarrera eta portaera sexisten identifikazio gure inguruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekiko lotura.*
B. Gizarteak eta lurraldeak.
1- Historiaren ezagutza eraikitzeke, ikerketako lan-metodologiei eta -teknikei buruzko sarrera: iturri historikoak, iraganari buruzko ezagutza eraikitzeke oinarri gisa. Eskola historiografikoen teoria eta metodoen arteko kontrastearen zergatia ezagutzea, Historia zientzia gisa eta eskola horien jarraitzaileen ikuspegiak aztertzeari ekiteko.*
2- Azalpen historikoaren kausa anitzak. Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen identifikazioa, korrante historiografikoen arabera.
3- Denbora historikoa: Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, prozesu historikoak ulertzeko, linealtasun-, kronologia-, aldiberekotasun- eta iraupen-ikuspuntuen bidez.*
4- Gaurkotasuneko arazoaren aurrean norberaren iritzi argudiatuak eratzea, Historiarekin erlazionatuz eta testuinguruan kokatuz. Aurkezpen eta eztabaiden bidez horiek defendatu eta kritikoki aurkeztu.*
5- Eraldaketa politikoa Aro Garaikidean: mendekoak izatetik, herritarrak izatera. Legea, kontratu sozial gisa: eskubide indibidual eta kolektiboen lorpena. Iraultza Liberalak. Sistema liberalen jatorria, eboluzioa eta egokitzapena, munduan zehar. Ideologia politiko nazionalista berriak. Demokraziaren eraikuntza.*
6- Sistema liberalen jatorria, eboluzioa, erresistentziak eta egokitzapena Espainiako Historia Garaikidean. Eraldatze prozesuaren oinarriestuingurua eta alde politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen azalpena, Independentzia Gerratik 1931era arte.*
7- Euskal lurraldeak Independentzia Gerratik Gerra Karlistak arte: Foru Sistema desagertzeko prozesua eta Ekonomia Itunaren Hitzarmen Ekonomikoen sorrera.*
8- Sistema kapitalista, sorreratik gaur egun arte. Ekonomia industria-iraultzetatik: kolonialismoa, inperialismoa eta mendekotasun ekonomiko eta kultural berriak. 1917ko Errusiako Iraultza eta bere ondorioak.*
9- Industrializazioa Euskal Herrian, eraldaketa ekonomiko eta sozialak, eta euskal-nazionalismoaren sorrera.*
10- Aro Garaikideko ziklo demografikoen, bizimoduaren eta gizarte-antolaketa-ereduen eboluzioa. Langile-mugimenduetatik ongizate-estatura arte.*
11- Espainiaren eta Euskal Herriaren erronka demografikoak Aro Garaikidean: landa-exodotik hiri-kontzentrazioa.
12- Demokrazien krisia eta totalitarismoaren sorrera: faxismoak eta estalinismoa. Askatasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko gizarte-mugimenduak Mundu Garaikidean. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.*
13- Nazioarteko harremanak Aro Garaikidean: Lehen Mundu Gerra, Gerren Arteko Garaia, 1929ko Krisia eta Bigarren Mundu Gerra, guztien kausak eta ondorioak.*
14- Espainiako Bigarren Errepublika: erreformak, horien ondorioak eta gizartearen polarizazioa. Ordenamendu arauemailer autonomikoaren sorrera: 1936ko Euskal Autonomia Estatutua. 1936ko Gerra Zibila eta diktadura frankista, ondorioak Euskal Herrian.*
15- Espainiako konstituzioen eboluzioa: 1812ko konstituziotik 1978ko konstituziora arte.*
16- Oinarri geostrategikoak XX. mendearen bigarren erditik gaur egunera arte: bloke-politika eta Gerra Hotza. Amerikako Estatu Batuen nagusitasunetik mundu multipolarrera. Nazioarteko erakundearen zeregina: NBEren sorrera eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.
17- Europa eraikitzeke prozesua. Integrazio ekonomikoa, monetarioa eta herritarra. Europako erakundeak. Europaren eta europeismoaren balioen etorkizuna.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
18- Euskal Autonomia Erkidegoaren antolaketaren eta administrazioaren oinarrizko elementuak Espainiako Estatuaren testuinguruan: autogobernuaren iturriak eta 1979ko Autonomia Estatutua.*
19- Emakumeek burututako eskubide zibil eta politikoaren lorpene eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko borroka. Historia Garaikideko emakume esanguratsuak.*
20- Arte eta kultura adierazpen berriak Aro Garaikidean, munduan, Espainian eta Euskal Herrian: eredu tradizionalak haustura, izaera kritiko eta esperimental berri batetik. Neoklasizismotik XXI. mendeko joera artistikoetara. Ondare materiala eta immateriala errespetatzea eta kontserbatzea.*
21- Eraldaketa zientifiko eta teknologikoak munduan, Espainian eta Euskal Herrian Aro Garaikidean.
22- Kultura-aldaketak eta gizarte-mugimenduak mundu garaikidean. Eskubideen lorpene gizarte demokratiko garaikideetan. Memoria demokratikoa. Komunikabideen eta sare sozialen zeregina.

HEZIKETA FISIKOA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Heziketa Fisikoak akzio motorra du ardatz egituratzaile, eta ahalmen handia du mugitzen den gizakia bere osotasunean inplikatzen. Egoera motorrei esker, ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekin sortzen den elkarreraginen mundu zoragarri batera eramaten ditugu ikasleak. Gainera, beren burua eta besteak ezagutzeko aukera ematen diegu, eta harremanen, emozioen, erabakien eta sorkuntzaren unibertso aberasgarria sustatzen dugu. Hortaz, jokabide motorren heziketaren bidez, premia pertsonalei eta sozialei erantzuneko dien benetako kompetentzia motorra eraikitzen eta finkatzen lagunduko dugu.

Egoera motor bati aurre egite aldera, askotariko fenomenoetan oinarritzen da baliabideak mobilizatzeko eta erantzun berritzaileak eta sormenezkoak emateko gaitasuna: pertzepzioa, motibazioa, emozioa, autoestimua, komunikazioa eta aurre hartzea. Jokabide motorrak, nortasunaren adierazpen gisa ulertuta, gure esku-hartzearen ardatz bihurtzen dira; izatez, egoera motor bati aurre egiten diogun bakoitzean, nortasunaren alderdi guztiak abian jartzen dira (biologikoa, kognitiboa, soziala, harremanetakoa, afektiboa, espresiboa eta erabakien arlokoa). Ez dugu ahaztu behar nortasun bakoitzaren adierazpide partikularrak esperientzia motorra baldintzatzen eta zehazten duela, jarduten duen pertsonak bere beldur, ilusio, motibazio, itxaropen, historia eta sormenarekin jarduten baitu. Pertsona bakoitzaren potentziala garatuko bada, pertsona bere gaitasunen eta inguruabarren arabera hezi behar dugu, hala lortuko baitugu pertsonaren garapen integrala.

Gure ikasleen garapen integrala lortzeko helburuari erreparatuta, Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran ikasleen irteera-profilean ezarritako funtsezko kompetentziak eta etaparen helburu orokorrak izango dira oinarrizko erreferentzia. Kompetentzia horien deskriptoreak dira, hain zuzen ere, arloko kompetentzia espezifikoak zehazteko erreferentziatzko esparrua. Heziketa Fisikoak funtsezko kompetentziak garatzen laguntzen badu ere, ekarpen garrantzitsuena kompetentzia pertsonalari, sozialari eta ikasten ikasteari egiten die. Izan ere, akzio motorren bidez, kooperatzen ikasten dugu, baita norberaren eta beste mugak eta aukerak ezagutzen, erronkak taldean ebatzi behar diren egoerei aurre egiten, ohitura osasungarriak hartzen, norberaren ahalegina eta dedikazioa baloratzen eta gogoeta-prozesu gidatuetan parte hartzen.

Mekanismo kognitibo guztiak motrizitatean oinarritzen dira, eta badakigu mugimenduak ezagutza berriak eskuratzen laguntzen duela, baita askotariko adimenak garatzen, ikaskuntza berrien aurrean motibatzen, kontzentratzen eta hezkuntza-laguntzako berariazko zailtasunak dituzten ikasleak gizarteratzen ere. Heziketa Fisikoa agertoki ezin hobea da kulturetatik ikasteko, gure gizartearen azterketa politikoa proposatzeko, eztabaida etiko esanguratsuak eta sakonak pizteko, gure biologia hobeto ezagutzeko, hitzeko eta hitzik gabeko adierazpide eta komunikazio eraginkorragoa lortzeko (arlo hori oso egokia da, gainera, familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleek hizkuntzaren erregistro informalagoak ikasi eta erabil ditzaten), gure osasunari buruz hausnartzeko, ohitura osasungarriak eskuratzen laguntzeko, artea ezagutu eta sortzeko, harremanetan jartzen ikasteko, gure historia ezagutzeko.... Horrenbestez, garrantzitsua izango

da loturak ezartzea eta beste jakintzagai batzuekiko konbergentziak sortzea, betiere gure errealitate konplexu eta konektatuarekin bat etorriko den ikaskuntzaren ikuspegi holistikoa eskaintze aldera.

Heziketa Fisikoaren arloko kompetentzia espezifikoek egoera motorretan moldatzeko beharrezkoak diren kompetentzia motorrak biltzen dituzte, baita gizartearen funtsezko erronkekin zerikusia duten alderdiak ere: bizimodu aktibo eta osasungarria sendotzea, kultura motorraren adierazpenak ezagutzea eta baloratzea, eta ingurumena errespetatuz biziitzea, betiere kontserbazioan eta jasangarritasunean oinarritutako planteamenduetatik. Gainera, zenbait testuingurutan egoera motorrak abian jartzeari esker, ikasleek aurre egin ahal izango diote zenbait helburutako jardun motorrari (jolas eta aisialdikoa, agonistikoa, funtzionala, soziala, espresiboa eta komunikaziokoa, sormenezkoa, katartikoa edo hiri- eta natura-ingurunearekiko elkarreraginekoa).

Kompetentzia espezifiko horiek lortze aldera, zazpi multzotan antolatzen dira oinarrizko jakintzak, eta multzo horiek zenbait testuingurutan garatu beharko dira, izaera inklusiboagatik nabarmenduko diren askotariko ikaskuntza-egoerak sor daitezzen. Zazpi multzoetatik sei akzio motorraren dominioei dagozkie, eta gure arloko dominioekiko zeharkakoa den zazpigarren multzo bat eransten da. Irakasleek erabakiko dute nola uztartu jakintza horiek.

Akzio motorraren dominioak kompetentzia mota desberdinekin lotzen dira, egoera bakoitzak erantzun motor espezifikoak abian jartzen dituzten akzio-baliabideak eskatzen baititu. Akzio dominioen ezaugarri bereizgarriak ezagutzen baditugu, eragin ditzaketen hezkuntza-efektuen arabera sailka ditzakegu esparru horiek; hain zuzen ere, horixe da arloko oinarrizko jakintzak antolatzeko irizpiderik onena. Kontuan hartu behar dugu, halaber, unibertso ludomotorra kirol-jokoen lau arlo handitan hedatzen dela (arauak, lehiaketak eta instituzionalizazioak dituztenak eta ez dituztenak), eta horiek osatzen dutela gure gizartearentzat eta ikasleentzat aberastasun eta balio aparta duen kultura-ondare motorra. Hori dela eta, Heziketa Fisikoak ez du izan behar erreproduzitu beharreko tekniken sorta hutsa, eta ez du kirolera mugatu behar. Gainera, garrantzi handikoa da kompetentzia motorra ez dadila murriztu aurrez definitutako erantzun batzuetara; izan daitezkeen berrikuntzetara ireki behar dugu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Jarraian adierazten diren kompetentzia motorrak baliagarriak izango ditugu proiektu motorren eta praktika motorren eskaerei erantzuteko, hainbat helbururekin, eguneroko bizitzako testuinguruetan.

1. Jarduera fisikoak osasunean, oro har, dituen efektuak ebaluatzea, oinarri zientifikorik gabeko praktikak baztertuz, gorputz-eredu estereotipatuekin kritikoa izanez eta autorregulazio emozionaleko prozesuak eta gatazkak kudeatzeko prozesuak garatuz, bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzeko.

Kompetentzia honi hel dakiokete parte-hartze aktibotik, elikadura eta dieta osasungarritik, jarrera-hezkuntzatik, gorputzaren zainzetatik, autokontzeptutik, autoestimutik, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan hautemandako iruditik edo eguneroko testuinguruetan eta/edo kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako egoeretan gertatzen diren portaera antisozialen eta osasunerako ohitura txarren azterketatik, besteak beste. Osasunari dagokionez, lesioen prebentzioan eta lehen laguntzetan lan egitearen garrantzia nabarmendu behar dugu.

Egoera motor guztietan, ezinbestekoa izango da emozioak eta sentimenduak behar bezala identifikatzea eta kudeatzea. Praktika motorrak, beren izaera dela eta, egokiak dira gatazken elkarriketa bidezko kudeaketa lantzeko. Helburua da elkarriketan aritzea, eztabaidatzea, ideiak alderatzea eta ados jartzea, betiere egoerak ebatz daitezzen, proposamenak, pentsamenduak eta emozioak adieraz daitezzen, modu aktiboan entzun dadin eta asertibitatez jardun dadin.

Teknologiaren erabilera egokiak lagungarria izan beharko du, diziplinarteko ikuspuntutik eta batik bat kompetentzia honetan, sedentarismoaren aurkako borrokan —pantailekiko esposizio-denboraren gorakadagatik hein handi batean—.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, HKK5, KE1, STEM2, STEM5, KPSII2, KPSII4, HK4.

2. Ziurtasunik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, gero eta autonomia handiagoz eta, erronka fisikoei aurre egitean, hobetze- eta erresilientzia-jarreraz, betiere autonomia eta hazkunde harmonikoa garatzeko ikuspuntu organikotik, kognitibotik, afektibotik eta sozialetik.

Egoera psikomotorrek sortzen dituzten esperientziek eskatzen dute: estereotipo motorrak automatizatzea, ekintza motorrak egiteko modu jakin bat behin eta berriz errepikatzea, energia-iturriak dosifikatzea —eskatzen den ahalegin fisikoan eraginkortasunez jardun dadin—, nor bere buruaz jabetzea, eta norberaren gorputza barrutik aztertu eta ezagutzea (introiiekzioa). Konpetentzia horri esker, erronkei aurre egiteko automotibazioa eta jarrera positiboa aktibatzen dira, eta oldarkortasuna, frustrazioarekiko tolerantzia eta zailtasunei aurre egiteko iraunkortasuna erregulatzen da. Gainera, konpetentzia horrek ikasleei tresna sorta zabala emango die, beren praktika motorra kudeatzen, planifikatzen eta autorregulatzen hasteko, baita osasuna baldintzatzen duten beste elementu batzuk ere.

Ikaskuntza horiek gauzatzeko zenbait formula eta testuinguru dago, praktika motorren plangintza pertsonaletik hasi, eta aurreko guztia eguneroko bizitzara eraman eta testuinguruan kokatuko duten askotariko proposamen fisikoetan edo kirol-proposamenetan (atletismoa, igeriketa...) parte hartzearekin edo motrizitatearekin zerikusia duten egoeren azterketa kritikora.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, KPSII4 eta KPSII5.

3. Ziurtasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-egoera soziomotorren eskakizunetara egokitzea, kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa hartuz, erronkara egokitu-tako jokabideak doitzeko eta kultura motorren lorpenean eta sorreran laguntzeko.

Konpetentzia honek eskatzen du erabakiak hartzea, aurrea hartzea, mezu engainagarriak kodetzea (emititzea) eta besteen gorputz-zeinuak deskodetzea, betiere modu estrategikoan jardun eta aurkaria gaitzetzeko. Egoera multzo hori baliagarria izan daiteke erronkarekin, lehiakortasunarekin edo arazo ebazpenarekin lotzen diren jokabide motorrak susta daitezen. Era berean, konpetentzia honek praktika motorren barruan bizi diren emozioak eta sentimenduak identifikatzea eta horiek egoki kudeatzea dakar, sortzen dituen emozio eta sentimendu desatseginen efektuak modu konstruktiboan arin daitezen eta emozio atseginak susta daitezen, kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaerak baztertuz.

Horrez gain, berarekin dakar helburuak zehaztea, plan errazak egitea, akzioak sekuentziatzea, planifikatutakoa gauzatea, prozesuan zer gertatzen den aztertzea, beharrezkoa izanez gero estrategia aldatzea eta, azkenik, emaitza baloratzea.

Azkenik, komeni da aurkaritza-jokoek eskaintzen dituzten egitura elkarreragile mota guztiekin lan egitea (bat baten aurka, bat denen aurka edo denak denen aurka).

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, KPSII4, KPSII5, HK3 eta KAKK1.

4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatikoz garatuz —desberdintasun kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak edozein izanik ere—, parte hartzen den guneeetako gizarte-bizikidetzan, gizarteratzean eta konpromiso etikoan laguntzeko.

Konpetentzia honek bizipen ugari eskaintzen ditu, eta horien ondorioz, komunikazio motorrekin lotzen diren jokabide motorrak sortzen dira, baita itunarekin, kolaborazioko eskuzabaltasunarekin, ekimena hartzearekin, erantzun originalak sortzearekin eta besteen erabakiak errespetatzearekin lotzen diren jokabide motorrak ere. Horrez gain, praktika motorrean bat egiten duten pertsonetikiko elkarreraginari aurre egiteko gizarte-trebetasunak baliatzea ere badakar. Helburua da elkarrizketan aritzea, eztabaida-

tzea, ideiak kontrastatzea eta ados jartzea, egoerak ebatz daitezen, proposamenak, pentsamenduak eta emozioak adieraz daitezen, modu aktiboan entzun dadin eta asertibitatez jardun dadin. Akzio horiek, halaber, besteen ongizatea ere bilatzen dute, erantzukizunez, zuzentasunez, inklusioz, errespetuz, elkartasunez, kooperazioz, justiziaz eta modu baketsuan baliatutako askatasun-parametroetatik jardunez.

Alderdi horiek askotariko praktika-testuinguruetan garatu beharko dira. Horien artean nabarmen daitezke sokekin, malabarismoarekin, akrobazia- eta zirko-jarduerekin eta erronka fisiko kooperatiboekin zerikusia duten proiektuak eta muntaiak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK2 eta KAKK1.

5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorretan elkarrerginean aritzea, akzio-arauak eta -printzipioak aplikatuz eta aditze sozialean lagunduz, informazio-eskaera handia duten egoeretan jokabide motorra doitzeko eta kultura motorra lortzen eta sortzen laguntzeko.

Konpetentzia honek erabakiak etengabe hartzea eta gainerako parte-hartzaileen mezuak interpretatzea eskatzen du. Ikasleek ahaleginak egin beharko dituzte taldekideen eta aurkarien jarrerak deskodetzeko, logika kolektibo batean sartzen diren aukeraketa estrategikoak egin daitezzen. Gainera, ikasleak Lehen Hezkuntzako etapan eraikitzen hasi diren kultura motorraren kontzeptuan sakontzen du. Ezagutza horretatik abiatuta, norberaren nortasuna finkatzen jarraitu nahi da, betiere testuinguruan kokatuta eta modu ulerkorrean, zentzurik funtzionalenean. Kulturaren arloan askotarikoa den mundu batek kultura-adierazpen bakoitza modu globalean ulertzeko aukera emango duen azterketa-esparru bat behar du, adierazpen bakoitzarekin lotzen diren faktoreak ezagutzetik abiatuko dena (historia, interes ekonomikoak, politikoak edo sozialak).

Azterketa kritikoak egin daitezke kirolean dauden genero-estereotipo jakin batzuei buruz edo kirolaren alde ezkutuari buruz —pertsonen osasunetik edo lehiaketa osasuntsutik haratago doazen interes ekonomikoak eta politikoak ezkututzen ditu—. Desberdintasunen errepresentazioan eta bistaratzean ere eragin nahi da, praktika motor partekatutako espazioen erabilera demokratizatzen laguntzeko eta, hartara, gizarte- eta genero-estereotipoekin lotzen diren oztopoak gainditzeko laguntzeko. Era berean, kirolean —oinarrizko kirolek, goi-lehiaketara— izaten diren gizalegearen kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa identifikatzen eta sortzen lagundu nahi da.

Konpetentzia hori garatzeko testuinguru ugari dago, hala nola kirol-joko kolektiboak edo joko tradizionalak. Horiez gain, kontuan hartu beharko lirateke kolaborazio-erlaziotik aurkaritza-erlaziora alda daitezkeen jokoak, talde-jokoak edo erlazio kontraesankorren arloko jokoak. Adibide horietan, partekatutako lehiaketa da, eta, hartara, jokoak geratzen denean, ez dago ez irabazlerik ez galtzailerik.

Azkenean, egiten diren kirol-praktiketako testuinguruan kokatzen diren epai- eta bitartekotza-egoerak jorratuko dira. Konpetentzia honek aurreko etaparekiko duen bilakaera logikoak, beraz, alderdi horiekin lotutako ohitura autonomoen garapena bultzatzen du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.

6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan akzio-aukerak aurkitzea eta behar bezala eta segurtasunez aprobetxatzea, ikasleen ohituretan natura- eta hiri-ingurunean garatuko den aisia osasuntsu, jasangarri eta maila ekosozialean arduratsua sartzeko.

Konpetentzia honek eskatzen du protagonistek irakur eta deszifra ditzatela praktika-eremuarekin dituzten erlazioetan sortutako zailtasunak eta ezustekoak. Horrelako egoerek moldagarritasuneko jokabide motorrak errazten dituzte, batik bat erabakiak hartzearekin, eraginkortasunarekin, aurreratzearekin, inguru-nearekiko errespetuarekin, arriskuarekin eta abenturarekin zerikusia dutenak. Horrelako jarduerak egitea prestakuntza-interes handiko beste alderdi batzuekin lotzen da, hala nola, natura ezagutu eta errespe-

tatzearekin, bizikidetzarako hezkuntzarekin, norberaren babesarekin eta segurtasun pertsonalarekin nahiz kolektiboarekin. Ikasleek ingurune naturalarekin dituzten erlazioek inplikazio handia eta erabateko konpromisoa ekarri ohi dute, eta horrek karga emozional handia eragin dezake; horrenbestez, funtsezkoa izango da emozioen identifikazioa eta kudeaketa.

Ingurune naturalari dagokionez, eta ikastetxearen kokapenaren eta testuinguru-aukeren arabera eta ikastetxetik gune naturaletara (lurrekoak zein uretakoak) iristeko dauden aukerak kontuan izanik, askotariko aplikazio-testuinguruak aurki daitezke, hala nola mendi-ibiliak, bide berdeetako ibilbideak, eskalada, rappela, eskia, uretako salbamendua, orientazioa (baita hiri-eremuetan ere), zikloturismoa, BTT ibilbideak edo oztopoak gainditzea. Jardun horiek guztiak ingurunearekin elkarreragitera zuzentzen diren proiektuen ikuspegitik egingo dira, ikuspegi jasangarririk, eta barnean hartuko dira, halaber, jarduera osagarriak eta mota horretako esperientziekin hain lotuta dauden eskolaz kanpoko jarduerak. Hiri-inguruneei dagokienez, patinajea, skatea edo parkourra gisako adierazpenak daude, ikastetxetik hurbil dauden gune edo instalazioetan egin daitezkeenak.

Etapan honetan, ingurumena errespetatzen duten ohiturak finkatu behar dira eta, tokikoan oinarrituta, mundua hobetzera zuzenduko diren ekintzak garatzen jarraitu behar da, jasangarritasunari eskala globalean laguntzeko. Hala ere, ikasleek etapa honetan lortuko duten heldutasun-mailari esker, urrats bat haratago egin ahal izango dute, eta zenbait testuingurutako jardueretan parte hartu ahal izango dute; izatez, ingurumena eta bertan bizi diren izaki bizidunak errespetatzeaz gain, ingurumena bera hobetzen saiatuko dira. Ingurumena komunitate-ondasuntzat hartzen duen erantzukizun ekologiko eta sozialaren ikuspegi horrek ongintzako ekitaldiak antola daitezkeen bultzatzen dezake, ikaskuntza/zerbitzua gisako plan teamenduen ildo beretik.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KPSII1, HK4, EK1 eta KAKK1.

7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa erabiltzea, emozioak kudeatuz eta kultura motorren adierazpen guztiak aztertuz, haien eragina eta kulturari egiten dizkieten ekarpen estetikoak eta sormenezkoak baloratzeko eta akzio-aukerak eta adierazpen-baliabideak jardun motorren artean integratzeko.

Konpetentzia honek egoera motorretan asmo artistiko edo espresiboekin moldatzeko gaitasuna hartzen du aintzat. Horrelako akzioak biltzen dituzten jarduerak eskakizun bikoitz baten inguruan antolatzen dira: adierazpena eta komunikazioa. Jokabide motor adierazkorrek motrizitate adierazkorrean, sinbolizazioan eta komunikazioan oinarritzen dira. Sortzeko eta adierazteko garaian, subjektuak irudimena eta sormena mobilizatzen ditu, sentsibilitatea eta afektibitatea pizten ditu, zenbait adierazpen-erregistro erabiltzen ditu (gorputza, hitza, dantza, musika...), akzioak kateatzen ditu eta adierazpen-baliabide ugari erabiltzen ditu (espazioak, erritmoak, desplazamenduak, formak, objektuak, rolak, kodeak...).

Egoera horien oinarrian daude espazioaren erabilera, akzio motorren kalitatea, osagai erritmikoak eta irudimenaren eta sormenaren mobilizazioa adierazpen-erregistro desberdinak erabiltzean (gorputza, hitza, dantza, musika). Ikasleek sortzailearen, interpretatzailearen eta ikuslearen/epailearen/kritikariaren rolak esperimintatu ahal izango dituzte, eta, ikusle gisa, aukera izango dute begirada, aktorearen lanarekiko errespetua eta azken esker ona trebatzeko, baita nabarmendu eta hobetu beharreko alderdiak hautemateko, eta horretatik ikasteko ere. Gainera, adierazpen-praktika motorretan, funtsezkoa izango da emozioak identifikatzea eta kudeatzea.

Konpetentzia hori testuinguru ugarian garatu ahal izango da. Aurreko etapan bezalaxe, kultura motor tradizionala folklore tradizionalaren berezko dantzen bidez jorra daiteke. Kultura artistiko eta espresibo garaikidea lantzeko garaian, adierazpen-teknika zehatzak erabil ahal izango dira (bat-batekotasuna, mimika), keinu-antzerkia, itzal-antzerkia, antzezpen landuagoak (borroka eszenikoa, rol-jokoak edo zirko-jarduerak, besteak beste), edo jarduera erritmiko-musikalak (gorputz-perkusioa, dantzak, koreografiak edo antzeko beste adierazpide batzuk). Etapa honetan, halaber, jakintza horiek aberastu ahal izango dira errepresentazioetan kritika sozialeko elementuak, emozioak edo hezkidetzaren txertatzearen bidetik.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, KPSII1, KPSII3, KP-SII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1 Osasunaren kontzeptu integralera eta bizimodu aktibora zuzendutako jarduera fisikoko sekuentzia errazak ezartzea eta antolatzea, hasierako mailaren baloraziotik abiatuta eta norberaren gorputzerrealitatea eta -nortasuna errespetatuz.	1.1 Osasunaren kontzeptu integralera eta bizimodu aktibora zuzendutako jarduera fisikoko praktika planifikatzea eta autorregulatzea, premia eta interes indibidualen arabera eta norberaren gorputzerrealitatea eta -nortasuna errespetatuz.
1.2 Ohitura osasungarriak gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoz hartzea, baita lesioen prebentziorako neurri orokorrak ere, arrisku-egoerak antzematen ikasiz.	1.2 Ohitura osasungarriak autonomiaz eta erantzukizunez hartzea, baita lesioen prebentziorako neurri orokorrak ere, arrisku-egoerak antzematen ikasiz.
1.3 Jarduera fisikoaren ondoriozko istripuetan, protokoloen arabera esku hartzea, lehen laguntzako oinarritzko neurriak aplikatuz.	1.3 Larrialdietan edo istripuetan, protokoloen arabera esku hartzea, lehen laguntzako berariazko neurriak aplikatuz.
1.4 Zenbait praktikak eta portaerak gure osasunean eta bizikidetzan duten eragina aztertzea eta baloratzea, horien eragina baloratuz eta berriro gerta daitezen modu aktiboan saihestuz.	1.4 Gorputz-arloarekin lotzen diren gizarte-estereotipoak eta osasuna arriskuan jartzen duten portaerak baztertzen dituzten jarrera konprometituek eta eraldatzaileak hartzea, edozein informazio autonomiaz eta independentziaz kontrastatuz, baliozkoak, fidagarriak eta objektiboak diren irizpide zientifikoetan oinarrituta.
1.5 Baliabide eta aplikazio digitalak miatzea, haien potentziala ezagutuz eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan erabiltzeko arriskuak ezagutuz.	1.5 Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloarekin lotzen diren baliabide eta aplikazio digitalak maneiatzea, eguneroko praktika fisikoa planifikatuz, garatuz eta segurtasunez partekatuz.
1.6 Gizarte-trebetasunak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, baita gatazken kudeaketan elkarrizketa eta aniztasunarekiko errespetua ere, jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa erakutsiz estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta orotariko indarkeriaren aurrean.	1.6 Gainerako parte-hartzaileekin harremanak izatea eta elkarri ulertzea, gatazka kudeatzeko elkarrizketarako gizarte-trebetasunak eraginkortasunez erabiliz, aniztasuna errespetatuz, kirol-legearen kontrako praktiken ondorio etikoak baloratuz eta jarrera aktiboa hartuz estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.
1.7 Emozioak kudeatzea, eraginkortasunez parte hartzeko gai izanik, gainerako esku-hartzeak errespetatuz, eta kirol-legez jokatzeko ikuslearen, parte-hartzailearen edo beste batzuen rola betetzean.	1.7 Jarduera motorren antolamenduan emozioak kudeatzea, erantzukizunak bere gain hartuz, gainerako esku-hartzeak errespetatuz, eta kirol-legez jokatzeko antolatzailearen, ikuslearen, parte-hartzailearen edo beste batzuen rola betetzean.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1 Egoera psikomotorrak ebaztea, gorputzaren kontrol- eta menderatze-maila jakin batez eta motrizitatearen osagai kualitatiboak eta kuantitatiboak gero eta autonomia handiagoz eta sormenez erabiliz.	2.1 Egoera psikomotorrak ebaztea, akzio-printzipioak aplikatuz, eta gorputzaren kontrola eta menderatzea handituz, motrizitatearen osagai kualitatiboak eta kuantitatiboak eraginkortasunez, sormenez eta autonomiaz erabiltzean.
2.2 Estrategiaren oinarritzko nozioak bereganatzea, akzio-hipotesiak formulatuz, barne-logikaren interpretaziotik abiatuta, eta kateamendu motorrak automatizatuz.	2.2 Gero eta kateatze eraginkoragoak egitea, egoera bakoitzaren barne-logika interpretatuz, akzio-plan pertsonalak pixkanaka perfektionatuz eta haien esku-hartzea baloratuz eta doitz.
2.3 Nork bere ahalmen motorra ezagutzea eta jolas-jardueren bidez nork berak erregulatzea, gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz, eta ezagutza eta balioak beren bizi-eremura eramanez.	2.3 Nork bere jokabide motorra erregulatzea, norberaren ahalmen motorrak identifikatuz, jolas-jardueren bidez gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz, eta ezagutza eta balioak beren bizi-eremura eramanez.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1 Aurkaritza-testuinguruetan elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa azalduz.	3.1 Aurkaritza-testuinguruetan doitasunez elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz, norberaren gaitasunak eraginkortasunez aprobetxatuz, soluzioei eta lortutako emaitzei buruz gogoeta eginez, eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa azalduz.
3.2 Oinarrizko akzio-planak prestatzea, egoeren barne-logika eta parte-hartzaileen gabeziak eta indarguneak aztertuz eta, beharrezkoa izanez gero, plana berregokituz.	3.2 Akzio-planak garatzea, egoeren barne-logika eta norberaren eta aurkariaren gabeziak eta indarguneak aztertuz eta, beharrezkoa izanez gero, plana berregokituz.
3.3 Norberaren kulturen errotutako aurkaritzako kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, jatorri desberdineko pertsonen artean elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala ezagutuz eta transmitituz.	3.3 Aurkaritzako kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, kultura motorraren lorpenean eta sorreran lagunduz eta jatorri desberdineko pertsonen artean elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala ezagutuz eta transmitituz.
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1 Proiektu motor kooperatiboak ebatzea, helburu komunak bilatuz, arau-itunak eginez, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak barne hartuz —prozesuarenak zein emaitzarenak—, eta esleitutako rolak eta horien erantzukizunak bere gain hartuz.	4.1 Proiektu motor kooperatiboak ebatzea, helburu komunak bilatuz, arau-itunak eginez, erabaki partekatuak hartuz, eta elkarri lagunduz.
4.2 Bizikidetzaren sozialean eta gizarteratze-prozesuan laguntzea, portaera etikoaren eta jarrera enpatikoaren bidez, eta jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa erakutsiz estereotipoen, jardun diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.	4.2 Bidezko parte-hartzea sustatzea, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak barne hartuz —prozesuarenak zein emaitzarenak— eta esleitutako rolak eta horien erantzukizunak bere gain hartuz.
	4.3 Bizikidetzaren sozialean eta gizarteratze-prozesuan laguntzea, portaera etikoaren eta jarrera enpatikoaren bidez, betiere jarrera kritikoa erakutsiz estereotipoen aurrean eta jarrera proaktiboa erakutsiz jardun diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1 Aurkaritza-/kolaborazio-egoeretan elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz, erantzunak automatizatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako jarreraren aurrean jarrera kritikoa azalduz.	5.1 Aurkaritza-/kolaborazio-testuinguruetan elkarreraginean aritzea, oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatuz, erantzunak automatizatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa eta proaktiboa erakutsiz.
5.2 Kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, kultura motorraren lorpenean eta sorreran lagunduz, kultura horren jatorria, bilakaera eta gizarte garaikideetan duen eragina aztertuz, eta jatorri desberdineko pertsonen artean eraikuntza-elkarreraginak sortzen dituen espazio gisa baloratuz.	5.2 Aurkaritzako/kolaborazioko kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, haien jatorria, bilakaera, interes ekonomikoak eta politikoak eta egungo gizarteetan duen eragina baloratuz, eta jatorri desberdineko pertsonen artean eraikuntza-elkarreraginak sortzen dituen espazio gisa baloratuz.
5.3 Motrizitatearen testuinguru batzuetan oraindik ere gertatzen diren genero-estereotipoak eta portaera sexistak identifikatzea eta aztertzea, haiek mantentzen laguntzen duten faktoreak ezagutuz.	5.3 Motrizitatearen testuinguru batzuetan oraindik ere gertatzen diren genero-estereotipoen aurrean jarrera konprometitua eta kontzienteak hartzea, haiek mantentzen laguntzen duten faktoreak aztertuz.
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1 Ziurgabetasuna duen ingurune batean egoera motorrak ebatzea, kirol-jardueren eta jarduera fisikoen oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatuz.	6.1 Ziurgabetasuna duen ingurune batean egoera motorrak ebatzea, kirol-jardueren eta jarduera fisikoen oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatuz eta eraginkortasun eta doitasun jakin bat bilatuz.
6.2 Ingurune naturaletan (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jardueretan parte hartzea, inguruneaz modu jasagarrian gozatuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz eta haien aztarna ekologikoaz jabetuz.	6.2 Ingurune naturaletan (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jardueretan parte hartzea, inguruneaz modu jasagarrian gozatuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz, haien aztarna ekologikoaz jabetuz eta garatzen direneko espazioetako baldintzak kontserbatzeko eta hobetzeko jardunak eginez.

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren eta laugarren mailak
6.3 Natura- eta hiri-ingurunean jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak praktikatzea, segurtasun-arau indibidualak eta kolektiboak aplikatuz.	6.3 Natura- eta hiri-ingurunean jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak praktikatzea eta antolatzea, erantzukizunak bere gain hartuz eta segurtasun-arau indibidualak eta kolektiboak aplikatuz.
7. kompetentzia espezifikoak	
7.1 Gorputza nahita eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa, zenbait adierazpen-tekniken bidez, eta musika-oinarria duten eta ez duten konposizio indibidualen edo kolektiboen sorreran eta errepresentazioan modu aktiboan parte hartuz.	7.1 Musika-oinarria duten eta ez duten konposizio indibidualak edo kolektiboak modu koordinatuan sortzea eta errepresentatzea, gorputza eta mugimendua nahita eta autonomiaz erabiliz adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa, zenbait adierazpen-teknika espezifikoren bidez, eta kultura-praktika horiek ikaskideen edo komunitateko beste kide batzuen artean zabaltzen eta partekatzen lagunduz.
7.2 Norberaren kulturarekin eta beste kultura batzuekin lotzen diren adierazpen artistikoetan eta espresiboetan parte hartzea, haien kontserbazioa erraztuz eta kultura-nortasunaren sorreran duten garrantzia baloratuz.	7.2 Norberaren kulturarekin eta beste kultura batzuekin lotzen diren adierazpen artistikoetako eta espresiboetako parte-hartzea kudeatzea, haien kontserbazioa erraztuz eta haien jatorria, bilakaera eta gizarte garaikideetan duten eragina baloratuz.
7.3 Emozioak kudeatzea, arte- eta adierazpenegoeretan desinhibituta parte hartzeko gai izanik, eta gainerakoen esku-hartzeak errespetatuz.	7.3 Emozioak kudeatzea, arte- eta adierazpenegoeretan desinhibituta eta eraginkortasunez parte hartzeko gai izanik, eta gainerakoen esku-hartzeak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
A multzoa. Egoera psikomotorrak
Dominio honetako euskarri diren jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (probak, estiloak, jokoaren oinarrizko arauak, espazioak, materialak...).
Gorputzaren erabilera kontzientea, jardueraren ezaugarrien, testuinguruaren eta espazio-parametroen arabera.*
Gorputzaren kontrola eta energia-gastuaren erregulazioa.*
Zenbait sekuentzia motorretako eta/edo kirol-sekuentziatako koordinazio-, espazio- eta denbora-alderdien integrazioa.*
Kirol-jardueretako eta jarduera fisikoetako teknikarekin lotzen diren trebetasun motor espezifikoak.*
Norberaren eta besteen jarduketan edo marken neurketa, irizpide objektiboekin.
B multzoa. Aurkaritza-egoera sozomotorrak
Joko tradizionalen aniztasuna, eremu horretako berezko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak.
Aurkaria gainditzeko funtsezko akzio-printzipioak.*
Espazioa eta haren erabilera.*
Aurkaritza-jardueren estereotipo motorrak.*
Proiektu taktiko erraza, aurrean duen aurkariaren arabera.*
C multzoa. Kooperazio-egoera sozomotorrak
Dominio honen berezko praktika motorrak.
Akzio-printzipioak, talde-jarraibideak eta koordinazioa, betiere taldeak akzio/zeregina ebazteko dituen baliabide motorrak optimizatze aldera.*
Trebetasun motor espezifikoaren aukeraketa eta konbinazioa.*
Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*
Esleitutako rolak eta erantzukizunak nork bere gain hartzeko estrategiak.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
D multzoa. Aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorrak
Dominio honetako berezko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna.
Eremu honetako berezko ekintza-printzipioak, hala nola defentsako eta erasoko algoritmoa praktikan jartzea, rol-trukea ...*
Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen ezaugarrien arabera.*
Ebaluazio-tresnak eta erabakiak modu indibidualean edo kolektiboan hartzeko estrategia.
Norberaren, taldekideen eta aurkarien akzioak aztertzeko eta azaltzeko prozedurak.*
E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak
Natura- eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak.
Ingurune naturalean egindako desplazamendu arrazoitua eta hausnartua, informazio eta erreferentziak hartuz (plano batean markatutako ibilbide bati jarraitzeko).*
Energiaren kudeaketa eta erregulazioa, jarduera ekonomiaz eta eraginkortasunez gauzatzeko.*
Ingurune naturaleko praktika fisikoetako eta kirol-praktiketako arriskua: segurtasun-neurriak ondorio larriak izan ditzaketen jardueretan.*
Jarduera horietako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasuneko barne: ezagutza teknikoak eta oinarrizko mantentze-lanetako ezagutzak.
Puntu kardinalak, ipar magnetikoa, orientazioak, norabideak eta planoak.*
Orientazioko oinarrizko tresnen eta tekniken erabilera.*
Kirol-espazio eta -praktika berriak. Motrizitateak hiri-espazioak konkistatzeko eta erabiltzeko jarraibideak (parkour, skate...).
F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak
Adierazpeneko erritmo- eta musika-jarduerak.
Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentsazioen, sentimenduen eta emozioen adierazpena, ideia konplexuen komunikazioa —zenbait testuingurutan— eta interpretaziorako oinarrizko teknikak.*
Espazio eszenikoa: orientazioa, norabideak, bolumena, planoak, dimentsioak, ibilbideak, sarrerak/irteerak, publikoaren kokalekua, espazioaren okupazioa.
Sormen-prozesuaren faseak: eragilea/eskaera, sorkuntza/aniztasuna, hautaketa, aberastea, ekoizpena, aurkezpena, jantziak, ...*
Dantzen pausoak, acrosport figurak, akzio akrobatikoak/adierazkorrak.*
Produkzioak behatzeko irizpideak: zailtasuna, mezua, kontzentrazioa, kateatzea, originaltasuna, sinkronizazioa, koordinazioa.
Proposamenen, iritzien eta produkzioen balorazioa eta errespetua.*
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak: dantzak kulturartekotasunaren adierazpen gisa.
G multzoa. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak Multzo honetan biltzen dira Heziketa Fisikoarekin lotzen diren jakintza ez-motorrak. Multzo honen izaera dela eta, aurreko multzoetako bakoitzean landuko da.
Lehen mailako jakintzak:
Osasun fisikoa: eguneko eta asteko jarduera fisikoko gutxieneko tasa. Jatorri atzeratuko muskuluetako mina tratatzeko jarraibideak. Higienearen garrantzia eta istripuen prebentzioa, praktika fisikoetan eta kirol-praktiketan.*
Gaitasun baldintzatuak: oinarrizko gaitasun fisikoen garapena*.
Ahalegin motak eta organismoan eta osasunean duten eragina.*
Jarrera-hezkuntza: jarrera deskargatzeko eta erlaxatzeko oinarrizko teknikak. Core-aren muskulatura (erdialdeko zona edo lunbo-pelbikoa) eta jarrera mantentzearekin duen lotura.*
Gizarte-osasuna: gatazken elkarriketa bidezko kudeaketa zuzena. Gizarte-portaerekin lotzen diren ohitura txarrek osasunean dituzten efektuak. Jarrera kritikoa indarkeriazko jokabideen aurrean.*
Osasun mentala: mugen onarpena eta hobetzeko aukerak, egoera motorren aurrean. Jarduera fisikoa gozamen- eta katarsi-iturri gisa*.
Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa: autoebaluazio- eta koebaluazio-mekanismoen ezarpena, lan-prozesuak bideratzeko.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak
Jarduera fisikoen praktikan izan daitezkeen istripuetako oinarrizko jardunak. Babesteko, laguntzeko eta sorosteko teknika. 112 protokoloa.*
Testuinguru fisikoetako eta kirol-testuinguruetakiko frustrazioarekiko iraunkortasuna eta tolerantzia.
Egoera motor kolektiboetako jokabide prosozialak.
Kirol-jokoetako oinarrizko araudiak.
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Kirol-jokoak, kulturartekotasunaren adierazpen gisa.
Aniztasunarekiko errespetua.*
Bizikidetzaren aurkako jokabideen identifikazioa eta gaitzespena (indarkeriazko portaerak, generoaren ondoriozko diskriminazioa, konpetentzia motorra, jarrera xenofoboak, arrazistak edo sexistak).*
Genero-berdintasuna kirolarekin lotzen diren lanbideetan (komentaristak, kazetariak, kirolariak, teknikariak eta abar). Gizonezko eta emakumezko figuren presentzia eta garrantzia.
Nork berak praktika motorrerako materialak eraikitzekeo estrategia.
Hurbileko ingurunearen zaintza, komunitaterako zerbitzu gisa, ingurune naturalean egiten den jarduera fisikoan.*
Bigarren mailako jakintzak:
Osasun fisikoa: zereginaren bolumena eta intentsitatea ezaugarri pertsonaletara egokitzeko jarraibideak. Elikadura osasungarria eta elikagaien nutrizio-balioa. Gorputzaren zaintza: beroketa orokor autonomoa.*
Gizarte-osasuna: gorputz- eta genero-estereotipoen eta konpetentzia motorraren analisi kritikoa.*
Osasun mentala: alde zuzeneko ideien, aurreiritzien, estereotipoen eta abarren ondorioz, jarduera fisikoarekiko jarrera negatiboak buruzko gogoeta. Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako elikadura-nahasteak.*
Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa: jarduera fisikoa kudeatzeko eta autoebaluziorako tresna digitalak.*
Praktika motorretako istripuen prebentzioa: segurtasun-neurriak. Jarduera fisikoak egitean izan daitezkeen istripuen aurrean egin beharreko oinarrizko zereginak. Babesteko, laguntzeko eta sorosteko teknika. 112 protokoloa. Oinarrizko bizi-euskarria*.
Kudeaketa emozionala: estresa egoera motorretan. Ahaleginaren autorregulazio kolektiborako estrategiak eta egoera motorretako erronkei aurre egin eta hobetzeko gaitasuna.*
Egoera motor kolektiboetako jokabide prosozialak.
Arauekiko errespetua: kirol-epaileen funtzioak.
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Kirol-jokoak, kulturartekotasunaren adierazpen gisa.
Kirola eta genero-ikuspegia: hedabideak eta kirolaren sustapena, berdintasunetik. Analisi kritikoa.
Kirolak gaur egungo kulturaren duen eragina: kirola masa-fenomeno gisa. Inpaktu soziala, alderdi positiboak eta negatiboak.
Hurbileko ingurunearen zaintza, komunitaterako zerbitzu gisa, ingurune naturalean egiten den jarduera fisikoan.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
A multzoa. Egoera psikomotorrak
Dominio honetako euskarri diren jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (probak, estiloak, jokoen oinarrizko arauak, espazioak, materialak...).
Gorputzaren kontrola eta energia-gastuaren erregulazioa.*
Jarduera fisikoetako eta kirol-jardueretako teknikarekin lotzen diren gaitasun motor espezifikoak: ohikoak diren erroreak identifikatu eta zuzentzeko estrategiak eta sakontzeko estrategiak.*
Egoera motor indibidualetan nolabaiteko konplexutasuna duten zereginak efizientziaz ebazteko egokitzapen motorrak.*
Koordinazio-, espazio- eta denbora-mekanismoei buruzko jarduera motorra egin aurretik, eta jarduera hori behar bezala ebazteari begira, erabakiak hartzeko jarraibideak.*
Norberaren eta besteen jardunen edo marken neurketa, irizpide objektiboz.
Muskuluetako minei aurre egiteko mugimenduak, jarrerak eta luzamenduak.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
B multzoa. Aurkaritza-egoera soziomotorrak
Dominio honetako berezko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna.
Aurkaria gainditzeko funtsezko akzio-printzipioak.*
Aurkaritza-jardueren estereotipo motorrak.*
Mendean egotetik nagusi izatera pasatzeko estrategiak eta bitartekoak.*
Aurkariaren eremuan espazio libreak sortzeko estrategiak, betiere sakoneko, zabalerako, potentziako eta altuerako kolpeen bidez, kolpe-trukean nagusi izateko.*
Aurkariaren seinaleak: asmoak, portaera, gorputz-orientazioa, desplazamenduak, espazioaren erabilera, indarrak eta ahuleziak...*
C multzoa. Kooperazio-egoera soziomotorrak
Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna.
Akzio-printzipioak eta egoera kooperatiboetan arrakasta izateko giltzarriak.*
Sekuentzien planifikazioa, jokabide motorrak aurreikusiz.*
Produktzio eta proiektu motor kooperatiboak.
Rolen esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak.*
Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*
D multzoa. Aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorrak
Dominio honetako berezko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna.
Dominio honetako berezko akzio-printzipioak, hala nola erasoko eta defentsako algoritmoak edo rolen aldaketa azkarra.*
Aurkariaren ahulguneen eta indarguneen identifikazioa: aurkariaren asmoak, egiteko moduak, espazioaren erabilera, konpromiso-maila...
Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen eta aurkako taldeko kideen ezaugarrien arabera.*
Talde-kiroletan emandako araudiak eta jokoaren arauak (jokoaren hasiera, jokalarien eskubideak eta betebeharrak, puntuatzeko aukerak, arrakasta edo porrota dakarten elementuak...).
Ebaluatzeko eta erabakiak modu indibidualean edo kolektiboan hartzeko tresnak: behaketa gurutzatuak, informatika-tresnak...
Norberaren, taldekideen eta aurkariaren akzioa aztertzeko eta azaltzeko prozedurak.*
Aurkaritza kolektiboko jardunen balioak (borrokarako grina, enfrentamendua, zintzotasuna, elkartasuna, segurtasuna, legezkoasuna).*
E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak
Landa- eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak.
Jarduera egiten den bitartean, kanpotik datorren informazioaren (ikusmena, ukimena eta entzumena) eta barnetik datorrenaren (propiozeptiboak, emozionalak) identifikazioa.*
Energiaren kudeaketa eta erregulazioa, ekonomiaz eta eraginkortasunez.*
Ingurune naturalean, norberaren eta gainerakoen arriskuaren kudeaketa. Segurtasun-neurri kolektiboak.*
Jarduera horietako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasunekoa barne: ezagutza teknikoak eta mantentze-lanetako ezagutzak.
Puntu kardinalak, ipar magnetikoa, orientazioak, planoak, mapak eta iparrorratza.
Hiriko kirol-praktikak: crossfit, hirietako gimnasioak, calistenia...
F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak
Adierazpeneko erritmo- eta musika-jarduerak.
Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentsazioen, sentimenduen eta emozioen adierazpidea eta ideia konplexuen komunikazioa zenbait testuingurutan.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
Gorputz-adierazpeneko teknika espezifikoa.*
Espazio eszenikoaren ezaugarriak: orientazioa, norabideak, bolumena, altuera, planoak, dimentsioak eta trazuak.
Espazio eszenikoa: ibilbideak, sarrerak/irteerak, publikoaren kokalekua, orientazioa (publikoari begira), espazioaren okupazioa.
Sorkuntza-prozesuaren faseak (induktorea/eskaera, sorkuntza/aniztasuna, aberastea, aukeraketa, produkzioa, aurkezpena), konposizio koreografikoko prozesuekin (errepikapena, transposizioa, kontrastea, metaketa, errotazioa) eta elementu osagarriekin (jantziak, musika).*
Dantzen pausoak, acrosport figurak, ekintza akrobatikoak/adierazkorak.
Zenbait rol: koreografoak, aktoreak, dantzariak, ikusleak, epaileak.
Produkzioak behatzeko irizpideak: zailtasuna, mezua, kontzentrazioa, kateatzea, originaltasuna, sinkronizazioa, koordinazioa...
Gainerakoen proposamenen, iritzien eta produkzioen balorazioa eta errespetua. Genero-estereotipoen ondoriozko asimilazioak.*
Emozioen kudeaketa, gainerakoen begirada, arriskuak eta kontzentrazioa.*
Ikuskizunen, gau-emanaldien eta arte- eta adierazpen-ekitaldien antolaketa.
G multzoa. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak
Hirugarren mailako jakintzak:
Osasun fisikoa: ahalegin motak eta organismoan eta osasunean duten eragina. Beroketa espezifikoa autonomoa. Praktika arriskutsuak, gorputzaren eta jardueraren fisikoaren inguruko mitoak eta sinesmen faltsuak.*
Gaitasun baldintzatuak: oinarrizko gaitasun fisikoaren garapena*.
Gizarte-osasuna: suplementazioa eta dopina kirolean; etika eta arriskuak.
Osasun mentala: gizartean nagusi diren gorputz-tipologiak eta hedabideetan duten presentziaren analisi kritikoa.*
Praktika motorren prestaketa: kirol-materiala mantentzeko eta konpontzeko lanak.
Jardueraren fisikoko praktikaren testuinguru- eta -jarraibideen garrantziari buruzko gogoeta kritikoa.
Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa.*
Jardueraren fisikoaren kudeatzeko tresna digitalak.
Praktika motorretako istripuen prebentzioa. Norberaren eta gainerakoen arriskuaren kudeaketa.
Jardun kritikoa istripuen aurrean. Bihotz-biriketako bizkortzea. Istripu kardiobaskularren zantzuak, iktus-seinaleak eta antzekoak.*
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Kirol-jokoak, kulturartekotasunaren adierazpen gisa.
Autorregulazio emozionala: nahimenezko trebetasunak eta hobetzeko gaitasuna*.
Aniztasun afektibo-sexualarekiko, genero, jatorri, etnia eta egoera sozioekonomikoaren arloko aniztasunarekiko edo konpetentzia motorren arloko aniztasunarekiko errespetua.*
Gatazka pertsonalen elkarrizketa bidezko kudeaketa zuzena; enpatia, elkartasuna, errespetua eta inplikazioa.*
Egoera motorretan, bizikidetzaren kontrako jokabideen identifikazioa eta gaitzespena.*
Kirola eta genero-ikuspegia: kirolean aritzeko berdintasuna. Bi sexuetako, adin desberdinetako eta bestelako parametroetako erreferente diren adibideak.*
Bide-arauen errespetua, ohiko desplazamendu aktiboetan.
Kontsumo arduratsua: jardueraren fisikoaren egiteko hiri- eta natura-baliabideen erabilera eta mantentze jasangarria.
Laugarren mailako jakintzak:
Osasun fisikoa: ariketa fisikoaren ondoriozko emaitzen eta oinarrizko aldagai fisiologikoen kontrola. Beroketa espezifikoa autonomoa. Entrenamenduaren autorregulazioa eta plangintza. Elikadura osasungarria eta publizitatearen analisi kritikoa. Osasungarriak ez diren dietak eta elikagaiak.*
Oinarrizko gaitasun fisikoak garatzeko plangintza: indarra eta erresistentzia. Entrenamendu- eta ebaluazio-sistemak.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren eta laugarren mailak
Osasun mentala: nagusi diren eredu estetikoaren efektu negatiboak eta gorputzaren gurtza kaltegarriarekin lotzen diren trastornoak (bigorexia, anorexia, bulimia)*.
Jarduera fisikoaren edo kirolaren erabileren eta helburuen kudeaketa eta ikuspegia, betiere jarduera fisikoa edo kirola guzkiekin egiten dutenen, testuinguruaren eta jardueraren arabera.
Norberaren eta besteen jardunak ebaluatzeko tresnak eta prozesuak.*
Jarduera fisikoa kudeatzeko tresna digitalak.
Praktika motorretako istripuen prebentzioa. Segurtasun-neurri kolektiboak.
Jardun kritikoak istripuen aurrean. Desfibriladore bidezko bizkortzea. Bihotz-biriketako bizkortzearen protokoloa (RCP). Teknika espezifikoak eta istripu kardiobaskularren zantzuak, iktus-seinaleak eta antzekoak.*
Autorregulazio emozionala: porrota kudeatzeko estrategiak.*
Testuinguru motorretako negoziazio- eta bitartekotza-estrategiak.*
Arauekiko errespetua: dopina eta kirol profesionaleko bestelako iruzurrak.
Jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa estereotipoen, diskriminazioen eta indarkeriaren aurrean.*
Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Kirolak kultura-nortasunaren bereizgarri gisa, interes politikoak eta ekonomikoak.
Kirolaren historia genero-ikuspegitik. Generoaren, adinaren edo beste edozein ezaugarriaren arabera jasotako kompetentzia motorren estereotipoak.*
Hurbileko ingurunearen zaintza, komunitaterako zerbitzu gisa, ingurune naturalean egiten den jarduera fisikoan.*

MATEMATIKA

Matematika giza jarduera guztietan aurki daiteke, bai esparru zientifiko eta teknologikoetan, bai kultural, artistiko, sozial, ekonomiko edo profesionaletan, baita ingurune pertsonaletan ere. Hori dela eta, matematikak zuzeneko erantzukizuna eta lotura du irteera-profilean barne hartutako funtsezko kompetentzien garapenean. Kompetentzia horiek eskuratzea ikasleen garapen pertsonala, soziala, akademikoa eta profesionala lortzeko ezinbesteko baldintza da.

Matematika hizkuntza bat da berez, eta halakotzat garatu behar da bere ikaskuntza, baina, gainera, dauden komunikazio-sistemez eta hizkuntzez baliatzen da bere garapenerako. Horregatik, arreta berezia eman behar zaio ikasleen hizkuntza-trebakuntzari matematika lantzen denean, eta are gehiago gure hezkuntza-sistemaren testuinguru elebiduna eta eleaniztuna kontuan harturik. Bi aldetatik egin behar da hori. Alde batetik, ikasleen hizkuntza-adierazpenak errespetatu, hartu, ikusarazi eta balioztatuz eta adierazpenok matematika-ikaskuntzan laguntzeko sartuz. Bestetik, arreta berezia emanez hizkuntza-zuzentasunari eta matematikaren berezko hizkuntza egoki erabiltzeari, haren zuzentasuna, zehaztasuna, zorrotasuna eta hiztegi propioa kontuan harturik, matematikaren eta gainerako arloen ikaskuntza aberasteko asmoz.

Matematika ezinbestekoa da, halaber, espiritu ekintzailea edo kompetentzia zientifikoak eta teknologikoak garatzeko. Proposamenen informazioa eta bideragarritasuna egiazta daitezkeen argudioen bidez oinarritzea eta, gainera, irudikapen grafiko egokien bidez adieraztea, matematikak bultzatzen dituen tresna eta prozesuekin optimiza daiteke. Problema ebaztea eta prototipoak garatzea, bakarka zein taldean, ebazpen-estrategiei, emaitzak baliozkotzeari eta prozesuak testuinguru jakin batean hobetzeko buruz eztabaidatuz, funtsezkoa da ikastunen gaitasunak garatzeko eta etorkizuneko lan-bizitzan lantaldeetan integratzeko. Kooperazio-lana, hartara, ikaskuntzaren bide eta berezko helburu bihurtzen da.

Eta honetako matematika zuzenean uztartzen da aurreko etapetako matematikarekin, bai *kompetentzia espezifikoetan* eta *ebaluazio-irizpideetan*, bai *oinarrizko jakintzetan*, ikasleen garapen psikologikoa eta aurrerabide kognitiboa errespetatzen duen jarrarritasuna emanez ikaskuntzari.

Matematikarako konpetentzia espezifikoak definitzeko ildo nagusiak problemen ebazpena eta trebetasun sozioafektiboak dira. Gainera, aieruen formulazioa eta arrazoibide matematikoa, elementu matematikoen artean konexioak ezartzea, elkarrekin, beste jakintzagaiekin eta errealitatearekin, eta, azkenik, irudikapen eta komunikazio matematikoa jorratuko dira.

- Problema ebaztea ez da soilik matematika ikastearen berezko helburu bat, matematika modu esanguratsu eta funtzionalean ikasteko metodo eraginkorrenetako bat baizik. Problema ebazpenean hainbat prozesu nabarmentzen dira, hala nola enuntziatua ulertzea, ebazpen-estrategia edo estrategiak hautatzea, matematika-hizkuntzara itzultzea, estrategia aplikatzea, prozesua ebaluatzea eta soluzioa baliozkoa den egiaztatzea. Problema ebazpenarekin lotuta daude pentsamendu konputazionala, datuen analisia, horien antolaketa logikoa, urrats ordenatuen sekuentzietan soluzioak bilatzea, eta soluzioak ordenagailu batek, pertsona batek edo bion konbinazio batek exekuta ditzakeen instrukzioekin lortzea. Izan ere, alderdi horiek guztiek problema ebazteko gaitasuna areagotzen dute eta tresna teknologikoen erabilera efizientea sustatzen dute.
- Tradizioz, zenbait ikaslek oztopo bat antzeman dute matematikaren ikaskuntzaren aurrean. Oztopo hori, neurri handi batean, jakintzagai horri buruzko alde aurreko ideiekin lotuta dago, bai maila indibidual edo sozialean, bai justifikaziorik gabeko sinesmen horien ondorio diren emozio negatiboak agertzen direlako. Didaktikan egindako ikerketak frogatu du matematikako errendimendua hobetu egin daitekeela aurreiritzi horiek bazter uzten eta matematikarako emozio positiboak garatzen laguntzen bada. Horregatik, trebetasun sozioafektiboak menderatzeak —besteak beste, emozioak identifikatzea eta maneiatzea, desafioei aurre egitea, eta motibazioari eta jarraitutasunari eustea— ikasleei aukera emango die beren ongizate orokorra areagotzeko, erresilientzia eraikitzeko eta matematikako ikasle gisa aurrera egiteko. Kontua da, azken batean, ikasleek hazteko eta etengabe hobetzeko pentsamoldea eskuratzea, horrek indartu egingo baitu mundu guztiak bizitza osoan matematika ikasteko prozesuan goragoko mailetarantz aurrera egin dezakeelako ideia.

Matematikaren inguruko eztabaidak etengabea izan behar du ikasgelan eta ezagutza partekatua eraikitzea xede duen ikaskuntza bultzatu behar du. Eztabaida horietan, ikasteko aukera gisa onartu eta aprobetxatu behar da errorea. Ikasleek aukerak izan beharko dituzte ideiak adierazteko askatasuna ematen dien giro batean beren ideiak probatzeko, horrek bidea emango baitio ideien inguruko elkarrizketa eta eztabaida askearen kultura garatzeari.

Eta honetan, konpetentzia espezifikoak elkarrekin erlazionatzen dira eta bost *konpetentzia multzotan* bildu dira izaeraren arabera: problemen ebazpena (1 eta 2), arrazoibidea eta proba (3 eta 4), konexioak (5 eta 6), komunikazioa eta irudikapena (7 eta 8), eta trebetasun sozioafektiboak (9 eta 10). Konpetentzia espezifikoak eskuratzea ebaluazio-irizpideen bitartez ebaluatuko da. Irizpide horiekin batera, konpetentzia espezifikoak etapan zehar eskuratzen lagunduko duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratzen dituzten jakintzen multzoa proposatzen da.

Zentzu matematikoa da eduki matematikoa modu funtzionalean eta norberaren trebetasunetan konfiantza izanik testuinguruan menderatzearekin lotutako gaitasunen multzoa. Hori dela eta, matematikaren konpetentzia-irakaskuntza planteatzen da, testuinguruan problema edo atazak ebazteko kontzeptuak nagusitu eta haiei zentzua emateko, testuingurutik kanpoko egoeretan trebetasunak edo algoritmoak ikasi beharrean. Hala, zentzu matematikoa izan eta garatu behar da matematikoki konpetentziadun izatera iristeko.

Kontzepzio horretatik abiatuta, jakintzak zenbait *zentzu matematikotan* bildu dira. Zentzu horiek matematikaren esparruekin erlazionatutako trebetasunen multzoak dira: zentzu numerikoa, neurriaren zentzua, aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala, zentzu espaziala, estokastikoa eta sozioafektiboa. Kontuan hartu behar da jakintzak curriculumean antolatzeak ez dakarrela inolako denbora-antolaketarik edo hurrenkera kronologikorik ikasgelan lantzeko orduan.

- *Zentzu numerikoaren* ezaugarria da numerazioari eta kalkulari buruzko ezagutza zenbait testuingurutan aplikatzea, eta zenbakien eta eragiketen ulermenean, irudikapenean eta erabilera malguan oinarritutako trebetasunak eta pentsamoldeak garatzea. Eragiketa-algoritmoen ikaskuntza ez da berez helburu bat izango, zenbakien eta haien interrelazioen ulermen kontzeptualaren zati bat baizik.

- *Neurriaren zentzuak* hiru dimentsioko mundu naturaleko objektuen atributuak ulertzea eta konparatzea hartzen du ardatz. Magnitudeak (luzerak, azalerak, bolumenak...) zenbatesteko, neurtzeko eta konparatzeko unitate egokiak ulertzea eta hautatzea; neurketak egiteko tresna egokiak erabiltzea; objektu fisikoak konparatzea; eta forma eta neurrien arteko erlazioak ulertzea. Horiexek dira zentzu honen ardatz nagusiak. Halaber, probabilitatearen kontzeptua ziurgabetasunaren neurri gisa aplikatzea.
- *Zentzu espazialak* gure munduaren alderdi geometrikoen ulermena jorratzen du. Formak eta figurak hautematea eta irudikatzea, haien propietateak ezagutzea, haien arteko erlazioak identifikatzea, konparatzea, haien mugimenduak deskribatzea, sailkatzea eta haiekin arrazoitzea dira geometriaren irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren funtsezko elementuak.
- *Zentzu aljebraikoak* matematika komunikatzeko hizkuntza eskaintzen du. Zentzu aljebraikoaren funtsezko ezaugarriak honako hauek dira: partikularrean orokorra dena ikustea, aldagaien arteko mende-kotasun-patroiak eta -erlazioak antzematea eta hainbat irudikapenen bidez adieraztea, eta egoera matematikoak edo mundu errealekoak adierazpen sinbolikoekin modelizatzea. Pentsamendu konputazionalak ezaugarri horiek partekatzen ditu, eta, gainera, problemak informatikaren berezko tresna eta kontzeptuen bitartez formulatu, irudikatu eta ebazteko balio du. Aljebra eta geometria batzen dituzten morroien bidez, simulagailuak, programazio-lengoiak eta abar erabiliz, zentzu aljebraikoaren garapena bultzatzen dugu.
- *Zentzu estokastikoak* hainbat alderdi hartzen ditu, hala nola datuak analizatzea eta interpretatzea, aieruak egitea, informazio estatistikotik abiatuta erabakiak hartzea, eta, azkenik, eguneroko era askotako egoeretan ausazko fenomenoak ulertzea eta komunikatzea.
- *Zentzu sozioafektiboak* emozioak ulertzeko eta maneiatzeko, jomugak ezartzeko eta erdiesteko, eta erabaki arduratsuak eta informatuak hartzeko gaitasuna areagotzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratzen ditu. Hori guztia matematikako ikasleen errendimendua hobetzera, harekiko jarrera negatiboak murriztera, ikaskuntza aktiboa sustatzera eta alde zuzeneko ideiak desagerraraztera zuzentzen da. Helburu hori indartzeko, alde batetik, ikasleei etengabeko hobekuntza bultzatuko duten mezurik positiboak eman beharko zaizkie; bestetik, funtsezkoa izango da emakumeek historian zehar eta gaur egun matematikari egindako ekarpenak ikasleei ezagutaraztea. Zentzu horri dagozkion jakintzak esplizituki sartu behar dira curriculum osoaren garapenean zehar.

Konpetentzia espezifikak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak osotasun bat eratzeko diseinaturik daude, zeregin konplexuak, indibidualak edo kolektiboak, esanguratsuak eta garrantzitsuak zenbait testuingurutan planteatzeri bidea emateko, eta, hartara, matematikaren funtsezko alderdiak garatu ahal izateko. Horretarako, ikasteko motibazioa bultzatzen duten metodologia didaktikoak konbinatzea gomendatzen da. Metodologia aktiboak bereziki egokiak dira konpetentzien ikuspegitik, ideia-trukearen bidez ezagutza eraikitzeke eta ikasgelan ikasteko jarduerak dinamizatzeko aukera ematen baitute. Ikaste-egoerak, problemen ebazpenak, proiektuen bidez ikasteak, simulazioekin eta tresna digitalekin lan egiteak, eta ikasleen beharren arabera konbinatutako beste metodologia batzuek diziplinartekotasuna ahalbidetzen dute eta gogoeta kritikoa eta sormena errazten dituzte.

Bestalde, metodologia aktiboetan oinarritutako konpetentzia-ikuspegi hori bultzatzeko, prestakuntza-ebaluazio jarraitua, kualitatiboa eta ez kuantifikagarri hutsa proposatzen da, elkarrizketan, ulermenean eta hobekuntzan oinarritua. Asmoa da ebaluazioaren bidez matematika ikasteko prozesuan eragin positiboa izatea, errorea ezagutza eraikitzeke prozesuaren parte gisa onartuz, atzerarikadura egokia eskainiz, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaren erregulazioan parte har dezaten ahalbidetuz, beren aurrerapenak ezagutzeko eta baloratzeko aukera emanez, hasierako ideiak zuzenduz eta behar diren neurri zuzentzaileak hartuz.

Matematikaren irakaskuntzari eta ikaskuntzari pertsona guztien inklusiotik heldu behar zaio, eta, horretarako, garapen pertsonala eta gizarteratzea bultzatuko dituen ikaskuntza esanguratsua lortzeko behar diren aukerak eta laguntzak bermatuko dira. Ildo horretan, motibazio egokia, testuinguruan jarritako zereginak, behar den denbora eta manipulazio-baliabideen eta baliabide digitalen erabilera matematika inklusiboa bultzatzen duten jardunbideak dira. Ekitatea ez da izango pertsona guztiei baliabide berberak eskaintzea, guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera izatea baizik.

Zereginak eta ikaskuntzak planteatzean, komeni da Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren printzipioak kontuan hartzea: hainbat irudikapen-modu ematea (zer ikasi), hainbat ekintza- eta adierazpen-modu ematea (nola ikasi) eta hainbat inplikazio-modu ematea (zergatik ikasi). Horrela, guztion inklusiorako eskubidearen alde egingo dugu.

Askotariko motibazioak eta interes sozialak, kulturalak, akademikoak eta teknologikoak kontuan harturik, etaparen azken mailako matematika jakintzagaia bi aukeratan konfiguratu da: A eta B. A matematika, lehentasunez, eguneroko bizitzako egoerekin zerikusia duten problemen ebazpenaren, ikerketaren eta analisi matematikoaren bidez garatzen da. B matematikak, berriz, prozedura aljebraikoetan sakontzen du, testuinguru matematikoak, zientifikoak eta sozialak txertatuz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Matematikaren berezkoak diren eguneroko bizitzako problemak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea, zenbait estrategia eta arazoibide aplikatuz, zenbait jardunbide arakatzeko eta soluzio posibleak lortzeko.

Problemak ebaztea matematika ikasteko funtsezko ardatza da, ezagutza matematikoa eraikitzeke prozesu nagusia da-eta. Bai eguneroko bizitzako problemak, zenbait testuingurutan, bai matematikaren esparruan proposatutako problemak, ezagutza berriaren katalizatzaileak dira, ebazten diren bitartean egiten diren gogoetek kontzeptuak eraikitzen eta horien arteko konexioak ezartzen laguntzen dute-eta.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar ikaslearen ezagutza matematikoa problemak ebaztearen testuinguruan aplikatzea. Horretarako, beharrezkoa da, alde batetik, interpretazio- eta modelizazio-tresnak ematea, hala nola diagramak, adierazpen sinbolikoak, grafikoak... eta, bestetik, problemak ebazteko teknikak eta estrategiak, hala nola analogia, zenbatespena, saiakuntza eta errorea, alderantzizko ebazpena, haztapena, problema sinpleagoetan deskonposatzea..., ikasleek aukera izan dezaten erabakiak hartzeko, erantzuna aurreratzeko, arriskuak hartzeko eta errorea prozesuaren parte gisa onartzeko.

Problemak ebazteko tresna digitalak eta konputazionalak erabiltzeak, alde batetik, zenbait ebazpen-estrategia praktikan jartzea eta egokiena edo egokienak hautatzea errazten du, eta, bestetik, jatorrizko problemaren esplizitu ez zeuden beste erlazio matematiko batzuk identifikatzeko eta arakatzeko aukera eskaintzen du.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD2, KPSII5, EK3, KAKK4.

2. Problema baten soluzioak analizatzea, teknika eta tresna desberdinak erabiliz eta lortutako erantzunak ebaluatuz, ikuspuntu logikotik haien baliozkotasuna eta egokitasuna eta ondorio globala egiaztatzea.

Problema baten ebazpenean lortutako soluzioen analisiak horien baliozkotasunari buruzko gogoeta kritikoa indartzen du, bai ikuspuntu hertsiki matematikotik, bai ikuspegi globaletik, jasangarritasunarekin, kontsumo arduratsuekin, ekitatearekin edo diskriminaziorik ezarekin erlacionatutako alderdiak baloraturaz. Arazoibide zientifikoa eta matematikoa izango dira baliozkotze hori egiteko tresna nagusiak, baina horretarako tresnak dira, halaber, irakurketa arretatsua, galdera egokiak egitea, planteatutako egoeraren arabera lortutako soluzioen egokitasuna egiaztatzekeko estrategiak hautatzea, norberaren aurrerapenen kontzientzia eta autoebaluazioa. Ebazpen-prozesu osoaren egiaztapen logiko-matematikoa eta lortutako emaitzen egiaztapenak galderak birformulatzea eta egoera berriak planteatzea ahalbidetzen dute.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakartza metakognizioaren berezko gogoeta-prozesuak, hala nola autoebaluazioa eta koebaluazioa, ikaskuntza autorregulatuaren estrategia errazak erabiltzea, tresna digitalak eraginkortasunez erabiltzea, bai software dinamikoko programak bai kalkulagailuak edo kalku-

lu-orriak, prozesua hitzez adieraztea edo azaltzea, eta soluzio edo estrategia analogikoak eta digitalak egiaztatzeko metodoen artean hautatzea, soluzioak eta horien irismena baliozkotzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da, STEM1, STEM2, KD2, KPSII4, EK1, EK3.

3. Problema eta aieru berriak modu autonomoan formulatzea, zenbait jakintza erlazionatuz eta irudikapen matematiko egokia emanez, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.

Problema berriak planteatzea eta galderak, aieruak eta hipotesiak formulatzea zeregin matematikoaren funtsezko osagaiak dira. Matematika egiteak deskubritzea dakar berekin, eta aierua da horretarako bide nagusietako bat. Erlazioak deskubritzeak eta patrioiak behatzeak problemak birformulatzeke eta arrazoi-bide inductiboan oinarritutako iragarpenak egiteko aukera ematen die ikasleei. Gero, erlazio horiek argudio matematikoekin azaldu eta justifikatu ahal izango dira, arrazoibide deduktiboa aplikatuz.

Konpetentzia honen garapenak pentsamendu sortzaileagoa, askotarikoagoa eta malguagoa susta dezake, eta problemak ebazteko trebetasun heuristikoa hobetu ditzake. Halaber, zubiak ezarriko dira egoera zehatzen eta abstrakzio matematikoen artean, ezagutza berriak aurretik eskuratutakoekin konektatuz.

Manipulazio-materialak, kalkulagailuak, morroi matematikoak, software dinamikoak eta simulagailu birtualak erabiltzeari esker, propietateak bistaratu, iragarpenak egin, aieruak formulatu eta ongi arrazoituta ondorioak lor daitezke.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD5, EK3.

4. Pentsamendu konputazionalaren printzipioak erabiltzea, datuak antolatuz, zatika deskonposatuz, patrioiak ezagutuz, eta algoritmoak interpretatuz, aldatuz, orokortuz eta sortuz, egoerak modelizatzeko eta problemak eraginkortasunez ebazteko.

Pentsamendu konputazionala zuzenean uztartzen da problemaren ebazpenarekin. Abstrakzioa erabiltzen du alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patrioiak ezagutzeko, eta zeregin sinpleagoetan deskonposatu eta algoritmoak definitzen ditu, sistema informatiko batek egikaritu dezakeen problemaren soluzio batera iristeko. Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eramateak informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen beharrekin lotzea dakar. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da eskolako matematika programazioarekin konektatzea, tresna hori zuzenean erlazionatuta baitago problemak testuinguru matematikoan eta ez-matematikokoan ebaztearekin.

Konpetentzia hau garatzeak, ikasgelako lanerako baliabide teknologikoak egoki hautatzearekin batera, berekin dakar eguneroko egoeren eredu abstraktuak sortzea, horiek modelizatu eta automatizatzea, eta sistema informatiko batek erraz interpretatzeko moduko lengoia baten kodetzea, horrek aukera eman gaitio ikasleari problemaren ebazpenari aplikatutako ezagutza matematikoan sakontzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5, EK3.

5. Elementu matematikoen arteko loturak ezagutu eta erabiltzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, matematikaren osotasun integratu gisako ikuspegi garatzeko.

Kontzeptu, prozedura eta ideia matematikoen arteko loturak eskuratutako ezagutzen ulermen sakonagoa eta iraunkorragoa eskaintzen du, ezagutzari berari buruzko ikuspegi zabalagoa ematen du, eta diziplinartekotasuna eta aplikagarritasuna ahalbidetzen ditu testuinguru matematikoan eta ez-matematikokoan. Matematika osotasun gisa ulertzeak berekin dakar haren barne-loturak aztertzea eta jakintza multzoen artean zein maila edo etapa desberdinetako matematikaren artean dauden erlazioei buruz gogoeta egitea.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar ideia matematiko berriak aurretiko ideiekin lotzea, problemen ebazpenean ideia matematikoen arteko loturak ezagutzea eta erabiltzea, eta osotasun integratu bat osatzeko ideia batzuk beste batzuen gainean nola eraikitzen diren ulertzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, KD2, KD3, KAKK1.

6. Beste jakintzagai batzuetan eta egoera errealetan inplikaturako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoeretan aplikatzeko.

Matematikak beste jakintzagai batzuekin, bizitza errealekin edo norberaren esperientziarekin duen lotura ezagutzeak eta erabiltzeak areagotu egiten du ikasleen ezagutza matematikoa. Garrantzitsua da ikasleek matematika hainbat testuingurutan (pertsonala, eskolakoa, soziala, naturala, zientifikoa, artistikoa eta humanistikoa) esperimintatzeko aukera izatea, matematikak giza garapenaren helburu handiak ebazteko egindako ekarpena baloratzuz, bai historikoki bai gaur egun.

Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura ez litzateke jakintza kontzeptualetara mugatu behar; aitzitik, prozeduretara eta jarreretara zabaldu beharko litzateke, ezagutza matematikoa beste jakintzagai eta testuinguru batzuetara transferitu eta aplikatu ahal izateko. Hala, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen arteko loturak ezartzea beste jakintzagai batzuekin eta bizitza errealekin, eta haiek aplikatzea problemak askotariko egoeretan ebazteko. Proposatzen da, alde batetik, beste ezagutza-arlo batzuekin batera lan egitea, hala nola zientziarekin, teknologiarekin, ingeniariarekin, humanitateekin, arteekin eta gizarte-zientziekin oro har, eta, bestetik, ingurunearekin lotura estuak ezartzea, egungo gizartearen behar eta erronkei erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD3, KD5, HK4, EK2, EK3, KAKK1.

7. Kontzeptu, prozedura, informazio eta emaitza matematikoak modu indibidual eta kolektiboan irudikatzea, zenbait teknologia erabiliz, ideiak bistartzeko eta prozesu matematikoak egituratzeko.

Matematikaren ideiak, kontzeptuak eta prozedurak irudikatzeko moduak bi alderdi barne hartzen ditu: emaitza edo kontzeptu baten irudikapena, adiera hertsian esanda, eta matematika praktikatzen den bitartean egiten diren prozesuen irudikapena.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar izaki matematikoak, hala nola krokisak, marrazkiak, diagramak, eskemak, taulak eta grafikoak, euskarri analogiko zein digitaletan irudikatzeko trebetasun multzo bat eskuratzea. Irudikapen matematiko horiek, gainera, modu esanguratsuan areagotzen dute bizitza errealeko problemak interpretatzeko eta ebazteko gaitasuna.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD1, KD2, KD5, KAKK4.

8. Kontzeptu, prozedura eta argudio matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea, ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia edo grafikoa eta terminologia matematiko egokia erabiliz, ideia matematikoei esanahia eta koherentzia emateko.

Komunikazioa eta ideia-trukea hezkuntza zientifiko eta matematikoaren funtsezko zati bat da. Komunikazioaren bidez, ideiak gogoetarako, hobetzeko, eztabaidatzeko eta zuzentzeko objektu bihurtzen dira. Ideiak, kontzeptuak eta prozesuak komunikatzeak ezagutza berriak sortzen, finkatzen, kooperatzen eta kolaboratzen laguntzen du.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar gertaerak, ideiak, kontzeptuak eta prozedurak idatziz, hitzez eta grafikoki adieraztea, egiazki eta zehatz-mehatz, terminologia matematiko egokia erabiliz, ideiei esanahia eta iraunkortasuna emateko argitara ematean. Konpetentzia espezifiko hau garatzeko arreta berezia eman beharko zaio ikasleen hizkuntza-trebakuntzari.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, STEM2, STEM4, KD2, KD3, EK3, KAKK3.

9. Trebetasun pertsonalak garatzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa onartzeko estrategiak praktikan jarritz eta ziurgabetasun-egoeren aurrean egokituz, helburuen lorpenean jarraitasuna hobetzeko eta matematika ikasten gehiago gozatzeko.

Problema edo erronka matematikoak ebaztea lan atsegina izan behar da. Matematikaren ikaskuntzaren barruan trebetasun emozionalek ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta hura ikasteko interesa sustatzen dituzte.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzera, jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka matematiko berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea, errorea ikasteko aukera dela eta askotariko emozioak modu pertsonalean hazteko egokiera direla ulertuz.

Errorea onartu egin behar da eta ikasgelako dinamikari txertatu behar zaio, eta ez beti zigortu; askotan prozesuak optimizatzeko palanka bat izaten da eta adierazteko erraztasunak eman behar dira ikaskuntzan aurrera egitea bultzatzeko. Testuinguru horretan, pertsona bakoitzaren erritmoak eta trebetasunak errespetatzen dituen ekosistema izan behar du ikasgelak, konpetentziak lortzea errazteari begira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KPSII1, KPSII4, KPSII5, EK2, EK3.

10. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak ezagutzuz eta errespetatuz, eta esleitutako rola dituzten talde heterogeneoetan proiektuetan aktiboki eta gogoetatsu parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeke, ongizate pertsonala eta taldearena sustatzeko eta harreman osasungarriak sortzeko.

Errespetua, tolerantzia, berdintasuna edo gatazken kudeaketa baketsua lantzeak, erronka matematikoak ebazten dituzten aldi berean, komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuz, laneko harreman eta ingurune osasungarriak sortzeko, ikasleei aukera ematen die autokonfiantza finkatzeko eta berdintasunezko bizikidetzaren egoerak normalizatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar besteekiko enpatia erakustea, beste pertsona batzuekin harreman positiboak ezartzea eta mantentzea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa trebatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Halaber, kontu indibidualekin eta/edo sozialekin loturik dauden estereotipoak eta alde aurreko ideiak apurtzea sustatu behar da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM3, KPSII1, KPSII3, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1 Problema matematikoak interpretatzea, emandako datuak antolatuz eta erlacionatuz eta formulatutako galderak ulertuz.	1.1. Problema matematikoen enuntziatuak interpretatzea, datu garrantzitsuenak antolatuz eta bereiziz, ezezagunak identifikatuz eta formulatutako galderak ulertuz.
1.2 Ikaste-egoerak eta problemak ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea (marrazkiak, taulak, eskemak, diagramak eta adierazpen sinboliko erraz batzuk...).	1.2. Ikaste-egoerak eta problemak ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak modu antolatu eta egituratuan egitea (taulak, diagramak, adierazpen sinbolikoak eta geometrikoak...).

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren maila
1.3 Hainbat tresna eta estrategia aplikatzea, problema bat ebazten lagunduko duten egokiak aurkitu arte.	1.3. Hainbat estrategia heuristikoa ebaluatzea eta aplikatzea, problema bat ebazteko egokienak aurkitu arte.
1.4 Problema baten soluzio matematiko arrazoitu posibleak lortzea, ezagutzak eta behar diren tresna teknologikoak mobilizatu.	1.4. Problema baten soluzio matematiko arrazoitu posibleak lortzea, ezagutzak eta behar diren tresna teknologikoak mobilizatu eta jarraitutako prozesua ebaluatuz.
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1 Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk analizatu.	2.1. Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa eta planteatzen diren testuinguruan duten koherentzia egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk, horien irismena eta ondorioak analizatu zenbait ikuspegitik.
2.2 Problema baten ebazpenak eskatzen dituen baldintzak adieraztea, planteatzen den testuingurua eta zenbaki mota eta eskura dauden ebazpen-tresnak kontuan hartuz.	2.2. Problema baten ebazpenak eskatzen dituen zehaztasun-maila eta baldintzak modu arrazoituan adieraztea, planteatzen den testuingurua eta zenbaki mota eta eskura dauden ebazpen-tresnak kontuan hartuz.
3. kompetentzia espezifikoa	
3.1 Aieru errazak modu gidatun ezagutzea, patroiak, propietateak eta erlazioak analizatu eta haien baliozkotasuna zenbait argudioren bidez arrazoitu.	3.1 Aieru errazak modu autonomoan ezagutzea eta formulatzea, patroiak, propietateak eta erlazioak analizatu eta haien baliozkotasuna argudio matematikoen bidez arrazoitu.
3.2 Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz.	3.2 Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz, eta, hala badagokio, hura orokortzeko aukera aztertzea.
3.3 Arrazoibide matematikoan oinarritutako aieruak ikertzea, bistaratzea, material manipulatioak eta digitalak, eta hizkuntza aljebraiko eta grafikoaren aukerak erabiliz.	3.3 Arrazoibide matematikoan oinarritutako aieruak ikertzea, bistaratzea, material manipulatioak eta digitalak, eta hizkuntza aljebraiko eta grafikoaren aukerak erabiliz.
4. kompetentzia espezifikoa	
4.1 Patroi errazak ezagutzea, datuak antolatzea eta problema bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, haren interpretazio konputazionala erraztu.	4.1 Patroiak ezagutzea, datuak antolatzea eta problema bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, haren interpretazio konputazionala erraztu.
4.2 Askotariko egoerak modelizatzea eta problemak modu eraginkorrean ebaztea, oinarritzko algoritmoak interpretatu, aldatu eta sortu.	4.2 Askotariko egoerak modelizatzea eta problemak modu eraginkorrean ebaztea, algoritmo konputazionalak interpretatu, aldatu eta sortu.
5. kompetentzia espezifikoa	
5.1 Ezagutzen (aritmekoak, aljebraikoak eta geometrikoak) arteko erlazioak eta esperientzia matematikoak —hala nola patroiak identifikatzea edo errealitaterako begirada matematikoa sustatzea— ezagutzea.	5.1 Ezagutzen (aritmekoak, aljebraikoak eta geometrikoak) arteko erlazioak eta esperientzia matematikoak —hala nola patroiak identifikatzea edo errealitaterako begirada matematikoa sustatzea— osotasun koherente gisa ezagutzea eta erabiltzea.
5.2 Matematikaren alorren (aljebra, geometria...) arteko loturak indartzea, material manipulagarriekin, morroi matematikoekin eta beste baliabide digital batzuekin interakzioan jardunez, eta problemak ebazteko oinarritzko estrategiak garatu.	5.2 Matematikaren alorren (aljebra, geometria...) arteko loturak indartzea, material manipulagarriekin, morroi matematikoekin eta beste baliabide digital batzuekin interakzioan jardunez, eta problemak ebazteko estrategia gero eta zailagoak garatu.
6. kompetentzia espezifikoa	
6.1 Mundu errealean eta matematikaren artean loturak ezartzea, ikerketa zientifiko eta matematikoaren berezko prozesuak erabiliz: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan.	6.1 Mundu errealean eta matematikaren artean loturak ezartzea, ikerketa zientifiko eta matematikoaren berezko prozesuak erabiliz: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea, hainbat testuingurutan.
6.2 Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura logikoak identifikatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratu eta testuinguruan kokatutako problemak ebaztu.	6.2 Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura logikoak identifikatzea eta interpretatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratu eta testuinguruan kokatutako problemak ebaztu.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren maila
6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpenak ezagutzea, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkei konponbidea ematen laguntzen dutenak.	6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpenak ezagutzea, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkei konponbidea ematen laguntzen dutenak.
7. kompetentzia espezifikoak	
7.1 Oinarrizko kontzeptuak, prozedurak eta emaitzak hitzeko tresnen, tresna grafikoaren edo sinbolikoaren bidez irudikatzea, ideiak bistartzeko eta prozesu matematikoak egituratzeko, komunikazioa eta informazio-transferentzia aberasteko duten erabilgarritasuna baloratuz.	7.1 Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak hitzeko tresnak, tresna grafikoak edo sinbolikoak erabilia irudikatzea, ideiak bistartzeko eta prozesu matematikoak egituratzeko, komunikazioa eta informazio-transferentzia aberasteko duten erabilgarritasuna baloratuz.
7.2 Irudikatze tresnak (hitzekoak, ikusizkoak, manipulatioak eta digitalak) erabiltzea, arazoibide-moduen arteko transferentzia bultzatuz.	7.2 Irudikatze tresnak (hitzekoak, ikusizkoak, manipulatioak eta digitalak) erabiltzea, arazoibide-moduen arteko transferentzia bultzatuz eta ongi argudiatutako ondorioetara iritsiz.
8. kompetentzia espezifikoak	
8.1 Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arazoibideak, prozedurak eta ondorioak argi eta garbi eta ordenatuta deskribatuz eta azalduz.	8.1 Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arazoibideak, prozedurak eta ondorioak argi eta garbi, ordenatuta eta argudiatuta deskribatuz, azalduz eta justifikatuz.
8.2 Eguneroko bizitzan hizkuntza matematikoaren presentzia eta horren erabilera eskatzen duten egoerak ezagutzea, modu egokian erabiliz.	8.2 Eguneroko bizitzan dagoen hizkuntza matematikoa ezagutzea, zehatz-mehatz eta zorrotz erabiliz.
9. kompetentzia espezifikoak	
9.1 Matematikarekiko norberaren emozioak identifikatzea, erroreak hobetzeko aukera gisa onartuz eta erronka berrien aurrean itxaropen positiboak sortuz.	9.1 Matematikarekiko norberaren emozioak identifikatzea eta kudeatzea, erroreak hobetzeko aukera gisa onartuz eta erronka berrien aurrean itxaropen positiboak sortuz.
9.2 Motibazio positiboa eta jarraitutasuna erakustea, kritika arrazoitua onartuz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.	9.2 Motibazio positiboa, jarraitutasuna eta erresilientzia erakustea, kritika arrazoitua onartuz eta aurretiko kontzepzioak birformulatuz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.
10. kompetentzia espezifikoak	
10.1 Talde heterogeneoetako lanean aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, eta edozein aurreiritzi edo diskriminazio desagerraraziz.	10.1 Talde heterogeneoetako lanean aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, modu kritikoa pentsatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, eta edozein aurreiritzi edo diskriminazio desagerraraziz.
10.2 Taldean garatu behar diren zereginen banaketan parte hartzea, inongo diskriminaziorik gabeko inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rola bere gain hartuz eta norberak taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz.	10.2 Taldean garatu behar diren zereginen banaketan parte hartzea, balio-ekarpena eginez, inongo diskriminaziorik gabeko inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rola bere gain hartuz eta norberak taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz.

Laugarren maila A matematika	Laugarren maila B matematika
1. kompetentzia espezifikoak	
1.1 Problema matematikoak hitzez eta/edo modu grafikoan birformulatzea, datuak, horien arteko erlazioak eta planteatutako galderak interpretatuz.	1.1 Problema matematikoak hitzez eta modu grafikoan birformulatzea, datuak, horien arteko erlazioak eta planteatutako galderak analizatuz.
1.2 Problema baten informaziorik garrantzitsuena matematikoki irudikatzea, hura ebazteko estrategiarik eraginkorrena hautatzea erraztuko duten tresna digital egokiak erabilia (taulak, diagramak, adierazpen sinbolikoak...).	1.2 Problema baten informaziorik garrantzitsuena matematikoki irudikatzea, hura ebazteko estrategiarik eraginkorrena hautatzea erraztuko duten tresna digital egokiak erabilia (taulak, diagramak, adierazpen sinbolikoak eta geometrikoak...).
1.3 Tresna eta estrategia landuak hautatzea, problemak ebazteko eraginkortasuna eta egokitasuna baloratuz.	1.3 Zenbait tresna eta estrategia landu analizatzea eta hautatzea problema bat ebazteko, haien efizientzia baloratuz.

Laugarren maila A matematika	Laugarren maila B matematika
1.4 Problema baten soluzio matematiko guztiak lortzea, behar diren ezagutzak mobilizatuz, gogoeta eginez eta jarraitutako prozesua ebaluatuz.	1.4 Problema baten soluzio matematiko guztiak lortzea, behar diren ezagutzak mobilizatuz, gogoeta eginez eta jarraitutako prozesua ebaluatuz.
2. kompetentzia espezifikoak	
2.1 Problema baten soluzio optimoak hautatzea, zuzentasun matematikoa zein haien inplikazioak zenbait ikuspegi sozialetatik baloratzu.	2.1 Problema baten soluzio optimoak zenbait ikuspegi matematiko eta sozialetatik justifikatzea.
2.2 Problema baten soluzio optimoak hautatzea, zuzentasun matematikoa zein haien inplikazioak zenbait ikuspegi sozialetatik baloratzu.	2.2 Problema baten soluzio optimoak zenbait ikuspegi matematiko eta sozialetatik justifikatzea.
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1 Aieruak modu gidatuan formulatzea, egiaztatzea eta ikertzea.	3.1 Aieruak modu autonomoan formulatzea, egiaztatzea eta ikertzea, patroiak eta erlazioak aztertuz.
3.2 Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz eta lortutako emaitzen arteko erlazioa behatuz.	3.2 Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz eta hura orokortzeko aukera aztertuz.
3.3 Formulaturako aieruen edo tesien baliozkotasuna arrazoitzea, argudio matematiko sendoekin oinarrituz eta tresna teknologikoak erabiliz.	3.3 Formulaturako aieruen edo tesien baliozkotasuna arrazoitzea, argudio matematiko sendoekin oinarrituz eta tresna teknologikoak erabiliz.
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1 Zenbait patroi ezagutzea (numerikoak, geometrikoak, aljebraikoak...), datuak antolatzea eta problema bat zati sinpleagoetan deskonposatzea, haren interpretazio eta tratamendu konputazionala erraztuz.	4.1 Zenbait patroi ezagutzea (numerikoak, geometrikoak, aljebraikoak...) eta egoera problematizatuen irudikapen konputazionala garatzea.
4.2 Esparru pertsonaleko, sozialeko eta lan-esparruko askotariko egoerak modelizatzea eta problemak modu eraginkorrean ebaztea, algoritmoak interpretatuz, aldatuz eta sortuz.	4.2 Esparru pertsonaleko, sozialeko, akademikoko eta lan-esparruko askotariko egoerak modelizatzea eta problemak modu eraginkorrean ebaztea, algoritmoak interpretatuz, aldatuz, orokortuz eta sortuz.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1 Ezagutza eta esperientzia matematikoen elkarrekin lotzea, osotasun koherentea osatuz.	5.1 Esperientzia eta ezagutza matematikoen arteko loturak analizatzea, osotasun koherentea osatuz.
5.2 Zenbait prozesu matematikoren arteko loturak analizatzea eta lantzea, alde aurreko esperientziak eta ezagutzak aplikatuz.	5.2 Zenbait prozesu matematikoren arteko loturak analizatzea eta lantzea, esperientziak eta ezagutzak aplikatuz.
5.3 Matematikaren alorren arteko erlazioak indartzea eta integratzea, maiz jardunez morroi matematikoen eta beste baliabide digital batzuekin interakzioan.	5.3 Matematikaren alorren (algebra, geometria...) arteko erlazioak indartzea eta integratzea, eskuarki jardunez morroi matematikoen eta beste baliabide digital batzuekin interakzioan.
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1 Mundu errealeko eta matematikaren artean loturak ezartzea eta aplikatzea, honako prozesu hauen bidez: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea.	6.1 Mundu errealeko eta matematikaren artean loturak ezartzea eta aplikatzea, ikerketa zientifiko eta matematikoren berezko prozesuak erabiliz: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea.
6.2 Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura koherenteak identifikatzea eta aplikatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratuz.	6.2 Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura koherenteak identifikatzea eta aplikatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratuz eta inplikaturako edukien analisi kritikoa eginez.
6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpenak, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkei konponbidea ematen laguntzen dutenak, ezagutzea eta horiei buruz gogoeta egitea.	6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpenak, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkei konponbidea ematen laguntzen dutenak, ezagutzea eta baloratzea.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Laugarren maila A matematika	Laugarren maila B matematika
7. kompetentzia espezifikoa	
7.1 Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak zenbait tresnarekin irudikatzea, informazioa partekatzeko duten erabilgarritasuna baloratuz.	7.1 Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak irudikatzea eta analizatzea, zenbait tresna analogiko zein digital erabiliz, ideiak bistaratuz eta prozesuak egituratuz.
7.2 Irudikatze tresnak (hitzekoak, ikusizkoak, manipulatioak eta digitalak) hautatzea eta erabiltzea, askotariko arazoibide-moduen arteko transferentzia bultzatuz eta mezuen zehaztasunari eta koherentziari bidea emanez.	7.2 Irudikatze zenbait modu (piktorikoa, grafikoa, hitzekoa edo sinbolikoa) hautatzea eta erabiltzea, askotariko gogoe- ta- eta arazoibide-moduen arteko transferentzia bultzatuz, komunikazio-prozesua aberastuz eta zorrotasuna eta zehaztasuna emanez.
8. kompetentzia espezifikoa	
8.1 Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arazoibideak, prozedurak eta ondorioak deskribatuz, azalduz eta justifikatuz.	8.1 Ideia, ondorio, aieru eta arazoibide matematikoak kohe- rentziaz, garbi eta terminologia egokiaren bidez komunika- tzea.
8.2 Eguneroko bizitzako esparru pertsonal eta sozialetan dagoen hizkuntza matematikoa ezagutzea, zehatz-mehatz, zorrotz eta koherentziaz erabiliz.	8.2 Eguneroko bizitzan eta hainbat testuingurutan behar den hizkuntza matematikoa ezagutzea eta zehatz-mehatz, zorrotz eta koherentziaz erabiltzea.
9. kompetentzia espezifikoa	
9.1 Norberaren emozioak kudeatzea eta autokontzeptu ma- tematikoa garatzea, erronka berrien aurrean itxaropen posi- tiboak sortuz.	9.1 Norberaren emozioak identifikatzea eta kudeatzea, auto- kontzientzia eta identitate-zentzua garatzea eta estres-itu- rriak ezagutzea desafio matematikoei aurre egitean.
9.2 Matematika ikasteko egoerei aurre egitean motibazio positiboa eta jarraitutasuna erakustea, kritika arazoitua onartuz.	9.2 Bizitzaren esparruetan matematika ikasteko egoerei aurre egitean jarraitutasuna eta motibazio positiboa mantentzea, kritika arazoitua onartuz.
9.3 Erroreak onartzea, hobetzeko aukera eta erronka berriei modu sortzailean aurre egiteko ahalbidea izan daitezkeela ezagutuz.	9.3 Erroreak onartzea, hobetzeko aukera eta zenbait espa- rrrutan (eguneroko bizitza eta akademikoa barne) erronka berriei aurre egiteko ahalbidea izan daitezkeela ezagutuz.
10. kompetentzia espezifikoa	
10.1 Talde heterogeneoetan lan egiten aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, modu kritiko eta sortzailean pentsatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, ingurune presentzialetan zein li- neakoetan.	10.1 Talde heterogeneoetan lan egiten aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, modu kritiko eta sortzailean pentsatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, ingurune presentzialetan eta linea- koetan ikasitako edukiak aplikatzea dakarten problemak ebazteko.
10.2 Taldeko zereginen banaketa kudeatzea, taldeari balioa emanez, inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rolaz eta taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz, ingurune presentzialetan zein lineakoetan.	10.2 Taldean garatu beharreko zeregin matematikoen bana- ketan parte hartzea, inklusioa praktikatuz, besteen pentsa- mendua entzunez, eta esleitutako rola arduraz eta taldeko gainerako pertsonenganako errespetuarekin bere gain hartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
A. Zentzu numerikoa	
1. Zenbaketa	Problema matematikoak eta eguneroko bizitzakoak ebaztean zenbatespenak eta kontaketa sistematikoak egiteko estrategiak (zuhaitz-diagramak, sarrera biko taulak eta zenbaketa esan- guratsuko beste estrategia batzuk).*
2. Kantitatea	Zenbaki arrunten erabilgarritasunak (ordenamendua, identifikazioa, kodeketa...) eguneroko egoeretan.* Zenbatespenak testuinguruak eskatutako zehaztasunarekin egiteko oinarrizko jarraibideak.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
	Zenbakien tamaina hainbat testuingurutan ezagutzeko eta konparatzeko jarraibideak. Berretzaile positiboa duten berreturak.*
	Problema matematikoak eta eguneroko bizitzakoak ebazteko testuinguruetan kantitateak behar den zehaztasunarekin adierazteko berretura eta erro errazak.
	Kantitate bat adierazteko formak (arrunta, osoa, hamartarra, zatikia, ehunekoa), egoera edo problema bakoitzean egokiena hautatuz, eta haien arteko erlazioa edo baliokidetasuna.*
3. Eragiketen zentzua	Idatzizko kalkuluko eta kalkulu mentaleko estrategiak, zenbaki arruntekin, osoekin, dezimalekin eta zatiki errazekin, zenbakizko zuzeneko irudikapenen laguntzarekin ere, testuinguruan kokatutako egoeretan.*
	Batuketaren eta kenketaren, biderketaren eta zatiketaren, eta ber bi egitearen eta erro karratua ateratzearen arteko alderantzizko erlazioak.
4. Erlazioak	Oinarrizko faktoreak, multiploak eta zatitzaileak. Zenbaki lehenetako faktORIZAZIOA, problemak askotariko estrategien eta/edo tresnen bidez ebazteko, kalkulagailuaren erabilera barne. Zatitzaile komunetako handiena eta multiplo komunetako txikiena.*
	Zatikien, dezimalen eta ehunekoen arteko erlazioak.*
	Zenbaki osoak, zatikiak, dezimalak, berreturak eta erro errazak: ulertzeko eta horiekin kantitateak adierazteko estrategiak.*
	Patroiak eta zenbakizko erregulartasunak (zenbaki osoak eta zatikiak) zenbait testuingurutan.
5. Arrazobide proportzionala	Arrazoiak, proportzioak eta proportzionaltasun-konstantea eguneroko testuinguruetan.*
	Eskalak planoak eta mapak irudikatzeko problemetan.*
	Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuna eguneroko bizitzako problemen ebazpenean.*
	Eguneroko testuinguruetan erabili ohi diren oinarrizko ehunekoak. Kalkulu mentala eta idatzizkoa.*
	Ehuneko gehikuntza eta murrizketekin eta proportzioekin erlazioatutako problemak zenbait testuingurutan ebazteko metodoak (prezioen jaitzierak eta igoerak, zergak, eskalak, dibisa-trukea eta abar).
6. Finantza-hezkuntza	Finantza-testuinguru pertsonaletan erabakiak hartzeko zenbakizko informazioa eta metodoak.*
	Familia-ekonomiako diru-sarrerak eta gastuak kudeatzeko metodoak.
B. Neurriaren zentzua	
1. Magnitudea	Objektu fisikoen eta matematikoen atributu neurgarriak eta horien arteko erlazioa.*
	Unitate eta eragiketa egokiak neurtzea eskatzen duten problemetan.*
2. Zenbatespena eta erlazioak	Zenbatespenak eta neurri errealak.*
	Hurbileko inguruneetan neurtzeko egoeretan behar den zehaztasun-maila.*
3. Neurketa	Forma lauen eta hiru dimentsioko luzera eta azalaren formulak lortzeko jarraibideak. Figura errazagoetako deskonposizioa.*
	Hiru dimentsioko oinarrizko objektuen irudikapen lauk. Perimetro, azalera eta bolumenen kalkulua.
C. Zentzu espaziala	
1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak	Askotariko forma geometrikoak eguneroko bizitzako objektuetan (arkitekturan, artean, modan, naturan...). Saillapen informala.*
	Forma geometriko lau eta hiru dimentsioko ohikoenak: propietateen edo ezaugarrien arabera deskribapena eta saillapena.*
	Kongruentzia eta antzekotasuna bezalako erlazio geometrikoak irudi lauetan. Talesen teorema. Pitagorasen teorema.*
	Hiru dimentsioko forma geometrikoak ohiko tresnekin eta tresna digitalekin eraikitze teknikak.

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Koordenatu kartesiarren bidezko irudikapen-sistemak eta lokalizazioa.*
	Bi eta hiru dimentsioko objektuen eta horien irudikapen grafikoaren arteko erlazioak.*
	Bi eta hiru dimentsioko formen irudikapen grafikoa, hiru dimentsioko gorputzen bistak eta garapena barne.
3. Mugimenduak eta transformazioak	Biraketak, translazioak eta simetriak askotariko egoeretan, tresna teknologikoak eta/edo manipulatioak erabiliz.*
4. Bistaratzeko, arrazoitze eta modelizazio geometrikoa	Erlazio geometrikoak: ikerketa hainbat zentzutan (numerikoa eta aljebraiko oinarrizkoa) eta hainbat alorretan (arteak, zientzia, eguneroko bizitza).*
	Problemen ebazpenean oinarrizko erlazio numeriko eta aljebraikoak irudikatzen diren eredu geometrikoak.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Formula eta gai orokorrak: jarraibide eta erregularitasun errazak behatzearen bidez lortzeko estrategiak. Marrazkien, software dinamikoaren eta manipulatuak diren laguntzarekin bistaratzeko estrategiak.*
2. Eredu matematikoa	Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko teknikak, irudikapen matematikoak (marrazkiak, eskemak, diagramak...) eta hizkuntza aljebraikoa (oinarrizko eredu linealak eta koadratikoak) erabiliz.*
3. Aldagaia	Aldagaiaren kontzeptua, haren izaera desberdinetan.*
4. Berdintza eta desberdintza	Eguneroko bizitzako egoeretan erlazio linealak eta oinarrizko erlazio koadratiko batzuk irudikatzen diren aljebra sinbolikoa.*
	Adierazpen aljebraiko errazak. Baliokidetasunak eta oinarrizko eragiketak problemen ebazpenean.*
	Oinarrizko ekuazio linealak eta koadratikoak: adierazpen aljebraikoen baliokidetasuna eta soluzio-bilaketa eguneroko bizitzako testuinguruetan.
5. Erlazioak eta funtzioak	Funtzioaren kontzeptu intuitiboa. Magnitudeen arteko erlazioa dakarten mundu errealeko hainbat egoera. Funtzio bat adierazteko zenbait forma.*
	Funtzio linealak. Irudikapena eta ezaugarri orokorrak. Zuzenaren maldaren interpretazioa.*
	Erlazio kuantitatibo linealak eguneroko bizitzako egoeretan: erlazioak modelizatzen dituzten funtzioen identifikazioa eta zehaztapena.*
	Funtzio baten informaziorik garrantzitsuenaren haren adierazpenetik abiatuta (hitzezkoa, tabularra, grafikoa eta aljebraikoa) lortzeko jarraibideak.*
6. Pentsamendu konputazionala	Prozesuak eta problemen ebazpena: deskonposizioa eta beste egoera batzuetarako transferentzia.*
	Oinarrizko algoritmoak interpretatzeko eta aldatzeko estrategiak.*
	Programak eta beste tresna batzuk erabiliz erreproduzitu eta analizatu daitezkeen galderen formulazioa.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Aldagai kualitatibo eta kuantitatiboen maiztasun-taulen eta grafiko estatistikoen analisia eta interpretazioa.*
	Aldagai bakar bat inplikatzeko duten eguneroko bizitzako eta esparru zientifikoko egoeretako datuen bilketa eta antolaketa.*
	Zenbait teknologiaren bidezko irudikapen grafikoak, datuak nola banatzen diren interpretatuz.
	Zentralizazio- eta sakabanatze-neurriak: interpretazioa eta kalkulua.
2. Iragarritasuna eta ziurgabetasuna	Fenomeno deterministak eta ausazkoak: definitzen dituzten ezaugarriak.*
	Probabilitatearen nozio intuitiboa. Ausazko fenomeno baten oinarrizko gertaerak eta lagin-espazioa.*
	Proporzioaren, maiztasun erlatiboaren eta probabilitatearen arteko erlazioa eta interakzioa.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
	Laplace-ren erregela eta probabilitateen esleipena esperimendu errazetan.* Ausazko fenomenoen portaera analizatzeko esperimendu errazak: plangintza eta simulazioa morroi digitalekin.
3. Inferentzia	Populazio baten intereseko ezaugarriak aurkitzea ahalbidetzen duten galdera egokiak.* Ikerketa estatistikoetan planteatutako galderei erantzutea ahalbidetzen duten datu garrantzitsuak.* Ikerketa baten emaitzetatik abiatuta oinarritutako ondorioak eta arrazoitutako iritziak.
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Matematika ikasteko jakin-mina, ekimena, jarraitasuna eta erresilientzia.* Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen autokontzientzia eta autorregulazioa.* Malgutasun kognitiboa eta, behar denean, estrategia-aldaketarekiko irekitasuna, ikaskuntzan errorea onartuz.*
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	Teknika kooperatiboak talde-lanean.* Gatazkak kudeatzeko jokabide enpatikoak eta estrategia operatiboak.* Erantzukizun pertsonala eta bestearen onarpena, ingurune presentzialetan eta lineakoetan taldearen helburuak lortzeari begira.*
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasun intrintsekoaren aurreko jarrera inklusiboak; balorazioa ingurune presentzialetan eta lineakoetan.* Matematikak giza ezagutzaren esparruen (zientifikoa, teknologikoa, artistikoa, humanistikoa, soziala) garapenera egin dion ekarpenaren gakoak, inklusioaren ikuspegitik.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila	
A. Zentzu numerikoa	
1. Zenbaketa	Kontaketa sistematikoak egiteko askotariko estrategiak. Konbinazio-zenbaketako tekniken hastapenak.* Zenbaketa zenbatetsiko teknikak zuzeneko zenbaketa ezinezkoa, neketsua edo nekeza den egoera errealean (manifestazio bateko parte-hartzaileak, animalien populazioen zenbaketa, kilo batean dauden tamaina txikiko unitateen kopurua...).
2. Kantitatea	Zenbakien tamaina hainbat testuingurutan ezagutzeko eta konparatzeko jarraibideak. Berretzaile positiboa eta negatiboa duten berreturak. Idazkera zientifikoa kalkulagailuaren laguntzarekin.* Berretzaile osoa duten berreturak eta erroak problemen ebazpenean.* Kantitateen zenbatespenak testuinguruak eskatzen duen zehaztasunarekin.* Zenbakizko zuzenean zenbaki osoak, dezimalak eta arrazionalak adierazteko jarraibideak.* 100 baino ehuneko handiagoak eta 1 baino txikiagoak.*
3. Eragiketen zentzua	Askotariko kalkulu-estategiak zenbait zenbaki motarekin, berretzaile positiboa eta negatiboa duten berreturak barne, problemen ebazpenean.* Eragiketak idazkera zientifikoa dauden zenbakiekin, zenbait testuingurutan, kalkulagailuaren edo morroi matematikoen laguntzarekin.
4. Erlazioak	Zenbaki arrazionalak eta dezimalak. Erlazioak eta zenbakizko zuzeneko adierazpena.* Zenbaki-sekuentzien patroiak eta erregularitasunak problemen ebazpenaren testuinguruan.* Segidak. Progresio aritmetikoak eta geometrikoak.
5. Arrazoibide proportzionala	Eguneroko bizitzako problemei aplikatutako ehuneko gehikuntzak eta murrizketak eta aldakuntza-indizeak.*
6. Finantza-hezkuntza	Zenbakizko informazioa finantza-testuinguru pertsonal, sozial eta administratiboetan.* Ongizate pertsonalerako, gizarte-garapen arduratsurako eta aurrerapen ekonomiko iraunkorre-rako aurrezkiak eta kapitalizazioa.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila	
B. Neurriaren zentzua	
1. Magnitudea	Luzera, azalera eta bolumena neurtzeko unitateak eta horien arteko erlazioak.*
2. Zenbatespena eta erlazioak	Zenbatespenak eta neurri errealeak: problemen ebazpenean egokiena hautatzeko jarraibideak.* Ingurune akademikoan neurtzeko egoeretan behar den zehaztasun-maila.
3. Neurketa	Forma lauen eta hiru dimentsiokoen luzerak, azalerak eta bolumenak lortzeko formulak: dedukzioa.* Finkatutako propietateak dituzten —hala nola aldean luzerak edo angeluen neurriak— objektu geometrikoen marrazketa.
C. Zentzu espaziala	
1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak	Hiru dimentsioko forma geometrikoak: poliedroak eta biraketa-gorputzak. Propietateen edo ezaugarrien araberako deskribapena eta sailkapena.* Talesen teorema eta Pitagorasen teorema problemen ebazpenean.* Forma geometrikoak ohiko tresnekin eta tresna digitalekin —geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua eta abar— eraikitze teknika.
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Mundu fisikoko objektuen arteko eta entitate matematikoen arteko erlazio espazialak lokalizatzeko eta deskribatzeko jarraibideak: koordenatu geometrikoak eta beste irudikapen-sistema batzuk.* Hiru dimentsioko gorputzen bistak eta garapena programa dinamikoen eta manipulatuzaile birtualen bidez.
3. Mugimenduak eta transformazioak	Azalera eta/edo perimetroa kontserbatzen duten transformazioak, tresna manipulatuak (papaera, geoplanoa...) eta digitalak erabiliz.*
4. Bistaratzeko, arrazoitze eta modelizazio geometrikoa	Erlazio geometrikoak: ikerketa hainbat zentzutuan (numerikoa, aljebraikoa, analitiko oinarrizkoak) eta hainbat alorretan (arte, zientzia, eguneroko bizitza).* Problemen ebazpenean erlazio numeriko, aljebraiko eta analitiko oinarrizkoak irudikatze eta azaltzeko eredu geometrikoak (baita morroi matematikoeekin ere).*
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Zenbaki-sekuentzietan erregularatasunak, jarraibideak eta erlazioak ikertzeko eta horiek hizkuntza aljebraikoaren bidez orokortzeko metodoak.*
2. Eredu matematikoa	Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko teknikak, irudikapen matematikoa eta hizkuntza aljebraikoa (oinarrizko eredu linealak, koadratikoak eta esponentzialak) erabiliz.* Modelizatu ondoren, egoera bati buruzko ondorio arrazoizkoak deduzitzeko jarraibideak.
3. Aldagaia	Aldagaiaren kontzeptuan sakontzea, haren izaera desberdinetan.*
4. Berdintza eta desberdintza	Erlazio linealak eta koadratikoak hainbat testuingurutan irudikatze aljebra sinbolikoa.* Ekuazio linealak eta koadratikoak: adierazpen aljebraikoen baliokidetasuna eta soluzio-bilaketa hainbat testuingurutan.*
5. Erlazioak eta funtzioak	Funtzio linealak eta ez-linealak: propietateen irudikapena, identifikazioa eta konparazioa, tauletatik, grafikoetatik edo adierazpen aljebraikoetatik abiatuta.* Erlazio kuantitatiboak eguneroko bizitzako egoeretan: erlazioak modelizatzen dituzten funtzio motaren edo moten identifikazioa eta zehaztapena.* Erlazio matematikoa irudikatze eta azaltzeko eta informaziorik garrantzitsuena deduzitzeko aljebra sinbolikoa.
6. Pentsamendu konputazionala	Prozesuak eta problemen ebazpena: deskonposizioa eta beste egoera batzuetarako orokortzea.* Algoritmoak interpretatzeko eta aldatzeko estrategiak.* Ebazteko eta prozesuak hobetzeko programak eta beste tresna batzuk erabiliz analiza daitezkeen galderen formulazioa.*

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila	
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	<p>Aldagai kualitatibo eta kuantitatibo diskretu eta jarraituen taulak eta grafiko estatistikoak problemen ebazpenaren testuinguruetan.*</p> <p>Eguneroko bizitzako eta esparru zientifikoko datuak eta grafikoak interpretatuz ondorio logikoak lortzeko estrategiak.*</p> <p>Zentralizazio- eta sakabanatze-neurriak: interpretazioa eta kalkulua.*</p> <p>Bi datu multzoren konparazioa, horien zentralizazio- eta sakabanatze-neurrien arabera.</p> <p>Planetaren ingurumen-egoeran, pobrezian eta inklusioan eragina duten eguneroko bizitzako alderdiekin erlazionatutako aldagaiak.</p>
2. Iragargarrtasuna eta ziurgabetasuna	<p>Fenomeno deterministak eta ausazkoak: analisia.*</p> <p>Ausazko fenomeno baten oinarrizko gertaerak eta lagin-espazioa.*</p> <p>Probabilitatea ausazko esperimenteren ziurgabetasunarekin lotutako neurri gisa: analisia.*</p> <p>Proporzioaren, maiztasun erlatiboaren eta probabilitatearen arteko erlazioa eta interakzioa.*</p> <p>Laplace-ren erregela eta probabilitatea.*</p> <p>Ausazko fenomenoaren portaera analizatzeko esperientziak (baita simulagailu digitalekin ere).</p>
3. Inferentzia	<p>Populazio bat definitzen duten ezaugarriak ezagutzea eta ondorio oinarrituak lortzea ahalbidetzen duten galdera egokiak.</p> <p>Ikerketa estatistikoetan planteatutako galderari erantzutea ahalbidetzen duten datu sozialki garrantzitsuak.*</p> <p>Ikerketa baten emaitzetatik abiatuta oinarritutako ondorioak eta arrazoitutako iritziak.*</p>
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	<p>Matematika ikasteko jakin-mina, ekimena, jarraitutasuna, erresilientzia eta sormena.*</p> <p>Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen autokontzientzia eta autorregulazioa.*</p> <p>Malgutasun kognitiboa eta, behar denean, estrategia-aldaketarekiko irekitasuna, errorea ikasteko aukera bihurtuz.*</p>
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	<p>Teknika kooperatiboak talde-lanean.*</p> <p>Gatazkak kudeatzeko jokabide enpatikoak eta estrategia sortzaileak.</p> <p>Erantzukizun pertsonala eta bestearen onarpena, ikasgelan egoera problematikoak kudeatzean.*</p>
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	<p>Jarrera inklusiboak eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasun intrintsekoa; sustapena zenbait inguruetan.*</p> <p>Matematikak giza ezagutzaren esparruen (zientifikoa, teknologikoa, artistikoa, humanistikoa, soziala) garapenera egin dion ekarpenaren gakoak, inklusioaren ikuspegitik.*</p>

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. A matematika	
A. Zentzu numerikoa	
1. Zenbaketa	<p>Kontaketa sistematikoak egin behar diren eguneroko bizitzako egoerak eta problemak. Zenbaketa esanguratsuko estrategiak, zuhaitz-diagramak, sarrera biko taulak eta konbinatoria-teknikak.*</p>
2. Kantitatea	<p>Hainbat testuingurutan zenbatespenak egiteko teknikak, egindako errorea analizatuz.*</p> <p>Zenbaki errealak eta kantitateen adierazpena eguneroko bizitzako testuinguruetan, behar den zehaztasunarekin.*</p> <p>Zenbakien tamaina eguneroko bizitzako testuinguruetan. Interpretazio kritikoa.</p> <p>Zenbait beharri erantzuteko (zenbatzea, neurtzea, konparatzea eta abar) balio duen zenbaki-multzoaren identifikazioa.*</p>

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. A matematika	
3. Eragiketen zentzua	Eragiketa aritmetikoen propietateak kalkuluak zenbaki errealekin modu efizientean egitean, baita kalkulagailuarekin ere, estrategiak egoera bakoitzera egokituz.* Zenbaki irrazional esanguratsuak. Eguneroko bizitzako egoeretan ezagutzeko estrategiak.
4. Erlazioak	Zenbaki errealek esku hartzen duten patroiak eta zenbakizko erregularutasunak. Identifikazioa eta analisia.* Ordena zenbakizko zuzenean. Tarteak
5. Arrazoibide proporzionala	Zuzeneko zein alderantzizko proportzioekin, eskalekin eta indizeekin erlazonatutako problemak ebazteko metodoak.*
6. Finantza-hezkuntza	Finantza-testuinguruetan ehunekoen gehikuntza eta murrizketekin, interesekin eta tasekin erlazonatutako problemak ebazteko metodoak.*
B. Neurriaren zentzua	
1. Neurketa	Malda eta angelu batekiko erlazioa egoera errazetan interpretatzeko eta deduzitzeko jarraibideak.*
2. Aldaketa	Batez besteko aldakuntza-tasa eta bere esanahi grafikoa eguneroko bizitzako testuinguruetan, tresna teknologikoen laguntzarekin.*
C. Zentzu espaziala	
1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak	Eguneroko bizitzako objektuen propietate geometrikoak: geometria dinamikoko programekin ikertzeko estrategiak.* Antzeko gorputzen luzera, azalera eta bolumenaren arteko antzekotasun-arrazoia, geometria dinamikoko softwarearen laguntzarekin.*
2. Mugimenduak eta transformazioak	Oinarrizko transformazio geometrikoak (simetriak, biraketak, translazioak eta eskalak) eguneroko bizitzan: tresna teknologikoen —geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua eta abar— ikertzeko estrategiak.
3. Bistaratze, arrazoitze eta modelizazio geometrikoa	Erlazio numerikoak eta aljebraikoak askotariko egoeretan irudikatzeko eta azaltzeko eredu geometrikoak.* Propietate geometrikoei buruzko aieruak, geometria dinamikoko programak edo beste tresna batzuk erabiliz, zenbait testuingurutan.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Kasu errazetan hainbat egitura eratzeko erregela.*
2. Eredu matematikoa	Eguneroko bizitzako problemak, irudikapen matematikoetan eta hizkuntza aljebraikoan oinarrituta, oinarrizko zenbait funtzio mota erabiliz.* Eguneroko bizitzako egoera bati buruzko ondorio arrazoizkoak, hura modelizatu ondoren.*
3. Aldagaia	Aldagaien zenbait erabilera (ezezaguna, zenbaki orokortua, erlazio funtzionala...), adierazpen sinbolikoa problemaren testuinguruarekin lotuz.* Erlazio linealen eta koadratikoen irudikapen grafikoa, haien ezaugarriak interpretatuz.*
4. Berdintza eta desberdintza	Aljebra sinbolikoa eta erlazio linealen eta koadratikoen irudikapena eguneroko bizitzako egoeretan.* Ekuazio linealen eta koadratikoen soluzioak eguneroko bizitzako egoeretan.* Ekuazioak, ekuazio-sistemak eta inekuazioak: interpretazioa eta ebazpena, baita morroi eta simulagailu birtualen bidez ere.*
5. Erlazioak eta funtzioak	Irudikapen-modurik egokienaren aplikazioa (enuntziatua, taula, grafikoa edo formula) eguneroko bizitzako problemen ebazpenean.* Oinarrizko funtzioen irudikapena eta horien propietateen interpretazioa (definizio-eremua, gorakorra, behekorra, maximoak, minimoak...) eguneroko bizitzako egoeretan.* Eguneroko bizitzako egoeretan erlazio kuantitatiboak interpretatzeko eta erlazioak modelizatzen dituen funtzio mota hautatzeko estrategiak.

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. A matematika	
6. Pentsamendu konputazionala	Prozesuak faseetan deskonposatuz problemak ebazteko eta antzeko beste egoera batzuetara orokortzeko eta transferitzeko estrategiak.*
	Algoritmoak interpretatzeko, aldatzeko eta sortzeko estrategiak.*
	Prozesuen hobekuntza, programa eta tresna egokiak erabiliz, problemen ebazpenean.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Bi aldagai kualitatiboko, kuantitatibo diskretuko eta kuantitatibo jarraituko taulak eta grafiko estatistikoak.*
	Bat eta bi aldagai kualitatiboko, kuantitatibo diskretuko eta kuantitatibo jarraituko taulen eta grafiko estatistikoaren analisia eta interpretazioa testuinguru errealean.
	Lokalizazio- eta sakabanatze-neurriak: aldakortasunaren interpretazioa eta analisia.
	Bi aldagai inplikatzeko dituen eguneroko bizitzako egoera bateko datuen bilketa eta antolaketa.*
	Baliabide teknologikoen bidezko irudikapen grafikoak (aplikazio informatikoak eta mugikorretarako aplikazioak, kalkulu-orriak, kalkulagailuak...).*
	Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko bereizketa: bi aldagairen arteko erlazioa eta erregresio lineala.*
	Komunikabideetan eta sare sozialetan erroreak eta informazio faltsuak detektatzeko estrategiak.
2. Iragargarrtasuna eta ziurgabetasuna	Zenbait testuingurutan erabaki oinarrituak hartzeko probabilitateen kalkulua.*
	Laplace-ren erregela eta kontaketa-teknikak esperimendu simple eta konposatueta.*
	Ausazko fenomenoaren portaera aztertzeko esperimendu sinpleak eta konposatuak.*
	Zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-eta taulak ausazko esperientzia konposatueta.*
3. Inferentzia	Azterketa estatistikoak eta horien etapak (hipotesia, lagina, esperimendua, datu-bilketa, antolaketa, irudikapena, kalkulua eta interpretazioa).*
	Datu garrantzitsuak, laginaren adierazgarritasuna eta ondorioen irismena ikerketa estatistikoetan.*
	Bi aldagairen arteko erlazioa, erregresio lineal baten pertinentzia grafikoki baloratuz tresna teknologikoekin.*
	Ikerketa estatistikoetan datu garrantzitsuak tresna digitalen bidez irudikatze eta interpretatzeko estrategiak.
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Matematika ikasteko jakin-mina, ekimena, jarraitutasuna, erresilientzia eta sormena.*
	Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen kudeaketa: autokontzientzia, autorregulazioa eta jarraitutasuna.*
	Malgutasun kognitiboa, behar denean estrategia-aldaketa bilatuz eta errorea ikasteko aukera bihurtuz.*
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	Talde-lana optimizatzen erantzukizunak hartzeko eta aktiboki parte hartzeko estrategiak.*
	Gatazken kudeaketan laguntza eskatzeko eta eskaintzeko prestasuna.*
	Egoera problematikoen gakoei eta antzeko egoeretan erabaki egokiak hartzeari buruzko gogoeta.*
	Taldearen helburuen lorpenean erantzukizunak hartzeko estrategiak.*
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Jarrera inklusiboak eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasun intrintsekoaren onarpena.*
	Matematikak giza ezagutzaren garapenera egindako ekarpena.*

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. B matematika**A. Zentzu numerikoa**

1. Zenbaketa	Kontaketa sistematikoak egin behar diren eguneroko bizitzako problemen ebazpenari aplikatutako oinarrizko konbinatoria.*
--------------	--

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. B matematika	
2. Kantitatea	Hainbat testuingurutan zenbatespenak egiteko teknikak, egindako errorea analizatuz.* Zenbaki errealak. Ordenamendua zenbakizko zuzenean. Tarteak.* Kantitateak hainbat testuingurutan behar den zehaztasunarekin adierazteko zenbaki errealak.* Zenbaki erreal baten bidez adierazitako kantitate beraren zenbait irudikapen, egoera edo problema bakoitzerako egokiena aukeratuz.
3. Eragiketen zentzua	Eragiketa aritmetikoen propietateak kalkuluak zenbaki errealekin modu efizientean egiteko, baita kalkulagailuarekin ere, estrategiak egoera bakoitzera egokituz.*
4. Erlazioak	Zenbaki errealak: esanahiaren garapena eta kantitateen irudikapena.*
5. Arrazobide proporzionala	Zuzeneko zein alderantzizko proportzioekin, eskalekin eta indizeekin erlazioatutako problemak ebazteko metodoak.
B. Neurriaren zentzua	
1. Neurketa	Angelu zorrotz baten arrazoi trigonometrikoak eta problemen ebazpenari aplikatutako funtsezko erlazioak.*
2. Aldaketa	Batez besteko aldakuntza-tasa hainbat testuinguruetan, tresna teknologikoen laguntzarekin.* Aldiuneko aldakuntza-tasa: hurbilketa intuitiboa tartearen luzera murriztuz.
C. Zentzu espaziala	
1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak	Eguneroko bizitzako eta testuinguru akademikoetako objektuen propietate geometrikoak.* Antzeko gorputzen luzera, azalera eta bolumenaren arteko antzekotasun-arrazoia, geometria dinamikoko softwarearen laguntzarekin.*
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Bi dimentsioko irudi geometrikoak: irudikapena eta propietateen analisisa, geometria analitikoaren erabiliz.* Zuzen baten zenbait adierazpen aljebraiko. Ebatzi beharreko egoeraren arabera ekuazioerik egokiena hautatzeko estrategiak.*
3. Mugimenduak eta transformazioak	Oinarrizko transformazio geometrikoak: tresna teknologikoekin interpretatzeko eta aplikatzeko estrategiak, geometria analitikoaren erabileraren bidez, geometriaren azterketa funtzioekin lotuz.*
4. Bistaratze, arrazoitze eta modelizazio geometrikoa	Erlazio numerikoak eta aljebraikoak askotariko egoeretan irudikatze eta azaltzeko eredu geometrikoak.* Elementu geometrikoak eta tresna teknologikoen bidezko modelizazioa.* Propietate geometrikoen buruzko aieruak egiteko eta egiaztatze estrategiak, geometria dinamikoko programak edo beste tresna batzuk erabiliz, zenbait testuingurutan.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Kasu errazetan hainbat egitura eta gai orokorra eratzeko erregela.*
2. Eredu matematikoa	Testuinguruan kokatutako problemak, irudikapen matematikoetan eta hizkuntza aljebraikoan oinarrituta, zenbait funtzio mota erabiliz.* Testuinguruan kokatutako egoera bati buruzko ondorio arrazoizkoak, hura modelizatu ondoren.*
3. Aldagaia	Aldagaien zenbait erabilera (ezezaguna, zenbaki orokortua, erlazio funtzionala...) hainbat testuingurutan.* Erlazio linealen eta koadratikoen irudikapen grafikoa, haien ezaugarriak interpretatuz.*
4. Berdintza eta desberdintza	Algebra sinbolikoa eta erlazio linealen eta koadratikoen irudikapena hainbat testuingurutan.* Ekuazio linealen eta koadratikoen soluzioak hainbat testuingurutan, adierazpen aljebraikoen forma baliokideen bidez.* Ekuazioak, ekuazio-sistemak eta inekuazioak: interpretazioa eta ebazpena, morroi eta simulagailu birtualen bidez.*

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila. B matematika	
5. Erlazioak eta funtzioak	Funtzioa magnitudeen arteko erlazioaren aurkezpen gisa.*
	Irudikapenak (enuntziatua, taula, grafikoa edo formula) zenbait testuingurutako problemen ebazpenean.*
	Funtzioak eta propietateak (definizio-eremua, gorakorra, beherakorra, maximoak, minimoak...) zenbait testuingurutan.*
	Erlazio kuantitatiboak zenbait testuingurutan, eta erlazioak modelizatzen dituzten funtzio motak.*
6. Pentsamendu konputazionala	Prozesuak faseetan deskonposatuz problemak ebazteko eta antzeko beste egoera batzuetara orokortzeko eta transferitzeko estrategiak.*
	Algoritmoak interpretatzeko, aldatzeko eta sortzeko estrategiak.*
	Prozesuen hobekuntza, programa eta tresna egokiak erabiliz, problemen ebazpenean.*
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Bi aldagai kualitatiboko, kuantitatibo diskretuko eta kuantitatibo jarraituko taulak eta grafiko estatistikoak.*
	Bat eta bi aldagai kualitatiboko, kuantitatibo diskretuko eta kuantitatibo jarraituko taulen eta grafiko estatistikoaren analisia eta interpretazioa testuinguru errealean.
	Lokalizazio- eta sakabanatze-neurriak: aldakortasunaren interpretazioa eta analisia.
	Bi aldagai inplikatzeko dituen eguneroko bizitzako egoera bateko datuen bilketa eta antolaketa.*
	Baliabide digitalen bidezko irudikapen grafikoak (aplikazio informatikoak eta mugikorretarako aplikazioak, kalkulu-orriak, kalkulagailuak...), informazio estatistikoa interpretatuz eta ondorio arazoituak lortuz.*
	Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko bereizketa: bi aldagaien arteko erlazioa eta erregresio lineala.*
	Komunikabideetan eta sare sozialetan erroreak eta informazio faltsuak detektatzeko estrategiak.
2. Iragargarritasuna eta ziurgabetasuna	Zenbait testuingurutan erabaki oinarrituak hartzeko probabilitateen kalkulua.*
	Laplace-ren erregela eta kontaketa-teknikak esperimendu simple eta konposatuatan.*
	Ausazko fenomenoaren portaera aztertzeko esperimendu sinpleak eta konposatuak.*
	Zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-eta taulak ausazko esperientzia konposatuatan.*
3. Inferentzia	Azterketa estatistikoak eta horien etapak (hipotesia, lagina, esperimendua, datu-bilketa, antolaketa, irudikapena, kalkulua eta interpretazioa).*
	Datu garrantzitsuak, laginaren adierazgarritasuna eta ondorioen irismena ikerketa estatistikoetan.*
	Bi aldagaien arteko erlazioa, erregresio lineal baten pertinentzia grafikoki baloratuz tresna teknologikoekin.*
	Ikerketa estatistikoetan datu garrantzitsuak tresna digitalen bidez irudikatuz eta interpretatzeko estrategiak.
F. Zentzu sozioafektiboa	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Matematika ikasteko jakin-mina, ekimena, jarraitutasuna, erresilientzia eta sormena.*
	Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak: autokontzientzia, autorregulazioa eta jarraitutasuna.*
	Malgutasun kognitiboa, behar denean estrategia-aldaketa bilatuz eta errorea ikasteko aukera bihurtuz.*
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	Talde-lana optimizatzen erantzukizunak hartzeko eta aktiboki parte hartzeko estrategiak.*
	Gatazketan laguntza eskatzeko eta eskaintzeko prestasuna.*
	Egoera problematikoen gakoak eta antzeko egoeretan erabaki egokiak hartzeari buruzko gogoeta.*
	Taldearen helburuen lorpenean erantzukizunak hartzeko estrategiak.*
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasun intrintsekoa hartzeko jarrera inklusiboak.*
	Matematikak giza ezagutzaren garapenera egindako ekarpena.*

MUSIKA

Musikak paper garrantzitsua izan du —antzinatik datorrena eta gaur egun ere mantentzen dena— beste arte eta kultura batzuekin duen loturan. Horregatik, haren funtzioak ezagutzeak, hainbat espresio artistikorekin —hala nola dantzarekin, antzerkiarekin eta literaturarekin— konbinatuz komunikatzeak eta adierazteak ikasleen adierazpen- eta komunikazio-gaitasunak indartuko ditu. Gainera, teknologia berrien presentziak erabat aldatu du soinuak sortzeko, erregistratzeko eta transmititzeko modua, horiek manipulatzeak aukerak areagotuz, baita horiek entzuteko eta kontsumitzeko modua ere. Sormen-prozesua tresna digitalekin eta teknologiarekin lotzea beharrezkoa da egungo gizartearen abiadurak eta konplexutasunak bultzatutako mundu globalean txertatze ekosoziala errazteko etorkizunean. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek musika produzitzeko eta tratatzeko baliabideen ezagutzatik abiatuta azterketa kritikoa egiteko prestakuntza jasotzea.

Musikak curriculumeko funtsezko kompetentziak garatzen eta ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du oinarrizko hezkuntzan. Era berean, aktiboki esku hartzen du haien garapen kognitiboan, emozionalean, psikomotorrean eta sozialean. Alderdi kognitiboan, musikak arreta, pertzepzioa, abstrakzioa, gogoeta, memoria, analisisa, musika-hizkuntzaren berezko elementuak eta produkzio musikalen testuingurua garatzen ditu, sorkuntza eta entzute aktiboaren bidez. Alderdi psikomotorra ahozko praktikaren, praktika instrumentalaren, psikomotorraren, mugimenduaren eta dantzaren bidez lantzen da. Osagai emozionala sentsibilitate emozionala, autoezagutza, autoestimua, enpatia eta kultura- eta genero-aniztasunarekiko errespetua garatzeko prozesuaren berezko zatia da. Garapen sozialari dagokionez, musikak topagune bat eskaintzen du, eta horren inguruan ikasleek jarduera kooperatiboetan parte hartzen dute. Jarduera horiek taldearen koordinazioa, komunikazioa eta gizarte-kohesioa dakarte. Musika jakintzagaiak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren postulatuarekin bat etorritik, bizimodu jasangarriak, giza eskubideak, emakumeen eta gizonen berdintasuna, etengabeko ikaskuntza, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura-aniztasunaren balorazioa sustatzen ditu.

“Musika” arloa “Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoarekin” eta “Adierazpen Artistikoarekin” lotzea, a priori, zuzenagoa da, arte-arloko bi kompetentzia direlako. Hala ere, begi-bistakoak dira curriculumeko gainerako jakintzagaiekiko loturak, hala nola erlazio erritmiko eta estrukturalen azpian dagoen erlazio matematikoa; soinuaren ezaugarri fisikoak; hizkuntzaren eta musikaren arteko erlazioa; testuaren eta hizkuntzaren eta melodien arteko sinbiosia; historia ezagutzeko beharra, adierazpen musikalen zergatia ulertzeko; teknologia digitalen erabilera harrerarako eta sorkuntzarako; espiritu ekintzaileria garatzea proiektuen plangintzan eta kudeaketan; gorputzaren aukerak eta horiek gorputz-adierazpenarekin duten harremana ezagutzea, eta abar.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika jakintzagaia Lehen Hezkuntzako Musika Hezkuntzaren arloaren kompetentzia-profiletik eraikitzen da. Musikako curriculumak bost kompetentzia espezifiko garatzen ditu, honako osagai hauetatik abiatuta: Kultura Nortasuna, Kultura Harrera, Autoadierazpena eta Produkzio Artistikoa/Kulturala, euren arteko erlazioan eta jakintzagaia bizipen-izaeran oinarrituta; batzuk ezin dira ulertu besteak gabe. Kompetentzia espezifikoaren eskuratze-maila ebaluazio-irizpideen bidez zehazten da.

Curriculumak bi zatitan egituratzen da: lehenengoan DBHko 1. mailatik 3.era bitartekoak sartzen dira, eta bigarrenengoan DBHko 4. mailarako dago berariaz garatuta. Horietako bakoitzerako oinarrizko jakintza batzuk diseinatu dira, hiru multzotan egituratuta, eta prozedurazko lan baten bidez lortu nahi diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzte, ezagutza teorikoak musika-hizkuntzara ohitu eta bertan murgildu ondoren barnera daitezten.

- *Musika entzutea eta hautematea*: nortasun kulturalaren kontzeptua garatzen du. Ikus-entzunezko hainbat proposamen azalduz, artearen aukerak hurbiltzea, inspiratzea eta ezagutzea errazten da, sentimenduak eta emozioak adierazteko bitarteko gisa.
- *Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa*: musika-hizkuntzaren funtsezko kontzeptuak ikastea bilatzen du. Talde-proiektuetan oinarritutako lanari esker, tolerantzia, kolaborazioa eta errespetua bezalako jarreraren garrantzia ezagutu ahal izango dute. Era berean, euren sozializazio-prozesua,

edozein tresna teknikoki menderatzeko eta edozein erronka betetzeko behar duten jarraikitasunaren balorazioa, eta espiritu ekintzailearekin lotutako trebetasunen sustapena erraztuko du.

- DBHko 1. mailatik 3.era bitarteko *Musika-testuinguruak eta -kulturak*, eta DBHko 4. mailan *Musika-testuinguruak eta -kulturak, komunikabideak eta teknologiak*: musika-genero eta -estilo adierazgarrienera hurbiltzea da asmoa, historian zehar adierazpen musikal desberdinak modu global eta ordenatuan hurbiltzea eta arteak adierazpen gisa duen garrantziaren ikuspegia eskaintzea ahalbidetzeko.

Azkenik, ikasleen analitika- eta adierazpen-gaitasuna eta euren sormena, irudimena eta sentsibiltatea garatzeko, oinarritzko jakintzak integratuko dituzten ikas-egoerak diseinatuko dira. Ikasleak beren ikas-kuntzaren protagonista izango dira esperientzia, prozesu, proiektu, erronka eta zeregin analogiko eta digitalen bidez, eta horrek elkartasuna, aniztasunarekiko errespetua eta gizartea hobetzeko konpromisoa bezalako balioak indartuko ditu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Produkzio musikal eta eszenikoek gizakiaren eta haren kulturaren garapenean izan duten funtzioa ezagutzea, haren eboluzioari buruzko hartze aktiboaren eta hausnarketa kritikoaren bidez, gizabana-ko bakoitzaren eta gizarte osoaren balioen eta sinesmenen testigantzan nola bihurtzen diren ulertzeko, haiek kontserbatzeak duen garrantzia baloratu.

Musikaren eta arte eszenikoen eboluzioa garai eta gizarte desberdinetako adierazpen gisa ezagutzea aldaketarako isla eta eragile diren transformazio sozialetan duten garrantzia baloratzen ikastea da. Adierazpen artistiko desberdinen konbinazioak kultura-ondare bat sortu du, eta hori ezagutzea garrantzitsua da aniztasunaren eta kulturartekotasunaren gainean finkatzen den nortasun propioa eraikitzeko.

Arte-adierazpenen testuinguruaren bidez, adierazpen horiek behar bezala baloratu eta beren garaiko eta testuinguru sozialeko produktutzat har daitezke, eta, aldi berean, haien eboluzioari eta orainarekin duten harremanari buruzko hausnarketa egin daiteke. Adierazpen sortzaile horiek estimatuz eta balioetsiz, kultura-ondarea babesten, arte-adierazpenak errespetatzen eta zentzu kritikoa garatzen laguntzen da.

Produkzio musikal eta eszenikoen ikusle aktibo gisa parte hartzeak aukera ematen du ikasleek harremanetan jartzeko erabiltzen dituzten kultura-adierazpenen aniztasuna areagotzeko, eta, horretarako, askotariko adierazpideen jakin-mina, errespetua eta asimilazioa sustatzen ditu.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, ELK3, DK1, PSIIK1, HK1, EKK1, KKAK1 eta KKAK2.

2. Hainbat musika- eta eszena-adierazpenen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzea, gizartearen barruan dituzten elementuak eta asmoak aztertuz, norberaren pentsamendua eta kultura-identitatea garatzeko, eta interesa agertuz eta ondarearen garrantzia baloratu, kultura aberasteko eta errespeturako iturri gisa.

Musika bere kodeak eta elementuen uztarketa ezagutzea eskatzen duen hizkuntza da, musika bera ulertu ahal izateko. Entzute aktiboaren, partituraren, testu idatziaren edo ikus-entzunezko beste baliabide analogiko eta digital batzuen bidezko ohikuntzatik abiatuta, ikasleak musika-proposamenen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko gai izango dira.

Hainbat proposamen kulturalen analisiak musika gela ikasleak aniztasunean oinarritutako irizpide estetikoak osatzeko gaitzen dituzten tresnak eskuratzeko gune bihurtzen du. Horiek aztertzeak euren ezaugarri esanguratsuenak identifikatzeko bidea erraztuko du, eta horiek sortu ziren esparru historiko eta sozialaren barruan kokatzea bultzatuko du. Era berean, musika- eta genero-barrietate desberdinak aintzat hartzen laguntzen du; izan ere, gaurkotasunekoak edo ohiko kontsumokoak ez direnez, musika-merkatuetatik kanpo geratzen dira. Horrek esan nahi du zentzu kritikoa garatu behar dela hainbat ma-

sa-komunikabidetan edo Internet bidez kultura- eta arte-eskaintza hautatzeko edo eskuratzeko orduan. Eta horri esker, ikasleek pentsamendu kritikoa garatu ahal izango dute, eta adierazpen artistiko desberdinekiko errespetu handiagoa izango dute.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, ELK3, PSIIK1, HK1, HK2, KKAK1, KKAK2, DK2.

3. Emozioen eta adierazpen musikaren arteko erlazioa aztertzea, norberaren eta besteen iritzien bidez eta ahots-, instrumentu- eta gorputz-inprobisazioen bidez, sormena eta jarrera kolaboratiboa garatzeko.

Musika-lan paradigmatico handien zentzuari buruzko hausnarketak aukera ematen du haietara elkarriketarako oinarritutako hurbilketa bat egiteko, non horiek sorrarazten dituzten emozio primario indibidualen adierazpena gai sozial eta etikoekin lotu daitekeen. Era berean, ikasleak aberasten dituzten balioekin (elkartasuna, tolerantzia eta errespetua) duen harremana errazten du.

Adierazpen musikaren talde-lanak iritzi-aniztasunarekiko errespetua, berdinen arteko aberastasun kulturala eta oztopo eta estereotipo sozial, kultural edo sexistak gainditzea sustatzen du. Gainera, hitzezko, ez-hitzezko eta idatzizko hizkuntza testuinguru analogiko eta digitaletan erabiltzeak aukera ematen du ideiak eta kontzeptu sinbolikoak adierazteko, ikasleen komunikazio-gaitasuna garatuz.

Bestalde, sentimenduak musikaren eta dantzaren bidez adieraz daitezke, haien elementuak libreki erabiliz eta soinuaren esperimentazio eta esperimentazio psikomotrizia sustatuz, sormenaren eta adierazpen artistikoaren iturri gisa. Pieza txikiak bakarka edo taldeka inprobisatzea, multzoak aurrez definitutako eta adostutako eskemak erabiliz, aberasteko eta ikasteko iturri da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, PSIIK1, ELK1, DK2, DK3, HK2, EKK1, EKK3, KKAK2 eta KKAK3.

4. Musika-, ahots-, instrumentu-, mugimendu- eta dantza-interpretazioaren berezko ezagutza musikalak, trebetasunak eta teknikak aplikatzea, proposamen musikalak eta eszenikoak gauzatuz, sormen- eta adierazpen-aukerak aztertzeke, euren sentimenduak, emozioak eta jarrerak kontrolatzeko eta kudeatzeko, eta autoestimua garatzeko.

Musika-proposamenak eta mugimenduarekin eta dantzarekin lotutako beste batzuk interpretatzea arte-ondarea ezagutzeko iturri bat da, eta, aldi berean, ikasleek musika edo dantza erabil dezakete hitz gabeko hizkuntza baten bidez emozioak adierazteko eta bideratzeko.

Ahotsa, musika-instrumentuak eta gorputza erabiltzea dagoeneko konposatuta dauden obren erreproduzioan aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duten tresnak dira, eta ondare artistiko immateriala babesten, kultura zabaltzen eta baloratzen laguntzen dute.

Musika-hizkuntzaren oinarritako elementuak eta mugimenduak koordinatzeko eta musika-praktika egiteko beharrezkoak diren teknikak ezagutzea ezinbestekoa da arte eszenikoetan hasi ahal izateko. Gainera, elementu horiekin gorputzaren eta instrumentuen bidez esperimentatzeak aukera ematen die ikasleei elementu horietara ohitzeko eta horiek adierazpide gisa dituzten aukerak aztertzeke.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, PSIIK1, PSIIK3, HK1, HK2, EKK1, KKAK3 eta KKAK4.

5. Proposamen artistiko-musikalak eta eszenikoak sortzea, banaka edo taldeka, ahotsaren, hainbat instrumenturen, gorputzaren eta tresna teknologikoen euskarriaren bidez, sormena indartzeko eta modu inklusiboan garapen pertsonal, sozial eta ekintzailerako aukerak identifikatzeko.

Proposamen artistiko-musikalen diseinuan parte hartzeak berekin dakar talde-lanaren barruan rol desberdinak betetzea, genero-alderapenik gabe, taldearen barruan banakako lanaren errespetua eta balioa

sustatzu. Konpetentzia horretan praktikan jartzen da proiektuak formulatzeko eta garatzeko gaitasuna, modu globalean eskuratutako ezagutzak batuz, sorkuntza-prozesu propio batean islatzeko. Baliabide digitalak erabiltzeak erraztu egiten du musika-elementuak eta elementu bisualak uztartzea, eta ikasleek proposamen artistikoak egitea, beren ideiak sormenez adierazteko.

Ahots-piezak, pieza instrumentalak, gorputz-piezak eta pieza digitalak sortzeak musika-hizkuntzaren oinarriko elementuak erabiltzea dakar, hasierako ideia-aren garapenera egokituko den diskurtso koherente bat sortzeko. Sortze-prozesuan ikasleen aurretiazko ezagutzak batzen dira, eta, aldi berean, sormena aktibatzen da eta ezagutza tekniko eta teorikoen eskaera areagotzen da, emaitzak hobetzen jarraitu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: PSIIK1, PSIIK3, PSIIK4, PSIIK5, DK1, DK3, DK4, HK1, HK2, EKK3, KKAK3 eta KKAK4, STEM 3, STEM5

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen mailatik hirugarrenera	Laugarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Produkzio musikal jakin batzuen inguruko faktore historikoak, kulturalak eta sozialak identifikatzea, horien ezaugarriak eta funtzioa ulertuz adibideen azterketaren bidez, eta genero-ikuspegia eta jarrera kritiko, ireki eta errespetuzkoa txertatuz.	1.1. Produkzio musikal eta eszeniko jakin batzuen inguruko kultura- eta gizarte-faktoreak azaltzea, adibideen azterketa eginez horien ezaugarriak eta funtzioa ulertuz, jarrera irekiaz eta errespetuz, eta azterketa horretan genero-ikuspegia txertatuz.
1.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-ondarea kontserbatzearen garrantzia balioestea, proposamen diferentek ezagutuz, eta norberaren aberastea eta gizarte-kohesioa sustatuz.	1.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-ondarea kontserbatzeak eta transmititzeak duen garrantzia aitortzea, hainbat proposamen ezagutuz eta horien berezitasunak identifikatuz, horiek gertatzen diren testuinguruarekin duten lotura balioetsiz, eta norbera eta gizarte aberasteko faktore gisa.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Gure kulturaren eta beste batzuen musika-proposamenen ezaugarri, elementu eta teknika garrantzitsuenak identifikatzea, ikus-entzunezko euskarrien bidez, irekitasun-, interes- eta errespetu-jarrera agerian utziz.	2.1. Hainbat eszena-irudikapen mota aztertzea, haien elementuen eta tekniken bidez, hainbat euskarri erabiliz, testuinguruarekin duten harremana ulertuz eta errespetatuz.
2.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-adierazpenak balioestea, analisi eta hartze aktibo, errespetuzko eta inklusiboaren bidez, horiek sortu ziren gizartearen islatzat hartuz.	2.2. Euskal kulturari eta XX. mendeko, zinemako eta gaur egungo beste kultura batzuei dagozkien era guztietako musika- eta eszena-adierazpenak baloratzea, hartze aktiboaren eta errespetuzkoaren bidez, sortu ziren gizartearen islatzat hartuz, ikuspegi inklusibo batetik.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Aztertutako musika-proposamenen ideiak, sentimenduak eta emozioak errespetuz, enpatiaz eta sentikortasunez adieraztea, musika-ekitaldiak entzunez, ikusiz edo horietara joanez.	3.1. Aztertutako musika-adibideei buruzko ideiak, sentimenduak eta emozioak errespetuz eta modu kritikoa adieraztea, enpatiaz eta sentikortasunez, musika-ekitaldiak entzunez, ikusiz edo horietara joanez.
3.2. Inprobisazio gidatuak edo askeak egitea, bakarka edo taldean, gorputza edo musika-instrumentuak erabiliz eta sormena eta autoconfiantza garatuz	3.2. Inprobisazioak egitea patroietatik abiatuz edo modu askean, bakarka edo taldean, gorputza edo musika-instrumentuak erabiliz eta sormena eta autoconfiantza garatuz.
3.3. Banakako eta taldeko musika-trebetasunak praktikan jartzea, autoestimua interpretazioaren bidez garatuz eta sendotuz.	3.3. Banakako eta taldeko musika-trebetasunak praktikan jartzea, autoestimua interpretazioaren bidez garatuz.

Lehen mailatik hirugarrenera	Laugarren maila
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1. Musika- eta gorputz-interpretazioko oinarriko banakako teknikak erabiltzea musika-trebetasunak garatzeko, eta, horretarako, estereotipatu gabeko emozioen kontrolaren adierazpena eta kudeaketa bultzatuz, baita autokonfiantza eta norberarenganako segurtasuna ere.	4.1. Norberaren trebetasun teknikoak garatzea banakako interpretazio- eta sorkuntza-jardueretan, autoestimua erabiltzeko, autokonfiantza eta emozioen kudeaketa sustatuz.
4.2. Interpretatzaile eta entzule gisa parte hartzea ikastetxeko eta/edo ikastetxetik kanpoko emanaldi eta adierazpen musikal eta eszenikoetan, sormen- eta interpretazio-prozesuetan ekimena erakutsiz.	4.2. Interpretatzaile eta entzule gisa parte hartzea ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko emanaldi eta adierazpen musikal, sormen- eta interpretazio-prozesuetan ekimena erabiltzeko eta lidergo erakutsiz.
4.3. Musika-interpretazioko eta mugimenduko teknikak aplikatzea ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko entzunaldi eta kontzertuetan, sormena eta gainerako pertsonetikiko errespetua garatuz.	4.3. Taldeko musika-trebetasunen garapena aztertzea, errespetua, enpatia, jarrera kolaboratzailea erakutsiz eta interpretazioa eta sorkuntza musikala kritikoki baloratuz.
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Proposamen artistiko-musikalak eta eszenikoak sortzea, ikus-entzunezko produktuak garatzeko tresna teknologikoak erabiliz, jarrera inklusiboarekin, kohesioarekin eta jasangarritasun-irizpideekin.	5.1. Proposamen artistiko-musikalak sortzeko eta zabaltzeko tresna teknologikoak erabiltzea, ikus-entzunezko materialak garatzeko, Netiketa-arauak eta egiletza-eskubideak aplikatuz.
5.2. Ahots, instrumentu, koreografia eta diziplina anitzeko konposizioak egitea bakarka eta/edo elkarlanean, taldearen ideien, emozioen eta sentimenduen aniztasuna errespetatuz.	5.2. Ahots-, instrumentu- eta koreografia-konposizioak sortzea bakarka eta/edo elkarlanean, taldearen ideien, emozioen eta sentimenduen aniztasuna errespetatuz eta jasangarritasun-irizpideei jarraituz.

ONARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen mailatik hirugarren mailara
A. Musika entzutea eta hautematea
Sentimenduen eta emozioen identifikazioa eta errekonozimendua*
Euskal Herriko eta beste toki batzuetako sortzaileek egindako musika- eta dantza-proposamenak: historian zehar izan dituzten ezaugarri garrantzitsuenen entzutea, azterketa, deskribapena eta balorazioa.*
Tokiko, eskualdeko, nazioko eta beste toki batzuetako konpositoreak, artistak eta taldeak: zuzeneko eta erregistratutako ekitaldi eta adierazpen artistiko-musikalen eta eszenografikoen azterketa.*
Musikaren funtsezko elementuak: erritmoa, melodia, harmonia, isilunea, testura, forma eta musika-generoak.*
Soinua, zarata eta isilunea. Kutsadura akustikoa. Ingurumenarekiko errespetuari buruzko hausnarketa kritikoa.*
Musika-arloari lotutako hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.
Tresna digitalak eta musika
Musika-harrerako oinarriko portaera-arauak: errespetua eta balorazioa, genero-alborapenik gabe, musika-argudioetan oinarrituta.
Hainbat garai eta estiloko musika- eta dantza-proposamenen entzute aktiboa.*
Sentimenduen eta emozioen identifikazioa eta errekonozimendua*
Emakumeen ikusgaitasuna musikari eta dantzari lotutako sorkuntzako eta interpretazioko roletan.*
Sentimenduen eta emozioen adierazpena.*
B. Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa.
Partitura: grafia konbentzionalen eta ez-konbentzionalen identifikazioa. Irakurketa eta idazketa musikala.*
Musika-hizkuntzaren oinarriko elementuak: Soinuaren parametroak, bitarteak, musika-eskalak eta oinarriko akordeak.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Oinarrizko jakintzak. Lehen mailatik hirugarren mailara
Inprobisazio gidatu eta libreko oinarrizko teknikak: ahotsezkoak, instrumentalak eta/edo gorputzekoak.
Proiektu musikalak eta ikus-entzunezkoak: musika-hizkuntzaren erabilera eta egokitzea aplikazio teknologikoen bidez.*
Jabetza intelektuala eta kulturala: Lizentzia motak. Planteamendu etikoak eta arduratsuak. Egile-eskubideen errespetua eta pribatutasuna.
Idea-aniztasunari errespetua eta besteekiko enpatia.*
Musika-jardueretan portaerako eta parte hartzeko arauak. Besteen produkzioekiko errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko jarrera.*
Oinarrizko emozioen autorregulazioa. Autokonfiantza eta segurtasuna norberarengan.*
Proposamen artistikoak egiteko jakin-mina, sormena eta ekimena.
Interpretazio eta inprobisazio gidatu eta aserako oinarrizko teknikak: ahotsezkoa, instrumentala, gorputzekoa eta eszenikoa.
Hitzeko, ez-hitzeko komunikazioaren eta komunikazio digitalaren autorregulazioa.*
Autokonfiantza eta autoestimua ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.*
Sentimenduen eta emozioen adierazpena norberarenganako segurtasunez.*
C. Testuinguru eta kultura musikalak, komunikabideak eta teknologiak
Ahotsa: sailkapena eta ezaugarriak.*
Organologia. Euskal Herriko instrumentu sinfoniko eta tradizional herrikoien eta hiritarren sailkapena eta ezaugarriak.*
Organologia. Historian zehar instrumentuen sailkapena eta ezaugarriak.
Euskal Herriko musika tradizionalak eta euren kultura- eta genero-aniztasuna. Instrumentu eta dantza talde nagusiak.*
Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako musika-generoak.*
Genero-bereizketarik gabeko musika- eta dantza-adierazpen desberdinekiko irekitasuna, interesa eta jarrera inklusiboa.*
Tradizio sozial eta musikalak beste kultura batzuetan. Ezaugarriak eta funtzioak. Instrumentuak, abestiak eta dantzak Afrikan, Asian, Amerikan, Europan eta Ozeanian.*
Testurak, formak eta musika-generoak aldi historikoetan eta gaur egun.*
Musika- eta dantza-adierazpen desberdinen balorazio kritikoa.*
Genero-ikuspegia eta jarrera irekia eta errespetuzkoa askotariko musika- eta dantza-proposamenen aurrean.

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila
A. Musika entzutea eta hautematea
Euskal Herriko eta beste toki batzuetako sortzaileek egindako egungo musika- eta dantza-proposamenak: beren ezaugarri garrantzitsuenen iruzkina eta entzunaldia.*
Tokiko, eskualdeko, nazioko eta beste toki batzuetako konpositoreak, artistak eta taldeak: zuzeneko eta erregistratutako ekitaldi eta adierazpen artistiko-musikalen eta eszenografikoen azterketa.*
Kutsadura akustikoa, ingurumena hobetzeko proposamenen diseinua.*
Musika-arloari lotutako hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.
Musika- eta dantza-harrera: balorazio estetikorako irizpideak.*
Historian zehar musikaren eta dantzaren garapenean emakumeek egindako ekarpenaren aitortzea.*
Musika- eta dantza-adierazpen desberdinen gozamina eta balorazioa entzule aktibo gisa.*
Sentimenduen eta emozioen adierazpena eta kudeaketa.*
B. Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa.
Musika, dantza, eszenografia eta ikus-entzunezko produktuak sortzeko elementuak eta baliabideak.
Egungo musika mota desberdinetako ahots-, instrumentuedo gorputz-errepertorioa, banakakoa eta/edo taldekoa.
Errespetuz eta modu inklusiboan interpretatzeko eta inprobisatzeko oinarrizko teknikak: ahots-, instrumentu- eta gorputz-teknikak, ikasteko eta emozioak kontrolatzeko teknikak.*

Oinarrizko jakintzak. Laugarren maila
Partituren eta aplikazio informatikoen editoreak. Musika-ohiturak, -kontsumoa eta -zaletasuna.*
Musika-jardueretan portaera eta parte hartzeko arauak.
Proiektu baten planifikazioa, materialen hautaketa eta elkarlanean gauzatzea jasangarritasun-irizpideen arabera.*
Ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunarekiko jarrera inklusiboa eta errespetuzkoa.*
Trebetasun interpertsonalak eta sozialak: bere buruarenganako konfiantza, malgutasuna, asertibitatea, enpatia eta estrategiak zailtasunak eta arazoak kudeatzeko*
Sormen-proiektuak garatzean besteen ideia eta sentimenduekiko errespetua eta sentsibiltatea.*
Erantzukizunak hartu eta talde-lana optimizatzeke parte-hartze aktiboa eta bidezkoa.*
C. Testuinguru eta kultura musikalak, komunikabideak eta teknologiak
Soinua editatzeko, grabatzeko eta erreproduzitzeko tresnak hainbat testuingurutan. Hodeian biltegitatu. Jabetza intelektualeko lizentziak eta egiletza-eskubideak. Netiketa.*
Musika publizitatean eta zineman. Testuinguru historikoa eta soziala genero-ikuspegiarekin.*
Gure inguruko eta beste testuinguru batzuetako herri-musikak eta hiri-musikak, eta horiek denboran izan duten eboluzioa. Bakarleri eta musika-talde nagusiak.*
Eztabaidarako eta argumentazio kritikorako teknikak.*

NATURA ZIENTZIAK

Natura Zientziak jakintzagaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan antolatzen da, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloan garatutako Lehen Hezkuntzako ikasketa zientifikoaren jarraipen gisa, baina planteamendu bereziagoarekin eta sakontze-maila handiagoarekin. Zientzia naturaren errealitatearen ulermena eta azterketa empirikoa ezaugarri duten jakintzen multzoa da, hala nola, materia, izaki bizidunak beren alderdi aniztan, antolaketa-mailetan eta harreman-sareetan; funtsezko gaikoetako bat da ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronka berrietarako soluzioak aurkitzeko, eta garapen jasangarria eta gizarte berdeagoak bultzatzeko.

Zientziaren ezagutzak ikasleei ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ematen dizkie errealitate naturala ulertzeko, eta gizartearen eta ingurumenaren hobekuntzan eragina duten ekintzetan eta erabakietan parte hartu ahal izateko, garapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozial etengabe dagoen mundu batean oinarritutako irizpidearen arabera, non emakumeen eta gizonen ekarpenak baloratuko diren.

Natura zientziak jakintzagaiaren curriculum-garapenak kompetentzia-esparruari erantzuten dio; eta beraz, funtsezko kompetentziak garatzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako definitu diren etapa-helburuetan laguntzen du. Bi elementu horiek jakintzagaiaren kompetentzia espezifikoa zehazten dira, hau da, ikasleen irteera-profilean laguntzeko elkarrekin erlacionatuta eta definituta dauden kompetentzien multzo batean, eta horiek curriculumeko beste elementuak justifikatzen dituzte: oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak. Horiek guztiek edukien memorizazio hutsetik haratago doazen funtsezko kompetentzien garapena ziurtatzen dute, ikasleak gaituak izan daitezzen eta, beraz, pentsamendu zientifikoa garatzeko gai izan daitezzen XXI. mendeko gizartearen arazoei eta erronkei aurre egiteko eta munduaren ezagutza sakonagoa lortzeko. Jakintzagai honen planteamenduaren helburua da ikasleek ezagutzea jakintza zientifikoaren hainbat esparrutan berdina diren oinarrizko ideiak eta ikerketa-prozedurak daudela.

Natura zientziak jakintzagaiak Biologia, Fisika, Geologia eta Kimika diziplinak biltzen ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteetan, fenomeno naturaletarako hurbilketa orokorra egiteko helburuarekin, non fenomeno naturalen arteko erlazioak eta loturak azpimarratzen diren. Horrela, lotura bat ezartzen da Lehen Hezkuntzako Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloaren tratamendu globalizatzailearen eta Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika jakintzagaien diziplina-tratamenduaren artean, Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera.

Jakintzagaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetarako komunak diren zazpi kompetentzia espezifikotan —irteera-profilean definitutako funtsezko kompetentzien deskriptore operatiboei lotuta daude— zehazten da.

Kompetentzia espezifikoko horiek honela laburbildu daitezke: fenomeno naturalak ulertzea; informazio zientifikoa interpretatzea eta transmititzea eta horri buruzko argudioak ematea; informazio zientifikoa aurkitzea eta kritikoki ebaluatzea; zientzien erregelak eta arauak maneiatzea; metodo zientifikoa ikerketa-prozesutan aplikatzea; osasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ekimenak sustatzea; eta zientzia etengabe aldatzen eta bilakatzen ari den eraikuntza kolektibotzat ulertzea eta balioestea.

Ebaluazio-irizpideek kompetentzien garapen-maila neurtzeko aukera ematen dute, modu ireki, malgu eta interkonektatuan curriculumaren barruan, oinarrizko jakintzak eskuratuz.

Oinarrizko jakintzak modu kompetentzian landu behar dira, jakintzagaiaren kompetentzia espezifikoen garapenarekin lotuta eskura daitezen beti. Izan ere, oinarrizko jakintzak eta, horien barruan, ezinbestekoak direnak kompetentzia espezifikoko lantzeko bitartekoak dira, baina baita ikasleek eskuratu behar dituzten zientziei buruzko gutxieneko ezagutzak ere.

Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzek oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak jasotzen dituzte, eta honako multzo orokor hauetan egituratuta daude:

- *Oinarrizko trebetasun zientifikoak eta proiektu zientifikoak*: Lan zientifikoaren oinarri diren prozedurak eta jarrerak. Multzo hau bi ikasturteetan mailakatuta garatuko da.
- *Materia*: Materia biziaren eta ez-biziaren ezaugarriak, aurkezteko modua, propietateak, aniztasuna, osaera, egitura-unitatea eta dituen aldaketak.
- *Elkarrekintzak eta Energia*: Ekosistemak, hauen elkarrekintzak eta kontserbazioa. Indarrak, hauen efektuak eta mugimendua. Energia, propietateak eta transferentzia. Beroa eta tenperatura. Energiaren kontserbazioa eta degradazioa. Kontsumoa eta energia-iturriak.

Laburbilduz, jakintzagai honen ikuspegiak tratamendu experimental eta praktikoa bat barne hartu behar du, ikasleen esperientzia arlo akademikotik haratago zabaltzeko eta eguneroko egoerekin loturak egiteko aukera emateko. Horrek nabarmen lagunduko du ikasle guztiek zientziaren berezko pentsamendu zientifikoa eta trebetasunak gara ditzaten, beharrezkoak baitira ondorengo hezkuntza-etapetan ibilbide zientifikoetan jarraitzeko edo ibilbide ez-zientifikoak egin nahi dituzten ikasleei oinarri zientifiko osatua emateko.

Curriculum-planteamendu horrek, etaparen azken zatian, DBHko 3. eta 4. mailatan zehazki, ez eragozteaz gain, ikasleak diziplinen arteko desberdintasunak ulertzen has daitezen laguntzen du, baita diziplina horiek bitan banatuta agertzen ere: Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika.

KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Fenomeno eta prozesu natural nagusien kausak ulertzea eta erlazionatzea, arrazoibide zientifikoa, legeak eta teoria zientifikoak eta/edo pentsamendu konputazionala erabiliz, problemak ebazteko edo eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko.

Pentsamendu zientifikoaren funtsa ingurune naturalean gertatzen diren fenomenoek eta prozesuen zergatiak ulertzea da, horiek lege egokiak bidez azaltzen saiatzeko. Horiek ulertzeak esan nahi du horien sorburu diren kausak eta izaera ulertzea, eta ikasleei problemak ebazteko edo eguneroko bizitzako prozesuei buruzko azalpenak emateko zentzu kritiko eta sortzailearekin jokatzeko gaitasuna ematen die.

Zientziak diziplina enpirikoak dira, eta askotan arrazoibide logiko-matematikora jotzen dute ereduak sortzeko, gaiak eta problemak ebazteko eta lortutako emaitzak edo soluzioak baliozkotzeko. Kompetentzia espezifikoko hori garatzeak galderak egitea dakar, ingurunearen izaera nolakoa den, sistemen artean

sortzen diren elkarrekintzak zein diren, eta horien kausak eta ondorioak zein diren ulertzeko. Ulermen horrek oinarri kritikoak ematen ditu erabakiak hartzeko, arazoak ebazteko prozesuak aktibatzen ditu, eta, aldi berean, ezagutza zientifiko berria sortzeko aukera ematen du, fenomenoak interpretatuz, prozedura zientifikoak erabiliz eta lortzen diren emaitzak aztertuz.

Konpetentzia espezifikoko horren bidez, ikasleek problemak eta prozesuak ebazteko trebetasunak izango dituzte, eta lortutako emaitzak modu arrazoituan eta kritikoan aztertuko dituzte, bizitzako egoeretan aplikatzeko.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, STEM4 eta KPSII5.

2. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak eraginkortasunez erabiliz, zientziekin lotutako galderak banaka zein elkarlanean ebazteko.

Ikerketa zientifikoak jakintza berriak eskuratzea dakar berekin, eta jakintza horiek hainbat iturritako informazio garrantzitsua bilatuz, hautatuz eta bilduz hasten dira, ikaskuntza horren oinarri kognitiboak ezartzeko.

Oinarri zientifikoa duten datuak eta informazioak, batzuetan, gezurrekin, funtsik gabeko gertaerekin eta uste sasizientifikoekin nahasita egoten dira (komunikabideak, sare sozialak, etab.). Beraz, ezinbestekoa da alfabetatze zientifikoa, zentzu kritikoa eta informazioa ebaluatze eta sailkatzeko beharrezko trebetasunak garatzea, eta fidagarritasun zalantzarikoko iturriak ezagutzea eta bereiztea, bai testuinguru analogikoetan, bai digitaletan.

Baliabide tradizionalak zein digitaletan berebiziko garrantzia dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan, oro har, eta konpetentziak eskuratzean, bereziki; izan ere, ondo hautatutako baliabide batek goi-mailako prozesu kognitiboak garatzea errazten du, eta ikasleei ulermenean, sormenean eta garapen pertsonal eta taldekoan laguntzen die. Zientzian diharduten pertsonak talde-lanerako gaitasunak garatzen dituzte, kolaborazioa eta kooperazioa baitira gizarte guztietan ezagutza zientifikoa eraikitzeke oinarria.

Horregatik, konpetentzia espezifikoko honen helburua da, halaber, ikasleak erraztasunez erabiltzea kolaborazioko eta kooperazioko askotariko baliabideak eta teknikak, zientziarekin zerikusia duten gaiak modu kritikoan ebazteko.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5 eta KPSII4.

3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeke.

Informazioa zuzen interpretatzea eta transmititzea oso garrantzitsua da pentsamendu zientifikoaren eraikuntzan, ikasleei zientziaren hizkuntza unibertsalean komunikatzeko gaitasuna ematen baitiete, munduko muga geografiko eta kulturaletatik haratago.

Horrela, ikasleek gizartean aktiboki parte hartzeko, gero eta hobeto ulertu behar dira azken aurkikuntzak eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak, horien arabera jarrera kritikoz interpretatzeko eta baloratzeke komunikabideetan aurkitzen duten informazioa; hartara, ondorio propioak atera, erabaki koherenteak hartu eta komunikazio-elkarrekintza konstruktiboak ezarri ahal izango dira. Horretarako, arrazoibide oinarritua eta errespetuzkoa malgutasunez erabiliko da norberaren ikusmoldeak aldatzeko, beste solaskide batzuek emandako datuak eta jarrerak kontuan hartuta.

Konpetentzia espezifikoko horren bidez baliabideak, ez bakarrik informazioa kontsultatzeko, baita beste helburu batzuetarako ere erabiltzea lortu nahi da, hala nola material didaktikoak sortzeko edo ikaskuntza-inguruneke beste kide batzuekin eraginkortasunez komunikatzeko, eta horrek ikasleei tresnak emango dizkie gaur egun pertsona integratuak, aktiboak eta beren ingurunearekin konprometituak eskatzen dituen gizartera egokitzeke.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.

4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperimentazio zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea, metodologia zientifikoaren urratsei jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak arakatzeko.

Nerabezaroan zientziak eta pentsamendu zientifikoaren garapenak berezko duten ezaugarri bat fenomeno naturalak ezagutzeko eta deskribatzeko jakin-mina da. Ikasleei tresna zientifikoak emateak berekin dakar zientziaren berezko metodologiekin lan egitea eta horiek gizartean duten garrantzia aitortzea. Metodologia zientifikoak naturarekin eta gizartearekin zerikusia duten galderei eta arazoei erantzuteko erabiltzen den lan-sistema dira.

Konpetentzia hori garatzen duten ikasleek behatu, hipotesiak formulatu eta esperimentazioa, ikerketa eta ebidentzien bilaketa aplikatu behar dituzte, horiek egiaztatzeko eta gerta daitezkeen aldaketak aurreikusteko, baita ondorioak aurkezteko ere. Horretarako, zenbait baliabide zientifiko izan behar dituzte, hala nola laborategiko teknikak edo bere inguruneko behaketak aztertzeko eta kritikoki arrazoitzeko informazioaren tratamendua eta hautaketa.

Proiektu bat garatzeko, besteak beste, ekimena, jarrera kritikoa, ikuspegi orokorra, planifikatzeko gaitasuna, baliabide materialen eta pertsonalen mobilizazioa, argudiatzea eta sormena behar dira, eta ikasleei aukera ematen die arazoak konpontzeko autoezagutza eta konfiantza lantzeko, eskura dituzten baliabideetara eta dituzten mugetara, ziurgabetasunetara eta erronketara egokituz.

Konpetentzia espezifiko horretan STEM konpetentziaren elementuak eta gainerako funtsezko konpetentziak lantzen dira. Horrela, ikasleei aukera ematen zaie lan-modalitate horrek ematen dituen sormena eta hazkunde pertsonala garatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD2 KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3.

5. Zientzien oinarriko, IUPACen hizkuntza, hizkuntza matematikoa, neurketa-unitate zuzenak eta laborategia segurtasunez erabiliz, hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala eta ikerkuntzan eta zientzian hainbat herrialde eta kulturaren arteko komunikazio fidagarriaren beharra aitortzeko.

Ikerketa zientifiko oso gutxitan erdiesten da subjektu isolatuen lanaren ondorioz; aitzitik, gizabanakoek eta erakundeek arteko informazio-trukea eta kooperazioa eskatzen ditu, baita herrialdeen artekoa ere batzuetan.

Konpetentzia hori garatuz, ikasleak diziplina zientifikoetako norabide anitzeko informazio-fluxu bereizgarriekin eta komunitate zientifiko osoak komunikazio eraginkorrak ezartzeko —osasuna eta ingurumena-ren garapena ziurtatuko dituen ingurune batean bilduta— unibertsaltzat jotzen dituen arauekin ohitzea lortu nahi da. Gainera, ikasleek datuen kalitatea ebaluatzea eta haien zehaztasunik eza baloratzea eskatzen du, baita azterketa zientifiko bat egiteko aurretik egindako ikerketaren garrantzia onartzea ere.

Konpetentzia espezifiko horren bidez, honako hauek sustatu nahi dira: zientziaren diziplina anitzeko izaerarekin lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea, arauak aplikatzea, aldagaiak elkarren artean lotzea, hizkuntza unibertsala erabiltzearen garrantzia baloratzea, aniztasuna baloratzea, genero-azterketa, ezarritako arauak eta akordioak —norberarekiko eta besteekiko— errespetatzea, etab., Hori funtsezkoak dira esparru zientifikoetan, ingurune sozial eta komunitario zabalago baten parte direlako.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, KPSII4, HK1 eta KAKK2.

6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.

Zorionez, ekintza jakin batzuek ingurumenaren eta gure osasunaren egoera hobetzen lagundu dezakete epe laburrean eta luzean. Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da ikasleek beren gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta, ebidentzia zientifikoaren arabera, garapen iraunkorra premiazko helburua eta gizartearen ongizate, osasun eta aurrerapen ekonomikoaren sinonimoa dela ulertzea eta argudiatzea. (2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko 17 helburuak).

Baliabide naturalak ez dira beti berriztagarriak, eta, askotan, erabiltzeko moduaren ondorioz, haien kontsumo-tasak nabarmen gainditzen du haien berritze-tasa. Habitaten suntsipenaren, klima globalaren aldaketaren eta substantzia xenobiotikoen erabileraren bidez gizakiaren jardura biodibertsitatea murrizten ari da, eta horrela, azken 50 urteetan, planetako animalia basatien eta landaretzaren zati handi bat desagertu egin da. Aldaketa horiek guztiek arriskuan jar lezakete gizakien gizartearen eta planetaren egonkortasuna, gaur egun ezagutzen dugun moduan.

Azken helburua zera da, hezkuntza-sistemaren bitartez, babestu ahal izateko eta gure planeta XXI. mendeko herrialde garatuetan ohikoak diren joera kaltegarrietatik babesteko behar den zentzu kritikoa duten herritarrak lortzea, eta horrela planetaren osasuna eta bizi-kalitatea indartzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KD4, KP-SII1, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1.

7. Zientzia etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den eraikuntza kolektibo gisa ulertzea eta baliostea, non zientzian diharduten pertsonak parte hartzeaz gain, gizarteko gainerako pertsonakiko elkarrekintza ere eskatzen duen, aurrerapen teknologikoan, ekonomikoan, ingurumenean eta sozialean eragina duten emaitzak lortzeko.

Jakintzagaiaren konpetentzia-garapena osatzeko, ikasleek onartu behar dute zientzia ez dela prozesu amaitu bat, baizik eta, teknologiarekin eta gizartearekin elkarrekin jardunez, etengabe eraikitzen ari dela. Azalpen berriak bilatzea, prozedurak hobetzea, aurkikuntza zientifiko berriak eta abar sormenezko pentsamendutik sortzen dira eta planetako eta gizarteko bizitzan eragiten dute, eta zientziak horietan eragiten dituen inpaktuak modu globalean ezagutzea funtsezkoa da garapen iraunkorrerako bide zuzena aukeratzeko. Ildo horretan, ikasle gaituek hainbat balio hartu behar dituzte kontuan, hala nola gizarte eskatzaile batek sortutako eta harentzat egindako aurrerapen zientifikoaren garrantzia, zientziaren mugak, gai etikoak eta zientzialarien jardueran duten konfiantza.

Hori guztia kontzientzia sozial eta ekologiko baten parte da, non komunitate zientifikoak parte hartzeaz gain, gizarte osoaren parte-hartzea ere eskatzen du, aurrerapen indibidual eta sozial bateratua behar baitu, eta horretan emakumeen ekarpena funtsezkoa da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII4, HK1, HK4 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Lehen eta bigarren mailak
1. konpetentzia espezifikoak
1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz.
1.2 Prozesu naturalak azaltzea, ereduaren eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniariartzako diseinuen urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, miaztea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.

Ebaluazio-irizpideak. Lehen eta bigarren mailak
1.3 Problema ebaztea edo prozesu naturalak azaltzea, emandako ezagutzak, datuak eta informazioa, arrazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo baliabide digitalak erabiliz.
1.4 Fenomeno naturalei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, beharrezkoa denean birformulatuz.
2. kompetentzia espezifikoa
2.1 Modu egokian eta moldakorrean lan egitea askotariko baliabideekin, baliabide tradizionalekin eta digitalekin, gaiak ebaztean, informazioa kontsultatzean eta edukiak sortzean, iturri fidagarrienak irizpidez hautatuz eta behar bezala aipatuz.
2.2 Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz.
2.3 Eraikuntzako eta hezikidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.
3. kompetentzia espezifikoa
3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz.
3.2 Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...).
4. kompetentzia espezifikoa
4.1 Egiatzatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz.
4.2 Fenomeno zientifikoei buruzko esperimenduak egitea eta datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen eta gero eta autonomia handiagoz erabiliz.
4.3 Esperimentazioan, araketan edo ikerketa zientifikoko proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.
4.4 Esperimentazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoaren bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.).
5. kompetentzia espezifikoa
5.1 Komunitate zientifikoarekin eraginkortasunez komunikatzea, zientziaren oinarriko arauak behar bezala erabiliz, neurketa-unitateen erabilera, tresna matematikoak eta formulazio- eta nomenklatura-arauak barne.
5.2 Norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta erabilera zientifikoko instalazioekiko errespetua babestea, zientziaren espazio espezifikoen —hala nola zientzien laborategia— erabilera-arauak praktikan jarri.
6. kompetentzia espezifikoa
6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz.
6.2 Biodibertsitatea babestean, ingurumena zaintzearen, ingurune izaki bizidunak babestean, garapen iraunkorraren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz.
6.3 Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.
6.4 Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higieena, gorputz-jarrera, jarduera fisiko, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...), eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.
6.5 Ingurune paisaia eta ekosistemak interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen ingurumen-inpaktuari buruz hausnartuz.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1 Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta zientziak teknologian, gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak onartzea eta balioestea, zientziako gizon-emakumeen analisi historikoaren eta aurrerapen zientifikoaren bidez.
7.2 Ingurunean ingurumen- eta gizarte-premia garrantzitsuenak detektatzea, horiei soluzio jasangarria, sortzailea eta genero-irizpidea kontuan hartuta emanez.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak eta proiektu zientifikoak:	
Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak:*	Galdera, hipotesi eta aieru zientifikoak. Informazioa bilatzeko eta kolaboraziorako estrategiak: tresna digitalak eta zientzian maiz erabiltzen diren formatuak (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena, etab.). Informazio zientifikoko iturri fidagarriak: errekonozimendua eta erabilera. Gai zientifiko jakin bati erantzuteko saiakuntzak eta landa-lana, tresnak eta espazioak (laborategia, ikasgelak, ingurunea...) modu egokian erabiliz. Fenomeno naturalak behatzeko eta horiei buruzko datuak hartzeko metodoak. Emaitzen analisisa pentsamendu logiko edo konputazionalaren bidez. Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...).
Espazio bakoitza erabiltzeko arauak, horrela norberaren eta komunitatearen osasuna, sareetako segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz eta babestuz.*	
Oinarrizko hizkuntza zientifikoa, unitateen sistemen maneiu egokia barne.*	
Zientziek gizartearen aurrerapenean eta hobekuntzan dituzten mugarri historiko eta gaur egungo garrantzitsuenetan zientzialariek duten zereginaren eta kultura zientifikoaren balorazio kritikoaren jarraibideak.*	
B. Materia: Materia bizia eta ez-bizia.	
Materia eta aldaketa	Teoria zinetiko-molekularra: materiari buruzko oharretan aplikazioa, haren propietateak, agregazio-egoerak, egoera-aldaketak, eta nahasteen eta disoluzioen eraketa azalduz.* Sistema materialekin lotutako esperimenduak: beren propietateen, osaeraren eta sailkapenaren ezagupena eta deskribapena.* Sistema materialak: jasaten dituzten aldaketa moten azterketa, aldaketa horien sorburuak aldaketa horien ondorioekin lotuz.* Eguneroko bizitarako material interesgarriak: erabilerak, propietateak eta jasangarritasuna.
Zelula	Zelula izaki bizidunen egitura-unitate eta unitate funtzional gisa.* Zelula prokariotoa eta bere zatiak.* Animalien zelula eukariotoa eta bere zatiak.* Landareen zelula eukariotoa eta bere zatiak.* Zelula moten behaketa eta alderaketa mikroskopioan.* Mikroskopioaren teknikak eta erabilera.
Izaki bizidunak	Domeinuak eta erreinuak: Eubacteria, Archaea, Protista, Fungi, Plantae eta Animalia. Sailkapen taxonomikoaren oinarrizko historia.* Taldea taxonomiko nagusiak: inguruneko espezieen behaketa eta sailkapena, euren ezaugarri bereizgarrietatik abiatuta.* Inguruneko ekosistemetako espezie arruntenak: identifikazio-estrategiak (gidak, gako dikotomikoak, tresna digitalak, visu, etab.)* Euskal Herriko ekosistemetako izaki bizidunak identifikatzeko, behatzeko eta georreferentziatzeko teknika eta tresna berritzaileak. Sentitzen duten izakiak: ornodunak. Zefalopodoak eta hainbat artropodo. Sentsibilitatea eta sentiberatasunaren arteko desberdintasunak.
Osasuna eta gaixotasuna izaki bizidunetan	Gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta tratatzeko neurriak, eragile kausalaren arabera, eta izaki bizidunetan antibiotikoen erabilera egokiari buruzko hausnarketa.* Txertaketak gaixotasunen prebentzioan eta bizi-kalitatearen hobekuntzan duen garrantzia.*

Oinarrizko jakintzak. Lehen eta bigarren mailak	
	Osasun fisikoa, mentala eta soziala kontserbatzera bideratutako ohiturak (loaren higieena, jarrerara-ohiturak, teknologia berrien erabilera arduratsua, ariketa fisikoa, estresaren kontrola...)*
Geologia	Harriaren eta mineralaren kontzeptuak: ezaugarriak eta propietateak.*
	Harriak sailkatzeko estrategiak: sedimentarioak, metamorfikoak eta igneoak. Harrien zikloa.*
	Harri eta mineral garrantzitsu batzuk eta/edo inguruneak identifikatzeko metodoak.*
	Mineralen eta harrien erabilerak: euren erabilera eguneroko materialak eta objektuak fabrikatzeko.*
C. Interakzioa eta Energia	
Interakzioa	Mugimendu errazen iragarpena zinematikaren kontzeptuetatik abiatuta, magnitude horien etorkizuneko balioei buruzko hipotesi egiaztagarriak formulatuz, zenbakizko kalkuluaren, grafi-koen interpretazioaren edo lan esperimentalaren bidez baliozkotuz.*
	Indarrak aldaketarako eragile gisa: gorputz baten mugimenduetan atseden-egoeran nahiz diharduten sistemetan deformazioak sortuz indarrek dituzten efektuen erlazioa.*
	Newtonen legeen aplikazioa: indarren ekintzaren aurrean sistema materialek nola jokatu behar duten ulertzea ahalbidetzen duten eguneroko egoeren edo laborategiko egoeren behaketa, eta horiek eguneroko egoeretan eta bide-segurtasunekoetan dituzten ondorioen aurreikuspena.*
Energia	Energia: energiari, propietateei eta aldaketa-prozesu guztien kausa gisa deskribatuko duten adierazpenei buruzko galderen eta hipotesien formulazioa.*
	Energiaren etxeko erabilerarekin eta erabilera industrialarekin zerikusia duten hipotesien diseinu eta egiaztapen esperimentala, energiaren forma guztiak eta horien arteko eraldaketak aintzat hartuta.*
	Ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko hipotesien prestaketa oinarritua, energia-iturri berriztagarrien eta ez-berriztagarrien arteko desberdintasunak kontuan hartuz.*
	Beroak materialen dituen efektuak: efektuen azterketa eta eguneroko egoeratan aplikazioa.*
Ekologia eta jasangarritasuna	Ingurunekeko ekosistemak, horien osagai biotikoak eta abiotikoak, eta erlazio intraespezifiko eta interespezifiko motak.*
	Atmosferaren eta hidrosferaren funtzioak eta horiek Lurreko bizitzarako duten funtsezko eginkizuna.*
	Ekosistemen kontserbazioaren, biodibertsitatearen eta garapen iraunkorreko eredu bat ezartzearen garrantzia.*
	Klima-aldaketaren kausak eta horrek ekosistemetan dituen ondorioak.*
	Ohitura jasangarrien garrantzia (kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, ingurumenaren errespetatua...)*
	Ingurumenaren, gizakien eta beste izaki bizidun batzuen osasunaren arteko erlazioa: one health (osasun bakarra).

HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa pentsamendua eraldatzen duen diziplina da, giza-kiari, hasiera-hasieratik, ikusezina ikusgai bihurtzeko aukera ematen diona. Forma, egintza eta produkzio artistikoetan hezurmamitzen den pentsamendua; gainera, gizabanakoaren beharrei erantzunez proposamen sortzaileak eta originalak sortzeko gaitasuna ere badu. Amets posiblea da, eta, berari esker, argitaragabea den oro bideragarritzat jo behar da, historia continuum bat balitz bezala ulertzeko. Pertsonaren garapen globala du helburu: epaitzeko, ulertzeko, analizatzeko, interpretatzeko eta gozatzeko ahalmena sustatzeko ezagutza historiko eta kulturala. Jakintzagai hau ez da soilik ikaskuntza kognitibo eta teknikoei dagokienez irakasten; sorkuntza artistikoak eta pentsamendu sortzaileak ez dute baztertzen irrazionala, ausazkoa edo ustekabekoa, emozio pertsonala, eta enpatiaren bidezko komunikazioa eskatzen dute.

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa jakintzagaiak curriculumeko funtsezko konpetentziak garatzen eta oinarrizko hezkuntzan ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du. Jakintzagai hau konpetentzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziari zuzenean loturik dago, sormenarekin zuzenean erlazionatuta. Arte plastikoek, ikusizkoek eta ikus-entzunezkoek pertsonaren garapen holistiko eta harmonikoari laguntzen diote, gure hurkoekin hizkuntza unibertsal baten bitartez, hots, artearen bitartez harremanak izateko premiari erantzuten dioten aldi berean. Halaber, adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoetako edozeinen irudiak deskodetzen laguntzen dute, baita iritzi kritikoa trebatzen ere. Prestakuntza honek are garrantzi handiagoa du gaur egungo irudiaren nonahikotasuna dela-eta.

Ikus-entzunekoa eta teknologikoa gure egunerokotasunean uztartzen dira. Teknologia harrera eta praktika artistikoa demokratizatzen lagundu du, eskaintzen duen aukera-aniztasunarekin aberastu duen aldi berean. Baina manipulatzeko aukerak ere areagotu egin ditu. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleak azterketa kritikoa prestatzea, betiere ezagutzatik abiatuta, eta konpetentzia digitala garatzen laguntzea.

Hezkuntza plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak ezagutzen transferentzia mekanikoa gainditzea sustatzen du, estereotipo kulturalak, sexistak, aurreiritziak eta gizarte-oztopoak gainditzea. Gainera, jarrera kritikoen inguruko prestakuntzarantz bideratzen da eta eraldatzeko aukerak irekitzen ditu, bai indibidualak bai kolektiboak, herritartasunerako konpetentziarekin eta ikasten ikastekoarekin bat.

Sorkuntza artistikoan, proiektu baten ekintzailtzan, faktore ugari eta askotarikoak sartzen dira jokoan, hala nola adimena, ezagutzen mobilizazioa, sentimenduak, bizipen pertsonalak, hainbat sortzailek historian zehar egin dituzten ekarpenak, arreta, hizkuntza, arazo ugarirentzako soluzio sortzailea, plangintza, mota guztietako tresna eta euskarrien erabilera, gogoeta eta autorregulazioa, eta, orobat, etengabeko ebaluazioa. Ikasleek, era berean, zenbait erronka izango dituzte aurrez aurre: proiektu iraunkorren zuzendaritza, hondakinen kudeaketa arduratsua, eta material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Horri esker, ikasleen prestakuntza globala eta ingurumen-hezkuntza ahalbidetuko da. XXI. mendeko erronka eta desafio globalak guztiak ere.

Jakintzagaia lau konpetentzia espezifikotan egituratuta dago, Lehen Hezkuntzako etaparen egiturari jarraipena eman eta Oinarrizko Hezkuntzan koherentzia lortzeko. Konpetentzia espezifikoak dira, definizioaren arabera, arlo honen laguntza zuzenago hartzen duten konpetentzia-ikaskuntzak. Lehenengoa ondarearen kontserbazioa sustatzeko adierazpen artistikoen ezagutzari buruzkoa da. Bigarrenak hainbat produkzioen ikerketa, analisisa eta azalpena hartzen ditu ardatz, eta, bereziki, berdinen berezkoenak, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke. Hirugarrena hizkuntza plastikoekin, ikusizkoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzeari buruzkoa da, baita sorkuntza-prozesuaren parte den sorkuntza indibidualari buruzkoa ere. Eta laugarrenak taldeko produkzioaren garrantzia eta proiektu baten planifikazio, diseinu eta ebaluazio faseak biltzen ditu.

Konpetentzia espezifikoko horien eskuratze-maila planteatutako ebaluazio-irizpideen bitartez zehazten da, horiek ezartzen baitute konpetentziaren eskakizun-maila.

Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzak hiru multzotan egituratzen dira: *Pertzepzio eta hautemate estetikoa*, *Sorkuntza eta interpretazioa*, eta *Jakintza orokorrak*.

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa jakintzagaian planteatutako diren ikaste-egoerek etengabeko ekintza, gogoeta, jarrera irekia eta kolaboratiboa eskatuko dute, ikasleek kultura eta praktika artistiko pertsonal eta iraunkorra eraiki dezaten. Horrela, *ezagutzak*, *trebetasunak* eta *jarrerak* konbinatuz eskuratuko dira konpetentzia espezifikoak. Helburua da ikasleen hurbileko testuinguruei lotutako egoerak sortzea, ikaskuntza esanguratsua bultzatu eta haien jakin-mina piztuko dutenak, identitate pertsonala eta autoestimua gara dezaten.

Jakintzagai honen helburu orokorra, eta irakaskuntza artistikoarena oro har, ahalmen metakognitiboa garatzea da, nor bere mugak etengabe gainditzearen bidez, inprobisazioa eta sormena erabiliz egoera berriak eta ezezagunak ebazteko. Ikaskuntza hori ezinbestekoa da ikasleak bizitza osoan aurre egingo dien desfioei erantzuteko, eta ziurgabetasuna erantzun sortzaileak egituratzeko aukera gisa onartzeko. Baita berekin ekar dezakeen antsietatea egoki kudeatzeko ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zenbait adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko hartze aktiboaren bidez eta hainbat tresnaren erabileraren bitartez ezagutzea eta baloratzea, genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatu beharra ulertzeko.

Zenbait kulturatatik datozen askotariko proposamen artistikoak ezagutu, eskuratu, aztertu, deskribatu, hartu eta ulertzea funtsezko prozesuak dira adierazpen horien aurrean interesa eta balorazioa erakusten duten gizaki kritikoa, enpatikoa, jakin-mina dutenak, begirunetsuak eta sentikorrak eratzeko.

Iraganeko produkzioen aurkikuntzak funtsezko gakoak ematen ditu orainaren interpretaziorako eta etengabeko ikaskuntzarako. Era berean, ondarearen kontserbaziorako erabaki garrantzitsuak hartzea errazten du. Aztertutako adibideen artean genero-ikuspegia txertatuko da, emakumeek egindako produkzio artistikoen azterketaren bitartez.

Funtsezkoa da produkzio artistiko oro testuinguruan kokatzea, behar bezala baloratu ahal izateko, artearen historiaren bilakaerari buruzko ikuspegia izateko, eta, horrekin batera, produkzio horiek sorrarazten dituzten gizartearen bilakaeraren berri izateko.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, ELK1, DK1, PSIIK1, PSIIK3, HK1, HK3, KKAK1.

2. Norberaren eta bere gisakoen produkzioak ikertzea, analizatzea eta azaltzea, ondareko produkzio artistikoak eta ondarea osatzen dutenak erreferentzia gisa erabiliz, interesa erakutsiz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke.

Produkzio plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak inoiz baino zabalagoak dira; hirugarrenak nonahi ageri dira gure gizartean. Horiek ikertzea, aztertzea, azaltzea, aniztasun eta konplexutasun osoan hautemateko, aberasgarria da ikasleentzat; izan ere, artelan plastikoaren, ikusizkoaren eta ikus-entzunezkoaren behaketak berez dakarren plazeraz gain, horietatik sortzen da gizaki ororen identitatearen zati baten eraikuntza, eta hori funtsezkoa da imajinario aberatsa egiteko eta munduaren gaineko begirada enpatikoaren eta aurreiritzirik gabearen oinarriak ezartzeko.

Aldi berean, norberaren eta besteen produkzioak analizatzea, bere gisakoekin esperientziak trukatzeko eta horien bateratze-lana egitea baliagarria izango da ikasleek beren aukerak zabal ditzaten. Ikasleek zenbat eta gehiago ezagutu hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko, orduan eta errazagoa izango da gaur egungo gizartean kultura-elementu gisa duten garrantzia ulertzea. Horren ondorio logikoa izango da sorkuntza artistikoari, oro har, eta haren ikusizko eta ikus-entzunezko adierazpenei, bereziki, begirunez eta tolerantziaz begiratzea.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, ELK3, DK1, PSIIK3, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.

3. Hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzea eta proposamen pertsonalak sortzea, ikerketaren eta praktikaren bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adierazteko eta komunikatzeko, eta hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin garatzeko.

Produkzio artistikoen sorkuntzan erabiltzen diren teknikak eta hizkuntzak ia amaigabeak dira, eta emaitzak gizakiaren sormena bera bezain askotarikoak, ezin baita aurrez zehaztutako formatuetan hertsatu. Horretarako, garrantzitsua da hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin eta sorkuntzarako bitarteko eta tresnekin esperimentatzea.

Ikasleek beren burua modu autonomoan, berezian eta esanguratsuan adierazteko, ikuspegi pertsonala emanaz, forma berriak aztertu, ezagutu eta aurkitu behar dituzte, lortutako emaitzekin esperimentatuz.

Produkzio artistiko bat behar bezala burutzeak porrotaren ideia ikasteko modu gisa onartzea eskatzen du, hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin sustatuz.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: ELK2, STEM, DK2, PSIIK1, PSIIK4, PSIIK5, EKK3, KKAK3 eta KKAK4.

4. Kolaborazioko produkzio kultural eta artistikoen diseinuan, elaborazioan, argudiatzean eta zabal-kundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertentziaren zentzua garatzeko.

Produkzio kultural eta artistikoen sorkuntzan, diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean kolaboratuz parte hartzea funtsezkoa da gizabanakoaren garapen osorako. Era berean, hezkidetzaren ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-produkzioetan esku hartzea; izan ere, kolaborazio-lanak berarekin dakar ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak onartzea eta ulertzea. Zalantzarik gabe, talde-lanak nortasuna aberasten eta eraikitzen laguntzen du, bai sormenezko arte-adierazpenaren bidez, bai teknika plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak erabilia egindako errepresentazioen eta adierazpenen bidez.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, ELK2, STEM1, STEM3, STEM5, DK2, DK3, DK4, PSIIK3, PSIIK4, PSIIK5, HK3, EKK1, EKK2, EKK3, KKAK3 eta KKAK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Hainbat iturritatik produkzio plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko artistikoei buruz bildutako informazioa hautatzea, bereizgarri dituzten elementu nagusiak analizatuz eta pentsamendu kritikoa garatuz, jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakutsiz.
1.2. Zenbait produkzio plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoren inguruko testuingurua ezagutzea, baita horren funtzioa eta xedea ere, ahoz eta/edo idatziz deskribatuz, hiztegi espezifikoa erabiliz, interesa eta errespetua erakutsiz.
1.3. Ondare kultural eta artistiko propioaren kontserbazioaren garrantzia baloratzea, praktika plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoarekin erlazioatutako lanbideak identifikatuz, aberaste pertsonalerako modu gisa.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Hizkuntza artistiko bakoitzaren ezaugarri partikularrak identifikatzea, mota guztietako egile-eskubideekiko interesa eta errespetua erakutsiz.
2.2 Hainbat produkzio artistiko, norberarenak eta bere gisakoenak barne, modu gidatuan analizatzea, munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz.
2.3. Errealitatearen, imajinarioaren eta produkzioaren artean dagoen prozesuaren garrantzia baloratzea, adierazpen-askatasunarekiko errespetuzko portaera erakutsiz, ikuspuntu inklusibotik.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Bere ideiak eta sentimenduak espermentazioaren bidez azalartzea, norberaren adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiliz, bere pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz.
3.2 Norberaren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzea, norberaren imajinaria eta sentsibilitatera joaz, bere mugak gainditzen ahaleginduz, norberaren eta bere gisakoen ezagutza areagotuz, baita bere autoestimua ere.
3.3 Proiektu artistiko indibidual bat sormenez egitea, norberaren mezuak sortzeko modu kontzientean eta materialak, euskarriak eta tresnak maneiatzeko ekimena erakutsiz, iraunkortasun-irizpideekin.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzea, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar.
4.2. Proiektu artistikoen elaborazio-prozesua eta azken emaitza erakustea, besteen iritzia baloratuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa	
A. Pertzepzioa, hautemate estetikoa eta analisisa	
1. Ondare artistikoa eta kulturala.	Artearen historian zeharreko genero artistikoak, genero-ikuspegitik.
	Tokiko ondarekoak eta ondare globalekoak diren adierazpen kulturalak eta artistikoak: alderdi formalen eta testuinguru historikoaren analisisa, genero-ikuspegia txertatuta.*
	Ikusizko hizkuntza eta komunikazioa. Helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetika. Testuinguruak eta funtzioak.
	Ondare artistikoa kontserbatzeko, babesteko eta ezagutarazteko beharra.
	Ondare arkitektonikoa: forma geometrikoak artean eta ingurunean.
	Ikusizko hizkuntza eta komunikazioa. Helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetika. Testuinguruak eta funtzioak.
	Ikusizko eta ikus-entzunezko irudiak: irakurketa eta analisisa.
	Ondare artistikoa kontserbatzeko, babesteko eta ezagutarazteko beharra.
2. Irudiaren eta ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzaren elementu formalak.	Ikusizko hizkuntza komunikazio-modu gisa.
	Ikusizko hizkuntzaren oinarrizko elementuak: puntua, lerroa eta planoak. Adierazpen- eta komunikazio-aukerak.*
	Ikusizko elementuak, kontzeptuak eta adierazpen-aukerak: forma, kolorea eta ehundura.*
	Marrazketa teknikoak hizkuntza gisa.*
	Marrazketa teknikoaren hastapenak.
	Irudi finkoaren eta mugikorren hastapenak: jatorria eta bilakaera.
	Konposizioa. Oreka, proportzioaren eta erritmoaren kontzeptuak, formak planoan eta espazioan antolatzeari aplikatuak.
	Irudi finkoa eta mugikorra: jatorria eta bilakaera. Komikiaren, argazkigintzaren, zinemaren, animazioaren eta formatu digital berrien ezaugarriak.
B. Sorkuntza eta interpretazioa.	
1. Adierazpen artistikoa eta grafiko-plastikoa. Ikusizko eta ikusentzunezko irudia eta komunikazioa. Teknikak eta prozedurak	Eragiketa plastikoen bidezko prozesu sortzailea: erreproduzitu, isolatu, eraldatu eta elkartu.
	Bi dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Teknika lehorrak eta hezeak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.**
	Hiru dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.*
	Ikus-entzunezko produkzio errazak bakarka edo taldean egiteko teknikak. Ikaskuntza-ingurune birtualetan esperimentatzeko estrategiak.
	Prozesu sortzailearen faktoreak eta etapak: materialak eta teknikak hautatzeko eta bozetoak egiteko estrategiak.
Geometria lauaren eta oinarrizko trazatu geometrikoen hastapenak.	
C. Orokorrak.	
Esparru plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko lotutako lanbideak.	
Genero-ikuspegia eta estereotipo-haustura. Lanbide-bokazioaren ezagutza, balorazioa eta sustapena.	
Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak eta publizitatekoak eta argazkigintzakoak hartzean eta sortzean. Ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia, zenbait espazio kultural eta artistikotan, netiketa-arauak kontuan hartuz.*	
Esparru grafiko-plastikoari, diseinuari eta publizitateari, argazkigintzari eta ikus-entzunezko hizkuntzari eta multimediar lotutako hizkuntza eta hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.	
Aniztasunarekiko errespetua.	

Oinarritzko jakintzak. Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa
Errorea ikasteko modua dela eta porrota ere ikasteko modua dela onartzeko estrategiak.
Ahalegina jomugak, helburuak... lortzeko metodo/bide gisa.
Aniztasunarekiko errespetua.
Rolak modu kolaboratiboan hartzea.
Ezagutu, errespetatu eta baloratu behar diren askotariko rola daudela onartzeko eta ulertzeko estrategiak.
Jarrera irekia.
Ahalegina jomugak, helburuak... lortzeko metodo/bide gisa.
Autokonfiantza.
Autokritika.
Jakin-mina.
Ekimena.
Sentsibilitatea.
Pentsamendu kritikoa.

TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA

Teknologia eta digitalizazioa jakintzagaiak curriculumeko funtsezko gaitasunak garatzen eta irteera-profila lortzen laguntzen du. Hala, jakintzagai hau gizarte gero eta digitalizatuagoan ematen diren aldaketa sakonak ulertzeko oinarria da, eta izaera kognitiboa eta prozedurazkoa eta aldi berean jarrerazkoa duten trebetasun jakin batzuk garatzea du xede. Horren adibideak dira, besteak beste, teknologiaren erabilera kritikoa, arduratsua eta iraunkorra, teknologiaren ekarpenen eta gizartean, ingurumen-iraunkortasunean eta osasunean dituen inpaktuen balorazioa, sarean parte hartzeko ezarritako protokoloak eta arauak errespetatzea, eta besteenganako eta norberaren lanarekiko errespetua eta berdintasuna ahalbidetuko dituzten balioak eskuratzea. Jakintzagai honetatik kooperazioa bultzatzen da eta etengabeko ikaskuntza sustatzen da zenbait testuingurutan, XXI. mendearen erronkei erantzuten laguntzen den aldi berean.

Diziplina anitzeko jakintzagaia da, argi eta garbi, eta askotariko ezagutzak, prozedurak eta jarrerak aplikatzea eskatzen du. Proiektuen garapenaren bidez lantzen da, taldea izanik funtsezko ardatza, kooperazioa eta oztopoak gainditzea sustatuz. Zientzien teknikak eta ezagutzak ere erabiltzen dira; beraz, horien aprobetxamendu praktikoa bultzatzen da. Gainera, leku garrantzitsua dute diseinu eta ikuspegi estetiko eta artistikoak, baita komunikazioak ere, askotariko forma eta euskarrietan.

Konpetentzia espezifikoak hertsiki lotuta daude problemen ebazpenarekin, proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren bidez. Era berean, pentsamendu konputazionala lantzen da, baita teknologia digitalak ikaskuntza-prozesuetan txertatzea ere. Jakintzagaia osatzen duten funtsezko beste elementu batzuk honako hauek dira: sormenaren sustapena, kooperazioa, garapen teknologiko iraunkorrekiko edo ekintzailtzarekiko konpromisoa eta ekintza eraldatzaileen proposamena eta exekuzioa. Azkenik, trebetasun sozial eta pertsonalen garapena jorratzen da, edozein jakintzagai irakasteko funtsezko elementu gisa.

Ebaluazio-irizpideek konpetentzia-ikuspegi garbia dute, eta esparru horretan garatzen den metodologia aktiboen bidezko ikaskuntzaren aplikazioa islatzea bilatzen dute. Konpetentzia espezifikoak eta, hortaz, ikasleen irteera-profila betetzea bermatzeko oinarritzko tresnak dira.

Oinarritzko jakintzak sei multzotan egituratzen dira:

- *Problema ebazteko prozesua*: problema tekniko bat identifikatzen denetik haren soluzio konstruktibora iritsi arte aurrera egitea ahalbidetzen duten trebetasunak eta metodoak garatzea du aztergai.

- *Ideen komunikazioa eta zabalkundea*: kultura digitalaren berezkoak; tresna digitalen bidezko interakzio pertsonalean trebetasunak garatzea dakarte berekin.
- *Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika*: ordenagailurako eta gailu mugikorretarako aplikazio informatiko errazak diseinatzeko eta garatzeko algoritmikaren oinarriak hartzen ditu, baita prozesuen automatizazio programatua, eguneroko objektuen Internetekiko konexioa eta robotika ere.
- *Ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa*: ekipamenduak eta aplikazioak konfiguratu, doitu eta mantentzera bideratuta dago, ikasleentzat erabilgarriak izan daitezzen eta haien bizitza osoko ikaskuntzarako gaitasuna optimiza dezaten.
- *Teknologia iraunkorra*: estrategia iraunkorrak garatzeko ekintzak abian jartzea dakarten proiektuak garatzea aintzat hartzen du, eta teknologiaren ikuspuntu etikoa txertatzen du arazo ekosozialei zeharkakotasunetik konponbidea emateko.
- *Zentzu sozioemozionala*: emozioak ulertzeko eta maneiatzeko, jomugak ezartzeko eta erdiesteko, eta erabaki arduratsu eta informatuak hartzeko gaitasuna handitzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratzen ditu; hori guztia zuzentzen da ikasleen errendimendua hobetzera eta jakintzagai honekiko jarrera negatiboak murriztera, ikaskuntza aktiboa sustatzera eta genero-estereotipoekin edo jakintzagai hau jorratzeko behar den sortzetiko talentuaren mitoarekin erlazionatutako alde zuzeneko ideiak desagerraraztera.

Jakintzagaiaren izaera funtsean praktikoak eta curriculumaren konpetentzia-ikuspegiak hura sustatuko duten metodologia espezifikoak eskatzen ditu. Horixe da arlo honetako proposamena. Era berean, zenbait lan-teknika osagarriren aplikazioak eta jakintzagaian esku hartzen duten askotariko ikaste-egoe-rek sustatu behar dute ikasleek diziplinaren ikuspegi integralarekin parte hartzea. Gure gizarteak arrakala digitala eta genero-arrakala murrizteko planteatzen dituen desafio eta erronka teknologikoen aurrean duen esfera soziala nabarmendu behar da, eta arreta berezia jarri behar zaio konpetentzia digitalak berdintasun-baldintzetan eskuratzea oztokatzen duten estereotipoak desagerrarazteari.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Hainbat iturritatik datorren informazio egokia modu kritiko eta seguruan bilatzea eta hautatzea, ikerketa-prozesuak eta produktuak analizatzeko metodoak aplikatuz eta simulazio-tresnekin esperimentatuz, problema teknologikoak definitzeko eta, lortutako informaziotik abiatuta, soluzioak sortzeko prozesuak hasteko.

Konpetentzia espezifiko honek edozein proiektu teknikoren lehen erronka jorratzen du: ebatzi beharreko problema edo beharra definitzea. Hainbat iturritatik abiatuta ikertu behar da, eta lortutako informazioaren fidagarritasuna eta egiazkotasuna ebaluatu behar dira, jarrera kritikoarekin. Gainera, gailuetan eta aplikazioetan datuak masiboki transmititzeak prebentzio-neurriak hartu beharra dakar, gailuak, osasuna, ingurumena eta identitate digitala babesteko. Kontua da, laburbilduz, informazioaren erabilera etikoa, arduratsua eta osasungarria egitea, informazioa lortzen denetik transmititzen den arte.

Bestalde, problema definitu ondoren, haren analisi metodikoa egin behar da. Prozesu horrek problema ebazteko lehen proposamenak planteatzera eraman behar gaitu. Proposamen horiek pentsamendu sortzailearen aktibaziotik sortzen dira, eta modu kooperatiboan, ekitatez eta demokratikoki eztabaidatu behar dira lantaldearekin, dauden aukerak baloratzeko modurik egokienak elkarrekin planteatzeko. Fase honetan lehen bozetoak egiten dira, eta, beharrezkotzat jotzen bada, simulazioak egin daitezke tresna birtual egokiak erabilia.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM2, KD1, KD4, KPSII4 eta EK1.

2. Problema teknologikoei autonomia eta jarrera kritikoarekin aurre egitea, diziplina arteko ezagutzak aplikatuz eta modu antolatu eta kooperatiboan lan eginez, problema edo behar baterako soluzioak modu eraginkor, berritzaile eta iraunkorrean diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko.

Kompetentzia hau sormenarekin eta ekintzaitzarekin lotzen da, diziplinaren oinarriko bi zutaberekin. Betekizun jakin batzuk bete behar dituzten problema definituetarako soluzioak asmatzeko eta diseinatzeko teknikak eta tresnak ematen dizkie ikasleei. Gainera, problemaren ebazpen sortzailearen prozesuan zehar modu pertsonalean edo taldean bete beharko dituzten zereginen antolaketan orientatzen ditu ikasleak. Horrek guztiak beharrezko baliabideak planifikatzea, aurreikustea eta prozesu osoan lan kooperatiboa sustatzea eskatzen du. Emaizta zehatzak lortzeko egiten zaie aurre erronkei, soluzio bideragarriak eta iraunkorrak emanez, jarrera ekintzailea eta sortzailea izanik.

Halaber, espirtu kritikoa eta autoebaluazioa sustatzen dira, lortutako emaitzak zenbatetsiz, etengabeko hobekuntzako zikloekin jarraitzeko. Ildo horretan, ezinbestekoa da ezagutzak diziplina arteko trebetasun eta jarrera jakin batzuekin konbinatzea. Autonomia, berrikuntza, sormena, emaitzen balorazio kritikoa, kooperazio-lana, erresilientzia eta ekintzaitza bezalako kontzeptuak egunero erabiltzen dira jardun horretan.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM3, KD3, KPSII3, KPSII5, EK1 eta EK3.

3. Diziplina anitzeko zenbait teknika eta ezagutza modu egokian aplikatzea, operadoreak, sistema teknologikoak eta tresnak erabiliz, plangintza eta alde zuzeneko diseinua kontuan hartuz, beharrei zenbait testuingurutan erantzuneko soluzio teknologikoak eta iraunkorrak eraikitze edo fabrikatzeko.

Kompetentzia honek, alde batetik, eskuzko eraikuntzako prozesuak eta fabrikazio mekanikoa ditu aztergai, eta, bestetik, operadoreei eta sistema teknologikoei buruzko ezagutzen aplikazioa. Hori guztia prototipoak alde zuzeneko diseinu eta plangintzaren arabera eraikitze edo fabrikatzeari aplikatuta. Prozesu sortzailean abiarazten diren jarduketek diziplina anitzeko ezagutza integratuen esku-hartzea dakarte berekin.

Halaber, laneko segurtasunari eta higieneari buruzko arauak material, tresna eta makinekin aplikatzea ikasleen osasunerako funtsezkoa da. Erabili behar diren tekniketako askoren berezko arriskuak saihestu behar dira. Kompetentzia honek ere lanabes, baliabide eta tresna fisiko zein birtualen erabilerarekin erlacionatutako genero-isuririk gabeko abileziak eta trebetasunak garatzea eskatzen du, baita zailtasunak gainditze, motibazioari eta lanarekiko eta horren kalitatearekiko interesari lotutako jarrerak ere.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM3, STEM5, KD4, KD5, KPSII1, EK3 eta KAKK3.

4. Problema teknologiko edo digitaletarako ideiak edo soluzioak deskribatzea, irudikatzea eta trukitzea, irudikapen-bitartekoak, sinbologia, hizkuntza-baliabideak eta hiztegi egokia erabiliz, baita erabilgarri dauden tresnak eta baliabideak ere, eta informazioa eta proposamenak komunikatzeko eta ezagutarazteko tresna digitalen erabilgarritasuna baloratuz.

Kompetentziak ideiak adierazteko eta komunikatzeko behar diren alderdiak hartzen ditu. Proposamenen adierazpena, diseinuen irudikapena, iritzien adierazpena eta abar ditu aztergai. Halaber, prozesuari buruzko dokumentazio teknikoaren komunikazioa eta zabalkundea ere barne hartzen du. Alderdi horri dagokionez, tresna digitalen aplikazioa kontuan hartu behar da, bai informazioa lantze edo komunikazio-kanalei berei dagokienez.

Kompetentzia honek eskatzen du, gainera, azalpenetan hizkuntza egoki erabiltzea eta adierazpen grafiko eta terminologia teknologikoa, matematikoa eta zientifikoa txertatzea. Igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio egokia bermatu behar da, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, kultura-aniztasuna eta haren adierazpideak errespetatuz. Horrek kolaborazio-lanerako jarrera positiboa eskatzen du, bai aurrez aurreko testuinguruan, bai sareko jarduketetan.

Arreta jarri beharko zaio, hortaz, ikasleen hizkuntza-trebakuntzari. Horretarako behar-beharrezkoa izango da hizkuntza-egiturak, testuari dagozkionak eta hizkuntza teknologikoaren berezko terminologia jakintzagaiaren komunikazio-hizkuntzan lantzea, eta ikasleen hizkuntza-adierazpenak errespetatzea, hartzea, ikusaraztea eta balioztatzea, ikaskuntza teknologikoan laguntzeko barne hartuz.

Komunikatzeko, datuak eta informazioa partekatzeko eta modu kolaboratiboan lan egiteko tresnen, plataforma birtualen edo sare sozialen bidezko interakzioa zainduko da. Gainera, esparru digitaleko komunikazio- eta portaera-kode espezifikoak aplikatuko dira, hau da, «etiketa digitala» esaten zaiona.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM4, KD3, KAKK1, KAKK3 eta KAKK4.

5. Zenbait ingurunetan algoritmoak eta aplikazio informatikoak garatzea, pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatuz eta teknologia berriak txertatuz, problema zehatzetarako soluzioak sortzeko, prozesuak automatizatzeke eta kontrol-sistemetan edo robotikan aplikatzeko.

Konpetentzia honek pentsamendu konputazionalaren printzipioak prozesu sortzailean aplikatzea du aztergai. Planteatutako problemaren deskonposizioa, informazioaren egituraketa, problemaren modelizazioa, prozesuaren sekuentziazioa eta programa informatiko batean inplementatzeko algoritmoen diseinua dakartza berekin. Horiek horrela, helburu zehatz bat lortzeko planteatutako algoritmoak diseinatzera eta aktibatzea bideratuta dago konpetentzia. Algoritmo batek gobernatuko dituen zenbait sarrera eta irteera izango dituen aplikazio informatiko baten garapenarekin, prozesu baten automatizazioarekin edo makina baten kontrol-sistema garatzearekin lotuta egon daiteke. Hots, objektuen edo makinaren kontrolean teknologia digitala aplikatzea proposatzen da.

Gainera, teknologia berrien irismena kontuan hartu beharko da, hala nola Gauzen Internetena, Big Datarena edo adimen artifizialarena (AA), gure eguneroko bizitzan aurki ditzakegu-eta. Egungo tresnei esker, haiek prozesu sortzailean txerta daitezke, ikasleengana hurbilduz eta haien oinarrien ikuspegi teknikoa eskainiz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM1, STEM3, KD5, KPSII5 eta EK3.

6. Ikaskuntza-ingurune digitaleko ohiko gailu eta aplikazioen funtzionamenduaren oinarriak ulertzea, haien osagaiak eta funtzioak analizatuz eta bere beharretara egokituz, haiek modu efiziente eta seguruagoan erabiltzeko eta problema tekniko errazak hautemateko eta ebazteko.

Konpetentzia honek ikaskuntza-ingurune digitalean biltzen diren elementuen ezagutza, analisi kritikoa, erabilera segurua eta mantentze-lanak ditu aztergai. Teknologia gaur egun gure bizitzetan duen presentzia handitzeak beharrezkoa egiten du tresna digitalak etengabeko ikaskuntza-prozesuan integratzea. Hori dela eta, konpetentzia honek barnean hartzen ditu prozesuan inplikaturik dauden gailuen funtzionamenduaren ulermena eta gorabehera txikien identifikazioa. Horretarako behar-beharrezkoa da erabilitako hardwarearen arkitektura, elementuak eta gailuaren barruan betetzen dituzten funtzioak ezagutzea.

Bestalde, ikaskuntza-ingurune digitalean barne hartutako software-aplikazioek erabiltzailearen behar pertsonaletara egokitutako konfigurazioa eta doikuntza eskatzen dute. Agerian jartzen da beharrezkoa dela elementu horien oinarriak eta funtzionalitateak ulertzea, baita elementu horiek zenbait testuingurutan aplikatu eta transferitzea ere, etengabeko ikaskuntza bultzatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KD4, KD5, KPSII4 eta KPSII5.

7. Teknologia modu arduratsu eta etikoan erabiltzea, garapen iraunkorrekiko interesa erakutsiz, haren ondorio ekosozialak identifikatuz eta teknologia berrien ekarpena baloratuz, garapen teknologikoak gizartean eta ingurunean dituen ekarpenak eta inpaktuak identifikatzeko.

Konpetentzia espezifikoa honek teknologia jarrera etiko, arduratsu eta iraunkorrarekin erabiltzea eta garapen teknologikoa eta gizartean eta ingurumen-iraunkortasunean duen eragina analizatzeko eta baloratzeko trebetasuna ditu aztergai. Azken hori teknologiak historian zehar pertsonen beharrei konponbidea emateko jarraitu duen prozesua ulertzeari dagokio. Teknologiak bizi-baldintzak hobetzeko egindako ekarpenak eta teknologiaren erabilerak berak gizartean eta ingurumenean izan dezakeen inpaktua murrizteko soluzioen diseinua barne hartzen dira. Ildo horretan, garapen teknologikoaren baldintza eta ondorio ekosozialak baloratu behar dira, baita komunikazioaren teknologiak, robotika, adimen artifiziala eta abar ezartzeak bizitza pertsonalean, gizarte-egituran eta lanaren antolaketan eragin dituzten aldatetako ere.

Azken batean, konpetentzia espezifikoa honen garapenak berekin dakar ikasleek teknologia digitalen bilakaerarekiko intereseko eta jakin-mineko jarrerak eta, aldi berean, garapen iraunkorrarekiko eta haien erabilera etikoarekiko jarrerak garatzea. Halaber, emakumeek teknologia digitalen garapenari egindako ekarpenaren balioa nabarmenduko da, haien bokazio zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KD4 eta HK4.

8. Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak ezagutzeko, eta emozioak eta esperientziak modu eraginkorrean identifikatzeko eta kudeatzeko, ongizate pertsonala sustatzeko eta ikasleei beren ikaskuntza hobetzeko eta ezarritako helburuak lortzeko aukera emango dieten harreman osasungarriak sortzeko.

Problema teknologikoa edo teknologiak esku hartzen duen erronka globalagoak ebaztea lan atsegina izan behar da. Teknologiaren ikaskuntzaren barruan trebetasun emozionalak ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta hura ikasteko interesa sustatzen dituzte. Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar emozioak genero-ikuspegitik identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzeko, jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka teknologikoa berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea.

Errespetua, tolerantzia, berdintasuna edo gatazken ebazpen baketsua lantzeak, erronka teknologikoa ebazten dituzten aldi berean, komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuz, laneko harreman eta ingurune osasungarriak sortzeko, ikasleei aukera ematen die autokonfiantza finkatzeko eta berdintasunezko bizikidetzako egoerak normalizatzeko. Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar besteekiko enpatia erakustea, harreman positiboak ezartzea eta mantentzea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa trebatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Halaber, kontu indibidualekin eta/edo sozialekin loturik dauden teknologiari buruzko estereotipoak eta alde aurreko ideiak apurtzea sustatu behar da, adibidez generoaren edo teknologiarako gaitasunaren ingurukoak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, EK2, EK3, KE3, HK2, HK3, KD3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Teknologia eta digitalizazioa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Planteatutako problemak edo beharrak definitzea, zenbait iturritatik datorren informazioa modu kritiko eta seguruan bilatzeko eta kontrastatzeko, eta haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz.
1.2. Erabili ohi diren produktu teknologikoa ulertzea eta aztertzea, objektuen eta sistemen analisiaren bitartez, metodo zientifikoa eta simulazio-tresnak erabiliz ezagutza eraikitzeko.
1.3. Gailuak, datuak eta osasun pertsonala babesteko prebentzio-neurriak hartzea, teknologiaren erabilerarekin erlazionatutako problemak eta arriskuak identifikatzeko eta modu etiko eta kritikoa analizatzeko.

Ebaluazio-irizpideak. Teknologia eta digitalizazioa
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Definitutako problemetarako soluzio originalak asmatzea eta diseinatzea, diziplina arteko kontzeptu, teknika eta prozedurak aplikatuz, jarrera ekintzailea, jarraikia eta sortzailea erakutsiz.
2.2. Materialak eta tresnak, eta planteatutako problema baterako soluzioa eraikitzeke behar diren zereginak hautatzea, planifikatzea eta antolatzea, bakarka edo taldean modu kooperatiboan lan eginez.
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Objektuak edo ereduak materialen manipulazioaren eta konformazioaren bidez fabrikatzea, tresna eta makina egokiak erabiliz, egituren, mekanismoen, elektrizitatearen eta elektronikaren oinarriak aplikatuz eta segurtasun- eta osasun-arauak errespetatuz.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Produktu bat sortzeko prozesua diseinatzen denetik hedatzen den arte irudikatzea eta komunikatzea, dokumentazio teknikoa eta grafikoa landuz tresna digitalen laguntzarekin, formatu eta hiztegi tekniko egokiak erabiliz, modu kolaboratiboan, bai aurrez aurre bai urrunetik, kultura-aniztasuna eta haren adierazpideak errespetatuz.
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Problema informatikoetarako soluzioak deskribatzea, interpretatzea eta diseinatzea, algoritmoen eta fluxu-diagramen bitartez, programazio-elementuak eta -teknikak modu sortzailean aplikatuz.
5.2. Zenbait gailutarako (ordenagailuak, gailu mugikorrek eta bestelakoak) aplikazioak programatzea, programazio-elementuak behar bezala erabiliz eta funtzionalitateak gehitzen dituzten adimen artifizialeko moduluak eta edizio-tresnak aplikatuz.
5.3. Prozesuak, makinak eta objektuak modu autonomoan automatizatzea, Internet konexioarekin, roboten eta kontrol-sistemen analisiaren, eraikuntzaren, programazioaren eta abian jartzearen bidez.
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Egunerok erabiltzen diren gailu digitalak modu efiziente eta seguruan erabiltzea problema errazak sormenez ebaztean eta askotariko elementu teknologikoak maneiatzean, osagaiak eta komunikazio-sistemak analizatuz, arriskuak ezagutuz eta datuak eta ekipamenduak babesteko segurtasun-neurriak hartuz.
6.2. Edukiak sortzea, materialak lantzea eta zenbait plataformatan ezagutzera ematea, ikaskuntza-ingurune ohiko tresna digitalak behar bezala konfiguratzuz, beren beharretara egokituz eta egile-eskubideak errespetatuz.
6.3. Informazioa modu egituratuan antolatzea, datuen biltegitratze seguruko teknikak aplikatuz bai gailu lokaletan bai hodeian.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1. Jarduera teknologikoak historian zehar euskal gizartean eta ingurumen-iraunkortasunean izan duen eragina ezagutzea, herrialdearen ekonomian izan dituen ekarpenak eta ondorioak identifikatuz eta emakumeek egin duten ekarpena eta garraren iraunkorrerako duen garrantzia baloratuz.
7.2. Teknologia berriek ongizateari, gizarte-berdintasunari eta ingurumen-inpaktuaren murrizketari egindako ekarpena identifikatzea, haiek modu arduratsu eta etikoan erabiliz.
8. kompetentzia espezifikoa
8.1. Norberaren emozioak kudeatzea eta autokontzeptu zientifiko-teknologikoa tresna gisa garatzea, erroreak hobetzeko aukera gisa onartuz eta erronka berrien aurrean itxaropen positiboak sortuz.
8.2. Kooperazio-taldeetako lanean aktiboki eta sormenez parte hartzea eta kolaboratzea, entzute aktiboko jarrerak, esleitutako rolaerako erantzukizuna eta emakumeen inklusioaren eta ahalduntzearen aldeko portaerak erakutsiz, eta gatazkak kudeatzean jarrera enpatikoa erakustea.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Teknologia eta digitalizazioa
A. Problema ebazteko prozesua
Problema zenbait testuingurutan eta horien faseetan ebazteko estrategiak, teknikak eta esparruak.*
Planteatutako problema ikertzeko eta definitzeko informazioa modu kritikoa bilatzeko estrategiak.*

Oinarrizko jakintzak. Teknologia eta digitalizazioa	
Ezagutza zenbait ikuspegi eta esparrutatik eraikitzeko produktuen eta sistema teknologikoen analisia.*	
Ereduak eraikitzeko egiturak.*	
Oinarrizko sistema mekanikoak. Muntaketa fisikoak eta/edo simulagailuen erabilera.*	
Eskema eta zirkuitu fisikoak edo simulatuak muntatzeko oinarrizko elektrizitatea eta elektronika. Interpretazioa, kalkulua, diseinua eta proiektuetako aplikazioa.*	
Material teknologikoak eta horien ingurumen-inpaktua.*	
Objektuak eta prototipoak eraikitzeko materialak manipulatzeko eta mekanizatze teknika eta tresnak.* Fabrikazio digitalaren hastapenak. Segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.*	
Problemei diziplina anitzeko ikuspegitik aurre egiteko ekintzaitza, erresilientzia, jarraitutasuna eta sormena.	
B. Ideien komunikazioa eta zabalkundea	
Hizkuntza-egitura eta hiztegi tekniko egokiak. Pertsonen artean komunikatzeko oinarrizko trebetasunak. «Etiketa digitala» ingurune birtualaren berezko portaera-jarraibideak. Kultura-aniztasuna ezagutzeko estrategiak.*	
2D eta 3D irudikapen grafikoko teknikak. Kota-ezarpenera eta eskalak.*	
Eskemak, zirkuituak, planoak eta objektuak irudikatze 2 eta 3 dimentsioko CAD aplikazioak.	
Proiektuei buruzko dokumentazio tekniko eta multimedia-informazioa lantzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko tresna digitalak. Urruneko ingurune komunikazioa.*	
C. Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika	
Algoritmia eta fluxu-diagramak. Programazio-ingurune birtualak.*	
Ordenagailurako eta gailu mugikorretarako aplikazio informatiko errazak eta adimen artifizialaren hastapenak.*	
Kontrol programatuko sistemak. Muntaketa fisikoa eta/edo simulagailuen erabilera eta gailuen programazio erraza. Gauzen Internet.*	
Robotikaren oinarriak. Roboten muntaketa eta kontrol programatua, fisikoki edo simulagailuen bidez.*	
Autokonfiantza eta ekimena. Errorea, sormena, berrebaluazioa eta arazketa ikasteko prozesuaren parte gisa.	
D. Ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa	
Gailu digitalak. Hardwarearen eta softwarearen elementuak. Problema tekniko errazen identifikazioa eta ebazpena.*	
Ohiko erabilerako komunikazio digitaleko sistemak. Datuen transmisioa. Komunikaziorako hari gabeko teknologiak.*	
Ikasteko tresnak eta plataformak. Konfigurazioa, mantentzea eta erabilera kritikoa.	
Edukiak sortzeko eta editatzeko tresnak.* Instalazioa, konfigurazioa eta erabilera arduratsua.* Jabetza intelektuala.* Informazioa tratatzeko, antolatze eta segurtasunez biltegitzeko teknikak.* Babeskopiak.	
Sareko segurtasuna: arriskuak, mehatxuak eta erasoak.* Ongizate digitala. Gailuak, osasuna, ingurumena eta datu pertsonalak babesteko estrategiak. Identitate digitalaren kontzeptua.*	
E. Teknologia iraunkorra	
Garapen teknologikoa: sormena, berrikuntza, ikerketa, zaharkitzea eta gizarte- eta ingurumen-inpaktua. Teknologia berrien etika eta aplikazioak.*	
Teknlogiek Euskal Herriaren gizarte-garapenean duten garrantzia.	
Teknologia iraunkorra. Garapen iraunkorrerako helburuak lortzeko ekarpenaren balorazio kritikoa.*	
Emakumeek konpetentzia teknologiko eta digitalen garapenari egindako ekarpena.*	
F. Zentzu sozioemozionala	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Ingurune fisiko eta birtualetan problema teknologikoak ebazteko jakin-mina, sormena, ekimena, jarraitutasuna eta erresilientzia.*
	Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak: autokontzientzia eta autorregulazioa
	Malgutatsun kognitiboa eta, behar denean, estrategia-aldaketarekiko irekitasuna, errorea ikasteko aukera bihurtuz.*

Oinarrizko jakintzak. Teknologia eta digitalizazioa	
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	Talde-lana optimizatzeko kooperazio-teknikak eta hezkidetzakoak hautatzeko estrategiak. Ingurune fisiko eta birtualetan gatazkak kudeatzeko jokabide enpatiko eta asertiboen eta estrategien erabilera.*
	Egoera problematikoak ebazteko erabaki egokiak hartzeko metodoak.
	Emakumeak erantzukizuneko eta lidergoko roletan ahalduntzeko eta ikusarazteko estrategiak.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Jarrera inklusiboak eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunaren onarpena.*
	Teknlogiek eta digitalizazioak giza ezagutzaren esparruen garapenari egindako ekarpena genero-ikuspegitik ezagutzeko estrategiak.

ADIERAZPEN ARTISTIKOA

Laugarren mailan aukerakoa izango den jakintzagai honen helburu nagusia da ikasleei adierazpenerako eta sorkuntzarako hurbilketa bat erraztea, haiek beste modu batera begiratzeko, jarduteko eta egiteko duten ausardia bultzatzea, norberaren baliabideetatik eta erreferente kultural eta artistikoetatik abiatuta sortzeko jokabidea sustatuz eta ikasleak artean, artearen bitartez eta artearengatik emozionalki inplikatuz. Aldi berean, ikasleen adimen emozionala garatuko du, norberaren hutsegiteekin ikasteko prestatuko ditu, eta beren eta gainerakoen emozioak ezagutzen lagunduko die.

Adierazpen artistikoak hainbat prozesu kognitibo, kultural, emozional eta afektibo abian jartzea dakar, guztiak pentsamendu sortzaile berean inplikatu daitezten eta bertan elkarreragin dezaten. Gainera, curriculumaren funtsezko kompetentziak garatzen eta oinarrizko hezkuntzan ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du. Praktika artistikoaren bidez, ikasleek beren pentsamendu sortzaile eta dibergentea jarriko dute abian, kontzientzia eta adierazpen kulturaletarako kompetentziari eta ekintzailtza-kompetentziari lotuta. Era berean, praktika horrek autoafirmazioa, balio pertsonalen garapena eta nortasunaren eraikuntza sustatuko ditu, eta, horren bidez, kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa landuko du.

Sortzeko prozesuaren barruan, proiektuen planteamenduan eta garapenean, STEM kompetentzia landuko da. Ikasleek beren erabakiez arduratzen eta gainerakoen iritzia kontuan hartzen ikasiko dute, eta konpromisoaren zentzu handiagoa eta berdinekin edo helduekin elkarlanean lan egiteko gaitasun handiagoa izango dute; eta, hori guztia, herritartasunerako kompetentziarekin lotuta.

Prozesu horren guztiaren, bizi izandako esperientzien, erabilitako estrategia eta baliabideen, egindako hutsegiteen eta lortutako aurrerapenen azterketak eta ebaluazioak lagungarriak izango dira sormenak ezagutza-baliabide gisa eta problemak ebazteko baliabide gisa duen balioaz jabetzeko. Horretaz jabetzeak, aldi berean, ikaskuntzak antzeko egoeretan edo beste testuinguru batzuetan berrinbertitzea bultzatuko du.

Aldi berean, ikasleek proiektu iraunkorren zuzendaritza, hondakinen eta segurtasunaren kudeaketa arduratsua eta material artistikoen toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua landuko dituzte, eta hori lagungarria izango da ikasleen prestakuntza global eta ingurumen-hezkuntza baterako. Guztiak XXI. mendeko erronka globalak izango dira.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, lau kompetentzia espezifiko ezarri dira eta jarraitutasuna eman zaio Lehen Hezkuntzako etaparen egiturari, Oinarrizko Hezkuntzan koherentzia lortzeko. Kompetentzia espezifikoak jakintzagai honen ekarpenik zuzenena jasotzen duten kompetentzia-ikaskuntzak dira. Lehen ondarearen kontserbazioa sustatzeko adierazpen artistikoen ezagutzari lotuta dago. Bigarrenak hainbat ekoizpenen ikerketa, analisisa eta azalpena ditu ardatz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinario propioa hornitzeko. Hirugarrena hizkuntza grafiko-plastikoen eta ikus-entzunezkoen esperimentazioari, sorkuntza indibidualari eta berrikuntzari lotuta dago, sortzeko prozesuaren parte diren heinean. Laugarrenak taldeko ekoizpenak duen garrantzia eta proiektu bat planifikatu, diseinatu eta ebaluatzeke faseak ditu ardatz.

Konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila planteatu diren eta konpetentziaren eskakizun-maila ezartzen duten ebaluazio-irizpideen bitartez zehazten da.

Oinarriko jakintzak hiru multzotan egituratuta daude, eta haietako bat orokorra da. Beste bi multzoak bi ardatzetan egituratuta daude: Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta Sorkuntza eta interpretazioa. Eta haietako bakoitzaren barruan, hiru atal daude: Teknika grafiko-plastikoak, Diseinua eta publizitatea, eta Argazkigintza, ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia.

Jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikasleei beren prestakuntza-prozesuaren protagonista izatea ahalbidetuko dieten ikas-egoera batzuk beharko dira. Horretarako, adierazpen artistikoko hainbat esperientzia ikertu eta material tradizional eta alternatiboak eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliko dira. Egoera horiek lagungarriak izango dira autoestimua indartuko duten eta identitatea eta jarrera sortzailea garatuko duten diziplina anitzeko abileziak, trebetasunak eta ezagutzak garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Adierazpen kulturalak eta artistikoak genero-alborapenik gabe ezagutzea eta baloratzea, harrera aktiboa eta hainbat tresna erabiliz, jakin-minez, sentikortasunez eta errespetuz, munduaren ezagutza sakona eta kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatzeko beharra ulertzeko.

Hainbat kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, eskuratzea, aztertzea, deskribatzea, jasotzea eta ulertzea funtsezko prozesuak dira gizaki kritikoak, enpatikoak, ikusnahiak, begirunetsuak, sentiberak eta adierazpen horien aurrean interes- eta balorazio-jarrera bat agertzen dutenak prestatzeko.

Prozesu horretan, eta ekoizpen artistikoak behar bezala baloratzeko, funtsezkoa da ekoizpen horiek testuinguruan kokatzea. Horrek, aldi berean, ekoizpen horiek sortu diren edo sortu ziren gizartearen ezagutza sakonagoa eta toleranteagoa ekarriko du. Alderdi hori lantzean, ondare artistiko komuna kontserbatu, zaindu eta zabaltzearen garrantzi handia ulertuko dute ikasleek, beren identitatea osatzen lagunduko dien ondarerik hurbilenarekin hasi eta identitatea aberastuko duen gizateria osoaren ondarea ezagutu arte. Aztertutako adibideen artean, genero-ikuspegia txertatuko da eta emakumeek egindako ekoizpen artistikoak aztertuko dira.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1.

2. Ekoizpen propioak, berdinen ekoizpenak eta ondarearen parte direnak ikertzea, aztertzea eta azaltzea, interesa agertuz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinario propioa hornitzeko.

Ekoizpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko garaikideak inoiz baino zabalagoak dira, eta azken horiek nonahi daude gure gizartearen. Ekoizpen horiek ikertzea, aztertzea eta azaltzea (haien aniztasun eta konplexutasun osoa hautemateko) aberasgarria da ikasleentzat; izan ere, artelan plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak behatzeak dakarren plazeraz gain, artelan horiek gizaki ororen identitatearen zati bat eraikitzeke oinarriak dira, eta hori funtsezkoa da imajinario aberats bat lantzeko eta munduari zuzendutako begirada enpatiko eta aurreiritzirik gabeko baten oinarriak finkatzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, ikasleek ulertzea mezu artistiko eta kulturalen konplexutasun osoaz jabetzeko analisi-lan bat egin behar dela. Lan horrek artelan orok behar duen sorkuntza-prozesuaz neurri handiagoan jabetzea ahalbidetuko du, eta horrek balioa eta sendotasuna emango dio sorkuntzaren inguruko esperientzia propioari. Horretan oinarrituta, eta erabilitako hizkuntzak aktiboki bereganatuz, ikasleek diskurtso pertsonal bat sortu ahal izango dute aurrerago.

Aldi berean, ekoizpen propioak eta kanpokoak aztertzeak, berdinekin esperientziak partekatzeak eta esperientzia horiek bateratzeak ikasleek beren ikuspegia zabaltzeko balio behar dute. Ikasleek hizkuntza plastikoei, ikusizkoei eta ikus-entzunezkoei buruzko zenbat eta ezagutza handiagoa izan, orduan eta

errazagoa izango da egungo gizartean kultura-elementu gisa duten garrantzia ulertzea. Horren ondorio logiko bat sorkuntza artistikoari —oro har— eta haren ikusizko eta ikus-entzunezko adierazpenei —be-reziki— begirune eta tolerantzia handiz begiratzea izango da.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE3, KD1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2

3. Hizkuntza grafiko-plastikoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimendatzea eta proposamen pertso-nalak sortzea ikerketaren, berrikuntzaren eta praktikaren bidez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormeneaz adierazi eta komunikatzeko eta hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gai-tasuna jarrera irekiarekin garatzeko.

Ekoizpen artistikoak sortzean, erabil daitezkeen teknikak eta hizkuntzak ia mugagabeak dira, eta emaitzak gizakiaren sormena (aurrez finkatutako formatu batean itxi ezin dena) bezain askotarikoak dira. Horretarako, garrantzitsua da hizkuntza plastikoekin, ikusizkoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimen-tatzea, baita sorkuntzarako baliabide eta tresnekin ere bai.

Ikasleek gauzak modu autonomo, berezi eta esanguratsuan eta ikuspegi pertsonal bat emanaz adieraz-tea lortzeko, forma berriak ikertu, ezagutu eta aurkitu behar dituzte eta lortutako emaitzekin esperimen-tatu eta berriitu behar dute.

Ekoizpen artistiko bat behar bezala burutzeko, beharrezkoa da porrotaren ideia ikasteko modu gisa onartzea eta hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gaitasuna jarrera irekiarekin sustatzea.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: KE2, STEM1, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

4. Kolaborazioan oinarritutako ekoizpen kultural eta artistikoak diseinatzeko, lantzen, argudiatzen eta zabaltzen parte hartzea, prozesuaren balioa agerian jarriz eta azken emaitza lortzeko hainbat rol bere gain hartuz, sormena, egiletzaren nozioa eta kide izatearen zentzua garatzeko.

Ekoizpen kultural eta artistikoak sortzen, diseinatzeko, lantzen eta zabaltzen parte hartzea funtsezkoa da gizabanakoa bete-betean garatzeko. Era berean, hezkidetzeta-ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-ekoiz-penetan esku hartzea, kooperazioa-lanal ezagutu, errespetatu eta baloratu beharrek askotariko rolak daudela onartzea eta ulertzea baitakar. Zalantzarik gabe, kooperazioak identitatea aberasten eta erai-kitzen laguntzen du sormenezko adierazpen artistikoen eta teknika plastikoak, ikusizkoak eta ikus-en-tzunezkoak erabiliz egindako hainbat emankizun eta adierazpenen erabileraren bidez.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE2, STEM1, STEM3, STEM5, KD2, KD3, KD4, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK3, EK1, EK2, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Adierazpen artistikoa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Hainbat adierazpen artistikoren arteko puntu komunak nabarmentzea, pentsamendu kritikoarekin, elkarrekiko harremanak eta eragin partekatutak ulertuz, haien mezuen asmoak aurreiritzirik gabe identifikatuz eta hiztegi espezifikoa erabiliz.
1.2 Artea mundua ezagutzeko eta ulertzeko modu gisa balioestea, adierazpen kultural eta artistikoen funtsezko alderdiei, gizartean betetzen duten funtzioari eta haien kontserbazioaren garrantziari buruz ekiteko jarrerarekin eta jakin-minez hausnartuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Norberaren eta besteen ekoizpenak interesarekin ikertzea, eskaintzen dituzten erantzun alternatiboak aurkituz, hizkun-tza artistikoen eskaintzen dituzten ebazpen-aukera ugariak ulertuz eta norberaren imajinarioa zabalduz.

Ebaluazio-irizpideak. Adierazpen artistikoa	
2.2 Norberaren eta besteen proposamen artistikoen hizkuntzak eta elementu teknikoak aztertzea eta azaltzea, arau eta kode propioei jarraitzen dieten egiaztatuz eta arau horiek malgutzeko aukera modu irekian baloratuz.	
3. konpetentzia espezifikoak	
3.1. Ekoizpen artistiko grafiko-plastikoa eta/edo ikus-entzunezkoa sormenez proiektatzea, beharrezkoak diren tresnak, baliabideak eta euskarriak identifikatuz, haien aukeraketa modu arrazoituan justifikatuz eta haien erabileraren berrikuntza-aren bilaketan saiatuak izanez.	
3.2. Proposamen artistiko grafiko-plastikoak eta/edo ikus-entzunezkoak sormenez eta adierazpen- eta komunikazio-asmu pertsonal batekin lantzea, gauzatzean plangintza zein bat-batekotasuna gaineratuz eta autokritika garatuz.	
3.3. Praktika artistikoa norberaren berezitasuna adierazteko, bere buruari buruzko ezagutza finkatzeko eta autokonfiantza sortzeko baliabide gisa ezagutzea, prozesu grafiko-plastikoan eta ikus-entzunezkoan jarrera irekiarekin esperimendatuz eta berrituz.	
4. konpetentzia espezifikoak	
4.1 Ekoizpen artistiko grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektibo bat planifikatzea, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak identifikatuz, hainbat rol elkarlanean bere gain hartuz, berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkidetzaz-ikuspegi baten bitartez.	
4.2 Ekoizpen grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektibo bat egitea, norberaren baliabideak eta teknikak sormenez erabiliz, adierazpen-asmoekin bat etorriko den azken emaitza bat bilatuz eta aurreikusitako plangintzari jarraituz, iraunkortasun-irizpideekin.	
4.3. Produktu artistiko baten sorkuntzaren azken emaitza azaltzea, lantzeko prozesuaren garapena, aurkitutako zailtasunak, egindako aurrerapenak eta lorpenen balorazio positiboa partekatuz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Adierazpen artistikoa	
A. Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta analisia	
1. Teknika grafikoplastikoak.	Keinuaren eta tresnaren efektuak: tresnak, baliabideak eta euskarriak. Ezaugarri plastikoak eta ikusizko efektuak.*
	Birziklatzearen artea. Produktu ekologikoak, iraunkorrak eta berritzaileak praktika artistikoan. Artea eta natura.
	Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Hondakinen kudeaketa arduratsua.
2. Diseinua eta publizitatea.	Ikusizko hizkuntzaren eta pertzepzioaren elementuak eta oinarrizko printzipioak. Kolorea eta konposizioa.*
	Diseinuaren eremuak eta adarrak: diseinu grafikoak, produktu-diseinua, moda, barnealdeak, eszenografia. Diseinu inklusiboaren hastapenak.
	Publizitatea: baliabide formalak, hizkuntza-baliabideak eta pertsuasio-baliabideak. Publizitate subliminala. Estereotipoak eta kontsumo-gizartea. Kontsumo arduratsua.
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia.	Irudi finkoaren narratiba: enkoadraketa eta plangintza, ikuspuntuak eta angeluazioa.*
	Irudi sekuentziatua.
	Argazkigintza analogikoa: kamera iluna. Kamerarik gabeko argazkigintza (fotogramak).
	Argazkigintza digitala. Argazkigintza adierazkorra.
	Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Hondakinen kudeaketa arduratsua.
Ikus-entzunezko narratiba: fotograma, sekuentzia, eszena, hartualdia, planoa eta muntaketa.*	

Oinarrizko jakintzak. Adierazpen artistikoa	
B. Sorkuntza eta interpretazioa.	
1. Teknika grafikoplastikoak.	<p>Marrazketa, ilustrazio eta pinturako teknikak: teknika lehorrak eta hezeak.*</p> <p>Abangoardia artistikoen teknika mistoak eta alternatiboak. Adierazteko aukerak eta testuinguru historikoa.</p> <p>Estanpazio-teknikak: monotipia laua.</p> <p>Zuzeneko prozedurak, eransgarriak, kengarriak eta mistoak.</p> <p>Grafitia eta horma-pintura.</p> <p>Bolumenak modelatzeko oinarrizko teknikak.*</p>
2. Diseinua eta publizitatea	<p>Sortzeko prozesua. Gauzatzea eta jarraipena: zirriborroa, gidoia edo proiektua, azken aurkezpena, ebaluazioa (autogogoeta, autoebaluazioa eta ebaluazio kolektiboa) eta hedapena.*</p> <p>Hedabideak: irratia, telebista, sare sozialak, zerbitzu digitalen plataformak, webguneak, publizitate-hesiak eta abar.</p>
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia.	<p>Argazkigintza-teknika esperimentalak: zianotipia edo antotipia</p> <p>Argazkigintza analogikoko teknikak: kamera iluna.</p> <p>Argazkigintza digitaleko teknikak. Argazkigintza adierazkorra.</p> <p>Fotomuntaketa digitala eta tradizionala.</p> <p>Gidoia eta story-boarda.*</p> <p>Oinarrizko animazio-teknikak.</p> <p>Bideo-arteko proiektuak.</p>
C. Orokorrak.	
Esparru plastikoei, ikusizkoei eta ikus-entzunezkoiei lotutako lanbideak.	
Aniztasunarekiko errespetua.	
Hutsegitea eta porrotaren ideia ikasteko modu gisa bere gain hartzeko jarraibideak.	
Ahalegina, helburuak lortzeko metodoa eta bidea.	
Rolak elkarlanean bere gain hartzea.	
Ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak daudela onartu eta ulertzeko jarraibideak.	
Jarrera irekia.	
Hutsegitea ikasteko modu gisa bere gain hartzeko jarraibideak.	
Ahalegina, helburuak lortzeko metodoa eta bidea.	
Autokonfiantza.	
Autokritika.	
Jakin-mina.	
Ekiteko jarrera.	
Sentikortasuna.	
Pentsamendu kritikoa.	
Genero-ikuspegia eta estereotipoen haustura. Bokazio profesionalaren ezagutza, balorazioa eta sustapena.	
Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoen harreran eta sorkuntzan, diseinua eta publizitatea eta argazkigintza. Ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia hainbat espazio kultural eta artistikotan, netiketa-arauak kontuan hartuz.*	
Esparru grafiko-plastikoari, diseinuari eta publizitateari, argazkigintzari eta ikus-entzunezko hizkuntzari eta multimediar lotutako hizkuntza eta hiztegia. Ezagutza eta erabilera.	

ADIERAZPIDE ARTISTIKOAREN HASTAPENAK

Adierazpide Artistikoaren Hastapenak jakintzagaia aukerakoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan. Jakintzagai honek zuzeneko lotura du hezkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoarekin, eta laugarren ikasturtean jarraipena izango du adierazpide artistikoarekin (hori ere aukerakoa da). Funtsezko zenbait ardatzetan oinarritzen da: teknika artistiko nagusiaren ezagutza, adierazpen-gaitasunaren garapena, sormenaren garapena, pentsamendu dibergentearen garapena, esperimertzioaren garapena eta berrikuntzaren garapena.

Helburu nagusia da ikasleak adierazpidera eta sorkuntzara hurbiltzea. Ikasleak adierazpide kultural eta artistikoak hartzen eta sortzen trebatzen dira. Alde batetik, garai eta gizarte ezberdinetako adierazpide kultural eta artistikoak analizatzen dituzte, eta analisi horrek pentsamendu kritikoa sortzen eta artea mundua ezagutzeko eta ulertzeko modutzat baloratzen laguntzen die. Bestalde, praktika artistikoaren ondorioz, ikasleek pentsamendu sortzailea eta dibergentea garatzen dute.

Adierazpide Artistikoaren Hastapenak jakintzagaiak curriculumeko funtsezko kompetentziak garatzen eta ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du Oinarrizko Hezkuntzan.

Sortzeko prozesuak berekin dakar hobetzeko eta ikasteko modutzat onartzea akatsa, aukera gisa hartuta —ez kale itsu bat balitz bezala—, pentsamendu sortzaile eta dibergentearen oinarri gisa. Hori guztia kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentziarekin eta ekintzaitza-kompetentziarekin lotuta dago. Kompetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoari ere laguntzen dio. Praktika artistikoari esker, sendotu egiten dira ahalegina, autonomia, autoestimua, autoezagutza, autokritika, identitatearen eraikuntza eta balio pertsonalen garapena.

Sortze-prozesuan, proiektu berritzaile eta iraunkorrak planteatzea eta garatzea sustatzen da. Gainera, berrikuntza eta hondakinen kudeaketa arduratsua sustatzen dira (STEM kompetentziari lotutako kontzeptuak). Orobat, ikasleek beren erabakiez arduratzen eta gainerakoen iritzia kontuan hartzen ikasten dute, eta konpromisoaren zentzu handiagoa eta berdinekin edo helduekin kolaboratzeko gaitasun handiagoa izango dute; hori guztia, herritartasunerako kompetentziarekin lotuta.

Adierazpide artistikoak ideiak, sentimenduak eta emozioak kanporatzea du ardatz, komunikatzeko asmoz. Hau da, esperientzietatik abiatuta, komunikatzeko adierazpen-bitartekoen arteko transferentziak egiten dira. Ideiak hizkuntza-komunikaziorako kompetentziari eta kompetentzia eleaniztunari lotuta daude.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, lau kompetentzia espezifiko ezarri dira eta jarraitutasuna eman zaio Lehen Hezkuntzako etaparen egiturari, Oinarrizko Hezkuntzan koherentzia lortzeko. Kompetentzia espezifikoak jakintzagai honen ekarpenik zuzenena jasotzen duten kompetentzia-ikaskuntzak dira. Lehena adierazpide artistikoak ezagutzeari buruzkoa da, eta helburu du munduaren ezagutza sakon eta kritikoa garatzea eta ondarearen kontserbazioa sustatzea. Bigarrenak hainbat ekoizpenen ikerketa, analisisa eta azalpena ditu ardatz, pentsamendu kritikoa eta dibergentea eta kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinario propioa hornitzeko. Hirugarrena lotuta dago hizkuntza grafiko-plastikoen eta ikus-entzunezkoen esperimertzioari, sorkuntza indibidualari, berrikuntzari eta, ikasteko modutzat, errearen ideiarekin, sortzeko prozesuaren parte diren heinean. Laugarrenak taldeko ekoizpenak duen garrantzia eta proiektu bat planifikatu, diseinatu eta ebaluatzeke faseak ditu ardatz.

Kompetentzia espezifikoaren eskuratzeko-maila planteatu diren eta kompetentziaren eskakizun-maila ezartzen duten ebaluazio-irizpideen bitartez zehazten da.

Oinarrizko jakintzak hiru multzotan egituratuta daude, eta haietako bat orokorra da. Beste bi multzoetako bakoitza, era berean, bi ardatzetan egituratzen da: Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta Sorkuntza eta interpretazioa. Eta, horietako bakoitzaren barruan, hiru atal daude: Teknika grafiko-plastikoak, Diseinua eta publizitatea eta Argazkigintza, ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia-hizkuntza.

Jakintzagaiko kompetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikasleei beren prestakuntza-prozesuaren protagonista izatea ahalbidetuko dieten ikaskuntza-egoera jakin batzuk beharko dira. Horretarako, adierazpi-

de artistikoko hainbat esperientzia ikertu eta material tradizional eta alternatiboak eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliko dira. Egoera horiek lagungarriak izango dira autoestimua indartuko duten eta identitatea eta jarrera sortzailea garatuko duten diziplina anitzeko abileziak, trebetasunak eta ezagutzak garatzeko.

Adierazpide Artistikoaren Hastapenak jakintzagaiak garatu egiten ditu etengabe hobetzearen ideia eta honako hauen analisia eta ebaluazioa: sortzeko prozesua, bizitako esperientziak, erabilitako estrategiak eta bitartekoak, egindako akatsak eta lortutako aurrerapenak. Horrek guztiak sustatu egiten du ezagutzeko eta arazoak konpontzeko bitarteko gisa sormenaz kontzientziatzea, eta, horrek, aldi berean, ikaskuntzak antzeko egoeretan edo beste testuinguru batzuetan berrinbertitzea bultzatuko du.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Adierazpen kulturalak eta artistikoak genero-alborapenik gabe ezagutzea eta baloratzea, harrera aktiboa eta hainbat tresna erabiliz, jakin-minez, sentikortasunez eta errespetuz, munduaren ezagutza sakona eta kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatzeko beharra ulertzeko.

Hainbat kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, eskuratzea, aztertzea, deskribatzea, jasotzea eta ulertzea funtsezko prozesuak dira gizaki kritikoak, enpatikoak, ikusnahiak, begirunetsuak, sentiberak eta adierazpen horien aurrean interes- eta balorazio-jarrera bat agertzen dutenak prestatzeko.

Prozesu horretan, eta ekoizpen artistikoak behar bezala baloratzeko, funtsezkoa da ekoizpen horiek testuinguruan kokatzea. Horrek, aldi berean, ekoizpen horiek sortu diren edo sortu ziren gizartean ezagutza sakonagoa eta toleranteagoa ekarriko du. Alderdi hori lantzean, ondare artistiko komuna kontserbatu, zaindu eta zabaltzearen garrantzi handia ulertuko dute ikasleek, beren identitatea osatzen lagunduko dien ondarerik hurbilenarekin hasi eta identitatea aberastuko duen gizateria osoaren ondarea ezagutu arte. Aztertutako adibideen artean, genero-ikuspegia txertatuko da emakumeek egindako ekoizpen artistikoei buruzko azterketaren bidez.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, ELK1, DK1, PSIIK1, PSIIK3, HK1, HK3 eta KKAK1.

2. Ekoizpen propioak, berdinen ekoizpenak eta ondarearen parte direnak ikertzea, analizatzea eta azaltzea, hiztegi espezifikoa erabiliz, interesa agertuz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, pentsamendu kritikoa eta dibergentea eta kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinario propioa hornitzeko.

Ekoizpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko garaikideak inoiz baino zabalagoak dira, eta azken horiek nonahi daude gure gizartean. Ekoizpen horiek ikertzea, analizatzea eta azaltzea aberasgarria izango da ikasleentzat. Izan ere, horiei lotutako hiztegi espezifikoa erabiliko dute eta hizkuntzak artistikoei eskaintzen dituzten aukera ugariak deskubrituko dituzte, baita galdera berari emandako erantzun askotarikoak eta sormenezkoak ere. Horrek guztiak lagunduko du, alde batetik, pentsamendu kritikoa eta dibergentea garatzen, eta, bestetik, imajinario aberats bat lantzen eta mundu enpatikoari eta aurreiritzirik gabekoari buruzko begirada baten oinarriak ezartzen, artelan plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa behatzeak dakarren atseginari esker; izan ere, horietatik dator gizaki ororen identitatearen parte bat eraikitzea.

Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, ikasleek ulertzea mezu artistiko eta kulturalen konplexutasun osoaz jabetzeko analisi-lan bat egin behar dela. Lan horrek artelan orok behar duen sorkuntza-prozesuaz neurri handiagoan jabetzea ahalbidetuko du, eta horrek balioa eta sendotasuna emango dio sorkuntza-ren inguruko esperientzia propioari. Horretan oinarrituta, eta erabilitako hizkuntzak aktiboki bereganatuz, ikasleek diskurtso pertsonal bat sortu ahal izango dute aurrerago.

Aldi berean, ekoizpen propioak eta kanpokoak aztertzeak, berdinekin esperientziak elkartrukatzeko eta esperientzia horiek bateratzeak ikasleek beren ikuspegia zabaltzeko balio behar dute. Ikasleek hizkuntza

plastikoei, ikusizkoei eta ikus-entzunezkoei buruzko zenbat eta ezagutza handiagoa izan, orduan eta errazagoa izango da egungo gizartean kultura-elementu gisa duten garrantzia ulertzea. Horren ondorio logiko bat izango da sorkuntza artistikoari —oro har— eta haren ikusizko eta ikus-entzunezko adierazpenei —bereziki— begirune eta tolerantzia handiz begiratzea.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, ELK3, DK1, PSIIK3, HK1, HK3, KKAK1 eta KKAK2.

3. Hizkuntza grafiko-plastikoekin eta ikus-entzunezkoekin autonomiaz esperimintatzea eta proposamen pertsonalak sortzea, ikerketaren, berrikuntzaren, iraunkortasunaren eta praktikaren bidez, akatsa ikasteko modutzat barneratuz, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko, eta autokonfiantzarako, hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gaitasuna garatzeko.

Ekoizpen artistikoak sortzean, erabil daitezkeen teknikak eta hizkuntzak ia mugagabeak dira, eta emaitzak gizakiaren sormena (aurrez finkatutako formatu batean itxi ezin dena) bezain askotarikoak dira. Horretarako, garrantzitsua da hizkuntza plastikoekin, ikusizkoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimintatzea, baita sorkuntzarako baliabide eta tresnekin ere. Betiere kontuan hartu behar da material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua, baita hondakinen kudeaketa arduratsua ere.

Esperimentazio horren helburua da ikasleek modu autonomoan, berezian eta esanguratsuan adierazi ahal izatea, ikuspegi pertsonal bat ekarriz. Horretarako, forma berriak ikertu, ezagutu eta deskubritu behar dituzte, iraunkortasunetik abiatuta, lortutako emaitzekin esperimintatuz eta berrituz.

Ekoizpen artistiko bat behar bezala burutzeko, beharrezkoa da porrotaren ideia ikasteko modu gisa onartzea eta hobekuntzarako, autoestimurako eta autokritikarako gaitasuna jarrera irekiarekin sustatzea.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: ELK2, DK2, STEM1, STEM3, EKK3, PSIIK1, PSIIK5, KKAK3 eta KKAK4.

4. Kolaborazioan oinarritutako ekoizpen kultural eta artistikoak diseinatzen, lantzen, argudiatzen eta zabaltzen parte hartzea, prozesuaren balioa agerian jarriz eta azken emaitza lortzeko hainbat rol bere gain hartuz, sormena, egiletzaren nozioa eta kide izatearen zentzua garatzeko.

Ekoizpen kultural eta artistikoak sortzen, diseinatzen, lantzen eta zabaltzen parte hartzea funtsezkoa da gizabanakoa bete-betean garatzeko. Era berean, hezkidetza-ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-ekoizpenetan esku hartzea, kolaborazio-lanak ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak daudela onartzea eta ulertzea baitakar. Zalantzarik gabe, talde-lanak identitatea aberasten eta eraikitzen laguntzen du adierazpide artistiko-sorkuntzazkoaren eta teknika plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak baliatuz egindako hainbat emankizun eta adierazpideren bidez.

Konpetentzia honi lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: ELK2, STEM3, DK2, PSIIK3, PSIIK4, EKK3, KKAK3 eta KKAK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Adierazpide Artistikoaren Hastapenak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Askotariko adierazpide kultural eta artistikoak erlazionatzea, harrera aktiboaz, horiek testuinguruan kokatuz eta beren mezuak jakinminez, sentsibilitatez eta errespetuz identifikatuz.
1.2. Artea mundua ezagutzeko modutzat ezagutzea, baita ondare kultural eta artistikoa kontserbatzearen garrantzia ere, praktika plastikoarekin, ikusizkoarekin eta ikus-entzunezkoarekin lotutako lanbideak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak. Adierazpide Artistikoaren Hastapenak	
2. kompetentzia espezifikoak	
2.1. Norberaren eta besteen ekoizpenak interesez ikertzea, eskaintzen dituzten erantzun alternatiboak deskubrituz, hizkuntza artistikoei ematen dituzten ebazteko aukera ugariak ulertuz eta pentsamendu kritikoa eta dibergentea garatuz, aniztasunarekiko errespetuaz gainera.	
2.2. Norberaren eta besteen proposamen artistikoen hizkuntza eta elementu teknikoak ahoz edo/eta idatziz azaltzea, hiztegi espezifikoak erabiliz, norberaren imajinarioa zabalduz eta kultura artistiko zabala eraikiz.	
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1. Ekoizpen artistiko grafiko-plastikoa eta/edo ikus-entzunezkoa modu sortzaile eta iraunkorrean proiektatzea, behar diren tresnak, bitartekoak eta euskarriak identifikatuz, horien hautaketa arrazoituta justifikatuz eta horien erabileran berrikuntza bilatzen saiatua izanez.	
3.2. Proposamen artistiko grafiko-plastikoa eta/edo ikus-entzunezkoak sormenez egitea, porrota ikasteko moduztat barneratuz, adierazpen- eta komunikazio-asmo pertsonalaz, proposamen horiek gauzatzean plangintza eta bat-batekotasuna gehituz eta autokritika eta hobetzeko gaitasuna garatuz.	
3.3. Praktika artistikoa norberaren berezitasuna adierazteko, bere buruari buruzko ezagutza finkatzeko eta autokonfiantza sortzeko baliabide gisa ezagutzea, prozesu grafiko-plastikoan eta ikus-entzunezkoan jarrera irekiarekin esperimendatuz eta berrituz.	
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1. Ekoizpen artistiko grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektibo bat planifikatzea, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak identifikatuz, hainbat rol elkarlanean bere gain hartuz, berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkidetzaz-ikuspegiaren bitartez.	
4.2. Ekoizpen grafiko-plastiko eta/edo ikus-entzunezko kolektiboa egitea, norberaren bitartekoak eta teknikak sormenez erabiliz, norbere adierazpide-asmoetara egokitutako azken emaitza bilatuz eta aurreikusitako plangintzari jarraituz.	
4.3. Produktu artistiko baten sorkuntzaren azken emaitza azaltzea, lantzeko prozesuaren garapena, aurkitutako zailtasunak, egindako aurrerapenak eta lorpenen balorazio positiboa partekatuz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Adierazpide Artistikoaren Hastapenak	
A. Pertzepzio eta hautemate estetikoak eta analisia	
1. Teknika grafikoplastikoak	Adierazpide artistiko desberdinetan eta diseinuaren esparruan teknika grafiko-plastikoa aplikatzeko adibideak.
	Keinuaren eta tresnaren efektuak: tresnak, bitartekoak eta euskarriak. Ezaugarri plastikoak eta ikusizko efektuak.*
	Artea eta natura.
	Grafitirako eta horma-pinturarako hurbilketa.
	Abangoardia artistikoen teknika mistoak eta alternatiboak. Adierazteko aukerak eta testuinguru historikoa.
2. Diseinua eta publizitatea	Ikusizko hizkuntzaren eta pertzepzioaren elementuak eta oinarrizko printzipioak. Kolorea eta konposizioa.*
	Diseinuaren eremu eta adarretarako hurbilketa.
	Publizitaterako hastapenak: baliabide formalak, linguistikoak eta pertsuasiboak. Estereotipoak eta kontsumo-gizartea. Sexismoa eta gorputz- eta sexu-kanonak komunikabideetan.
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia-hizkuntza	Irudi finkoaren narratibaren printzipioak: enkoadraketa eta plangintza, ikuspuntuak eta angelu-luzioa. Irudi sekuentziatua.
	Ikus-entzunezko narratibarako hastapenak: fotograma, sekuentzia, eszena, hartualdia, planoak.

Oinarrizko jakintzak. Adierazpide Artistikoaren Hastapenak	
B. Sorkuntza eta interpretazioa	
1. Teknika grafikoplastikoak	Marrazketa, ilustrazio eta pinturako teknikak: teknika lehorrak eta hezeak.*
	Abangoardia artistikoen teknika misto eta alternatiboetarako hastapenak. Adierazpen-aukerak.
	Estanpazio-tekniketarako hurbilketa.
	Bolumenak sortzeko oinarrizko tekniketarako hastapenak.
	Grafitia eta horma-pintura.
	Aurkezpena: birziklatzearen artetik kontsumo arduratsura. Produktu ekologikoak, iraunkorrak eta berritzaileak praktika artistikoan.
2. Diseinua eta publizitatea	Sortzeko prozesua. Gauzatzea eta jarraipena: zirriborroa, gidoia edo proiektua, azken aurkezpena, ebaluazioa (autogogoeta, autoebaluazioa eta ebaluazio kolektiboa) eta hedapena.*
3. Argazkigintza, ikusentzunezko hizkuntza eta multimedia-hizkuntza	Fotomuntaketa digitala eta tradizionala.
	Argazkigintzarako hastapenak.
	Gidoia eta story-boarda.*
	Oinarrizko animazio-teknikak.
C. Orokorrak	
Esparru plastikoarekin, ikusizkoarekin eta ikus-entzunezkoarekin lotutako lanbideak.	
Genero-ikuspegia eta estereotipoen haustura. Bokazio profesionalaren ezagutza, balorazioa eta sustapena.	
Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak, publizitatekoak eta argazkigintzakoa jasotzean eta sortzean (ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia-hizkuntza), espazio kultural eta artistiko desberdinetan, netiketa-arauak kontuan hartuta.	
Esparru grafiko-plastikoari, diseinuari eta publizitateari, argazkigintzari, ikus-entzunezko hizkuntzari eta multimedia-hizkuntzari lotutako hizkuntza eta hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.	
Ondare kulturala eta artistikoa kontserbatzearen balorazioa.	
Artearen balorazioa mundua ezagutzeko eta ulertzeko modutzat.	
Akatsaren onarpena hobetzeko eta ikasteko modutzat.	
Ahalegina, xedeak eta helburuak lortzeko metodotzat, bidetzat.	
Aniztasunarekiko balorazioa eta errespetua.	
Pentsamendu kritiko eta dibergentearen garapena.	
Kolaborazio-lanean ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko hainbat rol egotearen onarpena eta ulermena.	
Ikuspegi desberdinekiko enpatia eta balorazioa.	
Autonomia, norberarekiko konfiantza, autoestimua eta autokritika sendotzeko jarraibideak.	
Gogoeta, interesa, jakin-mina, ekimena, jarrera irekia eta sentsibiltatea.	
Sormenaren eta berrikuntzaren garapena.	
Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Hondakinen kudeaketa arduratsua.	

ARTE ESZENIKOAK

Arte Eszenikoak (Arte Dramatikoa eta Dantza) jakintzagaiaren bidez, interpretazio, sorkuntza, ekoizpen, harrera eta komunikazio eszenikoen prozesuetarako hurbilketa landu nahi da, era integralean eta bizipen gisa.

Hezkuntza gizakiaren konpetentziak ahalik eta neurririk handienez garatzeko, nortasuna eraikitzeko, identitate propioa osatzeko eta errealitatea ulertzeko modua taxutzeko baliabiderik egokiena denez gero, Oinarrizko Hezkuntzaren aldiak ikasleek beren bokazioa eta interesak zehazteko eta, era horretan, bi-

zitza emankorra izateko eta parte diren gizarteari beren onenaren ekarpena egin ahal izateko tresnak eskaini behar ditu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailak izaera orientatzailea du ikasleei jakintzagaien aukeraketa errazteko, eta testuinguru egokia da ikasleak Arte Eszenikoak (Arte Dramatikoa eta Dantza) jakintzagaira hurbiltzeko. Nolanahi ere, jakintzagai hori era zabalagoan garatuko da Arte Batxilergoa (Musika eta Arte Eszenikoen espezialitatean) osatzen duten bi urteetan. Batxilergo mota guztiek hurrengo etapan eskainiko dituzten jakintzagaietara aurrez hurbiltzeak ikasleen interesei eta premiei jarraikiz aukeratzeko askatasuna eta ekitatea ematen du, baita gizarte- eta hezkuntza-kalteberatasuneko eta kultura-kalteberatasuneko egoeran dauden gizarte-ingurune eta lurralde-eremuetan ere.

Sortu zirenetik, arte eszenikoak zuzeneko aurkezpenari lotuta daude bokazioz, eta ez daude aurrez grabatuta emateko eta komunikabide baten bitartez jasotzeko pentsatuta. Izan ere, antzerki-ikuskitun batera (hitz eginda, kantuz, mimoz edo dantzaz adierazia) edota dantza-emanaldi batera (musikarekin eta/edo testuarekin edo gabe) joaten diren ikusleen aurrean zuzenean sortzean datza arte eszenikoen funtsezko ideia.

Ezinbestez presentziala den sorkuntza horretan, komunitate osoak hartzen du parte hainbat rol betez, bai berezko ekintza eszenikoaren sorkuntzako partaide gisa, bai ekintza horren ikusle gisa.

Hori dela eta, komunitateko kideen arteko harremana, gogoeta eta eztabaida ahalbidetzen du. Horrela, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren testuinguruan, Arte Eszenikoak (Arte Dramatikoa eta Dantza) jakintzagaiak herritartasun demokratikoa eta arduratsua gauzatzen laguntzen du, heldutasun pertsonala, afektibo-sexuala eta soziala sendotzen du, gainerakoekiko portaera baketsua eta errespetuzkoa sustatzen du, eta gatazken prebentzioa eta kudeaketa errazten du.

Ikasleak beren hiritar-espirtua osatzen ari diren etapa honetan, Arte Eszenikoak jakintzagaiak ekitate eraginkorra sustatzen du dauden desberdintasunak ezagutu eta aztertzearen bidez, eta ikasleek zuzenean egin beharko diete aurre desberdintasun horiei. Horrez gain, kooperazio-lanak dakarren konpromisoaren ondorioz egin beharreko zereginetan beharrezkoa den diziplina eta inplikazioa sendotzen du jakintzagaiak, eta, aldi berean, erantzukizuna, sormena, sentsibilitate artistikoa, asertibitatea, erresilientzia eta ekintzailtza-espirtua garatzen ditu. Era berean, dimentsio anitzeko identitate baten garapena eta komunitate heterogeneo, kultura anitzeko, aktibo, kritikoa eta inklusibo batekoa izatearen zentzua bultzatzen ditu.

Pentsatzen duen gorputz globala funtsezko elementua da arte eszenikoetan. Izan ere, Arte Eszenikoak jakintzagaiak adierazpen-gaitasunak eta gaitasun kinesikoak garatzen dira, eta gorputz globala errealitatea eraldatu eta hobetzeko elementu bihurtu daiteke. Jakintzagai hau funtsezko tresna da prestakuntza integral batean. Izan ere, garapen pertsonal eta sozialerako, adierazpen- eta komunikazio-gaitasunerako eta autoestimurako ezinbestekoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratu behar dira, eta norberaren eta gainerakoen ongizatea eta gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna hartu behar dira kontuan. Ikasleek, komunitateko kideak direla jakinik, norberaren eta besteen ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazten eta helarazten ikasiko dute arte eszenikoen modalitateetan behar bezala jardutearen bidez.

Arte Eszenikoak jakintzagaiaren barruan, jatorri eta egituraketa komun bati (erritualtasunari eta ikusgarritasunari) erantzuten dioten hainbat modalitate daude. Modalitate horiek hainbat kultura- eta gizarte-testuingururi lotuta daude, eta, beraz, haien emankizunak ere garatzen, egituratzen eta oholtzaratzen diren garai eta errealitateei lotuta daude. Horrela, beraz, askotariko diskurtso eta konbentzio eszeniko eta estetikoak ager daitezke, modalitateen arteko nolabaiteko uztartze-maila batekin.

Arte Eszenikoak funtsezko kompetentzia guztiekin lotuta daude, maila handiagoan edo txikiagoan. Nolanahi ere, jakintzagai hau funtsezko kompetentziaren osagaiei eta jakintzagaia bera osatzen duten oinarritzko jakintzei hertsiki lotutako 5 kompetentzia espezifikoren inguruan egituratzen da funtsean.

Kompetentzia espezifikoak jakintzagaiaren funtsa dira, eta irakatsi eta ikasteko prozesu osoak kompetentzia horiek izan behar ditu ardatz. Ezinbestekoa da, beraz, kompetentzia horiei eta lotutako jardunei buruzko azterketa xehatu bat egitea.

Ebaluazio-irizpideen helburuak jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehaztea dira, jakintzak zer neurritan barneratzen diren eta nola aplikatzen diren egiaztatzea eta ikasleak bere garapen pertsonal eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen dituen zehaztea. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen dira argi eta garbi.

Oinarrizko jakintzak 5 multzotan egituratu dira: Adierazpen-praktika eta komunikazio eszenikoko praktika; gorputz-tekniken, inprobisazio-tekniken eta/edo mugimendu-sekuentzien eta/edo eszenen konposizio-tekniken inguruko praktikak; inplikazioa obra eszeniko bat sortzeko prozesuan; obra eszenikoen eszenaratzea eta antzezpena; eta ondare eszeniko klasiko eta garaikideko erreferentziatzeko obren harria, testuingurua eta analisi kritikoa.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Intereseko emozio, ideia, ekintza eta gaien adierazpena eta komunikazioa praktikan jartzea gorputzaren, ahotsaren, mugimenduaren eta/edo testuaren bitartez, osasuna sustatzeko eta autoezagutza, gizarte-trebetasunak eta adierazpen- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko.

Adierazpen-praktika eta komunikazio eszenikoko praktika funtsezko tresna da alfabetatze emozionala sustatzeko eta autoezagutza, autoestimua eta pertsonen arteko harremanak errazten dituzten baliabideak zabaltzeko. Gainera, hitzezko, hitzez gabeko eta modu digitaleko komunikazioarengarapenak aukera ematen du errealitatea ulertzeko, adierazteko eta kritikoki eta kolektiboki pentsatzeko. Gorputza, ahotsa, mugimendua eta testua diskurtso koherente eta garbi bat eratzean elkarren osagarri diren baliabideak dira.

Taldeko adierazpide artistikoko lanak elkarrizketa, iritzi-aniztasunarekiko errespetua, berdinen arteko kultura-aberastasuna eta estereotipo sozial, kultural edo sexistak zalantzan jartzea sustatzen du. Taldean hitzezko, hitzik gabeko eta modu digitaleko hizkuntza erabiltzeak aukera ematen du ideia eta kontzeptu sinbolikoak entzuteko eta adierazteko, eta, horren bidez, komunitatearen komunikazio-gaitasuna garatzen da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KD2, KPSII1, KPSII3, HK2, EK3, KAKK2 eta KAKK3.

2. Gorputz-teknikak, inprobisazio-teknikak eta/edo mugimendu-sekuentziak eta/edo eszenak konposatzeko teknikak praktikan jartzea, eszena-proposamenak gauzatu, interpretazio- eta sormen-trebetasunak ikertzeko.

Arte dramatikoko teknika eszenikoen bizipen-ikaskuntzak gorputza, ahotsa, testua eta objektuak adierazpen-baliabide eta baliabide sinboliko gisa erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.

Dramatizazioaren eta dantzaren hizkuntzaren oinarrizko elementuak ezagutzea ezinbestekoa da arte eszenikoetan profesionalki hasteko. Gainera, elementu horiek gidatutako inprobisazioen eta konposizioen bidez ikertzeak eta esperimentatzeak haiekin ohitzeko eta adierazpen- eta komunikazio-baliabide gisa dituzten aukerak ikertzeko aukera ematen die ikasleei.

Inprobisazio indibiduala edo taldekoa eta pieza txikien konposizioa (taldeak aurrez zehaztu eta erabakitako eskemak erabiltzearen bidez) sormena garatzeko eta ziurgabetasuna kudeatzeko tresnak dira.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, EK1, KAKK1, KAKK3 eta KAKK4.

3. Obra eszeniko bat sortzeko prozesuan inplikatzeko kolaborazio- eta inklusio-proiektuen bidez, garapen pertsonal, sozial eta artistikorako aukerak sustatzeko.

Proposamen eszenikoen diseinuan parte hartzeak kooperazio barruan hainbat rol betetzea eta kolaborazioa, errespetua eta ahalegin indibidualak guztien onerako duen balioa sustatzea dakar. Konpetentzia

honen barruan, proiektuak sortzeko eta garatzeko gaitasuna jartzen da praktikan, eta oro har eskuratutako ezagutzak elkartu egiten dira, norberaren sorkuntza-prozesu batean islatzeko. Arte dramatiko eta/edo dantzako piezak sortzeko, hizkuntza eszenikoaren oinarritzko elementuak erabili behar dira, hasierako ideia-aren garapenera egokituko den diskurtso koherente bat sortzeko. Sortzeko prozesuan, ikasleek alde aurreko ezagutzak bat egiten dute eta, aldi berean, sormena aktibatzen eta ezagutza tekniko eta teorikoen eskaria areagotzen da, emaitzak hobetzen jarraitu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KD1, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3, EK1, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

4. Obra eszenikoak eszenaratzea eta antzeztea hainbat tresna teknologiko eta artistikoren bidez, ekintza eszenikoa bizi izateko, kultura-ondare immateriala baloratzeko eta eraldaketa-aukerak esperimentatzeko.

Eszenaratzeak eta antzezteak aukera ematen dute obrak eraikitzen eta birsortzen aktiboki parte hartzeko eta ondare artistiko immaterialaren zaintzan, kultura-zabalkundean eta balorazioan laguntzeko.

Baliabide digitalak erabiltzeak soinu-elementuak, plastikoak eta ikusizkoak elkartzea errazten du, baita ikasleek ideiak modu eszeniko aktibo eta sormenez batez, aniztasunarekiko errespetuzko jarrera batekin, gainerako iritziak kontuan hartuta eta estereotipoak eta sexismo motak baztertuz adieraztea ahalbidetuko duten proposamen artistikoak egitea ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM3, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1, KAKK3 eta KAKK4

5. Ondare eszeniko klasiko eta garaikideko arte dramatiko eta dantzako erreferentziako obren ikusle aktiboak izatea, obra horiek testuinguruan kokatzea eta kritikoki aztertzea, norberaren pentsamendua eta kultura-identitatea garatzeko, ondareak kultura-aberastasunerako, aniztasunarekiko errespeturako eta garapen indibidual eta sozialerako iturri gisa duen garrantzia baloratuz eta interesa agertuz.

Arte dramatikoaren eta dantzaren hizkuntzak ulertzeko, beharrezkoa da haien kodeak eta haien elementuen jokabidea ezagutzea. Zuzenean jasotzearen, bideoak ikustearen, irakurketak aztertzearen edo ikus-entzunezko beste baliabide batzuen bidez arte-adierazpenen osagaiekin ohitzean, ikasleak gai izango dira pieza eszenikoen ezaugarri garrantzitsuenak eta adierazpen-kodeak ezagutzeko.

Obra eszenikoen analisiak aniztasunean oinarritutako irizpide estetikoak osatzeko trebatzen ditu ikasleak. Gainera, haien ezaugarri esanguratsuenak identifikatzeko bidea erraztuko du, eta sortu ziren esparru historiko eta sozialaren testuinguruan kokatzen lagunduko du. Era berean, garapen indibidual eta sozialean eta genero eszenikoen ezagutzan laguntzen du, eta horrek pentsamendu kritikoa eta adierazpide artistiko eta kultural desberdinekiko jarrera errespetuzkoagoa garatzea dakar.

Arte-adierazpenak testuinguruan kokatzearen bidez, behar bezala baloratu eta beren garai eta gizarte-testuinguruaren produktu gisa uler daitezke, eta, aldi berean, haien bilakaerari eta orainarekiko loturari buruzko gogoeta egin daiteke. Estimazioaren eta balorazioaren bidez, kultura-ondarea zaintzen, arte-adierazpenekiko errespetua sustatzen, zentzu kritikoa garatzen eta praktika eszenikoa komunitatea gizarte bidezkoago, inklusiboago eta iraunkorrago baterantz hobetzeko bitarteko gisa garatzen laguntzen da.

Produktio eszenikoetan ikusle aktibo gisa parte hartzeak kultura-adierazpen gehiago ezagutzeko aukera ematen die ikasleei, eta, era horretan, jakin-mina, errespetua, inklusioa eta askotariko adierazpen moten asimilazioa sustatzen dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE3, KD3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1 eta KAKK2.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Arte Eszenikoak
1. kompetentzia espezifikoak
1.1. Gorputzaren, ahotsaren, mugimenduaren eta/edo testuaren bidez emozioak, ideiak, ekintzak eta intereseko gaiak errespetuz eta era osasungarrian adieraztea, bakarka eta taldean.
1.2. Komunikazio-trebetasunak agertzea, interpretazioaren, elkarrizketaren eta sorkuntza-prozesuetan kolaborazioan jardutearen bidez.
1.3. Taldean lan egitea, iritzi- eta identitate-aniztasuna onartuz eta estereotipoen aurrean pentsamendu kritikoa agertuz.
2. kompetentzia espezifikoak
2.1. Arte dramatikoko edo dantzako obrak egiteko eta interpretatzeko oinarrizko teknikak erabiltzea kompetentzia artistikoa garatzeko, emozioen adierazpena eta erregulazioa eta bere buruarenganako segurtasuna sustatuz.
2.2. Bakarkako edo taldeko inprobisazio gidatuak edo libreak egitea, gorputza, ahotsa edo tresnak erabiliz eta sormena eta autokonfiantza garatuz.
3. kompetentzia espezifikoak
3.1. Sorkuntza-prozesu eszeniko edo koreografikoetan bakarka eta/edo kooperazioan parte hartzea, taldearen ideia, emozio eta sentimenduekiko errespetua agertuz eta inklusioan lagunduz.
3.2. Taldeko sorkuntza-prozesuaren barruan hainbat rol betetzea, kolaborazioa, errespetua eta ahalegin indibidualak guztien onerako duen balioa sustatuz.
4. kompetentzia espezifikoak
4.1. Ikastetxearen barruan eta/edo kanpoan pieza eszenikoak eszenaratu eta antzeztea, ekiteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna agertuz.
4.2. Proposamen eszenikoak sortzeko tresna digitalak erabiltzea, soinu-elementuak, elementu plastikoak eta ikusizkoak elkartuz.
5. kompetentzia espezifikoak
5.1. Gure kulturako eta beste kultura batzuetako hainbat proposamen eszenikoren ezaugarri eta elementu historiko, sozial, kultural eta teknikorik garrantzitsuenak identifikatzea, haiek jasoz (ahal bada zuzenean) eta testuinguruan kokatuta eta jarrerara tolerante, inklusibo eta iraunkor batekin aztertuz eta komunikatuz.
5.2. Ehun profesional eszenikoak gizarteari egindako ekarpena baloratzea eta bertako eta beste kultura batzuetako arte dramatikoko edo dantzako ondare eszenikoa kontserbatzeko beharra onartzea, pieza eszenikoak zuzenean jasoz eta pieza horiek beren testuinguru historikoaren isla direla eta hezkuntza-balio pertsonala eta soziala dutela ulertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Arte Eszenikoak
A. Adierazpen-praktika eta komunikazio eszenikoko praktika.
Emozioen, ideien, ekintzen eta intereseko gaien adierazpena eta komunikazioa gorputzaren, ahotsaren, mugimenduaren eta testuaren bidez.
B. Gorputz-tekniken, inprobisazio-tekniken eta/edo mugimendu-sekuentzien eta/edo eszenen konposizio-tekniken praktika.
Arte dramatikoa eta dantza teknikoki gauzatzeko oinarrizko printzipioak.
Inprobisazio gidatuak eta libreak egiteko teknikak.
Antzerki- eta koreografia-errepertorioa.
C. Inplikazioa obra eszeniko bat sortzeko prozesuan.
Sorkuntza eszenikorako tresnak eta baliabideak.
Sormen-tailerrak eta diziplinarteko laborategiak.

Oinarrizko jakintzak. Arte Eszenikoak
D. Obra eszenikoen eszenaratzea eta antzezpena.
Sortutako obren eszenaratzea.
Entseguak eta antzezpene eszenikoa.
Espazio eszenikoa, argiztapena, soinu-espazioa eta karakterizazioa.
E. Ondare eszeniko klasiko eta garaikideko erreferentziako obren harrera, testuingurua eta analisi kritikoa.
Ikusle gisa parte hartzen den obren testuingurua.
Ikuskizun eszenikoen analisisa eta kritika.

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

Egungo gizartearen bilakaera azkarrak eta haien arteko lotura ugariak eskatzen dute gizabanakoei herri-tartasun independentea, aktiboa eta gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den errealitate garaikidearekiko konprometitu praktikan jartzen lagunduko dieten konpetentziak garatzea. Horrela, zenbait hizkuntzatan komunikatzea funtsezkoa da kultura demokratiko eta aktiboki parte-hartzaile hori garatzeko. Hezkuntzaren Europako Esparru baten ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak eragotzi egiten du mugek hezkuntza eta prestakuntza oztopatzea, eta nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emateaz gain. Horrek ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu. Hori da, hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan atzerriko bigarren hizkuntza baten ikaskuntza sartzeko helburua. Hori, gure autonomia-erkidegoan, beste batzuetan ez bezala, gehitu egiten zaio bi hizkuntza koofizialen eta atzerriko lehen hizkuntzaren irakaskuntzari.

Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaiaren eskaintzak zuzenean laguntzen du ikasleen hizkuntza-konpetentzia, konpetentzia eleaniztuna eta kulturarteko konpetentzia hobetzen, baita hizkuntzarekin, komunikazioarekin eta zentzu kritikoarekin lotutako gaitasunak garatzen ere, aniztasun linguistikoa, artistikoa eta kulturala baloratuz eta errespetatuz, eta horien erabilera egokiak eta desegokiak (diskriminatzaileak izateagatik) identifikatuz. Jakintzagai honek, era berean, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeto moldatzeko eta atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturak ezagutzeko, bai prestatzeko eta ikasteko eragile gisa, bai informazio- eta atsegin-iturri gisa. Horregatik, jakintzagai honetan oso ikaste-elementu garrantzitsuak dira pentsamendu kritikoa garatzea, informazioaren arloan alfabetatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki, segurtasunez, etikaz eta arduraz erabiltzea. Ondorioz, hizkuntza-konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna lortzen ez ezik, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaiak lagundu egiten du DBH amaitzean ikasleek funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen ere.

Jakintzagai honek ikasleei aukera ematen die beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzeko, norberaren esperientziak baliatuz komunikazioa hobetzeko, bai familia-hizkuntzetan, bai EAEko hizkuntza koofizialetan, bai atzerriko hizkuntzetan. Bestalde, hizkuntzak ikastearen oinarrizko helburua da etapa bakoitzeko komunikazio-egoerarako egokiak izango diren askotariko testuak ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, koherentziaz, kohesionatuta eta zuzen. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak aztertzen eta ebatzen ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea eta komunikazio-egoera bakoitzean egokiak izango diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Horrenbestez, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretatik, diziplinarteko lana, ikas-egoeren bidez planteatua, ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak bereganatu ditzaten.

Curriculum hau erabat konpetentziala denez, Atzerriko Hizkuntzaren curriculumean planteatutako sei konpetentzia espezifikotan oinarrituta diseinatu da. Konpetentzia horiek bildu egiten dituzte ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerekin lotutako alderdiak, baita eleaniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutakoak ere.

Bestalde, oinarrizko ezagutzak hiru multzotan egituratzen dira. *Komunikazioa* multzoan ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazio-iturriak bilatzearekin eta kontsultatutako iturriak kudeatzearekin lotutakoak konpetentzia barne— biltzen dira. *Eleaniztasuna* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotutako jakintzak biltzen ditu, eta helburu du atzerriko hizkuntza ikasten eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzen laguntzea. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoan biltzen dira atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturei buruzko jakintzak eta horien balorazioa, aberasteko eta besteekiko harremanetarako aukera gisa. Multzo honetan sartzen dira, halaber, beste hizkuntza, hizkuntza-aldaera eta kultura batzuk ulertzeko eta balioesteko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagai lehenengo hiru mailetan nahitaez eskaini beharreko aukerako jakintzagaia da, eta laugarren mailan aukerako jakintzagaia. Hala eta guztiz ere, jakintzagai hau egiten ari diren ikasleak lehenago, Lehen Hezkuntzan, berau ikasten hasiak izan daitezke. Horregatik, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagairako curriculumak malgua izan behar du, ikasleek izan dezaketen maila-aniztasunera egokitze bezain malgua, etapako edozein mailatan jakintzagai hau ikasten hasteko eta amaitzeko aukera baitute.

Hala, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian, maila bakoitzeko konpetentziak, jakintzak eta ebaluazio-irizpideak ikasleen abiapuntuko mailen arabera dira. Ebaluazioak, funtsean, kontuan hartu behar ditu ikasle bakoitzak abiapuntuko egoeraren arabera eskuratutako lorpenak. Hori aintzat hartuta, ebaluazio-irizpideak erreferente gisa erabili behar dira, bai ikasleen abiapuntua hautemateko, bai amaierako maila ebaluatzeko; horrela, ikasleek banaka izan duten aurrerapen-maila ezartzen laguntzeko. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) erreferentzia da jakintzagaiaren curriculum-elementuak garatzeko eta berdintzeko. Dena den, elementu horiek egokituta egon behar dute Bigarren Hezkuntzako etapako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolubora.

EEMBk planteatzen duen ekintzara bideratutako ikuspegiarekin bat etorri —metodologia eklektikoak erabiltzea sustatzen du—, curriculum honen izaera konpetentzialak irakasleak diziplinarteko zereginak sortzera bultzatzen ditu, testuinguruan kokatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak, ahal den neurrian hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuko dutenak, eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartzeko tresna digitalak erabiltzera. Ikasleak eragile sozial arian-arian autonomoagotzat eta beren ikaste-prozesuarekiko gero eta ardura handiagokotzat hartuko dira. Horrek berekin dakar haien errepertorioak, interesak eta emozioak kontuan hartzea, baita beren inguruabar espezifikoak ere, bizitza osoan zehar ikasteko oinarriak ezartzeko amoz. Europako programen esparruko kolaborazio-proiektu transnazionalak sar daitezke, europar herritartasun demokratikoa eraikitzen laguntzeko, aurreiritzirik gabeko parte-hartze aktibo eta errearen bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Oinarrizko diskurtso-generoetako eta eguneroko erabilerako testu labur eta errazak, argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, adibidez, esanahien inferentzia, zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan haien edukia baloratzeko.

Ulertzeak informazioa jasotzea eta prozesatzea dakar. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, eta zehazkiago Atzerriko Bigarren Hizkuntzari dagokionez, ulermena komunikazio-trebetasun bat da, eta argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahosko, idatzizko eta testu multimodal labur eta errazetan oinarrituta garatu behar da. Eguneroko gaiak eta garrantzi pertsonalekoak jorratuko dira. Ulermenak, maila honetan, testuak ulertzea eta interpretatzea eskatzen du, baita horien zentzu orokorra eta xehetasun garrantzitsuenak ateratzea ere, ikasleen komunikazio-premiei erantzuteko. Horretarako, ikasleen garapen psikoeboluborako eta beharretarako estrategia egokienak abiarazi behar dira, testuaren esanahiaren eta zentzuaren irudikapena berreraikitze eta testu horren azpian dagoen komunikazio-as-

moari buruzko hipotesiak formulatzeko. Ikasleentzat erabilgarrienak diren ulermen-estrategien artean daude esanahiak inferitzea eta komunikazio-testuinguru berrietara estrapolatzea, eta haien hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integrazioa. Formatu multimodalean, ulermenak hainbat irudikapen-modu interpretatzea barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, etab.), baita testuinguru-informazioa (elementu estralinguistikoak) eta informazio kotestuala ere (elementu linguistikoak). Horiek bidea ematen dute testuaren asmoari eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzeko, baita hipotesi alternatiiboak planteatzeko ere, beharrezkoa izanez gero.

Estrategia horiez gain, iturri fidagarriak euskarri analogiko zein digitaletan bilatzea, kritikoki analizatzea eta hautatzea oso metodo erabilgarria da ulermenerako, informazioa kontrastatu, baliozkotu eta sostengatzeko aukera ematen baitu, baita testuetatik abiatuta ondorio garrantzitsuak ateratzeko ere. Ulermen- eta interpretazio-prozesuek komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, kolaborazioa sustatzeko eta edozein motatako aurreiritziak eta estereotipoak kritikoki identifikatzeko, baita desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturalekiko benetako interesa pizteko ere.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE2, STEM4, KD1, KPSII5 eta KAKK2.

2. Oinarritzko diskurtso-generoko eta eguneroko erabilerako testu originalak sortzea, laburrak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Produkzioak bai ahozko adierazpena, baita idatzizkoa eta multimodala ere barne hartzen ditu. Etapa honetan, produkzioak eguneroko gaiei buruzko testu labur eta errazak idaztea eta azaltzea ekarri behar du, garrantzi pertsonalekoak, sormenez, koherentziaz eta egokitasunez, eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerik gabe. Produkzioak, hainbat formatu eta euskarritan, honako hauek barne har ditzake etapa honetan: deskribapen edo anekdota txiki bat azaltzea, mezu elektronikoko pertsonal sinpleak edo korrespondentzia formal erraz eta laburrekoak idaztea, aurkezpen formal edo argudiaketa erraz bat egitea, edo gertaerak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak modu sinplean adieraziko dituzten testuak idaztea, tresna digital eta analogikoen bidez. Produkzioak ere badakar dokumentazio-iturri gisa Interneten informazioa bilatzea. Formatu multimodalean, produkzioak hainbat baliabide batera erabiltzea barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak eta diagramak, soinua, keinuak, etab.), esanahia sortzeko, eta zereginaren eta horren premien arabera egokiena hautatzea eta aplikatzea.

Testugintzarekin lotutako jarduerak funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean, sozialean, hezitzailean eta profesionalean, eta horiei lotutako balio sozial eta zibiko zehatza dago. Zenbait euskarritako produkzioetan trebetasuna ez da modu naturalean eskuratzen. Aldiz, ikaskuntzaren emaitza da. Etapa honetan, produkzioak honako hauek ikastean oinarritzen dira: funtsezko alderdi formalak, kutsu linguistikoagoa, soziolinguistikoagoa eta pragmatikoagoa dutenak; erabilitako generoarekin lotutako itxaropen eta konbentzio ohikoenak; produkzio-tresnak; eta erabilitako euskarria. Produkzioa hobetzea ahalbidetzen duten estrategietan barne hartuta daude plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura, monitorizazioa, baliozkotzea eta konpentsazioa.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, STEM4, KD2, KPSII5, EK1, EK3 eta KAKK3.

3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoaz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko baten eraikuntza. Pertsonen arteko interakzioa hizkuntzaren jatorritzat hartzen da, eta pertsonen arteko zereginak, zeregin kooperatiboak eta transakzionalak biltzen ditu. Interakzioan sartuta daude hizkuntza-adeitasuna eta netiketa, komuni-

kazioaren hitzeko eta hitzik gabeko elementuak, eta, esaterako, plataforma birtualek ematen dituzten ingurune sinkrono edo asinkronoetako erregistro eta genero dialogiko bai ahozkoetarako, bai hitzekoetarako, bai muldimodaletarako egokitzapena. Hezkuntzako etapa honetan espero da ikasleek sareko beren ekintzak, presentzia eta agerikotasuna modu arduratsuan kudeatzea, eta interakzioek, laburrak eta errazak izan arren, eguneroko eta garrantzi pertsonaleko gaiei sormenez heltzea, eduki sexistaren erabilera identifikatuz eta baztertuz.

Konpetentzia espezifikoa hau funtsezkoa da ikaskuntzan. Izan ere, bildu egiten ditu hizkuntzen arteko transferentzien oinarritzko estrategiak, kooperaziokoak, elkarrizketak hasi, mantendu edo amaitzekoak, hitz egiteko txandak laga eta hartzekoak eta galdetzeko estrategiak, argitzea edo errepikatzea eskatzeko helburuarekin. Gainera, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa zuzentzen dituzten oinarritzko arau eta printzipioak ikasi eta aplikatzeak herritartasun demokratikoan, arduratsuan, errespetuzkoan, seguruan eta aktiboan jarduteko prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KD3, KPSII3 eta KAKK3.

4. Hizkuntza desberdinen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.

Bitartekotza hizkuntzaren jarduera bat da, eta honetan datza: mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzea eta errazago ulertaraztea zenbait strategiaren bidez, hala nola birformulazioaren bidez. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardua izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan eraikitzea, ez bakarrik hizkuntza desberdinen artean, baita hizkuntza beraren modalitate edo erregistroen artean ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta zehazkiago Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian, komunikazio-testuingurutik sortzen diren erronkak konpontzeko tresna gisa hizkuntzak duen rolean zentratzen da bitartekotza, nagusiki; espazio eta baldintza egokiak sortzen baititu komunikatzeko eta ikasteko eta esanahi berriak eraikitzeko eta ulertzeko. Horretarako, edukiak itzultzeko, analizatzeko, interpretatzeko eta partekatzeko baliabide konbentzionalak nahiz aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke. Etapa honetan, mezuak edo testuak eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoaren garapena errazten du. Izan ere, ikasleei eskatzen die beren erreperatorioko trebetasun eta estrategia egokienak aukeratzea, komunikazio eraginkorra lortzeko. Gainera, informazioa trukatzeko ingurune kooperatiboak norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazten du. Era berean, eskura dauden baliabideak ezagutzea eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, solaskideen motibazioak, ideiak eta inguruabar pertsonalak ulertuz eta errespetatuz, eta horiek norberarekin harmonizatuz. Horregatik, ikasleek enpatia, errespetua, espiritu kritikoa, pentsamendu sortzailea eta zentzu etikoa erakustea espero da, maila horretan bitartekotza egokia egiteko funtsezko elementu diren heinean.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KE3, STEM4, KPSII1 eta KPSII3.

5. Norberaren hizkuntza-erreperitorioa mobilizatzea eta erabiltzea, erreperitorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-erreperitorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunak abiapuntu du ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarritzat baliagarriak dituztela hizkuntza berrien ikaskuntza zabalteko eta hobetzeko, eta lagundu egiten dietela beren hizkuntza-erreperitorio eleaniztuna garatzeko eta

aberasteko, baita jakin-min eta sentsibilizazio kulturala ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan sakontzen dute eta beren erreperitorio indibidualetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen dituzte, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuta, haiek osatzen dituzten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako konpetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, eta, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarrak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du, norberaren ezagutzez eta estrategiez jabetuz eta horiek esplizitu eginez. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, abian jartzea ziurgabetasunari aurre egiteko trebetasunak, eta helburuak lortzean edo erabakiak hartzean pertseberantzia eta ekimenaren zentzua garatzeko trebetasunak.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna alderdi aberasgarri eta positibotzat baloratzeko. Norberaren hizkuntza-erreperitorioan eduki berriak eraikitzeke eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu egin dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KPSII1 eta KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa modu kritikoan baloratzeko eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko.

Kulturartekotasunak berekin dakar gizartearen aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa esperimintatzea, eta aniztasun hori analizatzea eta horri etekina ateratzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, kulturartekotasunak, besteekin elkar ulertzea errazten duenez, arreta berezia merezi du, ikasleen esperientziaren parte izan dadin, eta aniztasun horri buruz duten pertzepzioa estereotipoek desitxuratu ez dezaten eta diskriminazio mota jakin batzuen jatorri izan ez dadin. Aniztasunarekiko balorazio kritikoak eta egokitzapenak ikasleei aukera eman behar die kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko.

Aniztasunaren kontzientziak kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kultural bat garatzea errazten du, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzeko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere. Etapa honetan, Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren irakaskuntzan Europako programen esparruan planteatzen daitezkeen kulturarteko egoerek ikasleei aukera ematen diete esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara zabaltzeko, desberdina denarekiko interesa erakutsiz; norberaren ikuspegia eta balio kulturalen sistema bera erlatibizatzen; eta edozein motatako diskriminazio edo estereotipoen indartzea oinarri duten jarretatik urruntzeko eta horiek saihesteko, atzerriko hizkuntzaren konpetentzia-mailatik eratorritako mugak gorabehera. Kultura partekatua eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzera bideratuta dago hori guztia.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII1, KPSII3, HK3 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Atzerriko bigarren hizkuntza. I. eta II. mailak	Atzerriko bigarren hizkuntza. III. eta IV. mailak
I. eta II. mailetan, hizkuntza aldetik landu beharreko testuek ohikoak eta egunerokoak izan behar dute, garrantzi pertsonalekoak eta euren esperientziatik hurbil egongo direnak, pertsonen arteko harremanen eta ikaskuntzaren esparruetako berezkoak.	III. eta IV. mailetan, hizkuntza aldetik landu beharreko testuek ohikoak eta egunerokoak izan behar dute, garrantzi pertsonalekoak eta euren esperientziatik hurbil egongo direnak, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, eta komunikabideen eta fikzioaren esparruetako berezkoak.

Atzerriko bigarren hizkuntza. I. eta II. mailak	Atzerriko bigarren hizkuntza. III. eta IV. mailak
1. kompetentzia espezifikoa	
1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal oso labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuenaren interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.
1.2. Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak lagunduta hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzeko, eta hitzik gabeko elementuak interpretatzeko.	1.2. Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzeko; esanahiak inferitzea eta hitzik gabeko elementuak interpretatzea.
	1.3. Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kontrastatzeko oinarriko estrategiak erabiltzea, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuz, eta jabetza intelektuala erregulatzen duten egile-lizentziak errespetatuz informazio hori kudeatzeko.
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1. Komunikazio-egoerara egokitutako testu oso laburrak, oso errazak, alde aurretik prestatuak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.	2.1. Komunikazio-egoerara egokitutako testu laburrak, errazak, alde aurretik prestatuak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.
2.2. Testu oso laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta oinarriko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, bana-bana edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez.	2.2. Testu laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta erabilera orokorreko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, bana-bana edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez.
2.3. Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko oinarriko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz.	2.3. Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko ezagutzak eta erabilera orokorreko estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz, herritartasun digital zibikoan eta gogoetatsuan jardunez, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.
3. kompetentzia espezifikoa	
3.1. Egoera interaktiboak, sinkronoak edo asinkronoak, oso labur eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, zenbait baliabidetan oinarrituz (hala nola errepikapena, erritmo mantsoa edo hitzik gabeko hizkuntza), eta enpatia eta hizkuntza-adeitasunarekiko errespetua erakutsiz, baita solaskideen komunikazio-beharrekiko ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.	3.1. Egoera interaktiboak, sinkronoak edo asinkronoak, laburrak eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea eta aktiboki kolaboratzea, zenbait baliabidetan oinarrituz (hala nola errepikapena, erritmo mantsoa edo hitzik gabeko hizkuntza), eta enpatia eta hizkuntza-adeitasunarekiko eta netiketa-rekiko errespetua erakutsiz, baita solaskideen komunikazio-beharrekiko ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.
3.2. Lagunduta eta hurbileko inguruneetan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eskaintzak, iradokizunak, argibideak eta azalpenak eskatzeko eta formulatzeko, birformulatzeko, alderatzeko eta kontrastatzeko, eta laburbiltzeko oinarriko estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.	3.2. Komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eskaintzak, iradokizunak, argibideak eta azalpenak eskatzeko eta formulatzeko, birformulatzeko, alderatzeko eta kontrastatzeko, eta laburbiltzeko oinarriko estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.
3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun individualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.	3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun individualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.

Atzerriko bigarren hizkuntza. I. eta II. mailak	Atzerriko bigarren hizkuntza. III. eta IV. mailak
4. kompetentzia espezifikoa	
4.1. Eguneroko egoera errazetan testu, kontzeptu eta komunikazio oso labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta beren hurbileko ingurunean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa azalduz, hainbat baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Eguneroko egoeretan testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta beren ingurunean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa azalduz, hainbat baliabide eta euskarri baliatuz.
4.2. Lagunduta, zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.	4.2. Zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.
5. kompetentzia espezifikoa	
5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gogoeta eginez, lagunduta.	5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoaz gogoeta eginez.
5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko, oinarrizko estrategiak eta ezagutzak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.	5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko erabilera orokorreko estrategiak eta ezagutzak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.
5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategia eraginkorrenak lagunduta hautatuz eta autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapenak esplizitatuz eta partekatuz.	5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta analizatzea, zailtasun horiek gainditzeko eta haren ikaskuntza finkatzeko estrategia eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntza bera planifikatzeko eta autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitatuz eta partekatuz.
6. kompetentzia espezifikoa	
6.1. Enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan, hala nola <i>eTwinning</i> plataformak emandakoetan, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo oro baztertuz.	6.1. Behar bezala, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan, hala nola, <i>eTwinning</i> plataformak emandakoetan, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo oro baztertuz.
6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa onartzea eta horretara egokitzea, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten elementu kulturalak eta linguistikoa partekatzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa kritikoki baloratzea eta horretara egokitzea, kultura partekatua eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzen lagunduz.
	6.3. Aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa azaltzeko eta balioesteko estrategiak aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta zuzentasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren printzipioak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. I. eta II. mailak
A. Komunikazioa.
Ahozko, idatzizko eta testu multimodal oso labur eta oso errazen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko oinarrizko estrategiak.*
Eguneroko egoera errazetan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako komunikazio-funtzio oso oinarrizkoak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazio pertsonala eta eguneroko gai errazei buruzkoa eskatzea eta trukatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaintzea; partzialki adieraztea gustua, lehentasuna edo interesa eta oso oinarrizko emozioak; iraganekeo gertaerak kontatzea; egungo egoerak deskribatzea.*
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, oso oinarrizkoak eta eguneroko erabilerakoak, ahozko, idatzizko eta testu multimodal oso labur eta oso sinpleak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, eta eraldatzeko, ohiko eta eguneroko gai buruzkoak, garrantzi pertsonalekoak eta esperientziatik hurbil daudenak, pertsonen arteko harremanen eta ikaskuntzaren esparruetan berezkoak direnak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren eta egituraren araberrako antolaketa eta egituraketa, funtzio testuala eta egitura.*
Oso oinarrizko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitateak eta bere propietateak, kantitatea eta nolakotasuna, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak.*
Ikasleentzat interesgarria den oinarrizko lexikoa, honako hauei buruzkoa: identifikazio pertsonala, pertsonen arteko harremanak, hurbileko lekuak eta inguruneak, aisia eta denbora libre, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako oso oinarrizko konbentzio ortografikoak eta komunikazio-esanahiak eta -asmoak.*
Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, etab.*
Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko oinarrizko estrategiak.
Egileak identifikatzeko, eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliozkotasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fida-garritasuna ebaluatzeko estrategiak.
Ulermen, produkzio eta koprodukzioko -ahozkoa, idatzizkoa eta multimodalainarrizko tresna analogikoak eta digitalak.*
B. Eleaniztasuna.
Autokonfiantza. Errorea, hobetzeko tresna eta konpontzeko proposamen gisa.*
Oinarrizko komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta modu ulergarrian erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta berezko hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarrizko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko. Hizkuntzen Portfolio Europearra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikatzeko eta ikasteko tresnei buruzko enuntziatuak ulertzeko oinarrizko lexikoa eta esamoldeak (metahizkuntza).*
Hizkuntzak konparatzeko oinarrizko estrategiak, atzerriko hizkuntzaren elementuetatik eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banakako erantzukizunak hartzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*

Oinarrizko jakintzak. I. eta II. mailak
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza pertsonen arteko eta nazioarteko komunikabide gisa, informazio-iturri gisa eta norbera aberasteko tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiaz, oinarrizko konbentzio ortografikoak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.*
Atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko patroikulturalak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-analitik abiatuta; oinarrizko konbentzio sozialak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeen berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta balioesteko oinarrizko estrategiak, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerak hautemateko eta horien aurrean jarduteko oinarrizko estrategiak.*
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta horrek euskarari duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdekoen Europako Gutuna.

Oinarrizko jakintzak. III. eta IV. mailak
A. Komunikazioa.
Ahozko, idatzizko eta testu multimodal labor eta errazen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko erabilera orokorreko estrategiak.*
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako oinarrizko komunikazio-funtzioak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazio pertsonala eta eguneroko gaiei buruzkoak eskatzea eta trukatea; instrukzioak eta aginduak ematea eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaintzea; gustua edo interesa eta oinarrizko emozioak partzialki adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea; egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak adieraztea; iritzia, posibilitatea, ahalmena, betebeharra eta debekua adieraztea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea.*
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, oinarrizkoak eta eguneroko erabilerakoak, ahazko, idatzizko eta testu multimodal labor eta sinpleak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, eta eraldatzeko, ohiko eta eguneroko gaiei buruzkoak, garrantzi pertsonalekoak eta esperientziatik hurbil daudenak, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, komunikabideen eta fikzioaren esparruetan berezkoak direnak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren eta egituraren arabeko antolaketa eta egituraketa, funtzio testuala eta egitura.*
Oinarrizko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola, honako hauen adierazpena: entitateak eta bere propietateak, kantitatea eta nolakotasuna, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak.*
Ikasleentzat interesgarria den erabilera orokorreko lexikoa, honako hauekin lotutakoa: identifikazio pertsonala, pertsonen arteko harremanak, hurbileko leku eta inguruneak, aisia, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea, klima eta ingurune naturala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroik horiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako oinarrizko konbentzio ortografikoak eta komunikazio-esanahiak eta -asmoak.*
Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eskaintzak, iradokizunak, argibideak eta azalpenak eskatzeko eta emateko, birformulatzeko, alderatzeko eta kontrastatzeko, laburbiltzeko, etab.*

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Oinarrizko jakintzak. III. eta IV. mailak
Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko erabilera orokorreko estrategiak.
Jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua, eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliozko-tasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koproduktzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodalatresna analogiko eta digitalak; eta hezkuntzaren esparruko interakzio, kooperazio eta kolaborazioarako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak modu seguruan garatzeko.*
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza eta ekimena. Errorea, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.*
Komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta gero eta arintasun, egokitasun eta zuzentasun handiagoaz erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta berezko hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan kompetentzia-mailak eragindako mugen gainetik.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabilera orokorreko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluazioarako, koebaluazioarako eta autorreparazioarako erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.*
Atzerriko hizkuntzaren elementuetatik eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta hizkuntzak konparatzeko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banakako erantzukizunak hartzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza pertsonen arteko eta nazioarteko komunikabide gisa, informazio-iturri gisa eta norbera aberasteko tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiaz, oinarrizko konbentzio ortografikoekiko errespetuaz eta arretaz testuen aurkezpenean.*
Atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko patroikulturalak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremani buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-analitik abiatuta; oinarrizko konbentzio sozialak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeen berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta balioesteko erabilera orokorreko estrategiak, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko erabilera orokorreko estrategiak.*
Literatura-testua eta irakurketa atsegin-iturritzat hartzea, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatze, birsortze eta errezeitze estrategiak errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta horrek euskararen duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdekoen Europako Gutuna.

DIGITALIZAZIOA

Digitalizazioa jakintzagaian, gure gizarteak planteatzen dituen erronka teknologikoei aurre egiteko ikasleek garatu behar dituzten konpetentziak lantzen dira. Erronka horien artean, honako hauek aipa daitezke: inguratzen gaituen informazio kantitate handia prozesatu eta aztertzea eta ezagutza berri bihurtzea, IKTen erabilera segurua, kritikoa, arduratsua eta iraunkorra egitea, bizitza osoan ikastea eta prestatzea, eta gizarte- eta lanbide-bizitzan modu eraginkor eta konstruktiboan parte hartzea ahalbidetuko duten konpetentzia sozial eta zibikoak garatzea. Eta, hori guztia, ikuspegi inklusibo eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-ikuspegi batekin. DBHko lehen hiru mailetan, Teknologia eta Digitalizazioa jakintzagaiak konpetentzia digitalaren ezagutzak finkatzen ditu, eta DBHko 4. mailarako proposatutako jakintzagai honek, berriz, herritartasun digital aktibo eta konprometitu bat gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren gaiak lantzen ditu.

Jakintzagaiaren diziplinarteko izaerak irteera-profila lortzen eta etapako helburuak eskuratzen laguntzen du. Matematikarako konpetentziari eta zientzietarako, teknologiarako eta ingeniariarako konpetentziari lotutako alderdiak garatzen ditu. Halaber, hizkuntza-konpetentziaren, konpetentzia eleaniztunaren, konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoaren, ekintzailtza-konpetentziaren, herritartasuneko konpetentziaren eta kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziaren inguruko beste zeharkako jakintza batzuei lotuta dago.

Digitalizazioa zuzenean lotuta dago gainerako jakintzagaiekin, teknologia digitalen erabilera beharrezkoa baita jakintzagai horiek garatzeko. Halaber, ezagutza eskuratu, sortu eta transmititzeko eta etengabeko ikaskuntza errazteko tresnak eskaintzen ditu.

Jakintzagai honen hezkuntza-balioa dela eta, konpetentzia espezifikokoak herritarren eguneroko bizitzako testuinguruetan txerta daitezke, eta bidezko gizarte digital batean beharrezkoak diren eta curriculumaren ardatz nagusietako bat diren ohiturak eskura daitezke. Horrez gain, gailuak konektatu eta konfiguratzeko garaian problema sinpleak ebazteko konpetentziak eskaintzen dizkie ikasleei. Halaber, ikasteko ingurune pertsonala antolatzeo gaitasuna garatzen da, eta etengabeko ikaskuntza eta ongizate digitala sustatzen dira. Era berean, autonomiaren, berdintasunaren eta inklusioaren garapena bultzatuko duen eta eten digitalaz jabetuta dagoen herritartasun digital aktiboa, kritikoa, sortzailea, informatua eta arduratsua sortzen laguntzen du. Gainera, arreta berezia eskaintzen die estereotipo sexisten desagerrarazteari, talde-lanaren sustapenari eta ikasleen ongizate emozionalari.

Ebaluazio-irizpideak ikasleek taldean lan egiteko hainbat modu ezagutzera, praktikari berari buruzko gogoeta egitera, beren ohiturez jabetzera eta errutina digital osasungarriak, iraunkorak, seguruak eta praktika desegokiekin kritikoak sortzera bideratuta daude.

Jakintzagaia oinarrizko jakintzen inguruko elkarri lotutako sei multzotan antolatuta dago. Multzo horiek bat datoz lan-metodologiarekin, konpetentzia espezifikoeekin eta planteatutako ebaluazio-irizpideekin.

- *Gailu digitalak, sistema eragileak eta komunikazio-sistemak eta pentsamendu konputazionala* multzoak gailu digitalen arkitekturari eta osagaiei (hardwareari) zein sistema eragileen instalazio eta konfigurazioari (softwareari) eta pentsamendu konputazionalaren garapenari buruzko ezagutzak biltzen ditu.
- *Ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa* multzoak alfabetatze digitala sendotzen du, eta baliabide gehiago eskaintzen ditu informazioa bilatu eta hautatzeko, edukiak sortzeko, ikaskuntzen inguruan kolaborazioan aritzeko eta ikaskuntzak zabaltzeko.
- *Segurtasun eta ongizate digitala* multzoaren bidez, ikasleek gailu, datu eta pertsonen mundu digitalean dituzten arriskuei eta jasaten dituzten mehatxuei aurre egiteko prebentzio-neurriak ikastea eta inplementatzea lortu nahi da.
- *Herritartasun digital kritikoa* multzoaren xedea da ikasleek sarean egiten dituzten interakzioak ezagutzea eta haiei buruzko gogoeta egitea, adierazpen-askatasuna, etiketa digitala eta partekatutako baliabide digitalen lizentzien eta jabetza intelektualaren erabilera zuzena kontuan hartuta.

- *Ideien komunikazioa eta hedapena* multzoak ideiak, proposamenak eta iritziak hainbat testuinguru, baliabide eta kanaletan garbi eta arin komunikatu, adierazi eta zabaltzeko beharrezkoak diren alderdiak biltzen ditu.
- *Zentzu sozioemotionala* multzoak emozioak ulertu eta maneiatzeko, xedeak ezarri eta lortzeko, erabaki arduratsuak eta informatuak hartzeko gaitasuna areagotzeko eta, era horretan, ikasleen ongizatea eta errendimendua hobetzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu.

Jakintzagai honen garapenak aukera ematen du ikasleen errealitatearekin eta, aldi berean, curriculum akademikoarekin konektatzeko, erabilera teknologiko partikular, sozial, akademiko eta lan-eremukoen inguruko zalantzak eta arazoak abiapuntutzat hartuta. Halaber, aurrerapen bat ekarri behar du sareko segurtasun propioaren hobekuntzan eta beste pertsona batzuekiko eta ikasleek erabilitako aplikazioe-kiko interakzioetan. Ikasleek ulertu behar dute interneten informazioa, haren iturriak eta asmoak testuin-guruan kokatzeko eta egiaztatzeko irizpideak aplikatu behar direla eta internet bera ezinbesteko tresna dela bitzita osoko ikaskuntza garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Problema tekniko sinpleak identifikatu eta ebaztea eta gailuak etxeko sareetan konektatu eta konfiguratzeko, hardware-ezagutzak eta sistema eragileak aplikatuz, eguneroko erabilerako tresna eta instalazio informatikoak eta komunikaziokoak kudeatzeko.

Teknologia digitalen erabilera zabala dela eta, ikasleek eguneroko erabilerako gailuak mantendu eta konfiguratzeko, eta ohiko arazo teknikoak identifikatu eta konpontzeko trebetasunak eskuratu beharko dituzte. Kontuan hartu behar dira gailuen berrerabilera eta energia aurrezteko ohituren garapena.

Konpetentziak ekipamenduen funtzionamenduari eta haiek erabiltzeko beharrezkoak diren aplikazio eta programei lotutako alderdi teknikoak biltzen ditu. Halaber, kontuan hartu behar da komunikazioaren teknologiek gaur egun betetzen duten zeregina eta gizartean duten inplikazioa. Hori dela eta, funtsezkoa da interneten funtzionalitateak, hainbat komunikazio-sistemaren elementuak eta objektuen konexioari eta digitalizazioari lotutako teknologia berriak txertatzeko aukera lantzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD4, KD5, KPSII1, KPSII5 eta EK3.

2. Pentsamendu konputazionalaren printzipioak erabiltzea egoera eta arazo zehatzak modu eraginkor, sortzaile eta berritzaile batean konponduko dituzten algoritmoak eta aplikazio informatikoak diseinatu eta garatzeko, programazio-hizkuntza sinple bat erabiliz.

Pentsamendu konputazionala zuzenean lotuta dago problemen ebazpen sortzaile eta berritzailearekin eta prozeduren planteamenduarekin. Abstrakzioa erabiltzen du alderdirik garrantzitsuenak identifikatzeko, eta problema zeregin sinpleagoetan deskonposatzen du, sistema informatiko batek egikaritzeko moduko konponbide batera iristeko. Hau da, prozesu antolatuak abian jartzea dakar, planteatutako problemaren deskonposaketa, informazioaren egituraketa, arazoaren modelizazioa, prozesuaren sekuentziak eta algoritmoen diseinua (programa informatiko batean inplementatzeko) barnean hartuta. Horrela, beraz, konpetentzia helburu zehatz bat lortzeko planteatutako algoritmoak diseinatu eta sortze-ra bideratuta dago.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM1, STEM3, KD2, KD3, KD4, KD5 eta EK3.

3. Ikasteko ingurune pertsonala (PLE) konfiguratzeko, elkarreraginez eta esparru digitaleko baliabideak baliatuz, etengabeko ikaskuntza optimizatzeke eta kudeatzeko.

Testuinguru formaletan, ez-formaletan eta informaletan etengabeko ikaskuntza bermatzeko, beharrezkoa da ikasleen prestakuntza-prozesuan baliabide digitalak txertatzea eta ikasteko ingurune pertsonala (PLE) behar bezala kudeatzea.

Konpetentziak informazioa tratatzeko estrategiei eta eduki digitalen sorkuntzari eta berrerabilerari lotutako alderdiak biltzen ditu, ikasleek bizitza pertsonalean, akademikoan eta profesionalean agertzen zaizkien erronkei aurre egiteko sormena eta berrikuntza-espirtua garatu ahal izan dezaten. Halaber, komunikaziorako eta kolaborazio-lanerako tresnak baloratzen dira, eta esperientzia, ideia eta informazio desberdinak partekatzeko eta zabaltzeko aukera ematen da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII4, KPSII5, EK3.

4. Ongizate digitala sustatuko duten ohiturak hartzea, prebentzio- eta zuzenketa-neurriak aplikatuz, gailuak, datu pertsonalak, osasuna bera eta ingurumena babesteko.

Konpetentzia hau, gailuak, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena zaintzeko hartu beharreko segurtasun-neurriak lotuta dago. Teknologiarekiko eta gailuekiko interakzio estuak areagotu egiten ditu arriskuak, mehatxuak eta erasoak. Hori dela eta, beren ongizate eta identitate digitala babestea eta zaintzea ahalbidetuko dieten ohiturak hartu behar dituzte ikasleek. Ikasleek ager daitezkeen mehatxuez babesten, behar bezala jokatzeko eta ongizate indibiduala eta kolektiboa ebaluatzen ikasi behar dute.

Konpetentzia honek gailuen konfigurazioari lotutako alderdi teknikoak zein datu pertsonalen babesari lotutakoak biltzen ditu. Ikasleen identitate digitalaren kudeaketa eraginkorra azpimarratzen du. Kudeaketa hori presentzia zaindu batera bideratuta egongo da, proiektatzen den irudia eta sarean uzten den arrastoa kontuan hartuta. Halaber, ongizate pertsonalaren gaia lantzen da kanpoko mehatxuei dagokienez, hainbat arazoren testuingurutan (ziberjazarpen, mendekotasun teknologikoa edo jokoaren gehiegizko erabilera). Azkenik, garrantzitsua da teknologia digitalek ingurumenean duten inpaktua baloratzea eta teknologia horien erabilera jasangarria ustatzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM5, KD1, KD4, KPSII2, KPSII5, HK2 eta HK3.

5. Herritartasun digital kritikoa eta aktiboa agertzea, teknologia digitalek gizartearen hainbat esparrutan egindako ekarpena aitortuz, sarean egin daitezkeen ekintzak ezagutuz eta haien ondorioak identifikatuz, teknologiari erabilera aktiboa, arduratsua eta etikoa emateko.

Sareko parte-hartze proaktiboaren bidez herritartasun aktiboa agertzeko egin daitezkeen ekintzen ezagutzari lotuta dago konpetentzia hau. Herritarrek baliabide digitaletan elkarreragitea eskatzen duten zerbitzuen kopuruak gora egin izanaren ondorioz, beharrezkoa da kudeaketa horiek ezagutzea eta teknologiak zuzen erabiltzea, baita ikasleak hainbat kolektibok teknologiak eskuratu eta erabiltzeko jasaten duten eten digitalaz eta teknologien inpaktu ekosozialaz jabetzea ere. Agerian jartzen da ikasgelako edo ikasgelatik kanpoko beste pertsona batzuei komunikatzeko eta hainbat testuingurutan ikaskuntzak aplikatu eta transferitzeko beharra etengabeko ikaskuntza bultzatzeko.

Konpetentzia honetan, internautari eman beharreko tratu egokia zein beste pertsona batzuek sarean egiten dituzten ekintzekiko errespetua lantzen da, egile-eskubideak arautzen dituzten lizentziak errespetatuz. Konpetentziak, halaber, administrazio-kudeaketa telematikoak, merkataritza-ekintza elektronikoak eta online aktibismoa lantzen ditu. Eta, hori guztia, kultura desberdinek komunikatzeko eta beren ideiak adierazteko duten modua baloratuz eta errespetatuz. Halaber, agerian jarriko da emakumeek teknologia digitalen garapenari egindako ekarpenaren balioa, haien bokazio zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko.

Konpetentziak, halaber, sortzen ari diren teknologiei eta teknologia horiek kudeatzen dituzten datuen erabilera etikoari buruzko gogoeta eginarazten die ikasleei, erabiltzaile digital aktiboak baina batez ere teknologiaren erabileran kritikoak direnak hezteko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD3, KD4, KPSII1, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

6. Ideia, proposamen edo soluzio digitalak hainbat forotan bakarka eta taldean adieraztea, komunikatzea eta hedatzea, hizkuntza-egitura eta terminologia tekniko egokiak eta eskuragarri dauden baliabideak erabiliz eta informazioa partekatze eta talde-lana sustatzeko beharrezkoak diren elementuak eta teknikak aplikatuz.

Konpetentzia honek ideiak, proposamenak eta iritziak hainbat testuinguru, baliabide eta kanaletan garbi eta arin komunikatu, adierazi eta zabaltzeko beharrezkoak diren alderdiak biltzen ditu. Hizkuntzaren erabilera egokia eta soluzio digitalak diseinatu eta sortzeko prozesuan beharrezkoa den terminologia teknikoa azpimarratzen dira. Ildo horretan, komunikazio eraginkor baterako beharrezkoak diren alderdiak (hala nola asertibitatea, azaltzeko denboraren kudeaketa egokia, espresio eta intonazio egokia, testuingururako egokitzapena eta hizkuntza inklusibo eta ez-sexistaren erabilera, betiere kultura-aniztasuna eta hura adierazteko modu desberdinak errespetatuz) eta baliabideak, dokumentuak eta informazioa hainbat formatutan zabaltzeko tresna digitalen erabilera sortzaileari lotutako beste alderdi batzuk lantzen dira. Beste pertsona batzuekin informazioa trukatzeko beharrak jarrera arduratsua eta errespetuzkoa eskatzen du lantaldearekiko, bai eta lankidetzaren lanean ezarritako protokoloekiko ere. Protokolo horiek testuinguru pertsonalean zein sareko interakzioetan aplikatu daitezke, tresna digitalen, plataforma birtualen edo komunikazio-sare sozialen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM4, KD3, KPSII3, KAKK1 eta KAKK3.

7. Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak eza-gutuz eta emozioak eta esperientziak eraginkortasunez identifikatuz eta kudeatuz, ongizate pertsonala sustatzeko eta ikasleei ikaskuntza hobetzea eta zehaztutako helburuak lortzea ahalbidetuko dieten harreman osasungarriak sortzeko.

Problema teknologikoak edo erronka orokorrak konpetentzia digitalen bidez konpontzeak zeregin atsegingarria izan behar du. Teknologia digitalen ikaskuntzaren barruan, trebetasun emozionalak ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta ikaskuntzarekiko interesa sustatzen dute. Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da emozioak identifikatu eta kudeatzea, estres-iturriak eza-gutzea, saiaturia izatea, modu kritiko eta sormenezkoan pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka teknologiko berrien aurrean jarrera proaktiboa agertzea, ingurune analogikoetan zein digitaletan.

Errespetuaren, tolerantziaren, berdintasunaren edo gatazkak modu baketsuan kudeatzean baliabideak lantzeak, erronka teknologikoak ebazteaz gain (komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuz, harreman eta lan-ingurune osasungarriak sortzeko), autokonfiantza sendotzea eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren egoerak normalizatzea ahalbidetzen du. Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da gainerakoekiko enpatia agertzea, harreman positiboak ezarri eta haiei eustea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa baliatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuek hartzea. Halaber, teknologiaren inguruan aurrez pentsatuta dauden eta alderdi indibidualei (hala nola generoari, adinari edo teknologiarako gaitasunari) lotuta dauden estereotipo eta ideien haustura sustatu behar da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM3, STEM5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, HK4, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Digitalizazioa
1. kompetentzia espezifikoa
1.1. Gailuak konektatzea eta sare lokalak kudeatzea, hari bidezko eta hari gabeko komunikazio-sistemei lotutako ezagutzak eta prozesuak jarrera proaktiboarekin aplikatuz.
1.2. Sistema eragileak instalatzea eta mantentzea, haien ezaugarriak premia pertsonalen arabera konfiguratuz.
1.3. Problema tekniko sinpleak ebaztea, gailu digitalen osagaiak eta funtzioak aztertuz, materialak berrerabiliz, konponbideak kritikoki ebaluatuz eta, beharrezkoa izanez gero, prozedura birformulatuz.
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Problema informatikoetarako sormenezko konponbideak deskribatzea, interpretatzea eta diseinatzea algoritmoen eta fluxu-diagramen bidez.
2.2. Pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatzea problemak ebazteko, problema zati sinpleagoetan deskonposatuz, patrioiak ezagutzuz eta abstrakzioa algoritmoak diseinatzeko oinarri gisa erabiliz.
2.3. Hainbat gailutarako aplikazio sinpleak programatzea, programazio-elementuak modu egokian erabiliz eta hainbat edizio-tresna erabiliz.
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Ikaskuntza esparru digitalean kudeatzea, ikasteko ingurune pertsonala (PLE) konfiguratuz, baliabide digitalak modu autonomoan integratzearen bidez.
3.2. Informazioa premien arabera bilatzea eta hautatzea, ikasteko ingurune pertsonaleko tresnak zentzu kritikoarekin erabiliz.
3.3. Eduki digitalak bakarka edo taldean sortzea, integratzea eta berregitea, ezagutza eta eduki digital berriak modu sormenezkoan sortzeko tresnarik egokienak hautatuz.
3.4. Komunikazio-espazio birtualetan eta elkarlaneko ikaskuntzako plataformetan elkarreragitea, informazioa eta datuak partekatuz eta argitaratuz, eta hainbat pertsona motatara parte hartzeko jarrera batekin egokituz.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Datu pertsonalak eta interneten sortutako aztarna digitala babestea, sare sozialen eta lan-espazio birtualen pribatutasun-baldintzak konfiguratuz.
4.2. Ohiko erabilerako gailu digitaletan pasahitzak, sistema eragileak eta antibirusak aldizka konfiguratzea eta eguneratzea.
4.3. Sarean mehatxua dakarten egoerak identifikatzea eta haien aurrean erantzuten jakitea, hainbat aukeraren artean konponbiderik onena aukeratuz eta ongizate pertsonala eta kolektiboa baloratuz.
4.4. Teknologia digitalek ingurumenean duten inpaktua identifikatzea eta txikiagotzea, energia aurrezteko ohiturak hartuz eta teknologia horiei erabilera iraunkorra emanez.
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Datuak eta tresna digitalak etikoki erabiltzea, etiketa digitalari buruzko arauak aplikatuz eta sareko komunikazioan, kolaborazioan eta parte-hartze aktiboan erabilera-lizentziak eta jabetza intelektualekoak errespetatuz.
5.2. Teknologia digitalek gizartearen hainbat esparrutan egindako ekarpenak ezagutzea, bereziki emakumeek egin duten ekarpena baloratuz (haien bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko) eta hainbat kolektibok teknologia horiek eskuratu, erabili eta baliatzeko jasaten duten eten digitalaz (ekonomikoaz, geografikoaz, generoari lotutakoaz, hizkuntzari lotutakoaz eta abar) jabetuz.
5.3. Konektatutako baliabide digitalek adierazteko eskaintzen duten aukeraren, erraztasunaren eta askatasunaren garrantzia baloratzea, jasotzen diren mezuak kritikoki aztertuz eta haien objektibotasuna, ideologia, asmoa, alborapenak eta iraungitzea kontuan hartuz.
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Proposamen edo konponbide teknikoak eraginkortasunez aurkeztea eta zabaltzea, diskurtsoaren hizkuntza-egitura, hiztegi tekniko, intonazio, espresio, denboraren kudeaketa eta egokitzapen egokia eta hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiliz eta kultura-aniztasuna eta hura adierazteko moduak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak. Digitalizazioa
7. kompetentzia espezifikoak
7.1. Erronka digitalei aurre egitean norberaren emozioak identifikatzea eta kudeatzea, autokontzientzia eta identitate-zentzua garatuz eta estres-iturriak ezagutuz.
7.2. Digitalizazioajakintzagaiko ikaskuntza-egoerei aurre egitean pertseberantzia eta motibazio positiboa agertzea, kritika arrazoitua onartuz.
7.3. Aktiboki laguntzea eta harremanak eraikitzea, talde heterogeneoetan lan eginez, elkarren artean modu eraginkorrean komunikatuz, modu kritiko eta sormenezkoan pentsatuz eta erabaki adostuak eta informatuak hartuz, ikasitako edukiak aplikatzea dakarten problemak ebazteko.
7.4. Taldean egin beharreko zereginen banaketan parte hartzea, inklusioa eta entzute aktiboa praktikan jarriz, esleitutako rola bere gain hartuz eta egin beharreko ekarpenaz arduratuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Digitalizazioa
A. Gailu digitalak, sistema eragileak, komunikazio-sistemak eta pentsamendu konputazionala
Ordenagailuen arkitektura: elementuak, muntaia, konfigurazioa eta problemen ebazpena.*
Sistema eragileak: instalazioa eta erabiltzaile-konfigurazioa.*
Algoritmoak eta fluxu-diagramak.*
Algoritmoak interpretatu eta aldatzeko estrategien identifikazioa.*
Gailu mugikorretarako eta webgunerako aplikazio sinpleak, errealitate birtuala, areagotua eta mistoa.
Komunikazio-sistemak eta internet.
Sareko gailuak eta funtzionamendua. Etxeko sare bat konfiguratzeko eta gailuak konektatzeko prozedura.*
Konektatutako gailuak (IoT+Wearableak).
Gailuen konfigurazioa eta konexioa.
Materialen berrerabilera eta energia aurrezteko ohituren sustapena.*
B. Ikasteko ingurune pertsonalaren (PLE) digitalizazioa
Ikasteko ingurune pertsonalaren kudeaketa eta konfigurazio autonomoa.*
Informazioaren bilaketa eta hautaketa.*
Eduki digitalen edizioa eta sorkuntza, bakarka eta taldean, tresnarik egokienak erabiliz.*
Sareko komunikazioa eta kolaborazioa.*
Argitalpen eta hedapen arduratsua sareetan.
C. Segurtasun eta ongizate digitala
Gailuen segurtasuna.
Gailuen aurkako arrisku, mehatxu eta erasoei aurre egiteko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak.
Datuen segurtasuna eta babesa.
Identitatea, ospea, pribatutasuna eta aztarna digitala. Prebentzio-neurriak. Konfigurazioa sare sozialetan. Identitate birtualen kudeaketa.*
Segurtasuna osasun fisiko eta mentalean.
Ongizate pertsonalaren aurkako mehatxuak eta arriskuak. Erantzuteko aukerak. Sareko indarkeria- eta arrisku-egoerak.*
Ingurumenaren segurtasuna: teknologia digitalen erabilera iraunkorra.

Oinarrizko jakintzak. Digitalizazioa	
D. Herritartasun digital kritikoa	
Sareko elkarreragitea: adierazpen-askatasuna, etiketa digitala, jabetza intelektuala eta erabilera-lizentziak.*	
Hezkuntza mediatikoa: kazetaritza digitala, blogosfera, komunikazio-estrategiak eta sarearen erabilera kritikoa, albiste faltsuak eta iruzurrak detektatzeko tresnak.*	
Administrazio-kudeaketak: online zerbitzu publikoak, erregistro digitalak eta ziurtagiri ofizialak.*	
Merkataritza elektronikoa: faktura digitalak, ordaintzeko moduak eta kriptodirua.	
Etika datu eta tresna digitalak erabiltzean: adimen artifiziala, alborapen algoritmikoak eta ideologikoak, zaharkitze programatua eta burujabetza teknologikoa.	
Online aktibismoa: herritarren ekimeneko eta ziberboluntariotzako plataformak eta hardware- eta software-komunitate libreak.	
Emakumeek konpetentzia digitalen garapenari egindako ekarpena.	
Kultura-aniztasunaren balorazioa.	
EKomunikazioa eta hedapena	
Ideien, kontzeptuen edo emaitzen aurkezpena eta hedapena, komunikazio eraginkorra eta hizkuntza tekniko erabiliz eta ahozko adierazpena, intonazioa, gorputz-hizkuntza eta aurkezpen-denbora kontuan hartuta, eta hainbat forotarako egokitzapena, hizkuntza inklusiboa eta estereotipo sexistarik gabea erabiliz eta kultura-aniztasuna eta hura adierazteko moduak errespetatuz.*	
F. Zentzu sozioemozionala	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	<p>Problema teknologikoak eta digitalak ebazteko sormena, ekimena, pertseberantzia eta erresiliencia.*</p> <p>Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen (hala nola autokontzientziaren, autoerregulazioaren eta pertseberantziaren) kudeaketa estereotipatu gabea eta egokia.</p> <p>Malgutasun kognitiboaren garapen egokia, beharrezkoa denean estrategia-aldaketa bat bilatuz eta hutsegitea ikasteko aukera bihurtuz.*</p>
2. Talde-lana eta erabakiak hartzeko jarraibideak.	<p>Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak eta parte-hartze aktiboa eta bidezkoa, talde-lana optimizatzeko.*</p> <p>Gatazkak konpontzeko laguntza eskatu, eman eta kudeatzeko prestasuna.</p> <p>Erantzukizunak genero-alborapenik gabe hartzeko jarraibideak, taldearen helburuak lortzeko.</p> <p>Emakumeen ahalduntzea eta agerikotasuna erantzukizun- eta lidergo-roletan.*</p>
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	<p>Jarrera inklusiboen aplikazioa eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunaren onarpena.*</p> <p>Jokabide enpatiko eta asertiboaren eta gatazkak konpontzeko estrategien erabilera ingurune analogiko eta digitaletan.</p>

EKONOMIA ETA EKINTZAIETZA

Ekonomia bizitzaren alderdi guztietan dago, eta horregatik da garrantzitsua ikasleek ezagutza ekonomikoak eta finantzarioak eskuratzea, informatuta egon daitezen eta baliabide indibidualak eta kolektiboak egoki kudea ditzaten, beren bizi-kalitatearen, aurrerapenaren eta gizarte-ongizatearen hobekuntza sustatzen laguntzeko.

Ekonomia eta Ekintzailtza jakintzagaiaren ikasketa eta prestakuntza beharrezkoa da gure hezkuntza-sistemaren etapa honetan, elkarri lotutako bi helburu baititu. Alde batetik, ekonomia eta finantzak ikasita, gertakari ekonomikoak azaltzen dituzten elementuak eta arauak ezagutarazten dira, baita finantza-erabakien ondorioak ere, besteak beste honako hauekin lotutako balioak proiektatuz: pertsonen arteko elkartasuna, iraunkortasunaren garrantzia, arrakala ekonomikoa eta digitala, ekitaterik eza edota baliabideen eta desberdintasunaren kudeaketa. Bestalde, ikasleei prestakuntza ekonomikoa eta finantzarioa

eskaini nahi zaie, ingurunean hautemandako beharrak asetzen lagunduko duten aukerak eta ideiak bilatzera motibatuko dituen, ideia horiek ekintzara eramateko estrategiak garatuz eta, horrela, pertsona guztientzako balioa sortuko duen, berrituko duen eta ongizate pertsonala, soziala eta kulturala hobetzen lagunduko duen proiektu ekintzailea sortuz.

Ekonomia eta Ekintzailtza jakintzagaia ikastearen helburua da ihes egitea neurrigabeko hazkunderako joera duen ekonomia merkantilistaren munduaren ikuspegi tradizionaletik, lankidetzaren bidez hazkunde inklusiboa, ekitatiboa eta iraunkorra bilatuko duen ekonomia ekosozial baten ikasketaren mesedetan. Ekonomia horrek bidea eman behar du desberdintasunak murrizteko, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko eta giza jarduera biosferaren zikloetara egokitzeko.

Ekonomia eta Ekintzailtza jakintzagaiaren hezkuntza-helburua bat dator Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioarekin, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruzkoarekin. Gomendio horrek adierazten du beharrezkoa dela hezkuntzan tresnak sartzea ikasitakoa denbora errealean aplikatu ahal izateko, eta ideia, teoria, produktu eta ezagutza berriak sortzeko.

Jakintzagai honen curriculum diseinatzean, erreferentetzat hartu dira espero den kompetentzia-garapena zehazten duten deskriptore operatiboak, oinarrizko irakaskuntza amaitzean ikasleek izango duten irteera-profilaren arabera. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako finkatutako helburuei begira diseinatu da, ikasleengan «espíritu ekintzailea eta beren buruarekiko konfiantza, parte-hartzea eta zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko gaitasuna» garatzen laguntzeko.

Ikaskuntza esanguratsuak, funtzionalak eta ikasleentzat interesgarriak diren abiatuta garatzen da, eta kompetentzia espezifikoko batzuk eskuratzearen inguruan antolatuta dago. Kompetentzia horiek helburu hauek dituzte:

- Lehenik eta behin, espíritu proaktibo hori sustatzea. Espíritu horrek islatu egin behar du ekintzailtza pertsonalaren, sozialaren eta enpresarialaren kultura bizkor eta berritzaileago batean. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek beren buruaren analisi zehatza egitea eta, autoezagutza horretan oinarrituta, prestakuntza eta trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, baita erronkei aurre egiteko, ziurgabetasuna kudeatzeko eta proiektua errealitatera eramateko erabaki egokiak hartzeko behar diren estrategiak ere.
- Bigarrenik, jakintzagai honetarako zehaztutako kompetentzia espezifikoek lagundu egiten dute ikasleek uler dezaten pertsona ekintzaileak bidea ireki behar duela elkarren artean erlazionatzen diren elementuak dituen testuinguru globalean. Horrek eskatzen du ingurunea arakatzea, hainbat esparru analizatuz, besteak beste, esparru soziala, ingurumenekoa, kulturala, artistikoa eta enpresariala, ikuspegi ekonomiko batetik, sor daitezkeen beharrak eta aukerak identifikatzeko, beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aurkitzeko, eta horiek ikuspegi ekintzailea izango duen proiektu pertsonal edo profesional batean aplikatzeko.
- Hirugarrenik, kompetentzia espezifikoek lagundu egiten dute ikasleek ikaskuntzak maila praktikora transferitzen, prozesu osoa barne hartuko duen proiektua garatuz, hura asmatzetik hasi eta azken prototipoa egin arte eta ingurunean aurkeztu arte, ulertuta prototipoa irtenbide berritzaile eta baliozko bat ekarriko duen edozein emaitza izan daitekeela (ondasun bat, zerbitzu bat edo produktu bat).

Era berean, zuzeneko lotura dago jakintzagai honetako kompetentzia espezifikoekin eta Lehen Hezkuntzako printzipio pedagogikoen artean. Horietan, esplizitatu egiten da ikaskuntza esanguratsua bultzatu behar dela, autonomia eta gogoeta sustatzen dituzten kompetentziak garatzeko. Gainera, jarraitutasuna dago jakintzagai honen eta kompetentzia giltzarri guztiak jorratzearen artean —Lehen Hezkuntzako etapan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru mailetan—; bereziki, ekintzailtza-kompetentziari eta kompetentzia pertsonalari, sozialari eta ikasten ikastekoari dagokienez. Biak osatu egiten dira, pertsona ekintzailearen izaera zehaztea ahalbidetzen duten elementuak ekarriz; alde batetik, proiektu ekintzaileak planifikatu, kudeatu eta egikaritzearekin lotutako ezagutzak eskuratzen lagunduz, eta, bestetik, ziurgabetasunari aurre egiteko, gatazkak kudeatzeko, modu kritikoa gogoeta egiteko, erabaki etikoak hartzeko, taldean kolaborazioan aritzeko eta negoziatzeko trebetasunak eta jarrerak gara daitezzen sustatuz.

Ezarritako ebaluazio-irizpideen helburua da konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila egiaztatzea, hau da: etorkizunean lanbide-proiektzioa izango duten esparru pertsonal, sozial eta akademikoko egoeretan edo jardueretan aplikatu daitekeen jarduera kognitibo, instrumental eta jarrerazkoaren maila.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarritzko jakintzak lau multzotan antolatzen dira.

- *Pertsona ekintzailearen profila, ekimena eta sormena*: pertsona ekintzailearen profilaren analisiarekin eta garapenarekin lotzen da, eta bereziki nabarmentzen du autoezagutza, trebetasun pertsonalak eta kudeaketa-estrategiak garatzea, ekin behar den testuinguru aldakor eta zalantzarriari aurre egiteko.
- *Ingurunea ideien eta aukeren iturri gisa*: ingurune ekonomikoari, enpresarialari, sozialari, ingurumenekoari, kulturalari eta artistikoari buruzko analisiarekin lotzen da, baita ingurune horiek arakatzeko estrategiak garatzearekin ere —ikasleei premiak identifikatzea eta ingurune horietan sortzen diren aukerak bilatzea ahalbidetuko dieten estrategiak—, eta ikasleei ikusarazten zaie inguruneak bere proiektu pertsonalak eta profesionalak gauzatzea baldintzatuko duela.
- *Proiektu ekintzaile bat gauzatzeko baliabideak*: giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak erakarri eta kudeatzearekin lotzen da, proiektu bat errealitatera eramateko beharrezko elementuak diren heinean. Horrela, zenbait gai jorratzen dira, hala nola finantzaketa-iturriak, finantza-baliabideak eta lan-taldearen prestakuntza eta funtzionamendu bizkorra.
- *Proiektu ekintzailea gauzatzea*: helburu du proiektu ekintzaile bat egiteko metodoa ezagutaraztea, asmatze-fasetik hasi eta azken prototipoa egikaritu eta baliozkotzeko faseetara iritsi arte. Prozesu horretan, ikasleak ohitu egingo dira ikasgelan beren proiektu berritzailea egiteko garaian erabil ditzaketan metodologia bizkorrekin.

Jakintzagai honen programazioari dagokionez, curriculumak ikuspegi teoriko-praktiko batetik zehaztea proposatzen da, jakintzak proiektu ekintzaile baten garapenean aplikatuz horren fase bakoitzean. Horrela, ikaskuntzak ekintzan eta ekintzatik eraikiko dira. Ikasleek proiektua asmatuko dute, baliabideak kudeatuko dituzte, prototipoak garatuko dituzte, horien baliozkotze iteratiboan parte hartuko dute eta erabakiak giro malgu eta irekian hartuko dituzte. Horrek bidea emango die taldean lan eginez beren gaitasunak hedatzeko eta beren trebetasunak eta jarrera ekintzaileak sendotzeko. Lan-dinamika horrek sormeneko, kolaborazioko eta partaidetzako kultura sorrarazten du, pertsona guztientzat balioa sortzera bideratua. Proiektu hori gauzatzeko, beharrezkoa da, alde batetik, ezagutzak eskuratzea eta garatzea hainbat arlo aztertuz, hala nola matematika, ingelesa, filosofia eta etika, informatika, etab.; eta, bestetik, ezinbestekoa da jakintzagai horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, horrela proiektu berritzailea efizientziaz egin ahal izateko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak analizatzea eta baloratzea, gaitasunei buruz gogoeta eginez eta behar diren emozioak eta trebetasunak eraginkortasunez kudeatuz, ingurune aldakorretara egokitzeko eta gizartearentzat balioa sortuko duen proiektu ekintzaile pertsonal bakarria diseinatzeke.

Autoezagutzari esker, pertsonak bere asmo, behar eta desiretan araka dezake, bere gaitasunak ezagutu ditzake, bere adimenak bereizi eta, horrela, bere indar eta ahuleziei buruz gogoeta egin dezake, eta horiek hazkunde pertsonalerako iturri gisa baloratzen ikasi. Era berean, emozioak ezagutzea eta kudeatzea dakar, testuinguru aldakor eta globalizatueta eta gatazka kognitibo eta emozionala sor dezaketan egoera zalantzarrietara egokitzeko, helburu hartuta proiektu pertsonal bat abian jartzea eta gauzatzea, balio bakarreko proposamen baten bidez. Horrek bizitzako esparru eta egoera guztietan (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak) aukera berriak bermatu behar ditu.

Garrantzitsua da proiektuari jarrera ekintzaile, erabakitzaile, berritzaile eta iraunkorrek aurre egitea, hainbat ingurunetara egokitu ahal izateko, eta bai bakarka, bai taldean, sormenez jarduteko ohitura ga-

ratzearen garrantzia ulertzea. Horretarako, sormen-gaitasuna trebatu behar da, gaitasun hori hainbat agertokitan aplikatuz, baliozko aurrerapen pertsonalak, sozialak, kulturalak, artistikoak eta ekonomikoak lortzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, HK1, EK2 eta KAKK3.

2. Taldeak osatzeko estrategiak erabiltzea, baita gizarte-trebetasunak, komunikaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak ere, horiek hainbat testuingurutako lan-dinamiketan autonomiaz eta motibazioz aplikatuz, lantalde eraginkorrak eratzeko eta irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan beste pertsona batzuekin kooperazioan aritzearen balioa ezagutzeko.

Proiektu bati arrakastaz aurre egiteko, ezinbestekoa da norberaren eta besteen ezaugarri bereizgarriak eta nolakotasunak ezagutzea eta baloratzea. Pertsonen ahalmenak behar bezala identifikatuz gero, lantalde orekatu, eraginkor, kooperatibo, motibatua eta arduratsu bat eratu ahal izango da, batzuen eta besteen ahuleziak konpentsatu eta haien indarrak sendotuko dituen eta, horrela, ekin nahi zaion proiektuaren beharretara egokituko dena.

Lantaldeak eratzeko hainbat estrategia abiarazi behar dira, helburuak, arauak, rola eta erantzukizunak ekitatez zehaztuz eta kideen arteko aniztasuna bultzatuz. Horrela, talde multidimentsionalak eta inklusiboak lortzen dira, elkarrizketaren bidez adimen kolektiboa sortzeko gai direnak, autonomiaz funtzionatzeko eta berrikuntza bizkorrean lagundu ahal izateko.

Zenbait gizarte-trebetasun, hala nola enpatia, asertibitatea, negoziazioa, lidergoa eta gainerakoen interes, hautu eta ideiekiko errespetua behar bezala garatzeak eta erabiltzeak, baita hizkuntzak ezagutzeak eta komunikazio-trebetasunak erabiltzeak ere, erraztu egiten du taldeko kideen artean ikuspegi partekatua izatea, lan-giro ona sortzea eta kooperazio-loturak eraikitzea. Horrek berekin ekarriko du hazkunde pertsonal eta kolektiboa lortzea eta gizonen eta emakumeen arteko errespetu-, ekitate- eta berdintasun-balioak areagotzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KE2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1 eta EK2.

3. Hautemandako behar ekonomiko eta/edo sozial tokiko eta globalei erantzungo dieten ideia eta irtenbide berritzaileak eta iraunkorrak lantzea, zentzu etiko eta solidarioarekin, asmatzeko metodologia bizkorak erabiliz eta haien indarrak eta ahuleziak nahiz ideia horiek ingurunean sor dezaketen inpaktua analizatuz, ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa babesteari eta zaintzeari lotutako erronkak gainditzea lortzeko.

Gaur egungo erronkei aurre egiteko, ezinbestekoa da pertsonari beharrezko tresnak ematea, ekimenez eta ikuspegi kritiko eta ekintzaile batetik, beren inguruneko arazo eta beharrei modu eraginkorrean erantzun diezaiaketen ideia eta irtenbide berritzaile eta iraunkorrak bilatu, sustatu eta gara ditzaten. Ideia eta irtenbide horiek testuinguru zabalagoetara, baita globalagoetara ere, eraman litezkeen tokiko erronkei erantzun behar diete. Hori lortzeko, funtsezkoa da ideiak sortzen trebatzea eta horiek baliozkotze-prozesuen mende jartzea, banakako nahiz taldeko metodologia bizkorak erabiliz, eta ideia horiek gauzatzeak bizitzako eta sektoreetako esparru eta testuinguru guztietan izan dezakeen inpaktua analizatuz.

Egungo erronkei erantzunak bilatzeko prozesu hori ezinbestean lotuta dago balio sozial eta pertsonalekin. Horregatik, ideiak eta irtenbideak asmatzeko eta diseinatzeko prozesuan (aplikazio informatikoak garatzea barne), beharrezkoa da garapen iraunkorreko helburuak kontuan hartzea eta printzipio etiketatik jardutea, genero-ikuspegiari erreparatuz. Horrek berekin dakar gure ekomendekotasuna eta errealitate desberdinak ezagutzea eta horietaz jabetzea, eta gure munduaren eta gizartearen aukerak baloratzea, munduaren zaintza eta babesarekiko jarrera proaktibo eta konprometituarekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM5, KD4, KD5, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK3.

4. Proposatutako ideia edo irtenbide sortzailea garatzeko prozesuan eskuragarri dauden baliabideak hautatzea eta biltzea, baliabide horiek ematen dituzten produkzio-bitartekoak eta finantza-iturriak ezagutzuz eta horiek erakartzeko estrategiak aplikatuz, irtenbide ekintzailea errealitatera eramango duen proiektua abian jartzeko.

Ideiak balio-prototipo bihurtzea dakarren prozesuaren barruan, nahitaezkoa da kontuan hartzea eskura dauden giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak lortzera eta kudeatzera bideratutako fase bat, etikoki, efizientziaz eta modu iraunkorren ideia edo irtenbide ekintzailea errealitate bihurtzeko dezentak bilduz eta hautatuz. Baliabideen mobilizazioa eta optimizazioa ekintza-planaren partetzat hartzeko ikuspegi horrek, gainera, hori planteamendu etikoetatik egitea eskatzen du; horrela, ideiarekin xede den ingurunean inpaktu positiboa izango duen jardunbide egokien eredu bat eskainiz. Etika prozesu sortzailearen hasierako uneetatik agertzen da garapen iraunkorrera eta ongizate komuneraren bideratutako ekimenetan. Era berean, ideien eta irtenbideen babesa ere biltzen du, eta horrek ezagutza espezifikoak eskatzen du besteen sorkuntzekiko errespetua eta norberaren ideia eta irtenbideen gaineko eskubideak bermatzeko.

Bestalde, ideia bideragarri bat abian jartzeak erronka erantzukizunez onartzea dakar, eta pertsona ekintzaileak eta taldeek ezagutza ekonomikoak, finantzarioak, legezkoak eta teknikoak izatea, horiek prestakuntzaren bidez eskuratutako baliabide propioetatik ere ulertuta. Ezagutza horiek ikasleak orientatu behar dituzte finantzaketa bilatzean eta tresna digitalak erabiltzean. Bestalde, tresna digitalek ideia eta irtenbideei zabalkundea eta proiektzioa eman behar dizkiete horiek gauzatzeko prozesuan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD2, EK1, EK2.

5. Ideia eta irtenbide sortzaileak aurkeztea eta azaltzea, komunikazio-estrategia bizkorak erabiliz eta komunikazio eraginkor eta errespetuzkoaren garrantzia baloratuz, egoera bakoitzaren testuinguruari eta helburu zehatzei egokitutako mezu sinesgarriak transmititzeko eta aurkeztutako ideia eta irtenbide ekintzaileak baliozkotzeko.

Bizi garen mundu global eta konplexuak prestakuntza eskatzen du pertsonen komunikaziorako konpetentzia hobetzeko. Garrantzitsua da ulertzea komunikazio-estrategiak garrantzi berezia hartzen duten elementuak direla, pertsona ekintzaile batek beste batzuekin modu eraginkorren eta positiboan interakzioan jardun dezan. Ezagutzak eta esperientziak gainerako pertsonekin partekatzeak aukera ematen du irtenbide egiaztatuak eta berritzaileak asmatzeko, motibatuzko, konbentzitzeko, erabakiak hartzeko eta aukerak sortzeko. Alde horretatik, komunikazio bizkorreko estrategiak erabiltzeak erraztu egiten du ideia original bat azaltzeko zeregina, haren indarrak eta ahuleziak argi eta azkar transmitituz. Era berean, taldeei aukera ematen die sortutako ideia sortzaileak azkar partekatzeko, baliozkotzeko edo baztertzeko, baita proposatutako erronkei aurre egitea helburu hartuta azkenean aukeratzen diren irtenbideen inguruko erabakiak hartzeko ere.

Bestalde, orobat, beharrezkoa da pertsonen proiektu ekintzailean garatuko den ideia edo irtenbidea ingurune analogiko eta birtualetan modu argi, erakargarri eta sinesgarrian aurkezteko eta azaltzeko tresnak eskuratzea, proiektua gauzatzeko edo zabaltzeko behar diren baliabideak biltzeko amoz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD3, KPSII1, HK1, EK1, EK2.

6. Ekonomiaren eta finantzen oinarriko alderdiak ulertzea, ingurune ekonomiko eta soziala analizatuz, behar diren baliabideak planifikatuta, planteatzen diren erronka berriei erantzuneko ideia edo irtenbide ekintzaile bat garatzeko.

Gaur egun, funtsezkoa da ingurunea eta gizartea ikuspegi ekonomiko batetik ezagutzea eta ulertzea. Hain zuzen, testuinguru horietan sortzen diren beharrak eta aukerak, eta horiei erantzun behar zaie, sortzen diren erronka berriei erantzuneko dieten irtenbide sortzaileak, errealistak, eraginkorrak eta iraunkorrak eskainiz.

Heldu beharreko lau elementu daude. Lehenengoa arazo ekonomikoari buruzkoa da. Horrek pertsonen hartu beharreko erabakiak baldintzatzen ditu, behar indibidualak eta kolektiboak betetzeko hautemandako urritasun-mailaren arabera. Hortik dator adierazleak interpretatzen jakitearen eta merkatuetan eta gizartean bertan joerak ikuspuntu ekonomiko batetik aurkitzen ikastearen garrantzia. Bigarrenak zerikusia du erabaki pertsonalak modu arduratsuan gidatzeko behar diren ezagutzak emango dituen eta ekiteko baliabideak lortzen lagunduko duen finantza-heziketa eskuratzeko beharrek. Hirugarrena ingurune ekonomiko eta sozialaren analisiari buruzkoa da. Analisi hori ikuspegi makroekonomikotik zein mikroekonomikotik egiten da. Ulermen hori abiapuntua da bete gabeko beharrak hautemateko eta egungo erronkei modu eraginkor, ekitatibo eta iraunkorrean irtenbidea emango dieten ideia berritzaileak sortzeko. Eta, azkenik, proiektu ekintzaile bat abian jartzeak berekin dakar hura bere testuinguru ekonomikoaren barruan kokatzea, horrek, neurri handi batean, haren bideragarritasuna baldintzatuko baitu, ekimen zehatzaren xede diren ingurunea eta sektorea aldekoak diren aurreikusteko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, HK1, EK1, EK2, EK3.

7. Modu kooperatiboan, autonomoan eta bizkorrean prototipo berritzaileak eta iraunkorrak eraikitzea eta analizatzea, diseinatze eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak aplikatuz, prozesu ekintzailearen fase guztiak modu kritikoan eta etikoan ebaluatuz eta lortutako emaitzak baliozkotuz, bai sortutako prototipoak hobetzeko eta perfektionatzeko, bai ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboan aurrera egiteko.

Proiektu ekintzaile baten helburua irtenbide berritzaile bat da, xede duen ingurunean erabiltzen den azken prototipo, ondasun edo zerbitzu bihurtua.

Azken prototipo hori modu kooperatiboan gauzatzen den eraikuntza-prozesu baten emaitza da, eta berekin dakar jarrera kritiko eta etikoarekin etengabe ebaluatu behar diren faseetatik igarotzea. Hala, prozesu sortzailean irtenbide-hipotesiak planteatzen dira, eta horiek ikaskuntza baliozkotu bihurtu behar dira. Horretarako, prototipoak eraikitzea jotzen da, baliozkotu nahi dugun irtenbidearen edo irtenbide zatiaren errepresentazio ukigarri gisa. Irtenbide berritzailea jasotzen duen prototipoa aukeratu ondoren, proiektua diseinatu, kudeatu eta gauzatzen da. Horretarako, beharrezkoa da ezagutzea eta aukeratzeko jakitea baliabideak kudeatzeko estrategiak, antolamenduedo negozio-eredua, egikaritze-plana eta prototipoak egiteko teknikak eta tresnak. Beharrezkoa da erabaki egokiak gero eta autonomia handiagoz hartzen ikastea, proiektua modu bideragarri eta iraunkorrean gauzatzeko, kontuan hartuta gauza beneratzen garrantzitsua ikaskuntza baliozkotua dela. Sortutako prototipoak ebaluatze eta testatzeko, funtsezkoa da metodologiak, teknikak eta tresnak ezagutzea, azken prototipoaren garapena bizkorra, iteratiboa eta inkrementala izan dadin. Horrek eskatzen du lanaldi laburrak programatzea, non ikaskuntza esperimentatuak eta baliozkotuak egiaztatu ahal izango diren, eta ingurune aldakorretan irtenbide optimoak eta iraunkorrak eskaintzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM5, KD5, KPSII3, KPSII5, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Ekonomia eta Ekintzailetza
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 .Proiektu pertsonal original eta balio-sortzaile bat sortzea, ingurune konplexu eta aldakorretara egokituz, eta norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak arazoituta analizatzeko estrategiak erabiliz.
1.2. Emozio eta trebetasun pertsonalak eraginkortasunez kudeatzea, norberaren gaitasunei buruz gogoeta eginez eta jarrera sortzaileak sustatuz eta garatuz.

Ebaluazio-irizpideak. Ekonomia eta Ekintzaitza
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Ekitatearen, hezkidetzaren eta gizonen eta emakumeen arteko ekitatearen printzipioetan, parte hartzeko jarreran eta helburu komunak bistaratzean oinarritutako lantaldeak eratzea, helburu gisa hartutako erronka lortzeko behar diren giza baliabideak identifikatzen eta optimizatzen lagunduko duten estrategiak erabiliz.
2.2. Trebetasun sozialak, komunikazio irekikoak, motibaziokoak, lidergokoak, kooperaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak praktikan jartzea talde-laneko hainbat testuingurutan, analogikoetan zein digitaletan.
2.3. Gauzatutako prozesuaren faseetan eta lan-dinamiketan besteen ekarpenak baloratzea eta errespetatzea, modu kolektiboan hartutako erabakiak errespetatuz
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa zaintzeko eta hobetzeko jardutea, garapen iraunkorra sustatuko duten proposamen eta jardura tokiko eta globaletatik abiatuta, ikuspegi sortzaile, ekintzaile eta konprometituarekin. Ideiak garatzea eta irtenbide bizkor, berritzaile eta iraunkorrak bilatzea helburu hartutako erronkak gainditzeko, horien abantailak eta eragozpenak eta izaera etikoa ebaluatuz, baita maila pertsonalean eta ingurunean sor dezaketen inpaktuaren ebaluazioa eginez ere.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Irtenbide ekintzaile bat errealitatera eramango duen proiektu bideragarri bat abian jartzea, sormenezko asmatze-prozesuan eskura dauden baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aukeratuz eta bilduz, eta horien erabilera efizientziaz planifikatuz..
4.2. Baliabideak erakartzeko eta kudeatzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea, ideiak eta irtenbideak ekintza bihurtzeko prozesuaren ezaugarriak ezagutzuz..
4.3. Proiektu ekintzaileari ondoen egokituak zaion forma juridikoa aukeratzea eta enpresaren zerga-betebehar nagusiak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak identifikatzea, proiektua abian jartzeko tramiteak ezagutzuz
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Testuingurura eta helburu zehatzetara egokitutako sormenezko ideiak eta mezu sinesgarriak aurkeztea eta azaltzea, aurkeztutako ideiak eta irtenbideak baliozkotzeko, prozesu osoan zehar komunikazio eraginkorra eta errespetuzkoa mantentzearen garrantzia baloratuz
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Beharrak hautematea, ingurune ekonomikoari eta sozialari buruzko analisiaren bidez, behatutako ondorioak ideia berritzaile bat sortuz.
6.2. Erronkei modu sortzailean, eraginkorrean, ekitatiboan eta jasangarrian aurre egitea, zenbait testuinguru eta egoera erreal edo simulatutan, beharrezko ezagutza ekonomiko eta finantzarioak transferituz.
6.3. deia edo irtenbide ekintzaile bat garatzea, ekonomiaren eta finantzen esparrutik eskuratutako ezagutza, trebetasun eta jarreretatik abiatuta, horien eta horiek garatzeko behar diren eta eskuragarri dauden baliabideen arteko harremana ikusiz.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1. Bai ikaskuntzarako, bai garapen pertsonal eta kolektiborako, azken prototipoaren ekarpena baloratzea, gauzatutako prozesuaren fase guztiak modu kritiko eta etikoan ebaluatuz, baita hura eraikitze erabilitako estrategien egokitzapenaren ebaluazioa eginez ere.
7.2. Sortutako prototipoak egiteko jarraitutako diseinu- eta egikaritze-prozesua modu kritikoan analizatzea, prozesuetan lortutako eraginkortasunaren, bideragarritasunaren eta egokitzapenaren eta lortutako emaitzen arteko konparazioak ezarriz.
7.3. Diseinatze eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea, azken prototipoa modu bizkor, kooperatibo eta autonomoan eraikitzea erraztuko dutenak hautatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Ekonomia eta Ekintzaitza
A. Pertsona ekintzailearen profila, ekimena eta sormena.
Pertsona ekintzailearen profila. Autokonfiantza, autoezagutza, enpatia, pertseberantzia, ekimena eta erresilientzia. Adimen emozionala (AE)*. Ahuleziak eta indarrak diagnostikatzeko teknikak eta tresnak. (AMIA)*.
Sormena, ideiak eta irtenbideak.

Oinarrizko jakintzak. Ekonomia eta Ekintzailletza
Gizarte-trebetasunak*: Komunikazioa, motibazioa eta lidergoa; negozio-estrategiak.
Emozioen kudeaketa*. Ziurgabetasuna kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak testuinguru aldakorretan. Errorea eta baliozkotzea hobetzeko eta ikasteko aukera gisa.
Ikuspegi ekintzailea*. Euskal ekintzailearen figura tokiko garapenaren iturri motor gisa.**
Estereotipoak enpresa-profilean; genero-rolen haustura enpresa-jardueran.*
Ekintzailletza, eta lana eta familia bateragarri egiteko estrategiak, erantzunkidetasunetik abiatuta.*
Erromanizazioak gure eguneroko bizitzan, ohituretan, aisian eta antolamendu sozial eta politikoetan eragin dituen eraldaketa nagusietakoren bat kritikoki aztertzeo jarraibideak.
Iturri analogiko eta digitaletan oinarrituta informazioa hautatu, antolatu, egiaztatu, koproduzitu eta komunikatzeko jarraibideak.
Kolaborazio-proiektuetan parte hartzeko tresna eta/edo plataforma digitalak erabiltzeko jarraibideak.
B. Ingurunea ideien eta aukeren iturri gisa
Ekonomiaren oinarrizko printzipioak. Arazo ekonomikoa: baliabideen eskasia eta aukeratzeko beharra*. Hautaketa ekonomian*. Kostuak, analisi marjinala, pizgarriak. Pertsonen portaera erabakietan.
Ingurunearen ikuspegi ekonomikoa. Garatzeko bidean dauden merkatuen hazkundea*. Merkataritza, ongizatea eta desberdintasunak.
Ekonomia- eta enpresa-ingurunea. Eragile ekonomikoak eta errentaren fluxu zirkularra*. Merkatuen funtzionamendua*. Merkatua eta negozio-aukerak: ingurune orokorraren edo makroingurunearen analisia; ingurune espezifikoen edo mikroingurunearen analisia.
Gizarte-ingurunea ikuspegi ekonomikotik. Kolaborazio-ekonomia. Ekonomia soziala eta solidarioa. Enpresa eta bere erantzukizun soziala. Enpresa-erabakia eta berrikuntza (I+G+B) gizartea eraldatzeko iturri gisa.
Ingurune ekologikoa ikuspegi ekonomikotik. Planetaren mugak, aztarna ekologikoa eta ekonomia zirkularra*. Garapen iraunkorreko helburuak (GIH) eta tokiko garapena. Greenwashinga
Ingurune kulturala ikuspegi ekonomikotik. Produkzio-sektoreak eta ingurune kultural, digital eta artistikoaren generoak. Proiektu kultural ekintzaileak sortzen laguntzen duten eragileak. Ekintzaile kulturalaren figura*.
Ingurunea arakatzeko estrategiak. Informazioaren bilaketa eta kudeaketa.
C. Proiektu ekintzaile bat gauzatzeko baliabideak.
Enpresaren edo erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak. Erakunde ekintzaileen antolamendua eta kudeaketa. Enpresaren eginkizunak.
Giza baliabideak: Taldeak enpresetan eta erakundeetan. Talde-lanerako estrategia bizkorrak. Lan-taldeen prestakuntza eta funtzionamendua.
Finantza-baliabideak. Pertsona ekintzailearen finantzak*. Diruaren kontrola eta kudeaketa. Iturriak eta sarreraren eta gastuen kontrola. Epe laburreko eta luzeko finantza-baliabideak eta horiek finantza-ongizatearekin duten lotura. Zorpetzea. Finantzaketa-iturriak eta finantza-baliabideak erakartzeko estrategiak. Crowdfundinga*. Finantza-sistamarako hurbilketa. Finantza-erakundearen funtzionamendua*. Finantza-arriskuaren kudeaketa eta aseguruak.
Ikasleen hurbileko gaiak (hala nola emakumearen egoera, ekologia, giza eskubideak eta abar) tratatzean literatura-testu greko-latindarren kultura-eredua eta egungoa kritikoki eta genero-ikuspegiarekin aztertzeo estrategiak.
D. Proiektu ekintzailea gauzatzeko estrategiak.
Erronka edo aupada helburu gisa.
Proiektu ekintzaile baten plangintza, kudeaketa, egikaritzea eta ebaluazioa*. Erronkatik prototipora
Enpresa bizkorra: Metodologia. Produktuaren garapena eta berrikuntza bizkorra.
Prototipatze azkarreko teknikak eta erremintak.
Konpetentzia analizatzeko metodoak
Prototipoa ingurunean aurkezteko eta sartzeko estrategiak. Hedapen-estrategiak.
Prototipoak baliozkotzeko eta testatzeko estrategiak. Lan-prozesuaren balorazioa.
Prototipoaren gaineko eskubideak: jabetza intelektuala eta industrial
Erabiltzailea prototipoaren azken hartzaile gisa. Erabiltzaileek erabakiak hartzeko estrategiak. Erabiltzailea kontsumitzaile gisa. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak.
Proiektu ekintzaile bat abian jartzeko oinarrizko administrazio-eskakizunak: forma juridikoa, zergak eta gizarte-segurantza.*

KULTURA KLASIKOA

Kultura Klasikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako aukerako jakintzagaia da, eta ikasleei greziar eta latindar zibilizazioen azterketarako lehen hurbilketa orokorra eskaintzea du helburu, haiek ezagutzearen bidez mundu klasikoaren ondareak mendebaldeko kulturaren duen iraupenaz, eraginaz eta presentziaz jabetu daitezzen eta beren kultura-identitatea eta europar kontzientzia hobeto uler dezaten. Jakintzagai honen planteamendua zibilizazio klasikoa haren ondare material eta immaterialaren bitartez ezagutzera eta haren ezagutza eta balorazio kritikora bideratuta dago, kultura greko-latindarreko elementu historiko, sozial, politiko, kultural, linguistiko eta artistikoei eta sinesmen eta ohiturei tokiko, erkidegoko, lurraldeko, Estatuko eta Europako egungo gizartean eta kulturaren duten iraupenaren identifikazio eta azterketaren bidez ikasleek beren burua hobeto ezagutu eta ulertu ahal izan dezaten, gizarte plural baten parte eta Europako herritar diren heinean.

Kultura Klasikoa jakintzagaiak ikasleen gaitasunak eta funtsezko konpetentziakindartzen laguntzen du, EAEko irakaskuntza-hizkuntzetan eta ikasleen hizkuntza-errepertorioan jatorri greko-latindarreko terminoak oinarri hartuta esanahiak identifikatu, ezagutu eta ondorioztatzeko trebetasunak eskuratzearen bidez, hizkuntzen arteko loturari buruzko gogoeta egiteko eta zibilizazio klasikoak euskal kulturaren, Estatuaren eta Europakoan utzitako ondare materiala eta immateriala modu kritikoa baloratzeko.

Egungo mundu globalean, jakintza-arlo desberdinen, garai desberdinen eta kultura-tradizio desberdinen arteko lotura bultzatuko duen prestakuntza humanistikoa inoiz baino beharrezkoagoa da. Ildo horretan, Kultura Klasikoa jakintzagaiak diziplina anitzeko ikuspegi bat erabiltzeko aukera ematen du, ikasleak ikas-egoeren bidez eta prestakuntza-ikuspegi integral batetik abiatuta ikasturte bereko, aurreko ikasturteetako eta, bereziki, ondorengo ikasturteetako beste jakintzagai batzuekin lotu beharreko jakintza sorta handi batera hurbiltzeko aukera bultzatzen baitu. Osagarritasun horren esperientzian bihurtzen da ikaskuntza ikasleentzat esanguratsu eta garrantzitsu. Gainera, kultura greko-latindarra sakonean aztertzeko gizonen zein emakumeen historian eta gizartean bete duten zereginari buruzko gogoeta indibiduala eta kolektiboa —ikasgelan— egitera bultzatu behar du, bizitza osoan ikaskuntzarako oinarriak finkatzeko. Ikasleak gure gizartearen —gure gizarte-konbentzioen, gure erakundeen, gure ekoizpen kultural, artistiko, zientifiko eta teknologikoen, gure hizkuntzen...— jatorri klasikoaz jabetzea lortu nahi da, eta, gogoeta horretarako, tresna analogikoak eta digitalak erabiliko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Kultura Klasikoaren inguruko konpetentzia espezifikoek iraganarekiko elkarrizketa dute oinarri, hiru ikuspegi osagarritik abiatuta: Europako kulturaren sustrai klasikoak ezagutzea, ikasleen kultura-identitatearen ezagutza sustatuz; konpetentzia eleaniztuna hobetzen laguntzea, etimo greko-latindarretan oinarrituta lexikoa aberastuz, euskaraz, gaztelaniaz eta ikasleen hizkuntza-errepertorioan hizkuntzetan ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzeko; eta zibilizazio greko-erromatarren ondare materiala eta immateriala ezagutzea, egungo mundua gogoeta kritikoa batean oinarrituta interpretatzeko aukera bultzatuz eta herentzia klasikoaz gozatzearen eta hura zainitzearen bidez garapen indibiduala eta kolektiboa suspertuz.

Kultura Klasikoa jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoetara eramaten duten oinarritzko jakintzak hiru multzotan antolatuta daude.

- *Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma* multzoak antzinako mundurako hurbilketa historiko, geografiko, sozial, politiko eta kultural bat eskaintzen du. Garai haietako alderdi horien guztien analisi kritikoa genero-ikuspegiarekin egiteak eta gure mendebaldeko gizarteekin konparatzeak egungo gertakariak eta fenomenoak hobeto ezagutu eta ulertzea ahalbidetzen du eta Europako kultura-identitatea sendotzen du.
- *Hizkuntza klasikoak, Europako ondare komuna* multzoak latinak eta antzinako grekoak EAEko eta Europako egungo hizkuntzen konfigurazioari egindako ekarpen handia azpimarratzen du, eta latinaren eta grekorako (eta, bereziki, hizkuntza horien sistema lexikorako) lehen hurbilketa bat dakar. Hori, nolahi ere, lagungarria da ikasleen ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzeko. Ikuspegi eleaniztunak hizkuntza- eta gizarte-aniztasuna ezagutzen laguntzen du, eta, aldi berean, kulturarteko konpetentziaren garapena sustatzen du.

– *Zibilizazio greko-latindarraren iraupena egungo munduan* multzoak zibilizazio klasikotik jasotako ondare kultural, zientifiko-tekniko, matematiko, literatura-arloko, artistiko eta arkeologikoaren aurkikuntzan, balorazioan eta errespetuan inplikaturako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, ondare horrenganako estimua sustatzen du gozamen-iturri den heinean, eta garapen indibidual eta kolektiborako baliabide gisa erabiltzen du. Horren bidez, ondare horren kontserbazioak eta hobekuntzak dakartzan erantzukizunak bere gain hartu ahal izango dira.

Kultura Klasikoa jakintzagaiko kompetentzia espezifikoak eskuratzeko plangintza egitean beste jakintzagai batzuekiko kooperazio-lanaren aukerak kontuan hartzea gomendatzen da: giza gorputzari eta gai-xotasunei lotutako terminologia eta eguzki-sistemako elementuen izenen jatorriari buruzko ikerketa kolaborazio-lan horien adibideak dira.

Azkenik, Europako herritartasun demokratiko eta aurreiritzirik gabeko baten eraikuntza bultzatzeko, jakintzagai honen barruan nazioz gairik gabeko kolaborazio-lana egin daiteke Europako programen esparruan, kultura greko-latindarra Europako egungo identitatea osatzen duten errealitate guztien topagune gisa landuz. Ildo horretan, tresna digitalen ahalmena bete-betean balia liteke jakintzagai hau ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiararen erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua sustatzeko ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zibilizazio greko-latindarrak Europako identitatearen jatorrian bete duen zeregina baloratzea, bizi-moduei eta pentsamenduaren zein antolamendu administratibo, politiko eta sozialari lotutako antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko eta aztertuz, oraina kritikoki eta genero-analisan oinarrituta aztertuz eta Europako herritartasunaren kontzientzia sendotzeko.

Zibilizazio greko-latindarrak Europako identitatearen hasiera gisa bete duen zeregina baloratzeko, mundu klasikoaren errealitate historiko, geografiko, sozial, politiko eta kulturalari buruzko informazioa bilatu, lortu, prozesatu, sortu eta komunikatu behar da, euskarri analogikoan eta digitalean, eta antzinako bizimoduaren eta pentsamenduaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa lortzeko ezagutza bihurtu behar da informazio hori, gure mendebaldeko gizartekoekiko desberdintasunak eta antzekotasunak konparatzeko, Europaren sorreran, garapenean eta osiera historikoan sakontzeko eta Europako identitatea sendotzeko.

Orainaren analisi kritikoa egiteko, informazioa testuak eta testuingurukoak behar da. Informazio horrek balorazio-hipotesiei elementuak eta argudioak gaineratzea ahalbidetu behar du, kultura-konstanteetara zein kultura-aldagaietara irekita egongo den kontzientzia humanista eta berdintasuneko bat garatzeko. Analisi horri ikuspuntu kritiko batekin ekiteko, ondare greko-latindarrean gizarte gisa hazten laguntzen digun zatia eta dagoeneko mundu modernoan lekurik ez duen eta Europako herritartasunarekin bateraezina den zatia bereizteko gai izan beharra dago, eta gaitzespen-jarrera agertu behar da edozein diskriminazio mota erakusten duten alderdien aurrean. Analisi kritikoa egiteko prozesuetarako, Antzinako klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten kultura-desberdintasunak errespetatuko dituzten gogoe- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK3, HK4, EK3, KAKK1.

2. Hizkuntza klasikoaren (latinaren eta antzinako grekoaren) jatorri, bilakaera, etimologia eta lexikoaren oinarritzeko alderdiak ezagutzeko, EAEko irakaskuntza-hizkuntzekin, inguruko hizkuntzekin eta ikasleen erreperitorio indibidualerako beste hizkuntza batzuekin alderatuz eta lexiko arruntetik ondorioztatuz eta lexiko jasoa, zientifikoa eta teknikoa ulertzeko estrategiak erabiliz, hizkuntza-aniztasuna kultura-berastasunaren adierazgarri gisa baloratzeko.

Latina eta grekoa Europako ondare komunaren jatorria dira, eta ekarpen handia egin dute Europako egungo hizkuntzen konfigurazioan: grekoak, jakintzaren arlo guztietako lexiko zientifiko-teknikoaren zatirik handiena osatzeko erabili den hizkuntza delako; latinak, hizkuntza erromantzeak hizkuntza horretatik eratorri direlako, hizkuntza horien bitartez Europako gainerako hizkuntzetan eragina izan duelako eta mendeetan kultura transmititzeko hizkuntza izan delako. Hizkuntza klasikoaren jatorriari, bilakaerari, etimologiari eta lexikoari buruzko oinarriko alderdiak hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztun batetik abiatuta sartzeak aukera emango die ikasleei ezagutzak eta estrategiak beren erreperatorioko hizkuntzetatik hizkuntza klasikoetara transferitzeko, eta alderantziz. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza eta komunikaziorako konpetentzia hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak aktibatu ahal izango dituzte, hizkuntza-ezagutzen mailak kontuan hartu ahal izango dituzte, eta hizkuntza-, dialekto- eta kultura-aniztasuna identifikatu, baloratu eta errespetatuko dute, kultura partekatu bat eraikitzeko.

Aurreko guztiak ulermenezko irakurketaren eta ahozko eta idatzizko adierazpenaren hobekuntza sustatzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ikasleen erreperatorio akademiko eta pertsonaleko hizkuntzetan, eta trebetasun lexikoak eta semantikoak garatzen laguntzen du, jatorri greko-latindarreko lexiko arruntaren esanahia ondorioztatzeko estrategiak eskuratzearen eta lexiko jasoa, zientifikoa eta teknikoa osagai etimologikoetatik abiatuta ulertzearen bidez. Hizkuntzak alderatzeko, beharrezkoa da transkripzioaren eta bilakaera fonetikoaren oinarriko arauak erabiltzea, lexiko eta hiztegi zientifiko-teknikoan sustrai greko-latindar nagusiak identifikatzea eta hizkuntza modernoetan dauden helenismoak eta latinismoak ezagutzea. Konpetentzia honek antzinako grekoak eta latinak atzerriko hizkuntza berriak ikasteko prozesuan duten baliagarritasunari buruzko gogoeta dakar; prozesu hori tresna digitaletan oinarrituta egin daiteke, hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2.

3. Mundu klasikoaren ondare materiala eta materialaz jabetzea eta berau baloratzea, zibilizazio greko-latindarrak egungo gizartearen esparru askotan izan duen eragina identifikatuz, ondare arkeologiko eta artistikoaren zaintza, kontserbazio, zaharberritze eta jasangarrirako prozesuak justifikatzeko.

Ondare kultural, arkeologiko eta artistiko greko-erromatarra, materiala eta immateriala, gure herrialdeak ez ezik gure ingurune herrialdeek ere jaso dute, eta arreta espezifikoa merezi du, zibilizazio greko-latindarraren zuzeneko herentzia baita. Ondare klasikoaren aurkikuntzan eta ezagutzan oinarrituta, zibilizazio klasikoak mendebaldeko kulturaren utzitako herentzia identifikatuko dute ikasleek, zibilizazio greko-latindarraren kultura- eta arte-adierazpenak egungo produkzio askoren ereduak eta aurrekariak baitira neurri handian. Haien artean, azpimarratu beharrezkoak dira, alde batetik, eskultura eta arkitektura (haien aztarnak gure ondare historikoaren parte dira gaur egun), eta, bestetik, literaturaren adierazpenak (haren konfigurazioak —generotan— gure literatura-tradizioa eta egileek erabilitako topikoak eta baliabideak ekarri ditu). Era berean, ezinbestekoa da ondare klasikoa zientzia aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean ikustea, Antzinaro Berantiarreko konpilazio entziklopedikoen bitartez. Beste kultura-adierazpen batzuek, hala nola mitologiak edo erlijioak, ez dute jarraitutasunik gaur egun, baina gure zibilizazioaren tradizioaren parte dira, eta haien eragina erabakigarria da mendebaldeko imajinarioa eratzeke.

Bestalde, herentzia materiala ezagutzeko, beharrezkoa da ondarea zuzenean eta zeharka behatzea eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak barne. Ondare materialaren garrantziaz jabetzeko, eraikuntza-prozedurak —ondare arkeologikoaren kasuan— eta konposizio-prozedurak —idazketa-euskarrien kasuan— ezagutu behar dira. Gainera, zaintzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuak bereizi behar dira, bereziki inguru-nearekin eta ondare propioarekin konprometitutako herritar aktiboen parte-hartzea behar duten alderdiak kontuan hartuta, UNESCOren munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko Konbentzioari jarraikiz. Bestalde, zibilizazio klasiko greko-latindarraren herentzia immateriala ezagutzeak (erakundeetan erabiltzen den oratoria, denboraren zenbaketa, zeremonia pribatuak, aisia-ikuskitzak eta abar) gure egungo gizartearen eta kulturaren funtsezko alderdi batzuk ulertzen laguntzen du, eta bizitza osoko beste ikaskuntza batzuetarako prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, HK1, HK2, HK3, EK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Kultura Klasikoa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Greziako eta Erromako historiako gertaeren artean Europaren eraikuntzarako garrantzitsuenak izan direnak ardatz kronologikoetan ipintzea eta mundu greko-latindarreko funtsezko puntu geografikoak kokatzea (polisak, hiriak, eskualdeak, probintziak, enklabeak, aztarna arkeologikoak eta abar), antzinako klasikoko esparru historiko-geografikoaren eta egungo Europako errealitate geopolitikoaren arteko elkarrekotasuna ezarri.
1.2. Egungo Europako erakunde politiko, gizarte-klase eta kultura-tradizio nagusien eta aurrekari klasikoaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, Antzinako klasikoko eredu politiko, sozial eta filosofikoek Europaren eraketan izan duten eragina kritikoki eta genero-ikuspegiarekin baloratuz eta gizarte libre eta demokratiko batean lekuri ez duten elementuak baztertuz.
1.3. Emakumeek Grezian eta Erroman zuten egoera kritikoki eta genero-ikuspegiarekin deskribatzea eta aztertzea, egungo Europan duten egoerarekin alderatuz.
1.4. Hispaniako erromanizazio-prozesuaren bereizgarri diren funtsezko alderdiak azaltzea, erromanizazioak gure eguneko bizitzan, ohituretan, aisian eta antolamendu sozial eta politikoetan eragin dituen eraldaketa nagusietakoren bat kritikoki aztertuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Grekoaren eta latinaren jatorriaren, egituraren eta bilakaera historikoaren oinarritzko alderdiak azaltzea, Europako egungo hizkuntzetan izan duten eragina aztertuz.
2.2. Gaztelaniazko ondare-hitzak eta kultismoak ezagutzea eta euskararen lexikoan latindar jatorriko hitzak identifikatzea, haien bilakaera fonetikoaz aztertuz.
2.3. Irakaskuntza-hizkuntzetan eta beste hizkuntza moderno batzuetan jatorri greko-latindarreko lexikoa identifikatzea, esanahiak ondorioztatzea eta lexiko zientifiko-teknikoa zuzen erabiltzea, sustrai greko edo latindarrekin duen lotura adieraziz.
2.4. Inguruko zein Europako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna baloratzea eta horretara egokitzea, hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta azalduz eta kultura partekatu bat eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun bat garatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Ondare klasikoa zientzia formal eta aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean ezagutzea, antzinako munduko jakintza zientifikorik esanguratsuenak identifikatuz eta hizkuntza klasikoek kulturaren transmititzailerik gisa bete duten zeregina baloratuz.
3.2. Literatura greko-latindarrak literatura- eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) utzi duen aztarna ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, jatorri klasikoko gaiak, topikoak eta argudioak identifikatuz eta haien tratamendua kritikoki eta genero-ikuspegiarekin baloratuz.
3.3. Erlijio eta mitologia greko-latindarrek orain arte arte-, literatura-, kultura- eta kirol-adierazpenetan izan duten iraupena euskarri analogiko eta digitaletan ezagutzea, denboran izan duten tratamendua eta bilakaera kritikoki aztertuz.
3.4. Arte greko-latindarrak egungo arte-adierazpenetan duen eragina ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, tradizio klasikoaren elementuak identifikatuz eta haien tratamendua eta bilakaera estetiko eta formala baloratuz.
3.5. Erromanizazioak inguruko ondare kultural eta arkeologikoan utzi dituen aztarnak testuinguru analogiko eta digitaletan ezagutzea, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak ingurumen- eta gizarte-iraunkortasunarekin eta ondarearen zaintzarekin konprometitutako herritartasunaren funtsezko alderdi gisa identifikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Kultura Klasikoa
A. Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma.
Greziako eta Erromako historiaren barruan Europaren eraikuntzan garrantzitsuak izan diren gertaerak.
Mundu greko-latindarreko funtsezko entitate geografikoak (polisak, hiriak, eskualdeak, probintziak, enklabeak, aztarna arkeologikoak eta abar).
Antzinako klasikoaren esparru historiko-geografikoaren eta egungo Europako errealitate geopolitikoaren arteko elkarrekotasunak ezartzeko prozedurak.
Antzinako klasikoaren ordezkari politikoak erakunde nagusiak.
Greziako eta Erromako gizarte-klaseen antolamendua eta bilakaera.
Greziako eta Erromako eguneroko bizitza.
Egungo Europako erakunde politiko, gizarte-klase eta kultura-tradizio nagusien eta haien aurrekari klasikoaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko estrategiak.
Europako egungo kulturaren dauden eta gizarte libre eta demokratiko batean lekuri ez duten jatorri greko-latindarreko kultura- eta gizarte-elementu eta alderdi patriarkalak identifikatu eta baztertzeko jarraibideak.
Emakumeek mundu greko-latindarrean zuten egoeraren eta egungo Europan dutenaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko estrategiak.
Hispania erromanizatzeko prozesua eta probintziako antolamendu politiko eta administratiboaren etapan identifikazioa. Euskal Herriko erromanizazioaren ezaugarriak.
Erromanizazioak gure eguneroko bizitzan, ohituretan, aisian eta antolamendu sozial eta politikoetan eragin dituen eraldaketa nagusietakoren bat kritikoki aztertzeke jarraibideak.
Iturri analogiko eta digitaletan oinarrituta informazioa hautatu, antolatu, egiaztatu, koproduzitu eta komunikatzeko jarraibideak.
Kolaborazio-proiektuetan parte hartzeke tresna eta/edo plataforma digitalak erabiltzeke jarraibideak.
B. Hizkuntza klasikoak, Europako ondare komuna.
Grekoaren eta latinaren jatorria, egitura eta bilakaera historikoa.
Latinak eta antzinako grekoak Europako egungo hizkuntzetan duen eragina identifikatzeko jarraibideak.
Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren funtsezko arauak identifikatzeko eta ondare-terminoak eta kultismoak ezagutzeko estrategiak.
Latineko terminoen euskararako bilakaera fonetikoak identifikatzeko estrategiak.
Sustrai greko-latindar eta familia lexiko nagusiak irakaskuntza-hizkuntzen lexikoan ezagutzeko estrategiak.
Hitzen esanahi etimologikoaren hastapenak.
Helenismo eta latinismorik ohikoenak ezagutu eta interpretatzeko jarraibideak.
Lexiko zientifiko eta teknikoaren etimologia.
Sustrai greko-latindarretatik abiatuta lexiko espezializatuan eta agertu berrian esanahiak ondorioztatzeko oinarrizko estrategiak.
Hizkuntzak ikasteko baliabideak (hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioa) eta oinarrizko estrategiak.
Estatuko eta atzerriko ikasleekin tresna eta/edo plataforma digitalen bidez hizkuntza eta kultura klasikoaren inguruko komunikazio-elkartruke planifikatuetan eta/edo proiektuetan parte-hartze aktiboa, kooperatiboa eta errespetuzkoa izateke estrategiak eta jarraibideak.
Internet bidezko zuzeneko edo zeharkako interakzioan portaera orokorrari buruzko arauak aplikatzeko jarraibideak: netiketa.
Autokonfiantza, autonomia eta ekiteko jarrera. Errorea, ikasteko prozesuaren parte.
C. Zibilizazio greko-latindarraren iraupena egungo munduan.
Testu-transmisioa eta idazketaren euskarriak.
Ondare klasikoa zientzia formaletan, zientzia aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean.

Oinarrizko jakintzak. Kultura Klasikoa
Literatura greko-latindarraren funtsezko obrak beren testuinguruan, eta tradizio klasikoan izan duten iraupena.
Grekozko eta latinezko literaturako gaiak, topikoak eta pertsonaiak literatura-obretan eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) identifikatzeko estrategiak.
Ikasleen hurbileko gaiak (hala nola emakumearen egoera, ekologia, giza eskubideak eta abar) tratatzean literatura-testu greko-latindarren kultura-eredua eta egungoa kritikoki eta genero-ikuspegiarekin aztertzeo estrategiak.
Erlijio eta mitologia greko-latindarrak.
Kultu, erritu, jai eta mito greko-latindarrek arte-, literatura-, kultura- eta kirol-adierazpenetan egun arte izan duten iraupena ezagutzeko estrategiak.
Arte klasikoa.
Egungo arte-adierazpenetan tradizio klasikoko elementuak identifikatzeko eta haien tratamendu eta bilakaera estetikoak eta formala baloratzeko prozedurak.
Zibilizazio greko-latindarraren ondare materiala Euskal Herrian, Espainian eta Europan: leku arkeologikoak, inskripzioak, monumentuak, eraikinak, obra publikoak, toponimia eta abar.
Inguruko ondare arkeologikoa kontserbatu, zaindu eta zabaltzeko prozesuetan parte hartzeko interesa eta ekiteko jarrera.
Ahozko eta idatzizko ulermen, produkzio eta koproduktzioarako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektualekiko eta egile-eskubideekiko errespetua

KULTURA ZIENTIFIKOA, DBHKO 3. MAILA

Zientzia kulturaren zati gisa ulertzeak berekin dakar ikuspegi sozial batetik heldu behar zaion zientzia batean pentsatzea. Jakintzagai hau ikasle guztiei zuzenduta dago. Izan ere, Kultura Zientifikoan hezteko ezinbestekoa da egungo mundua ulertu eta herritar aktibo gisa jardun ahal izateko, zientifikoki prestatuta dagoen, pentsamendu kritikoa duen, arduratsua eta demokratikoa den eta erabakiak hartzen parte hartzen duen herritar gisa.

Ondorioz, DBHko 3. eta 4. mailetan “Kultura Zientifikoa” jakintzagaia eskaintzen da zientzia kulturaren parte gisa nabarmentzeko, ikasleen ezagutza zientifikoa sustatzeko eta kultura zientifikoa esparru guztietan zabaltzeko, ikasleen hezkuntza-orientabideak eta orientabide profesionalak kontuan hartuta.

Jakintzagai honetan, ikasleentzat garrantzitsuak diren egoerak jorratuko dira. Horietan, kritikoki analizatuko da zientziak eta aurrerapen teknologikoen pertsonen bizitzan eta osasunean duten eragina, baita gizartearekiko eta ingurumenarekiko interakzioak ere, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako iritziak prestatzeko eta interes zientifiko-soziala duten gaitan aktiboki eta arduraz parte hartzeko, eta XXI. mendeko erronka eta aupada globalei aurre egin ahal izateko.

“Kultura Zientifikoa” jakintzagaiaren curriculum-garapena lagungarria da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako zehaztu diren funtsezko konpetentziak eta etapako helburuak garatzeko. Bi elementu horiek jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoetan zehazten dira: Elkarrilotuta dauden eta ikasleen irteera-profilean laguntzeko definituta dauden konpetentziak, curriculumeko beste elementuak —oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak— justifikatzen dituztenak.

Konpetentzia espezifikoak honako alderdi hauekinohitzean laburbiltzen dira: zientziak gizartean duen eragina analizatzea; informazioa hautatzea eta antolatzea; ikerketaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea eta baloratzea; mezu zientifikoak sortzea; ezagutza zientifikoa erabiltzea arazoei aurre egiteko eta konponbideak proposatzeko; eta zientzia etengabe eraikitzen ari dela jakitea.

Konpetentzia espezifikoekin batera, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak garatzen dira. Jakintzagai honen oinarrizko jakintzek gizarte-gaurkototasuneko gai zientifikoak biltzen dituzte, debategai direnak, eztabaidak pizten dituztenak eta beste diziplina zientifiko batzuetan garatzen ez direnak. Jakintza horiek

ikasleen jakin-mina, antidogmatismoa, tolerantzia, pentsamendu kritikoa eta erabaki oinarridunak hartzea sustatzen dute.

Jakintzagai honen oinarritzko jakintzak bost multzotan aurkezten dira. Multzo horiek behar bezain irekiak dira honako multzo hauetako gaien inguruan sortzen diren kontu zientifikoak eta arazo garrantzitsuak barne hartzeko:

- “Zientzia eta informazio zientifikoa”. Zientziaren berezko metodologiak erabiltzen dira proiektu zientifikoak garatzeko eta analizatzeko, eta, horrela, lan zientifikoaren funtsarekin ohitzeko. Horretarako, multzoetako jakintzak mobilizatuko dira.
- “Astronomia, unibertsoa esploratzen”. Multzo honetan, unibertsoaren azterketari beste ikuspegi bat eman nahi zaio, eta ildo berritzaile bat sartzen da ikerketa espazialaren arloko ezagutza berriak erabiliz, non garrantzi handia hartzen duten garapen teknologikoak eta hondakin espazialen inpaktuak.
- “Osasuna eta aurrerapen zientifikoak”. Eguneroko bizitzan etengabe gaude harremanetan terminologia zientifikoarekin eta zuzenean eragiten diguten egoerekin, hala nola txertaketarekin, pandemiarekin, elikadurarekin eta osasunarekin. Gai horiek ohikoak dira hedabideetan, eta ikasleek, beren ezagutza zientifikoan oinarrituta, informazio garrantzitsuena analizatu eta hautatu behar dute, irizpide propio bat sortzeko.
- “Ingurumen-inpaktua, aurrerapen teknologikoak”. Azken urteotan, itxaropen eta kezka berriak sortu dira, eta areagotu egin dira herritarren ongizatea, teknologia berrien erabilerari lotutako balizko arriskuak eta teknologia horiek ingurumenean eta garapen iraunkorrean dituzten ondorioak. Alderdi horiek XXI. mendeko funtsezko erronkak dira. Hortaz, hobetzeko eta egungo erronka handiei irtenbideak aurkitzeko tresna gisa zientziak duen garrantzia ulertzeko gai izango diren ikasle prestatuak behar ditugu.
- “Generoa eta kultura zientifikoa”. Agerikoa da emakumearen ikusezintasuna zientziaren historian zehar, bai zientziaren sorkuntzari, bai transmisioari dagokionez. Ondorioz, ia ez dago erreferente femininorik. Ikasleek jakin behar dute zientziaren historia genero-ikuspegitik analizatzen denean emakumeek kultura zientifikoaren garapenean parte hartu izana egiaztatzen dela. Beraz, multzo honetan egoera hori iraultzeko alderdiak jorratuko dira.

Jakintzagai hau garatzearen helburua ez da Fisika-Kimika eta Biologia-Geologia jakintzagaiekin lotutako jakintzak sakontzea edo zabaltzea. Aldiz, planteatzen duen metodologian, gizartean eztabaida sortzen duten egoera garrantzitsuak jorratzen dira. Egoera horiek ikasleengan kultura zientifiko bat sortzen laguntzen dute, garrantzi zientifikoa duten kontu sozialei buruzko eztabaidetan parte hartu ahal izateko oinarri gisa.

Azken batean, prestatuta dagoen eta hobetzeko eta egungo erronka handiei irtenbideak aurkitzeko tresna gisa zientziak duen garrantzia ulertzeko gai den gizarte bat trebatuagoa dago erabakiak hartzeko, eta, azken buruan, gizarte askeagoa eta kultuagoa da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zientziak eta teknologiak bizitzan, osasunean eta ingurumenean duen eragina kritikoki analizatzea, ezagutza zientifikoa erabiliz, bizi-baldintza pertsonal eta globaletan eragina duten eta eztabaida sozialaren eta debate publikoaren xede diren iritzi oinarrituak eratzeko.

Zientziak eta teknologiak eremu sozialean eta naturalean duten eraginaren garrantzia ezagutzeak, haren ondorioen eta inplikazioen analisisik abiatuta, iraunkortasun-kulturaren garapena bideratuko duten jarra gogoetatsu, kritiko eta etikoak sustatzeko, berekin dakar ikasleek zientziaren berezko metodologiak erabiltzea.

Gero eta ohikoagoak dira frogatzeko, analizatzeko edo adosteko moduko oinarri esperimentalik ez duten prozesu zientifikoei buruzko ikusmoldeak eta ideiak. Horrelako pentsamenduak jakintzatik eta metodo zientifikotik kanpoko eraginek sortzen dituzte, hala nola alderdi kulturelek, erlijiosoek, espiritualek, etab. Horrek pentsamendu-ereduak sortzen ditu, eta, horien eraginez, azkenean onartu egiten dira froga zientifiko egiaztagarririk ez duten edo modu fidagarrian baliozkotu ezin diren sasizientzia deitutakoak. Konpetentzia honek eskatzen du ezagutza zientifikoa erabiltzea iritzi oinarrituak sortzeko, horiek gezurretatik, sasizientzietatik eta sinesmen erlijioso edo kulturaletatik bereiziz, egungo munduko gizarte-eztabaidetan modu aktiboan eta kritikoa parte hartzeko aukera izan dezaten.

Beraz, konpetentzia honetan, ikasleek ezagutza zientifikoa aplikatzearen eta haren garapen teknologikoaren abantailak eta desabantailak landuko dituzte, eta pentsamendu kritikoa aurrera egingo dute, arauak eta iritziak oinarri zientifikoekin zalantzan jartzeko eta analizatzeko trebetasuna garatuko baitute.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, STEM2, STEM4, STEM6, KPSII4, HK3 eta EK3.

2. Hainbat iturritatik datorren informazio zientifikoa hautatzeko eta erabiltzeko trebetasunak garatzea, fidagarriak direnak modu kritikoa bereiziz eta zuzen aipatuz, arazo eta eztabaidagai zientifikoak ebazteko.

Zientziarekin eta haren garapen teknologikoekin lotutako gaiak buruzko elkarrizketa, eztabaida eta argudiaketa arrazoitua sustatzeko, ikasleek informazioa lortu beharko dute hainbat iturritatik (zuzeneko behaketa, liburuak, aldizkariak, prentsa, ikus-entzunezko materiala, Internet, etab.). Era berean, gai izan behar dute informazio hori kalitate-irizpideen arabera analizatzeko eta hautatzeko, datuak biltzeko, horiek grafiko, taula, etab. bihurtzeko, eta ideiak modu sinesgarrian eta era guztietako euskarriak erabiliz komunikatzeko. Informazioa bilatu, biltegitatu, antolatu eta komunikatzean, informazioaren teknologiak oso erabilgarriak dira. Trebetasun horiek lantzeak, gainera, ikasleen konpetentzia digitala garatzen lagunduko du.

Baliabide digitalek zein ez-digitalek berebiziko garrantzia dute, oro har, irakatsi eta ikasteko prozesuan eta, bereziki, konpetentziak gauzatzean. Informazioa kontsultatzean askotariko baliabideak modu egoki eta moldakorrean erabiltzeak, informazio-iturri fidagarrienak irizpidez hautatuta —kontuan izanik dagoen arloan duten ospea eta kreditua, lanerako duten garrantzia, jatorria, pertsonalak edo instituzionalak diren eta irisgarriak diren— eta iturri horiek behar bezala aipatuta, ikasleei estrategiak ematen dizkie gaur egun kultura zientifikoa duten eta ingurunearekin konprometituta dauden pertsonak eskatzen dituen gizartera egokitzeko.

Horregatik, konpetentzia espezifikoa honen helburua da ikasleek askotariko baliabideak eta teknikak erraztasunez maneiatzea, beren ingurunea analizatzea eta bertan premia jakin batzuk aurkitzea, norberarentzat eta besteentzat balioa eskainiko duten irtenbideak asmatu, diseinatu eta landu ahal izateko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KD2 eta KPSII4.

3. Ikerketaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea eta baloratzea, metodo zientifikoa aplikatuz, pentsamendu zientifikoaren berezko arazoibideak garatzeko.

Pentsamendu zientifikoa metodo zientifikoan oinarritzen da eta zientzia egiteko testuinguruarekin interakzioan garatzen da.

Konpetentzia honek eskatzen du ikasleek ikerketa-proiektuak aztertzea, proiektuaren faseak, egitura, egokitzapena eta bideragarritasuna bereiziz, eta arazoibide zientifikoa erabiltzea beren ingurune hurbileko egoeretan ikertzeko. Izan ere, ikerketa-proiektuak egiteak pentsamendu zientifikoaren garapena nabarmen hobetzen du.

Lan zientifikoa osatzen duten prozesuek zentzua hartzen dute beren autonomia eta erantzukizuna garatzen duten ikasleen ingurunearekin edo errealitatearekin lotutako proiektu baten barruan integra-

tzen direnean, ikasleak planteatutako egoera edo arazoa ebazteko lana planifikatzeaz eta egituratzeaz arduratzen baitira. Era berean, proiektu zientifikoak sortzeak, analizatzeak eta horietan parte hartzeak ikasleei aukera ematen die oso baliagarriak izan daitezkeen trebetasunak lantzeko, baliagarriak, zientziaren esparruan ez ezik, baita beren garapen pertsonal eta profesionalean eta parte-hartze sozialean ere.

Beraz, kompetentzia honetan, ikasleak proiektuen garapenean eta analisisan inplikatzeko dira. Horrek eskatzen du, besteak beste, ekimena, jarrera kritikoa, ikuspegi orokorra, plangintza-gaitasuna, baliabide materialen eta pertsonalen mobilizazioa eta argudiaketa, eta bidea ematen du arazoak ebaztean autoezagutza eta konfiantza lantzeko, eskura dauden baliabideetara eta haien mugetara, ziurgabetasunera eta erronketara egokituz.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3 eta EK3.

4. Eduki zientifikoak izango duten mezuek sortzea eta hainbat testuingurutara modu koherentean egokitzea, ahozko eta idatzizko hizkuntza behar bezala erabiliz, baita notazioko eta irudikapeneko beste sistema batzuk ere, azalpen eta argudiaketa zientifikoak eman ahal izateko.

Kompetentzia honek mezuek zientifikoak azaltzea eta argudiatzea eskatzen du. Horietan, komunikazioak eta dibulgazioak zeregin garrantzitsuak dute. Horretarako, zenbait hizkuntza-tipologia eta komunikazio-modu erabili behar dira, zenbait testuinguru eta publikotara egokituak. Ahozko azalpenen, txosten monografikoen edo taula, grafiko, irudi, eskema, poster eta abarretan oinarritutako idatzizko lanen bidezko aurkezpenak lagungarriak dira komunikazio-trebetasunak eta informazioaren tratamenduarekin lotutakoak sendotzeko.

Argudiaketa eta azalpena funtsezkotzat jotzen dira zientziako ezagutzaren baieztapenak justifikatzeko eta ebaluatzeko. Trebetasun kognitibo eta linguistiko horiek ikasleen garapen-maila handia eskatzen dute. Beren argudiaketetan, datuak, ebidentziak eta iritziak bereizi behar dituzte, iturriak eta egileak behar bezala aipatu, eta terminologia egokia erabili, teknologien bitartekoak baliatuz.

Dibulgazioa hizkuntzaren tresnetan oinarritzen da, zientziaren kontzeptuak azaltzeko, irudiak erreproduzitzeko, ereduak erabiltzeko eta ezagutza zientifikoaren espiritua berreskuratuz. Izan ere, kontua ez da soilik "albiste zientifiko" bat idaztea, baizik eta ideiak, emaitzak, hipotesiak, planteamenduak, etab. modu argian adieraztea, baina, gainera, adierazpide horrek originaltasuna, zentzua, konbikzioa eta irimotasuna izan behar ditu, baita modu objektiboan idazten duenaren izaera ere.

Gaur egun, Kultura Zientifikoaren helburua ez da soilik alfabetatze zientifikoak. Haratago doa; ezagutza zientifiko espezializatuen eskuragarri jarri nahi du, mundu zientifikoaren eta gizartearen arteko lotura-puntuak sortzen saiatuz.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE3, STEM2, STEM4, STEM6, KD3, KPSII4, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

5. Gizarte-intereseko arazoei irizpide zientifikoekin heltzea, horiei irtenbideak kolaborazioan emanez, garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohitura eta erabaki pertsonal arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.

Zientziak gizartearen beharrei eta garapen iraunkoraren erronkei erantzuten die. Erronka horiei aurre egiteko, ikasleek zientziaren hizkuntza ulertu eta kultura zientifikoak eskuratu behar dute. Kontzientzia hartzea, konpromisoa eta herritarren parte-hartzea funtsezkoak dira gizabanakoek informazio nahikoa izan dezaten maila pertsonalean eta profesionalean erabaki arrazoituak hartzeko. Zientziak eguneroko bizitzako erronketarako irtenbideak eskaintzen ditu, eta gizateriaren misterio handiei erantzuten laguntzen digu. Beste era batera esanda, ezagutza eskuratzeko bide garrantzitsuenetako bat da.

Konpetentzia honetan, ikasleek inplikatu egin behar dute irizpide propioarekin gizarte- eta ingurumen-intereko ezagutza zientifikoaren proposamenak eta aplikazioak argudiatzen, eztabaidatzen eta ebaluatzen, pertsonalki garatzeko eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko, jarrera zientifikoak praktikan jarri.

Garapen iraunkorarekin bateragarriak eta arduratsuak izango diren ohitura eta erabaki pertsonalak hartzeak ingurune bikaina eskaintzen du kooperazio-lanerako. Izan ere, kooperazio-lanean trebetasun hauek garatzen dira, besteak beste: argudiaketa, ideia konplexuen komunikazio eraginkorra, erabaki partekatuak hartzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea.

Horregatik, konpetentzia espezifiko honen beste helburu bat da ikasleek kolaborazio eta kooperazioko askotariko baliabideak eta teknikak erraztasunez maneiatzea, beren ingurunea analizatzea eta bertan premia jakin batzuk aurkitzea, norberarentzat eta besteentzat balioa eskainiko duten irtenbideak eman ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, STEM2, STEM5, KD3, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK3, HK4 eta EK1.

6. Zientzia testuinguru kultural, sozial eta ekonomikoak baldintzatutako eraikuntza-prozesu etengabe dagoela ezagutzea, eztabaida zientifikoek giza ezagutzaren bilakaerari egiten dizkioten ekarpenak baloratuz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta zientziaren dimentsio kulturala eta horrek gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.

Zientzia giza ezagutza eta ikerketarako modutzat ulertzeak zientzia zer den eta zer ez den bereizten laguntzen du. Saiakuntzan eta sormenean oinarritzen da, eta berrikusi eta alda daiteke, indarrean dauden teoriekin bat ez datozen ebidentziak aurkituz gero. Beharrezkoa da, orobat, ikerketaren izaera eta mugak hautematea, galdera zientifikoari erantzuteko behar den ebidentzia identifikatzea, eta ondorioak lortzea, ebaluatzea eta komunikatzea, testuinguru pertsonal eta sozialen aniztasun zabal batean.

Baina ez da ahaztu behar lortutako ezagutza zientifikoaren errealitatearen irudikapen bat dela, eta irudikapen hori partziala edo osatugabea izan daitekeela. Beraz, ezinbestekoa da ulertzea gure ezagutzaren ziurgabetasuna eta egoera problematikoen aurrean erabakiak hartzeko zehurtzia-printzipioa hartu beharra, eta zenbait balio kontuan hartzea, hala nola gizarte eskatzaile baten alde aurrerapen zientifikoaren egitearen garrantzia, zientziaren mugak, gai etikoak eta zientzialariekiko konfiantza beren jardueran. Gainera, beharrezkoa da zientziari buruzko ikuspegi sinplistikak eta jarduera zientifikoan aritzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatuak gainditzea.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, ikasleek pentsamendu kritikoa garatuko dute eta zientziaren dimentsio kulturala balioetsiko dute, zientzia etengabe eraikitze-prozesuan dagoela analizatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM6, KD1, KD3, HK1 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Kultura Zientifikoak, DBHko 3. maila
1. konpetentzia espezifikoak
1.1. Ezagutza eta irizpide zientifikoetan oinarritutako informazioak eta sinesmenetan eta iritzietan oinarritutakoak bereiztea, alfabetatze zientifikoaren izatearen garrantzia baloratuz.
1.2. Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzak hobetzeko egiten dituzten ekarpenak baloratzea, gizarte-arazo batzuk eragin zituzten kausak identifikatuz, eta arazo horiek erabat edo zati batean konpontzeko zientziak egiten duen ekarpena identifikatuz.
1.3. Modu arrazoituan argudiatzea eta eztabaidatzea debate sozialaren eta auzi publikoaren xede diren hainbat gai zientifiko-teknologikoren inguruan.

Ebaluazio-irizpideak. Kultura Zientifikoa, DBHko 3. maila
2. kompetentzia espezifikoak
2.1. Hainbat iturritatik datorren informazio zientifikoa hautatzeko eta analizatzeko trebetasunak erabiltzea, fidagarriak direnak bereizten jakinez.
2.2. Zientziekin lotutako arazoak eta/edo gaiak jorratzea, eduki zientifiko-teknologikoko informazioak bilatuz, hautatuz eta antolatuz, zereginen helburuen arabera.
3. kompetentzia espezifikoak
3.1. Inguruko arazoei erantzungo dieten araketetan oinarritutako ekimenak abiaraztea, eskura dauden baliabideak erabiliz.
3.2. Gaurkotasan zientifikoko gai bati buruzko ikerketa-proiektu bat diseinuan, lanketan eta aurkezpenean funtsezko elementuak ezartzea, lehentasunez ICTak erabiliz.
3.3. Zenbait ikerketa-proiekturen emaitzak interpretatzea, arrazoibide zientifikoa erabiliz eta/edo, beharrezkoa denean, koebalutuz, jardueraren arabera.
3.4. Zientzieko jarrera positiboa erakustea, akatsa eta ziurgabetasuna ikaskuntza-prozesua hobetzeko aukeratzat hartzea.
4. kompetentzia espezifikoak
4.1. Mezu zientifikoak, artikulua, bideoak, podcastak, literatura zientifikoa... koherentziaz azaltzea eta/edo argudiatzea, ahozko eta idatzizko hizkuntza egokia eta hizkuntza zientifikoaren oinarritutako arauak zuzen erabiliz.
4.2. Gai zientifikoari buruzko ondorioak eta ideiak zenbait euskarritan komunikatzea askotariko publikoei, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez erabiliz.
5. kompetentzia espezifikoak
5.1. Interes sozialeko arazo zientifikoak identifikatzea, horiei sormenez, kolaborazioan eta modu inklusiboan irtenbideak emanez.
5.2. Garapen iraunkorarekin eta ezagutza eta arrazoibide zientifikoekin bateragarriak izango diren ekimenak eta ohiturak sustatzea.
5.3. Argudiatzea osasunak ez duela soilik esan nahi afekzioirik edo gaixotasunik ez dagoela, aldizkako kontrolak, tratamendu aurreratuak eta bizimodu osasungarria lehenesten dituzten prebentzio-neurriak hartzearen garrantzia baloratuz.
5.4. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioei buruzko erabaki arduratsuak hartzea, eskura dagoen informazioa eta beren ezagutza zientifikoak erabiliz.
6. kompetentzia espezifikoak
6.1. Zientzialariak eta haien proiektio profesionalak zientziari egin dizkieten ekarpenekin erlazionatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuz.
6.2. Aurrerapen zientifiko-teknologikoak eta horiek historian zehar hainbat esparrutan izan dituzten ondorioak aztertzea, gizarteari egin dizkieten ekarpenak baloratuz.
6.3. Taldean lan egitea, beharrezkoa denean, zereginetan kooperazio eta parte-hartze arduratsuko jarrerak erakutsiz, eta desberdintasunak errespetuz eta tolerantziaz onartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Kultura Zientifikoa, DBHko 3. maila
1. multzoa. Zientzia eta informazio zientifikoa
– Lan-metodoak: metodo zientifikoa
Arazo-behaketa baten detekzioa. Behaketaren erreproduzigarritasuna.
Hipotesiak. Behaketen azalpen posibleak eta horien kausa-efektu erlazioa planteatzeko estrategiak. Hipotesiaren ondorioen dedukzioa eta hipotesitik ondoriozta daitezkeen iragarpenak: faltsabilitatea.
Esperimentazioa. Aldagaien kontrola. Datuen erregistroa eta analisia.
Emaitzen analisia: hipotesiak frogatzeko edo gezurtatzeko eta ondorioak ezartzeko estrategiak.
Emaitzen komunikazioa. Eztabaida, informazioa trukatzeko eta iritzi pertsonalak argudiatzeko bitarteko gisa.

Oinarrizko jakintzak. Kultura Zientifikoa, DBHko 3. maila
– Zientzia vs sasizientziak. Sasizientzien gorakada edo gainbehera.
2. multzoa. Astronomia, unibertsoa esploratzen
Unibertsoaren egitura. Izarren genesia.
Eguzki-sistema. Exoplanetak.
Unibertsoa behatzeko metodoak. Teleskopioak, sateliteak eta bestelako behaketa-tresnak.
Astronomia eta sasizientziak.
Euskal Herriko zerua eta planisferioa.
Bidaia espazialak eta zabor espaziala.
3. multzoa. Osasuna, aurrerapen zientifikoak.
Elikadura eta osasuna. Elikagai funtzionalak. Dieta.
Txertoak eta pandemiak.
Kirola eta osasuna.
Adikzioak: substantziak, teknologia berriak...
4. multzoa. Ingurumen-inpaktua, aurrerapen teknologikoak
Nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrak: inpaktua, pestizidak, antibiotikoak, CO2.
Energia berriztagarriak eta energia berdeak: ingurumen-inpaktua, aurrerapen teknologikoak, bioerregaiak.
Klima-aldaketa: kausak eta ondorioak. Planetaren etorkizuna. Herritarren erantzukizuna.
5. multzoa. Generoa eta kultura zientifikoa.
Emakumezko zientzialari eta asmatzaileen ikusezintasuna zientziaren historian.
Zientzialari handien ekarpena zientzien garapenean.
Kultura zientifikoa eta zientzialarien zeregina zientziaren aurrerapenerako eta hobekuntzarako mugarri nagusietan, histori-koetan eta gaur egungoetan.

KULTURA ZIENTIFIKOA, DBHKO 4. MAILA

Gaur egun, gure gizartearen etorkizunari buruzko eztabaiden erdigunean dago zientzia. Izan ere, gizarteak aurrerapen teknologikoaren eta globalizazioaren ildoan jarraitzeko lehiatzen dira, eta, horrenbestez, erronka berri ugari aurre egiten diete, lan egiteko moduak aldatuz, jakintzak eta kultura eraldatuz eta funtsezko gai etikoak irauliz. Ezagutza berriek munduaz eta gizakiaz dugun ikusmoldea aldatzen dute, eta ezagutza horien aplikazioek eta ondorioek gure ingurunea irauli eta etorkizuna baldintzatzen dute. Hortaz, gizarte garaikideen konplexutasun gero eta handiagoak beren kideengandik eskatzen du aurrean dituzten erronkak ulertzea.

Kultura zientifikoa izateak berekin dakar zientzia praktikatzea eta konpetentzien ikuspegitik eguneroko bizitzara eramatea. Jakintzagai hau ikasgelan sartzeak eskatzen du ikasleen alfabetatze zientifikoan sakontzea eta, horrela, kultura zientifikoa txertatzea.

DBHko 4. mailan “Kultura Zientifikoa” jakintzagai hau ez da eskaintzen da DBHko 3. mailan eskaintzen denaren jarraipen gisa, osagarri gisa baizik. Jakintzagaia hirugarren mailan egin duten ikasleek aberas-tu egingo dute zientziari buruz duten ezagutza beste eztabaidagai batzuekin, eta aurretik jakintzagaia egin ez duten ikasleek aukera izango dute zientzia beste ikuspuntu batetik ikusteko eta beste diziplina batzuetan landu ezin diren alderdiak jorratzeko. Horrela, adibidez, metodo zientifikoa jakintzagai zienti-fiko klasikoetatik haratago joan da, eta giza ezagutzaren arlo askoren lana inspiratzen du. Horregatik, DBHko eta Batxilergoko ikasle guztiek ezagutu behar dute jarduera zientifikoaren berezko metodologia-ren funtsa, aukeratzen duten prestakuntza-ibilbidea edozein dela ere.

Hortaz, Kultura Zientifikoa jakintzagaiak ikasleengan zientziarekiko interesa sortzeko balio behar du. Gainera, ikasleei beharrezko alfabetatze zientifikoa eskaini beharko die. Hori oso erabilgarria izango zaie etorkizunerako, besteak beste aurrerapen zientifiko-teknologikoen ondorioz aldaketa handien mende dagoen gizarte batean. Egunero, hainbat gairi egin behar diegu aurre —elektrizitatearen prezioa, kutsadura, pandemiak, garraio publikoaren erabilera, etab.—, eta horien inguruan eztabaidatzeak oinarrizko ezagutza zientifiko batzuk eskatzen ditu. Ikasleak gai izango dira ezagutza berriak testuinguru jakin batean kokatzeko. Testuinguru horretan, aukera egongo da ezagutza horiei buruzko eztabaida orokorra sortzeko, eztabaida horretan parte hartzeko, erabakiak hartzeko edota hartarazteko.

“Kultura Zientifikoa” jakintzagaiaren curriculum-garapena lagungarria da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako zehaztu diren funtsezko kompetentziak eta etapako helburuak garatzeko. Bi elementu horiek jakintzagaiaren kompetentzia espezifikotan zehazten dira: elkarri lotuta dauden eta ikasleen irteera-profilean laguntzeko definituta dauden kompetentziak, curriculumeko beste elementuak —oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak— justifikatzen dituztenak.

Kompetentzia espezifikoak honako alderdi hauekinohitzean laburbiltzen dira: zientziak gizartean duen eragina analizatzea; informazioa hautatzea eta antolatzea; ikerketaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea eta baloratzea; mezu zientifikoak sortzea; ezagutza zientifikoa erabiltzea arazoei aurre egiteko eta konponbideak proposatzeko; eta zientzia etengabe eraikitzen ari dela jakitea.

Kompetentzia espezifikoekin batera, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak garatzen dira. Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzek, hurbilketa funtzionaletik eta ahalik eta aktiboenetik abiatuta, debategai dauden gaurkotasan sozialeko gai zientifikoak jorratzen dituzte, eztabaidak pizten dituztenak eta beste diziplina zientifiko batzuetan garatzen ez direnak. Hortaz, hausnarketa, arrazoibide eta analisi kritikoa bultzatzen dute. Jakintza horiek interes sozialeko galdera eta arazo zientifikoei erantzuten saiatzen dira, inplikazioak eta ikuspegi irekiak kontuan hartuta, eta arrazoitutako eta zentzu etikoko erabaki kolektiboak hartzearen garrantzia baloratuta. Jakintza horiek ikasleen jakin-mina, antidogmatismoa, tolerantzia, pentsamendu kritikoa eta erabaki arduratsuak hartzea sustatzen dute.

Jakintzagai honen oinarrizko jakintzak bost multzotan aurkezten dira. Multzo horiek behar bezain irekiak dira sortzen diren gai zientifikoak eta arazo garrantzitsuak barne hartzeko. Hona:

- “Proiektuak zientzian”. Zientziaren berezko metodologiak erabiltzen dira proiektu zientifikoak garatzeko eta analizatzeko eta, horrela, lan zientifikoaren funtsarekin ohitzeko. Horretarako, multzo bakoitzeko jakintzak mobilizatuko dira.
- “Zientzia eta komunikazioa”. Komunikazio zientifikoa da gizartean informazio zientifikoa aurkezteko, transmititzeko eta trukatzeko prozesuen multzoa. Multzo honetan biltzen dira albisteak edo gai zientifikoak komunikatzeko, zabaltzeko eta hedatzeko estrategiak garatzera bideratutako jakintzak.
- “Big Bangetik eta haratago...”. Multzo honetan, Lur planetaren eraketarekin eta biziaren garapenarekin lotutako edukiak garatzen dira, baita intereseko formazio geologikoekin eta horien ondorioekin lotutakoak ere.
- “Planetaren etorkizuna”. Multzo honetan, baliabide naturalak eta planeta agortzearekin lotutako edukiak jorratzen dira, Garapen Iraunkorrerako Helburu eta XXI. mendeko erronken ikuspuntutik.
- “Material berriak. Berrikuntza, garapena eta ikerketa”. Multzo honetan, ikasleek ulertu behar dute gaur egungo gizartean ikerketa eta material berrien sorkuntza funtsezkoak direla teknologian aurrera egiteko eta gizartea hobetzeko.

Jakintzagai honetan metodologia aktiboen bidez lan egitea proposatzen da, eztabaida, argudiaketa eta komunikazioa sustatuz hainbat baliabideren bitartez. Helburua da sormena garatzea, jakin-mina piztea eta jarduera zientifikoarekin gozatzea. Laburbilduz, beharrezkoa da “Kultura Zientifikoa” ikasle guztien eskura jartzea eta guztiok partekatu behar dugun jakintzan elementu komunak bilatzea. Zientzian alfabetatutako gizartea gauza izango da zientziaren garrantzia ulertzeko, egungo erronka handiei aurre egiteko eta horietarako irtenbideak proposatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zientziak eta teknologiak bizitzan, osasunean eta ingurumenean duen eragina kritikoki analizatzea, ezagutza zientifikoa erabiliz, bizi-baldintza pertsonal eta globaletan eragina duten eta eztabaida sozialaren eta debate publikoaren xede diren iritzi oinarrituak eratzeko.

Zientziak eta teknologiak eremu sozialean eta naturalean duten eraginaren garrantzia ezagutzeak, haren ondorioen eta inplikazioen analisitik abiatuta, iraunkortasun-kulturaren garapena bideratuko duten jarra gogoetatsu, kritiko eta etikoak sustatzeko, berekin dakar ikasleek zientziaren berezko metodologiak erabiltzea.

Gero eta ohikoagoak dira frogatzeko, analizatzeko edo adosteko moduko oinarri esperimentalik ez duten prozesu zientifikoei buruzko ikusmoldeak eta ideiak. Horrelako pentsamenduak jakintzatik eta metodo zientifikotik kanpoko eraginek sortzen dituzte, hala nola alderdi kulturelek, erlijiosoek, espiritualek, etab. Horrek pentsamendu-ereduak sortzen ditu, eta, horien eraginez, azkenean onartu egiten dira frogak zientifiko egiaztagarriak ez duten edo modu fidagarrian baliozkotu ezin diren sasizientzia deitutakoak. Konpetentzia honek eskatzen du ezagutza zientifikoa erabiltzea iritzi oinarrituak sortzeko, horiek gezurretatik, sasizientzietatik eta sinesmen erlijioso edo kulturaletatik bereiziz, egungo munduko gizarte-eztabaidetan modu aktiboan eta kritikoan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Beraz, konpetentzia honetan, ikasleek ezagutza zientifikoa aplikatzearen eta haren garapen teknologikoaren abantailak eta desabantailak landuko dituzte, eta pentsamendu kritikoan aurrera egingo dute, arauak eta iritziak oinarri zientifikoekin zalantzan jartzeko eta analizatzeko trebetasuna garatuko baitute.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, STEM2, STEM4, STEM6, KPSII4, HK3 eta EK3.

2. Hainbat iturritatik datorren informazio zientifikoa hautatzeko eta erabiltzeko trebetasunak garatzea, fidagarriak direnak modu kritikoan bereiziz eta zuzen aipatuz, arazo eta eztabaidagai zientifikoak ebazteko.

Zientziarekin eta haren garapen teknologikoekin lotutako gaiet buruzko elkarrizketa, eztabaida eta argudiaketa arrazoitua sustatzeko, ikasleek informazioa lortu beharko dute hainbat iturritatik (zuzeneko behaketa, liburuak, aldizkariak, prentsa, ikus-entzunezko materiala, Internet, etab.). Era berean, gai izan behar dute informazio hori kalitate-irizpideen arabera analizatzeko eta hautatzeko, datuak biltzeko, horiek grafiko, taula, etab. bihurtzeko, eta ideiak modu sinesgarrian eta era guztietako euskarriak erabiliz komunikatzeko. Informazioa bilatu, biltegitatu, antolatu eta komunikatzean, informazioaren teknologiak oso erabilgarriak dira. Trebetasun horiek lantzeak, gainera, ikasleen konpetentzia digitala garatzen lagunduko du.

Baliabide digitalek zein ez-digitalek berebiziko garrantzia dute, oro har, irakatsi eta ikasteko prozesuan eta, bereziki, konpetentziak gauzatzean. Informazioa kontsultatzean askotariko baliabideak modu egoki eta moldakorrean erabiltzeak, informazio-iturri fidagarrienak irizpidez hautatuta —kontuan izanik dagokion arloan duten ospea eta kreditua, lanerako duten garrantzia, jatorria, pertsonalak edo instituzionalak diren eta irisgarriak diren— eta iturri horiek behar bezala aipatuta, ikasleei estrategiak ematen dizkie gaur egun kultura zientifikoa duten eta ingurunearekin konprometituta dauden pertsonak eskatzen dituen gizartera egokitzeko.

Horregatik, konpetentzia espezifikoa honen helburua da ikasleek askotariko baliabideak eta teknikak erraztasunez maneiatzea, beren ingurunea analizatzea eta bertan premia jakin batzuk aurkitzea, norberarentzat eta besteentzat balioa eskainiko duten irtenbideak asmatu, diseinatu eta landu ahal izateko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KD2 eta KPSII4.

3. Ikerketaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea eta baloratzea, metodo zientifikoa aplikatuz, pentsamendu zientifikoaren berezko arrazoibideak garatzeko.

Pentsamendu zientifikoa metodo zientifikoan oinarritzen da eta zientzia egiteko testuinguruarekin interakzioan garatzen da.

Konpetentzia honek eskatzen du ikasleek ikerketa-proiektuak aztertzea, proiektuaren faseak, egitura, egokitzapena eta bideragarritasuna bereiziz, eta arrazoibide zientifikoa erabiltzea beren ingurune hurbileko egoeretan ikertzeko. Izan ere, ikerketa-proiektuak egiteak pentsamendu zientifikoaren garapena nabarmen hobetzen du.

Lan zientifikoa osatzen duten prozesuek zentzua hartzen dute beren autonomia eta erantzukizuna garatzen duten ikasleen ingurunearekin edo errealitatearekin lotutako proiektu baten barruan integratzen direnean, ikasleak planteatutako egoera edo arazoa ebazteko lana planifikatzeaz eta egituratzeaz arduratzen baitira. Era berean, proiektu zientifikoak sortzeak, analizatzeak eta horietan parte hartzeak ikasleei aukera ematen die oso baliagarriak izan daitezkeen trebetasunak lantzeko, zientziaren esparruan ez ezik, baita beren garapen pertsonal eta profesionalean eta parte-hartze sozialean ere.

Beraz, konpetentzia honetan, ikasleak proiektuen garapenean eta analisisan inplikatzeko dira. Horrek eskatzen du, besteak beste, ekimena, jarrera kritikoa, ikuspegi orokorra, plangintza-gaitasuna, baliabide materialen eta pertsonalen mobilizazioa eta argudiaketa, eta bidea ematen du arazoak ebaztean autoezagutza eta konfiantza lantzeko, eskura dauden baliabideetara eta haien mugetara, ziurgabetasunera eta erronketara egokituz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3 eta EK3.

4. Eduki zientifikoa izango duten mezuak sortzea eta hainbat testuingurutara modu koherentean egokitzea, ahozko eta idatzizko hizkuntza behar bezala erabiliz, baita notazioko eta irudikapeneko beste sistema batzuk ere, azalpen eta argudiaketa zientifikoak eman ahal izateko.

Konpetentzia honek mezu zientifikoak azaltzea eta argudiatzea eskatzen du. Horietan, komunikazioak eta dibulgazioak zeregin garrantzitsua dute. Horretarako, zenbait hizkuntza-tipologia eta komunikazio-modu erabili behar dira, zenbait testuinguru eta publikotara egokituak. Ahozko azalpenen, txosten monografikoen edo taula, grafiko, irudi, eskema, poster eta abarretan oinarritutako idatzizko lanen bidezko aurkezpenak lagungarriak dira komunikazio-trebetasunak eta informazioaren tratamenduarekin lotutakoak sendotzeko.

Argudiaketa eta azalpena funtsezkotzat jotzen dira zientziako ezagutzaren baieztapenak justifikatzeko eta ebaluatzeko. Trebetasun kognitibo eta linguistiko horiek ikasleen garapen-maila handia eskatzen dute. Beren argudiaketetan, datuak, ebidentziak eta iritziak bereizi behar dituzte, iturriak eta egileak behar bezala aipatu, eta terminologia egokia erabili, teknologien bitartekoak baliatuz.

Dibulgazioa hizkuntzaren tresnetan oinarritzen da, zientziaren kontzeptuak azaltzeko, irudiak erreproduzitzeko, ereduak erabiltzeko eta ezagutza zientifikoaren espiritua berreskuratuzko. Izan ere, kontua ez da soilik "albiste zientifiko" bat idaztea, baizik eta ideiak, emaitzak, hipotesiak, planteamenduak, etab. modu argian adieraztea, baina, gainera, adierazpide horrek originaltasuna, zentzua, konbikzioa eta irmotasuna izan behar ditu, baita modu objektiboan idazten duenaren izaera ere.

Gaur egun, Kultura Zientifikoaren helburua ez da soilik alfabetatze zientifikoa. Haratago doa; ezagutza zientifiko espezializatuena eskuragarri jarri nahi du, mundu zientifikoaren eta gizartearen arteko lotura-puntuak sortzen saiatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE3, STEM2, STEM4, STEM6, KD3, KPSII4, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

5. Gizarte-intereseko arazoei irizpide zientifikoekin heltzea, horiei irtenbideak kolaborazioan emanez, garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohitura eta erabaki pertsonal arduratsuak sustatzeko eta hartzeko.

Zientziak gizartearen beharrei eta garapen iraunkoraren erronkei erantzuten die. Erronka horiei aurre egiteko, ikasleek zientziaren hizkuntza ulertu eta kultura zientifikoa eskuratu behar dute. Kontzientzia hartzea, konpromisoa eta herritarren parte-hartzea funtsezkoak dira gizabanakoek informazio nahikoa izan dezaten maila pertsonalean eta profesionalean erabaki arrazoituak hartzeko. Zientziak eguneroko bizitzako erronketarako irtenbideak eskaintzen ditu, eta gizateriaren misterio handiei erantzuten laguntzen digu. Beste era batera esanda, ezagutza eskuratzeko bide garrantzitsuenetako bat da.

Konpetentzia honetan, ikasleek inplikatu egin behar dute irizpide propioarekin gizarte- eta ingurumen-intereseko ezagutza zientifikoaren proposamenak eta aplikazioak argudiatzen, eztabaidatzen eta ebaluatzen, pertsonalki garatzeko eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko, jarrera zientifikoak praktikan jarritz.

Garapen iraunkorarekin bateragarriak eta arduratsuak izango diren ohitura eta erabaki pertsonalak hartzeak ingurune bikaina eskaintzen du kooperazio-lanerako. Izan ere, kooperazio-lanean trebetasun hauek garatzen dira, besteak beste: argudiaketa, ideia konplexuen komunikazio eraginkorra, erabaki partekatuak hartzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea.

Horregatik, konpetentzia espezifikoko honen beste helburu bat da ikasleek kolaborazio eta kooperazioko askotariko baliabideak eta teknikak erraztasunez maneiatzea, beren ingurunea analizatzea eta bertan premia jakin batzuk aurkitzea, norberarentzat eta besteentzat balioa eskainiko duten irtenbideak eman ahal izateko.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, STEM2, STEM5, KD3, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK3, HK4 eta EK1.

6. Zientzia testuinguru kultural, sozial eta ekonomikoak baldintzatutako eraikuntza-prozesu etengabearen dagoela ezagutzea, eztabaida zientifikoek giza ezagutzaren bilakaerari egiten dizkieten ekarpenak baloratuz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta zientziaren dimentsio kulturala eta horrek gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.

Zientzia giza ezagutza eta ikerketarako modutzat ulertzeak zientzia zer den eta zer ez den bereizten laguntzen du. Saiakuntzan eta sormenean oinarritzen da, eta berrikusi eta alda daiteke, indarrean dauden teoriekin bat ez datozen ebidentziak aurkituz gero. Beharrezkoa da, orobat, ikerketaren izaera eta mugak hautematea, galdera zientifikoek erantzuteko behar den ebidentzia identifikatzea, eta ondorioak lortzea, ebaluatzea eta komunikatzea, testuinguru pertsonal eta sozialen aniztasun zabal batean.

Baina ez da ahaztu behar lortutako ezagutza zientifikoa errealitatearen irudikapen bat dela, eta irudikapen hori partziala edo osatugabea izan daitekeela. Beraz, ezinbestekoa da ulertzea gure ezagutzaren ziurgabetasuna eta egoera problematikoen aurrean erabakiak hartzeko zuhurtzia-printzipioa hartu beharra, eta zenbait balio kontuan hartzea, hala nola gizarte eskatzaile baten alde aurrerapen zientifikoak egitearen garrantzia, zientziaren mugak, gai etikoak eta zientzialariekiko konfiantza beren jardueran. Gainera, beharrezkoa da zientziari buruzko ikuspegi sinplistik eta jarduera zientifikoan aritzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatuak gainditzea.

Konpetentzia espezifikoko honen bidez, ikasleek pentsamendu kritikoa garatuko dute eta zientziaren dimentsio kulturala balioetsiko dute, zientzia etengabe eraikitze-prozesuan dagoela analizatuz.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM6, KD1, KD3, HK1 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Kultura Zientifikoa, DBHko 4. maila
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Alfabetatze zientifiko sendo baten garrantzia baloratzea, ezagutza eta irizpide zientifikoetan oinarritutako informazioak eta sinemenetan eta iritzietan oinarritutakoak bereiziz eta analizatuz.
1.2. Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzak hobetzeko egiten dituzten ekarpenak justifikatzea, gizarte-arazo batzuk eragin zituzten kausak identifikatuz eta analizatuz, eta arazo horiek erabat edo zati batean konpontzeko zientziak egiten duen ekarpena identifikatuz.
1.3. Modu arrazoituan eta kritikoa argudiatzea, eztabaida sozialaren eta auzi publikoaren xede diren hainbat gai zientifiko-teknologikori buruzko kontzeptuak, legeak eta/edo teoria zientifikoak erabiliz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Informazioa kontsultatzean, askotariko baliabideak modu egoki eta moldakorrean erabiltzea, iturri fidagarrienak irizpidez hautatuz, horien kalitatea eta fidagarritasuna baloratuz eta behar bezala aipatuz.
2.2. Zientziekin lotutako arazoak eta/edo gaiak jorratzea eta ebaztea, eduki zientifiko-teknologikoko informazioak bilatuz, hautatuz, analizatuz eta antolatuz, zereginaren helburuen arabera.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea eta baloratzea, problemak ebaztean zientzien prozedurekin koherenteak izango diren estrategiak aplikatuz.
3.2. Metodo zientifikoak, behaketa, informazioa eta arrazoibidea erabiliz kontrastatu daitezkeen hipotesiak planteatzea, fenomeno naturalen azalpenetan eta horiei buruzko iragarpenetan.
3.3. Gaurkotasun zientifikoko gai bati buruzko ikerketa-proiektu baten diseinuan, lanketan eta defentsan funtsezko elementuak ezartzea, lehentasunez IKTak erabiliz.
3.4. Ikerketa-proiektuetan lortutako emaitzak interpretatzea, arrazoibide zientifikoak eta, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Mezu zientifikoak koherentziaz eta kritikoki azaltzea eta argudiatzea, ahozko eta idatzizko hizkuntza egokia eta hizkuntza zientifikoaren oinarritzko arauak erabiliz.
4.2. Gai zientifikoak askotariko publikoei eta testuinguru desberdinetan komunikatzea eta zabaltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez erabiliz.
4.3. Dibulgazioko artikulua zientifikoak komentatzea eta konklusioak jendaurrean defendatzea, analizatutako testuen ondorio sozialen balorazio kritikoak eta analisiak eginez.
4.4. Zientziara modu atsegin eta errazean hurbiltzea ahalbidetzen duten gaiei buruzko berriak idaztea, horien xede den publikoarentzat hizkuntza egokia erabiliz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Ingurumen-arazo nagusiak, horiek eragiten dituzten kausak eta horiek areagotzen dituzten faktoreak identifikatzea, horiek konpontzeko irtenbideak proposatuz.
5.2. Garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohiturak sustatzea eta hartzea, horiek ezagutza eta arrazoibide zientifikoetan oinarrituz.
5.3. Zientziak eta teknologiak egungo bizi-baldintzen aldaketan egiten duten ekarpena modu kritikoa eta kolaborazioan justifikatzea eta baloratzea.
5.4. Ekintza jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioei buruzko erabaki arduratsuak hartzea, eskura dagoen informazioa eta beren ezagutza zientifikoak erabiliz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Pentsamendu kritikoa garatzea eta zientziaren dimentsio kulturala balioestea, zientzia etengabe eraikitze-prozesuan dagoela analizatuz.
6.2. Zientziaren izaera eraikitzailea baloratzea, historian zehar izandako zenbait aldaketa zientifiko adierazgarri analizatuz.
6.3. Zientziak gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak analizatzea, ekarpen zientifikoak baloratuz.
6.4. Zientziari buruzko ikuspegi sinplistikak eta zientzia-jardueran aritzen diren pertsonetikiko ikuspegi estereotipatua gainditzea, ezagutza zientifikoak sozialki eta historikoki testuinguruan jarri.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Kultura Zientifikoa, DBHko 4. maila
1. MULTZOA. Proiektuak zientzian
Proiektu zientifikoen faseak.
Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako zenbait proiektu zientifikoren analisiak.
Proiektu zientifikoetan, zientziari buruzko ikuspegi sinplistik eta jarduera zientifikoan aritzen diren pertsonen estereotipoak gainditzeko estrategiak.
2. MULTZOA. Zientzia eta komunikazioa
Sare sozialak komunikazio zientifikoan. Zientziaren komunikazio- eta dibulgazio-sareak.
Berri faltsuak (Fake news).
Kazetaritza zientifikoa.
Literatura eta zientzia.
Genero-alborapena komunikazio zientifikoan.
Komunikazio zientifikoa ikus-entzunezko komunikabideetan: bideoak, "sketch"ak, filmak, bakarriketak, etab.
3. MULTZOA. Big Bangetik eta haratago...
Lurraren historia.
Lurrikarak eta sumendiak.
Biziaren jatorria eta teoriak.
Bizia gunen sakonetasuna.
4. MULTZOA. Planetaren etorkizuna
Erregai fosilak, energia nuklearra, energia berriztagarriak, hidrogeno berdea. Etorkizun energetikoa.
Eguzkiaren kimika eta Lurreko bizia.
0 km-ko elikagaiak. Klimaren ondorioak nekazaritzan eta bidezko banaketa. Itsaspeko bizia eta itsas baliabideak.
5. MULTZOA. Material berriak. Berrikuntza, garapena eta ikerketa
Material berriak: motak, erabilera. Nanomaterialak, karbonoaren nanoegiturak, grafenoa, erdieroaleak, supereroaleak, zuntz optikoak.
Lehengaien agortzea eta etorkizuna.
Berrikuntza-zentroak Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskal estrategia Europan, 2021-2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030.

GARAPEN PERTSONALARI ETA SOZIALARI APLIKATUTAKO FILOSOFIA

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia jakintzagaiak, Derrigorrezko Hezkuntzaren azken kurtsoko aukerako gisa, helburu du, lehenik eta behin, ikasleen funtsezko kezka eta kezka existentzialak —galdera eta proposamen filosofiko handiekin lotutakoak— analizatzeko espazio bat eskaintzea. Bigarrenik, jakintzagaiaren helburua da, halaber, ikasleei zalantzan jartzeko eta gogoeta egiteko gutxienezko jarrera eta oinarrizko ezagutzak ematea, gizabanako eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Heziketa filosofikoa ezinbestekoa da gizarte demokratiko bat printzipio, balio eta praktika etiko, politiko eta zibikoen inguruan egituratzeko. Izan ere, gizarte demokratikoaren zilegitasunerako eta eraginkortasunerako, beharrezkoak dira herritarren deliberazio dialogikoa, konbikzio arrazionala eta iritzi-autonomia. Azkenik, Filosofia berekin dakar, halaber, pertsona ororen garapen integrale-rako behar diren arazoari eta emozioei buruz gogoeta kritikoa egitea.

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia jakintzagaiak, eskatzen duen jarrera kognozitiibo erradikalagatik eta jorratzen dituen gai eta alderdien aniztasunagatik, espazio egokia eskaintzen

du funtsezko konpetentziak modu integratuan garatzeko. Ildo horretatik, arazo unibertsal eta funtsezkoen inguruan ikertzea —horiek ikasleen hurbileko ingurunearekin eta egungo gizarte-arazoekin lotuta— baliagarria da haien heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko helburua lortzeko eta haien dimentsio intelektualak nahiz nortasun pertsonalarekin eta gizarte-bizitzarekin lotutako beste alderdi batzuk garatzeko. Funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, bereziki jorratzen dira honako hauek: Herritar-tasunerako konpetentzia eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Jakintzagai honek etapako gainerako jakintzagaiekin duen loturari dagokionez, Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikaturako Filosofia hainbat jakintzaren arteko lotura naturala da. Gai filosofiko nagusietara gogoeta eginez eta modu dialogikoan hurbiltzeak erraztu egiten ditu ikaste-prozesu esanguratsuak eta diziplinar-teko ikuskera. Arlo honetan jorratzen den gaitasun kritikoa, kontzeptuala eta dialogikoa garatzea funtsezkoa da abstrakzio-gaitasuna, zalantzan jartzeko gaitasuna eta ideien trukean oinarritutako argudiozko elkarrizketan parte hartzeko trebetasuna garatzeko. Esan gabe doa gaitasun horiek guztiek garapen pertsonalaren eta intelektualaren oinarria osatzen dutela, eta, horrenbestez, ezinbestekoak direla arlo guztietan. Azkenik, gogoeta filosofiko existentziala ikasleen ezinbesteko premia da Derrigorrezko Hezkuntzan.

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikaturako Filosofia jakintzagaiak sei konpetentzia espezifikotan antolatzen da. Planteamenduaren izaera maieutikoa dela eta, konpetentzia horiek nahitaez inplementatu behar dira, hein handi batean, ikasleen ikerketa filosofikoa bera erreferentzia-zentro gisa hartuko duen irakaskuntza dialogikoaren esparru metodologikoan.

Konpetentzia horietako lehenengoak zalantza du ardatz, filosofiaren oinarritzko tresna den aldetik. Helburu du galdera filosofiko nagusiak identifikatzea eta norbere buruari galderak egiteko gaitasuna garatzea. Bigarren konpetentzia konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren erroa doa, ikasleek beren bizi-ingurunearen eta gai filosofiko nagusien arteko erlazioak ezartzea baitu helburu. Hirugarren konpetentzia elkarrizketa praktikatzeari buruzkoa da, jardun filosofikoa osatzen duen ezagutza-prozesu kooperatibo gisa hartuta. Horrek, aldi berean, ideia eta teoria filosofikoen izaera plurala eta ez-dogmatikoa ezagutzea eskatzen du, baita ezagutza hori zeregin bikoitzean (kritikoan eta eraikitzailean) inplementatzea ere: ideia eta teoria horiek kontrastatzea eta horien arteko aurkakotasuna eta osagarritasuna aurkitzea.

Laugarren konpetentzia kontzeptualagoa da, eta ikasleei pentsamenduaren historian zehar oinarritzko nozioak eta eztabaidak emateko beharri erantzuten dio, filosofiaren izaera eta bere galderen erradikalitatea barneratzen laguntzeko. Bosgarren konpetentziaren ardatza identitatea eraikitzea eta emozioak esparru filosofikotik analizatzea da. Filosofiaren praktikak ikasleen nortasunaren prestakuntza integrala eman behar du, ikasleak erronka pertsonal, emozional, sozial eta profesionali arrakastaz aurre egin ahal izan diezaien, etengabe eraldatzen ari den eta ziurgabetasunez beteta dagoen geure munduak berekin dakartzan erronkei, hain zuzen. Azkenik, seigarren eta azken konpetentzia espezifikoa, funtsezko gai buruzko pentsamendu propioa eta era berean zorrotza sortzeko ahalmena jorratzen du, baita XXI. mendeko erronken aurreko iritzi eta konpromiso autonomoak garatzeko ahalmena ere.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, dagoeneko azaldutako konpetentzia espezifikoko bakoitzarekin zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostiko- eta hobekuntza-tresnatzat hartu behar dira, konpetentzia horiek eskuratuz gero espero den jardun-mailari dagokionez.

Oinarritzko jakintzak hiru multzo handitan banatuta daude, eta helburu dute ikasleei filosofiak barne hartzen duen ikasketa-eremu aberats eta konplexuaren oinarritzko eta multzoko ikuspegia ematea. Hala ere, kasu bakoitzean, eta ikasleen idiosinkrasia, hezkuntza-testuingurua edo beste irizpide pedagogiko batzuk kontuan hartuta, batzuk besteak baino gehiago sakondu ahal izango dira. Gainera, komeni bezala multzokatu eta egituratu ahal izango dira. Hala, jakintza filosofikoa, haren adarrak eta ezaugarriak barne hartzen dituen lehen jakintza multzoan, ezagutzaren eta errealitatearen funtsezko gaiak jorratzen dira. Bigarren multzoa bideratuta dago identitatea eraikitzaile (funtsezkoa da adin honetan) eta, era berean, bizitzari eta zorientasunari buruz gogoeta egitera, gai horiek funtsezkoak baitira gizaki ororentzat. Hirugarren eta azken multzoa filosofiaren dimentsio praktikoen bideratuta dago. Horregatik, gogoeta etiko eta politikoari heltzen zaio, baita herritar kontziente eta aktibo izateko behar diren nozio eta tresnei

ere. Ildo horretatik, azken multzo horrek egungo problematika handietan jartzen du arreta, ikasleei eztabaida horietan parte harrarazteko helburuarekin.

Argi dago etapa honetan Filosofia irakasteak eta ikasteak ez duela gaien azalpen programatiko huts bat izan behar. Aldiz, galdera filosofikoak deskubritzeko esperientzia erreal bat sortu behar da. Esperientzia horretatik abiatuz, ikasleak bultzatu behar dira horien inguruko ikerketa analitikora, eman zaizkien erantzunen ebaluazio kritikora eta beren jarrera-hartze pertsonalen eraikuntza zorrotzera. Ildo horretatik, jakintzagaiaren programazioan kontuan hartu beharko da jarduera filosofikoak berez duen izaera dialogikoa, parte-hartzailea, diziplinartekoa, sortzailea eta garrantzizko arazoekin konprometitua. Hala, autonomia pertsonala eta herritarren jardun kritiko eta ekosozialki arduratsua lortzera bideratuko da programazioa.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-jardunean txertatuta egon daitezten, eta beharrezkoa denean erreferente artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin lotuta, beharrezkoa balitz. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta gogoeta-pentsamendua garatzeko. Gainera, garrantzitsua da erreferente teoriko jakin batzuei heltzea, euskal dimentsioarekin eta aipatu dugun inklusioarekin lotutako ideia eta egile zehatzen bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arazoak identifikatzea eta galdera filosofikoak egitea, hurbileko errealitateekin lotutako testu, bideo, joko, dinamika edo beste material batzuetatik abiatuz, pentsamendu kritikoa, autonomia eta kontzientzia garatzeko.

Jarduera filosofikoaren abiapuntua existentziaren beraren aurrean dagoen harridura da, baita, sinesmen komunak zalantzan jarri ondoren, haren izaerari, balioari eta zentzuari buruz planteatu daitezkeen galderak ere. Zalantza eta harridurako jarrera horrek, nerabezaroan ia modu naturalean garatzen den arren, bide formala eta metodologikoa, hizkuntza espezifikoa eta kultura-tradizioa behar ditu, ikasleei beren bizi-kezkak eta kezka existentzialak adierazten eta analizatzen laguntzeko. Horretatik, komeni da galdera handiak testuetan eta gogoeta filosofikoa sustatuko duten bestelako bitartekoetan identifikatzea. Garrantzitsua da gogoratzea konpetentzia hau ez dela identifikaziora eta analisisira mugatzen, baizik eta helburu hartzen duela, era berean, ikasleei izaera bereko arazoak eta galderak formulatzen eta adierazten laguntzea, bizitza gogoetatsua, kritikoa eta norbere buruaz erabat jabetua lortzeko.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, STEM1, KPSII4, HK1, HK3 eta KAKK3.

2. Kontzeptu eta eztabaida filosofiko klasikoak eta garaikideak beren beharrekin eta bizi-ingurunearekin lotzea, material idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, artistikoak edo bestelakoak analizatuz, Filosofiak bizitzaren esparru guztietan duen presentzia identifikatzeko.

Bigarren konpetentzia hau konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren errora doa, ikasleek beren bizi-ingurunearen eta gai filosofiko nagusien arteko erlazioak ezartzea baitu helburu. Zentzua eta esanahia bilatzea da, ziurrenik, ikaste-prozesuan arrakasta lortzeko faktore nagusia. Horretatik, ezinbestekoa da ikasleek beren bizi-ingurunearen, errealitatearen, kezken, errealitate sozial eta politikoaren eta ikasgelan jasotzen dituzten eta gogoeta egiten dugun ezagutzen artean loturak ezartzeko gaitasuna garatzea. Material askotarikoak eta kasu askotan ez hertsiki filosofikoak erabiltzeak —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bezalako etapa baterako egokiagoak— aukera ematen digu ikasleei laguntzeko aipatutako zubiak eraikitzen eduki kontzeptualen eta inguruan duten errealitatearen artean.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, HKK3, KE2, STEM1, KD1, KPSII4, HK4, EK3 eta KAKK2.

3. Argudiaketan oinarritutako elkarrizketa filosofikoa modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan praktikatzea, jarduera dialogiko kooperatiboetan parte hartuz, ideien trukea eta herritartasun aktibo eta demokratikoaren jarduna sustatzeko.

Hau da kompetentzia garrantzitsuenetako bat filosofia benetako heziketa zibikoa dela esan izan dadin. Elkarrizketa filosofikoak batera gutxitan agertzen diren hainbat bertute biltzen ditu: argudio-zorroztasunaren eskakizuna, aniztasun ideologikoaren onarpena eta bat ez gatozen pertsonetikiko errespetuzko jarrera enpatikoa, jarrera komun bat bilatzeari eta elkarrekin aurkitzeari utzi gabe, eta desadostasuna nahitaez gatazka gisa ulertu behar izan gabe, ikuspegi aniztasun eta osagarritasun gisa baino. Elkarrizketa filosofikoaren praktikak, era berean, sustatu egiten ditu motibazioa, alderdi emozionalak, ikasketza aktiboa eta esanguratsua, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntza, kolaborazio-lana edo bizitza osoko prestakuntza. Etapa honetan faktorerik garrantzitsuena izan gabe, egokia da gogoratzea elkarrizketa filosofikoa eta kalitatezkoa izan dadin, arreta jarri behar diegula argudiaketa-prozedurei, horien oinarriei, baldintzei, araei, motei, propietatei eta mugei.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK5, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK1 eta HK3.

4. Filosofiaren izaera hautematea eta ideia eta eztabaida nagusiak ezagutzea, horien ikasketa eta azterketa kritiko eta dialektikoaren bidez, pentsamendu filosofikoaren gutxienekoak ezagutu baina ikusketa integrala sortzeko.

Kompetentzia honen bidez, filosofiaren beraren izaera helarazi nahi zaie ikasleei, filosofia ulertuta ariketa nahitaez plurala eta dialektikotzat eta, era berean, elkarrizketa arrazional ireki eta konstruktiboan aritzeko abagunetzat, giza ekintza, esperientzia eta inguruabarren izaerari, zentzuari eta azken balioari eragiten dioten gai guztietan sakonduz. Historiako pentsalari nagusiek denboran zehar formulatu eta eztabaidatutako ikuskerak eta ideiak gure nortasunaren, gure kulturen indarrean dauden doktrina ekonomiko, politiko, zientifiko, estetiko edo erlijiosoaren oinarri ideologikoaren eta argudiozkoaren parte ordezkazina dira, baita ekintza morala, soziala eta politikoa bideratzen edo inspiratzen duten printzipio eta balioen multzoarena ere. Ideia horiek zorrotz eta sakon ezagutzea eta balioestea ez da soilik arazo filosofikoak eta, neurri batean, beste edozein gai kultural edo etiko-politiko aztertzeko baldintza, baizik eta norbere burua ezagutzeko funtsezko eskakizuna ere, ekintza eta gogoeta bera, neurri handiagoan edo txikiagoan, ideia horietatik elikatzen den heinean.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, HKK5, KPSII4, HK1 eta HK3.

5. Norberaren nortasunari eta norberaren bizi-proiektuari buruzko gaien inguruan gogoeta egitea, arrazoimenaren, emozioen eta ingurune sozial eta kulturalaren eraginari buruz hausnartuz, autoezagutza sustatzeko eta bizi-planteamendu kontzienteak lantzeko.

Autoezagutza da pertsona guztien bizi-garapenerako eta garapen akademikorako lehen eskakizunetako bat. Zeregin honen helburu nagusia da ikasleak jabetzea bere buruaz eta gizakia arrazionaltasuna, bolizioa eta afektuak dituen izaki gisa bereizten duten ezaugarri eta dimentsioez, bere izaeraren eta hura ahalbidetzen eta baldintzatzen duten inguruabar sozial, historiko eta kulturalen arabera. Ezinbesteko kompetentzia-zutabea da ikasleek galdetzea gizabanako gisa duten rol sozialari buruz, bizitza komunitarioaren eta ingurunearekiko harremanen esparru betiere problematikoan. Azken helburua da ikasleek, jakintza filosofikoaren oinarritzko kontzeptu eta prozeduren ezagutzatik eta erabilera egokitik abiatuta, beren bizi-proiektuaren mende dauden balio-judizioak eta beren helburu pertsonal eta profesionalen lorpena askatasunez eta kritikoki eraikitzen ikastea.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK1, HK3 eta KAKK3.

6. Arazo etiko garaikide nagusiak eta horien aurrean egindako proposamenak analizatzea, ikerketaren, elkarrizketaren eta bateratze-lanaren bidez, arazo horiei jarrera kontziente eta aktibo batetik aurre egiteko bidea emango duen jarrera kritikoa eta autonomoa eraikitzeko.

Mundu gero eta konplexuagoan eta aldakorragoan bizi gara, inguruan ditugun gatazken aurrean ezagutzak, jarrera kritikoa, gogoetarako gaitasuna eta proaktibitatea eskatzen dituzten erronkez betetako mundu batean. Horregatik, seigarren eta azken konpetentzia espezifikoak funtsezko gaietara buruzko pentsamendu propioa eta era berean zorrotza sortzeko ahalmena jorratzen du, baita XXI. mendeko erronken aurreko iritzi eta konpromiso autonomoak garatzeko ahalmena ere. Horretarako, gaur egungo arazo etikoak beren konplexutasunean analizatu behar dira, eta, analisi horrekin batera, arazo horiei eta hobetzeko dauden aukerei buruzko gogoeta kooperatiboa egin behar da.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK3, HKK5, STEM2, KD4, KPSII1, KPSII3, HK1, HK3 eta HK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia	
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1.	Arazo filosofikoen erradikaltasuna eta garrantzia hautematea, horiek identifikatuz eta horien inguruan gogoeta eginez, testuekin eta beste adierazpide batzuekin lan eginda.
1.2.	Idea eta galdera filosofikoak formulatzea, pentsamenduaren historian zehar garatutako gai nagusietatik abiatuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1.	Eguneroko gaietan eta beren hurbileko ingurunean dagoen ezkutuko oinarri filosofikoa hautematea, Filosofiako kontzeptu eta eztabaida klasiko eta garaikideen eta analizatutako gertakari eta errealitateen azpian dagoen arazo filosofikoaren arteko loturak ezarriz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1.	Filosofikoki garrantzitsuak diren gai eta arazoei buruzko ideiak kontrastatzeko eta trukatzeko talde-jardueretan parte hartzea, baita herritartasun aktibo eta demokratikoan jarduten ere, argudiozko elkarrizketa arrazionala, errespetuzkoa, irekia, eraikitzailea eta egiarekin konprometitu erabiliz.
3.2.	Jardun dialogikorako indarrak eta ahuleziak norbere baitan identifikatzea, bai maila tekniko-argudiozkoan, bai maila emozionalean, norberaren parte-hartzeaz jabetuz eta horiek konpontzeko estrategiak ezarriz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1.	Arazo filosofikoen ikuskera ez-dogmatikoa sortzea, horien inguruko ideia filosofiko desberdin eta kontrajarrien analisi kritikoaren bidez.
4.2.	Teoria filosofiko desberdinak analizatzea, gogoetarako eta elkarrizketarako prozesu dinamiko eta beti ireki baten une gisa, tesi eta teoria horien argudioei buruzko analisiaren bidez.
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1.	Ikerketaren eta elkarrizketaren bidez, norberaren kontzeptu egoki bat eraikitzea, bere izaeraren eta nortasunaren dimentsio anitzak ezagutuz, bere bizi-proiektua eta helburu pertsonalak lortzeko oinarri gisa.
5.2.	Norberaren eta besteen emozioak, estimua eta zaintza modu orekuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak identifikatuz, analizatuz eta modu asertiboan adieraziz eta besteenak ezagutuz eta baloratuz.
6. konpetentzia espezifikoa	
6.1.	Ikerketaren eta elkarrizketaren bidez, gaur egungo eztabaida etiko nagusiak ezagutzea eta ulertzea, horien inguruan gogoeta egiteko, horiek eskuratutako ezagutza filosofikoekin erlazionatuz, beren inguruan jarrera propioa eraikitzeko.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia	
A. Filosofia, errealitatea eta ezagutza:	
1. Zer da Filosofia eta zertarako balio digu?	Filosofiaren jatorria eta definizioa.
	Jakintza filosofikoaren ezaugarriak. Pentsamendu kritikoa eta autonomia. Filosofiaren adarrak.
	Filosofiaren zeregina garapen pertsonalean eta sozialean.

Oinarrizko jakintzak. Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia	
2. Nola ezagutzen dugu eta zertarako balio digu ezagutzak?	Ezagutzaren arazoa. Egia: jarrerak eta teoriak.
	Egia eta egungo gizartea. Egia-osteko aroa eta "fake new"ak.
	Ezagutza-moduen analisia: arrazoa, emozioak, intuizioa eta sinesmenak. Arrazoimena eta espiritualtasuna gaur egungo gizartean.
	Ezagutzaren dimentsio politikoa eta soziala: ezagutza, askatasuna eta boterea. Desinformazioa eta gaininformazioa.
	Errealitatea eta berori ulertzeko moduak: esentzialista, erlazionala eta prozesuala.
B. Nia, gizakia eta bizitza:	
1. Nor naiz eta nor gara?	Nor naizen eta nor garen: erantzunak filosofiatik, zientziatik eta erlijiotik.
	Identitate pertsonala eta kolektiboa: horren eraikuntzan eta bilakaeran eragina duten faktoreak. Identitateak eta diskriminazioa.
	Identitate eta identifikazio pertsonala. Nia eta taldea: sozializatzeko prozesuak eta moduak. Niaren konfigurazioa: arrazoa eta emozioak.
	Gizakia: natura eta kultura.
	Zer da kultura? Gure inguruko aniztasun kulturalaren eta gatazka kulturalen aurreko jarrerak.
2. Zer da bizitza eta nola izan zoriontsu?	Zoriontasunaren teoriak.
	Bizitzaren zentzua filosofiaren historian eta egungo gizartean. Errealizazio pertsonala eta soziala gaur egungo munduan.
	Zoriontasuna norbanakoaren eta gizartearen ikuspegitik: haren eraikuntzan eragina duten faktoreak. Zoriontasunaren bilaketa egungo gizartean.
C. Filosofia praktikoa hemen eta orain:	
1. Zer dago ondo eta nola bizi gaitzke elkarrekin?	Etikaren eta Politikaren oinarrizko kontzeptuak. Etikaren eta politikaren arteko erlazioa.
	Jarrera etikoak: unibertalismoa, erlatibismoa eta eszeptizismoa. Teoria etiko nagusiak.
	Gatazka etikoak eta moralak gure eguneroko ingurunean. Eztabaida etiko garaikideak.
	Gizartea antolatze eta boterea kudeatzeko proposamen nagusiak. Eskubideak eta betebeharrak.
	Funtzionamendu politikoa gure gizartean. Politika hemen eta orain.
	Gazteak eta politika.
2. Zer ekarpen egiten dio Filosofiak egungo gizarteari?	Estetika gaur egungo gizartean: Artea eta Edertasuna Filosofiatik. Estetika eta kontsumo-gizartea. Estetika eta identitatea.
	Problematika garaikideak: planetaren mugak, globalizazioa, genero-desberdintasuna, garapen teknologikoa, migrazio-mugimenduak, bidegabekeria epistemologikoak...
	Filosofiaren zeregina egungo gizartean. Filosofia eta heziketa.

LANBIDE-JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK

DBH4ko Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziek zientziaren metodo praktikoei, haiek lanbide-jardueran dituzten aplikazioei eta sortzen dituzten ingurumen-inpaktuei buruzko orientabide orokorra eskaintzen dute.

Jakintzagai honek zientzia-arloko trebetasunak eta jarrerak garatzea errazten die ikasleei, batez ere teknika esperimentaletan. Haien bidez, ikasleek lan-diziplina bat eskuratzen dute laborategian, segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzen dituzte, eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren norbera babes-teko ekipamenduak erabiltzearen garrantzia baloratzen dute. Gainera, errealitate naturala ulertzeko eta ingurumenean eragina duten erabakiak hartzeko jakintzak eskainiko ditu.

Bestalde, oinarri sendoa emango die lanbide-heziketako ikasketak baldintza hobeetan egiteko (honako lanbide-arlo hauetan: nekazaritza, elikagai-industriak, kimika, osasuna eta abar) eta batxilergoa Zientziak eta Teknologia eta Zientzia Orokorrak aukeretan egiteko.

Beraz, funtsezkoa da garapen metodologikoan ikuspegi nagusiki praktiko bat erabiltzea eta, ildo horretan, talde-lana eta egindako lanetan lortutako emaitzen ahozko komunikazioa eta defentsa neurri handian sustatu eta baloratzea. Bestalde, ICTak erabili behar dira, bakarka edo taldean, bai lan-tresna gisa, bai ordenagailuz lagundutako esperimendazio-programak edo laborategi birtualak behar bezala erabiltzeko.

“Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziak” jakintzagaiaren curriculum-garapenak funtsezko konpetentziak garatzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako zehaztu diren etapa-helburuak lortzen laguntzen du. Bi elementu horiek ikasleen irteera-profilean zehaztuta dauden eta curriculumaren beste bi elementuak (oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak) justifikatzen dituzten funtsezko konpetentzien deskriptoreekin zuzenean lotutako konpetentzia espezifikoetan zehaztuta daude.

Konpetentzia espezifikoek honako hauek dituzte ardatz: jarduera esperimendalak eta ikerketa-proiektuak egitea; lanbide-inguruneke ekintza jakin batzuek osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak aztertzea; zientziak eta aurrerapen teknologikoeke egindako ekarpenen ezagutza erabiltzea; informazioa eta datu zientifikoak bilatu, interpretatu eta transmititzea eta I+G+B kontzeptua eta haren bilakaera aztertzea.

Konpetentzia espezifikoekin batera, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak garatzen dira. Ez dago zuzeneko lotura unibokorik ebaluazio-irizpideen eta oinarrizko jakintzen artean. Aitzitik, konpetentzia espezifikoak hainbat jakintzaren mobilizazioaren bidez ebaluatu ahal izango dira, eta jakintza multzoen arteko konexioak ezartzeko beharrezkoa den malgutasuna emango da.

Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzak lau multzotan banatuta daude:

- “*Laborategiko kalitatea eta segurtasuna*”: ikasleek laborategi baten antolaketa eta praktikan erabiliko diren materialak eta substantziak ezagutzera bideratuta dago, eta segurtasun- eta higie-arauen ezagutza eta betetzea, tresnen eta produktuen erabilera zuzena eta sortutako hondakinen kudeaketa azpimarratuko dira. Gainera, lehen laguntzen inguruko jarduketetan eta oinarrizko teknikan prestatuko dira.
- “*Laborategiko teknikak*”: Ikasleek laborategiko esperientziak egingo dituzte, bai in situ, bai urruneko laborategien eta simulazioen bidez. Esperientzia horien bidez, oinarrizko teknika instrumentalak ezagutu ahal izango dituzte industria-intereseko substantziak lortzeko praktiken bitartez, eta laborategian ikertzeko behararen eta emaitzak industrian aplikatzeko behararen arteko lotura bat ezarri ahal izango dute.
- “*Zientzia ingurumenaren zerbitzura*”: multzo honetan, zientziaren eta ingurumenaren arteko erlazioa lantzen da, eta ikasleek kutsatzaile motak, haien jatorria, ingurumenean dituzten ondorioak eta haien ondorioak murrizteko eta sortutako hondakinak desagerrarazteko tratamendua ezagutzera bideratuta dago. Multzo honetan, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan garapen iraunkorrari dagokionez bulzatutako ingurumen-estrategiak aztertuko dira.
- “*Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B)*”: multzo honek alderdi teorikoak eta araketa-alderdiak konbinatuz eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz lan egitea du xede. Teknologia horiek tresna egokiak izango dira ikasleek alor horretan munduan, Estatuan eta toki-mailan egin diren azken aurrerapenak ezagutu ahal izateko. Gai horren barruan, I+G+B hirukoa lantzen da, funtsezko zutabea baita gizarte gisa aurre egin behar diegun erronketarako irtenbideak bilatzeko. Ikasleek I+G+Ba zuzentzen duten erakunde batzuk ezagutuko dituzte.

Hortaz, jakintzagai honen bidez ikaskuntza praktikoen maila handituko da eta, aldi berean, gai horien sakontasun eta espezializazio handiago batera joko da. Ikasleek DBHko lehen hiru urteetan jarduera esperimendalak egin badituzte ere, bereziki azpimarratu beharko dira segurtasun-arauak eta haiekiko errespetua. Izan ere, jakintzagaia geroago laborategia ohiko ingurunea izango den lanbide-heziketako ikasketak egingo dituzten ikasleei edota geroago batxilergoko ikasketak jarduera praktikoeke egingo dituzten ikasleei zuzenduta dago nagusiki.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Jarduera esperimentalak eta ikerketa-proiektuak egitea, zientziaren berezkoak diren metodologiak erabiliz, kasu praktiko errealak testuinguruan lantzeko eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.

Trebetasun zientifikoak baliatzeak lan zientifikoaren berezko metodologiaren erabilera pixkanaka menderatzea dakar, hainbat alderdi zientifikori buruzko ikerketak eta azterketak arrakastaz egin ahal izateko. Ikasleentzat, konpetentzia espezifikoa hau garatzeak, galderak eta hipotesiak egin beharraz gain, esperimentazioaren bidez haien egiazkotasuna egiaztatzea eta segurtasun- eta higiene-arauak, materialak, haien erabilerak eta mantentzea, babes-ekipamenduak eta laginen eta substantzien tratamendua eza-gutzea dakar, kudeaketa egokia behar duten heinean. Hori dela eta, konpetentzia honen bidez ikasleek laborategietan edo lanleketan esperimentuak, teknikak eta laginketak egiteko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzea lortu nahi da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM5, KD4, LD5, KPSII3, KPSII5.

2. Lanbide-ingurunekeo ekintza jakin batzuek osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak aztertzea, funts zientifikoetan oinarrituz, osasun indibiduala eta kolektiboa hobetzen duten, ingurumen-inpaktu negatiboak saihestu edo txikiagotzen dituzten eta garapen iraunkorarekin bateragarriak diren ohituren garrantzia baloratzeko.

Giza jarduerak aldaketa ugari eragin ditu ingurunean, aurrekaririk ez duen erritmo batean. Adibidez, hainbat inguruneraren kutsadura, habitaten suntsiketa edo biodibertsitatearen eta baliabide naturalen murrizketa aipa daitezke. Aldaketa horiek arrisku larrian jar ditzakete funtsezko giza jarduera batzuk, hala nola elikagaien ekoizpena eta lehengaien lorpena.

Hori guztia dela eta, konpetentzia honen bidez lan-jardueran, jarduera pertsonalean eta gizarte-jardueran egiten diren ekintza jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioez jabetzeko estrategiak garatuko dituzte ikasleek. Gainera, ondorio horiei buruzko ezagutzak praktikan jarriko dituzte, eragiten duten inpaktua txikiagotzeko (hondakinen kudeaketaren eta birziklatzearen bidez, adibidez). Era horretan, osasun indibidual eta kolektiboa zaintzen eta hobetzen lagundu ahal izango dute, eta arestian deskribatutako ingurumen-joera negatiboak geldiarazi ahal izango dituzte.

Horrela, beraz, ikasleak hiritar gisa garatzeko, garrantzitsua da bizi-estilo osasungarri eta iraunkor bat justifikatzen duten funts zientifikoak ezagutzea eta aplikatzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD4, KPSII2, HK4, KAKK4.

3. Zientziak eta aurrerapen teknologikoek emandako ezagutza baliabide naturalak zaindu eta babesteko erabiltzea, baliabideen erabilera iraunkoraren oinarri izango diren prebentzio-tresnak baliatuz, garapen iraunkoraren alde aktiboki eta arduraz parte hartzeko.

Gaur egun, aurrerapen teknologikoak eta zientziaren ekarpenak ingurumena zaindu, babestu eta kontserbatzera bideratuta daude batez ere. Adibidez, ekonomia zirkularrak, ekoizpen-prozesua hobetzeaz gain, hondakintzat hartu izan ohi diren elementuak berrerabiltzeko balio izatea eta, aldi berean, lehengaien, uraren eta energiaren kontsumoa eta xahutzea murriztea proposatzen du.

Hortaz, ikasleek teknologiak eta zientziak ingurumenaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzearen alde egindako aurrerapenez jabetu behar dute. Ildo horretan, ingurumen-inpaktuak murrizteko estrategiak proposatuko dituzte, hondakinak murrizteko eta birziklatzeko irtenbideak planteatuko dituzte eta aktiboki hartuko dute parte ingurunerik hurbilenaren kontserbazioan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM5, KD1, KPSII3, HK4, EK1.

4. Informazio eta datu zientifikoak bilatu, interpretatu eta transmititzea, aldez aurretik haien egiazkotasuna egiaztatuz eta ahozko hizkuntza eta/edo hizkuntza grafiko egokia erabiliz, formatu analogiko eta digitalean, ingurune sozial eta profesionalari buruzko ezagutza zientifikoak eskuratzeko eta finkatzeko.

Ingurune sozial eta profesionalari buruzko ezagutzak jakintza berriak eskuratzeko dakar, hainbat iturri erabiliz informazio eta datu zientifikoak bilatu, hautatu eta biltzearekin hasita. Jakintza horietan, zeregin garrantzitsua betetzen du informazio horren egiazkotasuna egiaztatzeak eta oinarri zientifikoak duten informazioak eta halakorik ez dutenak bereizteko irizpide zientifikoak erabiltzeak.

Zientzia-esparruetan eta bizitzako beste egoera askotan, etengabeko informazio-eraso bat dago, eta informazio hori hautatu, interpretatu eta aztertu egin behar da helburu jakin batzuetarako erabiltzeko. Askotan, informazio zientifikoa askotariko formatuetan ematen da, hala nola enuntziatuetan, grafikoetan, tauletan, ereduetan, diagrametan eta abar, eta horiek ulertu egin behar dira zientzian behar bezala lan egiteko. Era berean, hizkuntza matematikoak komunikazio globaleko tresna eraginkor bat eskaintzen du zientzia ikasteko, eta dauden diziplina zientifikoetako hizkuntza espezifikoei ulertu eta aplikatu beharrekoko arau batzuei jarraitzen diete.

Komunikazioa zientzia-esparruen barruan zein kanpoan gertatzen denez gero (bi norabidetan), ikasleek gai izan behar dute, informazio zehatza eta egiazkoa hautatzeko ez ezik, ematen zaien informazioa zuzen interpretatzeko eta behaketa edo azterketa batetik abiatuta transmititzeko ere bai. Horretarako, hainbat formatu erabiliko dituzte behar bezala, eta dauden diziplina zientifikoetako komunikazio-arau espezifiko jakin batzuk hartuko dituzte kontuan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KPSII4, HK4, KAKK3.

5. I+G+B kontzeptua, haren bilakaera eta sustatzen duten organismoak aztertzea, ekoizpen-sistemetan duen garrantzia deskribatuz, ekoizpen-sektoreen (eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegokoan) iraunkortasunean, kalitatean eta lehiakortasunean duen eragina baloratzeko.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, ikasleek I+G+B prozesuen garrantzia baloratzea eta ekoizpen-sektoreen kalitatearen eta lehiakortasunaren hobekuntzan duten eragina argudiatzea lortu nahi da. Bestalde, ikasleak gai izango dira egungo gizartean eragin handia duten produktu eta aurrerapen teknologikoen sorkuntzan inplikaturako egungo I+G+B prozesuak deskribatzeko.

I+G+Baren aurrerapenaren bidez, ikertzaileak etengabe ari dira lortzen ingurumenaren hobekuntzaren eta garapen iraunkorren mesederako propietate harrigarriak dituzten material berriak.

Ikasleek gaitasuna izan behar dute arlo horretan, ongi oinarritutako erabakiak hartu ahal izateko eta ingurumenaren osotasunaren, ekonomiaren bideragarritasunaren eta bidezko gizarte baten aldeko ekintza arduratsuak egin ahal izateko. Ikasleek kontuan hartuko dituzte, gainera, aurrerapen teknologikoei eskari handiak dituen gizarte baterako duten garrantzia, zientziaren mugak, alderdi etikoak eta zientzialarien jarduerarekiko konfiantza.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, STEM5, KD1, KPSII4, KPSII5, HK4, EK1

6. Askotariko taldeetan, ikerketa zientifikoan berdinen artean hazteko aukera bultzatzea ahalbidetuko duten kooperazio- eta/edo kolaborazio-estrategiak erabiltzea, genero-ikuspegia kontuan hartuz, esparru pertsonalean, lan-arlokoan eta sozialean ekintzailatza zientifikoa sustatzeko.

Zientzian aritzen diren pertsonen talde-laneko gaitasunak garatu behar dituzte, kolaborazioa eta kooperazioa ezagutza zientifikoaren eraikuntzaren oinarria baitira gizarte orotan. Gainera, emakumeek zein gizonek hartzen dute parte, eta hainbat herrialdeetako lantaldeek eta enpresek ere parte har dezakete.

Hori guztia kontzientzia sozial eta ekologiko baten parte da, eta kontzientzia horretan, komunitate zientifikoak ez ezik, gizarte osoak ere parte hartu behar du, baterako aurrerapen soziala eta indibiduala baitakar. Aurrerapen horretan, emakumeen ekarpena funtsezkoa da. Hori dela eta, garrantzitsua da ikasleek ikerketa etengabe eraikitzen eta bilakatzen ari den eta lan kolektibo gisa zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren interakzioa behar duen prozesu gisa baloratzea.

Konpetentzia honen bidez, ekintzailatza eta ikerketa zientifikoan komunitate zientifikoak ez ezik gizarte osoak ere parte hartu behar duela jakin behar dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, KPSII4, KPSII5, HK4 eta EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Egiazatu edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz.
1.2 Esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak edo kualitatiboak hartzea, tresna eta teknika egokiak zuzentasunez eta doitasunez erabiliz.
1.3 Egindako praktketan lortutako emaitzak interpretatu eta aztertzea, ondorio arrazoituak eta oinarrituak lortuz edo hori egiteko ezintasuna baloratuz.
1.4 Kolaborazioak ezartzea lan zientifikoaren faseetan beharrezkoa denean, kooperazioak eta inklusioak ikerketan duten garrantzia baloratuz.
1.5 Lortutako informazioa eta ondorioak garbi eta zorrotz aurkeztu eta komunikatzea, baliabide egokien bidez: infografiak eta posterrak, formatu analogiko eta/edo digitalean.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Kutsatzaile motarik adierazgarrienak, haiek atmosferan, uretan eta lurzoruan dituzten ondorioak eta industria-jardueraren, nekazaritza-jardueraren eta erradioaktibitatearen ondoriozkoak zehaztea, bidezkoak diren laborategiko saiakuntzak erabiliz.
2.2 Ekintza jakin batzuek organismoetan eta ingurune naturalean dituzten ondorioak ebaluatzea eta eskuratutako ezagutzetan eta eskuragarri dagoen informazioan oinarritutako ohitura osasungarriak eta iraunkorrak proposatzea.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Baliabide naturalen kontserbazioa, zaintza eta babesa errazten duten aurrerapen teknologikoak identifikatzea, haien inpaktu positiboak baloratuz.
3.2 Jarduera jakin batean sortzen diren hondakin motak identifikatzea, haiek kudeatu, biltegitatu, birziklatu eta desagerrazteko irtenbideak adieraziz, produktu motaren arabera.
3.3 Baliabideen kudeaketa iraunkorra egiten eta ingurumen-inpaktuak murrizten lagunduko duten estrategiak proposatzea, ezagutza zientifikoa eta/edo aurrerapen teknologikorik egokienak erabiliz.
3.4 Garapen iraunkorraren alde aktiboki eta arduraz parte hartzea, baliabideen erabilera iraunkorraren oinarri izango diren prebentzio-tresnak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Informazio zientifikoa garbi eta koherentziaz antolatu eta komunikatzea, lexiko zientifiko-teknikoa eta formaturik egokiena behar bezala erabiliz.
4.2 Lanbide-jardueran agertzen den informazio zientifikoa aztertu eta interpretatzea, informazio zientifikoen eta ez-zientifikoen aurrean jarrera kritikoa agertuz.
4.3 Iturri fidagarriak behar bezala erabili eta aipatzea, ikaskuntza propioa eta kolektiboa hobetzeko edukiak kontsultatzean eta sortzean informazio zientifiko garrantzitsua hautatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. I+G+B prozesuen garrantzia argudiatzea, ekoizpen-sektoreen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko prozesuak baloratuz.
5.2. I+G+Baren ildorik berrienetako batzuk deskribatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak. Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziak
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Zientziak gizarteari egindako ekarpena eta zientzia garatu duten gizonen eta emakumeen lana justifikatzea, ikerketa zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioaren ondorioz etengabe bilakatzen ari den lan kolektibotzat hartuz.
6.2. Interakzio konstruktiboak eta hezkidetzta-interakzioak ezartzea eta erantzukizunak bere gain hartzea, kooperazio- eta kolaborazio-jardueren bidez.
6.3. Talde batean zereginak, baliabideak eta erantzukizunak zuzentasunez bere gain hartzea, enpatia eta tolerantzia sustatuz.
6.4. Enpresa, erakunde edota herrialde desberdinetan atxikitako taldeen arteko kolaborazioaren garrantzia justifikatzea, lotutako faktore positiboak aztertuz (ekonomikoak, sozialak, iraunkorrak...).

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziak	
1. multzoa. Laborategiko kalitatea eta segurtasuna	
Laborategia: antolaketa eta materialak.	
Tresnak. Desinfekzioa eta esterilizazioa.	
Ohiko produktu kimikoak.	
Etiketen interpretazioa. Erreaktiboen manipulazioa eta garraioa. Piktogramak.	
Lagin biologikoen manipulazioa.	
Substantzia kimikoen arriskua: arrisku fisikoak, osasunerako arriskuak eta ingurumenerako arriskuak.	
Laborategian sortutako hondakinen tratamendua.	
Laborategiko segurtasun eta higienearen inguruko arauak eta jarrerak.	
Babes-ekipamendurik ohikoenak.	
Lehen laguntzako teknikak.	
Jarduketa proaktiboak larrialdi-egoeren aurrean.	
2. multzoa. Laborategiko teknikak	
Kolaborazioa eta kooperazioa ikerketa zientifikoko lan bat lantzean eta egitean: (galderaren edo arazoaren analisia, hainbat iturritatik lortutako datuen hautaketa, hipotesien aurkezpena eta egiaztatpena esperimentazioaren bidez, eta emaitzen analisia).	
Esperimentazio-teknikak Fisikan, Kimikan, Biologian eta Geologian.	Magnitudeak (bolumena, masa, tenperatura eta abar) neurtzeko eta/edo substantziak identifikatzeko saiakuntza fisikoak eta kimikoak.
	Nahasteak eta substantzia puruak. Disoluzioak. Kontzentrazioa. Disoluzioak prestatzeko metodoak.
	Substantziak bereizi eta arazteko teknikak: iragazketa, destilazioa, kristalizazioa, zentrifugazioa, dekantazioa, erauzpena eta kromatografia.
	Elikagaietan biomolekulak identifikatzeko teknikak.
	Erreakzio kimikorik ohikoenak. Azido-base erreakzioak: adierazleak, pH-aren neurria. Erredox erreakzioak: elektrolisia eta korrosioa. Erreakzio kimikoen aplikazioak.
	Eguneroko desinfekzio-prozesuetarako teknika eta tresna egokien aukeraketa eta deskribapena.
	Industrian eta baliabide profesionaletan duten aplikazioa.
Prozedura esperimentalen analisia eta zerrrenda, industria-arloan edo zerbitzu-arloan duten aplikazioarekin.	
Zientziak inguruneke lanbide-jardueretan dituen aplikazioak.	

Oinarrizko jakintzak. Lanbide-jarduerari aplikatutako zientziak
IKT tresnen erabilera laborategiko lan esperimentalerako.
Simulazioak. Urruneko laborategiak.
3. multzoa. Zientzia garapen iraunkorraren zerbitzura.
Kutsadura: kontzeptua eta motak.
Industria-jarduerako eta nekazaritza-jarduerako kutsatzaileak eta lurzoruan dituzten ondorioak.
Ura kutsatzen duten agenteak eta haien tratamendua.
Atmosferaren kutsatzaile motak bereizteko estrategiak, eta kutsadura atmosferikoaren arrazoiak eta ondorioak.
Erradioaktibitateak ingurumenean eta gizateriaren etorkizunean dituen ondorioak.
Hondakinen tratamendua.
Hondakinak bereizteko eta kudeatzeko faseak. Baliabide materialen birziklatzea eta berrerabilera.
Euskal Autonomia Erkidegoan garapen iraunkorari begira egiten diren ingurumen-estrategiak.
4. multzoa: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B)
“Ikerketa”, “garapen” eta “berrikuntza” kontzeptuak.
I+G+B zikloa: 3 etapen arteko erlazioa:
ikerketa, garapena eta berrikuntza. Ekonomia zirkularra.
I+G+Bak egungo gizartean duen eragina eta garrantzia.
Produktu eta prozesuen berrikuntza motei buruzko ikerketa.
Euskal Autonomia Erkidegoan I+G+Ba sustatzen duten organismoak eta administrazioak.
Enpresen eta erakundeen berdintasun-planen analisia.

LATINA

Latina aukerako jakintzagaia da laugarren mailan, eta hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdietarako eta haien iraupenerako hurbilketa espezifiko bat da. Jakintzagai honen ikuspegiaren berezitasuna jakintzagaiaren izaera bikoitzak baldintzatzen du. Alde batetik, ikasle batzuentzat gure egungo gizartearen oinarri diren hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdi jakin batzuk ezagutzeko aukera bakarra da derrigorrezko eskolatzearen barruan. Bestetik, irakaskuntza propedeutikoa izan behar du ikasketak diziplina horretan jarraitzen dituzten ikasleentzat. Izaera bikoitz hori dela eta, ahalegina egin behar da gizarte gisa dugun identitatearen jatorri klasiko nabaria deskribatzeko, testuinguruan kokatzeko eta ulertzeko.

Jakintzagai hau lagungarria da funtsezko konpetentziak garatzeko eta eskuratzeko, eta ikasleen garapen pertsonal eta soziala eta balio unibertsalen transmisioa sustatzen ditu. Hizkuntza, kultura eta zibilizazio latindarraren alderdien eta haien eta orainaren arteko erlazio kritiko bat ezartzea ahalbidetzen duten estrategien inguruan antolatuta dago. Ildo horretan, hizkuntza-elementuak eta beste mota bateko elementuak (literatura-arlokoak, arkeologikoak, historikoak, sozialak, zientifikoak, kulturalak eta politikoak) uztartzen ditu. Lehen elementu horiek, gainera, latinaren funtzionamenduari zein EAEko irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibiduala osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta sakona egitea dakar.

Halaber, ukaezina da latinak gainerako jakintzagaiei egiten dien ekarpena. Latinaren sistema hizkuntza flexiboaren eredu gisa aztertzeak aukera ematen du, konparazioaren bidez, gaztelaniaren, euskararen eta beste hizkuntza batzuen elementu formalei eta mekanismo sintaktikoei buruzko gogoeta egiteko. Latina ezagutzea lagungarria da hizkuntza erromantzeak bilakaera baten ondorioa direla eta haien egitura eta lexikoa jatorrizko hizkuntzarekin zorretan daudela ulertzeko. Horretarako, Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruz emandako Gomendioan

hizkuntza klasikoak sartzean, latina eta grekoa hizkuntzak ikasteko eta ulertzeko tresna bihurtu dira. Era horretan, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko lotura sustatzen dira, ikuspegi demokratiko batean oinarrituta eta aurreiritzirik gabe. Bestalde, jakintzagaiak iraganarekin elkarrizketa bat ezartzea ahalbidetzen du. Elkarrizketa horren bidez, oraina uler daiteke, hizkuntza-ikuspegi batetik ez ezik, literatura-ikuspuntutik eta ikuspuntu arkeologiko, historiko, sozial, zientifiko-kultural eta politiko batetik ere bai. Elkarrizketa horretan, gainera, kultura-ondare latindarra kontserbatu, zaindu eta zaharberritzeko prozesuek esku hartzen dute. Prozesu horiek zibilizazio klasikoaren legatuarekin konprometitzeko aukera ematen die ikasleei, etorkizunarekin konprometitutako ikuspegi iraunkor batetik abiatuta.

DBHn, latinari lotutako konpetentzia espezifikoek arestian aipatu dugun orainaren eta iraganaren arteko elkarrizketa hori jasotzen dute, eta hiru ardatz nagusitik abiatuta planteatzen dira: latinaren legatu materialaren zein immaterialaren izaera klasikoari buruzko gogoeta humanista erdigunean kokatzea, egungo munduaren ulermen kritikoa sustatuz, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta; konpetentzia eleaniztuna hobetzen laguntzea, ikasleek euskal hezkuntza-sistemako irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egin dezaten sustatuz; eta hizkuntzaren sarrera bat eskaintzea, testuak ulertzeko eta, era horretan, kultura eta zibilizazio latindarrera hurbiltzeko.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatuta daude. Lehenak —Zibilizazio latindarraren oraina— espiritu kritikoa eta judizio estetikoa garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta esperientziak biltzen ditu, latinezko literatura-testuak interpretatzeko trebetasunak eskainiz eta latinezko obra garrantzitsuen (adierazpen guztietan) eta tradizio klasikoko obren irakurketa konparatua sustatuz. Bigarren multzoak —Latina eta eleaniztasuna— azpimarratzen du nola laguntzen duen latina ezagutzeak ikasleen erreperitorio individuala osatzen duten hizkuntzak zehaztasun handiagoarekin erabiltzen eta terminologia kultu, zientifiko eta tekniko behar bezala ulertzen. Latinaren formantei buruzko azterketatik abiatuta, irakaskuntza-hizkuntzetan eta ikasketa-hizkuntzetan esanahiak ondorioztatuzko estrategiak ezartzen dira latinezko erroak, aurrizkiak eta atzizkiak ezagutzearen bidez. Hirugarrenak —Latinezko testua— latinaren oinarrizko elementuen identifikazioan eta azterketan (sistema gisa, testuinguru baten barruan) inplikaturako jakintza guztiak biltzen ditu, eta hizkuntzaren ulermenaren eta erabilera aktiboaren inguruan antolatzen ditu. Azkenik, laugarren multzoak —Legatua eta ondarea— zibilizazio latindarraren herentzia material eta immaterialera hurbiltzea ahalbidetzen du, inspirazio-iturri, teknika eta historiaren testigantza gisa duen balioa ezagutuz eta balioetsiz.

Ikasleek zeregin aktiboa beteko dute latinari lotutako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eskuratzeko prozesuan, eta, horretarako, hainbat komunikazio-trebetasun lortuko dituzte pixkanaka eta gidatuta, hainbat esparrutan eta ingurune analogiko eta digitaletan. Horretarako, ikasgelan ozenki irakurtzeak, entzunezko ulermenak, idazlanak eta ahozko produkzioak maiztasun-lexikoa eta latinaren oinarrizko egitura morfosintaktikoak barnertzea errazten dute, testuak eta enunziatuak ulertu eta interpretatu ahal izateko.

Ikasteko egoeren bidezko lanak, gainera, latina beste jakintzagai batzuekin lotzeko aukera ematen du, etapako helburuak lortzeko eta konpetentziak garatzeko. Ikuspegi eleaniztunak eskaintzen dituen hizkuntza-arloko jakintzagaiekiko loturekin batera, latinaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko zeregina diziplinarteko proiektuen bidez planifikatzea gomendatzen da. Azkenik, Europako herritartasun demokratiko eta aurreiritzirik gabeko baten eraikuntza bultzatzeko, jakintzagai honen barruan nazioz gaindiko kolaborazio-lana egin daiteke Europako programen esparruan, kultura latindarra Europako egungo identitatea osatzen duten errealitate guztien topagune gisa landuz. Ildo horretan, tresna digitalen ahalmena bete-betean balia liteke jakintzagai hau ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua sustatzeko ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zibilizazio latindarrak Europako identitatearen jatorrian bete duen zeregina baloratzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak konparatuz eta ezagutuz, oraina kritikoki aztertzeko.

Zibilizazio latindarrak Europako identitatearen hasiera gisa bete duen zeregina baloratzeko, beharrezkoa da latinezko iturrien bidez adierazitako informazioa jasotzea, informazio hori kontrastatu eta aztertzea, eta zibilizazio latindarraren alderdi linguistiko, historiko, politiko, kultural, zientifiko, matematiko, artistiko edo sozialek gure gizartean iraun izanari buruzko gogoeta egin ahal izateko estrategia egokiak abiaraztea. Beraz, kultura latindarra ulertu behar da, eta antzinako bizimoduaren eta pentsamenduaren berezitasunari buruzko gogoeta egitea eta berezitasun hori berrikustea ahalbidetzen duten funtsezko elementuak ezagutu behar dira, baita egungo bizimoduekiko eta pentsamenduarekiko hurbiltasuna ere, hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak alderatzeko, latinezko sorkuntzak eta ondorengo sorkuntzen tradizio klasikoa aurrez aurre jarritz.

Orainaren analisi kritikoa egiteko, informazio kotestuala eta testuingurukoa behar da. Informazio horrek balorazio-hipotesiei elementuak eta argudioak gaineratzea ahalbidetu behar du, kultura-konstanteetara zein kultura-aldagaietara irekita egongo den kontzientzia humanista eta berdintasunezko bat garatzeko. Analisi horri ikuspuntu kritiko batekin ekiteko, erromatarren ondarean gizarte gisa hazten laguntzen digun zatia eta dagoeneko mundu modernoan lekurik ez duen zatia bereizteko gai izan beharra dago, eta gaitzespen-jarrera agertu behar da edozein diskriminazio mota erakusten duten alderdien aurrean. Analisi-prozesuetarako, Antzinaro klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten kultura-desberdintasunak errespetatuko dituzten gogoeta- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira hainbat esparru eta testuingurutan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE2, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1.

2. Latinaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, EAEko irakaskuntza-hizkuntzekin eta ikasleen errepertorio indibidualaren beste hizkuntza batzuekin alderatuz eta ezaugarri komunak, jatorrian dituzten desberdintasunak, egitura eta bilakaera historikoa baloratuz, hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasunaren erakusgarri gisa aintzat hartzeko.

Latinaren etimologiaren eta lexikoaren oinarrizko elementuak hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztun batetik sartzeak aukera emango die ikasleei ezagutzak eta estrategiak beren errepertorioko hizkuntzetatik latinera transferitzeko, eta alderantziz. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza eta komunikaziorako konpetentzia hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak aktibatu ahal izango dituzte, eta ikasleen hizkuntza-ezagutzen mailak eta errepertorio indibidualak kontuan hartzea ahalbidetuko da. Latina hainbat hizkuntza modernoren jatorrizko hizkuntza izateak hainbat hizkuntza-aldaera eta hizkuntza-profil ezagutzea eta balioestea ahalbidetzen du, eta hizkuntza-, dialekto- eta kultura-aniztasuna identifikatzen, baloratzen eta errespetatzen laguntzen du, kultura partekatu bat eraikitzeko.

Aurreko guztiak EAEko irakaskuntza-hizkuntzen eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen funtzionamendua hobeto ulertzea sustatzen du. Horrek, alde batetik, ulermenezko irakurketa eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen du latinezko hiztegia eta gramatika-egiturak ezagutzearen bidez, eta, bestetik, trebetasun lexikoak eta semantikoak garatzen laguntzen du, jatorri greko-latindarreko lexiko arruntaren esanahia ondorioztatzeko estrategiak eskuratzearen eta lexiko jasoak, zientifikoa eta teknikoa osagai etimologikoetatik abiatuta ulertzearen bidez. Hizkuntzak alderatzeko, beharrezkoa da, halaber, latinetik hizkuntza erromantzeetarako bilakaera fonetikoaren oinarrizko arauak erabiltzea eta latinetik eratorritako hitzak (ondarezkoak zein kultismoak) eta latinezko esaerak hainbat hizkuntza-testuingurutan identifikatzea. Konpetentzia honek latinak atzerriko hizkuntza berriak ikasteko prozesuan duten baliagarritasunari buruzko gogoeta dakar; prozesu hori tresna digitaletan oinarrituta egin daiteke, hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, KE3, STEM1, EK3.

3. Latinezko testuak irakurtzea eta interpretatzea, testuetarako hurbilketa prozesu dinamiko gisa bere gain hartuz eta norberaren ezagutze eta esperientziez jabetuz, haien izaera klasikoa eta funtsezkoa identifikatzeko.

Hainbat genero eta garaitako latinezko testuak irakurtzea Latina jakintzagaiaren zutabeetako bat da 4. mailan. Testu horiek ulertu eta interpretatzeko, ikaskuntzaren emaitza izan behar duen testuinguru historiko, zibiko, sozial, linguistiko eta kultural bat behar da. Jatorrizko testuekin edizio elebidunean, itzulita edo egokituta, osorik edo hautatutako pasarteetan bitartez lan egiteak ezagutza linguistiko, lexiko eta kultural bat dakarten latinezko oinarritzko kontzeptu eta terminoetara arreta jartzea ahalbidetzen du, irakurketa kritiko bat egiteko eta latinak gizarte gisa dugun identitatearen eraikuntzan duen funtsezko balioaz jabetzeko. Hortaz, latinezko testuak interpretatzeko latinak mendebaldeko zibilizaziorako duen sorreraz-izaera ulertzea eta ezagutzea eta testuetarako hurbilketa prozesu dinamiko gisa bere gain hartzea dakar. Prozesu horretan, gaiari buruzko ezagutza ez ezik, azterketa kritikorako eta gogoetarako estrategien garapena ere hartzen da kontuan, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza izaera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko. Literatura- eta arte-sorkuntzak, Erromako historiaren aldiak, haren antolamendu politiko eta soziala eta Antzinaro klasikoko gertaera historikoak eta kondairazkoak ezagutzeak obrak ulergarriago egiten laguntzen du, eta, era horretan, gure kultura-ondarean duten iraupena eta erreferentziak antzinako ereduetatik hartu dituzten kulturetara eta literatura-, kultura- eta arte-mugimenduetara egokitzeko prozesuak identifikatzen eta baloratzen dira.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE1, KE2, STEM1, KPSII4, KAKK1, KAKK2.

4. Latinezko testuak ulertzea, latinezko enuntziatu sinple baten esanahia jakiteko estrategiak garatuz, gure zibilizazioaren oinarria den latinezko literatura klasikoaren altxorretara zuzenean, pixkanaka eta gidatuta hurbiltzeko.

Latina jakintzagaiaren latinaren oinarritzko elementuak ezagutzen hastea lehen urratsa da estrategia eta lan-metodo egokiak ezartzeko (Batxilergoan latinaren eta grekoaren ikasketetan jarraituko dutenak). Abiapuntu hori euskarri analogiko eta digitaletan emandako maila egokiko eta zailtasun progresiboko pasarteak edo testuak ulertzean datza, honako hauek oinarri hartuta: oinarritzko maiztasun-lexikoaren barneratzea, latinaren elementu morfologiko eta sintaktikoen identifikazioa, lotura eta azterketa, komunikazio-trebetasunen eskuratzea eta Erromako historiako aldirik esanguratsuenek gaiari eta testuinguruari buruz eskaintzen dituzten aurretiazko ezagutzak. Hezkuntzaren maila horretan, latina ulertzeaz gain, perpaus sinpleen idatzizko eta ahozko ekoizpena hasten da, latinaren berezko egiturak erabiliz. Horren bidez, ikasleek beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzen dute eta hizkuntzak ikasteko prozesuei buruzko gogoeta kritikoa egiten dute.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KE3, STEM1, KPSII4, KPSII5, KD2.

5. Erromatarren garaiko ondare kulturala, zientifiko-teknologikoa, arkeologikoa eta artistikoa aurkitzea, ezagutzea eta baloratzea, giza sorkuntzaren produktu eta historiaren testigantza gisa aintzat hartuz eta aitortuz, inspirazio-iturriak identifikatzeko, eraiki, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak bereizteko eta haien iraunkortasuna bermatzeko.

Erromatarren garaiko ondare kultural, zientifiko-teknologiko, arkeologiko eta artistiko materiala eta im-materiala gure herrialdeak ez ezik gure ingurune herrialdeek ere jaso dute, eta zibilizazio latindarraren zuzeneko herentziaz hartzen da hemen. Herentzia materiala ezagutzeko, beharrezkoa da ondarea zuzenean eta zeharka behatzea eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak barne. Ondare materialaren garrantziaz jabetzeko, eraikuntza-prozedurak —ondare arkeologikoaren kasuan— eta konposizio-prozedurak —idazketa-euskarrien kasuan— ezagutu eta ulertu behar dira. Gainera, zaintzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuak bereizi behar dira, bereziki ingurunearekin eta legatu propioarekin konprometitutako herritar aktiboaren parte-hartzea behar duten alderdiak kontuan hartuta, UNESCOren munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko Konbentzioari jarraituz. Bestalde, zibilizazio klasiko latindarraren herentzia immateriala ezagutzeak (erakundeetan erabiltzen den oratoria, zeremonia pribatuak, aisia-ikuskizunak eta abar) gure egungo gizartearen eta kulturaren funtsezko alderdi batzuk ulertzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE3, STEM1, KD1, KD2, KD3, HK1, HK4, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Latina
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Egungo kultura-produktuen esanahia deskribatzea Europako kultura-garapenen testuinguruan, Antzinaro latindarrarekiko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatuz.
1.2. Erromako gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak kritikoki baloratzea gure gizarteetakoekin alderatuta, hainbat euskarritan emandako latinezko iturrien edukitik abiatuz.
1.3. Erromako historiako aldiak, gertaerak eta pertsonaiak eta erromatarren zibilizazioaren alderdiak beren testuinguru historikoan identifikatzea, emakumeen ekarpena kontuan hartuz, datuak egungo erreferentziekin lotuz eta eskuratutako ezagutzak aplikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Latina jatorri duen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna kritikoki baloratzea eta hartara egokitzea, inguruko hizkuntza-elementuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta azalduz, norberaren kulturakoekin lotuz eta kultura partekatuta bat eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun bat garatuz.
2.2. Latinezko terminoen esanahiak ondorioztatzea, erreperitorio indibidualerako beste hizkuntza batzuen ezagutza lexikoak eta fonetikoak aplikatuz.
2.3. Lexikoa zabaltzea eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea, latinismoak eta latindar jatorriko lokuzioak modu koherentean txertatuz.
2.4. Eguneroko terminoen, termino zientifikoaren eta teknikoaren definizio etimologikoak ekoiztea, hainbat hizkuntza-testuingurutan latinezko elementuak ezagutzuz eta, bidezkoa izanez gero, ondare-termino baten eta kultismo baten arteko lotura semantikoa ezarriz.
2.5. Hizkuntza erromantzeak sortzeko prozesuak aztertzea, latinetik gaztelaniarako bilakaeraren oinarrizko arauak erabiliz, lexiko arruntaren inferentzia-estrategiak baliatuz eta bilakaera horren ondoriozko hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasun gisa baloratuz.
2.6. Latinaren eta euskararen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, latinak euskararen lexikoan eta bilakaeran duen eragina identifikatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Zibilizazio latindarraren literatura- eta arte-adierazpenen izaera klasikoa eta humanista ahoz, idatziz edo era multimedialan azaltzea, hiztegi zuzena eta adierazpen egokia erabiliz.
3.2. Testu baten zentzu orokorra, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, testuinguruan kokatuz, bertan agertzen diren erreferentzia historikoak, sozialak, politikoak edo erlijiozkoak identifikatuz eta aztertutako pertsonaia eta gertaera historikoei buruzko ezagutzak baliatuz.
3.3. Zailtasun egokia duten latinezko testuen edukia kritikoki interpretatzea, zer testuingurutan sortu ziren kontuan hartuz, norberaren esperientziarekin lotuz eta gure gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak ulertzen nola laguntzen duten baloratuz.
3.4. Latinezko literaturak literatura- eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) utzi duen aztarna ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, latindar jatorriko gaiak, topikoak eta argudioak identifikatuz eta haien tratamendua kritikoki aztertuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Latinezko enuntziatu eta testu laburrak eta sinpleak ozenki irakurtzea eta ekoiztea, latinezko oinarrizko ahoskera- eta azentuazio-arauak aplikatuz.
4.2. Latinaren oinarrizko alderdi morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak aztertzea, familia-hizkuntzarenekin eta EAEko irakaskuntza-hizkuntzenekin identifikatuz eta alderatuz.
4.3. Testu laburrak eta sinpleak euskarri analogikoan eta digitaletan ulertu eta interpretatzea, oinarrizko maiztasun-lexiko bat eskuratuz.
4.4. Perpaus sinpleak idatziz eta ahoz ekoiztea, latinaren berezko egiturak erabiliz.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Ebaluazio-irizpideak. Latina
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Zibilizazio latindarraren elementuak azaltzea, batez ere mitologia klasikoari lotutakoak, literatura- eta arte-adierazpenen inspirazio-iturri gisa identifikatuz.
5.2. Erromanizazioak EAEko eta inguruko ondare kultural eta arkeologikoan utzi dituen aztarnak ezagutzea, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak ingurumen-iraunkortasunarekin eta legatuaren zaintzarekin konprometitutako heritartasunaren funtsezko alderdi gisa identifikatuz.
5.3. Erromatarren zibilizazioaren legatu material eta immaterialaren eta haren egungo iraupenaren ikerketa indibidual edo kolektibotik abiatuta lortutako ondorioak ahoz, idatziz edo era multimodalean azaltzea, euskarri analogiko eta digitalen bidez, informazioa hautatuz, egiaztatuz eta baliotasun-, kalitate- eta fidagarritasun-irizpideekin modu sortzailean antolatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Latina
A. Zibilizazio latindarraren oraina.
Europaren eta bertako kulturaren egungo nozioan agertzen diren zibilizazio latindarraren alderdi geografikoak, historikoak, kulturalak, politikoak eta linguistikoak.*
Eskuratutako ezagutzetatik abiatuta iragana eta oraina lotzeko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak.
Latinezko literaturaren funtsezko obrak beren testuinguruan, eta tradizio klasikoan izan duten iraupena.*
Latinezko literaturan eta kulturaren sexismoa identifikatzeko jarraibideak.
Latinezko literaturaren gaiak, topikoak eta argudioak identifikatzeko jarraibideak, eta haien eta literatura- eta arte-obren arteko lotura.*
Zibilizazio latindarrak gizarte gisa dugun identitatearen konfigurazioan, ezagutzan eta analisi kritikoan duen garrantzia.*
Eskuratutako ezagutzetatik eta norberaren esperientziatik abiatuta latinezko testuak ulertu, iruzkindu eta interpretatzeko estrategiak.*
Latinaren lexikoa: zibilizazio latindarraren funtsezko kontzeptuek orain arte izan duten bilakaera (civis, civitas, populus, sacer, homo, imperium, ius, iustitia, lex, pax...).*
Latinezko testu klasikoek giza izaera osatzen duten alderdien testigantza gisa duten garrantzia.*
Humanismoak giza askatasunaren eta giza duintasunaren aldarrikapenean bete duen zeregina eta egungo gizartean duen agerpena, erreferentziazko latindar egileak abiapuntutzat hartuta (Zizeron, Sulpicia, Virgilio, Horazio, Cornificia, Seneka, eta abar).*
Europako identitatea herritartasun aktiboko jarreraren eta proiektuetan kooperazioan parte hartzearen bidez sendotzeko estrategiak, ingurune analogiko eta digitaletan, herentzia klasiko komunetik abiatuta.*
Informazioa bilatu, hautatu, ekoiztu, partekatu eta aurkezteko eta produktuak kooperazioan eta era sortzailean lantzeko tresna eta/edo plataforma digitalak.*
Testuinguru analogiko eta digitaletan egin beharreko talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko kooperazio-estrategiak.*
Portaera orokorreko arauak internet bidezko zuzeneko eta zeharkako interakzioan: netiketa.*
B. Latina eta eleaniztasuna.
Latinaren alfabetoa eta ahoskera, eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibidualeko hizkuntzetan duen iraupena eta eragina.*
Aldaketa fonetikorik ohikoenen azalpena, latin kultutik eta latin arruntetik abiatuta.*
Euskal Herria eta hizkuntza erromantzeak.*
Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren funtsezko arauak identifikatzeko eta ondare-terminoak eta kultismoak ezagutzeko estrategiak.*
Latinaren eta euskararen arteko hizkuntza-antzekotasunak ezagutzeko jarraibideak: deklinabidea.*
Latinak euskararen bilakaeran duen eragina identifikatzeko estrategiak.*

Oinarrizko jakintzak. Latina
Irakaskuntza-hizkuntzetan idatzitako testuetan hitzak latindar jatorriko lexemekin, atzizkiekin eta aurrizkiekin identifikatzeko jarraibideak.*
Latinezko hitz-elkarketako eta eratorpeneko prozedurak hitz-familiak lantzean.*
Hitzen esanahi etimologikoaren hastapenak.*
Lexiko espezializatuan eta agertu berriaren esanahiak ondorioztatzeko oinarrizko estrategiak, latinezko formanteen identifikaziotik abiatuta.*
Latinismorik eta latinezko lokuziorik ohikoenak.*
Norberaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan erro komuneko lexikoa ezagutzeko, antolatze eta idatzizko edo ahozko ekoizpenean edo multimodalean txertatzeko teknikak.*
Hizkuntzen arteko konparazioa, jatorrian eta ahaidetasunetan oinarrituta.*
Latinak norberaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan idatzizko adierazpena, ahozkoa eta multimodala hobetzeko tresna gisa duen garrantzia.
Latina ikasteko eta latinak beste hizkuntza batzuk ikasteko lotura eta bultzada gisa betetzen duen zereginari buruzko go-goeta egiteko tresna analogikoak eta digitalak.
C. Latinezko testua.
Latinezko enuntziatu eta testu bat irakurtzeko eta ekoizteko oinarrizko ahoskera- eta azentuzio-estategiak.*
Oinarrizko hitz eta kategoria gramatikal motak (substantiboak, adjektiboak eta aditzak), gramatika-elementuak eta funtzioak.*
Kasuak eta haien balio sintaktiko nagusiak.*
Izen-flexioa (substantiboen eta adjektiboen deklinabidea), flexio pronominala eta aditz-flexioa (aditz erregularren jokaera boz aktiboan eta pasiboan).*
Oinarrizko egitura sintaktikoak (subjektua, predikatua, aditzaren osagarriak).*
Oinarrizko perpaus-egiturak (perpaus bakuna: motak; perpaus elkartua: koordinazioa). Komuntadura eta hitzen ordena.*
Latinaren oinarrizko maiztasun-hiztegia.*
Testu simple egokitu edo jatorrizko bat edozein euskarri motatan ulertzeko eta interpretatzeko baliabide lexikoak eta gramatikak.*
Norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia) identifikatzeko, aztertze eta ulertzeko oinarrizko estrategiak.*
D. Legatua eta ondarea.
Kultura eta zibilizazio latindarraren legatu materialaren (leku arkeologikoak, inskripzioak, monumentu- eta arte-erakuntzak eta abar) eta immaterialaren (mitologia klasikoa, erakunde politikoak, oratoria, zuzenbidea, errituak eta ospakizunak eta abar) iraupena.*
Kultura latindarraren alderdi (hetero)patriarkalak.
Testu-transmisioa eta idazketa-euskarriak.
Erromatarren kultura-ondarearen eta erromanizazio-prozesuaren ezaugarriak.*
Erromanizazioa Euskal Herrian (erromatarren aurreko herriak, leku eta aztarna arkeologikoak, galtzadak, zubiak, miliarioak eta toponimia).*
Inguruko ondare arkeologikoa kontserbatu, zaindu eta zabaltzeko prozesuetan parte hartzeko interesa eta ekimena.*
Ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermen, produkzio eta koprodukzio formal zein sortzailerako tresna analogikoak eta digitalak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektuala eta egiletza-eskubideak arautzen dituzten lizentziekiko errespetua.
Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autozuzenketarako estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.

OSASUN FISIKOA ETA EMOZIONALA

Jakintzagai hau praktikoa eta parte-hartzean oinarritutakoa da funtsean, eta lagungarria da ongizatea lortzeko eta bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzeko. Haren bidez, Heziketa Fisikoaren arloan landutako alderdiak sakondu nahi dira, eta mugimenduaren beharrari erantzuteko eta ongizate fisikoa, emozionala eta soziala indartzeko konpromiso motorrerako denbora gehiago eskaini nahi zaie ikasleei. Akzio motorraren bidez, aisia-, jolas- eta katarsi-iturri den praktika fisikoaren inguruko esperientzia arrakastatsuak eta gozatzekoak bilatzen dira, giza harremanen eta akzio sortzailearen testuinguruan.

Kooperazioa lantzen da, talde-kohesioa eta bizikidetzeta positiboa bultzatzeko. Aldi berean, jakintzagaiak aukera ematen du lehiaketa sana, errespetuzkoa eta jardunbide finkatuen, alternatiboan edo berrien bidez autoerregulazio emozionala ere lantzeko. Halaber, dibertsitate funtzionala duten pertsonen premietara egokituta dauden eta/edo pertsona horien berezkoak diren kirol-modalitateak eta jokoak lantzen ditu, gure gizarteko kolektibo garrantzitsu bati ikusgarritasuna emateko.

Halaber, inguruneak aisialdian jarduera fisiko osasungarria egiteko eskaintzen dizkigun aukerak aztertzen ditu. Bizikidetzeta-joko propioen eta beste kultura batzuetakoen eta gorputz-adierazpeneko jardueren bidez, kultura motor bat eskuratzeko eta motrizitate mota berriak sortzeko aukeran sakontzen du.

Jakintzagairako funtsezko erreferentziak Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleen irteera-profilean ezarritako konpetentziak eta etaparen helburu orokorrak dira. Era horretan, jakintzagaiaren konpetentzia espezifikokoak zehazteko jarduketa-esparrua zehazten da. Konpetentzia espezifikoko horietako bakoitza deskriptoreen bitartez dago lotuta funtsezko konpetentziekin. Horrela, beraz, konpetentzia espezifikoen garapenaren bidez, irteera-profilean ezarritako funtsezko konpetentziak garatzen laguntzen da.

Osasun fisikoa eta emozionala jakintzagaiaren bidez, funtsezko konpetentzia gehienak garatzen laguntzen da. Izan ere, ikaskuntza kudeatzen, enpatizatzen eta kolaborazioan jarduten, jarduera fisikoaren bitartez ongizatea bilatzen eta hazteko pentsamoldetik abiatuta jokabidea autoerregulatzen ikasiko da. Halaber, beste pertsona batzuekin harreman positiboak ezartzen (sor daitezkeen gatazkak kudeatuz eta hizkuntza elkarren artean ulertzeko eta bizikidetzarako erabiliz), ingurunearekin harreman iraunkorrak ezartzen, kultura-identitatea sendotzen eta ondare ludomotor handia ezagutzen ikasiko da.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikokoek, alde batetik, bizi-estilo aktibo eta osasungarri baten sendotzea sustatzen duten konpetentzia motorrak biltzen dituzte, eta, bestetik, emozioen kudeaketari eta ikaskuntza erraztuko duen giro positibo bat sortzeko harreman egokiak izateko gaitasunari lotutako alderdiak.

Konpetentzia espezifikoko berri horiek lortzeko, Osasun fisikoa eta emozionala jakintzagaiaren curriculum a oinarrizko jakintzen hiru multzotan antolatuta dago. Jakintza horiek hainbat testuingurutan garatu beharko dira, izaera inklusiboko askotariko ikas-egoerak sortzeko asmoz. Irakasleek erabakiko dute nola uztartu jakintza horiek.

Azkenik, Osasun fisikoa eta emozionala jakintzagaiaren ebaluazioak etengabea, hezigarria eta partekatua izan beharko du, eta ikasleek parte hartzearen bidez haien ikaskuntza hobetzera bideratuta egongo da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Askotariko barne- eta kanpo-logikadun egoera motorretan jardutea, ezagutza motorra zabalduz, norberaren esku-hartzea baloratuz eta egokituz eta bizitza aktibo eta osasungarri baten ezaugarriak ezagutuz, ikasleen mugimendu-premiari erantzuteko eta haien osasun fisikoa hobetzeko.

Akzio motorretik abiatuta lan egiteak aukera emango digu jokabide motorraren dimentsio guztiak (biologikoa, kognitiboa, soziala, afektiboa, adierazpen-izaerakoa eta erabaki-izaerakoa) garatzeko.

Egoera psikomotor eta soziomotorren bidez sortuko diren esperientziak eta ikaskuntzak honako hauek izango dituzte ardatz: energia-iturriak dosifikatzea, norberaren gorputza ezagutzea, erabakiak hartzea,

gainerakoen gorputz-zeinuak deskodetzea, aurkaria gainditzeko estrategikoki jardutea, jokabide motor solidarioak sortzea eta abar. Eta gorputz-adierazpeneko jardueren bidez, egoera artistiko-espresiboetan era motorrean adierazteko gaitasuna ere garatuko dugu, eta ohiko motrizitatea motrizitate sinboliko eta espresibo bihurtuko dugu.

Egoera horiek guztiak aberastu ahal izango dira, kontuan hartuta unibertso ludomotorra kirol-jokoen lau multzo handitan antolatuta dagoela: arauekin edo gabe, lehiaketa eta instituzionalizazioa.

Konpetentzia honen bidez, ikasleen mugimendu-premia bete, bizitza aktiboa eta osasungarria sustatu eta gure ikasleen ezagutza motorra zabaldu ahal izango dugu. Gainera, ikasleak konpromiso motorreko une gehiagotan jartzeak garun-aktibazioaren maila handitzea ahalbidetuko du, eta, era horretan, ikas-kuntzen eraginkortasuna hobetuko da eta emaitza positiboak lortuko dira beste jakintzagai batzuetan.

Ikasleak gai sentituko diren eta aurrera egiten ari direla eta,aldi berean, jarduera fisikoaz gozatzen dutela sentituko duten arrakasta-esperientziak eskaintzea gure aliaturik onena izango da egoneko bizitzaren eta obesitatearen aurka, eta eguneroko errutinan ohitura osasungarriak hartzea erraztuko du.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

2. Jardun motorrean emozioak kudeatzea, autonomia progresiboarekin eta kontzientzia eta erregulazio emozionala lantzearen bidez, jarduera fisikoez gozatzeko eta ongizate pertsonala lortzen eta estresa murrizten laguntzeko.

Egoera motor guztietan, ezinbestekoa da emozioak eta sentimenduak behar bezala identifikatu eta kudeatzea. Konpetentzia honek gure ikasleen dimentsio afektiboa lantzeko aukera eskaintzen digu, gainerakoekin elkarreaginez eta ziurgabetasuna eragin dezakeen eta karga emozional handia ekar dezakeen ingurune batean.

Konpetentzia emozionalean sakontzeko, faktore abiarazleak, akzioak eta haiek eragiten dituzten ondorioak landu beharko ditugu. Emozioen ezagutzari eta kontzientziari esker, ikasleen ongizatea era positiboan lortzen lagunduko duen eta bizitzaren beste eremu batzuetara transferitu ahal izango den kudeaketa emozional eraginkor baterako oinarriak ezarri ahal izango ditugu.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE1, STEM5, KPSII1 eta KPSII2.

3. Egoera sozomotorren bidez beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna garatzea, taldearen giro positiboa sustatuz, jarduera fisikoaz gozatzeko eta gizarte-osasuna lortzen eta estresa murrizten laguntzeko.

Egoera sozomotorren bidez gizarte-dimentsioa lantzeak aukera ugari ematen ditu ikasleen arteko harremanak lantzeko eta konplizitateen, babesen eta kooperazioaren balioa agerian jartzeko. Gainera, jardun motorrak aproposak dira gatazkei aurrea hartzeko eta gatazken kudeaketa dialogikoa lantzeko. Izan ere, hitz egin, ideiak edo emozioak adierazi, aktiboki entzun, eztabaidatu eta egoerak era baketsuan konpontzeko ados jarri beharreko egoeretan jarriko ditugu ikasleak.

Taldekoa izatea eta onartua izatea oso garrantzitsua den etapa honetan, funtsezkoa da beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna garatzea. Ikasleen hurbileko testuinguru ludikoetan lan egiteak aukera ematen du oinarrizko gizarte-trebetasunak, komunikazio eraginkorrerako gaitasuna, errespetua eta ongizaterako beharrezkoak diren jarrera prosozialak eta asertibitatea probatzeko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM5, KPSII2, HK2 eta HK3.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen eta bigarren mailak	Hirugarren maila
1. kompetentzia espezifikoa	
1.1. Hainbat proposamen ludomotor eta artistiko-espresibo antolatzea inguruneak eskaintzen dituen motibazioetan eta aukera pertsonaletan oinarrituta, proposamen horietan aktiboki parte hartuz.	1.1. Proposamen ludomotor eta artistiko-espresibo berriak sortzea joko eta kirol sorta handi batekin esperimintatzearen bidez, haien barne- eta kanpo-logika aztertuz.
1.2. Proposamen ludomotor berriak edo alternatiboak ezagutzeko praktikaren eta haien barne- eta kanpo-logikaren azterketaren bidez, haiekiko interesa eta errespetua agertuz.	1.2. Jarduera artistiko-espresiboetan eta kirol-joko tradizional eta/edo egokitueta aktiboki parte hartzea, prozesua eta lortutako azken emaitza azalduz eta norberaren eta gainerakoen esperientziak baloratuz.
1.3. Joko eta kirol tradizional eta egokitueta aktiboki parte hartzea, norberaren esku-hartzea baloratuz eta autonomia progresiboarekin egokituz eta, aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta, era kooperatiboan ikasiz.	1.3. Bizitza aktibo eta osasungarri baten ondorio positiboak baloratzea, askotariko testuinguru inklusiboetan jarduera fisikoki bizi baten onurak ezagutzuz, biziz eta gozatuz.
1.4. Proposamen artistiko-espresiboak era gidatua garatzea euskal tradizioaren eta beste kultura batzuen ezagutzaren bidez, norberaren gaitasunekiko konfiantza agertuz.	
1.5. Bizitza aktibo eta osasungarri baten ezaugarriak (fisiologikoak, emozionalak, dietetikoak eta abar) eta jardun motor biziaren ondorio positiboak ezagutzeko, haren onurak ezagutzuz, biziz eta gozatuz.	
2. kompetentzia espezifikoa	
2.1. Lehen eta bigarren mailako emozioak ezagutzeko, bizipen pertsonala baloratuz eta gainerakoen emozioak identifikatzen lagunduz.	2.1. Norberaren emozioak kontrolatzea, faktore abiarazleak, akzioak eta eragiten dituzten ondorioak aztertuz eta erregulazio emozionaleko hainbat teknika aplikatuz.
2.2. Erregulazio emozionaleko hainbat teknika praktikan jartzea, emozioez jabetuz.	
3. kompetentzia espezifikoa	
3.1. Jarduera fisikoa ongizate pertsonalaren eta harreman-ongizatearen iturri gisa aztertzea, jardun motorrez gozatuz eta jardun horiek estresa murrizteko estrategiatzat hartuz.	3.1. Jarduera fisikoa ongizate pertsonalaren eta harreman-ongizatearen iturri gisa baloratzea, jardun motorrez gozatuz eta estresa murrizteko aplikatuz.
3.2. Giro positiboa sortzen laguntzea, portaera prosoziala eta kooperazio-portaera agertuz eta komunikazio espresiboa eta harkorra praktikan jarri.	3.2. Klima positiboa sortzen eta gatazken kudeaketa dialogikoa egiten laguntzea, errespetua agertuz, desberdintasunak onartuz eta gizarte-trebetasunak erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Osasun fisikoa eta emozionala
A multzoak. Jokoak eta kirolak.
Joko eta kirol indibidual edo kolektiboen berezko akzioei eta kirol-keinuei lotutako trebetasun motorrak.
Joko eta kirol indibidual edo kolektiboen berezko oinarrizko estrategiak.
Euskal tradizio ludikoa: "jokoa" eta "jolasa".
Beste kultura batzuetako tradizio ludikoa: kultura-aniztasunaren balioa.
Jolasak eta dantzak sortzeko prozesuak.
Kirol alternatiboak eta kirol egokitua.

Oinarrizko jakintzak. Osasun fisikoa eta emozionala	
Barneko eta kanpoko logika aztertzeke elementuak.	
Egindako jarduketak aztertzeke prozedurak.	
B multzoak. Gorputz-adierazpena.	
Mugimendua nahiak eta sentimenduak, gogo-aldarteak eta emozioak jakinarazi eta adierazteko baliabide eta eguneroko egoera eta ekintzen adierazpen gisa.	
Gorputza, komunikazio eta adierazpen kreatiborako tresna: gorputzaren eta haren aukerak (keinu, jarrera, zentzumen, adierazpen eta mugimendukoak) ezagutu eta menderatzeko estrategiak.	
Hainbat erritmo zein gune eta objektuen erabilera konbinatuko dituzten adierazpen dramatiko eta gorputz-adierazpeneko jokoak eta jarduerak.	
Konfiantza- eta integrazio-dinamikak.	
Euskal dantzak eta beste kultura batzuetako dantza tradizionalak.	
Inprobisazio eta sorkuntza kolektiboak eta indibidualak bat-bateko komunikazio-baliabide gisa.	
C multzoak. Ongizate fisikoa, emozionala eta soziala.	
<i>Ongizate fisikoa</i>	<p>Oinarrizko ezaugarri fisikoak eta egoera fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura.</p> <p>Egoera fisikoa eta osasunarekin duen lotura (dimentsio guztietan).</p> <p>Ariketa fisikoak pertsonaren osasunean eta garapen integralean dituen ondorio positiboak.</p> <p>Ohitura jakin batzuek (hala nola egoneko bizitzak), nutrizio-desorekek eta hidratazio desegokiak osasunean dituzten ondorioak.</p> <p>Jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan aritzean gertatzen diren lesiorik ohikoenetan egin beharreko oinarrizko jarduketak.</p> <p>Nutrizioa eta jarduera fisikoa: osasunerako nutrizio orekatua.</p>
<i>Ongizate emozionala</i>	<p>Lehen eta bigarren mailako emozioak.</p> <p>Emozioen faktore abiarazleak, akzioak eta ondorioak.</p> <p>Jarduera fisikoa, gozamen- eta katarsi-iturri.</p> <p>Kudeaketa emozionala eta jarduera fisikoarekin eta osasunarekin duen lotura.</p> <p>Egoera emozionala aztertzeke prozesuak: mood meter...</p> <p>Erregulazio emozionalerako estrategiak.</p> <p>Autokontrola, tolerantzia eta kiroltasuna, emaitzak lortzeko zutabe.</p> <p>Arnasketa eta erlaxazioa, eta osasun integralarekin eta emozioen erregulazioarekin duten lotura.</p>
<i>Gizarte-ongizatea</i>	<p>Enpatia, laguntzeko eta kolaborazioan jarduteko prestasuna eta pertsona bakoitzaren muga eta premiekiko errespetua.</p> <p>Kolaborazioa eta kooperazioa taldeko ikaskuntza-zereginetan.</p> <p>Gatazken eta gizarte-trebetasunen kudeatzeko estrategiak.</p> <p>Higieneari, instalazioei eta materialei buruzko araudia.</p> <p>Generoari lotutako estereotipoekiko jarrera kritikoa.</p> <p>Inguruneak jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dizkigun aukerak: udal-eskaintza, ingurune naturala, kirol-klubak, gimnasioak eta abar.</p> <p>Konpetentzia motorraren maila guztiekiko eta aniztasunaren balioarekiko errespetua.</p>

PENTSAMENDU AUTONOMOAREN ETA KRITIKOAREN GARAPENA

Pentsamendu autonomoaren eta kritikoaren garapena jakintzagaiak, Derrigorrezko Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailetako aukerako gisa, helburu estrategikotzat du behar diren abileziak finkatzea etengabe aldatzen ari den mundu konplexu baten aurrean ikasleen pentsamendu-autonomia lortzeko. Jakintzagai hau pentsamendu autonomoa eta kritikoa jorratzeko lanean txertatzen da. Lan hori hezkuntza-ibilbide osoan zehar planteatu da: *Balio etiko-zibikoak* (Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehen mailan, eta DBHko laugarren mailan eta batxilergoan, filosofia ardatz duten jakintzagaietan). Nahiz eta horietako batzuk bakarrik diren nahitaezkoak, DBHko maila guztietan dago horiek egiteko aukera, planteamendu koherente eta kohesionatua ahalbidetuz. Elkarrizketarako, zalantzan jartzeko eta gutxieneko gogoetarako jarrera sendotu nahi da ikasleengan, gizabanako gisa eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Ikasleek, etapa ebolutibo honetan, inguruan duten mundua interpretatzen eta bertan duten lekua aurkitzen lagunduko dieten kompetentziak garatu behar dituzte. Gainera, heziketa filosofikoa ezinbestekoa da gizarte demokratiko bat printzipio, balio eta praktika etiko, politiko eta zibikoen inguruan egituratzeko. Izan ere, gizarte demokratikoaren zilegitasunerako eta eraginkortasunerako, beharrezkoak dira herritarren deliberazio dialogikoa, konbikzio arrazionala eta iritzi-autonomia. Azkenik, horrek berekin dakar, halaber, pertsona ororen garapen integralerako behar diren arrazoiari eta emozioei buruz gogoeta kritikoa egitea.

Jakintzagai honek funtsezko kompetentziak modu integratuan garatzeko esparru egokia eskaintzen du. Ildo horretatik, arazo unibertsal eta funtsezkoen inguruan ikertzea —horiek ikasleen hurbileko inguru-nearekin eta egungo gizarte-arazoekin lotuta, baita egungo arazo sozialekin ere— baliagarria da haien heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko eta haien dimentsio intelektuala nahiz nortasun pertsonalarekin eta gizarte-bizitzarekin lotutako beste alderdi batzuk garatzeko. Funtsezko kompetentzia guztiek, kompetentzia horren mamiari kritikoki heltzen dion deskriptoreen bat du. Hortaz, jakintzagai honek koherentzia ematen dio kompetentzia horiek guztiak lortzeari. Funtsezko kompetentzia guztiak lantzen badira ere, berriaz eta sakon jorratzen dira honako hauek: Herritartasunerako kompetentzia eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Arlo honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako gainerako arloekin duen loturari dagokionez, Pentsamendu Autonomoaren eta Kritikoaren Garapena jakintzagaia hainbat jakintzaren arteko lotura naturala da, DBHko jakintzagai ezberdinekin (zientzia, historia, artea, etab.) zerikusia duten gaiak jorratzen baitira. Bizitzako, gizarteko eta filosofiako gai nagusietara interkonektiboa den gogoeta eginez hurbiltzeak erraztu egiten ditu ikaskuntza-prozesu esanguratsuak eta diziplinarteko ikuskera. Arlo honetan jorratzen den gaitasun kritikoa, kontzeptuala eta dialogikoa garatzea funtsezkoa da abstrakzio-gaitasuna, zalantzan jartzeko gaitasuna eta elkarrizketan parte hartzeko trebetasuna garatzeko, horiek guztiak funtsezkoak baitira ikasteko prozesuaren oinarri diren arlo guztietan. Gainera, herritartasun aktiboa bultzatzen du eta garapen iraunkorreko helburuak gara daitezen sustatzen du, helburu horietan jasotako balioen artean dagoelarik, besteak beste, etengabeko ikaskuntza. Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea, proposamenaren beraren izaera dialogikoa dela-eta, hizkuntza-kompetentzien garapenari ematen dion bultzada.

Pentsamendu Autonomoaren eta Kritikoaren Garapena jakintzagaia lau kompetentzia espezifikoren bidez garatzen da. Kompetentzia horiek Lehen Hezkuntzan landutakoarekiko jarraitutasun bat dakarte, baina baita sakontze- eta garapen-maila handiagoa ere. Horri gehitu behar zaio ikasleen inguruko gatazka pertsonal eta sozialei modu esplizituan gogoeta bidez planteatzen den hurbilketa.

- Lehen kompetentzia espezifikoa pentsamendu konplexu eta kontzientea garatzean zentratzen da, abstrakziorako, arazoibiderako eta ideiak harremanetan jartzeko gaitasunen funtsa indartzen saiatuz. Izan ere, gaitasun horiek beharrezkoak dira gogoeta bidezko edozein pentsamendu-prozesutarako.
- Bigarren kompetentzia argudiozko elkarrizketaren praktikari buruzkoa da, jardun filosofikoaren oinarrian dagoen ezagutza-prozesu kooperatibo gisa hartuta. Horrek, aldi berean, ideia eta teoria filosofikoen izaera plurala eta ez-dogmatikoa ezagutzea eskatzen du, baita ezagutza hori zeregin bikoitzean (kritikoa eta eraikitzailean) inplementatzea ere: ideia eta teoria horiek kontrastatzea eta horien arteko aurkakotasuna edo osagarritasuna aurkitzea.

- Hirugarren kompetentzia ikasleen errealitatera hurbiltzen da eta, aldi berean, gai sozialak eta gai filosofiko nagusiak jorratzen ditu. Kompetentzia honen helburua da ikasleek, dauden etapatik, egokitzen zaizkien gatazka pertsonal, sozial eta politikoen inguruan gogoeta egitea. Aldi berean, ahal denean, gatazka horiek filosofiaren historiako kontzeptu eta galdera unibertsalekin erlaziona ditza- ten bilatzen da.
- Laugarren eta azken kompetentzia zeharkakoena da, eta emozioen heziketari buruzkoa da. Hezkuntza emozionala lantzeaz arduratzen da, baina, kasu honetan, argudiozko elkarrizketetan parte hartzeko behar diren trebetasunekin lotuta, herritartasun demokratikoa, aktiboa, gogoetatsua eta kooperatiboa sustatzea helburu hartuta.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, dagoeneko azaldutako kompetentzia espezifiko bakoitzarekin zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostiko- eta hobekuntza-tresnatzat hartu behar dira, kompetentzia horiek eskuratuz gero espero den jardun-mailari dagokionez. Ildo horretatik, jakintzagaiaren programazioan kontuan hartu beharko da jarduera filosofikoak berez duen izaera dialogikoa, parte-hartzailea, diziplinar- tekoa, sortzailea eta garrantzizko arazoekin konprometitu. Hala, autonomia pertsonala eta herritarren jardun kritiko eta ekosozialki arduratsua lortzera bideratuko da programazioa.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan egituratzen dira, kompetentzia espezifikoaren planteamenduari erantzuteko. Jakintzetako batzuk jakintzagaiaren bi mailetan antzekoak dira. Izan ere, beharrezkoa da horiek maila desberdinetan lantzea, kontzeptuen arteko erlazio organikoak bilatuz, sakontzean aurrera egin eta ikasleen gogoetarako gaitasuna garatu ahala.

- *Bizikidetzan dauden elementuak*: taldeen dinamikak ulertzeko eta demokrazia sakonean barneratzeko kontzeptuak eta prozedurak uztartzen ditu. Horrekin batera, elkarrizketa filosofikoa, argudiozkoa eta demokratikoa ahalbidetzeko kontuan hartu behar diren elementu emozionalak biltzen ditu.
- *Nerabezaroan behin eta berriz agertzen diren gaiak*: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako ikasleen bilakaera-etapan agertzen diren zenbait gai gatazkatsu eta interesgune zerrendatzen ditu.
- *XXI. mendeko erronkak*: gure garaian tokiko nahiz globalak diren erronka handien aurrean kontzientzia hartzera eta gogoeta egitera bultzatzen ditu ikasleak, eta horien aurreko jarrera proaktiboan sakontzen du.
- *Pentsamendu filosofikoaren oinarriak*: filosofiaren adar nagusiek biltzen dituzten eztabaida handiak aurkezten ditu, eta ikasleak bultzatzen ditu eztabaida horien eta aurreko multzoetan planteatutakoen arteko loturak aurkitzera.

Azken hiru multzo horiek zenbait irizpideren arabera elkartutako gaien sorta bat eskaintzen dute. Gai horiek ikasleak behartzen dituzte beren errealitate sozial, politiko eta pertsonalaren interpretazioa egite- ra, hala nola filosofiaren eztabaida handietan sakontzera.

Oinarrizko jakintzetara jarduera gogoetatsu baten bidez hurbildu behar da beti. Horretarako, etengabe eta modu sistematizatuan erabili behar da elkarrizketa kooperatiboa, edo pentsamendu autonomoa eta kritikoa garatzen lagundu dezaketen beste tresna batzuk. Nabarmendu beharra dago, halaber, proposa- tutako oinarrizko jakintzen arteko etengabeko konexioaren alde egiten duen jakintzagai eta proposamen baten aurrean gaudela. Horregatik, irakasleek egin beharreko lan zaila baina oso garrantzitsua da jakin- tza horiekiko malgutasuna izatea eta horiek antolatzeko garaian kontuan izatea ikasleen interesak eta elkarrizketek hartzen duten norabidea.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-jardunean txertatuta egon daitezen, eta beharrezkoa denean eredu artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin lotuta, beharrezkoa balitz. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta gogoeta-pentsamendua garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Pentsamendu konplexua eta kontzientea garatzea, gogoeta autonomoa, kritikoa, arretatsua eta sortzailea sustatuko duen elkarrizketa kooperatiboan oinarritutako lanaren bidez, zentsurik zabalenean, norberaren, gizakiaren eta munduaren, ulermen zabal eta sakonagoa lortzeko.

Lehen Hezkuntzan, curriculum-proposamena da pentsamendu konplexua eta kontzientea garatzea, ikerketan, kontzeptualizazioan eta arrazoibidean laburtu daitezkeen pentsamendu-trebetasunak garatuz. Horretarako, etapa honetan funtsezkoa da pentsamendu horri modu sistematikoan eta egituratuan heltzea, praktikaren eta metakognizioaren bidez. Bigarren Hezkuntzako etapak ez die esplizituki heltzen trebetasun horiei. Hala ere, ikasleen gogoetetan agertu behar dute eta ebaluatu egiten dira, modu inplizituan lantzen baitira. Horixe da, hain zuzen ere, proposamen honen funtsa: pentsamendu kontzientea eta konplexua lantzea, horren azpian dauden pentsamendu-trebetasunekin, gai filosofiko nagusiei eta ikasleengandik hurbil dagoen errealitateari gogoetaren bidez eta modu dialogiko eta kooperatiboan helduta.

Pentsatzen irakasteak ikasleek pentsamendu konplexuagoa, kontzienteagoa eta autonomoagoa garatzeko balio du. Ezinbestekoa da ikasleak hezkuntzan: beren burua eta gauzak zalantzan jartzera, beren ikuspuntuaren alternatibak ikertzera eta baloratzera, arrazoitzera, argudiatzera eta besteen argudioak ulertzera, eta hartzen dituzten jarreretan hori guztia kontuan izatera bultzatzen dituen espazio bat izatea. Hortaz, proposamen honen helburua da hobeto, modu kritikoagoan, sortzaileagoan eta besteekiko eta ingurunearekiko kontu handiagoaz pentsatuko duten gizabanakoak sustatzea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, KPSII4, HK2, HK3, KAKK1 eta KAKK4.

2. Elkarrizketa kooperatiboetan parte hartzea, horiek garatzeko behar diren arauak eta balioak errespetatuz eta argudioen formulazioa eta entzutea erabiliz elkarrizketa horietan interakzioan aritzeko, zuzentasunez argudiatzeko gaitasuna, garapen pertsonala eta bizikidetzaren errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.

Pentsamendu kontzientea eta konplexua garatzea da jakintzagai honen helburu nagusia, eta hori askoz hobeto lortzen da komunitatean. Ikerketa-komunitatearen kontzeptua zientzietara mugatzera ohituta egon arren, horrek onura handiak dakartza parte-hartzaileak ezagutzeko eta jakintzaren arlo guztietako ezagutza orokorra lortzeko. Esan beharrik ez dago ikerketa-komunitate horretan parte hartzeak, beraren izatasunagatik eta planteatzen den moduagatik, ezagutza ez ezik, errespetuzko bizikidetzaren kooperatiboa sustatzen duela.

Argudioak eman eta gainerako ikaskideen argudioak entzun behar direnez, ikasleek, era berean, praktikatik abiatuta arian-arian barneratzen dituzte elkarrizketan oinarritutako gizarte demokratiko baterako behar diren ohiturak eta jarrerak. Ohitura horiek beharrezkoak dira errespetuzko eta bidezko bizikidetzaren lortzeko. Etapa honetan faktorerik garrantzitsuena izan gabe, egokia da gogoratzea elkarrizketa filosofikoa eta kalitatezkoa izan dadin, arreta jarri behar diegula argudiaketa-prozedurei, horien oinarriari, baldintzei, araei, motei, propietatei eta mugei.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, STEM1, KPSII1, HK2, HK3, KPSII3, KAKK2 eta KAKK3.

3. Gai filosofiko nagusien inguruan gogoeta egitea, baita ikasleen heldutasun-etapan dauden gaien, haien bizi-testuinguruaren eta gaurkotasuneko beste gai orokor batzuen inguruan ere, praktika dialogikoen, oinarritzko euskarri kontzeptualaren eta jakintza filosofikoak errealitatearekin lotuko dituzten zubiak ezartzearen bidez, ikasleek errealitateari zentzua emateko, tokian tokikotik globalera.

Filosofiaren ezaugarri bereizgarrietako bat bere dimentsio teoriko-praktiko bikoitza da. Horren bidez, osotasunaren zentzua ulertzeaz gain, filosofia helburu du gure ekintzak, indibidualak zein kolektiboak,

governatzeko printzipioak eta irizpideak arrazoituz proposatzea. Oinarrizko eduki horien analisitik abiatuta, helburua da ikasleek beraiek, modu argudiatuan eta kontzientean, ikerketa pertsonalaren eta dinamika dialogikoen bidez, jarrera-hartze kontzienteak eraikitzea, heldutasun-etaparen eta testuinguru pertsonalaren berezko kezkei aurre egiten laguntzeko eta beren errealitateari zentzua emateko.

Ildo beretik, gai sozialei dagokienez, eduki filosofiko horiek erreferentzia-esparru egokia eman behar diete ikasleei XXI. mendeko erronken aurrean herritartasun kontzientean, kritikoki konprometituan, gogoetatsuan eta eraikitzailean jardun dezaten. Helburua da ikasleek erronka horiek eta beren inplikazioak ulertzea, horien aurrean jarrera propio bat hartu ahal izateko, dituzten alderdi anitzak analizatuz eta kategorizatuz.

Bai ikasleen hurbileko errealitateari dagokionez, bai gai orokorreki dagokienez, ezinbestekoa da, dagoe-neko aipatutako filosofiaren dimentsio teoriko-praktikoarekin bat etorritik, irakasleek arreta berezia jartzea honetarako bidea emango dieten zubiak eraikitzeari: errealitateari zentzua emango dioten beharrezko loturak ezartzea eta beren ekintzak gidatuko dituzten posizionamendu propioak eraikitzen laguntzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KPSII1, KPSII2, KPSII5, HK1, HK2, HK3 eta HK4.

4. Norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta baloratzea, pentsamendua komunikazio dialogikoan garatzearekin zerikusia dutenetan arreta berezia jarritz, norberarekiko, besteekiko eta ingurune naturalarekiko jarrera enpatikoa, asertiboa, erresilientea eta arduratsua lortzeko.

Norberarekiko, besteekiko eta naturarekiko jarrera afektibo egokiak ezagutzea eta kudeatzea da hezkuntza emozionalaren helburu nagusia. Hori ezinbestekoa da pertsona orekatuak eta gainerakoekin eta beren ingurunearekin harreman asebetegarriak eta egokiak izateko gai izango direnak prestatzeko. Horretarako, ikasleek emozioen eta sentimenduen eremu konplexua behar bezala ezagutzen, interpretatzen, baloratzen eta kudeatzen hasi behar dute, oinarrizkoenetatik konplexuenetara, bai lasaitzen gaituztenen, bai deseroso sentiarazten gaituztenen kasuan.

Helburua da ikasleek beren emozioak eta sentimenduak ezagutzen, ebaluatzen eta kudeatzen ikastea, baita besteenak ulertzen, errespetatzen eta horiekin enpatizatzen ikastea ere, emozio eta sentimendu horien esanahiari buruz gogoeta eginez. Ildo horretatik, eta azaldutakoa bere osotasunean lantzeari utzi gabe, arreta berezia jartzen diegu pentsamenduaren garapenean komunikazio dialogikoaren barruan dauden emozio eta sentimenduei, horiek giza harremanen funtsa direla eta garapen pertsonalaren eta pentsamendu kritiko eta autonomoaren oinarria osatzen dutela ulertuta, garapen sozialerako elementu erabakigarriak baitira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK1, HK3 eta KAKK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Bigarren maila	Hirugarren maila
1. konpetentzia espezifikoa:	
1.1. Galderaren izaera ulertzea eta gauzak zalantzan jartzeak giza jardueran duen garrantzia nabarmentzea, galdera filosofikoak identifikatzeko eta lantzeko gaitasuna garatuz.	1.1. Galderaren izaera ulertzea eta gauzak zalantzan jartzeak giza jardueran eta herritar gisa euren garapenean duen garrantzia nabarmentzea, galdera filosofikoak identifikatzeko, lantzeko eta birlantzeko gaitasuna garatuz.
1.2. Pentsamendu-trebetasunak erabiliz argudiatzea: arrazoibidea (arrazoiak ematea, ondorioztatzea, analogikoki arrazoitzea, kausak eta efektuak erlazionatzea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea eta irizpideak ezartzea) eta transferentzia (inprobisatzea, azaltzea, laburtzea eta interpretatzea); arrazoibide-prozesuari buruz gogoeta eginez.	1.2. Pentsamendu-trebetasunak erabiliz argudiatzea: arrazoibidea (arrazoiak ematea, ondorioztatzea, analogikoki arrazoitzea, kausak eta efektuak erlazionatzea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea eta irizpideak ezartzea), eta transferentzia (inprobisatzea, azaltzea, laburtzea eta interpretatzea); arrazoibide-prozesuari buruzko gogoeta sakona eginez.

Bigarren maila	Hirugarren maila
1.3. Identitatearen, hurbileko testuinguruaren, gizartearen, kulturaren eta iraganaren arteko interkonexioa ulertzea, pentsamendu autonomoa eta kritikoa modu kooperatibo eta praktikoan garatuz.	1.3. Identitatearen, hurbileko testuinguruaren, gizartearen, kulturaren eta iraganaren arteko interkonexioa ulertzea eta adieraztea, pentsamendu autonomo eta kritikoa modu kooperatibo eta praktikoan garatuz.
2. konpetentzia espezifikoa:	
2.1. Elkarrizketa kooperatiboaren bidez besteekin interakzioan aritzea, errespetuan, enpatian eta entzute sakonean oinarritutako parte-hartze kritikoko jokabide aktiboak modu autonomoan, baina ikuskatuan, hartuz.	2.1. Elkarrizketa kooperatiboaren bidez besteekin interakzioan aritzea, errespetuan, enpatian eta entzute sakonean oinarritutako parte-hartze kritikoko jokabide aktiboak modu autonomoan hartuz.
2.2. Argudioak formulatzea eta horiek adierazteko gaitasuna garatzea, praktika dialogiko kooperatibo gidatuen bidez.	2.2. Argudioak formulatzea eta horiek adierazteko, besteenak jasotzeko, ulertzeko eta norberaren argudioen eraikuntzan integratzeko gaitasuna garatzea, praktika dialogiko kooperatibo gidatuen bidez.
2.3. Argudio-egitura zuzenak eta okerrak daudelaz jabetzea, horiek aplikatzen hasiz, praktika dialogiko gidatuaren bidez.	2.3. Argudio-egitura zuzenen eta okerren ezagutza sakontzea, lehenengoak erabiliz, praktika dialogikoaren bidez.
3. konpetentzia espezifikoa:	
3.1. Jakintzaren adarrekin lotutako gai filosofiko handiei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan parte hartuz.	3.1. Jakintzaren adarrekin lotutako gai filosofiko handiei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan modu aktiboan eta autonomoan parte hartuz.
3.2. Ikasleen heldutasun-etapan agertzen diren gaiei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan parte hartuz.	3.2. Ikasleen heldutasun-etapan agertzen diren gaiei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan modu aktiboan eta autonomoan parte hartuz.
3.3. XXI. mendeko erronka sozial tokiko eta globalei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan parte hartuz.	3.3. XXI. mendeko erronka sozial tokiko eta globalei buruz gogoeta egitea, elkarrizketa kooperatiboetan eta beste dinamika batzuetan modu aktiboan eta autonomoan parte hartuz.
3.4. Gai filosofiko handiak, heldutasun-garaiaren berezko gaiak eta XXI. mendeko gizarteari buruzkoak erlazioan jartzeari, pentsamendu abstraktua garatuz eta gai horien artean zubiak eraikitzen lagunduko duten ideiak elkarri lotuz.	3.4. Gai filosofiko handien, heldutasun-garaiaren berezko gaien eta XXI. mendeko gizarteari buruzkoen artean dauden erlazioak adieraztea, pentsamendu abstraktua garatuz eta gai horien artean zubiak eraikitzen lagunduko duten ideiak elkarri lotuz.
4. konpetentzia espezifikoa:	
4.1. Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzea, batez ere komunikazio dialogikoan agertzen direnak, introspekzioko, kontzientzia hartzeko eta adierazpeneko lan indibidual baina gidatutako baten bidez.	4.1. Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzea, batez ere komunikazio dialogikoan agertzen direnak, introspekzioko, kontzientzia hartzeko eta adierazpeneko lan indibidual autonomoaren bidez.
4.2. Besteen emozioak eta sentimenduak identifikatzea, komunikazio dialogikoan agertzen direnak bereziki, enpatia garatzeko eta gatazka emozionalak komunean jartzeko dinamiken bidez.	4.2. Besteen emozioak eta sentimenduak identifikatzea, komunikazio dialogikoan agertzen direnak bereziki, eta horiek sorrarazten dituzten gatazkak ebaztea, enpatia garatzeko eta bateratzeko dinamiken bidez.
4.3. Autorregulazio emozionaleko sistema bat garatzea, elkarrizketa argudiozkoa eta kooperatiboa ahalbidetzeko beharrezkoa den neurrian, introspekzio-lan indibidualaren bidez eta autorregulazio horretarako beharrezko jarraibideak identifikatuz.	4.3. Autorregulazio emozionaleko eta gainerako emozioak zaintzeko sistema bat garatzea, elkarrizketa argudiozkoa eta kooperatiboa ahalbidetzeko, introspekzio-lan indibidualaren bidez eta autorregulazio horretarako beharrezko jarraibideak identifikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Bigarren maila
A. Bizikidetzan dauden elementuak:
Kudeaketa emozionala. Ideiak, sentimenduak eta emozioak. Emozio motak eta horien zeregina. Nola sentitzen garen eta zergatik sentitzen dugun sentitzen duguna.

Oinarrizko jakintzak. Bigarren maila
Talde-interakzioa eta horren elementuak. Talde motak eta horien funtzionamendua. Eskubideak eta betebeharrak taldeetan.
Gatazka. Gatazkaren aurreko jarrerak. Gatazka motak. Gatazken kausa nagusiak.
Antolaketa eta erabakiak hartzea. Hurbileko testuinguruetan antolatzeke moduak. Erabakiak hartzea errazten eta zailtzen duten elementuak.
Komunikazioa eta bere elementuak: adierazpena eta entzutea. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa. Komunikazioa zailtzen eta errazten duten elementuak. Arauak komunikazioan eta elkarrizketan.
Esparru digitalaren eragina bizikidetzan. Gatazka espazio digitaletan. Eskubideak eta betebeharrak ingurune digitaletan.
B. Nerabezaroan errepikatzen diren gaiak:
Adiskidetasun-harremanak. Adiskidetasuna, errespetua eta bizikidetzeta. Gatazka adiskidetasun-harremanetan.
Prestakuntza akademikoa eta profesionala. Hezkuntza-sistema: indarguneak eta ahuleziak. Ikasleen, familien eta irakasleen eskubideak eta betebeharrak.
Modak. Moda eta identitatea. Rolak modan.
Sexualitatea. Plazera eta desira. Genero-rolak sexu-harremanetan. Sexu-aniztasuna.
Maitasun erromantikoa. Genero-rolak maitasun-harremanetan. Harreman sentimentalen motak.
Familia-harremanak. Familia-ereduak.
Aisia eta bere elementuak. Drogak eta adikzioak. Aisia osasuntsua.
C. XXI. mendeko erronkak:
Globalizazioa. Globalizazio ekonomikoa eta kulturala. Migrazio-mugimenduak.
Arazo ekosoziala. Aztarna ekologikoa.
Genero-desberdintasuna. Sexua eta generoa.
Teknologia berriak eta sare sozialak. Teknologia berriak, sare sozialak eta osasun mentala eta fisikoa.
Kontsumo-gizartea eta bere elementuak. Zoriontasuna eta kontsumoa.
Desberdintasunak eta gizarte-bazterketak. Aporofobia, xenofobia, arrazakeria, homofobia, transfobia eta beste batzuk.
D. Pentsamendu filosofikoaren oinarriak:
Filosofia. Jatorria eta sarrera. Galdera eta gogoeta. Elkarrizketa filosofikoa: argudiaketa arrazionala eta argudiatzeko beste modu batzuk. Filosofiaren gaiak eta ezaugarriak. Filosofia eta beste ezagutza-modu batzuk.
Identitatea. Identitatea: definitzen gaituzten faktoreak (testuingurua, gorputza, trebetasunak, nortasuna, gustuak...). Identitatearen aniztasuna, antzekotasunak eta desberdintasunak gizakien artean. Identitatearen eraikuntzan eragina duten barruko eta kanpoko faktoreak. Identitate indibiduala eta kolektiboa. Garapen moralaren, kognitiboaren eta pertsonalaren etapak.
Kultura. Ohitura indibidualak eta kolektiboak. Kultura eta bere elementuak (artefaktuak, ohiturak, sinesmenak, harremanak izateko moduak, artea...). Kultura eta kulturak. Kultura-aniztasunaren aurreko posizionamenduak: sortzen zaizkigun onurak eta arazoak. Kultura XXI. mendean.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila
A. Bizikidetzan dauden elementuak:
Kudeaketa emozionala. Sentimenduak, iritziak eta interpretazioak. Zer egin sentitzen ditugun emozio eta sentimenduekin. Rolak, mailak eta horien eragin emozionala harremanetan.
Talde-interakzioan parte hartzeko moduak. Lidergoa eta lidergo motak. Pribilegioak eta desabantailak.
Gatazken arrazoi zirkunstantzialak eta egiturazkoak. Gatazkek ebaztea. Gatazka pertsonalak eta sozialak.
Erabakiak hartzeko estrategiak. Antolamendu-moduak esparru sozialean. Erabakiak hartzeko baldintzak. Justizia antolamenduan eta erabakiak hartzean.
Argudiozko elkarrizketan dauden elementuak: arrazoibideak, iritziak eta emozioak. Elementu esplizituak eta inplizituak komunikazioan. Norberaren eta besteen zainketa komunikazioan. Argudiaketa eta falaziak.
Talde-dinamikak sare sozialean. Komunikazioa ingurune digitaletan. Espazio digitaletan antolatzeke eta erabakiak hartzeko estrategiak.

Oinarrizko jakintzak. Hirugarren maila
B. Nerabezaroan errepikatzen diren gaiak:
Adiskidetasun-moduak eta -mailak. Adiskidetasuna eta maitasuna. Adiskidetasuna eta sare sozialak.
Erabaki akademikoak eta profesionalak hartzeko irizpideak. Genero- eta hezkuntza-rolak. Lana.
Moda, estetika eta artea. Moda, kontsumoa eta ekonomia. Etika eta moda.
Eragin soziala eta kulturala sexualitatearen ikusmoldean. Pornografia. Sexualitatea aro digitalean. Onargarria denaren eta ez denaren mugak: sexu-indarkeria.
Maitasuna eta sexua. Eragin soziala eta kulturala maitasunaren ikusmoldean. Maitasuna eta kontsumo-gizartea.
Antolamendua, boterea eta justizia familia-harremanetan. Onargarria denaren eta ez denaren mugak: familia barruko indarkeria.
Aisia, kontsumoa eta kultura herrikoia. Aisiaren kudeaketan dauden aukerak eta erabakiak hartzeko estrategiak. Baliabide publikoak eta aisia.
C. XXI. mendeko erronkak:
Globalizazioa eta kulturak. Mundu globalaren abantailak eta desabantailak. Kontsumo-moduak globalizazioan.
Energia-kontsumoaren ereduak. Proposamenak larrialdi ekosozialaren aurrean.
Feminismoa eta patriarkatua. Berdintasunezko bizikidetzarako proposamenak.
Teknologia berriak, ekonomia eta etika. Sare sozialak, ekonomia eta etika.
Garapen teknologikoa eta gizarte-ongizatea. Kontsumo iraunkorra.
Desberdintasunaren eta gizarte-bazterketaren kontzeptuak. Kausak, ondorioak eta aurre egiteko estrategiak.
D. Pentsamendu filosofikoaren oinarriak:
Bizitza. Bizitzaren zikloa. Bizitza eta heriotza. Helburuak bizitzan eta bizimoduak. Bizitzaren zentzua. Zoriontasuna, zoriontasunari buruzko teoria etikoak. Adimen emozionala. Esparru arrazionala eta espirituala.
Egia. Egia eta gezurra. Egiaaren existentzia eta hura ezagutzeko aukerak. Egia ezagutzeko moduak eta horrek gizakiarentzat duen garrantzia. Errealitate-formak (errealitate ukigarria, fikzioa, ideiak, errealitate birtuala...). Errealitatearen eta egiaeren arteko erlazioa.
Bizikidetzeta. Morala, etika eta politika. Legezketasuna eta legitimitatea. Lehiakortasuna eta kooperazioa. Askatasuna. Askatasuna eta segurtasuna. Justizia. Justizia indibiduala eta soziala. Antolamendu politikoaren formak, filosofiatik eta hurbiliko errealitateetik abiatuta. Boterea, estatua eta indarkeria-formak.

PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIO PERTSONALA ETA PROFESIONALA

Hezkuntza-esparrua ikasleei beren nortasuna garatzen, beren autonomia eta autoezagutza indartzen eta aurrera bidean topatuko duten ingurunea ezagutzen laguntzen dien zutabea da.

Jakintzagai honek, alde batetik, "gizatiarra denaren" ezagutzarako hurbilketa bat proposatzen du, hura aztertzen eta ikuspegi osagarrietan oinarrituta bideratzen duten diziplinetatik abiatuta: jokabidea, kognizioa, ikaskuntza eta emozioak erregulatzen dituzten prozesu biologiko, mental eta intelektualen ezagutza, gizabanakoaren ezagutza kultura-eraikuntzaren parte gisa, eta kultura desberdinetako gizarte-erakundeak eta giza taldeak definitzen dituzten elementuen analisisa. Giza diziplinetara hurbiltzearen helburua da ikasleengan euren burua gizabanako isolatu gisa ez ezik, subjektu sozial eta kultural gisa ere ulertzeko jakin-mina piztea. Jakin-min horrek ateak irekiko dizkie ezagutzari, gogoeta kritikoari eta azterketari, diziplina horien berezko planteamendu, jakintza eta estrategietatik abiatuta.

Bestalde, Prestakuntza eta Orientazio Pertsonal eta Profesionala jakintzagaiak proposatzen du ikasleek ezagutzea eta ikastea, entrenatzeko helburuarekin, giza taldeetako elkarrekintzan parte hartzeko, sortzeko eta garatzeko beharrezkoak diren trebetasun pertsonalak eta sozialak. Hauxe, eremu pertsonal zein sozial eta akademikotik egin beharreko zerbait da, eta beti ere etrokizunarekiko ikuspegi profesional eta bokaziozko batekin.

Parte-hartze, sormen eta aberaste pertsonal, sozial eta profesional hori sortzeko, ingurunera modu positiboan egokitzea, erantzukizunak bere gain hartzea eta erabaki informatuak hartzea erraztuko duten tresnak garatu behar dira. Pentsamendu kritikoa, sormena, ekimen pertsonala, ekintzailtza-espirtua, kooperazioan aritzeko gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna inoiz baino funtsezkoagoak dira gizarte globalaren eskakizunei erantzuteko, kultura-aniztasuna ulertzea alde batera utzi gabe.

“Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala” jakintzagaiaren helburua da ikasleek jakintzagai horretarako ezarritako konpetentzia espezifikokoak eskuratzea eta hauek modu esanguratsu, funtzional eta ikaslegoaren interesei lotuta garatzea, ikasleak dauden nerabezaroaren eboluzio-etapari ere lotuta daudenak.

Gainera, jakintzagaia zuzenean lotuta dago lehen hezkuntzako etaparekin; izan ere, etapa horretako printzipio pedagogikoetan islatzen da autonomia eta gogoeta sustatzen dituzten konpetentziak garatzeko ikaskuntza esanguratsua sendotzeko aukera. Horrez gain, jarraitutasuna dago jakintzagai honen eta Lehen Hezkuntzan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru mailetan eskuratu beharreko funtzesko gaitasun biren artean: ekintzailtza-konpetentzia (pentsamendu kritikoa eta sortzailea, ekimena, pertseberantzia eta elkarlanean lan egiteko trebetasuna behar dituen funtsezko ikuspegi gisa ulertua), eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (ikasleek beren buruari buruzko gogoeta egitea, gainerakoekin elkarlanean modu konstruktiboan aritzea eta denbora, ikaskuntza eta beren karrera kudeatzea aurreikusten duena).

“Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala” aukerako jakintzagai gisa planteatuta dago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan. Beraz, derrigorrezko hezkuntzatik abiatuta, ikasleek beren buruaren ezagutza sakontzea eta balio-ahalmen gisa dituzten dohain pertsonalak aurkitzea bermatuko du alde batetik, eta giza portaeren zein alderdi sozial eta kulturalen gaineko ikerketa zientifikoa egiten duten jakintzetara hurbiltzea bat egitea bestetik. Gainera, inguruneak eskaintzen dizkien prestakuntza eta enplegu-aukeretara hurbiltzeko aukera emango zaie, errealitatearen ezagutza oinarrituta beren bokazioari eta ibilbide akademikoari buruzko erabakiak hartzeko prozesua errazteko, etorkizunerako lanbide-proiektzio batekin.

Jakintzagai hau gainerako jakintzagaiekin lotzen da, eta, modu zuzenagoan, honako hauekin: Balio zibiko eta etikoen hezkuntza, Geografia eta historia eta Biologia batetik, eta Ekonomia eta ekintzailtza bestetik.

Oinarritzko jakintzak hiru multzotan banatuta daude:

- *Gizakia eta norberaren ezagutza*: gizakiari buruzko ezagutzari lotuta dago, psikologiari, antropologiari eta soziologiari lotutako giza eta gizarte-zientzien ikuspegitik.
- *Helduaroko bizitzarako prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala* honako hauei lotuta dago: helduaroko bizitzarako prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala, ikasleei norberaren eta gainerakoekin ezaugarri pertsonalei buruzko autoezagutza-ariketa bat egiteko beharraren inguruko euskarri bat eskaintzeko; prestakuntza akademiko eta profesionalerako orientazioa, inguruneko prestakuntza-eskaintza aztertzea eta etengabeko ikaskuntzako ibilbideen kudeaketa optimizatzea ahalbidetuko diena; lan-testuinguruen ikerketari lotutako lanbide-orientazioa, lan-merkatuaren funtzionamendua, enplegu motak, ekintzailtza-ekimenaren garrantzia eta teknologia eta tresna digitalak lan-merkatuan txertatzeari eta aukerak bilatzeko garaian duten balioa baloratzeari lotutako alderdiak ezagutzea ahalbidetuko diena.
- *Proiektu pertsonala, akademiko-profesionala eta enplegu-bilaketa aktibora hurbiltzekoa*: enplegu-bilaketa aktibora hurbiltzeko orientazio pertsonaleko proiektu akademiko eta profesional baten diseinuari lotuta dago. Proiektu hau osatzen duten planak elkarren artean lotuta daude, eta ikuspegi konpetentzial, praktikoa, funtzional eta kiribil batetik lantzen dira, planak pixkanaka landu ahal izateko, ikasturtearen barruan lortzen diren ikaskuntzen sakontze-mailaren arabera.

Jakintzagai honetarako ezarritako ebaluazio-irizpideak ikasleek eskuratu duten konpetentzia-maila ezagutzera bideratuta daude, hau da, proposatzen diren eta eremu pertsonal, sozial, akademiko eta

profesionalean aplikatuko diren jakintzen inguruko jardun kognitiboa, instrumentala eta jarrerazkoa ezagutzera.

Jakintzagai honen curriculuma ikuspegi teoriko-praktiko batetik zehaztea proposatzen da, jakintzak mailaz maila eta interatiboki planteatuz, ikasleek jakintza horietan sakondu dezaten, pixkanaka eskura ditzaten eta proiektu pertsonala, akademiko-profesionala eta enplegu-bilaketa aktibora hurbiltzekoa osatzen duten hiru planak lantzeko erabil ditzaten. Plan horietako bakoitza hiruhileko akademiko batean gara liteke, kontuan hartuta gizakiari, gizarteari, kulturari eta norberaren ezagutzari buruzko gogoeta kritikoa ingurune jakin batean esparru pertsonalean, akademikoan eta profesionalean har daitezkeen erabakiak hartu aurretik egin behar dela. Hiru planak elkarren mendekoak dira, eta elkarren arteko koherentziari eutsi behar diote, ikasleen bizitzan aplikatzeko moduko proiektu integratzaile eta baliagarri bat eraikitzeko. Soilik honela lagunduko die ikasleei etorkizunerako bidean autonomiaz erabakitzen.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Kognizioan, motibazioan eta ikaskuntzan inplikaturako prozesu fisikoak eta psikologikoak ulertzea, jokabidean dituzten inplikazioak aztertuz eta kudeaketa emozionalerako eta ikasteko prozesurako estrategiak garatuz, eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan jarduna hobetzeko eta ingurune analogiko eta digitaletan ekintzen eta haien ondorioen gaineko kontrol handiagoa lortzeko.

Eguneroko bizitzan, ingurunea hobeto hauteman, ulertu eta honetan elkarreragin ahal izateko prozesu fisikoak eta psikologikoak mobilizatzen dituzte pertsonak. Prozesu horietan guztietan, elkarren artean konektatuta dauden eta informazioa modu egokian prozesatzea ahalbidetzen duten milioika neurona daude inplikaturak.

Ildo horretan, badirudi beharrezkoa dela ikasleek, alde batetik, arrazoitzeko, erabakiak hartzeko eta ebazteko prozesuetan esku hartzen duten mekanismo neurozientifikoak ezagutzea, eta, bestetik, ekintza horiek egiteak besteak beste beren adimenean kontzeptuak sortzea, beren ideiak antolatzea, aldez aurreko ezagutzekin lotzea eta inferentziak ezartzea dakarrela ulertzea.

Prozesu horretan, motibazioa funtsezko elementua da jokabidea sustatzeko edo eragozteko. Garrantzitsua da, halaber, generoen kulturak motibaziorako izan ditzakeen mugak identifikatzea, haiek gaindituko dituzten estrategiak eskaintzeko. Ikasleek jakin behar dute beren jarduketak eta erabakiak beren emozioek eta arrazoiek baldintzatzen dituztela. Ildo horretan, ikaskuntzaren eremuan, helburu batera bideratutako ekintza edo jokabide bat bultzatzeko eta hari ekiteko beharrezkoa da motibatuta egotea, baina ezinbestekoa da, halaber, ikasteko prozesua kontzientziaz planifikatzen lagunduko duten estrategiak eta tresnak izatea (ikaslearen PLEa). Emozioek motibazio-, arrazoitze-, ikaskuntza- eta jokabide-prozesuetan duten eragina ezagutu behar da, behar bezala kudeatu ahal izateko eta esparru guztietan (pertsonalean, sozialean, akademikoan eta profesionalean) jardun hobea lortzeko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KD1, KD2, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5.

2. Pertsonaren garapen ebolutiboaren ezaugarri nagusiak ulertzea, portaerak edo jarduketak baldintzatzen dituzten helduaroko elementuak aztertuz eta norberaren eta besteen ezaugarri pertsonalak eta gizarte-harremanekoak identifikatuz eta indartuz, autonomia handiagoarekin moldatzeko eta helduaroko bizitzarako bidean planteatzen diren erronka berriei eraginkortasunez aurre egiteko.

Pertsonak hainbat etapa igarotzen dituzte bizitzan, eta etapa horietan gertatzen diren aldaketa fisiko, sozial, kognitibo eta psikologikoek haien erabakiak, portaerak eta erreakzioak baldintzatzen dituzte, aldakorra eta ziurgabea den testuinguru baten barruan.

Nerabezaroaren etapan gertatzen diren aldaketak ezagutzeak kezkatzen dituzten bizitzako gertaeren ondorioz planteatzen zaizkien gatazketarako erantzunak eta konponbideak aurkitzea eta elkarreraginean

dauden gizarte-taldeetan beren esperientzien eta gainerakoen esperientzien esanahia ulertzea ahalbidetzen die ikasleei.

Gizarte-ingurunearekiko esperientzia horietatik abiatuta identitatea eraikitzen da, eta eraikuntza horretan hainbat faktorek esku hartzen dute, hala nola autoirudiak, lehia-sentimenduak, segurtasunak eta autoestimuak. Baita gizona edo emakumea zer den zehazten duen aurrez sortutako ideiak ere.

Neurriko identitate bat eraikitzeak beren aukeren arabera hautematen eta jarduten laguntzen die ikasleei, gero eta erronka konplexuagoak ebaztera eramango dituzten ezaugarri pertsonalak indartu ahal izateko.

Eta hori, gainera, helduaroaren atariko da, eta erantzukizun eta konpromiso berriak bere gain hartzea eta autonomia-maila handiagoa lortzea dakar. Ildo horretan, beharrezkoa da ikasleek testuinguru berrietan sartzea erraztuko dieten eta harreman berriak ezartzen lagunduko dieten trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, EK2.

3. Gizakia eta haren gizarteak eta kulturak ulertzeko zereginera jakin-minez eta ikuspegi anitzetatik abiatuta hurbiltzea, aniztasuna desberdina eta askotarikoa denarekiko errespetutik aztertuz eta bestearen lekuan jarriz, haren konplexutasuna zein testuinguru ulertzeko eta funtzionamendu sozial eta kulturala zuzentzen duten gai eta alderdien inguruko espiritu kritikoa sustatuz.

Gizakia bere helburuak lortzera bideratutako izaki psikologikoa da, eta, horretarako, bere portaerak eta jokabidea gidatzea ahalbidetuko dioten prozesuak eta estrategiak jarri behar ditu abian.

Halaber, izaki sozial eta kulturala da, eta horrek esan nahi du bere bizitzan bizi den inguruneko elementu soziokulturalak ikasi eta bere nortasunean txertatu behar dituela, gizarte-eragileek eta gizarte-talde bateko kide gisa izango duten esperientziak nortasunean izango duten eragina kontuan hartuta.

Beraz, izaki konplexua da, eta hura ulertzeko beharrezkoa da ikuspegi psikologiko, antropologiko eta sozialetik aztertzea, ikasleek, eskuratutako jakintzen azterketan eta analisisian oinarrituta, gogoeta kritiko bat egin ahal izan dezaten.

Konpetentzia hori lortzeko, beharrezkoa da, ikasleengan gizakia, gizarteak eta kultura ezagutzeko jakin-mina sortzeaz gain, aldagarritasun transkulturala eta gizarte-aniztasuna errespetatzeko jarrerak sustatzea, bizitza demokratikorako beharrezkoak diren aniztasun-elementu aberasgarriak baitira.

Aldi berean, ikasleek gainerakoen egoera emozionalak ulertzea, besteen sentimenduez jabetzea, askotariko esperientzietan inplikatzeko eta norberarenaz bestelako egoerak beren gain hartzea lortu nahi da. Azken batean, jarrera enpatiko bat garatu behar da ikasleengan, bakoitzak bizi edo esperimintatu dituen bestelako gertakariak, gertaerak eta egoerak ulertzeko eta ulermen hori transmititzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, EK2,

4. Gizakiaren dimentsio soziala eta antropologikoa ezagutzeko, pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktore pertsonalak eta soziokulturalak kontuan hartuz, bere burua besteekin alderatuta ulertzeko eta testuinguru aldakorretara eta talde desberdinetara egokitutako estrategia eta trebetasun sozialak garatzeko, aniztasun pertsonala, soziala eta kulturala errespetatuz eta baloratuz.

Oro har, ez da pentsatzen gizarteak eta kulturak gizakiaren garapenean eta haren jokabidean duten eraginean, eta, hori dela eta, pertsonak ez du bere burua ulertzen edota bere buruari eta inguruko munduari buruzko ezagutza osatugabea du. Kulturak eta gizarteak pertsonak beren bizitzan sortzen diren gertaera eta egoeren aurrean dituzten pertzepzioak, jarrerak, interpretazioak eta erantzunak balidatzen dituzten ereduak eta erreferenteak eskaintzen dituzte.

Helburua da ikasleek gizarteak eta kulturak pentsatzeko, sortzeko, adierazteko, harremanak izateko, gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko momentuan duten eraginari buruzko gogoeta egitea. Kulturak eta gizarteak alderatzeko, beharrezkoa da antropologia sozial eta kulturalaren elementu batzuk ezagutzea. Elementu horiei esker, alde batetik hobeto uler daiteke arauak eta balioak ezartzeak eta portaerak bideratzen dituzten ohiturek eta erreferenteek pertsonengan duten eragina. Bestetik, ikasleek beren errealitatea perspektiban jar dezakete, askotarikoa eta desberdina dena ezagutu dezakete eta hura errespetatzen eta osagai aberasgarri gisa baloratzen ikas dezakete. Azkenik, egungo egoera sozial eta kultural aldakorraren barruan, garrantzitsutzat hartzen da zentzu kritikoarekin eta arduraz erabakitze eta jarduteko beharrezkoak diren estrategia pertsonal eta sozialak izatea. Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HK1, HK2, HK3, EK2.

5. Behar eta interes pertsonalak eta bokaziozkoak aurkitzea eta lehenestea, eta inguruneak eskaintzen dituen aukera akademiko eta profesionalak ikertzea, moldagarritasuna, ekiteko eta hobetzeko espiritu eta erabakiak hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatuz, proiektu pertsonal, akademiko eta profesional bat burutzeko eta enplegu-bilaketa aktibo baterako plan baten diseinura hurbiltzeko.

Konplexutasun sozial eta ekonomikoa eta lanbide- eta prestakuntza-aukera ugariak direla eta, beharrezkoa da ikasleek bizitzako une bakoitzean eta ingurune aldakorretan beren interesekin, itxaropenekin, kezekin eta beharrek inkoherenteak izango diren erabaki egokiak hartzen lagunduko dieten trebetasun pertsonalak eta jarrerak gara ditzaten bultzatzea.

Beharrezkoa da ikasleek beren kezka pertsonalak eta bokaziozkoak ikertzea eta ebaluatzea, elementu berezile eta balio potentzialeko elementu gisa dituzten indarrak ezagutzea eta beren ahuleziak identifikatzea, beren jardun pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalaren maila hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza jarrera proaktiboarekin eta hobetzeko jarrerarekin bilatzeko.

Norberaren prestakuntza- eta lanbide-ibilbidea errealismoz antolatzeko, inguruneak eskaintzen dituen aukera akademikoak, prestakuntza-aukerak eta lanbide-aukerak modu antolatuan aztertu behar dira, norberaren etorkizuneko lan-ibilbidea modu egokian orientatzeko.

Azken urteetan gora egin duen hezkuntza-eskaintza dela eta, ikasleek informazioa hautatu eta erabakiak hartu behar dituzte prestatzeko edota, nahi izanez gero, lanedo enpresa-munduan goiz txertatzeko, betiere bizitza osoan ikasten jarraitzeko eta horrek lanbide-karreran eragin positiboa izateko aukerak murriztu gabe. Era berean, gizarte-, egokitzapen-, plangintza- eta kudeaketa-trebetasunak eskuratu behar dituzte eta ekimen- eta lorpen-jarrerak agertu behar dituzte, bizitzaren esparru guztietan agertzen diren erronka berriei aurre egiteko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII4, KPSII5, EK1, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Jardun pertsonala, soziala eta akademikoa hobetzea, ekintzen eta haien ondorioen gaineko kontrol handiagoa ahalbidetuko duten ikaskuntza eta kudeaketa emozionaleko estrategiak aplikatuz.
1.2. Ikaskuntzan esku hartzen duten prozesuak ezagutzea, haien inplikazioak aztertuz eta ezagutzak eskuratzeko erraztuko duten estrategiak garatuz.
1.3. Osagai emozionalaren garrantzia aztertzea, ikaskuntzan duen eraginaz jabetuz eta prozesu kognitiboa hobetuko duten estrategiak garatuz.
1.4. Kognizio, motibazio, ikaskuntza eta kudeaketa emozionalean esku hartzen duten prozesu fisiko eta psikologikoen funtsezko oinarri teorikoak ezagutzea, jokabidean duten eraginari buruzko gogoeta eginez.

Ebaluazio-irizpideak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
2. kompetentzia espezifikoak	
2.1. Erronka berriei eraginkortasunez eta gero eta autonomia handiagoarekin aurre egitea, norberaren eta gainerakoien ezaugarri pertsonalak eta sozialak identifikatuz eta garapen ebolutiboaren prozesuan portaerak eta jarduketak baldintzatzen dituzten elementuak aztertuz.	
2.2. Pertsonen garapen ebolutiboa ezagutzea, aldaketak eragiten dituzten eta pertsona hainbat mailatan (kognitiboan, sozialean eta emozionalean) osatzen duten helduaroaren ezaugarri nagusiak aztertuz eta ulertuz.	
2.3. Norberaren eta gainerakoien ezaugarriak identifikatzea, erronka berriei eraginkortasunez aurre egiteko eta nerabezarotik helduarorako trantsizio-prozesua errazteko beharrezkoak direnak bultzatzearen garrantziari buruzko gogoeta eginez.	
3. kompetentzia espezifikoak	
3.1. Gizakiaren konplexutasuna ulertzea eta haren funtzionamendu psikologiko, sozial eta kulturalari buruzko espirtu kritikoa sustatzea, funtzionamendu hori ezagutuz eta hainbat ikuspegitik ulertuz eta desberdina eta askotarikoa denarekiko errespetu- eta enpatia-jarrerak agertuz.	
3.2. Gizakia, gizarteak eta kulturak ulertzea, giza eta gizarte-zientziek ematen duten ezagutzatik abiatuta gogoeta kritikoa eginez.	
4. kompetentzia espezifikoak	
4.1. Bere burua gainerakoekin alderatuta hobeto ulertzea eta talde eta testuinguru berrietara egokitzea erraztuko duten estrategia eta trebetasun sozialak garatzea, gizakiaren dimentsio sozial eta antropologikoaren ezagutza erreferentzia gisa hartuz eta pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktoreak aztertuz, aniztasunaren baloraziotik eta errespetutik abiatuta.	
4.2. Pertsonaren konfigurazio psikologikoan esku hartzen duten faktore pertsonalak eta soziokulturalak aztertzea, gizakiaren dimentsio sozial eta antropologikoaren ezagutza konparatutik abiatuta.	
4.3. Aniztasuna baloratzea, maila pertsonal, sozial eta kulturean elementu aberasgarritzat eta balioetsutzat hartuz.	
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propioa egitea eta enplegua aktiboki bilatzeko prozesura hurbiltzea, beharrak lehenetsiz, interes pertsonalak eta bokaziozkoak aurkituz ingurune analogikoak eta digitalak eskaintzen dituzten aukera akademikoak eta profesionalak ikertzearen bidez, eta erabakiak hartzeko prozesuan beharrezkoak diren trebetasunak garatuz.	
5.2. Hurbileko ingurunea ikertzea, eskaintzen dituen aukera akademikoak eta profesionalak identifikatuz eta ezaugarri eta interes pertsonaletara hobekien egokitzen direnak baloratzuz.	
5.3. Proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propioa diseinatzea, hiru planoak uztartuz (autoezagutzari, ingurune akademiko eta profesionalaren ezagutzari eta enpleguaren bilaketa aktiborakohurbilketari buruzkoak).	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
A. Gizakia eta norberaren ezagutza.	
1. Gizakia	Gizakiari buruzko gogoeta. Gizakiari buruzko ikuspegia eta ezagutza, ikuspegi psikologiko, antropologiko eta soziologikotik abiatuta.*
2. Psikologia	Neurozientzia, jokabidea eta kognizioa
	Garunaren azterketa.
	Neuronak eta garunaren egitura funtzionala.
	Nerbio-sistema zentrala eta nerbio-sistema periferikoa.
	Deskribapen orokorra.
	Inplikazioak: sari-zirkuituak eta adikzioekin duten lotura.*
	Ongizatea eta ohitura osasungarriak: loa, elikadura, jarduera fisikoa eta estresaren kudeaketa.*

Oinarrizko jakintzak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
	Jokabidearen oinarri biologikoak.
	Prozesu kognitiboak.
	Ikuspegi psikologiko nagusiak*: Gizakia ulertzeko jarraibideak, dauden teoria eta korrante psikologikoetatik abiatuta: psikoanalisi, konduktismoa, Gestalt, konstruktibismoa...
	Nerabearoa, ikuspuntu psikologikotik abiatuta.*
	Nerabearoa eta haren esanahi ebolutiboa.
	Nerabearoaren faseak.
	Aldaketa fisikoak eta psikologikoak.
	Nerabearoa trantsizio ebolutibo gisa.
	Nerabearoko garapen kognitiboa.
	Nortasunaren garapena nerabearoan.
	Autoestimua etapa ebolutibo horretan. Identitate pertsonalaren osaera.
	Emozioak ezagutzeko eta kudeatzeko jarraibideak.*
	Psikologia soziala
	Garapenpertsonala taldearen barruan.
	Taldeak gizabanakoarengan duen eragina.
	Taldearen presioa.*
	Arauk, rolak eta estereotipoak.
	Genero-, arraza- eta kultura-estereotipoak.*
	Psikologia sozialaren esperimendu garrantzitsuak.
	Milgram, Ash, Bandura eta beste batzuk.*
3. Antropologia	Gizakia izaki kultural gisa.*
	Kulturaren kontzeptu antropologikoa.
	Kultura, giza talde batek pentsatzeko, egiteko, esateko, baloratzeko, sentitzeko eta hautemateko duen modu espezifikoa.
	Gizakia kultura-erakuntza gisa.
	Humanizazioa eta kultura.*
	Kultura eta nortasuna.
	Kultura-aniztasuna: etnozentrismoa, erlatibismoa, unibertsalismoa eta kulturartekotasuna.
4. Soziologia	Gizakia izaki sozial gisa.*
	"Gizarte" kontzeptua. Gizarte motak.
	Gizarte-inklusioa eta gizarte-kohesioa. Gizarte-inklusioko eta gizarte-kohesioko estrategiak pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.
	Nerabea eta haren harremanak: familia eta parekoak.*
	Autonomia bilatzeko eta erantzukizunak pixkanaka bere gain hartzeko jarraibideak.*
	Jokabide eta portaera prosozialak eta antisozialak.
	Aniztasuna eta bizikidetzaren positiboa taldeen barruan.*
	Helduaroako bizitarako trantsizio-prozesuak ikuspegi konparatuan.
5. Ikaskuntza eta gizakia	5.1. Ikuspegi psikologikoa
	Adimen anizkoitzak*
	Ikaskuntzan inplikaturako prozesuak: arreta, motibazioa eta oroimena.*

Oinarrizko jakintzak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
	Ikaskuntza eta azterketa.
	Ikasteko eta aztertzekeo estrategiak. Osagai emozionala.*
	5.2. Ikuspegi antropologikoa
	Heredatutakoa eta ikasitakoa: biologia eta kultura*.
	Humanizazio-prozesua: gizaki izaten ikastea.
	5.3. Ikuspegi soziologikoa
	Sozializazio-prozesua.
	Sozializazio-eragileak: familia, eskola, parekoen taldea, komunikabideak, sare sozialak eta beste batzuk.*
	Ikaskuntza formala eta informala.*
B. Helduaroko bizitzarako prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
1. Lehia- eta lorpenzentzuaren eraikuntza	Autoezagutza. Autonomia pertsonala eta autodeterminazioa. Autopertzepzioa. Oroimen autobiografikoa. Atribuzio-estiloa. Autokritika egiteko gaitasuna.
	Ekimen pertsonala. Sormenezko pentsamendua. Norberarenganako konfiantza eta segurtasuna. Baikortasun adimentsua. Pertseberantzia. Porrotari aurre egiteko eta etsipena maneiatzeko jarraibideak.*
2. Harreman eta interakzio sozialak.	Gizarte-trebetasunak. Tolerantzia eta errespetua. Enpatia. Dinamismoa, ekimena eta lidergoa. Aserbitbatea. Pertsona arteko eraginkortasuna. Talde-lanerako estrategiak*
	Komunikazio-trebetasunak. Komunikazioedo elkarrizketa-adimena. Jendaurrean hitz egiteko teknikak. Komunikazio-oztopoak: haiek gainditzeko estrategiak. Entzute aktiboa.*
	Antolatzekeo eta kudeatzeko trebetasunak. Denboraren antolaketa eta zereginen plangintza. Ikasteko ingurune pertsonala. Baliabideen kudeaketa eta zereginen egikaritzea. Tresna digitalen erabilera eta gehiegizko erabilera gainerakoekiko interakzioan.
3. Prestazio akademiko eta profesionalerako orientazioa	Prestakuntza-programak eta prestakuntza-aukerak. Prestakuntza osagarriko titulazioak, kualifikazioak eta programak. Beste herrialde batzuetan prestatzeko aukerak.
	Parte-hartze sozial aktiboa. Kolaborazioa eta boluntarioria.*
	Orientazio pertsonala, akademikoa eta profesionala hezkuntza- eta lan-ingurunean. Lanbide-orientazioko zerbitzua. Bizitza osoko etengabeko prestakuntza.
	Gizarte-kolektiboen orientazio pertsonal eta profesionalean esku hartzeko proposamenak: orientazio akademiko eta profesionaleko proiektuak eta programak, autoezagutza-planak eta enplegua aktiboki bilatzeko planak.
4. Lanbide-ingurunearen ikerketa	Lan-ingurunearen ikerketa eta aurkikuntza: besteren konturako lana eta norberaren konturako lana. Lan-harremanak.*
	Lan-joerak eta merkatu-eskariak. Enplegu-sorguneak.*
	Iraultza digitalaren erronkak lan-ingurunean.*
	Ekintzaitza eta barne-ekintzaitza.*
	Gizakia, homo oeconomicus. Teoria kritikoak.
	Lan-bizitzara bideratutako Ikasteko Ingurune Digitala eraikitzekeo tresnak.*
C. Proiektu pertsonala, akademiko-profesionala eta enplegu-bilaketa aktibora hurbiltzeko.	
1. Autoezagutza-plana	Ezaugarri pertsonalen ezagutza. Norberaren indar eta ahulezien identifikazioa.*
	Aniztasuna, pertsona aberasteko elementua.*
	Ohitura osasungarrietan eta arriskuen prebentzioan trebatzeko estrategiak.
2. Prestakuntza akademiko eta profesionalerako plana	Indar pertsonalak sendotzeko ekintzak.*
	Prestatzeko beharren eta aukeren identifikazioa.*
	Planaren faseak: ikerketa, diagnostikoa, lanbide-profilen eta prestakuntzaren arteko lotura, erabakiak, prestakuntza, enplegurako trantsizioa.

Oinarrizko jakintzak. Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala	
	Asmoen eta helburuen definizioa. Erabakiak hartzeko jarraibideak. Gabeziak gainditzeko eta erronka pertsonalei aurre egiteko laguntzak eta baliabideak.*
	Lan-bizitzara bideratutako Ikasteko Ingurune Digitala eraikitzeko tresnak.
3. Etorkizunera proiektatutako enplegubilaketa aktiboko plan baterako hurbilketa.	Enplegua bilatzeko estrategiak.
	Enplegua bilatzeko tresnak.*
	Marka eta zigilu pertsonala.
	Harreman-sarea.
	CVa, bideocurriculum, portfolio profesionala.
	Lan-elkarrizketa.

TEKNOLOGIA

Teknologia jakintzagaiak egungo gizarteak planteatzen dituen erronka teknologien aurrean herritar digitaletan beharrei erantzuten laguntzen du. Ildo horretan, jakintzagai hau oinarria izango da, bila-kaera soziala ulertzeko ez ezik, herritartasun arduratsua eta aktiboa agertzean irizpide tekniko, zientifiko eta etikoen arabera jarduteko ere bai, ezagutzaren sorkuntza garapen-motor gisa erabiliz eta ikasleek berdintasunean eta diziplinaren ikuspegi integral batekin parte har dezaten sustatuz eta haren alderdi soziala nabarmenduz. Jakintzagaiaren barruan, alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak landuko dira modu integral eta inklusiboan, eta esparru egokia eskainiko da desberdintasun sozioekonomikoak zein genero-desberdintasunak lantzeko. Teknologia jakintzagaia tresna baliagarria da ikasleei

XXI. mendeko erronkei ekiten laguntzeko. Erronka horien artean, ikuspuntu global eta zeharkako batetik abiatuta egin beharreko bizi-tza osoko ikaskuntza dago. Halaber, jarraitutasun koherentea ematen dio DBHko lehen hiru mailetan egindakoari.

Jakintzagaiaren diziplinarteko izaerak irteera-profila lortzen eta etapako helburuak eskuratzen laguntzen du. Izan ere, jakintzagai honetan garapen teknologikak, automatizazioak eta robotizazioak lanaren antolamenduan zein gizartearen beste esparru batzuetan duten eraginarekin zerikusia duten eta ekitaterik ezaren eta bazterketaren aurrean ziurgabetasuna kudeatzeko baliagarriak diren alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak lantzen dira, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzen da. Era berean, iraunkortasuna hertsiki lotuta dago fabrikazio-prozesuei, materialen hautaketa egokiari, manipulazio-teknikei eta baliabideak optimizatzeko aukera ematen duten kontrol-sistemei. Bestalde, teknologikak Garapen Iraunkorrerako Helburuak lantzeko funtsezko baliabideak eskaintzen ditu, hala nola energiarako eta komunikaziorako zein hezkuntzarako, elikadurarako eta osasunerako sarbide unibertsala, besteak beste.

Teknologia bi norabidetan dago lotuta gainerako jakintzagaiekin. Jakintzagai horiei elementu osagarri baten ekarpena egiteaz gain, matematikaren, zientzia esperimental eta sozialen, hizkuntzen eta adierazpide artistikoaren elementuak garatzeko praktika-esparru bat eskaintzen du.

Kompetentzia espezifikoak hertsiki lotuta daude jakintzagaiaren oinarri diren ardatz egituratzaileekin. Jakintzagai hau osatzen duten eta irakatsi eta ikasteko prozesua zehazten duten funtsezko elementuen artean, honako hauek azpimarra daitezke: teknologiararen berezko zeharkako izaera, kolaborazioaren eta talde-lanaren bultzada, pentsamendu konputazionala eta hark automatizazioan eta gailuen internetarako konexioan dituen inplikazioak, garapen teknologiko iraunkorrarekiko erantzukizuna eta teknologia digitalak baliatzen dituen ekintzaitza. Azkenik, trebetasun sozial eta pertsonalen garapenari heltzen zaio, edozein diziplinaren irakaskuntzako funtsezko elementu gisa.

Ebaluazio-irizpideak kompetentzia espezifikoaren garapen-maila baloratzen duten elementuak dira, eta kompetentzia-orientazio nabariarekin formulatzen dira. Pisu espezifiko handia dute hainbat ikaskuntza-testuingurutan garatzen diren oinarrizko jakintzak aplikatzean.

Jakintzagaia oinarritzko jakintzen inguruko elkarri lotutako bost multzotan antolatuta dago. Jakintzagaian landu izan ohi diren multzoak dira, eta bat datoz lan-metodologiarekin, konpetentzia espezifikoeekin eta planteatutako ebaluazio-irizpideekin.

- *Problema ebazteko prozesua*: prozesu teknologiko bateko faseen sekuentzia gisa ulertu behar da; hau da, problemaren identifikazioa eta azterketa, ikerketa, plangintza, dokumentazioa, eraikuntza, produktuaren ebaluazioa eta haren azalpena.
- *Operadore teknologikoak*: proiektuei aplikatuta, egoera errealetan problema kontrol digitaleko tekniken bidez ebaztea ahalbidetzen duten elementu mekaniko, elektronikoko eta pneumatikoen inguruko ikuspegi bat eskaintzen du.
- *Pentsamendu konputazionala, automatizazioa eta robotika*: ordenagailuen zein gailu mugikorren bidez kontrol programatuko sistemak interpretatu, diseinatu eta inplementatzeko oinarriak ezartzen ditu. Adimen artifizialeko moduluak eta datu-ingeniaritzako teknikak txertatzeak eta kontrol-sistemetan telekomunikazioak integratzeak gauzen Internetarako atea irekitzen du, eta aukera ematen du diziplinarteko STEAM proiektuak garatzeko.
- *Teknologia iraunkorra*: materialen erabileran, prozesuen diseinuan eta energia-gaietan beharrezkoak diren iraunkortasun-irizpideen ezagutza eta aplikazioa lantzen du, aniztasun pertsonal, sozial eta kulturalaren garrantzia aitortzen du, eta gai jakin batzuk azpimarratzen ditu, hala nola ikaskuntza-komunitate irekiak eta komunitatearentzako zerbitzuak, konpromiso aktiboarekin, toki-esparruan zein esparru globalean.
- *Zentzu sozioemozionala*: emozioak ulertu eta maneiatzeko, xedeak ezarri eta lortzeko, erabaki arduratsuak eta informatuak hartzeko gaitasuna areagotzeko eta, era horretan, ikasleen ongizatea eta errendimendua hobetzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu.

Jakintzagai hau derrigorrezko hezkuntzako etaparen azken urterako proposatzen da, egiten ikasteko ideian oinarritutako konpetentzia-ikuspegi praktikoa batetik abiatuta. Ideia hori ikasleek ikertzen, aurkitzen, esperimendatzen, aplikatzen eta egiten dutenari buruzko gogoeta egiten ari diren bitartean zeregin jakin batzuk egin ahal izateko ingurune bat eskaintzean datza. Ikasteko egoerak proposatzeak aukera ematen du laneko, prototipatze azkarreko eta 3D inprimaketa-sistemen eta fabrikazio digitaleko beste tresna batzuen bidezko offline fabrikazioko teknikak txertatzeko. Halaber, ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan inplikatzera bultzatzen ditu, eta, beraz, ikaskuntza esanguratsua eta iraunkorra izango da. Ildo horretan, komeni da kontuan izatea proiektu teknologikoak garatzea oso aukera egokia dela Teknologia jakintzagaiaren oinarritzko jakintzak egituratzeko elementu gisa.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Problema teknologikoak ekimen eta sormenarekin identifikatzea eta proposatzea, hurbileko ingurune beharrak aztertuz eta proiektuen inguruko estrategia eta prozesu iteratiboak eta kolaborazioan oinarritutakoak aplikatuz, irtenbideak modu eraginkor eta berritzailean asmatzeko eta planifikatzeko.

Konpetentzia honek hurbileko ingurune beharren azterketa du abiapuntu, problema teknologikoak detektatzeko eta lantzeko. Azterketa egin ondoren, problema ebazteko prozesuaren oinarria izango dira, eta detektatutako beharretarako irtenbide sortzaileak emango dira. Konpetentzia honen barruan, irtenbideen bilaketari, ikerketa zientifikoari eta zereginen ikerketa, plangintza eta kudeaketari lotutako alderdiak sartzen dira. Horrez gain, ikasleei etengabe hobetzeko proiektu kooperatiboak eta iteratiboak kudeatzen irakasteko estrategiak biltzen dira.

Konpetentzia honetan, halaber, sormena trebatzeko eta sustatzeko hainbat teknika lantzen dira, eraginkorragoa izan dadin. Era berean, ekintzailatza-espirtua sustatzen da lidergoa eta lantaldeen koordinazioa kontuan hartzen duen ikuspuntu batetik abiatuta, ikuspegi global batekin eta hezkidetzatratamenduarekin, ekimenaren garapena eta ikasle guztien proaktibitatea sustatuz.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII4, EK1 eta EK3.

2. Diziplinarteko hainbat teknika eta ezagutza behar bezala aplikatzea, prozedura eta baliabide teknologikoak erabiliz eta produktuaren bizi-zikloa aztertuz, planteatutako beharrei erantzun dieten irtenbide teknologikoak lantzeko.

Konpetentzia hau produktuak fabrikatzeko prozesuari zein planteatutako problemetarako irtenbideak ematen dituzten sistemen garapenari lotuta dago. Produktu edo sistema teknologikoak eraiki eta sortzeko beharrezkoak diren teknikak eta prozedurak lantzen dira, eskuzko zein ordenagailuz lagundutako fabrikazioa barnean hartuta. Sortzeko prozesuan abiarazten diren jarduketek jakintzagai honen berezko ezagutzen esku-hartzea dakarte (operadore mekanikoak, elektrikoak eta elektronikoak). Ezagutza horiek beste batzuekin integratzen dira, eta, era horretan, hainbat esparruk parte hartzen duten konpetentzia-ikaskuntzan laguntzen dute.

Horrez gain, produktuaren bizi-zikloaren faseen azterketa lantzen da. Adibidez, fabrikazio-prozesuaren energia-kontsumoari, zaharkitzeari, erabilera-zikloi eta fabrikazioaren, erabileraren edo ziklo-amaieraren ingurumen-ondorioei lotutako alderdien azterketa kritikoa jasotzen da. Era horretan, ekosozialki arduratsuak diren jarrerak eta ohiturak sustatzen dira ingurune fisiko eta birtualetan produktuak erabili eta sortzeko garaian.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM3, STEM5, KD5, KPSII4, HK4 eta KAKK4.

3. Ideia, proposamen edo irtenbide teknologikoak hainbat forotan eraginkortasunez adieraztea, komunikatzea eta zabaltzea, eskuragarri dauden baliabideak erabiliz eta informazioa trukatzeko eta talde-lana sustatzeko beharrezkoak diren elementuak eta teknikak aplikatuz.

Konpetentziak ideiak, proposamenak eta iritziak hainbat testuinguru, baliabide eta kanaletan garbi eta arin komunikatu, adierazi eta zabaltzeko beharrezkoak diren alderdiak biltzen ditu. Hizkuntzaren erabilera egokia eta irtenbide teknologikoak diseinatu eta sortzeko prozesuan beharrezkoa den terminologia teknikoa azpimarratzen dira. Beraz, arreta berezia eskaini beharko zaio ikasleen hizkuntza-trebakuntzari. Horretarako, hizkuntza teknologikoaren berezko hizkuntza-egiturak, testu-egiturak eta terminologiak landu beharko dira arloko komunikazio-hizkuntzan, eta ikasleen hizkuntza-adierazpenak errespetatu, hartu eta ikusarazi beharko dira eta haien balioa agerian utzi beharko da, ikaskuntza teknologikoan laguntzeko barnean hartuta.

Honako alderdi hauek landuko dira: asertibitatea, azalpen-denboraren kudeaketa egokia, adierazpen eta intonazio egokia, testuingururako egokitzapena, hizkuntza inklusibo eta ez-sexistaren erabilera, eta kultura-aniztasunarekiko eta hura adierazteko modu desberdinekiko errespetua. Halaber, tresna digitalen erabilera sortzaileari lotutako alderdiak lantzen dira, baliabideak, dokumentuak eta informazioa hainbat formatutan zabaltzeko eta partekatzeko.

Beste pertsona batzuekin informazioa trukatzeko beharrak lantaldearekiko eta kolaborazio-lanean ezarritako protokoloekiko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa dakar. Hori testuinguru pertsonalean zein tresna digitalen, plataforma birtualen edo komunikazio-sare sozialen bidezko sareko interakzioetan aplikatu beharrezkoa da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM4, KD3, KPSII3, KAKK1 eta KAKK3.

4. Planteatutako problemetarako irtenbide automatizatuak garatzea, beharrezkoak diren ezagutzak aplikatuz eta sortzen ari diren teknologiak gaineratuz, kontrol-sistema programagarriak edo robotikoak diseinatzeko eta eraikitzeko.

Konpetentzia hau sistema autonomoak diseinatu, simulatu edo eraikitzeko prozesuan beharrezkoak diren ezagutza zientifiko-teknologikoen eta pentsamendu konputazionalaren printzipioen aplikazioari lotuta dago. Alde batetik, sistema automatikoak edo robotikoak modelizatzen eta dimentsionatzen bideratutako jarduketak dakartza. Bestetik, makinaren kontrol automatikorako algoritmo egokien inplementazioari edo hainbat gailutan (ordenagailuetan, gailu mugikorretan eta plaka mikrokontrolatzaileetan) problema zehatz bat ebartziko duten aplikazio informatikoen garapenari lotutako alderdiak sartzen dira.

Objektuekiko komunikazioa eta interakzioa hertsiki lotuta daude prozesu edo sistema teknologikoen kontrolarekin. Ildo horretan, kontuan hartu behar da teknologia berriak irakasten hasteko aukera, hala nola gauzen Internet, Big Data edo adimen artifiziala (AA), baita teknologia horiek hainbat motatako sistema teknologikoetako prozesuen automatizazioan txertatzeko aukera ere, zentzu kritiko eta etikoarekin.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM1, STEM3, KD5, KPSII5 eta EK3.

5. Tresna digitalen aukerak baliatzea eta erabiltzea, beren beharretara egokitzuz, konfiguratzuz eta diziplinarteko ezagutzak aplikatuz, zereginak modu sortzaileagoan eta efizienteagoan egiteko.

Konpetentzia honen barruan, tresna eta gailu digitalak txertatzen dira prozesu teknologikoaren faseetan. Ildo horretan, 3D diseinuko tresnen erabilera, simulagailuen bidezko esperimendazioa eta CAM/CAE teknologien aplikazioa lantzen dira produktuen fabrikazioan. Konpetentziaren barruan, halaber, aurkezpen-kudeatzaileak edo hedapen-tresnak erabiltzen dira informazioa jakinarazi edo argitaratzean, eta programak edo aplikazio informatikoak garatzen dira sistemen kontrolean.

Prozesuaren fase bakoitzean, teknologia digitala aplikatzea beharrezkoa da emaitzak hobetzeko. Azken batean, konpetentzia honek ikasteko prozesuan aplikatutako teknologia digitalaren erabilera arduratsua, sortzailea eta efizientea du ardatz. Horretarako, beharrezkoa da erabilitako gailuen eta aplikazioen funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, behar pertsonaletara egokitu ahal izateko. Alde batetik, teknologia digitalak eskaintzen dituen aukeren aniztasuna baliatu behar da, eta, bestetik, diziplinarteko ezagutzen ekarpenak, emandako irtenbideak hobetzeko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM5, KD2, KD5, KPSII4, KPSII5.

6. Prozesu teknologikoak aztertzea, gizartean eta ingurunean duten inpaktua kontuan hartuz eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuz, teknologia modu etiko eta ekosozialki arduratsu batean erabiltzeko.

Teknologiak gizakien beharrei erantzun die historia osoan, eta pertsonen bizi-baldintzak hobetu ditu, baina,aldi berean, eragin negatiboa izan du bizitzaren alderdi batzuetan eta ingurumenean. Konpetentzia honek produktuen diseinuan eta fabrikazioan erabakigarriak diren iraunkortasun-irizpideen beharrezko azterketa hartzen du barnean. Horretarako, energia-kontsumoari, ingurumen-kutsadurari eta inpaktu ekosozialari buruzko gogoeta kritiko bat egiten da. Ildo horretan, komunitate irekien, boluntarioritza-ekin-tzen eta komunitateari zerbitzua emateko proiektuen bidez gizarte-proiektu batzuek izan dezaketen eragina erakutsi nahi da. Halaber, agerian jarriko da emakumeek teknologien garapenari egindako ekarpenaren balioa, haien bokazio zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko.

Helburua da garapen teknologikoa sustatzea, gizarte-ongizatea hobetzeko, betiere arestian aipatutako esparruetan dituzten eraginak txikiagotuz. Horretarako, irizpide guztiak hartu behar dira kontuan, beharra detektatzen denetik, eta sorkuntza-prozesuaren fase guztietan balioetsi behar dira. Ildo horretan, eraikinetako arkitektura bioklimatikokoaren eta garraiobide iraunkorren diseinuan aplikatzen dira alderdi horiek. Azkenik, ingurumenaren mesedetan egiten den energiaren aurrezpenaren eta teknologia berriek Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko egiten duten ekarpenaren balorazioari lotutako jarrerazko alderdi batzuk lantzen dira.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM5, KD4 eta HK4.

7. Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak eza-gutuz eta emozioak eta esperientziak eraginkortasunez identifikatuz eta kudeatuz, ongizate pertsonala sustatzeko eta ikasleei ikaskuntza hobetzea eta zehaztutako helburuak lortzea ahalbidetuko dieten harreman osasungarriak sortzeko.

Teknologiak esku hartzen duen problema teknologikoak edo erronka globalagoak ebazteak lan atsegina izan behar du. Teknologiaren ikaskuntzaren barruan, trebetasun emozionalek ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta ikaskuntzarekiko interesa sustatzen dute. Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da emozioak identifikatu eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, saiaturia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka teknologiko berrien aurrean jarrera proaktiboa agertzea.

Errespetuaren, tolerantziaren, berdintasunaren edo gatazkak modu baketsuan konpontzearen balioak lantzeak, erronka teknologikoak ebazteaz gain (komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuz, harreman eta lan-ingurune osasungarriak sortzeko), autokonfiantza sendotzea eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza-egoerak normalizatzea ahalbidetzen du. Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da gainerakoekiko enpatia agertzea, harreman positiboak ezarri eta haiei eustea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa baliatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Halaber, teknologiaren inguruan aurrez pentsatuta dauden eta alderdi indibidualei eta/edo sozialei lotuta dauden estereotipo eta ideien haustura sustatu behar da.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM3, STEM5, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Teknologia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Ingurunerik hurbilenaren behaketatik eta azterketatik abiatuta, komunitatearentzat balio bat sortzen duten ekintzaile-tza-irtenbide teknologikoak asmatzea eta planifikatzea, beharrak, betekizunak eta hobetzeko aukerak aztertuz.
1.2. Proiektuak kudeatzeko kolaborazio-estrategiak ekimenez, diziplinarteko ikuspegiarekin eta baliozkotze-prozesu iteratibo bati jarraituz aplikatzea, asmatzeko fasea hasten denetik problemak ingurune fisiko eta birtualetan ebazten diren arte.
1.3. Proiektuaren kudeaketari modu sortzailean ekitea, bidezko kolaborazio-estrategiak eta kolaborazio-teknikak eta ahalik eta irtenbiderik efizienteenak eta berritzaileenak asmatzeko ikerketa-metodoak aplikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Planteatutako behar bati erantzun dion produktu baten diseinua aztertzea, haren eskaria, bilakaera eta bizi-zikloaren amaieraren aurreikuspena irizpide etiko eta arduratsu batekin ebaluatuz.
2.2. Produktu eta irtenbide teknologikoak fabrikatzea, lagundutako diseinuko tresnak eta eskuz, mekanikoki eta digitalki lantzeko teknikak aplikatuz eta material eta baliabide mekaniko, elektriko, elektroniko eta digital egokiak erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Informazioa trukitzea eta talde-lana era asertiboan sustatzea, tresna digital egokiak eta sistema teknologiko egokien hiztegi teknikoak, sinboloak eta eskemak erabiliz.
3.2. Proposamen edo irtenbide teknologikoak modu sortzaile eta eraginkorrean aurkeztea eta zabaltzea, hizkuntza-egiturak, hiztegi teknikoak, intonazioa, adierazpena, denboraren kudeaketa, diskurtsoaren egokitzapen egokia eta hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Sistema automatiko programagarriak eta zereginak autonomiaz egiteko gai diren robotak diseinatzea, eraikitzea, kontrolatzea eta/edo simulatzea, mekanika, elektronika eta pneumatikako ezagutzak, kontrol-sistemen osagaiak eta diziplinarteko beste ezagutza batzuk aplikatuz.
4.2. Makina eta sistema teknologikoetan kontrol eta simulazioko aplikazio informatikoak eta teknologia digitalak zentzu kritikoarekin eta etikoarekin txertatzea, hala nola gauzen Internet, Big Data eta adimen artifiziala.

Ebaluazio-irizpideak. Teknologia	
5. kompetentzia espezifikoak	
5.1. Proposatutako zereginak efizentziaz ebaztea, hainbat aplikazio eta tresna digital erabiliz eta konfiguraturaz.	
5.2. Diziplinarteko ezagutzak autonomiaz aplikatzea, agindutako zereginak ebaztean teknologia digitalak etikoki eta arduraz erabiliz.	
6. kompetentzia espezifikoak	
6.1. Teknologia arduraz erabiltzea, materialen hautaketan eta diseinuan eta produktu teknologikoen fabrikazio-prozesuetan iraunkortasun-irizpideak aztertuz eta aplikaturaz, gizartearen eta planetaren gaineko inpaktu negatiboa minimizatuz eta bererabiltzeko eta birziklitzeko ohiturak sustatuz.	
6.2. Arkitektura bioklimatikoak eta garraio elektrikoak ingurunea zaintzeko dakartzaten onurak aztertzea, teknologiek garapen iraunkorrari eta energiaren aurrezpenari egindako ekarpena baloratuz.	
6.3. Komunitate irekien, boluntarioritza-ekintzen edo komunitateari zerbitzua emateko proiektuen bidez izaera sozialeko proiektu teknologikoen garapenak dituen ondorioak eta onurak identifikatzea eta balioestea.	
6.4. Teknologia digitalek gizartearen hainbat esparrutan egindako ekarpenak ezagutzea, bereziki emakumeek egin duten ekarpena baloratuz (haien bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko) eta hainbat kolektibok teknologia horiek eskuratu, erabili eta baliatzeko jasaten duten eten teknologiko eta digitalaz (ekonomikoaz, geografikoaz, generoari lotutakoaz, hizkuntzari lotutakoaz eta abar) jabetuz.	
7. kompetentzia espezifikoak	
7.1. Erronka teknologikoei aurre egitean norberaren emozioak identifikatzea eta kudeatzea, autokontzientzia eta identitate-zentzua garatuz eta estres-iturriak ezagutuz.	
7.2. Teknologiarene jakintzagaiko ikaskuntza-egoerei aurre egitean pertseberantzia eta motibazio positiboa agertzea, kritika arrazoitua onartuz.	
7.3. Aktiboki laguntzea eta harremanak eraikitzea, talde heterogeneoetan lan eginez, elkarren artean modu eraginkorrean komunikatuz, modu kritiko eta sortzailean pentsatuz eta erabaki adostuak eta informatuak hartuz, ikasitako edukiak aplikatzea dakarten problemak ebazteko.	
7.4. Taldean egin beharreko zereginen banaketan parte hartzea, inklusioa eta entzute aktiboa praktikan jarriz, esleitutako rola bere gain hartuz eta egin beharreko ekarpenaz arduraturaz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Teknologia	
A. Problema ebazteko prozesua	
1. Estrategiak eta teknikak	Kolaborazio-proiektuak kudeatzeko estrategiak eta problema ebazteko teknika iteratiboak.*
	Ikastetxeko beharren, tokikoen, eskualdekoen eta abarren azterketa. Kolaborazioedo kooperazio-proiektuen planteamendua.
	Ideazio-teknikak.*
2. Produktuak eta materialak	Ekintzaitza, pertseberantzia eta sormena problema ebaztean (jardura teknologikoaren diziplinarteko ikuspegi batetik abiatuta), eta lanaren eta haren kalitatearen inguruko gogobetetzea eta interesa.
	Produktu baten bizi-zikloa eta faseak. Azterketa sinpleak.*
3. Fabrikazioa	Materialak hautatzeko estrategiak, haien propietate edo betekizunetan oinarrituta.*
	Ordenagailuz lagundutako 3D diseinuko tresnak proiektuei aplikatutako piezak irudikatzean eta/edo fabrikatzean.*
	Eskuz eta mekanikoki fabrikatzeko teknikak. Aplikazio praktikoak.*
	Fabrikazio digitaleko teknikak. 3D inprimaketa eta laser bidezko ebaketa. Aplikazio praktikoak.

Oinarrizko jakintzak. Teknologia	
4. Hedapena	Proiektuaren aurkezpena eta hedapena. Elementuak, teknikak eta tresnak. Komunikazio eraginkorra: hizkuntza-egiturak, hiztegi teknikoak, intonazioa, adierazpena, denboraren kudeaketa, diskurtsoaren egokitzapena eta hizkuntza inklusiboaren eta estereotipo sexistarik gabearren erabilera, kultura-aniztasuna eta haren adierazpen motak errespetatuz, ingurune fisiko eta birtualetan.
B. Operadore teknologikoak	
Elektronika analogikoa. Oinarrizko zirkuituen oinarrizko osagaiak, sinbologia, analisia eta muntaketa fisikoa eta simulatua.*	
Oinarrizko elektronika digitala: Boole-ren aljebra, ate logikoak.	
Oinarrizko pneumatika. Zirkuituak: sinbologia, diseinua, simulazioa eta/edo muntaketa.*	
Robotikan aplikatutako elementu mekanikoak, elektronikoak eta pneumatikoak. Muntaketa fisikoa edo simulatua.*	
C. Pentsamendu konputazionala, automatizazioa eta robotika	
Kontrol programatuko sistemen osagaiak: kontrolagailuak, sentsoreak eta eragingailuak.*	
Ordenagailua eta gailu mugikorak programazio- eta kontrol-elementu gisa*. Simulagailu informatikoen erabilera diseinatu-tako sistemen funtzionamendua egiaztatzean*. Adimen artifizialaren eta Big Dataren hastapenak: aplikazioak. Espazio partekatutako eta disko birtualak.	
Telekomunikazioak kontrol digitaleko sistemetan; gauzen internet: elementuak, komunikazioak eta kontrola; aplikazio praktikoak. Robotika. Robot sinpleen diseinu, eraikuntza eta kontrol fisikoa edo simulatua.*	
D. Teknologia iraunkorra	
Iraunkortasuna materialen hautaketan eta prozesu, produktu eta sistema teknologikoen diseinuan. Berrerabilera eta birziklatzea.*	
Arkitektura bioklimatikoa eta iraunkorra. Energiaren aurrezpena eraikinetan.*	
Garraioa eta iraunkortasuna.	
Komunitate irekiak, boluntariora teknologikoa eta komunitateari zerbitzua emateko proiektuak.	
Emakumeek konpetentzia teknologiko eta digitalen garapenari egindako ekarpena.*	
E. Zentzu sozioemozionala.	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	<p>Problema teknologikoak eta digitalak ebazteko sormena, ekimena, pertseberantzia eta erresiliencia.*</p> <p>Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen (hala nola autokontzientziaren, autoerregulazioaren eta pertseberantziaren) kudeaketa estereotipatu gabea eta egokia.</p> <p>Malgutasun kognitiboaren garapen egokia, beharrezkoa denean estrategia-aldaketa bat bilatuz eta hutsegitea ikasteko aukera bihurtuz.*</p>
2. Talde-lana eta erabakiak hartzeko jarraibideak.	<p>Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak eta parte-hartze aktiboa eta bidezkoa, talde-lana optimizatzeko.*</p> <p>Ingurune analogiko eta digitaletan gatazkak konpontzeko laguntza eskatu, eman eta kudeatzeko prestasuna.</p> <p>Erantzukizunak genero-alborapenik gabe hartzeko jarraibideak, taldearen helburuak lortzeko.</p>
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	<p>Jarrera inklusiboaren aplikazioa eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunaren onarpena.*</p> <p>Gatazkak kudeatzeko jokabide enpatiko eta asertiboaren eta estrategien erabilera.</p>

TEKNOLOGIAKO ETA DIGITALIZAZIOKO HASTAPENAK

Teknologiako eta Digitalizazioko Hastapenak jakintzagaiak curriculumaren funtsezko konpetentziak garatzen eta irteera-profila lortzen laguntzen du. Hala, jakintzagai hau oinarria da ezagutza eta prozesu teknologiko eta digitaletan modu erabat praktikoan hasteko. Horrek teknologia-tailerraren lan-ingurunea-rekin lehen harremana izatea dakar, eta horrek eskatzen du tailerraren berezko espazio, tresna eta se-

gurtasun-neurriekin ohitu beharra. Era berean, ikaste-ingurune pertsonala sortzeko lehen urratsak ematea dakar.

Batez ere diziplinarteko jakintzagaia da, eta askotariko ezagutzak, prozedurak eta jarrerak aplikatzea eskatzen du. Proiektuak garatuz lan egiten da, taldea ardatz nagusizat hartuta. Horrela, kooperazioa eta oztopoak gainditzea sustatzen da. Gainera, zientzietako, hizkuntzetako edo adierazpen artistikoetako elementuak barne hartzen ditu.

Konpetentzia espezifikoek lotura estua dute problemak ebaztearekin, proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren bidez. Era berean, pentsamendu konputazionala eta teknologia digitalak ikaskuntza-prozesuetan txertatzea lantzen da. Azkenik, trebetasun sozial eta pertsonalen garapenari heltzen zaio, edozein jakintzagai irakasteko funtsezko elementu gisa.

Ebaluazio-irizpideek konpetentzia-ikuspegi argia dute, eta helburu dute esparru horretan garatzen diren metodologia aktiboen bidez ikaskuntzaren aplikazioa islatzea. Ikasleen konpetentzia espezifikoak eta, horrenbestez, haien irteera-profila betetzen direla bermatzeko oinarritzko tresnak dira.

Oinarritzko jakintzak bost multzotan egituratzen dira:

- *Problemak ebazteko prozesua*: problema tekniko bat identifikatzen eta problema hori modu konstruktiboan ebazten hasteko aukera emango duten trebetasun eta metodoen garapena jorratzen du.
- *Ideen komunikazioa eta hedapena*: kultura digitalaren berezko dira, eta tresna digitalen bidezko interakzio pertsonalean trebetasunak garatzea eskatzen dute.
- *Pentsamendu konputazionala*: algoritmiaren oinarriak biltzen ditu, blokekako programazio-lengoaiak erabiliz algoritmo sinpleak diseinatzeko eta garatzeko.
- *Ikaste-ingurune pertsonala digitalizatzea*: ikasleek erabili ohi dituzten ekipoak eta aplikazioak konfiguratzen, doitzera eta mantentzera bideratuta dago, bizitza osoko ikaskuntza errazteko.
- *Zentzu sozioemozionala*: emozioak ulertzeko eta maneiatzeko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, ikasleen errendimendua hobetzera eta jakintzagai honekiko jarrera negatiboak murriztera bideratuta.

Jakintzagaia funtsean praktikoa da, eta curriculumaren konpetentzia-ikuspegiak hori sustatuko duten metodologia espezifikoak eskatzen ditu. Horixe da jakintzagai honen proposamena. Era berean, hainbat lan-teknika osagarriren aplikazioak eta jakintzagaian esku hartzen duten ikaste-egoeren aniztasunak ikasleen parte-hartzea sustatu behar dute, diziplinaren ikuspegi integralaz. Gure gizarteak arrakala digitala eta generokoa murrizteko planteatzen dituen erronka teknologikoen aurrean eremu soziala nabarmendu behar da, konpetentzia digitalak berdintasun-baldintzetan eskuratzea zailtzen duten estereotipoak desagerrarazteari arreta berezia jarrita.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Erronka teknologiko errazei autonomiaz eta jarrera sortzailez heltzea, diziplinarteko ezagutzak aplikatuz eta modu antolatuan eta kooperatiboan lan eginez, haietarako irtenbideak eraginkortasunez diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko.

Konpetentzia hau ikasleek lan-ekosistema gisa teknologia-tailerrarekin, horren espazioekin eta objektu bereizgarriekin duten lehen harremanari buruzkoa da. Era berean, ohiko prozedurekin ohitu beharko dute, kolaborazioedo kooperazio-lana funtzionamenduaren ardatz nagusizat hartuta, eta proiektu teknologikoen faseak, berriz, irtenbideak eraikitze oinarritzko ibilbidetzat. Horrek guztiak zereginak planifikatzea eta banatzea eskatzen du, baita talde-lana kudeatzea ere. Ikaskuntza aktiboa sustatzeko erronkei heltzen zaie, horiei erantzuteko garatzen den prozesu osoan zehar ikasleei euren ezagutza eraikitzen laguntzeko.

Diziplinartekotasuna jakintzagai honen oinarrizko osagai bat da, askotariko ezagutzak eta trebetasunak mobilizatzea eskatzen baitu. Jakintzagai erabat praktikoa planteatzen da, eta helburu du, batez ere, ikasleei Teknologia eta Digitalizazioa jakintzagaiari arrakastaz aurre egiten lagunduko dieten trebetasunak garatzea, beste diziplina batzuetako ikaskuntzak abian jartzeaz gain.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM3, KD3, KPSII3, KPSII5, EK1, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

2. Diziplinarteko hainbat teknika eta ezagutza behar bezala aplikatzea, zenbait iturritatik etorritako informazio egokia bilatuz eta hautatuz eta tresna egokiak erabiliz, irtenbide teknologiko iraunkorrak eraikitzeke edo fabrikatzeko.

Konpetentzia espezifiko honek taldean —kolaborazioan edo kooperazioan— eraiki beharreko proiektua edo prototipoa zehazteko erronkari heltzen dio. Horretarako, balioa dakarten informazio-iturriak ikertu eta egiaztatu beharko dira.

Taldean ebaluatuko da hautatutako informazioa eta horren fidagarritasuna eta egiazkotasuna, jarrera kritikoaz, prozesuaren fase guztietan informazio hori aplikatzeko moduan, prototipo bat diseinatzeko, eraikitzeke nahiz fabrikatzeko faseetan, alegia.

Ildo horretatik, ezinbestekoa da ezagutzak diziplinarteko trebetasun eta jarrera jakin batzuekin konbinatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM3, STEM5, KD4, KD5, KPSII1, EK3 eta KAKK3.

3. Problema teknologiko edo digital errazetarako ideiak edo irtenbideak deskribatzea, irudikatzea eta trukitzea, terminologia eta euskarri egokiak erabiliz, informazioa eta proposamenak komunikatzeko eta zabaltzeko.

Konpetentziak barne hartzen ditu ideiak komunikatzeko eta adierazteko, proposamenak azaltzeko, diseinuak irudikatzeke, iritziak adierazteke, etab. behar diren alderdiak. Halaber, prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa komunikatzea eta zabaltzea biltzen du. Alde horretatik, kontuan hartu behar da tresna digitalen aplikazioa prozesu horietan.

Konpetentzia honek, gainera, hizkuntzaren erabilera egokia eskatzen du, baita adierazpen grafiko eta terminologia aproposa ere. Igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio egokia bermatu behar da. Komunikatzeko tresna birtualen bidez zainduko da interakzioa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM4, KD3, KAKK1, KAKK3 eta KAKK4.

4. Algoritmo sinpleak garatzea, blokekako programazio-lengoaiak erabiliz eta pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatuz, problema errazetarako irtenbideak sortzeko.

Konpetentzia hau sormen-prozesuan pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatzeari buruzkoa da. Berekin dakar planteatutako problema deskonposatzen hastea, informazioa egituratzea, prozesua sekuentziatzea eta algoritmoak diseinatzea. Horrela, helburu jakin bat lortzeko algoritmo sinpleak diseinatzea eta aktibatzea bideratuta dago konpetentzia. Oinarrizko algoritmoak garatzearekin lotu daiteke, blokekako programazio-lengoaiak erabiliz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM1, STEM3, KD5, KPSII5 eta EK3.

5. Beren ikaste-ingurune digitaleko ohiko gailu eta aplikazioen funtzionamendu-oinarriak ulertzea, euren beharretara egokituz, problema tekniko errazak ebazteke.

Konpetentzia hau ikaste-ingurune digitalean biltzen diren elementuen ezagutzari, erabilera seguruari eta mantentzeari buruzkoa da. Gure bizitzetan teknologiaren presentzia areagotu denez, beharrezkoa da tresna digitalak etengabeko ikaste-prozesuan integratzea. Horregatik, konpetentzia honen barruan sartzen da prozesuan inplikaturako gailuen funtzionamendua ulertzea eta intzidentzia txikiak identifikatzea.

Bestalde, ikaste-ingurune digitalean sartutako software-aplikazioek erabiltzailearen behar pertsonaletara egokitutako konfigurazioa eta doikuntza eskatzen dute. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KD4, KD5, KPSII4 eta KPSII5.

6. Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak ezagutzuz, esleitutako rolak izango dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, teknologiko eta digitalizazioko ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeko, ongizate pertsonala sustatzeko eta ikasleek beren ikaskuntza hobetzea ahalbidetuko dituzten harreman osasungarriak sortzeko.

Teknologiak eta digitalizazioak esku hartzen duten problema teknologikoak edo erronka globalagoak ebazteak lan atsegina izan behar du. Jakintzagai honen ikaskuntzaren barruko trebetasun emozionalek ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta ikasteko interesa sustatzen dituzte. Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, jarrera positiboa izatea, saiaturia izatea eta modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, eta ikasleen ikaskuntza eta ongizate pertsonala bultzatzen du.

Bestalde, errespetuaren, tolerantziaren, berdintasunaren edo gatazken konponbide baketsuaren balioak landu nahi dira,aldi berean ikasleek erronka teknologikoak eta digitalak ebazten dituzten bitartean, harreman eta lan-ingurune osasungarriak sortzeko komunikazio eraginkorreko, plangintzako, ikerketako, motibazioko eta konfiantzako trebetasunak garatuz. Horretarako, esleitutako rolak izango dituzten talde heterogeneoetan parte hartzea sustatuko da. Horri esker, harreman osasungarriak, solidarioak eta konprometituak eraiki ahal izango dira, autokonfiantza sendotu ahal izango da eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzako egoerak normalizatu ahal izango dira, baita ingurune digitaletan ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM3, STEM5, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, EK2, EK3, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak. Teknologiko eta Digitalizazioko Hastapenak
1. konpetentzia espezifikoak
1.1. Zehaztutako problemetarako irtenbide errazak asmatzea eta diseinatzea, diziplinarteko kontzeptuak, teknikak eta prozedurak jarrera eraikitzaileaz aplikatuz.
1.2. Materialak eta tresnak hautatzea, planifikatzea eta antolatzea, baita planteatutako problema bati irtenbidea emateko behar diren zereginak ere, banaka edo taldean lan eginez, modu kooperatiboan eta gainerako parte-hartzaileekiko errespetuz.
2. konpetentzia espezifikoak
2.1. Planteatutako problemak edo beharrak zehaztea, zenbait iturritatik etorritako informazioa modu kritiko eta seguruan bilatuz eta kontrastatuz, eta horien fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz.
2.2. Materialak manipulatu eta konformatu objektuak edo modeloak fabrikatzea, erreminta eta makina egokiak erabiliz, egituren, mekanismoen eta elektrizitatearen oinarriak aplikatuz eta segurtasun- eta osasun-arauak errespetatuz.
3. konpetentzia espezifikoak
3.1. Produktu bat sortzeko prozesua irudikatzea eta jakinaraztea, hura diseinatzen denetik hedatzen den arte, tresna digitalen laguntzaz dokumentazio tekniko landuz eta formatu eta hitz tekniko egokiak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoak
4.1. Algoritmoen eta fluxu-diagramen bidez oinarritutako informatika-problemetarako irtenbideak interpretatzea eta diseinatzea, programazio-elementu eta -teknika egokiak aplikatuz.
4.2. Algoritmo sinpleak programatzea, blokekako programazio-elementuak egoki erabiliz eta edizio-tresnak baliatuz.

Ebaluazio-irizpideak. Teknologiako eta Digitalizazioko Hastapenak
5. konpetentzia espezifikoak
5.1. Arazo errazak ebazteko, egunero erabili ohi diren gailu digitalak eraginkortasunez eta segurtasunez erabiltzea, datuak eta ekipoak babesteko neurriak hartuz.
5.2. Edukiak sortzea eta materialak prestatzea, ikaste-inguruneke ohiko tresna digitalak behar bezala konfiguratuz, beren beharretara egokituz eta egile-eskubideak errespetatuz.
5.3. Informazioa modu egituratuan antolatzea, biltegitratze seguruko teknikak aplikatuz.
6. konpetentzia espezifikoak
6.1. Norberaren emozioak kudeatzea eta jarrera positiboa erakustea, teknologiak ikasteko egoerei aurre egiteko.
6.2. Talde-lanean aktiboki laguntzea eta harreman positiboak eraikitzea, modu eraginkorrean komunikatuz, modu kritikoa eta sortzailean pentsatuz, eta erabaki eta irizpen informatuak hartuz.
6.3. Taldean egin beharreko lanen banaketan parte hartzea, inklusioa, entzute aktiboa eta emakumeen ahalduntzea bultzatuz, esleitutako rola hartuz eta taldeari egiten zaion ekarpenaz arduratuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak. Teknologiako eta Digitalizazioko Hastapenak
A. Problema ebazteko prozesua.
Problema ebazteko prozesuak: estrategiak, teknikak eta faseak.
Produktu eta sistema teknologikoen analisia.
Oinarrizko sistema mekanikoak eta elektrikoak. Muntaketa fisiko sinpleak.
Manipulatzeko eta mekanizatze erremintak eta teknikak.
Segurtasun- eta higie-arauekiko errespetua.
Teknologia iraunkorra. Garapen iraunkorreko helburuak lortzeko egindako ekarpenaren balorazio kritikoa.
B. Ideien komunikazioa eta hedapena.
Planoak eta objektuak irudikatzeke 2Dko eta 3Dko CAD aplikazioak.
Dokumentazio tekniko lantzeko, argitaratzeko eta hedatzeko tresna digitalak. Hiztegi tekniko egokia.
C. Pentsamendu konputazionala.
Pentsamendu konputazionalako hastapenak.
Algoritmo sinpleak.
Blokekako programazioa.
D. Ikaste-ingurune pertsonalaren digitalizazioa.
Gailu digitalak. Hardwarearen eta softwarearen elementuak. Erabilera segurua. Identitate digitala.
Ikasteko tresnak eta plataformak. Konfigurazioa, mantentzea eta erabilera kritikoa.
Edukiak editatzeko eta sortzeko tresnak. Informazioaren erabilera arduratsua eta informazioa tratatzeko, antolatzeke eta modu seguruan biltegitratzeke teknikak.
E. Zentzu sozioemozionala.
Problema teknologikoak konpontzeke jakin-minaren, ekimenaren eta pertseberantziaren sustapena, ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak ezagutzuz.
Talde-lana optimizatzeke teknika kooperatiboak. Gatazkak kudeatzeke jokabide enpatikoaren eta estrategien erabilera.
Jarrera inklusiboaren sustapena eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunaren onarpena.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAKO EREMUAK

ZIENTZIA APLIKATUAK

Ikasleen prestakuntza integrala lortzeko, beharrezkoa da pertsonalki eta profesionalki garatu ahal izatea, zientziari lotutako gaietan inplikatzeko, erabaki arrazoituak hartzea eta etengabeko garapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozialean murgilduta dagoen mundu honetan moldatzea ahalbidetuko duten ezagutza zientifikoak ulertzea, gizarte demokratikoan herritar konprometitu gisa integratu ahal izateko.

Oinarrizko mailako heziketa-zikloetan, Zientzia Aplikatuaren esparruko curriculum-garapenak irakaskuntza horien xede pedagogikoei erantzuten die: lehenik eta behin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak eskuratzeko aukera erraztea, Zientzia Aplikatuak izeneko esparru berean bilduta dauden Biologia, Geologia, Fisika, Matematika eta Kimika ikasgaien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak integratzearen bidez; bigarrenik, bizitza osoko etengabeko ikaskuntzarako konpetentziak garatzen laguntzea, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan ikasten jarraitu ahal izateko.

Esparruko konpetentzia espezifikoak ikasleek oinarrizko hezkuntza amaitzean duten irteera-profilean zehaztutako funtsezko zortzi konpetentzien deskriptoreei lotuta daude zuzenean. Konpetentzia espezifikoak honako hauek dira, labur-labur adierazita: fenomeno natural nagusiak ezagutzea eta legeak eta teoriak aplikatuz azaltzea; eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko arazoak eta egoerak interpretatzea eta modelizatzea; metodologia zientifikoak erabiltzea; ekintza jakin batzuek osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak aztertzea; informazio eta datu zientifikoak interpretatu eta helaraztea; eta askotariko testuinguruetan inplikaturako zientziak eta matematika identifikatzea.

Halaber, bereziki garrantzitsuak dira komunikazioa eta talde-lana (era integratzailean eta aniztasuna errespetatuz), informazioaren gizartean moldatzea ahalbidetuko duten trebetasunak baitira. Azkenik, konpetentzia sozioemozionalak funtsezko elementuak dira beste konpetentzia espezifiko batzuk garatzeko. Hori dela eta, curriculumean arreta berezia eskaintzen zaio trebetasun horien hobekuntzari.

Konpetentzia espezifikoen eskuratzeko-maila ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatuko da. Irizpide horiek konpetentzia espezifikoei zuzenean lotuta diseinatu dira, eta, beraz, erabateko konpetentzia-ikuspegia ematen zaio esparruari. Oinarrizko jakintzek konpetentzia espezifikoak eskuratzeko lagunduko duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskaintzen dituzte. Ez dago zuzeneko lotura unibokorik ebaluazio-irizpideen eta oinarrizko jakintzen artean. Aitzitik, konpetentzia espezifikoak hainbat jakintzaren mobilizazioaren bidez ebaluatu ahal izango dira, eta multzoen arteko konexioak eta dagokion lanbide-arloari lotutako alderdiekiko konexioak ezartzeko beharrezkoa den malgutasuna emango da.

Matematika Aplikatua ikasgaiari dagozkion jakintzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako multzo beretan egituratuta daude: zentzu numerikoaren bidez, zenbakitzeari eta kalkulari buruzko ezagutza aplikatzen da hainbat testuingurutan, bereziki profesionalean; neurriaren zentzuak mundu naturaleko objektu eta izaki bizidunen ezaugarrien ulermena eta konparazioa ditu ardatz; zentzu espazialak gure munduaren alderdi geometrikoak ulertzea du helburu; zentzu aljebraikoak matematika eta zientziak komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza eskaintzen du; azkenik, zentzu estokastikoak datuen analisia eta interpretazioa eta ausazko fenomenoaren ulermena biltzen ditu, lan-arloan eta, oro har, ziurgabetasunez betetako mundu honetan erabakiak hartzeko oinarria izateko.

Zientzia Aplikatuak ikasgaiari lotutako oinarrizko jakintzak hainbat multzotan taldekatuta daude. Multzo horietan, oinarrizko lau zientzien (Biologia, Fisika, Geologia eta Kimika) inguruko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dira, ikasleei zientziari, haren metodologiei eta lan-arloan dituen aplikazioei buruzko funtsezko ikaskuntzak emateko eta, era horretan, beren profil pertsonala, soziala

eta profesionala osatzeko. Ikasgai honetako oinarrizko jakintzek honako hauek egitea ahalbidetuko diete ikasleei: beren organismoaren anatomia eta fisiologia eta organismoa zaintzeko ohitura osasungarriak analizatzea, osasun publikoarekin gizarte-konpromiso bat ezartzea, sistema biologiko eta geologikoen funtzionamendua aztertzea, garapen jasangarriaren garrantzia baloratzea, materiaren egitura eta eraldaketak azaltzea, eta sistema fisiko-kimikoen arteko interakzioak eta energiak gizartean duen garrantzia aztertzea.

Gainera, curriculumean zehar esplizituki garatu behar diren jakintzak dituzten bi multzo sartzen dira: "Oinarrizko trebetasun zientifikoak" multzoan zientzia berezko estrategiak eta pentsamoldeak sartzen dira. "Zentzu afektiboa" multzoaren helburua da estrategiak hartzea eta aplikatzea emozioak ulertzeko eta maneiatzeko, xedeak ezarri eta lortzeko, enpatia sentitu, eta elkartasuna, gutxiengoekiko errespetua eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra adierazteko jarduera zientifiko eta profesionalean. Horrela, beraz, erabaki arduratsuak eta informatuak hartzeko gaitasuna areagotzen da, eta horrek ikasleek zientzietan duten errendimendua hobetzea, haiekiko jarrera negatiboak murriztea eta problemak ebazteko eta talde-laneko estrategiak garatzeko ikaskuntza aktiboa sustatzea dakar. Zentzu horri dagozkion jakintzak curriculum osoaren garapenean txertatu behar dira esplizituki.

Kontuan hartu behar da jakintzak aurkezteko ez zaiola ordena kronologiko bati jarraitu behar. Izan ere, curriculum osotasun integratu gisa diseinatu da, eta esparru zientifiko bat osatzen du.

Konpetentziak garatzeko, hezkidetzan oinarrizko eta ikasleen errealitatearekin lotutako diziplinarteko ikuspegi batekin landu diren zientziaren berezko metodologiak erabiltzea proposatzen da. Horren bidez, ahal bada testuinguru pertsonalari eta aukeratutako lanbide-arloari lotuta egongo diren ikaskuntza-egoerak planteatzearen bidez ikaskuntza esanguratsua izatea lortu nahi da. Eta, hori guztia, egungo munduko erronkekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin konprometituta egongo diren ikasleen prestakuntzan laguntzeko, haien lanbide-integrazioa eta gizarte demokratiko eta pluralean bete-betean parte hartzeko aukera errazteko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Fenomeno natural nagusiak zergatik gertatzen diren ezagutzea eta fenomeno horiek legeen eta teoria zientifikoekin terminoekin azaltzea, eguneroko egoerak aztertuz, zientziak gizarteari egindako ekarpenaren balioa agerian uzteko.

Zientziak STEM ikuspegi integratzailetik abiatuta ikasteko oinarri garrantzitsuetako bat mundu errealean gertatzen diren fenomeno oinarri zientifikoekin ezagutza da. Ikasle trebeek inguruan gertatzen denaren arrazoi zientifikoak ezagutzen dituzte, eta lege eta teoria zuzenen bidez interpretatzen dute gertatzen dena. Horri esker, ikasleek erlazio konstruktiboak ezarri ahal izango dituzte zientziaren, lanbide-ingurunearen eta eguneroko bizitzaren artean, eta horrek beste fenomeno desberdin batzuen interpretazioak egiteko trebetasunak garatzea ahalbidetuko die, fenomeno horiek alde aurretik ikasi ez badira ere. Konpetentzia espezifikoa hau eskuratzean, zientziarekiko eta ingurunearen eta bizikaltatearen hobekuntzarekiko interesa pizten da ikasleengan.

Alderdi garrantzitsu jakin batzuek (hala nola ingurumenaren kontserbazioak edo osasunaren zaintzak) oinarri zientifikoa dute. Alderdi horien azalpena eta oinarrizko funtsak ulertzeak errealitatea hobeto ulertzeko aukera ematen die ikasleei, eta horrek hezkuntza-, gizarte- eta lanbide-ingurunean garapen globalarekin inplikaturako eta konprometitutako herritar gisa aktiboki parte hartzera bultzatzen du.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, STEM6, KD1, KPSII4, HK3.

2. Eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko problemak eta egoerak termino zientifiko eta

matematikoekin interpretatzea eta modelizatzea, estrategia, arrazoibide eta tresna teknologiko desberdinak eta pentsamendu konputazionala aplikatuz, konponbideak aurkitu eta analizatzeko, haien baliotasuna ziurtatuz.

Arrazoibidea eta problemen ebazpena funtsezko trebetasuntzat hartzen da, jarduera zientifiko edo teknikoak egiteko ez ezik, beste edozein lanbide-jarduera egiteko ere bai. Izan ere, funtsezko osagaiak dira STEM ikasgaiak ikasteko, eta lanbide-ingurunean aplikatu behar dira. Problema bat ebazteko, funtsezkoa da irakurketa arretatsua eta ulermenezkoa egitea, planteatutako egoera interpretatzea, informazio garrantzitsua ateratzea eta hitzeko enuntziatua aurrez eskuratutako prozeduren bidez ebazteko moduko forma bihurtzea. Prozesu hori osatzeko, hainbat arrazoibide mota erabiltzen dira (dedukziozkoak zein indukziozkoak) konponbidea lortzeko. Horretarako, galdera egokiak egin behar dira, eta ezagutzen mobilizazioa, prozeduren eta algoritmoen erabilera eta abar dakarten estrategiak aukeratu behar dira. Pentsamendu konputazionalak ere funtsezko zeregina betetzen du problemen ebazpenean, hainbat arrazoibide mota biltzen baititu, hala nola automatizazioa, pentsamendu algoritmikoa eta deskonposizioa. Lortutako konponbideen azterketak haien baliotasunari buruzko gogoeta kritikoa sustatzen du, ikuspuntu matematiko hutsetik zein ikuspegi orokor batetik, iraunkortasunari, kontsumo arduratsuari, genero-berdintasunari, ekitateari edo inklusioari lotutako alderdiak baloratuz.

Kompetentzia hau garatzeak pentsamendu malguagoa eta askotarikoagoa sustatzen du, hainbat testuingurutan problemak ebazteko trebetasuna hobetzen du, zientzien eta matematikaren inguruko pertzepzioa zabaltzen du eta oinarriko kontzeptuak aberastu eta finkatzen ditu. Horrek guztiak konpromiso-maila handiagoa dakar.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KPSII4, EK1.

3. Metodo zientifikoak erabiltzea, araketak eginez eta proiektuak burutuz, pentsamendu zientifikoaren berezko arrazoibideak garatzeko eta metodologia zientifikoaren erabilerari lotutako trebetasunak hobetzeko.

Trebetasun zientifikoak baliatzeak lan zientifikoaren berezko metodologiaren erabilera pixkanaka menderatzea dakar, mundu naturalaren funtsezko alderdiei buruzko ikerketak eta araketak egin ahal izateko. Kompetentzia espezifiko hau garatzeak eguneroko ingurunea behatzeko gaitasuna lortzea, ingurune horri buruzko galderak eta hipotesiak egitea eta hipotesi horien egiazkotasuna egiaztatzea dakar. Horretarako, esperimentazioa eta kasu bakoitzean egokienak diren tresnak eta arauak erabili behar dira.

Gainera, metodologia zientifikoaren erabileran moldatzea funtsezko tresna da zientzian egiten den proiektu bidezko kolaborazio-lanaren esparru integratzailean, eta garrantzi berezia du lanbide-heziketan, ikasleen lanbide-profila osatzen laguntzen baitu. Hori dela eta, garrantzitsua da ikasleek kompetentzia espezifiko hau praktikaren bidez garatzea eta etorkizunean beren lanbidean jardutean jarrera horiei eusteko gai izatea.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD3, KPSII4, KPSII5, EK1.

4. Eguneroko edo lanbide-ingurunekeo ekintza jakin batzuek osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak analizatzea, oinarri zientifikoetan oinarrituz eta tresna eta arrazoibide matematikoak erabiliz, osasun indibiduala eta kolektiboa hobetzen duten eta garapen

jasangarriarekin bateragarriak diren ohituren garrantzia baloratzeko.

Giza jarduerak aldaketa handiak eragin ditu eta eragiten ditu ingurunean, Lurraren historian aurrekaririk gabeko aurrerapen-eritmo batekin. Aldaketa horietako batzuek (hala nola Lurraren batez besteko tenperaturaren igoerak, hondakin plastikoen metaketak, ekosistemen suntsipenak, edateko uraren eta beste baliabide batzuen eskuragarritasun txikiagoak eta erleen populazioen murrizketa larriak) arrisku larrian jar ditzakete funtsezko giza jarduera batzuk. Haien artean, elikagaien ekoizpena azpimarratu behar da.

Halaber, egungo bizi-ereduak mundu garatuko herritarrengan gero eta ohikoagoak diren ohitura kaltegarri jakin batzuk bultzatu ditu, hala nola gantz eta azukre kantitate handiko dieta, egoneko bizitza eta teknologia berriekiko adikzioa. Horren ondorioz, gora egin du egungo gizartean arazo handiak dakartzaten patologia batzuen maiztasunak.

Konpetentzia hau garatzean, ikasleek jakingo dute ekintza eta ohitura osasungarri eta jasangarri jakin batzuk (hala nola elikadura osasungarria, ariketa fisikoa, gizarte-interakzioa eta kontsumo arduratsua) lagungarriak izan daitezkeela osasun indibiduala eta kolektiboa zaindu eta hobetzeko, eta arestian deskribatutako ingurumen-joera negatiboak geldiarazteko. Hori dela eta, ikasleek herritar gisa erabateko garapen eta integrazio profesionala eta pertsonala lortzeko, ezinbestekoa da bizi-estilo osasungarria eta jasangarria justifikatzen duten oinarri zientifikoak ezagutzea eta aplikatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD4, KPSII2, HK4.

5. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, aldeztatik haien egiazkotasuna egiaztatuz, formatu analogiko eta digitalean eta hitzezko hizkuntza edo hizkuntza grafiko bat erabiliz, gizarte- eta lanbide-inguruneke ezagutzak eskuratzeko eta finkatzeko.

Zientzia-esparruetan eta bizitzako beste egoera askotan, etengabeko informazio-eraso bat dago, eta informazio hori hautatu, interpretatu eta analizatu egin behar da. Askotan, informazio zientifikoa askotariko formatuetan ematen da, hala nola enuntziatuetan, grafikoetan, tauletan, ereduetan, diagrametan eta abar, eta horiek ulertu egin behar dira zientzian behar bezala lan egiteko. Era berean, hizkuntza matematikoak komunikazio globaleko tresna eraginkor bat eskaintzen du zientzia ikasteko, eta dauden diziplina zientifikoetako hizkuntza espezifikoek ulertu eta aplikatu beharreko arau batzuei jarraitzen diete.

Konpetentzia honen bidez, ikasleek honako trebetasun hauek garatzen dituzte, besteak beste: informazio zehatza eta egiazkoa hautatzea, ematen den informazioaren interpretazio zuzena egitea eta behaketa edo azterketa batean oinarrituta helaraztea, hainbat formatu behar bezala erabiliz eta diziplina zientifikoetako komunikazio-arau espezifiko jakin batzuk kontuan hartuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM2, STEM4, KD1, KPSII4, KAKK3.

6. Askotariko testuinguruetan inplikaturako zientziak eta matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak erlazionatuz, eguneroko bizitzako eta dagokion lanbide-esparruko egoeretan aplikatzeko.

Zientzien eta matematikaren ezagutzak gizartearen beharrari eta gizakiek aurrean dituzten diziplina

anitzeko erronka handiei erantzuten die. Oinarrizko Lanbide Heziketaren curriculumean Zientzia Aplikatuak esparrua txertatuta egotea zientziarako konpetentzia handitzeko funtsezko tresna gisa baloratu behar dute ikasleek, eskuratzen dituzten ezagutzak esperientzia akademiko eta profesionalarekin konektatzeko aukera ematen baitie, ikaskuntza esanguratsuagoa izan dadin eta gerora hainbat egoeratan erabili ahal izan dadin.

Beraz, garrantzitsua da ikasleek zientziak eta matematika hainbat testuingurutan (eta, bereziki, testuinguru pertsonalean, sozialean eta profesionalean) identifikatzeko eta esperimentatzeko aukera izatea. Azken testuinguru hori bereziki garrantzitsua da, ikasleek ezagutza zientifikoak beren lanbide-adarraren barruan betetzen duen zeregina ezagutu behar baitute.

Zientzien eta matematikaren eta beste esparru batzuen arteko lotura ez litzateke ezagutzetara mugatu beharko. Aitzitik, trebetasun eta jarrera zientifikoetara zabaldu beharko litzakete, bizitza errealeko beste testuinguru batzuetan eta ingurune pertsonal, sozial eta profesionaleko problemen ebazpenean aplikatu eta transferitu ahal izan daitezten.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KPSII5, HK4, EK1, KAKK2.

7. Trebetasun pertsonalak garatzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, errorea ikasteko prozesuaren parte gisa onartzeko estrategiak praktikan jarritz eta ziurgabetasun-egoeren aurrean egokituz, helburuak lortzeko pertseberantzia eta zientzien ikaskuntzaren balorazioa hobetzeko.

Galderak egiteak eta pentsamendu zientifikoak eta arrazoibide matematikoak esku hartzen duten problema zientifikoak edo erronka orokorrak ebazteak ez luke zeregin gogaikarria izan beharko ikasleentzat. Ildo horretan, zientzien eta matematikaren ikaskuntzan trebetasun emozionalak garatzeak ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta esparruko ikaskuntzarekiko interesa sustatzen ditu.

Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da emozioak identifikatu eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, saiaturia izatea, modu kritikoa eta sortzailean pentsatzea, erresilientea izatea eta erronka berrien aurrean jarrera proaktiboa agertzea. Konpetentzia hau eskuratzen laguntzeko, beharrezkoa da ikasleek norberaren pentsamenduari buruzko gogoeta egiten lagunduko duten, blokeoak saihestuko dituzten eta esparruko ikaskuntzaren aurrean autokontzeptuaren hobekuntza sustatuko duten erronka txiki batzuei aurre egitea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, HK1, EK1, EK3.

8. Gizarte-trebetasunak garatzea eta esleitutako rola dituzten hainbat taldetan lankidetzan aritzea, berdinen arteko hazkundea sustatzeko, ikerketa zientifikoan genero-rolak apurtzeak duen garrantzia baloratuz ekintzailatza pertsonalerako eta lan-ekintzailatzarako.

Aurrerapen zientifiko ahalegin kolektiboaren ondorioa da, eta oso gutxitan izaten da gizabanako bakar baten lanaren emaitza. Zientziak askotan diziplina desberdinetakoak diren profesionalen arteko komunikazioa eta kolaborazioa behar ditu. Halaber, ezagutza berriak sortzeko, funtsezkoa da ikerketa-talde batek lortutako ondorioak eta prozedurak komunitate zientifiko osoarekin partekatzea. Ezagutza horiek, aldi berean, ikerketa eta aurkikuntza berrietarako oinarria dira.

Azpimarratu beharra dago, gainera, interakzioa eta kolaborazioa oso garrantzitsuak direla, testuinguru zientifikoan ez ezik, hainbat lanbide- eta gizarte-esparrutan ere bai. Talde-lanak aukera ematen du zenbaitetan oso desberdinak diren ikuspuntuak elkartrukatzeko, eta, horri esker, lortutako emaitzak eta

parte-hartzaileen garapen pertsonala aberastu egiten dira. Ikasleek beren gain hartu behar dute kolaborazioak komunikazio- eta gizarte-trebetasunak mobilizatzea dakarrela, jarrera tolerantea eta irekia agertu behar dela besteen ideien aurrean, eta genero-rolak eta estereotipo sexistak apurtzeak duen garrantzia baloratu behar dela.

Kompetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM2, STEM4, STEM6, KD3, KPSII3, HK2, HK3, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. kompetentzia espezifikoa
1.1. Fenomeno naturalik garrantzitsuenak printzipio, teoria eta lege zientifikoen termino egokietan azaltzea, erabaki arrazoituak hartzeko estrategia gisa.
1.2. Zientziak gizarteari egindako ekarpena eta zientzia garatu duten gizonen eta emakumeen lana justifikatzea, ikerketa zientziaren, teknologiararen, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioaren ondorioz etengabe bilakatzen ari den lan kolektibotzat hartuz.
2. kompetentzia espezifikoa
2.1. Arazo egoera bat konpontzeko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapenak egitea, emandako datuak antolatuz eta egindako galderak ulertuz.
2.2. Problema baten konponbideak aurkitzea, emandako datuak eta informazioa, ezagutza estrategiko eta tresna egokiak erabiliz.
2.3. Problema bati emandako soluzioen zuzentasuna eta planteatutako testuinguruan duten koherentzia egiaztatzea baliozkotasuna ziurtatuz.
2.4. Erreminta teknologikoak erabiltzea problemak irudikatzean, ebaztean eta soluzioak egiaztatzean, kasu bakoitzean egokienak aukeratuz.
3. kompetentzia espezifikoa
3.1. Erantzun edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoa, behaketa, informazioa eta arrazoiketa erabiliz, fenomeno naturalak azalduz eta horiei buruzko iragarpenak eginez.
3.2. Fenomeno naturalei buruzko esperimenduak diseinatzea eta egitea eta datu kuantitatibo eta kualitatiboak lortzea bai natura-ingurunean bai eta laborategian. fenomeno naturalei buruzko esperimenduak diseinatzea eta egitea, eta datu kuantitatibo eta kualitatiboak lortzea eta, horretarako, zuzen erabiltzea tresna, erreminta edo teknika egokiak, galdera zehatzei erantzuten dieten edo hipotesi baten egiazkotasuna alderatzen duten emaitza argiak lortzean.
3.3. Ikerketa-proiektuetan lortutako emaitzak interpretatzea, arrazoibidea eta, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz.
4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Ekintza indibidual jakin batzuek organismoan eta ingurune naturalean dituzten ondorioak ebaluatzea, ohitura osasungarriak eta jasangarriak proposatuz, eskuratutako ezagutzetan eta eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta.
4.2. Biodibertsitatearen zaintza, ingurumenaren kontserbazioa, ingurune izaki bizidunen babeseta, garapen jasangarria eta bizi-kalitatea erlazioztatzea oinarri zientifikoak erabiliz.
4.3. Biodibertsitatearen zaintzaren, ingurumenaren kontserbazioaren, ingurune izaki bizidunen babesaren, garapen jasangarriaren eta bizi-kalitatearen garrantziari buruz argudiatzea, oinarri eta irizpide zientifikoak erabiliz.
4.4 Organismoen izaera eta ekosistemetan dituzten interakzioak aztertzea, tresna eta arrazoibide matematikoak erabiliz, ohitura osasungarriak eta garapen jasangarria bultzatuz.
5. kompetentzia espezifikoa
5.1. Informazio zientifiko eta matematikoa garbi eta zehatz antolatzea eta komunikatzea ahoz, modu grafikoan, zenbakiekin eta abar, formaturik egokiena erabiliz.
5.2. Eguneroko bizitzan agertzen den informazio zientifiko eta matematikoa jarrera kritikoarekin aztertzea eta interpretatzea.

5.3. Iturri fidagarriak behar bezala erabiltzea eta aipatzea, edukiak kontsultatzean eta sortzean informazio zientifiko garrantzitsua hautatuz eta norberaren eta taldearen ikaskuntza hobetuz.
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Askotariko egoeretan zientzien eta matematikaren berezko prozedurak aplikatzea, gizarte- eta lanbide-testuinguruetan jakintza-arloen arteko konexioak ezarriz.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1. Erronka akademikoen aurrean erresilientzia agertzea, errorea eta ziurgabetasun-egoerak zientziak ikasteko prozesuan hobetzeko aukeratzat hartuz.
8. kompetentzia espezifikoa
8.1. Proiektu zientifiko baten barruan funtzio jakin bat arduraz bere gain hartzea, balioaren ekarpena eginez, taldeko gainerakoen ekarpenak kritikoki aztertuz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa sustatuz.
8.2. Gizartea hobetzera bideratutako kolaborazio-proiektu zientifikoei ekitea, era gidatuan eta metodologia egokiari jarraikiz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak
Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaien identifikazioa eta formulazioa, hipotesiak lantzeko zeregina eta esperimendazioaren bidezko egiaztapena. Ikerketa-proiektuak.
Ikaskuntza zientifikoaren inguruneak eta baliabideak (hala nola laborategia eta ingurune birtualak): erabilera egokia, betiere norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuta daudelarik.
Hizkuntza zientifikoa: informazio zientifikoaren interpretazioa, ekoizpena eta komunikazio eraginkorra, eskola- eta lanbide-testuinguruan eta hainbat formatutan.
Zientziaren eta zientzian diharduten pertsonen egiten duten jardueraren balorazioa, eta zientziak giza jakintzaren esparru guztiei eta gizartearen aurrerapenari eta hobekuntzari egiten dien ekarpenaren aitortzea.
Magnitude fisikoen neurria eta zenbakizko adierazpena: magnitude-ordena, notazio zientifikoa, neurketen eta emaitzen doitasun-adierazleak eta neurketa-unitateen garrantzia
Problemak ebazteko estrategiak
B. Zentzu numerikoa
Zenbaki arruntak, osoak, dezimalak, arrazionalak eta irrazional esanguratsuak (erro karratuak, π ...): interpretazioa, antolamendua zenbakizko zuzenean, eta eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko problemak ebazteko aplikazioa.
Zenbaki arrunt, oso, arrazional edo hamartarrekin egindako eragiketak edo eragiketa-konbinazioa (batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa eta berreketak berretzaile osoekin): identifikazioa, propietateak eta aplikazioa problemak ebazteko. Kalkulu mentala eskuz edo kalkulagailuarekin egiteko estrategiak.
Zatitzaileak eta multiploak: erlazioak eta zenbaki lehenetako faktORIZAZIOAREN erabilera problemak ebazteko.
Arrazoiak, proportzioak eta ehunekoak: problemak ulertzea eta ebaztea. Eguneroko eta lanbideko testuinguruetan erabiltzea: ehunekoak handitzea eta gutxitzea, beherapenak, deskontuak, zergak, etab.
Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuna: ulermena eta problemak ebazteko erabilera (eskalak, dibisa-trukeak eta abar).
Erabakiak: kontsumo arduratsua, kalitate/prezio eta balio/prezio erlazioak eguneroko testuinguruetan eta lanbide-testuinguruetan.
C. Neurriaren zentzua
Forma lauen, hiru dimentsioko eta eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko objektuen zeharkako neurriak zenbatesteko edo kalkulatzeko estrategiak.
Perimetroak, azalerak eta bolumenak: interpretazioa, formulen lorpena eta aplikazioa forma lauetan eta hiru dimentsiokoetan.
Hiru dimentsioko objektuen irudikapen laua: problemak ebazteko bistaratzea eta erabiltzea.
Marrazketa-tresnak eta erreminta digitalak: erabilera, finkatutako neurriak dituzten objektu geometrikoen marrazkiak.
D. Zentzu espaziala

Hiru dimentsioko objektuen irudikapen laua: problemak ebazteko bistaratzea eta erabiltzea.
Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak: deskribapena eta propietateen edo ezaugarrien arabeko sailkapena.
Objektu geometrikoak: eraikuntza marrazketa-tresnen, manipulazio-tresnen eta tresna digitalen (hala nola geometria dinamikoko eta errealitate areagotuko programen) bidez.
Koordenatu kartesiarrak: lokalizazioa eta erlazio espazialen deskribapena.
E. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala
Patroiak: identifikazioa eta hedapena, hainbat egitura (zenbakizkoak, espazialak, grafikoak edo aljebraikoak) osatzeko araua finkatuz.
Aldagaia: ulermena eta erlazio sinpleen adierazpena hizkuntza aljebraikoaren bidez. Lehen eta bigarren mailako adierazpen aljebraikoen arteko baliokidetasuna.
Ekuazio linealak eta koadratikoak: ebazpen aljebraikoa eta grafikoa problemak ebazteko testuinguruetan eta soluzioen interpretazioa.
Erlazio linealak, koadratikoak eta alderantzizko proportzionaltasunekoak: enuntziatu, taula, grafiko edo adierazpen analitiko baten bidez deskribatutako testuinguru-egoeretan interpretatzea.
Tresna teknologikoak: problemak ebazteko erabilera.
Algoritmoak interpretatu eta aldatzeko estrategiak. Programak eta beste tresna batzuk erabiliz aztertu daitezkeen problemen formulazioa.
F. Zentzu estokastikoa
Estatistika-azterlanak diseinatzea: galderak egitea, datuak antolatzea, taula eta grafiko egokiak egitea, kalkulagailuarekin eta kalkulu-orriarekin kokatze- eta sakabanatze-neurriak kalkulatzeko eta interpretatzeko.
Eguneroko testuinguruetan estatistika-informazioa kritikoki aztertzea eta interpretatzea, eta ondorio arrazoituak ateratzea.
Fenomeno deterministen eta ausazkoen identifikazioa. Zoria eta probabilitaterako hurbilketa: maiztasun erlatiboak. Laplaceren erregela eta zenbatzeko teknikak. Hainbat testuingurutako esperimendu sinpleei buruzko erabakiak hartzea.
G. Materia eta haren aldaketak
Teoria zinetiko-molekularra: aplikazioa eta sistema materialen propietaterik garrantzitsuenen azalpena.
Materiaren konposizioa: deskribapena atomoen eta konposatuen egiturari buruzko ezagutzetatik abiatuz.
Garrantzi handieneko edo dagokion lanbide-arloarekin lotutako substantzia kimikoen nomenklatura, IUPACen arauen arabera.
Ekuazio kimiko sinpleak: interpretazio kualitatiboa eta kuantitatiboa. Kalkulu estekiometriko sinpleak eta eragiten dieten faktoreen interpretazioa. Eguneroko bizitzan eta bizitza profesionalean duten garrantzia.
Sistema materialekiko esperimendazioa: propietateen ezagutza eta deskribapena, konposizioa eta sailkapena.
Material motak. Propietateak.
H. Interakzioak eta energia
Gorputzen mugimendua: kasu bakoitzera egokitutako magnitude zinetikoen deskribapena eta erabilera.
Sistemetan eragiten dituzten indarren eta aldaketen arteko erlazioa, eta naturan dauden indarrekin zerikusia duten eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko problemak ebazteko aplikazioa.
Energia: hipotesien analisia eta formulazioa; propietateak eta transferentzia, eta energia-adierazpenak, energiaren lorpena eta kontsumoa ingurune hurbilean sortzen dituen ingurumen-ondorioekin erlazionatuz.
Elektrizitatea: korrante elektrikoa zirkuitu sinpleetan. Magnitudeak eta horien arteko erlazioa esperimentalki lortzea. Segurtasun- eta prebentzio-neurriak.
I. Giza gorputza eta osasuna
Zelula, giza gorputzaren unitate estrukturala eta funtzionala. Mikroskopiaoren eta luparen erabilera.
Nutrizio-funtzioa eta bere garrantzia: Digestio, arnas, zirkulazio eta iraitz aparatuen anatomia eta fisiologia. Haien arteko harremana.
Ugaltze-funtzioa eta bere garrantzi biologikoa: Ugaltze-aparatua: anatomia eta fisiologia

Sexu-praktika arduratsuen garrantzia. Asertibitatea eta autozainketa. Sexu-transmisiozko infekzioen (STI) eta nahi gabeko haurdunaldien prebentzioa. Antisorgailuak eta STIak prebenitzeko metodoak behar bezala erabiltzea. Hezkuntza afektibo-sexuala pertsonen arteko berdintasunaren eta sexu-aniztasunarekiko errespetuaren ikuspegitik.
Harremanaren funtzioa eta garrantzia. Zentzumen-hartzaileak, koordinazio-zentroak eta organo eragileak: funtzionamendu orokorra.
Ohitura osasungarriak (legezko eta legez kanpoko drogen kontsumoaren prebentzioa, gorputzaren jarrera egokia, autoerregulazio emozionala, dieta orekatua, gailu teknologikoen erabilera arduratsua, ariketa fisikoa eta loaren higieena, besteak beste): daukaten garrantziari buruzko argudio zientifikoak
Immunitate-sistema, antibiotikoak eta txertoak: Gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta gainditzeko funtzionamendu eta garrantzia.
Transplanteak: gaixotasun jakin batzuen tratamenduan duten garrantziaren azterketa eta organoak emateari buruzko gogoeta.
J. Lurra sistema gisa eta garapen jasangarria
Atmosfera eta hidrosfera: Funtzioak, biosferarekin eta geosferarekin batera edafogenesia papera eta Lurreko bizitarako garrantzia.
Ekosistemak: Beraien osagai biotikoak eta abiotikoak, eta espezieen arteko eta espezieen barneko harremanak. Ikasleen hurbileko inguruneke ekosistema batzuen azterketa.
Klima-aldaketa: faktore kausalen analisia, ondorio posibleak, eta ekintza indibidual eta kolektiboen ondorio globalei buruzko gogoeta. Garapen jasangarrirako 13. Helburuarekiko ("Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea") erlazioa.
Barne- eta kanpo- fenomeno geologikoak: bereizketa, lurrazalean dituzten adierazpenen ezagutza eta planetaren dinamika globalari buruzko argudioak, plaken tektonikaren teoria kontuan hartuta.
Arrisku naturalak: fenomeno geologikoekiko eta giza jardura jakin batzuekiko erlazioa, erliebea eta naturaren zikloak errespetatzeak garapen ekonomiko eta sozialean duen garrantzia baloratuz.
K. Zentzu sozioafektiboa
Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak ezagutzeko eta jakin-mina, ekimena, pertseberantzia eta erresilientzia garatzeko estrategiak, bai eta zientzia ikasteko eta ulertzeko gozamina areagotzeko ere.
Malgutasun kognitiboa eta aldaketetara irekitzea areagotuko duten estrategiak eta, errorea ikasteko aukera bihurtzen lagunduko dutenak.
Talde-lana, jokabide enpatikoen hedapena eta gatazkak kudeatzeko estrategiak optimizatzen dituzten teknika kooperatiboak.
Jarrera inklusiboak, hala nola genero-berdintasun eraginkorra, erantzunkidetasuna, gutxiengoekiko errespetua eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasuna kultura-aberastasun gisa baloratzea.
Abusuak, erasoak, indarkeria-egoerak edo osotasun fisiko, psikiko eta emozionalaren urraketak identifikatzeko eta prebenitzeko estrategiak.

KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

Egungo gizartean bilakaera bizkorra eta haien askotariko loturak direla eta, gizabanakoei egungo errealitatearekin konprometitutako herritartasun independente eta aktibo bat gauzatzen lagunduko dieten konpetentziak garatu behar dira. Ikasleek oinarritzko hezkuntza amaitzean duten irteera-profilaren parte diren funtsezko konpetentzietan, pertsonak beren errealizazio eta garapen pertsonalerako, enplegarritasuna hobetzeko, gizarteratzea errazteko eta bizi-estilo arduratsua, iraunkorra eta osasungarria garatu ahal izateko behar dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak biltzen dira. Konpetentzia horiei esker, ikasleek behar bezala egin ahal izango diete aurre XXI. mendeko erronkei (oinarritzko heziketa-zikloen kasuan, erronka horiek lan-munduaren errealitateari lotuta egongo dira nagusiki), eta lanbide-jarduerako hainbat sektoretan espezializatutako langile kualifikatu bihurtu ahal izango dira.

Komunikazioaren eta Gizarte Zientzien esparruko curriculumaren ardatza zuzenean lotuta dago herritartasun independente, aktibo eta konprometitu hori garatzeko eta lanbide kualifikatuetan aritzeko beharrezkoa den komunikazio-dimentsioarekin, kulturarteko dimentsioarekin, herritartasun-dimentsioarekin eta dimentsio zibikoarekin. Komunikazioaren eta Gizarte Zientzien esparruko

konpetentzia espezifikoek progresio bat dakarte ikasleek aurreko eskolatzeko-urteetan eskuratu dituzten eta etapa berri honetarako abiapuntua izango diren konpetentziekin alderatuta. Etapa honetan, nolana ere, ikasleek ezaugarri espezifikoak zein haien erreperitorioak eta esperientziak hartu beharko dira kontuan, haien gizarte- eta lanbide-inklusioko bermatzeko.

Esparru honetako konpetentzia espezifikoak irteera-profileko funtsezko konpetentzien deskriptoreei lotuta daude, eta aukera ematen diete ikasleei beren betebeharrak arduraz beren gain hartzeko eta, gizarte-jatorriaren eta bilakaeraren ikaskuntzan, Europako eraikuntzan, balio demokratikoetan eta herritartasun aktiboan oinarrituta, beren eskubideak ezagutu eta baliatzeko. Gizarte-zientziekin lotuen dauden alderdiekin batera, curriculum honen komunikazio-dimentsioak gaztelaniaz eraginkortasunez eta zuzentasunez komunikatzea eta atzerriko hizkuntzan behar bezala hitz egitea eta ulertzea dakar, ikasleek beren hizkuntza-erreperitorio indibiduala zabaldu ahal izan dezaten eta, norberaren esperientziak baliatuz, komunikazio-trebetasunak hobetu ditzaten. Halaber, irakurtzeko ohituraren sustapena, kultura-aniztasunaren onarpena eta horretarako egokitzapena eta kulturarteko elkarriketarekiko errespetua eta jakin-mina oso garrantzitsuak dira.

Esparru honek, gainera, informazio-inguruneetan hobeto moldatzea ahalbidetzen die ikasleei, informazioa (ezagutza berriak eskuratzeko baliabide gisa) bilatu eta hautatzeko oinarritzko trebetasunak lotutako alderdiak biltzen baititu. Horri lotuta, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak eskuratu behar dira, eta informazioa eta komunikazioa ikasleek beharretara egokitutako zentzu kritiko batekin landu behar dira. Ildo horretan, tresna digitalen ahalmena bete-betean baliatu liteke esparru honetako ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa sendotzeko. Hori dela eta, pentsamendu kritikoaren garapena, informazio-alfabetatzea eta teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua oso ikaskuntza-elementu garrantzitsuak dira.

Esparruko ebaluazio-irizpideen bidez, konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehaztu daiteke, eta, beraz, irizpide horiek konpetentzia espezifikoei lotuta agertzen dira. Beren konpetentzia-formulazioan, ikasleek eskuratu beharreko prozesua edo gaitasuna, aplikatzeko testuingurua edo modua eta prozesu edo gaitasun horren erabilera adieraziz planteatzen dira irizpideak. Ebaluazio-irizpideen mailakatzea ikasleek heldutasunari eta garapen psikoebolutiboari lotuta dago, eta irizpideak ikasleek esperientzietara eta inguruabar eta ezaugarri espezifikoetara egokituta daudela bermatu beharko du beti.

Bestalde, oinarritzko jakintzek esparru honetako konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) biltzen dituzte, eta irizpideen bitartez ikaskuntzak ebaluatzeko aukera errazten dute. Oinarritzko jakintzak hiru multzotan egituratuta daude, eta multzo horiek esparrua osatzen duten arloei dagozkie. Gizarte-zientzien multzoak pentsamendu historikoa garatzeko eta Europako integrazioa eta balio demokratikoak ulertzeko mobilizatu behar diren jakintzak biltzen ditu, ikasleek herritartasun aktiboa eta arduratsua gauzatu ahal izan dezaten. Gaztelaniari buruzko multzoak, berriz, hizkuntza horretan eraginkortasunez eta zuzentasunez komunikatzeko gaitasunari lotutako jakintzak eta informazioa kritikoki eta jabetza intelektuala errespetatuz eskuratzeko eta ikasleengan irakurtzeko ohitura garatu eta sustatzeko beharrezkoak diren jakintzak biltzen ditu. Azkenik, lanbide-hastapeneko atzerriko hizkuntzari buruzko multzoan, atzerriko hizkuntzan hitz egiteko eta ulertzeko aukera (lanbide-esparru bakoitzeko behar espezifikoetara bideratua) eta eleaniztasunerako eta kulturartekotasunerako hurbilketa (atzerriko hizkuntzaren eta kulturaren ikaskuntzari ekiteko modu gisa) ahalbidetzen dituzten jakintzak biltzen dira, norberaren ezagutza eta esperientzietan eta erreperitorio indibidualetan oinarrituta.

Curriculum osatzen duten elementuen ikuspegia, nibelazioa eta definizioa planteatzeko, ikaskuntza ikasleek inguruabar, behar eta interesetara egokitu beharreko prozesu dinamiko, jarraitu, malgu eta irekiztat hartu da. Ikasleek gai izan beharko dute esparru desberdinen (esparru pertsonalaren, sozialaren, hezkuntza-esparruaren eta profesionalaren) berezko komunikazio-egoeretan oinarritzko jakintza guztiak abian jartzeko, betiere eguneroko gaiei, ikasleentzat garrantzi pertsonala edo profesionala dutenei edo interes publikokoei eta Garapen Jasangarrirako Helburuen eta XXI. mendeko erronken inguruko alderdiak bilduko dituztenei lotutako testuinguruetatik abiatuta. Curriculum honen

konpetentzia-izaerak diziplinarteko eta testuinguruan kokatutako zeregin esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzera eta ikaskuntza-egoera jakin batzuk garatzera bultzatzen ditu irakasleak. Ikaskuntza-egoera horietan, ikasleak gero eta autonomoagoak eta beren ikasteko prozesuarekin gero eta erantzuleagoak diren gizarte-eragileak izango dira, eta kolaborazioan lan egitea ahalbidetuko dieten eta ikasleek berek sortutako emaitza errealak izango dituzten zereginetan inplikatuak dira. Hortaz, ikasleen errepertorioak, interesak, emozioak eta inguruabar espezifikokoak hartu beharko dira kontuan, bizitza osoko ikaskuntzarako oinarriak finkatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gizarte-harremanen, jarduera ekonomikoaren, kultura-adierazpenen eta ondare-ondasunen izaera historikoa identifikatzea eta ulertzea, haien jatorriak eta bilakaera aztertuz eta gertatutako aldaketen arrazoiak eta ondorioak, egungo arazoak eta balioak identifikatuz, etorkizuneko ongizatea eta gizartearen garapen jasangarria lortzen lagunduko duten proposamenak egiteko.

Gizartean bizitzea, ingurunearekin elkarrengaitza eta ezartzen ditugun harremanak eta haien funtzionamendu-arauak ulertzea funtsezkoa da ikasleek beren eskubideak eta erantzukizunak beren gain hartu eta etorkizuneko ongizatea eta garapen jasangarria lortzen lagundu ahal izan dezaten. Gizarte-harremanek, jarduera ekonomikoek, kultura-harremanek eta ondare-ondasunek nola funtzionatzen duten eta zer balio duten ulertzeko, denboran eta espazioan gizakiak kezkatu dituzten gaiak zein izan diren eta gizartearen jatorria eta bilakaera zein izan den ulertu behar da. Hori dela eta, izan diren etapa historikoak lantzen dira konpetentzia espezifikoko honetan, ikasleek iraun duten eta aldatu diren gauzak ulertu ahal izan ditzaten. Ildo horretan, historiaren une bakoitzean egun arte gertatu diren fenomenoak eta eman diren erantzunak testuinguruan kokatu behar dira.

Konpetentzia hau eskuratzeko, gizarte-zientzien berezko estrategiak eta metodoak aplikatu beharko dira. Estrategia eta metodo horiek bizi dugun errealitatea ekarri duten alderdi geografiko eta historiko nagusiak lantzea ahalbidetuko dute. Harreman sozial, ekonomiko, kultural eta politikoen jatorria eta bilakaera ulertzea eta denboran eta espazioan gertatu diren aldaketen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea egungo mundua ulertzeko oinarria da, eta parte diren gizartearen ongizatea eta garapen jasangarria lortzen laguntzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzen dizkie ikasleei.

Konpetentzia espezifikoko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, PSIIK1, HK1, HK2, HK3, KKAK1.

2. Europako integrazio-prozesuen jatorria eta bilakaera eta prozesu horiek Espainiako, autonomia-erkidegoetako eta toki-erkidegoetako gizartearen egungo egoeran eta etorkizuneko duten garrantzia ulertzea, Estatuak eta adierazitako erkidegoek, bertako erakundeek eta gizarte-entitateek bakeari, nazioarteko kooperazioari, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari egindako ekarpena azpimarratuz, mundu seguruagoa, solidarioagoa, iraunkoragoa eta bidezkoagoa sortzen laguntzeko.

Globalizazioarekin, gizarte baten bizitza nekez uler daiteke beste herri batzuekiko harreman eta interakziotik kanpo. Herrialde baten historia ulertu ahal izateko, hedapen kultural eta teknikoko fluxu handien, harreman politikoen eta nazioarteko ekonomiaren testuinguruan kokatu behar da herrialde hori. Espainia Europako esparruan integratu izana ezinbesteko elementua da gure herrialdeko politika, gizarte eta kultura ulertzeko. Gainera, Europaren parte izateak estatu kideen arteko mugikortasuna errazten die herritarrei.

Oinarritzko mailako heziketa-zikloetako ikasleek gai izan behar dute Espainiak Europako elkartruke-sareetan bete duen zeregina eta Europar Batasuneko izateak Espainiako gizartearen egungo egoeran

eta etorkizunean dituen inplikazioak baloratzeko. Konpetentzia espezifikoa hau eskuratzera bideratutako jarduerak nazioarteko errealitatearekiko eta bizi garen munduan eta, zehazki, Europako esparruan dauden arazo eta erronkekiko interesa sustatu beharko lukete ikasleengan, gizarte globalizatu baten parte izateko konpromiso kolektiboa ulertu eta beren gain hartu ahal izateko.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KKA1.

3. Sistema demokratikoaren oinarriko printzipioak eta komunitateko bizitzaren oinarri diren printzipio konstituzionalak baloratzea, planteamendu historiko eta geografikoak eta haiek gauzatzen diren erakundeak eta bestelako erakunde politiko eta ekonomikoak kritikoki aztertuz, norberaren portaera printzipio horien betetzera egokitzeko.

Konstituzioa Espainiako lurraldean bizikidetzaren eredu osatzen duten printzipioak eta funtsak biltzen dituen arau gorenak dira. Erantzukizun zibila, herritarren ekimena, gizarte-konpromisoa, gizarte-kohesioan lagunduko duten mugimendu eta ekintzen aldeko lana eta eskubide eta askatasunen betetzea (Espainian eta mundu osoan) sustatzen ditu. Demokraziarako trantsizioaldiaren zein historia osoan gure egungo sistema demokratikoa osatzen duten ideiak eta balioak finkatu dituzten mugimendu, ekintza eta gertaeren emaitza da.

Konstituzioak, gainera, Espainiako sistema demokratikoaren oinarriko printzipioak ezartzen ditu, eta subiranotasun nazionala bermatzen du. Subiranotasun horrek herritar aktiboak behar ditu, herritar guztiak baitira botere legegilearen, betearazlearen eta judizialaren sorburu den botere publikoaren titularrak. Hori dela eta, beharrezkoa da ikasleak herritar diren aldetik dituzten eskubideez eta betebeharez jabetzea eta beren portaera printzipio demokratiko eta konstituzionalen betetzera egokitu ahal izatea. Konpetentzia espezifikoa hau eskuratzeko ikasleak herritartasun arduratsu bat agertuz eta bizitza sozial, politiko eta zibikoan bete-betean parte hartuz jokatzeko gai izango direla bermatzen du.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, HK1, HK2, KKA1.

4. Hainbat iturritan oinarrituta informazioa gero eta autonomia handiagoarekin bilatzea eta hautatzea, haren fidagarritasuna eta egokitasuna detektatutako beharren arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz, informazio hori ezagutza gisa integratzeko eta jabetza intelektualarekiko errespetatutako duen ikuspuntu kritiko eta pertsonal batekin partekatzea.

Informazioaren bilaketa, hautaketa eta tratamenduari lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ezagutzaren gizartean behar bezala moldatzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da ikasleek informazioa aurkitu, baloratu eta interpretatzeko eta informazio hori ezagutza bihurtzeko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzeko, eta informazio hori noiz behar den, non bilatu behar den eta nola kudeatu, ebaluatu eta komunikatu behar den jakitea. Horretarako, manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuko dituen ikuspuntu kritiko eta pertsonal bat hartu behar dute, eta jarrera etikoa eta jabetza intelektualarekiko arduratsua agertu behar dute.

Ikasleei, bakarka edo taldean, beren esperientzia eta interes profesional zein pertsonalaren inguruko askotariko gaiei buruzko hainbat informazio-iturri helburu jakin batzuekin kontsultatzeko aukera erraztu behar zaie. Konpetentzia espezifikoa hau aplikatzeko sortutako jarduerak heziketa-ziklo bakoitzera egokitu eta heziketa-ziklo bakoitzaren testuinguruan kokatu beharko lirake, eta lanbide-arlo bakoitzeko eduki espezifikoei eta ikasleen kultura-, gizarte- eta lurralde-esparruaren inguruko alderdi eta elementuekin lotzeko ahaleginak egin beharko lirake. Informazioa bilatu eta hautatzeko lanean, gero eta autonomia handiagoarekin jokatu behar da plangintzari eta eskuratzeko ezagutzak zabaltzeko ezarritako konbentzioekiko errespetuari dagokienez (epigrafeetan antolatzea, aipamenak egiteko

prozedurak, oharra, bibliografia eta webgrafia eta abar), betiere jabetza intelektuala errespetatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihesteko estrategiak aplikatuz. Ezinbestekoa da, halaber, sormena garatzea eta ikaskuntza berria zabaltzean testuingurura egokitzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, DK1, DK4, PSIIK4, PSIIK5, HK4, EK3.

5. Gaztelaniaz modu kooperatibo eta errespetuzkoan komunikatzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioak eta haiek hainbat esparru eta testuingurutara egokitzeko aukera kontuan hartuz, behar zehatz batzuei erantzuteko.

Ikasleen komunikaziorako konpetentzia (ulermena, ekoizpena eta interakzioa –ahozkoa, idatzizkoa zein multimodala– biltzen dituen) garatzeko, ikasleen askotariko egoera, testuinguru eta behar pertsonal eta sozialei lotutako eta haien arabera zehaztutako trebetasun espezifikoak behar dira. Hori dela eta, ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen katalogo dibertsifikatu baten interakzioa, ulermena eta adierazpena azpimarratuko dituzten diskurtso-jardunbideak garatu behar dira. Ahozko ulermenari lotutako trebetasun espezifikoaren barruan, honako hauek aipa daitezke: edukia aurreratzea, helburuaren beraren arabera informazio garrantzitsua gordetzea, gertakariak eta iritziak bereiztea, diskurtsoaren zentzu orokorra eta zatien arteko erlazioa ulertzea, eta testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea. Era berean, ahozko interakziorako beharrezkoa da hitza hartu eta emateko estrategiak ezagutzea, entzute aktiboko jarrerak agertzea, jarioarekin, argitasunez eta doinu eta erregistro egokiarekin hitz egitea eta elkarrizketa-adeitasuneko eta elkarrizketa-kooperazioko estrategiak baliatzea. Ahozko ekoizpen formalak edo bakarrizketa edo elkarrizketa bidezkoak plangintzarako marjina eskaintzen du, eta, beraz, idazteko prozesuan erabiltzen diren estrategia berak erabiltzen ditu. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodal sinkrono zein asinkronorako formatu berriak eskaintzen dituzte.

Irakurtzeko konpetentzia garatzeko, irakurtzeko ekintzaren aurretik, ekintzak dirauen bitartean eta ondoren baliatu beharreko estrategiak erabili beharko dira, ikasleak testu mota ororen aurrean irakurle trebeak eta autonomoak izan daitezzen. Testu bat ulertzeak haren zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena (irakurketaren xedearen arabera) ulertzea, informazio esplizitua barneratzea, beharrezkoak diren inferentziak egitea, testuaren azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak egitea eta testuaren formari eta edukiari buruzko gogoeta egitea esan nahi du. Azkenik, idazten jakiteak euskarri eta formatu desberdinetan idazten jakitea esan nahi du (euskarri eta formatu horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira), eta erabilera-esparruen berezko idatzizko komunikazio-jardunak gauzatzeko «moldeak» (diskurtso-generoak) ezagutu eta eskuratu behar dira. Idatzizko testu bat lantzeko prozesuak lau une ditu gutxienez: plangintza, testualizazioa, berrikuspina –autonomoa izan daitekeena, baina beste ikasle batzuekin partekatua edo irakasleak gidatua ere izan daitekeena–, eta azken testuaren edizioa. Idatzizko testuaren osaerak koherentzia-, kohesio- eta egokitasun-printzipioak zein zuzentasun gramatikala eta ortografikoa eta zuzentasun lexikoa hartu behar ditu kontuan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, PSIIK1, PSIIK4, PSIIK5, HK4, EK1.

6. Askotariko obrak gozamen- eta ezagutza-iturri gisa interpretatzea eta baloratzea, irakurketa-esperientziak partekatuz, norberaren irakurketa-identitatea osatzeko eta jarduera horren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeko, aurrerapen planifikatuko bide bat egin behar da, eta, horretarako, aldizkako denbora jarraitu bat eskaini behar zaio bakarkako irakurketari zein irakurketa partekatuari,

irakurtzeko ohitura sustatzeko eta irakurtzeko autonomia eta identitatea eratzeko estrategiekin eta egiturarekin. Konpetentzia honek obren identifikazio- eta argudio-irakurketa batetik atsegin kontzienteagoa eta landuagoa ahalbidetuko duen eta ikasleen esperientzia hurbiletik urrun dauden testuetarako atea irekiko duen irakurketa baterako trantsizioa erraztu behar du.

Funtsezkoa da irakurketa autonomoa zein irakurketa-esperientzia pertsonalaren aberastea ahalbidetuko duten kalitateko obrez osatutako testu-corpus egoki bat eratzea. Corpus horrek egungo literatura forma inprimatu eta digitalekiko eta sortzen ari diren kultura-jardunbideekiko kontaktua hartuko du kontuan. Horrekin batera, komeni da erreferente partekatuak izango dituen irakurle-komunitate bat eratzeko lan egitea, eta irakurle bakoitzari bere intereseko testuak aukeratzeko, testu horietaz jabetzen eta irakurketa-esperientzia pertsonala partekatzen lagunduko dioten estrategiak eskaintzea, eta obraren zentzua testu- eta testuinguru-elementuekin lotzea eta irakurritako obraren eta beste arte-adierazpen batzuen arteko loturak ezartzea ahalbidetuko duten interpretazio-trebetasunak era gidatuan garatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, PSIIK1, PSIIK3, PSIIK5, KKA1, KKA2, KKA3, KKA4.

7. Atzerriko hizkuntzan gero eta autonomia handiagoarekin komunikatzea, baliabide analogikoak eta digitalak eta ulermen, ekoizpen, interakzio eta bitartekotzako oinarrizko estrategiak erabiliz, behar pertsonal eta profesional zehatzei sormenez, eraginkortasunez eta arduraz erantzuteko.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko, praktikan jarri behar dira garrantzi pertsonaleko edo espezializazio-esparru profesionalaren berezko ohiko eta eguneroko gaietako buruzko ahozko ulermen, ekoizpen eta interakziorako, idatzizkorako zein multimodalerako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. Maila honetan, komunikazio-behar pertsonal zein profesionalerako erantzuteko testuak ulertu eta interpretatzea eta haien zentzu orokorra ondorioztatzea dakar ulermenak. Ikasleentzako ulermen-estrategiarik baliagarrien artean, esanahien inferentzia eta esanahien komunikazio-testuinguru berrietarako estrapolazioa, eta hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutza, trebetasun eta jarreraren transferentzia eta integrazioa daude. Bestalde, ekoizpenak (hainbat formatu eta euskarritan) testuak idaztea eta azaltzea dakar. Oinarrizko mailako heziketa-zikloetan, tresna digital eta analogikoen bidez deskribapen edo pasadizo txiki bat azaltzea, zikloaren espezializazio-esparru profesionalaren berezko gai bati buruzko aurkezpen formal bat egitea edota ikasleen lanbide-etorkizunerako baliagarriak izango diren testuak idaztea bildu dezake ekoizpenak. Formatu multimodalean, esanahia sortzeko hainbat baliabide batera erabiltzea (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar) eta, zereginaren eta kasu bakoitzeko beharren arabera, egokiena hautatu eta aplikatzea dakar ekoizpenak. Azkenik, interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko diskurtso bat osatzeko garaian. Praktikan jartzeko, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan: hizkuntza-adeitasuna eta etiketa digitala, komunikazioaren hitzezko eta ez-hitzezko elementuak, eta ahozko erregistro eta genero dialogikoetarako, idatzizkoetarako eta multimodaletarako egokitzapena, ingurune sinkronoetan edo asinkronoetan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, STEM1, DK3, PSIIK5, EK1.

8. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna kritikoki baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, errepertorio pertsonalak erabiliz eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, kulturarteko egoeretan erantzun enpatiko eta errespetuzko bat eskaintzeko.

Eleaniztasunak eta kulturartekotasunak hizkuntza- eta kultura-aniztasuna esperimendatzea, aztertzea eta hartaz baliatzea dakarte. Eleaniztasunak hizkuntza-errepertorio pertsonalak erabiltzea ahalbidetzen

du, ikasleek, beren esperientzietatik abiatuta, hizkuntza berrien ikaskuntza zabaldu eta hobetu ahal izan dezaten, eta, aldi berean, beren errepertorioa garatu eta aberastu dezaten eta beren jakin-min eta sentsibilizazio kulturala zabaldu dezaten. Bestalde, kulturartekotasunak gainerakoekin ulertzeko aukera bultzatzen du, eta arreta espezifikoa merezi du, ikasleen esperientziaren parte izan dadin, aniztasunaz duten pertzepzioa estereotipo eta aurreiritzien ondorioz desitxuratuta egon ez dadin eta hori diskriminazio motaren baten jatorria izan ez dadin. Balorazio kritikoak eta aniztasunerako egokitzapenak enpatikoki eta errespetuz jokatzeko ahalbidetu behar diete ikasleei.

Hizkuntza-aniztasunaz zein kultura-aniztasunaz jabetzeak hainbat hizkuntza eta kultura erlazionatzeko aukera ematen die ikasleei. Gainera, beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzea ahalbidetuko dieten askotariko estrategiak identifikatu eta erabiltzeko gaitasunaren garapena bultzatzen du. Konpetentzia espezifikoa honek honako hauek ahalbidetzen dizkie ikasleei: esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara irekitzea, desberdina denarekiko interesa agertuz; norberaren ikuspegia eta norberaren kultura-balioen sistema erlatibizatzea; eta diskriminazio mota orotan edo estereotipoen sendotzean oinarritutako jarrerak saihestea eta haietatik urruntzea. Eta, hori guztia, espezializazio-esparruaren berezko jardueran aritzeko beharrezkoak diren tresnez hornitzeko eta kultura partekatu bat eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun bat garatzeko helburura bideratuta.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KE3, PSIIK1, PSIIK3, HK3, KKAK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

<p>1. konpetentzia espezifikoa</p> <p>1.1 "Paisaia" kontzeptuaren bitartez ingurunea ikuspegi sistemiko eta integratzaile batetik aztertzea eta interpretatzea, haren elementu nagusiak eta dauden erlazioak identifikatuz eta, ingurune naturala, landa-ingurunea eta hiri-ingurunea defendatu, babestu, kontserbatu eta hobetzeko jarreretatik abiatuta, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratuz.</p> <p>1.2. Historian garatu diren kulturak eta zibilizazioak gaur egun arte eraiki diren identitate kolektiboekin erlazionatzea, hartzen dituzten askotariko esanahiei eta dituzten helburuei buruzko gogoeta eginez eta denboran sortu den errealitate kulturantzuna azalduz eta baloratuz.</p> <p>1.3. Ondare artistikoa, historikoa eta kulturala gure identitate kolektiboaren oinarri gisa baloratzea, babestea eta kontserbatzea, aisia- eta kultura-gozamenerako ondasuntzat eta herriak garatzeko baliabidetzat hartuz, eta legatu historikoa, instituzionala, artistikoa eta kulturala ondare komun gisa estimatuz.</p>
<p>2. konpetentzia espezifikoa</p> <p>2.1. Europako esparruaren batasun-prozesua eta Espainiako eta bertako autonomia-erkidegoetako gizartearen eraikuntzan izan duen garrantzia adieraztea eta azaltzea, haren bilakaera aztertuz eta politika nazionalean duen eragina argudiatuz.</p> <p>2.2. Europako erakunde nagusiak identifikatzea eta baloratzea, haien printzipio gidariak, funtzionamendu-arauak eta funtzioak aztertuz, nazioarteko gatazketan betetzen duten zereginari buruzko iritzia emanez eta bakeari, nazioarteko kooperazioari, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari egindako ekarpena aitortuz.</p> <p>2.3. Europako egungo errealitatea garapen jasangarriaren eta herritartasun globalaren ikuspegitik interpretatzea, konponbideen bilaketan inplikatzeko duen garrantzia eta ekintza-gaitasun indibidualetik abiatuta konponbide horiek zehazteko modua ezagutuz.</p>
<p>3. konpetentzia espezifikoa</p> <p>3.1. Sistema demokratikoaren oinarritzko printzipioak, erakundeak eta bestelako erakunde sozial, politiko eta ekonomikoak identifikatzea, interpretatzea eta aztertzea, bizikidetzeta eta komunitateko bizitza arautzen dituzten mekanismo gisa betetzen duten funtzioak azalduz.</p> <p>3.2. Historian bizikidetzeta eta elkarbizitza arautu duten mekanismoak ezagutzea eta azaltzea, gizartearen sorrerarekin hasi eta sortu diren zibilizazioekin amaitzeraino, garatu diren antolaketa sozial eta politikoko eredu nagusiak adieraziz.</p> <p>3.3. Ingurune hurbileko harreman pertsonal eta sozialetan diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzea, norberaren eta besteen portaerei buruzko iritzia emanez eta jarrera sistema demokratikoaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak egokitzeko jarraibide eta ekintza egokiak ondorioztatuz.</p>

4. kompetentzia espezifikoa
4.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitzea eta antolatzea, haren fidagarritasuna eta egokitasuna planteatutako helburuaren eta premien arabera ebaluatuz.
4.2. Hainbat iturritatik abiatuta, eduki propioak gero eta autonomia handiagoarekin lantzea, informaziorik egokiena bilatuz eta hautatuz, jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuko dituen ikuspuntu kritiko bat hartuz eta kontsultatutako iturriak aipatuz.
4.3. Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategia analogikoak zein digitalak aplikatzea, manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz.
5. kompetentzia espezifikoa
5.1 Hainbat esparrutako ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuen (komunikazio-beharren arabera) eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, haien kalitatea eta fidagarritasuna eta erabilitako kanalaren egokitasuna ebaluatuz.
5.2. Hezkuntza-interes eta interes pertsonal, ekosozial eta profesionaleko gaiei buruzko ahozko azalpenak hainbat plangintza-mailarekin egitea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, jarioarekin, koherentziarekin eta erregistro egokiarekin, hainbat euskarritan eta hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak erabiliz.
5.3. Idatzizko testuen eta multimodalen idazketa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzaila, asmoa eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, eta azken testu koherente eta kohesionatu bat aurkeztea, erregistro egokiarekin, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.
5.4. Ahozko interakzio informaletan, talde-lanean eta elkarriketa-izaerako ahozko egoera formaletan modu aktibo eta egokian parte hartzea, entzute aktiboko jarrerekin eta elkarriketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasuneko estrategiekien.
6. kompetentzia espezifikoa
6.1. Norberaren gustu, interes eta beharren arabera hautatutako testuak autonomiarekin irakurtzea, norberaren irakurketa- eta kultura-ibilbidean egindako aurrerapena jasota utziz eta irakurgaiak hautatzeko irizpideak azalduz.
6.2. Askotariko euskarrietan irakurtzeko esperientzia partekatzea, obraren zentzua haren elementu formalekin eta testuinguru-elementuekin lotuz eta irakurritako testua beste arte-adierazpen batzuekin lotuz, gaien, egituren, hizkuntzaren eta balio etiko eta estetikoaren arabera.
7. kompetentzia espezifikoa
7.1. Argi eta garbi eta atzerriko hizkuntzaren erregistro estandarrean adierazitako ohiko eta eguneroko, garrantzi pertsonaleko edo espezializazio-esparru profesionalaren berezko gaiei buruzko ahozko testu, idatzizko testu eta testu multimodalak labur eta sinpleen zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea.
7.2. Atzerriko hizkuntzan, ahozko testu, idatzizko testu eta testu multimodalak laburrak, sinpleak, egituratuak, ulergarriak eta komunikazio-egoerara egokituak ekoiztea, ezarritako jarraibideei jarraituz eta tresna eta baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz.
7.3. Atzerriko hizkuntzan, eguneroko, garrantzi pertsonaleko edo esparru profesionalaren inguruko gaiei buruzko egoera interaktibo sinkrono eta asinkronoetan, labur eta sinpleetan parte hartzea, hizkuntza-adeitasunarekiko, etiketa digitalarekiko eta solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko enpatia eta errespetua agertuz.
7.4. Atzerriko hizkuntzan komunikazioa hasi, jarraitu eta amaitzeko, hitza hartu eta emateko eta argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko estrategia egokiak erabiltzea, era gidatuan eta esperientziaren inguruko ingurune pertsonal eta profesionaletan.
8. kompetentzia espezifikoa
8.1. Kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko, hizkuntza eta kultura desberdinen artean loturak sortuz eta esparru pertsonal eta profesionaleko komunikazio-testuinguruetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo mota oro baztertuz.
8.2. Atzerriko hizkuntza komunikatzeko eta ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin.
8.3. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aberaste pertsonalerako iturri gisa onartzea eta baloratzea, iraunkortasuna eta demokrazia sustatuko dituzten kultura- eta hizkuntza-elementuak partekatzeke interesa agertuz.

A. Gizarte Zientziak.	
Gizarte Zientzien helburuak eta estrategiak: prozedurak, terminoak eta kontzeptuak.	
Iturri historikoak eta arkeologikoak, ezagutza historikoa eraikitzeke oinarri (artxiboak, liburutegiak, museoak eta abar).	
Giza migrazio handiak eta lehen kulturen sorrera.	
Mendebaldeko munduaren sustrai klasikoak: kultura-identitateen eta eurozentrismoaren eraikuntza pentsamenduaren eta artearen bitartez.	
Munduko, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko historiako mugari nagusiak: arrazoi eta ondorio sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak.	
Hiria eta landa-mundua historian: polisak, hiri handiak, hiriak, hiribilduak eta herrixkak.	
Giza aztarna eta ingurumen-ondarearen eta ondare historiko, artistiko eta kulturalaren kontserbazioa, babesa eta defentsa.	
Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa izan diren zibilizazioetan.	
Europako herritartasuna eta herritartasun globala: identitate komuna osatzeko ideiak eta jarrerak.	
Europako eraikuntza-prozesua: integrazio ekonomikoa, moneta-integrazioa eta herritartasun-integrazioa.	
Europako erakundeak: jatorria, oinarrizko printzipioak, funtzionamendua eta funtzioak.	
Identitate-taldeak (ideologiak, nazionalismoak eta nazioz gaindiko mugimenduak).	
Identitate-taldeak (ideologiak, nazionalismoak eta nazioz gaindiko mugimenduak).	
Gizarte-aniztasuna eta kulturartekotasuna: gizarteratzea eta gizarte-kohesioa.	
Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioz gaindiko arau-ordenamendua.	
Konpromisoa eta ekintza Garapen Jasangarrirako Helburuen aurrean.	
Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: jatorria, justifikazioa eta eguneroko bizitzan dituen inplikazioak.	
Sistema demokratikoa: eraikuntza, oinarrizko printzipioak eta ereduak.	
Erakundeak eta bestelako erakunde sozial, politiko eta ekonomikoak.	
Gizarte-konpromisoa: bitartekotza, gatazken konponbide baketsua eta proiektu komunitarioak.	
Bizikidetzeta zibikoa eta kultura demokratikoa: gizarte zibilean txertatzeko eta inplikatzekeo estrategiak.	
Antolaketa sozial eta politikoa historian: gizakiaren eraldaketa politikoa (morrontzatik herritartasunera).	
Legea kontratu sozial gisa: herritartasunaren eraketa eta gauzatzea.	
Diskriminazioak: arrazoiak eta ondorioak.	
B. Gaztelaniazko komunikazioa.	
1. Informazio-alfabetatzea	Informazio-iturriak: informazio fidagarria, egokia eta kalitatekoa bilatu eta hautatzeko irizpideak.
	Jabetza intelektuala.
	Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak.

	Manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak eta ondorioak.
	Informazioa antolatzekeko estrategiak: idazketa pentsamendua antolatzekeko mekanismo gisa (oharrak, eskemak, kontzeptuzko mapak, laburpenak eta abar).
	Aipamen eta erreferentzia bibliografikoak.
	Informazioaren teknologiak. Informazioa bilatzeko gailuak, aplikazio informatikoak eta plataforma digitalak.
2. Komunikazioa.	Hainbat esparrutako ahozko testuak, idatzizkoak eta multimodalak ekoizteko, ulertzeko eta kritikoki aztertzekeko estrategiak, honako alderdi hauek batera kontuan hartuta:
	Testuingurua: Komunikazio-ekintzaren osagaiak: egoeraren formalitate-maila eta izaera publikoa edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioaren ez-hitzekeko elementuak.
	Oinarritzko testu-sekuentziak (narratiboak, deskriptiboak, elkarrizketatuak, azalpenezkoak eta argudiozkoak).
	Testu-propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.
	Esparru pertsonalaren berezko diskurtso-generoak: elkarrizketa, solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa-egintzak bereziki kontuan hartuz (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).
	Hezkuntza-esparruaren berezko diskurtso-generoak.
	Gizarte-esparruaren berezko diskurtso-generoak. Sare sozialak eta komunikabideak. Etiketa digitala eta desinformazioari, manipulazioari eta pribatutasunaren urraketari lotutako arriskuak. Testu ikoniko-hitzekeko eta multimodaletako irudiaren eta elementu paratestualen azterketa.
	Lanbide-esparruaren berezko diskurtso-generoak: curriculum vitae, motibazio-gutuna eta lan-elkarrizketa.
	Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala. Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-adeitasuna. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarrizketa bidezko konponketa.
	Ahozko ulermena: testuaren zentzu orokorra, zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatzeko eta gogoan gordetzeko jarraibideak. Igorlearen asmoa.
	Hitzekeko eta ez-hitzekeko hizkuntzaren diskriminazio-erabileren detekzioa. Testuaren formaren eta edukiaren balorazioa.
	Ahozko ekoizpen formala. Informazioaren plangintza eta bilaketa, testualizazioa eta berrikuspina. Entzuleenganako eta azalpen-denborarako egokitzapena. Ez-hitzekeko elementuak. Ahozkotasan formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Argudiatutako ahozko deliberazioa.
	Irakurrizko ulermena: testuaren zentzu orokorra eta zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Hitzekeko hizkuntzaren eta ikonikoaren diskriminazio-erabileren detekzioa. Testuaren formaren eta edukiaren balorazioa.
	Idatzizko ekoizpena. Plangintza, idazketa, berrikuspina eta edizioa hainbat euskarritan. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa. Zuzentasun lexikoa. Idazketaren erabilera pentsamendua antolatzekeko: oharrak, eskemak, kontzeptuzko mapak, laburpenak eta abar.
	Testuetan igorleak duen inplikazioa erakusteko hizkuntza-baliabideak: deixi motak (pertsonala, denborazkoa eta espaziala) eta modalizazio-prozedurak.
	Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak.
	Kohesio-mekanismoak. Testu-konektoreak. Barne-erreferentziatzko mekanismo gramatikalak (ordezpen pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak).
	Hitzekeko formen erabilera koherentea testuetan. Lehenaldiak narrazioan. Denbora-korrelazioa kontatutako diskurtsoan.
	Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografiko eta gramatikala Euskarri analogiko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.
	Puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzekeko mekanismoak. Esanahiarekin duten lotura.
3. Literatura-hezkuntza.	Literatura-ondare nazionalako eta unibertsaleko eta egungo literaturako obra garrantzitsuen irakurketa gidatua.

	<p>Irakurketan gero eta autonomia handiagoarekin inplikatzen diren estrategiak, eta irakurritako testuei eta ereduari oinarritutako irakurketari berari buruzko gogoeta.</p> <p>Obren interpretazioa eta partekatutako egiteko estrategiak. Literatura-eztabaidak edo literatura-elkarrizketak.</p> <p>Obraren zentzuaren eraikuntza, elementu formalei eta testuinguru-elementuei buruzko azterketatik abiatuta. Adierazpen-baliabideen ondorioak harreran.</p> <p>Esperientzia pertsonala, irakurketa-esperientzia eta kultura-esperientzia mobilizatzeko eta, era horretan, irakurritako obraren eta egungo alderdien arteko loturak eta beste testu eta arte-adierazpen batzuekiko loturak argudioekin ezartzeko estrategiak.</p> <p>Irakurketa-esperientziaren eta irakurritako testuak barneratzeko eta birsortzeko moduen adierazpena, ereduaren bitartez.</p> <p>Irakurritako testuen eta beste testu batzuekiko (ahozko, idatzizko edo multimodalekiko), beste arte-adierazpen batzuekiko eta fikzio mota berriekiko erlazioa eta konparazioa, gaien, egituren eta hizkuntzen arabera.</p> <p>Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa eta errezitatzea, inplikatutako ulermen-, bereganatze- eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.</p> <p>Testuen sorkuntza, literatura-hizkuntzaren konbentzioen bereganatzeetik abiatuta eta emandako ereduari oinarrituta (imitazioa, eraldaketa, jarraipena eta abar).</p>
4. Hizkuntzari buruzko gogoeta	<p>Inguruko hizkuntza-aniztasunaren azterketa. Hizkuntza-biografia.</p> <p>Espainiako hizkuntzen eta gaztelaniaren dialekto-aldaeren ezagutza. Zeinu-hizkuntzak. Hizkuntza-aurreiritziak eta hizkuntza-estereotipoak ikertu eta zalantzan jartzeko jarraibideak.</p> <p>Hizkuntza-sistemari buruzko ondorio propioak era gidatuan osatzeko estrategiak. Komunikazio-unitateen behaketa, konparazioa eta sailkapena (morfemak, hitzak, perpausak). Egituren manipulazioa, hipotesien formulazioa, kontradibideak, alderdi orokorrak eta hizkuntzen arteko kontrastea, metahizkuntza espezifikoak erabiliz.</p> <p>Hitzak eskuratu eta osatzeko prozedurak. Hitzen esanahian gertatutako aldaketei eta hitzen eta haiek testuinguruaren eta komunikazio-xedearen arabera dituzten balio denotatibo eta konnotatiboaren arteko erlazio semantikoei buruzko gogoeta.</p>
C. Atzerriko hizkuntzako komunikazioa	
Autokonfiantza. Errorea, hobetzeko tresna eta zuzentzeko proposamen gisa.	
Ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalaren ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta zuzentzeko oinarritzko estrategiak.	
Esparru pertsonal eta profesionaleko oinarritzko komunikazio-funtzioak, komunikazio-testuingurura egokituak: diosala egin, agurtu eta bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazioa eskatu eta elkartrukatzea; argibideak eta aginduak ematea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta baztertzea eta abar.	
Oinarritzko diskurtso-generoak eta testuinguru-ereduak ahozko testu labur eta sinpleen, idatzizkoen eta multimodalaren ulermenean, ekoizpenean eta baterako ekoizpenean: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako aurreikuspenak, eta generoaren, testu-funtzioaren eta egituraren arabera antolatuta eta egituraketa.	
Oinarritzko hizkuntza-unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren propietateen adierazpena, kantitatea eta kalitatea, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, oinarritzko erlazio logikoak.	
Esparru pertsonal eta profesionalean erabili ohi diren lexikoa, esaldiak eta esaerak.	
Oinarritzko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak eta patroiei lotutako esanahi eta asmo komunikatibo orokorrak.	
Formatu, patroiei eta elementu grafikoei lotutako oinarritzko konbentzio ortografikoak eta esanahi eta asmo komunikatiboak.	
Ahozko ulermen, ekoizpen eta baterako ekoizpenerako, idatzizkorako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak; eta proiektuak atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasi, komunikatu eta garatzeko hezkuntza-erlazio interakzio eta kolaborazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, kolaborazio-tresna digitalak eta abar).	
Hizkuntzen arteko oinarritzko konparazioa, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.	

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Atzerriko hizkuntza, pertsona arteko eta nazioarteko komunikazio-baliabide, informazio-iturri eta aberaste pertsonalerako tresna gisa.
Esparru pertsonalean eta profesionalean atzerriko hizkuntzako hiztunekin komunikazio-trukeak hainbat baliabideren bidez egiteko interesa eta ekimena, hainbat bitartekoren bidez.
Eguneroko bizitzari eta espezializazio-esparru profesionalaren berezko egoerei lotutako oinarritzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak.
Hizkuntza-adeitasuna eta etiketa digitala.
Balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko estrategiak.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

IKAS-EGOERAK

Irteera-profilaren barruko konpetentziak erreferentzia dira curriculum antolatu eta garatzeko, baita funtsezko jakintzak hautatzeko ere. Testuinguru horretan, konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko prozesua zenbait printzipio metodologikorekin bultzatuko da:

- Ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan duten protagonismoa nabarmenduko da, askotariko baliabide metodologikoen bidez (ikerketa-metodologiak, zuzeneko irakaskuntza, ezagutzaren eraikuntza kolektiboa eta ikaskuntza-ingurune pertsonalen garapena, besteak beste).
- Testuinguruan kokatutako ikaskuntza adierazgarria, garrantzitsua eta integratzailea sustatuko da, testuinguruko nahiz curriculumeko elementuak artikulatuko dituena. Ikasleek informazioa erabili eta aplikatzeko aukerak izango dituzte, eta iritzia eraiki ahal izango dute polemika baten testuinguruan, fenomeno baten azalpenean edo problema baten irtenbidearen eraikuntzan.

Ildo horretatik, ikas-egoerek printzipio horiei erantzuten diete, funtsezko jakintzak eskuratu, aktibatu eta erabiltzeko testuinguru egituratua proposatzen baitute konpetentzien ikuspegitik.

Ikuspegi hori zuzenean lotzen da irteera-profilean eragina duten zortzi hezkuntza-konpetentzia hauekin:

- Komunikaziorako konpetentzia
- Konpetentzia eleaniztuna
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako konpetentzia
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- Herritartasunerako konpetentzia
- Ekintzailatza-konpetentzia
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

Planteatu denez, ikas-egoera batek abiapuntu zehatz batetik (problema, erronka, desafio edo galdera) azken produktu bat egitera eramango duen ibilbide didaktiko bat ezartzen du, testuinguru espezifiko jakin batean.

Ikas-egoera baterako abiapuntu baten adibideak izango lirateke, adibidez, ikasleek planteatutako gai interesgarri bat, fenomeno baten behaketa, gertaera bati buruzko polemika bat, arreta sortu duen informazioa, gizarteari oro har edo ikasleen inguruari eragiten dion problematika bat, errealitateko elementu bati buruzko galdera bat, problema batetik abiatutako ikerketa bat, ikastetxeaz kanpoko eragile batek planteatutako behar bat, ulertu beharreko dilema bat...

Ibilbide didaktiko hori osatzen duten zereginen eta jardueren diseinuak eta inplementazioak ahalbidetuko du jakintza desberdinak eskuratzeko (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), hori baita konpetentzien garapenaren oinarria. Arlo edo ikasgai bati baino gehiagori, normalean, dagozkien jakintzak txertatu eta konbinatuz egindako garapena da, planteatzen den egoera interpretatzea ahalbidetuko duena.

Problema konplexuei ekiteak sustatzen du ikasten duen pertsonak arrazoitzea, imajinatzea, planifikatzea, aztertzea, ikertzea, baliabideak kudeatzea, autorregulatzea, modu kolaboratiboan lan egitea, ebaluatzea, bere ikaskuntzak komunikatzea eta, horretarako, interes komunarekin zerikusia duten alderdiak sustatzea, hala nola, desberdintasunei aurre egiteko erronka, kontzientzia globala edo

bizikidetzaren demokratikoa. Alderdi horiek, beraz, funtsezkoak dira ikasleak XXI. mendeko erronkei eraginkortasunez erantzuteko gai izango badira.

Egoeretan oinarritzen den ikaskuntzak, askotan, berarekin dakar kultura-produktu bat edo komunitaterako zerbitzu bat egitea. Produktu horiek prestatzean, konpetentzien ikasketa erraztuko duten prozesuak eragiten dira, hau da, jakintza-esparruen arteko mugak gainditzen dituzten prozesuak. Ikas-egoera batean landutako produktuak izan daitezke: aurkikuntzak edo lortu diren ondorioak publiko jakin batekin partekatzea, ahozko azalpen baten bidez; erakusketa bat antolatzea eta, gidari moduan, azaltzea; informazio-liburuxkak egitea, artea bitarteko gisa erabiliz; gizartean hausnarketa eragingo duten aldarrikapen-ekintzak egitea; elkartasun-kanpainak diseinatu eta gauzatzea; ikasleen eta irakasleen artean erabakiak diseinatu, prestatu eta hartzea, ondorioak jasoko dituen blog bat egiteko;...

Proposamen didaktiko guztietan bezalaxe, zereginak eta jarduerak zenbait fasetan antolatuko dira, eta fase horietan ikasteko jarduerak sartuko dira, tartean direla gogoeta eta autorregulazioa azpimarratuko duten prestakuntza-ebaluazioko jarduerak. Hartara:

1. **Hasierako fasean**, proposatuko dira ingurunea taldean hautemateko jarduerak, ikasleen errealitate adierazgarria aztertu eta problematizatzeko jarduerak, alde aurreko ikaskuntzekin eta motibazioarekin lotzeko jarduerak, eta ikaskuntza-helburuak, ebaluazio-irizpideak eta plangintza-jarduerak partekatu eta adosteko jarduerak.
2. **Garapen fasean**, zenbait ingurunetan (analogikoetan nahiz digitaletan) informazioa bilatu, prozesatu eta interpretatzeko jarduerak egingo dira, baita aurreko ideiekin alderatzeko jarduerak, errealitatea ulertzeko ereduak egituratu eta eraikitzekeo jarduerak eta autorregulazio-jarduerak ere.
3. **Amaierako fasean**, aplikazio jarduerak eta zereginak egingo dira, baita abstrakzioa eta antzeko beste testuinguruetarako transferentzia bultzatzen duten jarduerak, azken ekoizpenaren komunikaziorako jarduerak, entzute errealean aurrean egindako ikaskuntzak eta ebaluazio-jarduerak ere.

Egingo diren ikaskuntzek bizitza errealetik hurbil dauden egoera pertsonal, akademiko edo sozialei aurre egiteko baliozkoak izan beharko dute, benetako esanahia izan behar dute, eta ikasleentzat adierazgarriak diren problemak kudeatzeko baliabideak eskaini behar dituzte.

Ikaskuntzak testuinguruan kokatzeko prozesua osatze aldera, transferituak izateko aukera izan behar da, konpetentziek jarduteko moduak sortzen baitituzte eta, hartara, elkarrengandik hurbil dauden testuinguru eta egoeretan moldatzeko aukera ematen baitute.

Ikaskuntza-egoera diseinatzea, praktikan jartzea eta ebaluatzea irakaskuntzarako tresna didaktiko eta metodologiko garrantzitsua da ikasle guztientzako hezkuntza- eta konpetentzia-ikuspegi batean lan egiteko; era berean, irakasle-taldeko beste kide batzuekin eta kanpoko eragileekin komunikatzeko tresna garrantzitsua da.

Ikas-egoerak diseinatzean, aurreko elementuez gain, elkarrekin lotuta dauden honako elementu hauek ere hartuko dira aintzat:

- a. **Ikas-egoeraren identifikazioa** (arloan inplikatuak, ikasle hartzaileak, saio kopurua, titulua...)
- b. **Ikas-egoeraren esparrua edo ikuspegia:**
 - Testuingurua: pertsonala, soziala, akademikoa, kokatzen den ingurunea deskribatzen duena.
 - Abiapuntu gisa baliagarria den problema, erronka, desafioa edo galdera: erantzuna edo irtenbidea eman behar zaion testuingurutik sortzen dena.

- Espero den produktua zehazten duen amaierako zeregina.

c. Ikas-egoeraren curriculum- eta antolamendu-elementuak:

- Curriculumaren justifikazioa edo argudioa, adieraziko dituen funtsezko kompetentziekiko lotura, inplikaturako arlo edo ikasgaien kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta curriculumaren funtsezko jakintzak. Ikas-egoerarako formulaturako helburu didaktikoak.
- Faseen arabera antolatutako jardueren proposamena: hasierako fasea, garapeneko eta amaierakoa. Ikaskuntza-jarduerena zein ebaluazio-jarduerena. Barnean direla Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsaleko estrategiak eta ebaluazio-adierazleak, fase bakoitzean.
- Antolaketa, metodologiak eta baliabideak.
 1. Espazioen erabilera.
 2. Hautaturako printzipio eta estrategia metodologikoak. Taldekatzeko moduak eta talde-lana.
 3. Baliabide pertsonalak eta materialak, ingurune analogikokoak eta digitalekoak.
- Ebaluazio-prozesuak eta -tresnak

Ebaluazio-tresna analogikoen eta digitalen erabilera, ebaluazioaren prestakuntza-ikuspegitik eta ikas-egoeraren adierazleak kontuan izanik.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

ORDUTEGIAK

Lehen Hezkuntzako ordutegiak

	Erref ordut ziki, ikasg			Erref ordut ziki, eremuka 1			Erref ordut ziki, eremuka 2		
	1.	2.	3.	1.	2.	3.	1.	2.	3.
Gutxien Ordutegia									
Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza	17	7	6	13	14	12	13	16	15
Matematika	17	7	6						
Heziketa fisikoa	13	4	4	6	5	4	6	5	4
Gaztelania eta Literatura	17	7	6	14	16	15	14	14	12
Euskara eta Literatura	17	7	6						
Atzerriko Hizkuntza	14	6	6	4	6	6	4	6	6
Arte Hezkuntza	9	3	3	4			4		
Tutoretza	6	2	2	2	2	2	2	2	2
Erijihoa/ Komunitaterako proiektua	6	2	2	2	2	2	2	2	2
Balio zibiko eta etikoak	2	0	2	0	0	2	0	0	2
Jolas garaia	15	7,5	5	5	5	5	5	5	5
Proiektua // Monografikoa		0	2	0	0	2	0	0	2
Ikasketxearen erabilera librea	17								
GUZTIRA	150	50	50	50	50	50	50	50	50

2023ko ekainaren 9a, ostirala

DBHKO ORDUTEGIAK

	Ordutegi minimoa				Erreferentziako ordutegia				Erreferentziako ordutegia-eremua			
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
Bio- geo (natura zientziak 1. eta 2.)	3			**	3	3	2	**	8	9	2	**
Fis- Kim (natura zientziak 1. eta 2.)	3			**		3	3	**			2	**
Matematika	8			2	4	4	3	3			4	3
Gorputz Hezkuntza	6			2	2	2	2	2	2	2	2	2
Geografia eta historia	6			2	3	3	3	3			3	3
Gaztelania eta Literatura	9			3	3	3	3	3	9	9	3	3
Euskara eta Literatura	9			3	3	3	3	3			3	3
Atzerriko Hizkuntza	6			3	3	3	3	3	3	3	3	3
Plastika, ikusizko eta ikus-entzuzeko Hezkuntza	3				1	2	0		0	2	1	0
Musika	3			**	2	1	1	**	2	1	0	**
Tutoretza	3			1	1	1	1	1	1	1	1	1
Erijihoa/Proiektu komunitarioa	3			1	1	1	1	1	1	1	1	1
Teknologia				**				**			0	**
Teknologia eta digitalizazioa		5				2	3		0		3	0
Balio etikoak eta zibikoak	2				2				2	0	0	0
Hautazkoa	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Atzerriko 2. Hizkuntza				**				**				**
Ekonomia eta ekintzaitza				**				**				**
Adierazpen artistikoa				**				**				**
Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala				**				**				**
Latina				**				**				**
Digitalizazioa				**				**				**
Ikastetxearen eskaintza propioa	15			2	21	30	30	21	30	30	30	21
	90											